

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Soraluze*



Aurkibidea

# Udalerria: Soraluze

## Sarrera



Soraluze edo Plazentzia Bergara eta Eibar artean dago kokatuta, eta herriko hizkerak ere tarteko ezaugarriak ditu.

"Hautxerrixa" deitzen diote inguruko herrietan, "hautsa" ahoskatu beharrean "hautxa" esaten dutelako bertakoek. Eta antzera: "hutxa" (hutsa), "dotxat" (dotsat, diot), "notxan" (notsan, nion)... Langile eta alai ospea dute soraluzetarrek, eta hori argi geratzen da herrian egindako grabazioetan. Argazkia [Wikipediatik](#) hartua.

- **Biztanleak:** 3.996
- **Euskaldunak:** %59,3

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **85**
- Zintak: **117**
- Pasarteak: **1.272**
- Transkribatutakoak: **233**
- Audioak: **146**
- Bideoak: **702**

## Proiektuak

- Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea
- Eibarko ermitak
- Eibarko ondare industrialak
- Erditzea erdigunera: begirunea eta indarkeria gorpuzten dituzten bizipenak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Euskararen historia soziala Elgoibarren
- Gazte gara gazte
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- Soraluze 1936
- Soraluzeko euskara eta ahozko ondarea

## Hizlariak

### **Inazio Agirrebeña Osa *Agiñamaltza* (1936)**

Inazio  
Agirrebeña

Bergarako Basalgo auzoko Korostadi ("Kostei") baserrian jaio zen, baina bera mutikoa zela Soroluzeko Aginaga baserrira joan zen bizitzera familia osoa. Zortzi anai-arreba izan ziren. 11-12 urterekin senideak zituzten Ibarrola baserrira joan zen morroi. Bergaretxe baserriko [Eugeni Ubera](#)arekin ezkondu zen eta Eibarren jarri ziren bizitzen. Lantegietarako piezak akabatzen (leuntzen) lan egin zuen zenbait urtez. Gero, Laster lantegian sartu zen eta hamar urte inguru egin zituen bertan, konpasak egiten. Handik atera ostean, lantegietarako piezak akabatzen jarraitu zuen, Coliseo inguruko lokal batean. Langileak behar zituztela-eta, Star lantegian ere egin zuen urtebete inguru. 1977an, egin berria zen Iturburu ikastolako atezain lana hartu zuen eta bertara joan zen bizitzera familia osoarekin.

### **Jose Frantzisko Aizpuru *Atxito***



Soroluzekoa. Umetan ibaiaren inguruan egiten zuten jolas. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.

### **Lorea Alberdi (1933)**



1933an jaioa. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Ezoz](#)i [Onandia](#) lagunarekin batera.

### **Moises Alberdi Egaña (1941-2017)**



Gabolatzen bizi izandakoa. Gaztetan sarri jarduten zuen arrantzan errekan.

### **Oscar Aldazabal Lacuesta (1949)**



### **Jose Antonio Amuategi Casero (1933)**



Eibarren jaio zen 1933an. Lau anai arreba ziren, bi neska eta bi mutil. 1936an Bilbora eraman zuten senideek, gerratik ihesi, eta zazpi urte egin zituen arte bertan egon ziren. Bilbotik Eibarrera itzuli ziren, baina 12 urte zituela Sorluzera joan ziren bizitzera, Orbeaneko etxera. 1961ean hil zitzaion aita, artean Sorluzen bizi zirela. Deba ibaian eta Sagar errekan asko ibiltzen ziren. Deba ibaiaren inguruko ondarea jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.

### **Joxepa Ansola Andoaga (1932)**



Agirrebeiztegi baserrikoa. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.

### **Margarita Aranberri Laskurain (1914-2013)**



1914an San Andres auzoko Goenetxe baserrian jaio eta zortzi anai-arrebekin batera hazitakoa. Ezkondu zenean auzoko Ozuma baserrira joan zen bizi izatera. Bere senar Pedro Laskurainekin batera egin zitzaion grabazioa.

### **Natividad Aranberri Laskurain (1915-2012)**



1915eko Natibitate egunean San Andres auzoko Goenetxe baserrian jaio eta zortzi anai-arrebekin batera hazitakoa. Ezkondu aurretik etxeak garbitzen eta josten ikasten jardun zuen. 1942an Eibarko Jose Atxarekin ezkondu eta Aseginolaza berri baserrira joan zen bizi izatera. Zazpi seme-alaba izan zituen eta egunero plazara joaten zen saltzera, 1968an kalera bizi izatera joan zen arte.

### **Miren Aranzamendi Uriarte (1922)**

Otolaneko okindegiko etxean jaio zen. Gaztaroko urte batzuk Frantzian eman zituen gerratik ihesi joan ondoren. Patricio Arribas Zabaletarekin ezkondu zen 1946an. Baltegietan eta Errekalden bizi izan zen. Argaratenean lan egin zuen urte batzuetan, torlojugintzan.

**Gregori Argarate Arizaga (1916-2011)**



1916ko abuztuaren 25ean jaio zen, Harkaitz baserrian (Soraluze). Errege etxean zegoen eskola nazionalan egin zituen ikasketak eta doktrina ikasteko, berriz, eskola partikularretara joan zen. Lana egin zuen Algodonera Artetxe e Hijos fabrikan (Osintxun) eta Lesarri baserrian. Geroztik Soraluzen bizi izan da. Alfontso Zangituren emaztea. Biak batera elkarrizketatu genituen.

**Jaime Aristi Artolazabal (1939)**



Atxuri kaleko 17 zenbakian bizi izandakoa. Herrian zeuden 3 txanaletako baten jabea zen bere aita. Jaime sarri ibili zen aitarekin arrantzan, harik eta lantegietako isurketen ondorioz ibaia guztiz zikindu zen arte.



**Juan Arizaga Larreategi (1927-2009)**

San Andres auzoko Korta baserrian jaioa.

**Marisol Ariznabarreta Oregi (1945)**



San Andres auzoko "Bozkoitxi" (Bagozkoitia) baserrian jaio zen. Gaztetan sarri joaten zen plazara saltzera, baita bertako giroa ikustera ere, bere jaiotetxea kaletik hurbil dago eta. Auzo bereko Obe baserrira ezkondu zen.



**Elene Arluziaga Basauri (1920-2011)**

Gerra hasieran Donostian bizi izan zen baina Soraluzera etorri eta familiarekin ihes egin zuten.

**Jose Luis Axpe Lizarralde**



Elizburun jaio zen. Bost urterekin joan zen Txurrukanera. Ume-umetatik ibiltzen ziren ibaian. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Javier Gabilondo](#)rekin batera.

### **Julian Bandaormaetxea Barrenetxea (1924)**



Gurasoak kalean bizi ziren arren, Izarre baserrira eraman zuten jaiotzeko orduan, amaren ahizpa bertan bizi zen eta. Umetan herriko eskolan ibili zen. 1958an ezkondu zen eta Santa Ana kalean bizi izan da emaztearekin. 13 urterekin kanoi-fabrikari hasi zen lanean aitarekin batera. Gero Txokolorenean jardun zuen torlojugintzan.

### **Jesus Mari Barruetabeña**



Soraluzekoa, Txurrukenekoa. Umetan ibai inguruan egiten zuten jolas, batez ere opor sasoiari. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, Txaro Maiztegirekin batera.

### **Jesus Juan Benito**



Soraluzekoa. Umetan ibaiaren inguruan egiten zuten bizimodua. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Iñaki Laskurainekin](#) batera.

### **Jose Berrueta Elizburu (1921)**



Soraluzeko Santa Ana kalean jaio zen, bederatzi anai-arrebatatik laugarrena. Ama bertakoa zen eta aita, berriz, Durangokoa. Soraluzen eskolatu zen bost urtetik hamalaura arte. Inozentio Madinaren torloju-lantegian jardun zuen gerra aurrean. Gerraostean kanoi-lantegian jardun zuen lanean, eta soldaduskako zati bat ere bertan egin zuen. Eibarko Nicolas Correaren lantegian ibili eta gero, Osintxuko Soraluze Kooperatiban bazkide tu zen. 23 urte zituela futbol arbitro titulua atera zuen. Eibarko Ipurua zelaia inauguratu zutenean, Josek marrazain lanetan jardun zuen. Soraluzeko El Diario Vascoko korrespondentsala ere izan zen. Soraluzeko traineru probak, trena errailetik irten zenekoa eta beste albiste bitxi batzuk kontatzen ditu. Osintxuko Untzueta erdiko baserriko Serapia Bergaretxerekin ezkondu zen.

### **Federiko Eguren**



Gerra amaitu zen zen sasoi ingurutik, bederatzi urte zituenetik, Igarateko etxean bizi izan zen. 24 urte egin zituen bertan bizitzen. Sagar-errekak Deba ibaiarekin bat egiten zuen inguru hartan eta mutikotatik asko ibili izan zen ibaian, aitik ere arrantzarako zaletasun handia zuen eta. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa

### **Miren Eguren Larreategi (1928-2017)**



Altamira baserrian jaiotakoa, urtebete inguru zuenean San Andres auzoko Guenetxetxo baserrira joan ziren bizitzera. Baserriko lanak eta bizimodua zuzen-zuzenean ezagutu ditu eta gogoz kontatzen ditu orduko bizipenak. Ezkondu ondoren Arrieta baserrira joan zen bizi izatera.

### **Santos Elizburu**




Iturburun jaioa, Gabolatseko zubi inguruan. Umetan ibaian egiten zuten jolas. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Juan Luis Ugalderekin](#) batera.

### **Sebastian Elizburu Gorrotxategi (1921-2018)**



Kirueta baserrian jaioa. Mendan, txondorrak egiten ibiltzen zen gaztetan. Josefa Kortaberriarekin ezkondu eta Madari baserrira joan zen bizitzera. Igeltsero ogibidea ikasi eta inguruko herri askotan ibili zen baserriak konpontzen. Madari baserritik kaleko etxera bizi izatera joan ziren eta geroztik Gabolatzen bizi izan zen semearekin.

### **Jabier Elortza Maiztegi (1958)**



Jabier Elortza Maiztegi, Soraluzen jaio zen 1958an. Historia ikasketak egin zituen eta dokumentatzailea da. Soraluzeko Udalean administraria izan da, baina dokumentazio eta paleografiako ikerketak ez ditu baztertu bizitza osoan. Hainbat liburu argitaratu ditu, horietatik ezagunetarikook "Eibar: Orígenes y Evolución" eta "La Villamayor de Marquina, llamada Elgoibar". "Eibarko ermitak" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, aditu bezala.

### **Inazio Ernabide Goiaga (1917-2023)**



Jaio zenean Zizurkilgo "Casa Cuna Provincial"en utzi zuten. Bergarako Osintxu auzoko Leocadio Ezenarrok eta Concepción Alvarezek jaso eta hazi zuten. Bost anai-arreba izan ziren, bera zaharrena. Kontxa Egaña eta Paka maistrekin ikasi zuen Osintxuko eskolan. Geroago, delineatzaile titulua atera zuen postaz eginiko ikasketetan. Hamalau urterekin hasi zen lanean Eibarko Txantoiari Star pistola lantegian. Geroago Bergaran peoi moduan eta Algodoneran egin zuen lan. Soraluzen torlojugintzan eta kanoi lantegian ibili eta gero, torlojugintza tailerra eratu zuen bazkide batekin. Jubilatu arte jarraitu zuen bere tailerrean. Gerra zibilean errepublikano eta abertzaleen aldean borrokatu zuen. "Batallón de Trabajadores"en zigortuta lan egin zuen 1940ko urtarrila arte. Elkarrizketan Iñurrieta anaiak, Nikanor eta Julen, egon ziren.

### **Belen Esnal Larreategi (1932)**



Soraluzeko Atxuri kalean jaio zen, bost anai-arrebatatik gazteena. Ama Irure auzoko Iturbe baserrikoa zen, eta aita azkoitiarra. Gerra denboran ahizpa bi eta anaia bat Belgikara eramán zituzten; ahizpa biak bertan geratu ziren eta familiak sortu zituzten. Mojetan eta Herriko eskolan ikasi zuen Belenek hamaika urtera arte. Gero Bergarako Gaitaoaldekoa baserrira joan zen neskame hamahiru urtera arte. Etxera itzuli eta Azkarate tailerrean hasi zen lanean; mandatari lanetan hasieran, baina laster jarri zuten makina batean. Atxotegi lantegian sei urtez jardun eta gero, Luzio Oruesagasti soraluzetarrarekin ezkondu zen eta berak jarritako tailerrean jarraitu zuen lanean. Bost seme-alaba izan zituzten. Bere gaztaroan abadeek zuten eraginari buruzko azalpenak ematen ditu.

### **Lucia Etxabe Zubizarreta (1927-2023)**

Arrasaten jaiotakoa bada ere, Soraluzen bizi izan da txiki-txikitatik. Gerra garaian Bizkaira alde egin zuen familiak eta bi anairekin batera Belgikara bidali zuen aita barkuan. Han urtebete inguru eman zuen familia batekin. Gerora ezkondu eta familia osatu zuen. Jostun ibili da urte askoan. Ikastolaren sortzaileetako bat ere izan zen herrian.

### **Pello Etxeberria Lete**



Sagar-errekan jaio zen eta bertan bizi izan zen 1989ra arte. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Jose Mari Larrañaga Txisturekin](#) batera.

### **Gerardo Ezenarro Alberdi (1908-1995)**



Soraluzeko Errabal kaleko 10. zenbakian jaio zen. Ama Soraluzekoa bertakoa zuen, baina aita Irungoa. 12-13 urterekin etorri zen aita Soraluzera eta "Santuarenean" hasi zen lanean. 8 anai-arreba ziren, baina bat umea zela hil zitzaien. Anai-arreba bikien ondoren 3.a zen bera. "Urzelaiñekua" gaitzizenarekin ezagutu izan da euren familia. Hainbat pasadizo eta gertaera kontatzen ditu.

### **Jaio Ezenarro Alberdi (1919-2008)**



Soraluzeko Errabal kaleko 10. zenbakian jaio zen. Ama Soraluzekoa bertakoa zuen, baina aita Irungoa. 12-13 urterekin etorri zen aita Soraluzera eta "Santuarenean" hasi zen lanean. 8 anai-arreba ziren, baina bat umea zela hil zitzaien; bera gazteena zen. "Urzelaiñekua" gaitzizenarekin ezagutu izan da euren familia.

### **Javier Gabilondo (1943)**



Gabolatzen jaio zen 1943an. Sei urterekin Txurrukenera joan zen bizi izatera. Ume-umetatik ibaiaren inguruan egiten zuten jolas. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Jose Luis Axpe](#)rekin batera.

### **Miren Gabilondo Agirrebeña (1918-2011)**



Unamuno baserrian jaio zen. Jose Maria Leterekin ezkonduakoa. Baserria erre eta kalera jaitsi ziren bizi izatera 1975. urtean.

### **Manuel Galarraga Aldai (1924)**



Gurasoak kaletarrak ziren, eta bera Goiko kaletako 8. zenbakian jaio zen. Lau urtetatik sei urtera arte eskolaurrean ibili zen Pacífica Mendikuterekin. Gero Maristen eskolan ikasi zuen gerra hasi zen arte. Hamahiru urterekin "Banco Guipuzcoano"n hasi zen lanean. Urtebete geroago Madina torlojugintza lantegira joan zen eta gero Sapa kanoi-lantegian hasi eta 28 urtetan egin zuen lan. "Talleres Amutxastegi"n tailerreko buru izan zen 8 urtez, beste urte bat Mungian aritu zen, eta gero Eibarko Txantoiarekin Star pistolak egiten jubilatu zen arte. Soraluzeko Dolores Izagirrearekin ezkondu zen. Bost seme-alaba dituzte.

### **Benita Gallastegi Galartza (1923-2011)**



Soraluzen jaio zen 1923an. Aita osintxuarra eta ama bizkaitarra zituen. Berak 11 hilabete zituela hil zitzaion aita, eta ama berriro ezkondu zen Gabriel Serafinoff Apple-ekin, Errusian jaio eta Frantzian hazitakoa zena. Donostiara joan zen ama bizimodua ateratzera eta hainbat denda izan zituen bertan. Eurak Soraluzen hazi ziren izebarekin edo beste senar-emazte batzuekin, eta udan Donostiara joaten ziren amarengana. Lau anai-arreba ziren, baina anaia gerran hil zen 18 urterekin. Gerra hasierak Donostian harrapatu zituen eta ihes egin zuten, lehenbizi Bilbora, geroago Frantziara, handik Valentziara, horren ostean Bartzelonara... Bergarara ezkondu zen eta Bergaran bizi izan zen.

### **Resurreccion Gallastegi Galartza (1921)**



Soraluzen jaio zen, Daniel Mujikaren gozo-denda gainean. Aita osintxuarra eta ama arabarra zituen. Lau anai-arreba izan ziren. Mesedeetako mojen (mercedarias) eskolan ikasi zuen hamabi urtera arte. Hiru urterekin ikasi zuen irakurtzen. Berak bi urte zituela aita hil zitzaion, eta ama berriro ezkondu zen Gabriel Serafinoff Apple-ekin, Errusian jaio eta Frantzian hazitakoa zena. Hamabi urterekin Donostiara joan ziren eta "Librería de Gros" izan zuten ardurapean gerra hasi zen arte. Durangoko bonbardaketan bertan zegoen Resu. Gerra denboran Frantzian eta Espainian zehar ibili ziren ihesi. Anaia bat Asturiasen eta aita "Brigadas Internacionales"etan Valentziako frontean galdu zituen. Gerratik itzulita, "La Tiendita" modura ezagutu zen denda txiki bat jarri zuten Soraluzen. Alberdi ganibet lantegian hasi zen lanean. Gero kanoi lantegian jardun zuen ezkondu zen arte. Bi alaba ditu. Oso irakurle, zinemazale eta bidaiaria da.

### **Rosa Garai Elorza (1918-2011)**



San Andres auzoko Itxasoegi baserrian jaio zen, bederatzia anai-arrebatatik laugarrena. Aita Aretxabaletakoa zen eta ama, berriz, Oruetakoa. Kaleko eskola publikoan ikasi zuen bi urtez, eta geroago Bizkaiko Mungia herriko kolegio batean egon zen urtebetez. Amutxastegi lantegian jardun zuen urte batzuetan, baina gainontzean baserrian bizi izan da.

### **Jose Mari Igartua San Jose (1930)**



Gurasoak bergararrak zituen, eta nahiz eta Jose Bergaran jaio, bizi guztia Soraluzen eman du. Aita bertako iturgina zen, baina gazte hil zen, tuberkulosiak jota. Soraluzeko maristetan ibili zen eskolan. Marrazketa lineala ikasi zuen Soraluzen eskolatik kanpo, eta gero Eibarren industria maisu titulua atera zuen. Soraluzeko kanoi lantegian ekin zion lanari, baina soldaduskatik itzuli zenean amak kudeatzen zuen burdindegi dendan hasi zen lanean. Etxerako tresna elektrikoak ere saltzen zituen. 64 urterekin itxi zuen denda. Arrantza eta ehiza zalea da, eta jubilatuzenetik itsasontzi miniaturak egiten dihardu. Ehizari eta arrantzari buruzko azalpen interesgarriak ematen ditu.

### **Iñaki Iñurrieta Goikoetxea (1918-2007)**



Kalebarrengo 12. zenbakian jaio zen eta bertan bizi izan zen 34 urtera arte, ezkondu zen arte. Gurasoak ere Soraluzekoak bertakoak ziren, nahiz aitita-amamak bergararrak izan. Etxean aitita-amamak, gurasoak eta zortzi anai-arreba bizi ziren, zazpi mutil eta arreba. Bera da anai-arrebatan zaharrena. Gerra denboran aita kartzelan izan zuten. Berak eta Nikanor anaiak gerran ibili behar izan zuten.

### **Julen Iñurrieta Goikoetxea (1925-2011)**



Gurasoak soraluzetarrak ziren. Kalebarreneko 12. zenbakian jaio zen. Zortzi anai-arreba izan ziren. Etxeko eskopeta-kanoi lantegian egin zuen lan 50 urte izan zituen arte. Gero emaztearen etxeko dendan, "Droguería Marcial Churruca", jardun zuen jubilatuzen arte. Arantza Txurruka emaztea zenarekin, hiru seme-alaba izan zituen.

### **Nikanor Iñurrieta Goikoetxea (1920-2013)**

Kalebarrengo 12. zenbakian jaio zen. Etxean aitita-amamak, gurasoak eta zortzi anai-arreba bizi ziren, zazpi mutil eta arreba; bera bigarrena da. Gurasoak ere Sorluzekoak bertakoak ziren, nahiz aitita-amamak bergararrak izan. 16 urte zituela hasi zen Gerra Zibila. Bera eta Iñaki anaia Gernikara joan ziren trenez senide batzuen etxera gerra hasi zenean. Aitak gerra denboran lau urte pasatu zituen espetxean. Hamaika espetxe ezagutu zituen, Fuerte San Cristobal Nafarroan, Isla de San Simón Pontevedran, Upomendi itsasontzia eta Leongo Astorgakoa haien artean. Lau urtetatik sei urte arte eskolaurrean ibili zen Modesta zaintzaile sorluzetarrarekin. Urtebetez eskola nazionaletan ikasi eta gero, maristen eskolara joan zen hamalau urte bete zituen arte. Víctor Andrés muxikarra eta Antonio Agustin burgostarra izan zituen irakasle maristak. Euskal dantzaria izan zen mutikotan. Hamalau urterekin Zumarragara joan zen senide batengana, gozogile eta kandelagile aprendiz. Etxeko eskopeta-kanoi lantegian egin zuen lan gero. Ezkondu zenean, emaztearen aitaren torlojugintza lantegian hasi zen. Geroago bereganatu egin zuen tailerra eta bertan jardun zuen jubilatuta arte. Nikanor Juanita Leturiondo sorluzetarrarekin ezkondu zen. Hiru seme-alaba izan zituzten.



### **Xabier Iñurrieta Goikoetxea (1932-2004)**

Kalebarrengo 12. zenbakian jaio zen. Etxean aitita-amamak, gurasoak eta zortzi anai-arreba bizi ziren (zazpi mutil eta neska bat). Gurasoak ere Sorluzekoak bertakoak ziren, nahiz aitita-amamak bergararrak izan. Gerra-denboran aita kartzelan izan zuten.



### **Amaia Iñurrieta Leturiondo (1952)**

1952an Sorluzen jaioa. Magisteritza ikasketak egin zituen. Ikasketak bukatu eta berehala, 1974an, Elgoibarko Pilar ikastetxean hasi zen lanean eta bertan euskaraz irakasten hasi zen lehenengotako irakaslea izan zen. Haur Hezkuntzako irakasle gisa egin zituen urterik gehienak. "Elgoibarko euskararen historia soziala" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.



### **Pastora Iraola Larrañaga (1916-2010)**



Soraluzeko erdiguneko Lacuestaneko etxean jaio zen "Errotaxoneko" Pastora edo Pastora "Otolá". Amak elkartea eta janari-denda zituen etxearen azpian, baina berak ez zituen ezagutu. Gerra etorri zenean, Azkoitian zegoen bere izebaren etxean josten ikasten. Etxeratzeko ordena jaso zuen, gaixoak zituelako etxean, eta soldaduek lagunduta joan zen mendiz. Harrezkero etxeko kargua hartu zuen eta urtetan gaseosa egiten eta saltzen jardun zuen.

### **Hilario Iturbe Motriko (1920-2014)**



Soraluzeko Santa Ana kalean jaio zen, lau anai-arrebatatik zaharrena. Aita azkoitiarra eta ama soraluzetarra zituen. Zortzi urterekin maristen eskolan hasi zen. Euskaraz egiteagatik jasaten zituen zigor gogorrak oroitzen ditu. Hamahiru urterekin Lete lantegian hasi zen lanean, erreminta eta torlojugintzan. Gerra hasi aurretik kanoi lantegira joan zen lanera. Gerran ihes egin zuten Berangora eta handik Torrelavegara. Intxortako trintxerak egiten parte hartu zuen. Asturiasen atxilotu eta Avilés-eko kartzelan sartu zuten preso. Handik etxera bidali zuten eta Soraluzen ere preso egon zen. Iterga tailerra sortu zuten bera eta beste bi lagunaren artean. Eibarko GAC, BH eta Sarasketa lantegientzako egiten zuten lan Iterga tailerrean, besteak beste. Aita kantabriarra zuen Soraluzeko M<sup>a</sup> Jesus Caminorekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten.

### **Jose Mari Larrañaga Txistu**



Sagar-errekan jaio zen eta bertan bizi izan da beti. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Peio Etxebarri](#)arekin batera.

### **Asen Larrañaga Alberdi Olan (1915-2004)**



Bere familia Azkoitiko "Olan" baserritik Osintxura joan ziren bizi izatera; hortik zetorkion "Olan" gaitzizena. Umetan Elosuko Ontzola baserrira eraman zuten eta 6 edo 7 urte zituenean, Soraluzera etorri zen bertan gelditzeko. Gaztetxotan bizargin lanetan ibili zen bere aita eta anaiari laguntzen. Geroago lantegian leuntzaile moduan aritu zen. Soldaduska egitera joan eta bertan zegoela gerra hasi zen. 21 urterekin preso hartu zuten eta "campo de trabajadores" era eraman zuten. 1946an Antoni Orbearekin ezkondu zen.



### **Margarita Larrañaga Arraskaeta (1903-2008)**

Gabolatz kalean jaioa, gazte denboran herriko telefonista izan zen. Berrogei urte baino gehiago eman zituen herriko kooperatiban lanean. Ehun urte bete zituen lehenengo plazentziarra izan zen.

### **Felix Larrañaga Muguruza (1925)**

1951ko urtarrilaren 20an Soraluzetik Buenos Airesera joan zen. Urte askoan "Zazpirak-Bateko" lehendakari izan zen. "Eibar" izena duen pneumatiko lantegi bat du eta argentinar batekin ezkondu dago.

### **Jose Mari Larreategi Gallastegi (1923-2008)**



Ezoz auzoko Iturbeberri baserrian jaio zen 1923an. Ama elgoibartarra zuen eta aita bertakoa. Hala ere, gurasoek Bilbon ezagutu zuten elkar ama neskame eta aita arotz lanetara joanda zeudela. Joxe Marik, baserriko lanez gain, harri-jotze lanak egin izan ditu eta hainbat eraikuntzatan ibilia da. Iriarte baserriko Jesusa Maiztegiarekin ezkondu zen.

### **Juan Carlos Larreategi Jauregi (1933)**

Ola baserrikoa. Olako osinaren inguruko kontuak eta ibaiaren historia azaltzen ditu.

### **Arantxa Lasa Maiztegi (1925)**



Kalebarren 5ean jaio zen. Aita Beasaindik etorritako Soraluzeko praktikantea izan zen. Amaren aita Agirreboluako errotakoa zen. Bost anai-arreba izan ziren, bera hirugarrena. Lau urtetatik sei urtera arte eskolaurrean, seitik zortzira erdiko eskolan eta zortzitik hamarrera "Señorita Guillermina" donostiarrarekin Eibarko institutura joateko prestaketak egin zituen. Eibarreko institutuan urte bete ikasi eta gerra etorri zen. Gerra denboran aita bi urtez espetxeratu zuten; gero Logroñora desterratu izan zen. Gerra ostean "Señorita Nieves"ekin ikasi zuen Soraluzen hamalau urte arte. Gero Egañaren akademian, (Soraluzen), kontabilitatea ikasi zuen. Alberdi Guridi Esnal R.C. burdineriako administratzailea izan zen, lantegia itxi zen arte. Gero Jauregi torlojugintzako lantegian aritu zen, jubilatuta arte. Lanean eta ikasten jardun du bizi guztian zehar. Arantxa ez da inoiz ezkondu.

### **Iñaki Laskurain**



Gabolatzen jaio zen eta bertan bizi izan zen 25 urtera arte. Umetan ibaian egiten zuten jolas. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Jesus Juan Benito](#)rekin batera.

### **Pedro Laskurain Lizarralde (1912-2009)**



San Andres auzoko Osuma baserrian jaioa. Baserriko lanak eta ingurua oso ongi ezagutzen ditu. Hitzun ona da eta lehenagoko bizimoduaz gain, etnografi gaiez ere azalpen zehatzak ematen ditu. Auzo bereko Margarita Aranberrirekin ezkondu zen eta elkarrekin egin zitzaion grabazioa.

### **Txaro Lete (1957)**



Soraluzekoa. Umetan ibaiaren inguruan egiten zuten jolas. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Amaia Zubizarreta](#)rekin batera.

### **Klemente Lete Onaindia (1916-2001)**

Hainbat anekdota eta gertakizun kontatzen ditu.

### **Miren Loiola Txurruka (1934)**

Soraluzen jaio eta 1950ean Buenos Airesera joan zen bizitzera familiarekin. Aitak Eibarko "Aguirre y Aldazabal" lantegian egiten zuen lan eskopetak egiten eta Argentinatik deitu zioten. Miren Bizkaiko Arteagako Jon Zugadirekin ezkondu zen. Grabazio berean Felix Larrañagari egindako elkarrizketa ere azaltzen da.

### **Txaro Maiztegi**



Soraluzekoa, Txurrukenekoa. Umetan ibai inguruan egiten zuten jolas, batez ere opor sasoiari. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Barruetabeña](#)rekin batera.

### **Isidora Maiztegi Aranbarri (1926)**



Elgoibarren jaio zen, hiru anai-arrebatatik zaharrena. Aita Soraluzekoa zuen eta ama, berriz, Azkoitiko Madariaga auzokoa. Elgoibarren eskolatu zen umetan, mojen eskolan. Gerra hasi zenean Madariagara ihes egin zuten, eta handik Donostiara. Bertan, Urbietako kaleko eskolan jarraitu zuen ikasten. Soraluzeko amona bakarrik geratu zenean, bere Errekaldeko etxera joan ziren. Aita hil zen arte eskolara joan zen Soraluzen, eta gero Sacia lantegian hasi zen lanean torlojugintzan. Handik kanoi lantegira pasatu zen, eta bertan jardun zuen tornu biragarrian lanean, ezkondu zen arte. Gregorio Argaraterekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten.

### **Esteban Maiztegi Gallastegi (1925-2016)**

Kaletik hurbil dagoen San Andres auzoko Iriarte baserrian jaio zen 1925ean eta bertan bizi da. Nazari Alberdirekin ezkondu dago (osintxuarra izatez). 1978 aldera laga zioten kalean esnea saltzeari. Baserriko lanaz gainera, kaleko lantegian ere lan egindakoa da Esteban.

### **Jesusa Maiztegi Gallastegi (1927)**



San Andres auzoko Iriarte baserrian jaio zen 1927an. Iturbaberri baserriko Joxe Mari Larreategirekin ezkondu eta bertan bizi izan da ezkondu ostean. Soraluzera, Elgoibarrera eta Eibarrera bidaia ugari egiten zituen frutak, esnea edo barazkiak saltzera; eta Eibarko plazan postua ere izan zuen.

### **Heraclia Maiztegi Mujika (1919)**



Aita Txurrukena baserria, (amaren etxea), ezkondu zen eta bertan jaio zen Heraklia. Lau anai arreba izan ziren. Ama Argentinan jaiotakoa zen, Soraluze eta Osintxutik atzerrira joan eta bertan elkartutako bikote batengatik. Lehen hiru umeak Argentinan izan zituzten. Soraluzera itzuli, Txurrukena eraiki eta beste sei ume izan zituzten. Lau urterekin Errege Etxeko eskolako eskolaurrean hasi zen. Bernarda Eiguren eta Maria Teresa Bandaormatxea izan zituen maistrak. Hamaika urte zituela bere nebarik gazteena jaio zen, eta bera zaintzeko laster utzi zion eskolari. Gerra denboran Bilbo, Laredo eta Castrourdialesen egon ziren. Gerraostean lanean hasi zen, (hiru errelebotan), Amutxastegi arma lantegian, armentzako estopin eta ingudeak egiten. Urtebete Amutxastegin eman eta gero, Madina torlojugintza lantegira pasatu zen, non jubilatu arte jardun zuen lanean. Heraclia ez da inoiz ezkondu.

### **Bernardo Maiztegi Unzueta (1917)**



San Andres auzoko Obe baserrian jaioa 1917an. Berak urtebete besterik ez zuela aita hil zitzaion gripeak jota, eta ama berriro ezkondu zen. 1928an baserria goitik behera erre eta eurak ozta-ozta salbatu ziren. Auzokoen laguntzaz etxe berria jaso zuten toki berean eta bertan bizi izan da beti. Bere emaztea, Juli, kalera joaten zen generoa saltzera. Amak kontatutako antzinako kontu ugari gogoan ditu oraindik Bernardok.

### **Ramon Mujika Krutzelegi (1928)**

Zortzi anai-arrebatan anai zaharrena zen Ramon. Aitak gozotegi bat zeukan herrian. Gerra garaian mutiko gaztea zen arren, orduko gertakizun asko ditu gogoan, xehetasun ugarirekin. Gaztetan ezkondu eta Bilbora joan zen bizitzera.

### **Ezoz Onandia (1933)**



1933an jaioa. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Lorea Alberdi](#) lagunarekin batera.

### **Mari Karmen Oñate**



Sologoen indarretxean bizi izandakoa. Umetatik lotura handia izan zuen ibaiarekin. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.

### **Antoni Orbea Gallastegi (1920-1997)**



Bergarako Osintxu auzoan jaio zen, baina berak 10 urte zituela familia osoa Soraluzera joan zen bizitzera. 8 anai-arrebatan zaharrena izanda, umetatik umezain ibiltzea tokatu zitzaion, bai etxean, baita etxetik kanpo ere. 1946an Asen Larrañagarekin ezkondu zen.

### **Antonio Oregi Oregi Zabale (1926)**



Zabale baserrian jaioa 1926an. Baserriko lanak eta ingurua oso ongi ezagutzen ditu. Fruta-arboladi handia daukate baserri inguruan eta etxeetara saltzen dituzte barazkiak. Hitzun ona da eta lehenagoko bizimoduaz gain, etnografi gaietaz ere azalpen zehatzak ematen ditu.

### **Luzio Oruesagasti Txurruka (1931)**

Sagar Erreka auzoko Barrena baserrian (antzina urarekin mugitutako transmisioarekin kanoien zuloak egiteko errota-tailer antzekoa zen, baina gaur egun galduta dago) jaio zen. Aita Irure auzoko Sagasai baserrikoa (gaur galduta) zen, eta ama berriz Ezozia bailarako Muneta baserrikoa. Gerra denboran Elosura joan ziren babes bila, eta gerraostean hasi zen Soraluzeko Erregetxean zegoen eskola publikoan. Hamabi urterekin hasi zen lanean iltze lantegian. Gaztetatik izan zuen makina berriak asmatzeko zaletasuna, eta bere etxean jarri zuen torlojugintza tailerra. Anaia Mateo ere berarekin lanean hasi zen, eta denborarekin Barrena etxea bota eta "Tornillería Oruesagasti" lantegia eraiki zuten bertan. Mota ezberdinetako iltze eta torlojuak egiteko erak azaltzen ditu. Belen Esnal soraluzetarrarekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituzten. Elkarrizketa anaia Mateorekin batera egin zitzaion.



### **Mateo Oruesagasti Txurruka (1929)**

Irure auzoko Sanmarzal (San Martzial) baserrian jaio zen. Aita auzo bereko Sagasai baserrikoa (gaur galduta) zen, eta ama berriz Ezozia bailarako Muneta baserrikoa. Urte bi zituela Sagar Erreka auzoko Barrena baserrira (antzina urarekin mugitutako transmisioarekin kanoien zuloak egiteko errota-tailer antzekoa zen, baina gaur egun galduta dago) joan zen familia bizitzera. Gerra denboran Elosura joan ziren babes bila, eta gerraostean hasi zen Soraluzeko Erregetxean zegoen eskola publikoan. Hamalau urterekin Sacia lantegian hasi zen makina-erreminta doitzaile ofizioa ikasten. Soldaduska ostean, iltze lantegian bi urtez lan egin eta gero, anaiarekin batera etxean jarri zuten torlojugintza tailerrean ekin zion. Denborarekin Barrena etxea bota eta "Tornillería Oruesagasti" lantegia eraiki zuten bertan. Irure auzoko Ostegieta baserriko Felisa Gabilondorekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten. Elkarrizketa anaia Luziorekin batera egin zitzaion.



### **Maria Jesus Osa Alberdi (1940)**

Soraluzeko Eitza baserrian jaiotakoa. Ama Bergarako Ontzola baserrikoa zuen, baina aitaren aldeko gurasoak bata Ibarrolakoa eta bestea Osteita baserrikoak ziren. Gazterik hasi zen lanean, Zestoa eta Altzolako bainuetxeetan. Ezkondu eta Eibarrera joan zen bizitzera. Bere ahizpa Mirenekin batera egin zitzaion grabazioa.



### **Kasimiro Plazaola Zubierrementeria (1921-2010)**

Soraluzeko Errekalde kalean jaio zen. Ama Elgetakoa eta aita eskoriatzarra zituen. Aitak mandatari lanean jarduten zuen, zaldiarekin eta orgarekin Bergarara, Eibarrera eta Elgoibarrera paketeak eramaten. Maristen eskolan ikasi zuen zazpi urtetatik gerra hasi zen arte. Gerra denboran Elgetako Abadekoa baserrian egon zen babestuta.



Gerraostean, Amutxastegi lantegian ekin zion lanean, torlojuak eta bonbentzako pieza txikiak egiten. Kanoi lantegian ere ibili zen soldadutzara joan aurretik. Soldadutzatik bueltan aitarekin hasi zen mandatari lanetan. Kamioia erosi eta bere kontura jardun zuen garraioan. "Trefilaciones Lete" lantegiko Ino kamioi japoniarra gidatzen eman zituen bere azken lan urteak. Orduko errepideei, kamioiei eta garraioari buruzko azalpen batzuk ematen ditu. Markinatik Soraluzera neskame etorritako Demetri Arrietarekin ezkondu zen eta seme bi izan zituzten.

### **Maite Quintanilla Lete (1989)**

1989ko apirilaren 15ean jaio zen Maite. Gurasoak Soraluzekoak ditu, eta bi ahizpatan zaharrena da bera. Hezkuntza kontuetan interes handia du, eta batez ere hezkuntza ez formalaren eremuan lan dezente egindakoa da. Soraluzeko Kukumuxo Aisialdi taldeko kidea izan da taldearen sorreratik. Elkarrizketa egin genion garaian, Kanboko kolegioan ari zen lanean hezitzaile moduan.



### **Felix Suinaga Arrazola (1933)**

Soraluzeko Baltegieta kalean jaio zen. Aita Bergarako Paldai baserrikoa zen eta ama, berriz, Elgetako Albitxukoa. Aitak etxean erretako gaztainak saltzen zituen kalean eta tabernetan, eta "Paldaiñekua" sagardotegia ireki zuen etxean. Soraluzen eskolatu zen Felix, baina azkeneko urtea Elgetako eskolan eman zuen, amaren jaiotetxean bizi zela. Mendikute tailerrean hasi zen lanean 13 urterekin, latoizko piezak egiten; Pascual Txurrukarenean jardun zuen gero, torlojuak eta ferrak egiten. Osuna lantegian ere egin zuen lan soldaduska aurretik. Gero motorrak konpontzeko tailerra jarri zuen etxean, Sacia lantegian lan egiten zuen bitartean. Osintxuko Soraluze kooperatibako sortzaileetako bat izan zen, eta bertan jardun zuen erretiroa hartu zuen arte. Milagros Egiguren azpeitiarrarekin ezkondu eta seme-alaba bi izan zituzten. Perretxikoak batzen, ortuko lanetan eta fruta-arbolak zaintzen jarduna da.



### **Asensio Txurruka Aizpiri (1924-2011)**



Ezozia auzoko Iturbe Zaharra baserrian jaio zen, bost anai-arreben artean laugarrena. Aita bertakoa zen eta ama San Andres auzoko Argarate baserrikoa. Maltzagako eskolan ikasten hasi, eta Soraluzekeo maristetan bukatu zituen eskolok. Gerra denboran Elgoibarko Azkue bailara auzoko Agarre baserrira joan ziren, ganadu eta guzti. Bere jaiotetxea baserri zabala zen; errota eta etxerako argindarra egiteko zentraltxoaz gain, zerrategia ere bazegoen bertan; baita dolarea ere. San Andres auzoko Zeleta baserrira ezkondu zen, bertako alaba zen Maria Ariznabarretarekin. Basolanetan asko jardundakoa da. Berak gaztetan sartutako pinuak berak bota eta berriz landatutako pinua laster botatzeko gertu egongo omen da.

### **Celestino Txurruka Maiora (1920-2005)**



1920an Soraluzekeo Erlaegi baserrian jaio zen eta bertan bizi izan zen 2005era arte. Sei seme-alaba izan zituen. Aitaren aldeko familiarena zen Errekaldeko okindegia eta umetan bere amama Kaximirarekin etxex etxe opiltxoak banatzen ibiltzen zen eskolara joan aurretik. 12 urterekin Juan Maria Arizaga lantegian ofizioa ikasten hasi zen, gerra sasoiari Amutxasteginean eta gerra ondoren kañoi fabrikari tornulari ofizioa ikasi zuen. 1948an bere aita Pascual Churruca eta anaiekin batera lanean hasi zen, lehenengo gomazko perrak egiten, torlojuak egiten geroago. Kuriositate handiko gizona zen. Bidaiatzea, lagunekin batzea eta mahai inguruan antzinako kontuak esan eta abestiak entzutea atsegin zuen.

### **Juan Luis Ugalde**



Rabal kalean jaioa. Umetan jolasen %50a ibaiaren bueltan egiten zutela dio. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Santos Elizburu](#)rekin batera.

### **Jose Luis Unamuno Gorrotxategi (1928-2007)**



Etxebarri baserrian jaio eta bertan bizi izan zen 1992ra arte, Magdalena Gabilondo (Aldasoro-Etxetxo baserria) emaztea hil zitzaion arte. Baserriko lanez gainera, lantegian egin zuen lan.

### **Arianne Unamuno Loidi (1983)**

Arianne Unamuno Soraluzen jaiotako 35 urteko emakumea da. Gasteizen Ingurumen Zientzietan lizentziatua. Bi haur ditu: lehena ospitalean jaioa eta bigarrena etxean.

### **Maria Urizar Murua (1919)**



San Andres auzoko Iturriaga ("Iturrixa") baserrian jaio zen 1919an; 7 anai-arreba ziren. 25 urterekin ezkondu zen eta ezkondu ostean kalera joan zen bizitzera. Baserriko bizimoduaren gaineko kontu ugari kontatzen ditu.

### **Patxi Zabaleta Mantxola (1925-2005)**

### **Alfonso Zangitu (1912-2008)**



Osintxun (Txuringon) jaio zen 1912ko urtarrilaren 23an. Osintxuko eskolara joan zen eta Bergarako seminarioan doktrina ikasi zuen. 10 urte zituela Pagolara bidali zuten morroi. Urte askoan soinu txikia jo zuen erromerietan. Lana, berriz, leku hauetan egin zuen: Lesarrin, Hermanos Alberdin, eta gerra ostean, Sacian (Soraluzen). Gregori Argarateren senarra, biak batera elkarrizketatu genituen.

### **Susana Zarobe Esnal (1924-2014)**

### **Amaia Zubizarreta (1957)**



Soraluzekoa. Umetan ibaiaren inguruan asko ibilitakoa. Deba ibaiaren inguruko ahozko ondarea biltzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Txaro Lete](#)rekin batera.

### **Martina Zubizarreta Ormaetxea (1921)**



Iturburu (Baltegieta) jaio zen. 1947an Domingo Tornosekin ezkondu zen. Gerra Zibilak Gasteizen harrapatu zuen eta bertan egin zituen 4 urte neskame lanetan. Handik itzuli eta Foterokindegian hasi zen lanean ezkondu arte.

## **Pasarteak gaika**

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## 1. Ohiturak eta bizimodua

### 1.1. Aharia kanpandorrean

- **Hizlaria(k):** Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-003/003
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:03:04. **Bukatu:** 00:05:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak
- **Laburpena:** San Andresgo ahariaren kontakizuna. Aharia kanpandorrera eraman eta kanpairo lotu zuten. Egun hartako kanpaiak, xelebreak.

#### Transkripzioa

- Ta San Andresko ahuntzana ta hori zela da?  
- San Andresko ahuntzana? Adarixa.  
- A! Adarixa zan?  
- Bai. [Haretzek...] elizako giltza. [Elizan]. [Haura] armerua ei zuan, ta artistia [ei] zuan, gaiñera, biharrian. Ta akordau ei jakue kuadrillan: "Hi, badakik ze ein bihar doun?" ta "Zer?", "Adari bat harrapau ta kanpaiari lotu bihar jotsau" "Ta sartu?", ta "Sartu?" Eskillararik be ze egongo zuan? Han bentana txiki bat bazuan elizan --oin be han egongo da haura--, koruan, ta handik akordau ei jakuen lehenengo. [Han sartuko juau]. Batenbat sartu zela-hala barrura ta sokiakin. Ta gero [...] itxuria akordau ei jakuen: "Hi, giltza ingo juau. Giltza in ta giltzakin zabalduko juau atia. Ta gero itxi ta lagako dou adarixori ta aide!". Ta ez juaun egun baten ingo, baiña giltza in in juaun harek. Ta gero, harrapau juek adarixa ta baitta sartu be elizan giltzakin [han zerian] zabaldua. Sartu juek koruan, lotu jotsek kanpaiari, ta [lotu jotsek, ipini jotsek] hola, adarixa ez ei zuan allegatzen, adarretikan lotuta, ta arbixa, arbi-buru... arbi-burua. Ta adarixa, ba, haura jatera "danga! danga" ta "danga!", kanpaia jotein ei juaun adarixak. Zein ete dauen ta zein ete dauen, ta danak... "Ez doiak iñor barrura, ez doia... ez dao sartzerik barrura". [...] zelan zein izengo zan, eskupetekin barrura: "Garbittuko juau hor dabillena" . [...]. Juan dittuk eta: "Aiba dios! Hi, beittu! Adarixa, hi! Adarretik lotu kataiari ta nabua jakak, ta nabua harrapau ezin!" Ta harek nabua jatera golpia "taka, taka" buruakin. [...] jatera, kanpaia jo "danga! danga! danga". Ta auzo guztia, bai, ba! Danak enterau! Joe! "Kanpaia, hi! Aiba dios! Hori dok kanpaia xelebria", ta... "Hori dok kanpaia xelebria" ta juaun dittuk eta adarixa. Akordau ein bihar dok, e! Akordau ez, ein! Ein! Gaur hainbeste... Hain espabillauak zarie, hain zerak zarie, ta holakotxe bat ez dozue eitten oingo gaztiak. Geuk be ez giñuan in, e!

### 1.2. Trumoia; baserrietako sinesmenak

- **Hizlaria(k):** Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-003/005
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:07:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Trumoia zetorreanean, kandela bedeinkatuak pizten zituzten. Oinaztarria baserrian sartu zenekoa.

### Transkripzioa

- Ta trumoia-ta zetorrenian ta be orduan...

- Ba, kandela bedeinkatuak be egoten zittuan, ta harek ixotuta ta atiak itxi ta bentanak itxi ta... Ta gure aitta hamentxe, ni ointxe nauen lekuan, jo-ta jaurti juañ oñaztarririk! Jo-ta jaurti, e! Ta eskua hola txanbututa, aieneka baten; eskurik zuzendu ezinda ta aieneka baten. Ta jaurti juañ bide-saillian. Hori hor dauen... Ez, ez, ez. Hamen daon radixuau?

- Bai.

- Honetxen... hauxe iguala ixa, oñaztarririk jo-ta dana apurtu juañ hor. Ta amama [...] najeuan hamentxe... Bai, amama, amama uste juat. Ala Maria? Bat bai, behintzet. Hamentxe jarritta haura be tokau oñaztarrirra [daonian], ta dios! Haura hor zihar garrasika baten. Horrek neuk ikusittakuak, e! Oñaztarrirakin.

### 1.3. Guardia Zibila Plazentzian

- **Hizlaria(k):** Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-003/026
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:54:30. **Bukatu:** 00:56:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak  
Lanbideak » Polizia
- **Laburpena:** Guardia Zibilak Plazentzian. Kartzela. Garai batean argia piztea debekatuta zegoen gauetz. Aldasoro baserrian gertatutakoa.

### Transkripzioa

- Ta hemen Plaentzian Guardia Zibil asko egoten zan lehen?

- Lehen bai, [ez dakit nik] ze eken, baiña lagun mordua, Guardia Zibil mordua Plaentzian.

- Ta bazeuan e... kartzelarik, eta?

- Kartzelia be-bai, kartzelia be-bai, egongo ez zuan ba?

- Ta nun zeuan ba, haura?

- Ba, oin Errege-etxian eta "Errege-Etxian nun zeuan?", lehen plazia, "Ta nun zeuan?" Zuek ezebe ez dakizue baina, hantxe jeuazen, Errege-Etxian jeuazen, etxe-zaharra galanta, kartzelok eta danak.

- Eta han egoten zan jentia barruan ta?

- Barruan ta jentia, ez!, kartzelara eruandakuak han, bialdu barrura ta, itxi atia giltzakin ta, hantxe egon bihar...

- Zuk ezautu zenduan han egondakuak eta hola?

- Egondakuak bai, ezautu najittuan, ezautu najittuan; bi, bi bai behintzat. Bi

ez, orduan, mordua. Orduan deskuidau ezkerok tak! eruaten juen kartzelara, aguro. Gabian argixa ixiotzia nahikua, tak!. Gabian kortan argixa ixiotzen bazan, hurrengo egunian, tak... Sasoi baten ezin zeikian argirik eta ixiotu, illunian. Aldasoroko andria hil juen, argixa ixiotu jok eta, sukaldeko bentanara urten jok eta dale! sukaldian...

- Ta hor jentia zegaittik sartzen zebeu kartzelara ta, entzunda daukazu?

- Zegaittik izango zuan, ba? Ez jakixat nik zegaittik eruaten jittuen, ba, izango zuan zeoze, oin zegaittik eruaten jittuek, ba? Orduan be izango zuan zeoze.

- Kontrabanduagaittik eta holakuak be bai?

- Ez zera! Kontrabanduan-ta, ahal dan moduan...

#### 1.4. Eskola kontuak Francoren garaian

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/010
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:13:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Politika » Euskara eta politika  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eskola kontuak. Francoren garaian euskaraz egiterik ez. Gerra aurretik ere eskolan erdaraz egiten zuten. Euskara erdi-ahaztuta.

#### Transkripzioa

- Holaxen gure bizimodua.

- Eskolan zuek euskeraz zeozer emon zenduen?

- Ez, ez.

- Ordurako ez zeuan ezer?

- Ezta...! Ez elizan, ez eskolan ta ez kaliau be, e! Ez kaliau be! Prohibituta geunkaun Francon denporan. Bueno...! Dendetan be igual zeoze eskatu ta aldamenian bazeuan, "¡Hable usted en español!", "No..." "¡En cristiano!". "Me acuerdo que me dijo una guardiesa, aquella, sor Eloísa o que le llamaban".

- Hemen, herrixan edo?

- E?

- Hemen, herrixan?

- Bai, bai, bai.

- Karnazerixan nenguan ta eskatu notsan zeozer ta... Inon karnazerixan, zeozer. "¡Hable usted en cristiano!"

- Holaxen gu...

- "Habla usted en cristiano", esaten zeban. Etxian, eitten zan apurra etxian.

- Izena Miren, baiña Maria. Zerian be Maria dakat nik. Kanbixatzeko, kanbixatzeko...

- Ez kaliau, ez eskolan, ez elizan...

- Eskolan? Ezta ezebe, e!

- Eskolan gerra aurretik be ez?

- Keba!

- Ez, ez, ez, ez.
- Ordurako ya ezebez?
- Keba!
- Eskolan ezta hauxe be ez dou ein euskeraz! Ezebe, ezebe, ezebe, ezebez.
  
- Ointxe ikasi dou guk dakiuna, e? Ointxe edo... bueno.
- Bai, ta horreaittik eitten dou hain gaizki!
- Bai. Bai. Egixa da, e!
- Horreaittik eitten dou hain gaizki.
- Bai, egixa da, e?
- Bai, bai, bai. Gaizki eitten dou. Eske ez doskue laga ta!
- Hori ez eixue pentsau, gaizki eitten dozuenik.
- Ez, zera!
- Baiña kostau jakun guri ipintzia zera, e! Ez pentsau...!
- Onbre! Ez zoskuen laga. Ni Vitorixan egon nitzan denporan...
- Dana erderaz.
- Nik han ez neban... Etxera etorri nitzanian kasi...
- Ahaztuta kasi.
- Ahaztuta ixa!
- Bai, bai.
- Ta gero hamen ezin zeikian ein euskeraz...
- Ta gerra aurretik be prohibiduta zeuan, e?
- Hamen, Francon denporan prohibiduta zeuan, "pero terminantemente", e?
- Bai, bai. Zerian, eskola zera dana erderaz ta dana... Keba...!
- "Terminantemente prohibido".
- Keba! Ez.
- Halaxen egon gara gu.
- Handik etorri ta holaxen, bildurrez, aber ze ein bihar dosten edo zer edo...

### 1.5. Baserritik kalera eskolara

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/031
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:35:40. **Bukatu:** 00:36:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Baserriko umeak eskolara herrira etortzen ziren. Bazkaltzen herriko etxeren batean geratzen ziren.

#### Transkripzioa

- Ta umiak be bai, eskolan...
- Eskolan, bai.
- Eskolan, umiak, eskolara hara bajatu ta, zelan juango zian, ba, hor berriro bazkaltzera basarrira? Ezin jua! Ba, herrixan zeuken, behian zeuken etxeren bat eta...
- Bazkaltzera hara juaten zian?
- Han bazkaldu, eta gero... gabian, kalera. Edo... gero atsaldian, eskolatik urtendakuan, basarrira.

- Ta eskolan egoten zianian be eskolan be igual, ba, badakizu, trunboia ta esto ta hareri ba: "Bueno, zuek urten ta juan etxera zera baiñ olehen... eurixa..."
- Bai, "Trunboia baiño lehenao juan".
- Bai, hori be bai, eskolan hori, e, pasatzen zan.

### 1.6. Eskola kontuak; dotrina

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/033
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:37:35. **Bukatu:** 00:38:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskola orduak. Larunbat arratsaldetan dotrina izaten zuten. Eskolan, goizetan ikasi egiten zen; arratsaldetan, laboreak egiten zituzten. Liburu bakarretik ikasten zuten dena.

### Transkripzioa

- Ze eukitzen zenduen, goizetik bakarrik edo?
- Ez, atsaldian be bai.
- Ez, atsaldetikan be bai.
- Atsaldian be bai.
- Lau t´erdietan urtetzen genduan, ezta?
- E... Zapatu atsaldetan dotriña. Don Jose Mariak emoten joskunan dotriña zapatu atsaldetan, ta gero ostian, ba... atsaldetan "labores también hacíamos".
- Baitta, baitta.
- Laborak. Ta goizetan, ba, ikasi. Goizetan ikasi ta ikasi ta ikasi. Eta gero atsaldetan horixe, labores ta errekreua... ta gero zeoze irakurri ta etxera. Bai, eskolan ondo ibilli giñan. Zenbat bidar esaten dot nik... hainbeste liburu! Hainbeste... Holakotxe montoiak! Eta urte batetik bestera balixo ez! Zenbat... "Cuántas veces les digo... ¡con una enciclopedia!"
- Haretxekin!
- "Con una enciclopedia, toda la..."
- Bai... Toda la escuela!
- Toda la escuela hicimos!
- Bai, bai...
- Eta ikasi be bai, e? Zenbat bidar! Zeuek baiño gehixao gara askotan ta! Umieri, bereri etxeko lanak laguntzen ibiltzen giñan, hamahiru urtekin urten eskolatikan eta... "¡con una enciclopedia!" Dana! Bertan zeuan dana: Geografía, Geometría, Aritmética... Dana.
- Eske, ipintzen zaraz pentsatzen eta...

### 1.7. Eskolan ikasitakoak

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/035
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:39:20. **Bukatu:** 00:39:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- **Laburpena:** Espainiako historia sakon ikasi zuten. Beste ikasgai batzuk; guztia liburu bakar batekin.

#### Transkripzioa

- Ba, Entziklopedia bat, hantxe zeuan dana, dana: Historia de España... Ay, aquella Historia de España! Aaaayyy! Visigodos y Cartagineses ta...
- Bai, zetarako baiña, e? zetarako harek, baiña? Baiña...!
- Danak hantxe.
- Ikasi ein bihar!
- Ikasi ein bihar!
- Aritmética, Geometría, Geografía, todo-todo-todo en la... Doctrina, Catecismo... Todo. Dana, e... Entziklopedian. Dana! Ta haretxekin. Hamen [urtengo leuke] ta... Tanto como ellos, sabemos.
- ¿Tanto como ellos?

### 1.8. Irakasleak

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/036
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:41:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena:** Irakasleak. Zigorak. Irakasle batzuk jotaileak ziren. Irteerak.

#### Transkripzioa

- Maixuak zeintzuk izeten... ze eukitzen zenden, andereñuak?
- Kanpotikan etortzen...
- Kanpotikan!
- Kanpotikan etortzen ziran, bai!
- Ta gogorak izeten ziran?
- Bai, honek euki zaben bat gogorra, ni harekin ez non ibili...
- Señorita Felisa.
- Felisa ez bestia, zein... Bernarda ez zonan, ba?
- Bernarda, Bernarda, Felisa no, Bernarda! Harek ipintzen oskun hola

eskua...

- Oiñ emon bihar umieri hori.
- Dinbi-danba, e! Dinbi-danba!
- Oiñ emon bihar!
- Egurra-egurra!
- Holaxe ipiñitta, e! Holaxe ipiñitta. Menudo miedo, e? Menudo miedo!
- Menudo, ba! Bilddurrez! Ez dao deretxorikan...
- Otra vez me dio a mi esa, Bernarda, tenía un anillo así, con una piedra grande y ¿qué hizo?
- Buelta emon.
- Puso así, para no estropear, la pierna, la piedra. Me levantó el pelo y zipi-zapa! Jolin, me dio dos sopapos!
- Ta aguantaiñ! Ta aguantaiñ...!
- Bai, baiña aquello era lo malo, e? Aquello. Ipiñi hola eskuak eta, dinbi-danba han paluakin. No hay derecho a eso, e? Pues, ya nos daban, ya nos daban , ya nos daban
- Bai... Uuuu!
- ...Ya nos daban. Gero urtian behin eskursiñora, ba, juaten giñan. Bueno...! Benga Arratera. Jolin, haura zan poza, Arratera eskursiñora! Buenoooo...! Ba, bai. Ta beste behin be Loiolara be bai, heldu giñan behin... Bueno, pozik, eskursiñorako!
- Gustora juango ziñien... Autobusian?
- Loiolara bai. Arratera oiñez, oiñez...
- Juan zaitte!
- Tipi-tipi-tipi-tipi...
- Ez dao, ez dao, ez dao deretxorik, baiña... pasau ein bihar!
- Zuek ez dakizue!

### 1.9. Komentua; ospitalea

- **Hizlaria(k)**: Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-004/045
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:49:20. **Bukatu**: 00:51:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:
  - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak
  - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
  - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Agustinen komentua. Zubi bat beraien ortuetara joateko. Ospitalean, mesedeetako mojak.

### Transkripzioa

- Gero konbentuak be bazeren, ezta?
- Baitta, konbentua.
- Bai, hor Santa Ana kalia, sekulako konbentua.
- Bai... Hiruretan joten zebe, hiruretan kanpaiak.
- E? Bai, bai... Haura be kendu ein eben...
- ... eta gero kapillia be bazeuan...
- Las Agustinas, bai.
- Zortziretan egoten zan mezia... goizeko zortziretan.

- Eta gero zeuken e, zubi bat, oindiokan be badao hori zubixori?  
 - Ez, ez.  
 - Bota eben?  
 - Bai.  
 - Zubixa zeuken beren orturako, beren orturako...  
 - Oiñ, e... ez dakizu? Zeintzuk bizi dia hor? Hire... heure etxia ta, ez zittunan harek beren ortuak, konbentuko ortuak? Zuek etxia...? Bai, hortxe.  
 - Bai, bai... Kalonge bai... Eta han zeuken beren hillerrixa. Berak enterrätzen zittuen, e? Moja bat hiltzen bazan, bertan. Horrek monjok horrek zeren "de clausura", medikuari be ezin jaso...  
 - Agustinas.  
 - "Sí, las Agustinas. Sí."  
 - Gu juaten giñan mezetara hamaika bidar, baiña berak han ikusteke, e! Juaten ziñan jauna-hartzera baiña ez zian ikusten.  
 - Ke ba! Beti tapauta, beti tapauta.  
 - Eta ze zeuan, konbentu bat baiño gehixao?  
 - Ez, horixe, horixe.  
 - Horixe ta ospittala. Ospittalian Karidadekuak, baiña harek ibiltzen zian...  
 - Bai, normalak. Baiña honek ez. Honek ez.  
 - Honek e... "Esas, tuberculosas morirían", beti tapauta, beti tapauta, euzkirik eta haizerik ez eben ikusi be eitten... Ba horixe konbentuori oindiokan ez da denpora asko bota ebela, horretzek etxe barrixok ein dittue hor Santa Ana kalia eta gero, ospittala, ospittalian be "las Mercedarias"...  
 - Ospittala be ez da oingua.  
 - Ene!  
 - Haura zan txikixa, ta han juaten zian, ba, batzuek, mojetara, han estudixatzera.  
 - Bai.

### 1.10. Esaera zaharrak

- **Hizlaria(k)**: Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-006/001
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- **Laburpena**: Esaera zaharrak; zerrenda.

#### Transkripzioa

- Agur, luze aiña labur, labur aiña luze, agur, hankaluze.  
 - Arotzan etxian katillua gatzontzi.  
 - Hamen bertan Bilbo!  
 - Ahuntza gaberdiko eztula da.  
 - Oilluan ipurdira aillegatzeko imillana ipini bihar.  
 - Gizurra esan neban Getarixan, ni baiño lehenao zan ataixan.  
 - Ehun duketa ta [mandarra].  
 - Artuak emona sabore.  
 - Aindua bat eta emona bi, ainduakin kontentau hari.  
 - Goiz oskorri, arrats itturri.

- Gizurtero patatero.
- Txakurrak buztana luze, bestiak hala uste.
- Ai, jangoikua! Bat eta bera nahikua.
- Errementarixan etxian zotza burduntzi.
- Juari pikutara! Juari bikunittara!
- Baleo eta balebiz, alkarren ondorian dabitz.
- Egun on, nork emon? Jangoikuak emon.
- Bostetarako illuna, txarrixa hiltzeko eguna.
- Urte barri, txarri belarri, daukanak ez daukanari zaria bete madari.
- Hor konpon, Mari Anton.
- Valle Txurruka, ez santu ta ez errota.
- Eskerrikasko, ez da gauza asko.
- Urte berri, zoruak igarri.
- Eskerrikasko, mari-oillasko.

### 1.11. Esaera zaharra

- **Hizlaria(k)**: Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-006/003
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:02:45. **Bukatu**: 00:03:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- **Laburpena**: "Agur, luze haina labor. Labor haina luze, agur hankaluze."  
Esaeraren azalpena.

#### Transkripzioa

- Honek lehelenguak... "Agur..."...
- "... luze aiña labor".
- "Labor aiña luze, agur hankaluze". Horrek ze esatia nahi dau?
- "Agur" esaten dozunian, ba, kontestaziñua: "Agur, hankaluze". "Agur", ba, "Luze aiña...". Zuk esaten dozu "agur", ezta? Ta nik esaten dotsut zuri adarra jotzen moduan: "luze aiña labor, agur hankaluze". Horrek hola... Horrek pitorreoko gauzak diaz horrek.
- Bai, bai, bai, bai.

### 1.12. Esaera zaharra

- **Hizlaria(k)**: Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-006/004
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:03:05. **Bukatu**: 00:04:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- **Laburpena**: "Arotzan etxian katillua gatzontzi". "Errementarixan etxian zotzak burduntz"i. Esaeraren azalpena.

### Transkripzioa

- Eta lehen esan dozuna? "Arotzan etxian katillua...?"
- "...gatzontzi".
- "... gatzontzi". Horrek nahi dau esatia...
- Arotzan...
- Ez dala topatzen, ezta? Katillua zela izeten dan lurrezkua edo, ezta? Egurrezko gauza bat edo izen bihar litzekela edo...
- Lehen izeten zan. Ni akordatzen naiz. Ondiok Modestok Osintxun gatzontzixa daka armaixuan egurrezkua dao. Ta arotzak, ba, egurrakin eittia normala, baiña alperkerixia izengo da hori, errezero.
- Hori "zotza burduntzi" moduan.
- Bai, bai, bai.
- "Katua" edo zera. Ta "Errementarixan etxian zotza burduntzi". Errementarixanian be badakizu horrek... zela izaten dia egoten dia, ba, oin...
- [Burdina...].
- Bai, badakit burduntzixa zela dan. Bai, ipintzen dana hor... beheko suan ipintzen zana.
- Harekin ein biharreko lana, ba, zotz... zotza badakizu ze dan?
- Bai.
- Ba harekin, errezero. Haura be lana ez eittiarren erementarixak. Horren moduan, ba... Nik ez dakit ostian gehixao ze dauan.

### 1.13. Esaera zaharra

- **Hizlaria(k)**: Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-006/005
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:04:20. **Bukatu**: 00:05:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- **Laburpena**: "Juari Pikunitara!". Esaeraren azalpena.

### Transkripzioa

- Hor dao esaera bat, ezta, "Juari Pikonittara!" "Pikonitta" esaten [da], baiña da "Bikonitta". Bikonitta nun dao? Hor Elusu aldian?
- Bikonitta dao...
- Iñor jua ezindako basarri bat.
- A, bai, e?
- [Antzuolatik] Elusura bittartian daok hori.
- Orduan, "Pikulitta" esaten dabenian...
- "Pikulitta", baiña ez da "Pikulitta", da "Bikonitta".
- "Bikonitta"...
- "Bikonitta".
- Hor [...] tabernia-edo jauan, ta "Pikulitta", ba, famosua zuan, ba, horretxeaittik. Tabernia ta...
- Tabernia ta billau ezindda jentia nun zan, ta horretxeaittikan, ba, "Juari Pikunitara!". Ta "Juari Pikutara!" be esaten da hemen.
- Horrek "Pekiñera" esatia moduan.
- E?
- "Juari Pekiñera"!

- Baiña horrek diaz, ba, ya euskerazkuak. Ta hamen be Plaentxian egongo dia, ba, mordua, baiña...

#### 1.14. Esaera zaharra

- **Hizlaria(k)**: Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-006/006
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:05:10. **Bukatu**: 00:05:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- **Laburpena**: "Hamen bertan Bilbo". Esaeraren azalpena.

#### Transkripzioa

- "Hamen, bertan Bilbo!". Zela esango dotsut, ba, nik? Zu gaur goixian ikusi zaittut kalia, ezta? [...] ointxe esan dotsuten moduan, ba, neri urten zeikian: "Ene! Hamen bertan Bilbo!".  
- Topatzen dozunian batenbat ezaguna edo...  
- Ta horrek gehixenak diaz, ba, halakotxe kontestaziño zerak. "Egunon", ta "Nork emon?" ta, ba, "Jangoikuak emon".

#### 1.15. Esaera zaharra

- **Hizlaria(k)**: Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-006/008
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:07:20. **Bukatu**: 00:10:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Valle de Txurruka, ez Santu eta ez errota. San Andres eta Txurruka bailarakoen arteko ika-mikak. Auzoko baserri bat erre zeneko gogoetak.

#### Transkripzioa

- Eta hori, azkenian, "Valle de Txurruka, ez santu ta ez errota", hori badakizu zeaittikan dan?  
- Ez.  
- Txurruka ballian santurikan be ez zeukan lehen. Oin dao San Inacio. Zenbat urte izengo...? Urte mordua hori ipini zala be, ezta? Ta San Andres ballian eren bi errota. Akordatzen zara hor San Andres balleko errota bat?  
- Bai, dakit nik Argarate parian edo...  
- Haura bat, ta beste bat Agarreburun, Arkaitz onduan. Ta horreaittikan zan "Valle de Txurruka, ez santu ta ez errota". Ta beti diskusiñua egoten zan barrio de San Andres balletarrak eta Txurruka balletarren artian. San Andres ballian, ba, bi errota, ta santua, San Andres.  
- Ta Agarreburu San Andreskua zan?

- San Andreskua. Ta Arkaitz be bai.  
 - A, bai?  
 - Errekiak erabagitzen jok.  
 - Errekiak. Ta ni Mirenekin ta horrekin...  
 - [Errekian] handikaldetik...  
 - Bai, handikaldetik.  
 - Mirenekin-ta gu lagunak zela izen giñan beti —Agarreko Maria difuntia [be hil zan]; beste lagun bat ointxe hil jaku Egotzakua—ta horrekin, ba, gaztiak, eta diskusiñua, ez dakizu? Zuek santurik be ez daukazue ta guk bi errota ta...  
 - Adarra joten.  
 - Bai, bai. Nik ez naben pentsatzen Arkaitz San Andreskua zanik, e?  
 - San Andres ballia. Erre zan Arkaitz, badakizu...  
 - Bai, badakit [zein dan].  
 - Karnabal martitzena zan erre zanian. Ta ez dot uste ondio Jose Marik jakin dabenikan haura zela [in] zan, zela erre zan. Ta han Arkaitz onduan, kantera-zuluan gallegua bizi zan —juan da oin Galizizara, baiña harek esan ostan neri— ta harek galleguak, Manolok, esan ostan neri “él que se dio cuenta”, handikalderako bentanetan dana sua, garra, urtetzen zebala. Ez telefono ta ezebez orduan ta Arkaitzen be ez zeuan iñor. Ta bestekaldian etxietara diar ein ebala ze pasatzen zan. Ta sua. Akordau zanerako hamendik edo handikaldeko partia dana erre zala esan eban. Baiña dana ez zan erre. Ez dakit, hormia-edo zeuan han erdixan, zapaittikan... Zapaixa-ta jakingo dozu zertzuk dian?  
 - Bai.  
 - Eta han. Ta handik aurrera ez zan pasau. Baiña Jose Marik esan eban haura bota barik gelditzen dana peligro bat dala. Hara juan bata ta bestia, umiak-edo ikustera ta jausi leikiala, ta gero bera zala responsabilidadia. Akordatzen zara illuntzixan gu juan giñanian ikustera zela euan kontratistiakin hurrengo egunian ze ordutan etorri.  
 - Botatzeko?  
 - Erre bae geldittu zana berak bota eban horretxeaittik peligruaaittik.

### 1.16. Esaera zaharra

- **Hizlaria(k)**: Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-006/011
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:12:25. **Bukatu**: 00:13:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- **Laburpena**: "Goiz oskorri, arrats itturri".

#### Transkripzioa

- "Aindua bat eta emona bi, ainduakin kontentau hari". "Goiz oskorri...", oskorri badakizu ze dan?  
 - Ez.  
 - Egoten dia, ba, hor, goixan... ze sasoittan egoten dia horrek? Laiñu gorrixok, ez dakizu? Oskorri-oskorri zerua. Horreri esaten jakue oskorrixak, guk. Ta horrek goixian, hola, oskorrixak darenian, arratsaldian eurixa izeten da. "Goiz oskorri, arrats itturri".

### 1.17. Esaera zaharra

- **Hizlaria(k):** Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-006/013
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:14:50. **Bukatu:** 00:15:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- **Laburpena:** "Gabonetan keixak!". Esaeraren azalpena.

#### Transkripzioa

- Zeoze, hola, eskerrak emon biharrian zarenian: "Bueno, hi, gabonetan keixak". Oin, berriro, gabonetan edozein [egunetan] dare keixak kanpotik ekarrittakuak, baiña honek ba...

- Ta hori eskerrak emoteko esaten zan? "Gabonetan keixak"?

- Bai, eskerrak emoteko: "Bueno, gabonetan keixak". Eskerrikasko.

- Ez dakit, zeoze emongo zotsazula...?

- Bai, ba. Zeoze emon biharrian edo zerian, ba, "Bueno, gabonetan keixak". Orduan gabonetan keixak zian, ba, imposible! Ta oin, berriro, kanpotikan ta [aber] edozein [egunetan] dakazuz keixak.

### 1.18. Esaera zaharra

- **Hizlaria(k):** Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-006/015
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:15:35. **Bukatu:** 00:16:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- **Laburpena:** "Urte barri, zoruak igarri".

#### Transkripzioa

- "Urte barri, zoruak igarri". Hau badakizu zeaittik zan? Urte barri egunerako eguna moztu ta luzetu eitten da, ezta? Primavera, verano, otoño y invierno. Ta udabarrirako... urtebarrirako eguna luzetzen. Ointxe izeten da Santa Lucietan eguna motzena, ez da izeten? Eguna motzena: "Santa Lucía corta la noche y alarga el día", erderaz. Ta hori. Ta gero eguna luzetzen-luzetzen zela juaten dan, ba, urtebarri allegatzen da, urte barrira [juaterako], ba, eguna errez igartzeko moduan egoten da. Orduan be, ba, igual juntau ta "Ene! Egunon!" ta "Bai. Urte barri" esan ta "Zoruak igarri".

### 1.19. Hileta elizkizunen inguruko usadioak

- **Hizlaria(k):** Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz

- **Erref:** SOR-006/017
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:17:40. **Bukatu:** 00:19:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- **Laburpena:** Hileta-elizkizunak. "Ondra-bazkaixa". Ohitura zaharrak: elizkizunera nortzuk joaten ziren; lutoa...

### Transkripzioa

- Entiaruana geukaun esateko. Entiarruak zuk badakizu lehen zela izeten zian? Oin be ez asko igual zuk, ezta?
- Entiarruak, ondrak...
- Entiarruak?
- Lehen ondrak eitten zittuan. Entiarrua in ta gero...
- Hiru egun edo zela izeten zian...
- Egun baten atsaldetikan ta bestiak goizian, ondrak.
- Onrak?
- Onrak esaten jakuen. Elizkizuna [izeten zuan].
- Osintxun [...].
- Ta askotan tokau [izeten zuan] bersuetan igual.
- Eittia?
- Bazkaixa [egoten] zuan, ondra-bazkaixa, ta han gehitxo eran ta...
- Ni akordatzen naiz Arkaitzen...
- [...]
- ... Arkaitzen nenguala be bai. Bat hiltzen zanian, etxe bakoitzetikan andra-gizonak jua biher izeten zian entierrora.
- Trajia be gizonezkuak beltza-beltza [eukitzen jua]; ta andrak be...
- Ta gero mantilla beltz-beltzakin tapauta, dana beltz-beltz eindda.
- Ta lutua be eruaten zuan lehen, e! Urtebetian edo bi [igual].
- Gurasuana urte bixan eruaten zan.
- Urte bixan eruaten zan, e?
- Lutua urte bixan, ta urtebetian aitta edo ama edo batenbat hiltzen bazan, dantzarik be ez zan eitten, e! Nada! Ezta pentsau be ez, gaiñera! Urtebetian, e, dantzarik ein barikan. Gero...
- Lutua, luto haundixa eruaten zan orduan...
- Hau lutua kendu dala ondiokan ez da urte asko, e!
- Gero besuan edo...
- A! Bai, gizonezkuak bai. Gabardineri ta txaketiari besuan ipintzen jakon hamen brazoleta bat, ta alkondara zurixa. Ta gizonak libre. Ta andrak, berriro, erropa guztiak tintau, danak erropa guztiak alperrik galdu, ta zela ez euan zerik...
- Hauxe da politta [beste bat], ointxe akordau jata. Gure [aitta...] esaten eban, entierrora jun bihar jua batek alkondararik [ez ei jeukan], ta auzora bialdu jua alabia alkondara eske.
- Alkondara bila.
- Ta haura fan zan lekukuak be bat jaukan bakarrik ta ezin emon alkondaraik ta atzera etorri zanian "Zer?" ta "Berak bihar dabela esan dau", "Kaka [...] alkondara bat [dauken gizonei]". Ta berak bapez.
- Berak bihar zebala bestiak? Bat bakarra...
- Berak bapez euki!
- Harek sikieran bat...
- Bat [eukalaaittik] barriketan bera!
- Ta harek bat eukan sikiera ta bestiak bapez!

## 1.20. Hileta elizkizunen inguruko usadioak: gurutz-bidea; kanpaiak...

- **Hizlaria(k):** Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-006/018
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:19:50. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak
  - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- **Laburpena:** Hileta-elizkizunak. Ganorazko biderik ez zen orduan eta gurutzbidean zehar nola eramaten zuten gorpua. Janztetxea. Kanpaiak desberdinak izaten ziren hildakoaren arabera (emakumea edo gizonezkoa izan; moja edo elizgizona; umea)

### Transkripzioa

- Ta...

- Lehen hori esan dotena, hiltzen danian, orduan kamiñorik ez zeuan — horrek herri-bidiak esaten jakuen hortikan—. Ta kajak oin, ba, holan luzia da kaja [...] hildakuena ta oin ez dake hamen astarikan hola... Zela esaten jakue horrerri?

- Bai, eskuekin...

- Oratzeko. Porejenplo, hau kaja da, ezta?

- Oin kaja bakarrik; lehen eukitzen juen, aparte eukitzen juen...

- Eskulekuak-eta?

- Bai. Bizkarrerako-ta...

- Andia edo zer da? Ez [...] moduko halako... bizkarrian ekartzen zan ta. Ta gero hor, bidietan, kurutze-bidia esaten jakuen. Arkaizko tunelian be badao. Kurutzia euan lekuan. Boskoittikua akordatzen zara? Boskoittin be bidian beste burdiñezko kurutze bat zela dauan? Boskoitti hor ta [eskumaldian], haitzan gaiñian.

- Bai, badakit nuan dauan...

- Bueno, ba. Hor pater nosterra —padre nuestro, aitta guria— errezau bihar izeten zan geratu ta hildakuekin datorrenian. Gero jatzetxia —zuk esan zenduana— jatzetxia be hortarako izeten zan, zela etortzen zian hortikan danak hupiduta goittik behera...

- Ba, oiñetakuak-eta aldatu ta danak...

- Han aldatu ta gero elizara juateko. Horren ondorian ze? A! Zera...

Badakizu zuk zenbat kanpai jo bihar dian hildakuandako? Ez...

- Ez dakit, ba...

- Ez, ba, ez dakizu, gaztia zara ta, baiña lehen be lehengua ta kanpaiak-eta oingo antzera dare. Andrakumia edo señorita edo señoria, “¿cómo le llamas?” Horrena izeten da zazpi kanpai. Lehenengo joten da agonixia, hiltzen danian. Gero gizonezkuena, gizonezkuena bedratzi. Gero, moja edo “una religiosa” harena hamar. Gero, “religiosos o curas o frailes o lo que sea” horrena hamaika. Ta ume bat edo haurra, ez dakit ze esaten dozen, hori hiltzen danian, horri joten jakuen kanpai-bueltakuak. Horrek jakitzeko gauzak dia.

- Bai, bai, bai. Ta kanpai bueltia ze da, holan, “tlin-tlin-tlin...”?

- Horrek, zerak, jaixan-ta joten dittue Andra Mari bezperan-ta horrek kanpai-bueltakuorrek? Kanpai bat jo biharrian, ba, bi kanpai edo hiru edo...

- Bai, bai, bai.

### 1.21. Hileta elizkizunen inguruko ohitura zaharrak

- **Hizlaria(k):** Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-006/020
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:23:15. **Bukatu:** 00:25:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- **Laburpena:** Hileta-elizkizunak; ohitura zaharrak. Zein orduan izaten ziren. Jantzetxeak non egoten ziren. "Ondra-bazkaixa".

#### Transkripzioa

- Oin, aber, ez dakit... hortik aurrera ez dakit nik be...
- Ta gero, entieruetan, orduan, ze eitten zian, bazkaixak-eta eitten zian [hemen]?
- Ondra-bazkaixa esaten jakuan. Entiarua in ta hurrengo atsaldian, hurrengo egunian-edo, atsaldian, ta gero hurrengo egunian goizian berriz. Ta gero ondra-bazkaixa.
- Ta goizian ze eitten zan?
- Elizkizuna, mezia-edo elizan.
- Entiaruak egoten zian, basarrikua, zortzi t´erdietan, oin atsaldian, illuntzian, daren moduan. Ta basarrikua zan euskeraz. Edo... euskeraz, ostera, nik... Bedratziretan izeten zan. Ta gero, ba, jantzetxiak zian hor, ba... Tinteroko tabernia. Entzunda ez zara zu egongo... Horrek eta Angelenekua ta horrek. Ta hor egoten zan [Utsurdiñekua], oin Edurtza daon lekuan, lehen [Utsurdiñeko] tabernia zeuan han. Ta hor egoten zian horrek onra-bazkaixok esaten jakuenok. Etxe bakoitzetikan —pentseizu—, bat hil da, ta etxe bakoitzeko bi laguneri bazkaixa emon bihar. Ta ni Arkaitzen nenguala akordatzen naiz, —ni neska koskorra, baiña— zela juaten zian etxaburuan han hartu txaketak holan bizkarrian ta bertsueta baten etxera.
- Bai, ba, eraten zebeñian, ba...
- Eran primeran.
- Ta etxe bakoitzekuari zeñi emon bihar izeten jakon, familixako etxietakueri?
- Familixakueri emon bihar.
- Ballekuak etortzen zian.
- Ballia ta dana? Ballia ta dana?
- A! Auzokuak eta...
- Ze tratu euken...
- Eta auzo danari emon bihar izeten jakon ala zeure lagun-edo zianeri?
- Ba, nik ez dakit han zela izeten zian. Gero ze...
- Dan-daneri [...].
- Senidiak be bai ta...
- Auzokuak eta hurre... senidiak [...].
- Hurren [ereneri]. Baiña zelako desastria, ezta? Hil da bat eta harek [...] halako gastua ein bihar harei bazakixa emoten.
- Bai, hori entzunda dakat eitten zebela gastu haundixa.
- Eta kosta zan hori kentzia hori usadixuori.

## 1.22. Hileta elizkizunen inguruko ohitura zaharrak: abadeari ordaina

- **Hizlaria(k):** Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-006/021
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:25:00. **Bukatu:** 00:27:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
  - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
  - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Maila desberdinetako hileta-elizkizunak. Bakoitzaren ezaugarriak. Zenbat ordaindu behar izaten zen. Abadeari burdikara egurra eta garia eraman behar izaten zitzaion. Noiz utzi zitzaion usadio horri.

### Transkripzioa

- Entierrua be primeria ta...
- A! Egoten zan?
- Bai.
- Hiru entierro-klase egoten zian, e! Primera, segunda y tercera. Primeria, "más elegante". Ez dakit zenbat abade... orduan sei abade-edo [erezen] hamen.
- Ba, entierrua pagau eitten zuan, ta prezio [bakoitzeko], ba...
- Ez dakit zenbat abade [erezen]. Ta gero segundia... primeria zanian, kantuak-eta "de aupa". Segundia zanian be bai. Ta terceria zanian, ba, gure modukuana.
- Abade bat eta...
- Infernura jun [...].
- [...]
- Soldauskan be bai. Soldauskan be pagau eitten zuan kuotia ta libre.
- Zetako pagatzen zan kuotia?
- Ba, bi milla pezeta edo ez jakixat ze pagatzen zan ta [librau eitten zuan].
- A! Librau?
- Bai. Diruaaittikan laga eitten otsen.
- Entiarrua nik ez dakit...
- Baiña orduan bi milla pezeta diru asko zuan! Igual behi bi igual.
- Entiarrua nik ez dakit orduan, ba, ez dakit zenbat pagatzen zan. Oin ez da pagau bihar izeten, zela emoten dan kuota parrokiala, pagatzen da, ezta?
- Ba! Lehen entierruan [...] entierruak eta danak pagau bihar eta, gaiñera, eruten [...] basarritatikan burdikada egurra bakutzak.
- A, bai, abadiari.
- Ta garixa be bai.
- De dios!
- Ta lehelengo abadia Jose edo don Jose edo ze zan haura, hor basarrikua-edo laga zotsana kobratziari?
- A! Bai, bai, bertan han goixan bizi izen zana. Basarritarrak berak be nahikua lan daukela ta... Baiña hor...
- Txokauta jente guztia...
- Laga zotsalako horrek hartziari?
- Kobratzia ken... Basarritarrak berak daukela nahikua lan ta ez dabela berak bihar. Baiña aurretik egon zianak, ba, burdikada egurra ekarri bihar izeten otsen. Ta urte guztirakua.

### 1.23. Gizon-emakumeen banaketa elizan

- **Hizlaria(k):** Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-006/022
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:27:00. **Bukatu:** 00:27:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Elizan, emakumeak eta gizonezkoak banatuta eseri behar izaten ziren.

#### Transkripzioa

- Ta elizan barruan be egoten zan toki diferentiak jentiandako-ta?  
- Jentiandako egoten zan... Nik horrek txikittakuak, gaztetakuak, nik ez dakat horrenbeste, baiña parrokoa zein zan haura egon zana? Ez dakizu? Andrak alde batera ta gizonak bestera ipintzen zittuana...  
- Plazentzian?  
- Bai. Ejerz... Misiñuak-eta egoten zianian. Don... Don Roke edo zein zan haura? Arrebia potola-potola bat eukana. Gizonak alde batera, ezkerreko aldera, ta andrak bestera, apartauta ipintzen zittuan harek.

### 1.24. Ohitura zaharrak: letaniak; konjuruak...

- **Hizlaria(k):** Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-006/024
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:29:20. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak  
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Letaniak Asentzio egunean. Ermitak zituzten auzo guztietara joaten ziren. Konjuruak.

#### Transkripzioa

- Ta lehen egoten zian, ba, letañak esaten jakuen, ezta? Asentzio egunian.  
- Konfuruak eta [lehen gauzak]. Konfuruak dittuk garixan... garixan soruan, ezta, konfuru. Horreaittik ze emoten otsen? Emoten zotsen, ba, horreaittik be zeoze.  
- Oillaskuak eta [...]. Baiña izaten zian, ba, Asentzio izeten da, ba, Pazkuak baiño hamar egun aurretikan. Ta orduan egoten zian, ba, letañak. San Roke... Ezozira ta San Rokera, San Andresera, gero San Inazio ein zebeñian Txurrukara be bai ta Irure —ermittak eren lekura—, Irure ta San Marzial — batera tokatzen zian horrek. Ta gero hor —ni izenda nao— batenbat etxian hilda bazeuan —aitta zanan lutuan izen nitzan ni—, letañetara juan ein bihar izeten zan.

### 1.25. Abadea baserriz baserri konjurua egiten

- **Hizlaria(k):** Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-006/025
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:30:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Abadea, baserriz baserri joaten zen konjurua egiten. Gari-soroak eta bestelako sailak bedeinkatzen zituen. Ordainean, zerbait eman behar izaten zitzaion.

#### Transkripzioa

- Ta gero orduan juaten zan abadia garixa euan lekura zera, konjurua esaten jakon, garixak eta terrenuak bedeinkatzera. Gero ez dakit zertzuk zian, oillaskuak eta ez dakit, zeozertzuk eruan bihar erregalo abadiari. Bedeinkatu bai. Txurrukara juaten zanian, don Asentzio difuntua zan ni azkenengo izen nitzanian Txurrukatikan haura juan zan, Don Asenzio. [...], e! Hola, basarri guztietan garixa zertzen, bedeinkatzen.

### 1.26. Gaixotasunen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-006/046
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:02:25. **Bukatu:** 01:04:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- **Laburpena:** Gaixotasunak: elgorria; kukurruko-eztula. Pulmonia.

#### Transkripzioa

- Lehen elgorrixa ta kukurruko eztula ta...  
- Zein? Zein?  
- Elgorrixa...  
- Eztula, eztula, kukurruko eztula txarra [izaten zuan], e?  
- Kukurruko eztula zera da erderaz...  
- Bueltau ezin [...], bueltau ezinda [eztula...].  
- ... "tosferina". Badakizu "tosferina"? Ez? Ba, kukurruko eztula horri esaten jakon. Bueltau ezin ta itto bihar ta itto ezin.  
- Ta luzia, gaiñera.  
- Ta elgorrixa zan zera, "sarampión". Ez dakit entzunda daukazun hori.  
- Hori bai.  
- Kalenturia ta...  
- Egarrixak itto biharrian ta zera... urten eitten dau horrek elgorrixorrek gorputz guztian.

- Dana grano moduko zera da.

- Ta, pentsaizu, lehen eukitzen zan hazkuria ta gero emoten zeben ardaua egositta urakin haura berotasunakin haura etartzeko. Ta mantan batu umia edo euana berriro beruakin urtetzeko. Zuk esango dostazu zelako disparatiak. Lehen halako berua ta pikorra ta gero manta baten batu. Ta gero egarrixak han txarra zala ura ta. Ta oin, berriro, baiñatzen be laga eitten [gaittue].

- Pulmonixakin ta urik barik ittotzen han.

- Urik eran barik?

- [Pulmonixakin] urik be ez ta kalenturia galanta ta... Lehen gehixenak hil, e? Pulmonixakin. Bederatzi egun pasau bihar...

- Bueltatzeko.

- ... bueltatzeko, bai.

- Gure ama zana juanda dao Azkortako Agustin zana, gure lehengusua? Zera, pulmonixa ta bedratzi egun ala zortzi ez dakit zenbat dian, oseake, bueltia hartzeko, ezta? Ze esaten jako horri "no sé qué secundarios" edo... Bueno, ez dakit zela esaten jakon.

- "Efectos secundarios" edo?

- Ez dakit zer.

- Bueno, bai, igual da.

- Hori bueltatzeko, horren bueltia hartzeko. Ta gure ama zana be Harkaiztikan gizonak eta andrak ohian hari mutillari eutsi ezindda, kalenturiakin itto bihar ta. Ta hil mordua eitten zian. Baiña...

- Hil gehixao salbau baiño pulmonixakin. Oin pulmonixarik ez dok entzuten, oin neumonia.

- Bai, baiña elgorrixa-ta ez dia [...] oin, oin zerak bakunak emoten dittue, batian "para el sarampión", bestian ez dakit zer...

- Bai, bai, oin kurak eitten dia ta, hartu aurretik.

- Umiak, ba, beren taldetan emoten dotsez oin...

### 1.27. Gerra osteko egoera: errotak itxita...

- **Hizlaria(k):** Aranberri Laskurain, Natividad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ariznabarreta, Gurutze - Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-010/010
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Errotara Osintxura joan behar izaten zuten; inguruan errotaren bat zegoen, baina itxita. Baserrien izenak. Gaez errotara joan behar eta ipurtargia ikusi zuteneko anekdota.

#### Transkripzioa

- Gero e, irin pixkat jiratzeko be garixakin hamen ez euan inguruan errotarik. Errotia baeuan baiña zerrauta: legiak eren halaxe-ta, ez dakit zer. Osintxura juan bihar izaten zan iriña ekartera. Eta juaten zan, ba, Osuma azpittik, Agarre-beisteittik, Gantxeitxoko goittik zihar astuak hartu, ta Osintxura.

Juan giñan hamar t´erdietan Juli ta bixok etxera eta amak eitten deusku

eze: "Ai, ez jaukanau iriñik be ezer eitteko. Talo batzuk eitteko iriñik be ez jakanau ta... Horretxek gari-zorro bixok ihota bageunkanaz sikiera" esan euskun amak. Ta Juli ta bixok: "Geu juango gara. Bigar ordu bixetan zelan juan bihar dogun biharrera, ba... bihar goizian lo eitteko geu juango gara".

- Ze, gabian juan ziñan?

- Gabian, gabian. Bagoiaz Agarre-beisteittik harutz eta han baso baten, holan, argi txiki bat. Ene, ba! Linternia edo... "Zein ete da? Zein ete da?". Baiña juan ein bihar, haraiño juan ezker astuokin, juan ein bihar...

- Buelta ezin ein berriro...

- Ezin buelta ein. Juan giñan, allegau giñan eta... ipurtargixa. Mamorro txiki batek ipurdixan argixa eukitzen dau... Ipurtargixa! Haura ikusi giñuanian pozik, "Ene, ipurtargixa!"

Gero, bi asto eren, asto gaztetxo bat eta zaharra zelai baten eta Julik eitten dosta eze: "Nati, honetxek astuok gaiñian jarteko hartu ein bihar jittunau guk". "Bueno, ni zaharran gaiñian e?" esan notsan. Juli gaztian gaiñian. Juaten jakon gaztia...

- Saltoka?

- Saltoka...! Ni zaharran gaiñian... Aspertu giñanian laga genduzen nunbaitten astuok eta... hala! Ene! Zenbat holako ibili, zenbat holako ibili eindakuak gara gu. Baiña irin pixkat jiratzeko be holaxe ibili bihar zan, holaxe ibili bihar zan. Holaxe ba.

- Ta orduan zuk, amama, zuk asto zaharra, ez?

- Nik asto zaharra. Lehenengotik esan notsan, e? "Nik zaharra hartuko jonat, hik hartin txikixa".

- Ta bestia konforme?

- Juli bai, juan ein bihar...

### 1.28. Baserria erre zeneko bizipenak

- **Hizlaria(k)**: Gabilondo Agirrebeña, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-011/009
- **Iraupena**: 0:03:56. **Hasi**: 00:11:24. **Bukatu**: 00:15:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Goizeko lehenengo mezara etortzen ziren. Baserria eurena zen. Baserria erre zitzaieneko kontuak. Aurrerago ere erre omen zen baserrian, eta orduan behi batzuk ere erre zitzaizkien. Eurek pertsona eta animalia guztiak ateratzea lortu zuten, baina barruko gauza guztiak erre zitzaizkien.

### Transkripzioa

- Orduan mezetara ta... juan... oin baiño... jentia juan bihako zan zuzenao oin baiño, ezta?

- Bai, gu be etortzen giñan, lehenengo mezetara etortzen giñan, lasta-azauakin etortzen giñan.

- Bai, entzunda daukat...

- Jo, hori be galdu da majo, gauzia... Gero hor be, zertu zanian, eruan zanian, ermittia, San Inazio, jaiero egoten zan, ezta? Beti batenbat

etortzen zan, fraile edo batenbat, gu horra juaten giñan. Oin horrek danak galdu dia, e? Baiña gu... hoixe etortzen... Gu bakarrik ez, e? Hor goixetakuak-eta be bai. Edurdungotik-eta zela etortzen ziala uste dozu? Farolakin edo bestela, lasto-azauakin. Neguan ta...

- Zeuek basarrixan ze, errentero ez ziñien izango?

- Ez, basarrixa geria zan, geria zan basarrixa.

- Eta gero kalera, hona bajatu ziñien?

- Hau hartuta geunkan hau etxiau etxia erre zanerako, erre ein zan basarrixa. Ta... Hau erositta geunkan ordurako, ta gero hona bajatu giñan.

- Gero honaxe...

- Baiña ha dana erre zan, e?

- Dan-dana?

- Ganau... Eskerrak egun-argiz tokau zan ta ganauak eta danak etara genduzen. Ta Felix zeuan gurian geixorik orduan, ta haura ohetik atara neban eta bestiak piñurixan zebizen, piñu-markatzen, Jose Ramon ta gizona ta anaia, hil zana. Ta haura ohetik atara neban ta akordau nitzan sua. Sua ez, sukaldia jo-ta dana illundu jatan.

- Keiakin?

- Bai. Ta gero dana argittu, zu! Ta urten neban kanpora ta pentsau neban tximinixiak su hartuta, ta ke ba! Tximinixiak e... tximiñixatik normal keiak urtetzen zeban. Juan nitzan beste aldera ta... ointxe be ikusi eitten dot, ate bittartetik haura zan sua urtetzen zebana! Esaten notsan han, Osintxun bizi da, Rosarito edo... matarifia Bergarakua ez dakit ezagutzen dozun, Labaka?

- Bai, Labaka ezautzen dot.

- Haren ama han eguan Unamunora etorritta, ta ni hari diarka, "Rosarito!" ta inok be kasorik be ez zostan eitten, ez zeban entzuten. Eta ama euken harek ohian, ta justu-justuan atara zeben ama, e?

- Handikan?

- Barrutik. Atara ta segiduan jausi ei zan tetxua, behera.

- Nahikua suerte behintzat...

- Suertia? Bueno! Ba, lehen be erretakua zan Unamuno, gu artian jaixotzeke genden, ezta? Baiña lehenao be martzuan 23a edo esaten zeban... nik amari entzunda nik zela erre zan. Ta orduan txahalak be itxuria erre zian, bi txahal edo esaten zeban harek zela erre zian ta... Oinguan ganauak eta ez... ostian bai trastiak danak erre jakuzen, e! Horrek lehengo basarrixok dana... egurra ta, badakizu?

- Bai, bai, horrek hartuko dabe... Ointxe erre da...

- Ta gero tokau zan hego-haize bat... erre artekua izan zan, e?

[Hamarretatik] hamaiketarako dana errata zeuan. Angiozarren erre da ointxe, zuen senittartekuak...

- Bai, tion ta... zera.

- Bai. Ta nik esaten neban e... egunaz tokau zan, bestela geu be bertan erreko giñan, e!

- Akordau ez.

- Horixe, akordau barek, jo-ta pasauko giñuzen! Egunaz tokau zan ta... Zera, esaten ebenn e, gere aldia, erdiko hormia oso ona zekan ta... Baiña batenbatek, ez dakit, ebagi egurak eta frontalak eta ebagi eta salbauko zala esaten zeben, baiña... [haize bat]... eta batenbatek min hartu bihar zeban ta... bueno...!

- Bai, bai, ez dau merezi.

- Merezi ez, ba, bueno! Sua gauza tristia da.

- Ba bai, ta horrek basarrixak, ba, errez, deskuidotxo bat nahikua... Baiña bueno...

- Ez dakiu zetatik izen zan, ezta? Beste aldetik izen zan ta... Han be mutilla egur-tratuan ta ibiltzen zan ta urtenda zan ta ama ohian, ta arrebria ta

alabia ta juaten zian kaletik, ezta, eguardixan, baiña horixe... Lagatzeko, gaiñera, esaten ei eban bertan.

- Zeiñek, andrriorrek?

- Andriak, esaten ei eban, lagatzeko.

### 1.29. Eskolan dena gaztelaniaz; zigorrak

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Agirrebeña, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-011/017
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:24:22. **Bukatu:** 00:26:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eskolan dena gaztelaniaz egiten zieten. Hasieran ez zuten ulertzen, baina denborarekin ikasi zuten. Gerra garaian ez zieten uzten euskaraz hitz egiten. Jartzen zieten zigorra: bankuak esku banatan eutsi beharra. Erljioa ikasten zuten gehienbat eskolan.

### Transkripzioa

- Zeueri hemen eskolan dana erderaz emoten zotsuen?
- Bai, dana erderaz emoten zoskuen, orduan ez zan euskerarik.
- Ta entendidu ta eitten zenduen bape?
- Bai, horraxa etorri giñanian zeoze entenditzen ekin giñan, badakizu.
- Poliki-poliki?
- Bai, ta gero, gaiñera, gerra-denporan be, badakizu, euskeria eitten ez eben lagatzen, e! Ez eben orduan lagatzen, gerra-denporan, euskeraz eitten.
- Eskolan be prohibidu eitten zotsuen euskeraz eittia ta?
- Orduan ein be ez zan eitten eskolan, e? Hemen, hola, euskerazko maistrak ez dakit egon be ein zan. Bueno, egon eingo zian, baiña erderaz dana, porke Maria Teresa Amañanekua be euskalduna zan, ezta? baiña, erderaz dana orduan.
- Eta akordatzen... ez zebe ipintzen holako anillua edo holako bat eta?
- E?
- Anillua-ta ez eben ipintzen euskeraz berba eitten zebanari, ti-ti pasatzeko eta halako...?
- Ez, horrekin ez naiz akordatzen, anillua pasatzen zebebian.
- Ez, entzunda dakat...
- Anillua pasatzen zala?
- Bai, euskeraz harrapatzen zebanari ipintzen zotsela anillua ta ... bestiak hari ta bestiak hari ta hola ibiltzen ziala. Baiña gogorruak bai izango zian, ezta, harek maestrak eta?
- Deskuidatzen baziñan, ipiñi eskuak honetara ta, makilliakin... bueno! Ta gero banketak be bai ipintzen zittuen, kastigua emoten zebebian, bankutxuak, esku banatan, ta holaxe egon bihar.
- Eusten egon bihar?
- Haura erakusten be ona zan haura maestriaura, baiña gogorra zan! Oso gogorra zan.
- Ta asignaturak-eta zertzuk emoten zenduen, relijiñua ta hola asko, igual?
- Relijiñua gehixao, relijiñua gehixao...

### 1.30. Sorgin kontuak; umeak beldurtzeko Sakamantekas

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Agirrebeña, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-011/021
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:29:20. **Bukatu:** 00:32:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Lagun batek sorginak azaldu zitzaizkiola esaten zien. Tabako paketearen tamainokoak zirela besterik ez zien kontaktzen. Kateekin ere azaltzen omen ziren, baina auzoko jendea izaten zela uste du. Bere senarrari ere bidera azaldu zitzaizkion eta dirua ostu zioten. Umeak beldurtzeko Sakamantekasa etorriko zela eta zakuan eramango zituela esaten zen.

### Transkripzioa

- Zu akordatzen zara entzunda e, ibiltzen zala jentia izarekin-ta jantzitta

gabian ta halakorik eta?

- Bai...

- Hemen be bai?

- Sorgiñak urtetzen zebela ta!

- Esate eben?

- Hori auzoko batek kontau zoskun guri, berak ikusi zittuala. Ta zelakuak zian esaten gontsan ta... hebria ez dakizu? Lehengo haura tabako hebria esaten jakon, halako kuadrautxo bat zan. Ta zelakuak zian, ba, esaten gontsan ta, ba, hauraxe tamaiñua zala esaten zeban.

- Zeiñek? Sorgiñori?

- Sorgiñak!

- Tabako paketian tamaiñakuak?

- Bai, guk prentau eitten gontsan. Agarrekua zan, hori, kontau zoskuna, Bitor, ta zelakuak o zer zian, ba, ta holakotxe tamaiñokuak.

- Eta gehixao ez eben esaten ezebe? Holako tamaiñua zekala? Ta ez zian... kataiekin eta ez zian ibiltzen?

- Bai, entzunda nao hori, kataiekin ta, zela ibiltzen zian...

- Ta hori ze izeten zan?

- Zera, hori izengo zan bertan auzokon batzuk; ez sorgiñak, bertan auzokon batzuk.

- Ta hori ez zebe esaten zegaittik zan ta ezebe holakorik?

- Orduan urten ta be eitten zebe, edozein lekutan-ta. Ni gizonari be entzunda nao, han Madarixara ferixara juan ta zela urten zotsen, zera tapauta, arpegixa tapauta, ta ekazen diruak danak kendu zotsezela. Ta gero, behintzat, enterau ei zan auzokon bat ei zan. Auzokua zala esaten zeban harek.

- Ta, orduan, hor gehixao izeten zan holan lapurreta ta hortaiko zera...

- Bai, lehen horretaikuak-eta entzuten zian. Ni akordatzen naiz gaztia nintzala, esaten zan, zera, fulanori urtendakua, ta zein zanik be ez. Ta gero, behintzat, horrek behintzat enterau ei zian auzokua zala, diru danak kendu ta... arpegixa tapauta zela urten ta diru danak zela kendu zotsezan...

- Zeueri kontatzen zotsuen txikittan hola... ez zendutenian nahi zeoze eittia edo, zer esaten zotsuen bildurtzeko ta hola, bateron bat etorriko zala eta holakorik?

- Bai, hori bai esaten zebe, bateron bat etorriko zala, zakuakin ibiltzen ziala ta... siñistu eitten genduzen! Ez dakizu?

- Biharko sinistu!

- Orduan sinistu eitten zian horrek... Zakuakin ibiltzen ziala ta...

- Umiak eruaten zittuela ta?

- Umiak eruaten zittuela ta... Sasoi baten, Sakamantekas ta, ze esaten zan, eskolatikan igual errotara juan bihar zorruakin ta Sakamantekas etorriko zala, ta haura izaten zan bildurra, zu!

- Harek harrapau eingo ete zinttuen?

- Zelako bildurra baiña, zu!

- Bai ba, hainbeste aldiz kontauta ya...

- Bueno! Hainbeste aldiz, ba...

### 1.31. "Plazentziatarrak esaten dotse..." kanta

- **Hizlaria(k):** Loiola Txurruka, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-016/015
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:44:15. **Bukatu:** 00:45:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Unamuno, Arianne
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "Plazentziatarrak esaten dotse..." kanta abesten du Miren Loiolak.

### Transkripzioa

- "Este... había una canción que dician en:

Plazentziatarrak esaten dotse  
errekiari ibaixa,ibaixa."

- Bai, entzunda badaukat.
- Bai Eibarren... "baiña eibartarrak hartuko leuke Plazentziako ibaixa". Eibarrek tapauta daka.
- Bai bai bai, badakit.
- Bai.
- Entzunda nekan hori kantziño hori, baiña neuk ez dakit.
- Gure txikixak danak dakixe, dana erakusten dogu guk.
- Jo...

### 1.32. Gaez bordan txondorra zaintzen

- **Hizlaria(k):** Arizaga Larreategi, Juan; Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-028/003
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:05:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Unamuno, Arianne
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Bordan zeudenean baba beltza urdaiarekin eta zopa jaten zuten eta sagarren bat aukera izanez gero. Ikatza pezeta eta erdian saltzen zuten. 12 urterekin hasi zen horretan, egunez eskolara eta gaez ikatza egiten.

### Transkripzioa

Egoitz - Ta jana ta?

JL - Jana? Baba beltza edo... Lapikuan ipini.

J - Urdaixa babyakin. Lapikuan gaiñian zopia ein. Sagarren bat sasoian tokatzen bazan, ta bestela kitto.

Egoitz - Noberak preparauta?

JL - Ez, zerak preparauko jok! Oin baleok holako bizimodua, oin! Ene, ene...

J - [...] batzuk bai. Etxakiat...

JL - Ez nok akordatzen.

Egoitz - Ta diru asko etaratzen zan ikatzakin ta?

J - Ikatzak ta, zenbat uste dok ba! "Una setenta y cinco", hortxe, kilua.

Egoitz - Pezetia? Pezeta ta hirurogeita hamabost xentimo?

J - Bai. Gero pixkat igual ixotzen jua. Hirura be ixo jua.

Egoitz - Ta hortan zenbat urtekin ibili ziñan?

J - Hamabi urtekin jua nitzuan ni lehenengo.

Egoitz - Zenbat urtekin?

J - Hamabikin. Gabian, ta egunez eskolara.  
JL - Haura lana!

### 1.33. Errepublika garaiko bizipenak eta aldaketak

- **Hizlaria(k)**: Ezenarro Alberdi, Jaio; Iñurrieta Goikoetxea, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Basauri, Jon
- **Erref**: SOR-035/002
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:00:40. **Bukatu**: 00:03:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Errepublika garaiko bizipenak. Plaza zaharrari "Alfonso XIII" izena jarri zioten eta errepublika hasi zenean, 12 urterekin, hari harrika ibili ziren. Erlijioak indarra galdu zuen errepublika garaian eta eskola erlijiosoen eta publikoen artean kompetentzia sortu zen.

### Transkripzioa

- Republikia heldu zanian, zenbat urte zekazuen zuek?
- Iñaki: Nik hamabi, hamahiru ein bihar, uztaillian ein bihar hamahiru. Ta hori izan zan ba...
- Jaio: Nik hamaika einda.
- I: Hamabi eindra, ein barrixak hamabi.
- J: Bai ,bai.
- I: Martixan hogeta bederatzixan hamabi ein ta apirillan...
- J: A bai, hori dok, hori dok. Hemeretrixan, hemeretrixan...
- I: Bueno, nik orduko zera daukat, urte pare bat edo aurretikan, Primo Riveran zera zeuan, diktaduria esaten jakon, ta Plaza Zaharrari ipini otsen izena "Plaza de Alfonso XII".
- J: Trece, trece.
- I: Edo... trece. Ta hamabi urtekin, goguan dakat, kuadrilla bat hari harrika zela ibili giñan.
- J: [...].
- I: Erregian zerari, hamabi urtekin! Anbientia... Hasieria hori izan zan neria Errepublikiana.
- J: Neri be bai, hantxe nitzuan neu be ta! Hantxe nitzuan.
- I: Egun batzuk aurrer... bueno, egun batzuk edo pare bat urte edo aurrerao izango zuan, edo hiru edo holan, zerian, formauta ume guztiak etorritta ta izena ipini otsenian horri. Eskoletako umiak eta eguardi denporan. Inportanzia haundixa emon jakon erregian izena emotiari horri. Ba...
- Eta ze kanbixo? Hau da, igarri zenduen kanbixorikan? Eskolan-ta pasauko zian, ba?
- I: Bai, libertade gehixao egongo zala. Oin... oin detalliekin-ta ez naiz gogoratzen ni. Baiña gauza bat somau nebana nik, eskoletan... Klaro, orduan, handikan hillebete batzuetara, ba, zera, hau, relijiñua-ta zertu ein zian. Oseake, lehenao, ba, Elixia zan, Estaduan gehixen aintzen ebana. Ta ya "separación de la Iglesia y del Estado" ein zebe ta zerak, relijiosuen eskoletan be, ba, relijiosuak "paisano", oseake, bere sotana baekan ta ibili bihar izaten zian. Ta egon zan "pugna" bat "escuelas públicas" esaten jakuenekin ta eskola relijiosuen artian... Erakusten zaildu zian danak — guri ondo etorri jakuna. Bai, oso, zera izan zan.

### 1.34. Eskolara maristetara, jaunartzea egin arte

- **Hizlaria(k)**: Aranberri Laskurain, Margarita; Laskurain Lizarralde, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: SOR-043/004
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:08:52. **Bukatu**: 00:12:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Eskolara maristetara joan zen Soraluzera. Etxean egindako galtzerdi batzuk erakusten dituzte. 8-9 urterekin hasi zen eskolara, jaunartzea egin arte. Baserriko ume asko joaten zen eskolara. Dotrina ikasten zuten eta fraideak erdaldunak eta gogorak ziren. Matematikak eta irakurtzen ikasten zuten.

## Transkripzioa

- Eta eskolara Maristetara juan ziñan?
- P: Bai, Maristak.
- Eta nun zeren orduan Maristak?
- P: Maristak? Guardia Zibillen kuartela badakizu nun zan, hemen elizburuan? Han iturririx badao. Iturririxaren gaiñian zan patixua ta patixuan ostian Kolejixua edo esaten jakona, hortxe...
- M: Honek kalekuakin eindhakuak.
- Dotoriak, e?
- P: Honek kaleko laniakin eiñak dia. Bai? Gogorra da.
- M: Bai, bai, kalekuakin eindhakuak, aitta.
- Polittak.
- M: Ba neguan, kanporako girorik ez da egoten ta...
- P: Eskolara juan bai, asko ikesi ez giñuan eiñ, ibilli,...
- Zenbat urtekin-edo juan ziñan eskolara?
- P: Eskolara ez dakit nik zenbat urtekin baiña orduan eskolara juatia ez bakarrik, Primera Comunió eta Comunió eta elizarako jirak eta gauzak asko eren, e? Oindik diferente. Baiña zortzi urte edo beratzi biharko zian eskolara juateko. Ez dakit zenbatekin juan giñan, ez dakit hori, baiña hemendik kaletik atzera-aurrera eitteko be egunero...
- M: Ikasi esaten da baiña, hamar urtekin juan nintzan ni eskolara. Amama ez zala ta hari laguntzeko, etxian. Ta zenbat denpora eukiko giñuan, ba, guk eskolan gero? E?
- P: Hiru bat urte, Komuniua eindhakuan asko...
- M: Fuera!
- P: Haura zan ba inportantia, komuniua, Primera Comunió...
- Eta Maristetara esan dozu juaten ziñiela...
- Bai, Maristetan.
- Eta basarriko ume asko juaten zian bertara?
- P: Erenak. Oiñ baiño gehixao! Oiñ basarrixan ume gitxi dago, baiña orduan danian, bat edo bi edo, basarri danian, hogeita bi edo hiru edo etxe bazian hemen ballian, San Andres ballian, baiña, gaur zer?
- Eta hemendik ze juntatzen ziñazien, ba, ez dakit, lagunak edo?
- P: Esniak be orduan astuan kalera egunero eruaten zian, ta esnedunakin, eta zortzi t´erdietarako eskolara juan bihar.
- Orduan, lehenengo esnia partidu ta eskolara?
- P: Ez, esnia partidu gerotxuao haura, oindio lehen... besteren batek partidu bihar zittuan...
- Eta eskolan akordatzen jatzu, ba, ze ikasten zenduen edo, numeruak edo matematikak edo?
- P: Dana! Dotriña be bai, oiñ baiño beltzao! Bera nahikua, e!
- Bai?
- P: Bueno, bueno!
- Gogorrek zian frailliak edo...?
- P: Bastante zian, diferentiak bataandik bestiaana, baiña... Belarri-motxak asko, kastellanuak zian asko ta...
- M: Maristak.
- P: Maristak.
- M: Maristak zien.
- Eta bertakorik bazeguan orduan?
- P: Ez, ez, maristarik ez.
- M: Kanpokuak harek.
- Eta klasian esaten dozu dotriña eta sumar eta horrek e...

- P: Bai, sumar, restar, ta multiplicar, ta dividir be bai. Ikesi asko ez, baiña ibili ein bihar ta... Leitzen be zer? Bai, gauza asko!

### 1.35. Maisuen zigorrak

- **Hizlaria(k)**: Aranberri Laskurain, Margarita; Laskurain Lizarralde, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: SOR-043/005
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:12:22. **Bukatu**: 00:14:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Maisuek jartzen zizkieten zigorrak aipatzen ditu. Eskola erdaraz ikasi arren euren artean euskaraz hitz egiten zuten.

#### Transkripzioa

- Eta zelakuak zian orduan frailliak?  
- P: E?  
- Zeure profesoria edo maixua edo zelakua zan?  
- P: Ba, bastante. Hau itxi ebena [... itxi] edo halakua, kastigua paretan kontra.  
- M: Paretari begira.  
- P: Kastigua, paretari begira. Gero haura errekreoko denporan-edo paretari begira egotia kastigua izeten zan  
- M: Bai ba, kanpora bestiak zoiazienian...  
- P: Hamarretan edo hamar t´erdietan edo patixuan bueltia ta komuneko bueltak ta hau ta hori ta pelotan pixkat eiñ eta orduan kastigauta eguana paretari begira, kastigao! Eskuak poltsikuan edo hola, edo txint, bueno, modu askotara.  
- Eta, esaten dozue kanpotarrak ziala Maristak, orduan, klasiak be erderaz emongo zenduezen ezta?  
- P: Bai, bai, bai... euskerazkorik ez zeguan orduan.  
- M: Baitta semiak be harekin ibili zian, Jose Luis, Juan Inazio ta honek be.  
- P: Bai? Maristekin? Ez dakit zela zan orduan.  
- Eta klasiak erderaz emon arren, zeuen artian euskeraz eitten zenden?  
- P: Han bertan bai, patixuan edo. Beti ez eben lagatzen, e? Ta neuk be erderaz jakiñ ez ta komerixak e... bazian.  
- Baiña ez zebeu lagatzen, baiña zigorrik ez eben ipintzen, ez? Euskeraz eittiarren zigorrik ez zebeu ipintzen, ezta?  
- P: Ez, zigorrik ez, baiña zeozer igual, haura paretan modukua edo... danerakuak.  
- Zuk ezautu dozuz zigorrak, eraztuna ipintzia ta euskeraz eittearren eta?  
- P: Ez, holakorik ez, paretan kontra edo holako kastigua...  
- Besterik ez...

### 1.36. Barruko arroparik gabe; baserritarrek janztetxea kalean

- **Hizlaria(k)**: Aranberri Laskurain, Margarita; Laskurain Lizarralde, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar

- **Erref:** SOR-043/007
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:15:50. **Bukatu:** 00:18:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Ez zuten uniformerik eskolarako. Orduan ez zen barruko arroparik jantzen. Gurasoen lagunen etxera, jantzetxera, jatekoa eta arropak eraman eta bertan bazkaltzen zuten. Baserri bakoitzak bere jantzetxea izaten zuen.

### Transkripzioa

- Eta eskolara zelan juaten ziñazien jantzitta, uniformerik eta ez zekazuen?
- P: Ez, ez, u-ni-for-mi-a?
- Horrek geroko kontuak dia, ez?
- M: Fraka luzetxuauak eta, belaunetaraiño ko frakak eta... Jesus, Jesus!
- P: Orduan gantzontzillorik-eta jantzen ete zan? Ez seguruasko, guk ez behintzat zati baten. Emakumiak be ez zittuen eruangorik. Ez dakit nik, baiña... Epoka hartan, e? Haura aintxiñan zan, e! Hi, haura...
- Horrenbeste be ez...
- M: Bai ba.
- Orduan, barruko erroparik-eta ez zenduezen zuek ezautu umetan?
- P: Tira! Barruko erropak?
- Esan dozu jantzetxia egoten zala...
- P: Jantzetxia, bai... Hortxe eliz-buruan bertan geunkan guk.
- M: Etxe bat, ba, jateko ta aldatzeko ta...
- Amistadia edo, gurasuak eukerik ezagueria eukena, ta hareri eruan, babak...
- M: Baba edo... jatekoa.
- Ez gaurko moduan haura nahi dot eta hori ta, hi, ez...
- Harek preparau ta bazkaldu han. Bai.
- Iluntzixan ogi pusketak bat ta txokolate ontza erdi hartu ta etxera takatata. Kaletik hona etorri ein bihar da, e?
- Eta jantzetxian esaten dozue, bertara babak eta eruan eta han ze eitten zan, etxetik eruangorik abarkak eta bertan laga...?
- P: Bai, bai, aldatu ta, gaiñera, andra bat euki giñuan izugarri ona. Harek e... Hemendik ez dago oiñetakuak sikurik eruatetik, e? Galtzak busti ba(g)e ezin eruan. Harek, iluntzixan, sikatuta. Oso ona, baiña...
- M: Gero, badakizu, pagau, ta ba zeoze eruan etxian eguanetikan, ba, eruan hari. Beti zeozer.
- P: Egurra be, oingo moduan [...] zan ta egurra bihar ta...
- M: Gaiñera, egurra astuetan zaku egurrak esniekin batera eruatetik zian ta etxetara partidu geuk kalera, kaleko zereri.
- P: Hori gure denporakua da.
- M: Ene! Oiñ! Bai, hori gere denporan.
- Eta hau jantzetxiana-eta esan dozue, amistadia zekazuen famelixaren batekin edo, baiña hori orduan ze izaten zan, baserri bakoitzak beran jantzetxian zekan...?
- P: Bai, bai.
- ... ala auzo bakoitzak?
- M: Ez, ez, beren zerak bakoitzak berak.
- Oseake, bakoitzak berak...
- P: Gu egon giñan lekuan be geu giñan bakarrik.
- M: Bai, geu bakarrik.

### 1.37. San Andres auzoko ermita

- **Hizlaria(k):** Eguren Larreategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** SOR-047/004
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:02:55. **Bukatu:** 00:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** San Andres auzoko ermitan kanpaia jotzen zen hodia zetorreanean. Kanpai klase desberdinak: albakoa, angelusa, hildakoen kanpaia...

#### Transkripzioa

- Haura han zeak garbitzera etorri zanién... porke hor San Andresen kanpaia dao. San Andres baillia, San Andres auzuan, oin jaixak eitten dian tokixan. Ta harek jotén zeban hodia zanian kanpaia; eta angelusa, goixian albokua, ta danak, e, jotén zittuen bertan auzoko batek, Artetakuak. Eta pasatzen eban, ba, garixa ta artua ta... auzua pasatzen eban kanpaiana, hildakuen kanpaia be jotén zeban ta dana ta, ba, pasatzen zeban hori. Hori emoten jakon hildako bakoitzena ta etortzen zan ta berak hartu bizkarrien ta eruten zittuan danak eta kanpaiori.

### 1.38. San Andres auzoko kanpaiak

- **Hizlaria(k):** Eguren Larreategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** SOR-047/009
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Unamuno, Arianne
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** San Andres auzoko kanpaiak. Hildakoena; aingeru-kanpaia. Hildakoa gizonezkoa edo emakumea zen jakiten zen kanpaien arabera. Egun, gauza hauek erdi-galduta daude.

#### Transkripzioa

- Orduan e, sasoi baten ez e, hango kanpaiak e inportzia haundixa zekan.  
- Oin ezebez. Bai bai, hango kanpaia edo auzuan baten bat hil dalako, auzokeri jotén zotsen e. Hoixe, auzuan baten bat hil da, ene, baten bat hil da. Aingeru-kanpaia be diferente jotzen zeben. Aingerua, umia hiltzen zanian be diferente.  
- Zer zan, finaua holan tlin?  
- Beste, beste tono bat emoten zotsen.  
- Eta gero bazeuan e desberdintasunik ba ez dakit gizonezkua bazan hildakua edo emakumia?  
- Klaro!

- A bai?
- Bai. Zazpi emakumiai tta beratzi gizezkuai jotzen zezen. Kalian, oin be egongo da hori, kalia.
- Jarraitzen dau e...
- Ez, hor San Andresen ez dau jarraitzen.
- Baina edo kalekuak e jarraitzen dau diferentziatzen emakumia edo gizezkuak?
- Bai, nik hamendik entzun be ez dot eitten baina esaten dau loibia e baten bat hil da, emakumia da kanpaia. Itxuria distingitzen da oin be.
- Orduan segidu dau.
- Horrek hola segiduko dau.

### 1.39. Guillermina maistrarekin

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** SOR-056/004
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:04:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Eskolara Plazentziara joan zen. Gerra etorri zenean, alde egin zuen hark ere, eta ez zuten gehiago ikusi. Guillermina Altolagirre maistra nazionalista. Erdaraz erakusten zuen, errepublika garaian, baina maistrak euskaraz ikasi zuen Plazentzian bertan. Telefonoz hitz egitea lortu zuen, gerraostean.

### Transkripzioa

-Baiña aurretik, dana dala, eskolara be txikittan Plazentziara?

-Bai, bai. Euki dou, gaiñera, maestra bat "como nunca he conocido otra".

-Hain ona, e?

- (buruakin bai). Preguntau in notsan. Eske gero ba haura be desaparezidu, ez dakit /eztakit/ nora jun zien harek be, Frantziara edo /ero/ harek be /pe/, baiña ez giñuan ikusi gehixao. Eta /da/ gero beste maestra batek Plaentziakuak esan ostan: "Oye, ya le has visitao a la señorita Guillermina?".

-Guillermina zan orduan?

-Guillermina Altolagirre zan. Nacionalistas.

-Ze erakusten zotsuen, euskeraz ala erderaz?

-Erderaz orduan dana, republikiakin dana erderaz zan. Baiña berak ikasi zeban Plaentzian euskeraz.

-Ikasi zeban?

-Bai, berak.

-Nungua zan?

-Ez dakitt /Eztakitt/, arjentinuak ziela, handik etorritakua baiña aspaldian, e! Eta /da/ gero nik esan notsan telefonoz. A!, telefonua emun zotan horrek maestra horrek. "Dónde viven?". "En Balleneros" (Donostiako kalea). "a, pues ya voy a ir a visitarle". Jun nitzan eztakit zenbat bidar, baiña keba, iñobez, iñobez. Ni arratsaldian juten nitzan eta /da/ iñobez. Eta /da/ gero esan notsan, "mira, yo no doy con la maestra, y si supiera el telefono...". "A, ya te doy yo". Emon zotan. Gero telefonotik itten giñuan berba. Neri asko nahi zotan harek.

### 1.40. Gabonetako oturuntza

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: SOR-056/011
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:11:37. **Bukatu**: 00:13:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Umerik gabeko matrimonio batek (lantegiko jabeak, ingelesak) hartzen zituzten Gabonetan, eta gustura egoten ziren han. Zortzi bat joaten ziren. Bestela ere sukaldera eramaten zuten neskameek, eta tripa betetzen zuen han.

### Transkripzioa

-Gero han zeuan beste etxian, len zien jabiak horren fabrikan jabiak inglesak zien, diretora zan inglesa. Ta zan matrimonio bat, umeik ez zeuken, eta /da/ Gabonetan gu ibiltzen giñan ondo han! Ipintzen zeban, saloi haundi bat zeuken, mahi luze-luze bat, dana trastoz beteta, dana; dana jateko, dana jateko, ez dakit /eztakit/ zenbat gauza, jesus! Eta gu danok juten giñan hara. Zenbat giñan ba, sei edo /ero/ zortzi edo /ero/; danak.

-Ingurutako umiak?

-Bai. Etxe bat zeuan bakarrik. Bueno, etxia erona; han diretoria ta injeneruak eta [...] zeintzuek, han kriadekin. Eta neri txikixena zela..., zela,

danok, ezauna nintzan, bai ba, danok: "Esta es la que se quedó huérfana, la huerfanita" esaten osten. Eta banketia zeonian, dagonian, neri eruaten zosten beti: "Benita, ven, ven". Kriadak etortzen zien, "me ha dicho la señora que..., ven a la cocina". Juten nintzan hara ta dana platerak, ez dakizu /eztakitzu/, plater txikixak danak eta. Nik jan han.

-Gustora, ezta?

-Bai ba. Gauza edarrak zien-eta /-da/. Beti, beti-beti diarka ibiltzen zien.

#### 1.41. Ahizpa, mojatan

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: SOR-056/014
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:15:48. **Bukatu**: 00:17:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Donostiara udaran joaten ziren, eta gero buelta Plazentziara. Maistrarekin joaten zen amarengana. Beste ahizpa mojekin ibili zen, eta gaiztoak tokatu zitzaizkion. Herriko batek panpina bat oparitu zion; mojak gorde egin zion, eta ez zuen berriro ikusi! Bere panpina beste bati oparitu zioten, moja jantzita. Ospitalean zeuden mojak, Plazentzian.

#### Transkripzioa

-Zu gero Donostiara bizitzera zenbat urtekin joan ziñan?

-Ni juten nintzan, uda guztian han egoten giñan eta /da/ gero atzera maestria ona, bai ba, eske penia, asko nahi notsan neuk be /pe/, eta berak be /pe/ bai. Berakin joaten nintzan Donostiara, maletia gertauta ta ala! Bakaziñuak emon eta /da/ berakin Donostiara.

-Amagana, ezta?

-Bai, amagana. Eta bestia egon zan monjekin.

-Beste aiztia?

-"No quiere ver ni en pintura a ninguna". Txarrak tokau jakon.

-Gogorrak?

-Txarrak. Gaiztuak. Hara!, herriko baten batek eruan ei zotsan muñeka eder bat berandako, bai ba. Haura be ba gaztia zan, hiru urte zeukan-eta /-da/. Muñekia, eta berak: "ai qué bonita!". Eta monjiak: "Hay que guardar, e! Lo guardaremos ahora, e". Gorde ondo gorde zeban, ez zeban gehixao ikusi. Gero halako baten etorri die bisitta bat monjendako, ezta, eta /da/ han ikusten dau muñekia monja jantzitta beran muñekia. Harek ezautu. Eta bestiei emoten "de regalo". Ez jako /etxako/ sekula ahaztu hori. Dauka sartuta... "Monjas buenas? Más malas que la quina!"

-Nun zaren?

-Plaentzian.

-Plaentzian bertan?

-Ospitalian. Han monjak zeren, bai. Oin ez dakit /eztakit/ daren, ez dot /eztot/ pentsatzen.

#### 1.42. Bilbon, janaria urri

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** SOR-056/034
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:43:57. **Bukatu:** 00:44:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa  
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Goserik ez zuten pasatu Bilbon hasieran, baina gero bai. Aitari esnea ematen zioten baserri batean eta taberna batean ogia, Casillan.

##### Transkripzioa

-Eta goseik eta bai Bilbon edo?

-Bilbon lelengo ez. Baiña gero hasi zan, bai. Gure aittak ez dakit /eztakit/ nungo baserri baten emuten zotsen esnia, harek ekartzen oskun esnia. Eta ogixa han taberna baten, esan dotsut ba, La Casilla, Casillan, han taberna baten ogixa emuten zotsen, gordeta eukitzen zeben. Eta halaxe.

#### 1.43. Valentzian, jatekorik ez

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** SOR-056/041
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:51:21. **Bukatu:** 00:51:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- **Laburpena:** Hilabete eta erdi egon ziren ezer jan gabe Valentzian, goseak. Limoi bat denen artean partitu zuten.

##### Transkripzioa

-Egon giñan hillebete ta erdi ezebe jateke Valentzian. Haura bai zala, geratu giñan. Poff!, zelako gosia. Juten giñan mendira, "aquí no hay nada. Limoi bat edo billau giñuan eta partidu danondako-ta. Behintzat zeoze, algo.

#### 1.44. Marrubiak jan eta jan

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** SOR-056/044
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:52:45. **Bukatu:** 00:54:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak,

kontakizunak

Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

- **Laburpena:** Begoñan egon zirenean, ahizpa eta biak mendira joan ziren, eta pikua jaten egon ziren. Gero, baratz batean marrubiak aurkitu zituzten. Jan eta jan. Lo hartu zuten, eguzkitan. Ama haserre bueltan, andre batek 12 kilo marrubi ordaintzeko eskatu ziola eta.

### Transkripzioa

-Jun giñan danok, Begoñan, Begoñan goixan, eta hantxe egon giñan. Eta aitzia eta bixok gu betik gauzak ikustera. Gu iñok jakitzeke, harek berbetan eta /da/ gu fuera. Kanpora, mendira, ta harek ikusten eta. Eta ortu bat ikusi dou hola ortu bat eta. "ene, ahí hay un fresal". A, ez, lelengo zera, pikua ikusi. "Aquí hay higos". Jan eta jan eta jan. Nik ez dakit /eztakit/ danak jan giñuzen. Jan eta jan. /Janda jan/. Gero: "aquí un fresal" Eta esan notsan, "sí, pero no hay fresas", aiztiak. Baiña ni basarrizan be gondakua ta, nik ortuan be baneuzkan gauzak. "Ahí que no hay fresas? Verás, ven". Hola jaso, gorri-gorri-gorri, dana beteta. "Aiba!!" Hasi gara jaten, jan eta jan eta jan. Ez dakit /Eztakit/ zenbat jan giñuzen. Ya tripia beteta. Eta han arbola bi zeren. Pentsaizu zelako bildurra geunkan. Hantxe etzan eta lo hartu giñuan euzkittan. Lo hartu. Gero ba "Bueno, vamos, qué hora será" y. "Vamos a comer". A comer? Ezin jan. Jun giñan bera ta, gure ama hasarretuta. "Pero qué habéis hecho vosotras, que me ha venido una señora que habéis comido doce kilos de fresas. Me ha pedido que le pague doce kilos de fresas". "Doce kilos de fresas?". Bai zera! Doce kilos. Kilo bat edo ez dot /eztot/ esaten. Baiña hamabi kilo ez behintzat.

-Asko biha da, e.

-Hamabi kilo? Baiña lehen pikua janda; kilo bat be ez giñuan jango. O bai, gosia geunkan eta /da/. Bai, igual bai.

### 1.45. Donostia, aberatsen oporlekua

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** SOR-056/046
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:55:12. **Bukatu:** 00:58:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak  
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Donostian dena debekatuta zegoen: ezin zen alpargatekin ibili Kontxan. Txaletetara joaten ziren enkarguekin, aldizkariekin eta. Bidean egoten ziren landare batzuk, pegatu egiten zirenak. Bikote dotoreei botatzen zizkieten, Kontxan. Alpargatekin ikusiz gero, isuna. Neskak hondartzan paperak batzen egoten ziren, makila batekin. Aberats ugari egoten zen Donostian. Bainujantziak. Debeekatuta zegoen, baina beraiek hondartzara txakurra eramaten zuten arratsaldeetan.

### Transkripzioa

-Badakizu ze eitten giñuan Donostian? Bai ba, Donostian orduan gehixegi zan. "No se puede pasar con alpargatas. Prohibido por la Concha". Ezin zan.

-Ez, e?

-Keba! Prohibiduta zeuan, bai-bai. Orduan? Pof!, ez dakizu /eztakizu/ zela zeuan. Eta /da/ badakizu ze eitten giñuan? Askotan juten giñan txaletak-eta; eskatu eitten zebeñ telefonotik: "Oye, ya me traerías tal revista y tal libro y tal no se qué?". Eta amak: "¡ala!, iros vosotras a llevar". Juten giñan, harek eruan...

-Alparginen kontuak eta esan dozu lehen.

-A, bai. Harek eruan eta han bidian egoten zien, ez dakizu /eztakizu/, landara batzuek hola pikau itten daben, pegau itten dienak. Halakotxe mordua batu bai eta boltsikua beteta. Eta juten giñan hara Kontxara, eta elegante jente igual parejak elegante-elegante, danak hala eskotiakin eta.

-Abriguakin?

-Ez abriguakin, udan zan eta, eskotiakin eta. Juten giñan eta plasta!, bota horrek eta iges ein. Eta gero urriñetik: "Ai, qué ha pasao aquí, qué ha pasao?". Qué ha pasao?, pues algo. Baiña bai, ez zebeñ lagatzen alparginekin.

-Eta ikusi ezkerro zer, erretirau edo?

-Multia.

-Multia, e? Jesus!

-Tú no has visto, los "picas-picas".

-Zerak, landarenak?

-Ez. Neskak, mutillak be bai, baiña neskak enjeneral; plaian egoten zien gantxu batekin hola (zikinkeria batzen). Papel bat be ezin zan laga; dana batzen, dana batzen plaia danian.

-Zikiñak batzen?

-Papelak eta, ez dakizu?

-Garbittasuna, e.

-Garbittasuna, bai-bai. Eske etortzen zien danak elegantiak eta.

-Aristokrazia etorriko zan.

-Bai-bai. Harei laga in bihar ba. Baiña gu, dana pikauta, ja-ja-ja. Baiña halakuak eiñ dou..., poff...

-Orduan aberats ugari orduan Donostian, ezta?

-Bai-bai-bai. Oiñ, ikusten zien "vaya modelitos!". Bai.

-Plaian ordurako bikinirik eta hasitta?

-Keba! Traje de baño, keba.

-Goniakin edo?

-Ez, ez, gurian ya gona barik.

-Zeuek joaten ziñaten sekula bainatzera?

-Bai. Gu txakurrakin, gaiñera.

-Txakurrakin?

-Prohibiduta zeuan, baiña gu juten giñan seiretan edo hola.

-Goizian?

-Arratsaldian. Hobia, temperatura hobia edo egoten zan, ez dakit /eztakit/. Gaiñera jenterik ez. Eta horrek joaten zien, horrek ikusi be ez, iñok be ez. Gu txakurrakin jota..., Txakurra esan, ez dakizu, uau-uau-uau!, "ala, etorri, etorri!", joaten zien atzera ta gu barrezka. Eitten giñuan eta gero horrek bota (lore itsaskorrak) eta etxera.

#### 1.46. Bilbotik alde egiteko ordua

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: SOR-056/048
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 01:00:02. **Bukatu**: 01:01:55

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa  
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Azken aldera pasatu zuten goserik handiena Bilbon. Piper berde mordoa eta pastel mordoa jaten zuten hasieran. Baina gero eta gutxiago. Santandertik ere joan ziren Bilbora batzuek, ikatz-ontzi batean. Durangoko bonbardaketaren ostean erabaki zuten joatea. Bi egun egin zituzten ilaran, gau eta egun txandaka, pasaportea egiteko.

### Transkripzioa

-Orduan azken aldera goseik haundixena Bilbon, ezta?

-Bai, bai. Guk lelengo domeketan eitten giñuan piparrak jan, pipar berdiak. Asko gustatzen jat neri; danei. Mordua baiña. Eta gero pastel mordua, eta primeran egoten giñan.

-Tripia bete behintzat.

-Tripia bete-bete. Baiña gero, geruao eta gutxiao, geruao eta gutxiao, azkenian...

-Eta ya ikusi ziñuenian jentia alde eitten zebillela Asturias aldera edo Santander aldera edo?

-Santander aldera? Santanderkuak honutz, keba.

-Harek honutz?

-Keba. Santanderretik be jun zien batzuek "en un barco carbonero", danok beltz-beltz indda. Jun zien horrek be /pe/. Eta beste batzuek uste dot harrapau ein zebela eta buelta.

-Eta noiz hasi ziñaten pentsatzen ba ya alde ein biha ziñuela eta?

-Ba segittuan. Ya Gernikako zera ta einddakuan. Durangon be aber senbat ume hil zien komuniua itten-eta urtetzerakuan-eta bonbia botata. Ba orduan, ala!, "De aquí vamos", eta ipiñi zeban, "el pasaporte había que hacer". Bi buelta edifizio danai, bai ba, jente asko. Eta /da/ bi egunian egon giñan kolan. Bi egun eta /da/ gabian be bai, kolan.

-Gurasuak ala zeuek?

-Bat joan eta bestia etorri eta /tta/ hola ibilli giñan.

-Umiak edo gurasuak?

-Umiak eta gurasuak, danak, danok ibilli giñan.

### 1.47. Alfontso XIII. Zarautzen

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Larrañaga, Justino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** SOR-077/009
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:10:02. **Bukatu:** 00:11:28
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak  
Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Alfontso XIII. etorri zen behin Zarautzera eta Justino bertan egon zen eskolako umeekin batera, banderatxoak eskuan zituztela. Errepublika aldarrikatu zen egunean, ez zuen ezer berezirik nabaritu Zarautzen, txikiegia baitzen bera.

### Transkripzioa

-Zuk han Zarautzen Republikia etorri zanian iñungo aldaketarik ezagutu ziñuan?

-Ez. Gu... egun baten etorri zanian, ni akordatzen naiz etorri zanian han Alfonso Trese zela ezautu neban nik, Alfonso Trese.

-Zarautzera?

-Zarautzera etorri zanian aiuntamentuan zertu zebe eta joaten giñan banderiñakin. Banderiñakin izaten zan, eskolako banderiñakin eta. Emoten zebe zeozer, emoten oskuen jateko..., halako zeoze emoten oskuen. Ta haura berak eitten ebana, diskurso zera bat ein zeban eta akabo. Baiña eskolatik joan giñan handikan, banderiñakin joan giñan.

-Osea ke Zarauzko ume danak banderiñakin...

-Bai, bai. Bera etorri zanian ba eskolakuak hoixe abixau oskuen guri be ta [...] joan giñan eskolakuak.

-Eta gero Errepublikia etorri zanian?

-Republikia etorri zanian ni hamen naon.

-Ez.

-Republikia hasi zan baiña gero etorri ein nitzan hona. Republikia zaon ta gero Republikatiken gero zertu zan, Republikatian ein zebe orduan zera Franco.

-Republikia etorri zanian zu Zarautzen zengozen.

-Bai.

-Han egon zan fiestarik edo?

-Ez dakit, nik halako zeri nik ez neban zertu. Gu oindiokan zerak giñazen eta.

### 1.48. Soraluzen 1954an izandako uholdeak

- **Hizlaria(k):** Berrueta Elizburu, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** SOR-079/035
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:36:49. **Bukatu:** 00:37:53
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** Soraluzen 1954an izandako uholdeak gogoan ditu. Kalte handiak eragin zituen herrian, baina ez zen hildakorik egon.

### Transkripzioa

-Beste notiziaren bat, ufalak edo?  
-Ufalak bai. Oktubrian zinkuentraikuaruan uste dot zala. Baiña haundixena 1834an pasau zan Plazentzian, e. Orduan kalte haundixak ein zittuan Plazentzian, e.  
[...]  
-Hildakorik edo egon zan?  
-Ez, ez.  
-Kaltiak izugarrixak, ezta?  
-Bai.  
-Etxetan eta...  
-Etxetan eta konbentuan, mojen konbentuan eta. Bueno!  
-Eta fabrikarik geratu zan uragatik edo?  
-Ez.

### 1.49. Soraluzeko zezenak

- **Hizlaria(k):** Berrueta Elizburu, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** SOR-079/040
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:41:09. **Bukatu:** 00:42:31
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak  
Aisia » Jai-giroa » Zezenak
- **Laburpena:** Zezenetarako zaletasuna zuen Josek. Soraluzen zezenak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Hildakoak ere egon izan dira.

### Transkripzioa

-Nik afiziño haundixa neukan zezenetara. Enbolauak egoten zian Plazentzian eta ni aurrian ibiltzen nitzan beti. Etxekuak beti bronkapan. Ta sekula harrapau ez.  
-Sokiakin izaten ziren?  
-Ez. Sokiakin lehenao-lehenao bai baiña oin zelan daozen plaza bi, itxi itten dittue eta hantxe librian ibiltzen ei da oin enbolauak.  
-Orduan ez zien enbolauak?  
-Ez. Sokiakin orduan.  
-Zer zien, haundixak edo?  
-Ba. Ez. Haundixak be ez, eta txiki-txikixak be ez.  
-Zuri gustau eitten xatzun han ibiltzia? Zu arbitro ta ariña izango ziñen.  
-Bai.  
-Sekula egon zan hola istripurik zezenetan?  
-Bai, bai, hildakua be bai bat.  
-Herriko jaittan?  
-Herriko jaixetan.  
-Ta zezenak harrapau ta garbitu gizona...  
-Garbittu... Ospitalian hil zan.  
-Adarkadiakin edo golpiagatik?  
-Golpiagaittik.

### 1.50. Euskarak gero eta esparru gutxiago herrian

- **Hizlaria(k):** Igartua San Jose, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** SOR-080/004
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:05:57. **Bukatu:** 00:07:17
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Maristetan ibili zenean, gerra garaia zen. Eskolan gaztelaniaz izaten zen dena. Kanean ez zuten euskaraz egiten, erregimenaren aldeko norbaitek entzunda "kristiano hitz egiteko" esaten baitzien. Dendan lan egiteko ere, gaztelaniaz egiten zuten bezeroren batek euskaraz jakingo ez zuela pentsatuta.

#### Transkripzioa

-Hemen Maristetan eskolan hasi ziñanian, gerra denboran, ezta?  
-Bai, bai. Sei urte... treintaseisa gu Maristetan.  
-Eskolak-eta erderaz pentsaitten dot izango ziela.  
-Bai, bai. Danak, e. Baitta Eskola Armerixia be. Erderaz.  
-Euskeraz eittiagatik kastiguik izaten zebeñ?  
-Berak frailliak ez. Baiña guk kaliañ be ezin [giñun] euskerarik ein, porke tokatzen zan erozein hortara pixkat rejimenekua "digamos", eta esaten oskuen "que hablemos cristiano". Ta, klaro, gure euskeria horregatik da pixkat zatarra. Zatarra edo; pixkat erderaako...  
-Joeria, ezta?  
-Joeria. Gero beste bat dendiagaittik be bai. Porke mostradoria bazaoz lehen, ba zu euskeraz bazabiz herrikuekin, baten bat sartzen bazan... Ta hamen erdeldunak, puf, azkenengo hirurogei urtian dagoz. Ta asko gaiñera, ta horregaittik erderaz in bihar han eta.

### 1.51. Gerraosteko elikagaien kalitate kaxkarra

- **Hizlaria(k):** Igartua San Jose, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** SOR-080/023
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:33:45. **Bukatu:** 00:35:26
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Gerraostean ogi zuria erosten zuten, baina oso arriskutsua izaten zen. Ogi hura nolakoa izaten zen deskribatzen du. Batata eta algarrobo-leka ere jaten zuten.

#### Transkripzioa

-Zu beti kaliañ bizi izan zara, ezta?  
-bai, beti.  
-Gerra osteko gosiakin akordatzen zara?  
-Gosiakin hemen akordatzen naiz basarri bat Txurrukan baiño harutzatxua, ogixa, ogi zurixa eitten zebeñ isilixan. Ta hartu bizikeletia ta hara. Hori akordatzen naiz ni.  
-Ogi zurixa jatera?

-Jatera ez, eroatera.  
 -Saltu eitten eben, e?  
 -Bai, baiña ez giñan denpora skuan ibili. Jaten ... beste ogi hori, emoten zeban, eztakitt, hori-hori-horixa, ez dakit ze zan. Gaur be kimikuak ez dabe jakingo ze dan hori.  
 -Txuskuak edo zerak?  
 -Holako, flanan moduko gogo-gorra, azal baria. Artaliana emoten zeban baiña ha ez zan artalia. Ez dakit ze materixal zan haura. Ta aalgarrobak, kaballuak jaten dabena hori lekiori.  
 -Hori be jaten zeben?  
 -Onbre! Eta boniatua patatian ordeez.  
 -Nundik ekrtzen eben ba...  
 -Ez dakit, ezz dakit. Bai ba. Ta orduan azido urikorik ez zan egongo. Baiña pulmoikua bai. Asko, e.  
 -Aitta be esan dozu hola joan zala, ezta?  
 -Aitta pulmonixiakin joan zan.

### 1.52. Pilar ikastetxean, lau urteko umeekin

- **Hizlaria(k)**: Iñurrieta Leturiondo, Amaia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: SOR-119/004
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:06:38. **Bukatu**: 00:09:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak  
 Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea  
 Euskara » Euskararen egoera  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena**: 1980an lau urtekoen gelan hasi zen irakasle eta urte asko egin zituen maila horretan. Ordurako berak umei euskaraz egiten zien dena. Ume gutxik zekiten euskaraz garai hartan. Beraiek sartu zirenerako Elgoibarko bi irakasle zeuden Pilar ikastetxean. Ondorengo urteetan, berriz, eibartar asko sartu ziren. Euskalduntze-prozesua pixkanaka izango zen, mailaz maila.

### Transkripzioa

- Gero ni 80. urtian, ya 1980xan, ni hasi nitzan txikixekin, lau urtekeekin. Hor egon nitzan ni denpora mordua egon nintzan lau urteko gelan. Orduan ya hori, bestiak, ya nausixauak eta, beste lan batzuk eta beste gauza batzuk igual eitten zeben. Ez dakizu? Baiña nik lau urtekeekin zan... ba, ez dakit... gauza... berekin berba ein, abestu... ez zan halako... gramatika erakustia eta horrek gauzok.  
 - Eta zelan izan zan prozesua euskalduntzekua? Ze hasieran euskera asignatura moduan emoten zenduen eta gero ya noiz hasi zan pixkanaka...?  
 - Ba horixe, horregaittik... nik hor ez daukat base haundirik esateko. Ze, esaten dotsut, zelan egon nintzan ni txikixekin, ya ni neuan pixkat horretan... aparte.  
 - Baiña, adibidez, 80xan zuk txikixekin dana euskeraz eitten zendun?  
 - Bai, bai, dana, dana. Batzuk bazekixen, e! Batzuk bai, baiña oso gutxik. Bestiak danak... gehixenbat erdeldunak zian. Orduan neukan igual 36 ume edo holan baeren, eta zenbatak jakingo zeben ba euskeraz? Oso gutxik, e!

Oso gutxik. Baiña eitten giñuan danak eta berak be, ba, ikasten zebeñ.

- Gero, seguraski, maillaz mailla juango zan euskalduntzen, ez?
- Hori da. Hori da. Bai. Eta lehelengo be bai ikasten zebeñ irakurtzen be bai erderaz. Lehelenguetan, erderaz. Kartillia izaten zan orduan, "Mi mama me mima" eta horrek zerok. Eta gero ya liburuak be bai agertu... ya hasi zian, ba, euskeraz, irakurtzeko be bai euskeraz. Bai. Pixkatxo bat...
- Zuek izan ziñazien lehenengo irakasle euskaldunak?
- Bai, gu. Bueno, gu sartu giñanian, ya baeren Elgoibarkuak, Maria Luisa Arozena -ez dakit ezagutzen dozun haura, Elgoibarkua-, Maria Pilar be bai Elgoibarkua zan. Horrek ya baeren. Baiña gero ya gu sartu giñanian, gurekin... Eta gure... Gu sartu giñan 74an eta gero 75ian eta 76xan eibartar mordua sartu zian, eibartarrak. Gero genden pilla bat.
- Orduan, hortik hasiko zan pixkat prozesua...
- Bai, bai. Gero ya hortik aurrera... bai. Holaxe izan zan.

### 1.53. Hezkuntza-ereduak Pilar ikastetxean

- **Hizlaria(k)**: Iñurrieta Leturiondo, Amaia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: SOR-119/012
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:18:24. **Bukatu**: 00:19:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak  
 Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena**: 1984 inguruan ezarriko ziren hezkuntza-ereduak Pilar ikastetxean. Haur Hezkuntzakoena D ereduaren zen eta Lehen Hezkuntzakoena, berriz, B ereduaren. Matematika, esaterako, gaztelaniaz ematen zuten.

#### Transkripzioa

- 84 inguruan jarri ziala euskera-ereduak. Ez?

- A! Ereduak, klaro. D ereduaren... Bai, bai.

- A, B, D... 84 inguruan.

- A, ba, igual bai. Igual bai. Txikixak D ereduaren zan, Haur Hezkuntza D ereduaren zan. Ta bestia... bestia, klaro, gero A izan zan... A da...

- A erderaz.

- Dana erderaz. A! Orduan ez. B. B. Gu giñan B. Osea, txikixak, D, Haur Hezkuntza D, eta bestiak B. B. Zan B. Bai, bai. Hori da. B. Dana euskeraz, baiña, bueno, gero matematika erderaz emoten zebeñ. Gizarte-ta ez, gizarte euskeraz ta...

- Bai, pixkat Herri Eskoliak euki izan daben ereduaren, ez, gure epokan.

- Bai, hori da.

## 2. Iritziak

### 2.1. San Andres elizako kanpaiak

- **Hizlaria(k)**: Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-003/004

- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:05:45. **Bukatu:** 00:06:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** San Andresgo kanpaiak. Goizeko 6:00etan, albakoa. Eguerdiko 12:00etan. Erlojurik ez, eguzkiari begiratu behar.

### Transkripzioa

- Lehen San Andresen kanpaiak-eta jotzen zien?
- Bai, goixian seiretan albakua.
- Ta ze zan jaikitze hori?
- Jakiña, ba. Goixeko seiretan. "Daka-daka", egunero. Hamabixak egunero.
- Ta haura jotakuan jaikitzen ziñan zu?
- [...] entzun be bai. Entzun... entzuten giñuazen. [...] txabolan] lo eitten giñuanian [behixekin han ta], hartara be "danga-danga" kanpaia. "Han, seirak. [Goixeko seirak dittuk]", jaiki. Aide! Lehen ez jauan erlojurik, euzkixari begiratuta igarri bihar.

## 2.2. Gaztea zela hasi zen gerra

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/005
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:07:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak  
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena:** Bizimodu gogorra. Gerra gazterik bizi izan zuen. Bizimodua asko aldatu da azken urteotan.

### Transkripzioa

- Ze nahi dozu esatia? Gero taillarrian, gero nobixua... ez dakit zenbat denpora... urte ibilli nobixuakin, ez oingo moduan...
- Bai, ba...
- ... eta ezkondu ta hala! Ze nahi dozu? Horixe...
- Gure gazterixia ez zan izan bape...
- Ez, ez...
- Lana ta lana ein bihar ta, gaiñera, gaiñera hutsa irabazten zenduan.
- Baiña pozik, e? Amari entregatzeko zera ta... Eneee!
- Horixe bai, pozik.
- Ez da oingo moduan, e!
- Eta erromerixia bazeuan...
- Maltzara ta.
- ... Maltzara erromerixara, oiñez, han filarmonikia egoten zan, ba. Dantza batzuk ein ta aintxintxika atzera kantuan, kantuan atzera etxera ta, ba! Abarketekin, baiña pozik...

### 2.3. Bizimoduaren aldaketa

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/018
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:21:25. **Bukatu:** 00:23:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Bizimodua asko aldatu da. Nola ikusten duten gaurko gazteria.

#### Transkripzioa

- Holaxe...
- Lehenatikan ze diferentzia hola kalia ikusten dozue, hola, jentian —nik ze dakitt ba— bizimoduagaittik edo ze...?
- Lehenao hobeto oin baiño
- Honek ez jone esango hori!
- Guk ez dogulako ezagutzen...
- Hor gaztiak lurrian jarritta ta... horrek negargarrixak dia. Igual urtetzen dozu, e... Atzo hamar t´erdietan etorri giñan etxera, zegaittikan, bakaziñuak eta, hamar t´erdietan eta, hor, e... Arruan frentian, danak kuadrilla haundi bat... danak lurrian jarritta pipak jaten. Hori da gazterixia?
- Oin hola akostunbrau dittun eta guretzako pentsatzen jonau...
- Ez, guretzako ez da... no sé, no sé.
- Ez dakit, ez dakit. Ez dia entretenitzen gure moduan, uste dot, ez diala hola... ez dakit, ez dakit ze esan.
- [...].
- Oin neskak eta pelotara ta zera juaten dittun, pelotia jokuan pixkat zeoze ta...
- Ke ba, ke ba!
- Ez! Ka ba!
- Ta gero, ba, oin e... ezkondu gaztiak-eta badakizu: “Veraneo aquí, veraneo allá” ta...
- Hori bai...
- Ez, ez, e... dana dao e...
- Lehenao, gaiñera, trankillao bai igual biziko zan, ezta?
- Bai, asko be bai... asko be bai! Oiñ umiekin be ardura haundixa dauke gurasuak, e? Nik esaten dotset gure umieri, e: “No es fácil ahora ser padres, ¿eh?, No es fácil.”
- Ez, egixa da...
- Hombre!
- Lehen trankillao, ya lo creo trankillao.
- Oiñ? Oin gurasuen arduria haundixa da.
- Asko. Asko, bai. Baiña guria jua zonan, Martina. Jua zonan guria. Ze esango don, ba?
- Bueno, oindiok hemen gare!
- Bai, bai, bai. Galantak pasauta hor zihar baiña hemen gaonaz behintzat...
- Oindiok hemen gare!
- Bueno...!

## 2.4. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/019
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:23:15. **Bukatu:** 00:25:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Bizimodu lasaiagoa zen lehengoa. Klean jolasean, nagusiak jokoan atarietan... Umetako jolasak. Komedianteak etortzen ziren eta haiek ikustera joaten ziren plazara aulkiak hartuta.

### Transkripzioa

- Oindiok hamen gare...
- Bai, bai, bai, bai... galantak pasautu hor zihar baiña hamen gaonaz behintzat...
- Oindiok hamen gare... bai.
- Bueno, hango...!
- Ta hola, akordatzen zarie, ni, eske, beti akordau izan jata, hola, fotografixetan ta ikusi izan dotenian, beti gauza bat zertu jatana, jentia igual e... atsaldian ta goizian ta, ataxetan jarritta ta holako...
- Bai, tertulixan! Tertulixan...
- Eta jokuan be bai kanpua han Gabolatzen ta? E? Han etara zer bat...
- Ta hamen be, gu bizi garan lekuan be bai, e? Ez eguan hainbeste etxe be ta...
- Mahaixa etara ta hantxe, jolasten...
- Jokuan. Bai.
- Kamiñuan be ez eguan hainbeste kotxe ta...
- Ke ba! Hainbeste etxe be ez eguan... Ataxetan, horixe, freskuran!
- Trankillao, bueno!
- Gero etxietan be ez eguan halako zera... sokia, sokia egoten zan ta...
- Bai... taka!
- ... jo sokiari ta, aurrera!, "Atsalde on!" ta... Oin ez dao halakorik, e? Oin e...
- Itxitta! Hala ta guzti be, hala ta guzti be...
- Norbera barruan dauanian be bai igual...
- Baiña orduan ez. Giltzakin itxi atia? Ezta pentsau bez! Sokiakin egoten zan, tira ein sokiari eta aurrera...
- Beste bizimodu bat zan, beste bizimodu bat, trankilidadia, bueno!
- Bai...
- Komerixetara...
- Baitta! Plaza Zaharrian komerixak.
- Komerixetara..., hartu aulkixa ta Juan Plaza Barrira ta jarri ta hala!, komerixak ikusi ta...
- Oin horretzek be ez dare...
- Zer zian horrek?
- Komedianteak etortzen zian.
- Plazan, e?
- Komedianteak, payasos, circo, como circo.
- Jarri han danak eta ikusi ta...

- Danak aulkixekin, jarri ta...
- Gero pasatzen zebeñ bandeja be ta...
- Baitta! Bai, baiña horixe, más sano edo... Geure moduan baiña dibertitzen giñan.
- Bai, bai, oin e... ez dakitt, ez dao, ez dao...
- Zeoze falta dala...
- E?
- ... zeoze falta. Gauza asko, baiña...
- Bai, ene, asko!

## 2.5. Bizimoduaren aldaketa

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/041
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:45:10. **Bukatu:** 00:46:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak  
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- **Laburpena:** Bizimodua asko aldatu da: jaiak ospatzeko modua; jatekoa...

### Transkripzioa

- Eske...
- Aii...
- Jatekuekin be, bueno, igual. Gabonetan, ene...! Oillaskua. Gabonetan oillaskua jateko, haura zonan... Ta oin zer?
- Oin oillaskua egunero! Turroia be, turroia be...
- Andra Marixetan ta gabonetan oillaskua.
- Lehen turroia be gabonetan. Oin zer?
- Ta ze? Holakotxe zati bat!
- Hori, gaiñera. Bai, egixa, egixa.
- Bai, bueno! Bai. Ta gabonetan ta jaixetan oillaskua. "Más bueno...!"
- Lehen zer, ba? Babia ipini han zerakin, olixuakin ta...
- Urdaixakin.
- ... urdaixakin, ta jan haura ta konforme!
- Ta egunero, gaiñera, e! Ta egunero!
- Egunero! Eske jaten badozu... Oin be jaten badon plater bat haura, bestia...
- Bueno, baiña...
- ... zetarako bestia gaiñekua?
- Bueno, baiña... "Gaur be hori?"
- Bai, hori bai. Oin bai.
- "¿Hoy también eso?"
- Onbre! Esan honeri!
- "Naturales eran o no sé. [comidas] más naturales o"...
- Oin zer? Haura ez dala hazten han, bestia ez dakit zer, bestia...
- Bai.

## 2.6. Soldadutza Madrilen

- **Hizlaria(k):** Oregi Oregi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-022/023
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:00:00. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
  - Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
  - Euskara » Euskararen egoera
  - Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Soldadutza Madrilen. Erdara. Inguru berrira egokitzearen garrantzia.

### Transkripzioa

Gero, ba, soldaduskan... Gaur beste aldera esango neuke. Gaur soldauskara jua biharrik ez dao espabillatzeko, zeaittik eze gaur zortzi urterako hortik zihar dabil ta, baiña ni soldau jua nitzanian, ondio Donostiara sekula jua barik nenguan, e! Hementxe, Bergara, Eibar, hamentxe inguruan ibiltzen giñan. Ta Donostiara jua nitzanian, anaiak lagundu estan Madridera juateko. Ta gero, aittak lagun bat edo bestia edo, ta hor, tiok [bittartian edo] zeoze einda zekan ta gero han be lagun bat estaziñuan hartzeko. Baiña hillebete be ez zan pasau... Nekan eskola apurra be nola nekan... Orduan Franco-n denporan, badakik, euseria ebai jua harek eta, ba, erderaz ein bihar zan dana ta [eskola] nekan apurra be, ba, genkan erderaz. Ta gero ekin nitzanian alternatzen, ta jarri nitzanian jentiakin ta zerian, hillebete barru --ez ondo, oin be ez dakit ondo, baiña-- edozeiñekin berba eitteko moduan jarri nitzan ni. Igual karakterra beti euki dot pixkat. Hori bai. Ni kobardia ez naiz sekula izan, e! Oin, ba, hamen pasatzen zana --lehen esan dotena--, biharra ta biharra ta Bergararaiñok, Eibarreraiñok ta erromerixia Maltzagan. Nobixia hor billau. Hor nobixiakin ta bestia, ta beti hamentxe ibiltzen giñan. Ta jentiakin alternau barikan, ez dakik? Ibili barikan. Baiña gero han jarri nitzanian Madrident batakin ta bestiakin lagunak fenomenuak ein najittuan lagunak be. Onak lagunak, e! Lagunak fenomenuak ein najittuan. Ondio esan najotsan, mediku bat edo badakat hor laguna Mendarokua edo, ta orduantxe [etorritta] Madrildikan bat andriakin ta umiakin. [Hantxe] ipuiña urten jua, ta esan najotsan --Madrakua zan--: "[Joño], Madrid. Conozco mucho Madrid" esan najotsan, "Estuve en la mili. Joe, ya tuve yo unos amigos estupendos en Madrid. ¡Pero estupendos, eh! Yo me até a sus costumbres. Sabía que estaba en Madrid y humilde-humilde. Y era un amigo más. Como ellos allí. Ahora, si me hubiese metido con el terreno de ellos diciendo otra cosa, igual no hubiese sido así, pero en fin."

## 2.7. Gerraren inguruko ikuspegia

- **Hizlaria(k):** Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-027/020
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:46:10. **Bukatu:** 00:47:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena:** Gerra Zibilaren inguruko kontuak. Gorrotorik ez, baina horrelakorik ez dadila berriz sortu.

### Transkripzioa

- Penagarrixa dok, e? Baiña oin hoixe, gorrotorikan iñondako be ez jaukau gorrotorikan, baiña berriro ez deilla sortu holako gerrarikan.

- Bai, pentsatzen dot...

- Ez, ez... ez deilla sortu. Anaien arteko... Gerra zibilla baiño gauza tristiaorikan ez daok ezebe, zegaittik eze gorrotorik haundixenak be orduantxe agertzen dittuk. [...] konprendidu.

- Orduan dana libre?

- Dana. Bai, ba. "El bando vencedor" edo "el grupo vencedor" ta... Baiña hori, hori, zerana zuan, Molana, lehen esan dostatena, e? Haura: "No quiero prisioneros", oseake harek... horren gerria diferentia zuan.

## 2.8. Gerraren inguruko ikuspegia

- **Hizlaria(k):** Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-027/023
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:50:00. **Bukatu:** 00:51:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena:** Gerra baino gauza tristeagorik ez dago. Gaurkotasunarekin zerikusia duten gaiak.

### Transkripzioa

- Ta oin entzuten dozunian hor... oin be dana telebisiñuan gerria, gerra-hotsa, besterik ez dabil ta ze... ze pentsatzen dau batek?

- Gerria baiño tristiaorik ez daok, gerria ebitau ein bihar jok, nik hori esaten juat.

- Hori baiño lehen edozer gauza...

- Gerria dok, gerria dok izan leiken gauzarikan tristiena dok. Nik ez jakixat... ezin jotset konprendidu oin batzuek darabixen... juan in bihar dala. Nik Bush be konsideratzen juat, neretako, Hitler-en ta moduan "un dictador" dok haura be neretako, "dictador". Ezin leikek bestela euki hori... hori goguori gerrarako! Nahi jok dominau, nahi jok harek daukan petroleua be bera jabetu. Horixe. Nik uste juat horixe dala dana, e? Dirua izaten dok gehixenetan, gaiñera, holako...

- Bai, horren...

- Ta horren alde darenak badakizu zeintzuk dian, gerrian alde, lehenguak. Ahal dala ebitau ein bihar dok gerria.

### 3. Baserria

#### 3.1. Baserritarrak mezara

- **Hizlaria(k):** Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-003/006
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** Albakoa. Jaiegunetan goizeko seietan meza izaten zen. Inguruko baserrietatik lasto-azaoekin jaisten zen jendea mezara. Jauna hartzeko baraurik joan behar izaten ziren. Meza entzun eta etxera joan behar izaten ziren agudo behiak jeztera.

### Transkripzioa

- Goizetan-ta kalera-ta juaten zin... Albakua noiz izeten zan? Juaten zala goizeko seiretan mezetara...
- Mezetara? Neu be makiña bat bider juanda...
- Baiña hori noiz izeten zan?
- Jaixan! Jai goizian albakora!
- A! Jaiero?
- Jaiero. Zela, ba? Jai baten entzun ta betiko ala?
- Ta zela izeten zan hori?
- Seiretan mezia, goizeko seiretan mezia. Gero sei t´erdietara kanbixau juen.
- Ta danok juaten ziñien mezetara?
- Ene! Lasta-azauekin juaten zuan jente dana. Lasta-azauak ixotuta, danetik behera jentia.
- Ze da lasta-azaua? Nik badakit, baiña kontatzeko.
- Lasta-azaua? Garixakin eitten dan lastua, gari-lastua lotuta.
- Ta ze ikusten zan? Danian ikusten zan-ta?
- Bai, ba! Gabian argixa. Ta "Han, hi, [urten juek] Euskaten bajatuaz", "Bai", "Artetakuak be bai", ta holaxe jentia, lasta-azauakin argi eitten. Ta jarraitu ein bihar. Lasta-azaua eskuan zoianak, haura re-dios! Harek bizkor juan bihar izeten juan, bestela erre eitten zuan ta.
- Ta gero argirik ez?
- Gero argirik ez. Ta ja-ta dio! Danak alkarren ondorian, muturrez aurrera, danak zaratia darixola! Goixeko seiretarako, e! Ta komurgatzera juan bihar, ta baraurik.
- Juan bihar zan?
- Ta mosua garbitzen edo ur tragua eitten badok, atzera konfesau in bihar lehenengo.
- Ta ze konfesatzen zenduan ur-tragua ein ezkerro?
- Ba, "ur tragua ein dot" eta abadiak parkatu eitten juan. Abadiak "bale", ya esta. Hari esan ezkerro, bale. Lehen holaxe zittuan.
- Ta gero handik, ze ordutan bukatzen zenduen haura mezia?
- A! Ba, mezia, ordu-erdiko mezia.
- Zazpiretan bukatu?
- Sei t´erdiak. Ta etxera aguro behixak jaztera!
- Lotara ez?
- Bai... egon hari poliki!

### 3.2. Morroiak baserrietan

- **Hizlaria(k)**: Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-003/013
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:21:15. **Bukatu**: 00:21:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena**: Morroiak baserrietan, apupiloak. Baserri gehienetan egoten ziren lanean laguntzen zuten mutilak, janari truke.

### Transkripzioa

- Hamentxe egon [ei juan] soldauskia [etara] arte. Ez dakit zenbat urte ein zittuan soldau. Harek atzamarra bat eta ebaitta jekan soldauskan.  
- Eta zela etorri zan, ba, haura hona?  
- Ba, lehen jatera fan bihar zuan nunbaittera ta! Zeba? Lehen ez jauan janik eta basarrietara. Hamen danian egoten zittuan mutillak! Jatera! Zeoze, zeoze: baba beltza edo zurixa edo zeoze. Zeoze jatera.

### 3.3. Morroiak, neskameak baserrietan

- **Hizlaria(k):** Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-003/015
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:22:15. **Bukatu:** 00:23:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserría vs. Kalea
- **Laburpena:** Morroiak, kriadak, apupiloak. Batzuk baserriko lanetan lagundu eta tripa truke egoten ziren. Apupiloak, kalean lan egin eta baserrian jateagatik dirua ordaintzen zuten.

### Transkripzioa

- Ta gehixao apopillorik ezautu zenduan zuk hemen? Ez zenduen esaten beste neska bat be egon zala?  
- Kriada bai, kriada [zittuan harek].  
- Eta kriadatik apopillora ze diferentzia dao?  
- Bueno, ba! Kriadak, ba, lana ein biher izeten juen; ta apopillo, harek jan ta juan eitten zuan. Harek ez juan lanik eitten, harek pagau eitten juan ta, ba, kitto.  
- A! Apopillua ze izeten zan, pagau eitten zeban?  
- Bai, ba! Ta kriauak eta kriadak, ba, harek lana eitten [euen].  
- Ta harek, apopilluak, ze eitten zeben, kalia lana ta gero...?  
- Harek kalia lana ta hemen jan ta...  
- Hemen jan ta lo?  
- Jan ta lo. Ta gero jaixen-ta ganajatekuak ein ta hantxe, laguntzen.  
- Ta horretakuak baserri danetan egoten zian, e? Edo askotan?  
- Leku askotan.  
- Ta hori zegaittik zan, handik, Elgetatik, etorri bihar ta hemen ez zekalako zerik?  
- Ezer etxekorik-eta ez edo, ta nunbaittera juan ein bihar ta jan ein bihar ta lo eitteko lekua ta erropak garbittu ta [badakik...]  
- Ta baserrikeri be komeniko jakuen igual...  
- Bai, komeni edo... bai, ba. Orduan ez jauan kalia oingo moduan, e! Kalia ez jauan ezer.

### 3.4. Baserriko neskamea

- **Hizlaria(k):** Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz

- **Erref:** SOR-003/017
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:24:45. **Bukatu:** 00:28:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Baserrian izan zuten neskamearen inguruko azalpenak.

### Transkripzioa

- Ta ze eitten eben, hemen lanian ibili?
- Ze eingo juen, ba? [...] etorten zittuan harek beren maletatxo bat edo erropatxo bat edo bi edo, boltsa edo zeozekin batuta edo, ta harek... Oin etortia moduan hor ta [harek] jana edo lo eitteko edo... zeoze. Ta umetxuak eta... “Bueno, bai, bai, etorri zaitte”, ta holaxen [ekartzen] zittuen ta hamentxe.
- Eurak bakarrik etorten zian?
- E?
- Bakarrik eurak?
- Ez. Hori Florentzi hori [...] Durangoko amaman lehengusiña batek ekarri juan. Bai, atsalde baten etorri zittuan. Neska-koskortxua. Josten ikessita jeuan, e! Makiñiakin, e, josten, makiñan josten. Artian zenbat urte eukiko [zittun], ba? Ez dakit, ba, nik! Hamahiru-hamalau edo, hamaika edo hamabi edo... nik ez jakixat seguru. Neska-koskortxua. Illia jeukan kaballuak buztanian modukua. Buf! [...]
- Dana illia zan?
- Bai. Arpegi zorrotz batekin, [dana] illia, zera emoten juan... Nik amari: “Hau zein da, ba?”, “Hori...”—hamen be jentia falta zuan, iñor ez jeuan hemen be ta; umiak be zaintzeko ta abar ta— “Hori umiak zaintzera-ta datorren neskia haxe da”, ta “Bueno, bueno, bale...” [nik orduan...]...
- Beste bat gehixao?
- Ta etorri zittuan [...]. Gero, [hola etorritakuan], ba, kafia edo merienda edo tortillia edo txorizua edo zeoze usatzen zuan ta harei emon jotsen. Duranguori Teodora zuan. [...]
- Teodora?
- Teodora. [Abadiñokua]. Ta harek... neu [...] bestia, mutikuak, badakik zela ibiltzen dian mutikuak eta begira ta begira ta... Neskiak ez juan ezebe jan; jateko ta jateko ta “Ez”, harek ez juan probau. Haura hortxe kuartuan josteko maikiñiakin erropak josten, etorri, ta erropak josten hasi zuan haura. Bai, bai, erropak josten.
- Segiduan?
- Bai. Makiñiakin. Makiñiak “brrrrrr” ta “rrrrrr” ta “Aiba [la hostia]”. Haura lanian ikessita jeuan, umia zuan baiña. Ama be etorri zuan gero handik noizbaitten, txiki bat. Ta holakotxe neskia zuan, baiña harek nehikua jan ebanian, ikaragarrixa ein zuan. Mekauen!
- Asko hazi zan?
- Asko! Ukatx inda jeuan.
- Zer zeuala inda?
- Ukatx.
- Ze da “ukatz”?
- Ja, ja. Leku edarrian gabizik! Ukatx eittia ze dan ez jakik eta! Sikatuta.
- Zeuala?
- Bai, iher-iher-iherra.
- Eta [zela da], “ukatz”?
- Bai, ukatx, ukatx. Arbolari be holan esaten jakuek: “Dios! Hau arbolatxuau be...”, “Bai, honek aldamenekuonek [jaok] hau ukatx einda

jaok”, “Bai, hau alperrik daok hemen” ta...[...] Ba! Ezebe ez dakizue ta! Neska [martikia] ein zuan, ta igetaixakin bedarra ebagi ta astua kargauta ekarri... Aiba dios! Ni baiño bizkorrao jarri zuan haura! Ni baiño urtebete bat zaharrao edo...

- Kasi zeu bialtzeko moduan?

- Bai.

### 3.5. Baserriko neskamea, morroia

- **Hizlaria(k)**: Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-003/018
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:28:20. **Bukatu**: 00:32:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Baserrian izan zuten morroiaren, kriadaren inguruko azalpenak. "Ukats eginda".

#### Transkripzioa

- Gerokua zuan politta! Gero, hamen... [hemen] ez jakixat, ba, nik. Urte asko ez juaan ein harek be. Ez, ba. Guk mutilla, mutilla. Hamen lana ein bihar zuan ta aitta be beti gaixorik-eta ta hemen mutil-eske, gizonezkua bihar zuan, mutilla bihar zuan hamen. Hala, Euskaten kriaau jeuan: Marziano.

- Marziano?

- Marziano. Oreikua, Osintxuko Oreiko semia. Euskatekuorrek harek bera etorriko litzekiala hona kriaau. Ta ez jakixat nik zelan, nik ez jakixat zela, jai goiz baten etorri zuan gurera haura. Maletia hartu Euskaten bizkarrian, erropatxuak batuta ta etorri zuan. Ta ama kalia zuan. Harek gauzak goguan jakaraz orraitio batzuek. Ama esniakin juanda kalera, ta aitta... ba, harek estomagotik-eta gibeletik-eta bi bider egon zuan, ba, hilgo ez hilgo, ixa hillian egon zuan bi bidar. Ixa... Bai, “Hil bihar jok, hil bihar jok”, medikua egunero etorten zuan, baiña ez zuan hil. Ta gaizki... Aittak esan jostan — ni ganajatekua, ganajatekua eitten [nebixan] igetaixakin, bedarra batzen, [... ta ekarri], mutikotxua ta. Hemen be dana umia, zazpi ume giñuazen ta! De dios! Konejuak moduan, danian umia! Ta — esan jostan: “Hi, Marzianori lehelengo armuzua emoixok, behintzat, e? Ganajatekotara juaan baiño lehenao. Jatia dauka zeoze”, ta “Bai”. Entzun juaan ta “Bai, artu ta esnia jango juat nik!”, berak, “Azpilkada bat artuetesne”. Ba, mutil... Ni baiño urte bi zaharrao. Baiña ni, ni... ni ezebez! Ni soldaus... Esaten [ez juat], ba? Soldau juaan aurretikan hirurogei-hirurogeta lau kilo... zenbaten juaan nitzuan, ba? Hirurogeta lau kilokin. Gero bai etorri nitzuan ni larogeta lau kilokin; hogeiki kilo irabazi. Artuetesnia jan juaan. Baiña Euskate hasarretu [jakuan]. Redios! Ta Euskaten... Oreikuak ta Euskatekuak-eta etxeakuak zittuan; Oreiko andria Joxepa ta Oreikua ta aitzak eta... ta atzera eruan juen hemendik hartuta.

- Zein berori Marziano edo hori?

- Bai, Marziano. Hala. Ta neskia... [hau] etorri zanian, harek joten jittuan kurriskak koittauak! Ene! Nik gaur aiña jakin izen... Bueno, orduan [edaderik ...] kitto, baiña ez zuan juango haura neskia hamendik, e! “Bueno, ba” amak esaten jotsan. Aittak ez, aittak [...]. Kastellania, zerraua,

e! Kastellania. Baiña ondo, gu ondo moldatzen [giñuan], e! Gu ondo bixok... [...]. Amak "Bueno, pues tu tendrás que ir", harek tratua inda jeukan Euskatekuakin ta "Viene fulano y tienes que ir". Ekitten zuan kurriskaz, hortxe kuartuan sartzen zuan, isten jua atia, bera ez doiala ta kitto. Gure amak esaten jotsan: "Kalera zoiaz, baiña. Ya zeuk nahi dozunian etorri gero hona be". Ta botikarixua, botikara joian, botikara, "Ya botikara, botikara zoiaz. Han hamen baiño hobeto ibiliko zara gero, e!".

- Baiña haura ze zan, bere amagana edo? Ala ez?

- Zein? Neskian ama?

- Botikarixua beste bat zan?

- Bai, ba, beste bat zuan haura! Oin...

- Berriro beste etxe batera morroi?

- Bai, ba! Beste batera jua bihar. Ta [...] nik, nik hanak eitten najuan [nunbaittera].

- Ez entzutiarren?

- Ez entzutiarren [be]. Ta gero jua zuan kalera. Jua edo eruan edo... [...] Ez jua denpora asko ein, e?

- Kalia?

- Egun gitxi. Egunak be gitxi [...] ezkutau zuan. Ha bere etxera jua zuan Zestaora, Bilbo ondora.

- Ta berriro ez dozu haren zerik euki?

- Ni soldau nenguanian, hementxe egon zuan hille bixan.

- Ta hortik aurrera ya kitto?

### 3.6. Trikitia entzuten gari-ebaten zeudela.

- **Hizlaria(k)**: Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-003/022
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:44:10. **Bukatu**: 00:46:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Natura » Meteorologia  
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Musika aparailua baserrira. Trikitia entzuten gari-ebaten zeudela.

#### Transkripzioa

- Zein zan kontatzen zenduana, e... ekarri zebala hori, musikiana?

- Haretzek... Konografua.

- Zela?

- Konografua.

- Ta hori zela izen zan, ba?

- Holako kuerdiakin. Plakak... zein da ta radixuan estilora, igual-igual. Gero hau [...]... Tio Antoniok edo ez jakixat zeinek eruan eban, harek arreglau edo, harek kuerdia etenda edo, kuerda asuntua... Ekixanak haura arreglau igual egingo jua, baiña Antoniok [be zela]...

- Ta haura, ze esan zenduan, behin ekarri zebala ta han ipiñi zebala...?

- Ba, harek... [...] jaixan ta ipintzen ei jua haura altabozekin ta... [holako] altabozak ez, e? Haura elegantia zuan! Joder! Gu hemen egoten giñuazen jai atsaldian ta ipiñi haura ta... dantzán harekin ta... jo-ta-egurra!

Trikitixakin ta ipiñi haura ta... Plakak, plakak [ba euken... pesadia jeuken] plaketan be, hondatuta asko, e?, baiña... Ta harek, e, Ipiñarrietan... irittan zer dan be, hiri esango dustat baiña alperrik dok.

- Zer da?

- Irrittia, irittia. Esan [...] baiña ez dakixanari...

- Baiña esan!

- Irrittia izaten zuan, ba, gari-ebatia. Han auzoko danak, ta egun baten danak ebai ta kitto, igual.

- Danak batera batzen zian?

- Irrittia zanian bai.

- Ta beti eitten zan hori?

- Beti e... Hortarako e, nobera ibili bihar izaten zuan asko.

- Nobera beste tokixetan ibili?

- Bai, ba, tokixetara... Bozkoittira (Bagozkoitia), ta Zeleta, ta Iriarte edo Argarate Burura ta... hemen goittixan beti irittia hemen goixan. Hemengo jentia horra behera gari-ebatera juaten zuan, ta gero hemen heltzen zianian, hemen, ba, lanbrua ta denbora txarra sarri. Hemen oin be lanbrua dihardu.

- Ta bizkor ebagi bihar?

- Bizkor ebagi ta jaso egin bihar aguro. Ta Ipiñarritan irittia ta ipini jok harek... trikitixa [...] bidian, ta, bai ba, han, e, danak ondo entzun! Danak gari-ebaten laga ta jo-ta danak trikitixan, gari artian! Norberto, kentzeko diarka. Haura zuan ona haura! Nik ez najuan ezautu, baiña hala esaten juek.

### 3.7. Auzolanean egiten ziren beharrak

- **Hizlaria(k)**: Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-003/023
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:46:50. **Bukatu**: 00:49:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
 Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana  
 Baserria » Baserriko lanak » Garia  
 Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena**: Auzolanean egiten ziren lanak: gari-ebatea; gari-jotzea. Auzolana nola antolatzen zen. Gari-jotzea, makinarekin egiten zuten. Arto-zuriketa. Garo-ebatearen inguruko azalpenak. Toponimia.

#### Transkripzioa

- Hori eitten zan, irittia bakarrik eitten zan danak batera ala gehixao be bai?

- Gari-jotia eta...

- Gari-jotia be bai?

- Bai, gari-jotia. Bueno, danian gari-jotia batera.

- Ta hori zela izaten zan?

- Garixa... garixak [...] jotia! Dozena bat lagun, hamahiru-hamalau bat lagun bihar izaten zittuan. Hemen, Barrenetxetik behera, behekuak, ta Barrenetxetik gora, goikuak arreglatzen giñuazen. [...] gari-jotia zanian hona, hurrengo Uzkatera (Urruzkarate), gero gurera, ta Kortara, ta

Goenetxeara ta Izarrera ta... etxerik etxe. Fuera!

- Ta danetara juaten ziñien ta han garixa jo?

- Gero danon artianjo ta... benga!

- Ta zela jotzen zan garixa?

- Makiñia [jeukaun] ta makiñiak, azauak, zarra-zarra. Batzuek lastua eruan ta beste batzuk garixa ta, beste batzuk garbittu ta ekarri beste batzuk ta... Txindurrixen moduan danak. Txindurrixak hor ibiltzen dittuk, ba? Igual-igual-igual-igual... Hamabi-hamalaubat lagun.

- Ta gero artuakin be eitten zan hori?

- Eez. Bueno... Lehenago eitten ei zuan, baiña nik ez najuan ezautu.

- Ze eitten zan lehenao?

- Arto-zuritzia, arto-zuritzia. Artua heltzen zanian soruan, ba, ekarri, erretirau, ta gero gabetan artua-zuritzera.

- Gabetan juten zian?

- Gabetan, esaten juek, gabetan juaten ziala. Egunez lanian ibili ta gabian arto-zuritzera.

- Kontuak kontauaz ta?

- Kontuak kontau-ta, hala ibiliko zittuan! Nik ez jakixat. Nik ez najuan ezautu. Lehengo gauzak holaxe.

- Ta bestela ze gauza eitten zian danok batera, auzolanian ta holakuak ta?

- Auzolanian? Garo-ebaten be bai.

- Garo-ebaten be danak batera ibiltzen ziñaten?

- Garo-ebaten batzuek, batzuek, danak ez ba, seguru, batzuek bai. Gero gabian haizia etorri ta danak eruan be igual ta...

- Garuak?

- Hoixe!

- Ta gero garo-ebatera nora juaten zan jentia?

- Jentia nora? Ba, mendira! Batzuek Atxoliñera edo, ta beste batzuek Muneta-Karakate aldera-ta...

- Zuek urriñen nora juaten ziñaten?

- Gu, urriñen? Hona, Eitzagako terrenuak edo Kortakuak edo... hementxe, hementxe.

- Ta zerekin ebatzen zenduen, e...?

- Igitaixakin.

- Dana?

- Dana. Igitaixakin, bildots-narrua ipini hemen aurrian, erropak apurtu ez deittian, eta... bildots-narruan danak batu. Ta igual etorri gabian haizia ta, "Aiba dios!" Jo-ta... "Aiba! Eruan dittu danak eta!", kitto! Ota artian hor, besada bat hor, [...]... kitto!

### 3.8. Baserritarrak herrira saltzera

- **Hizlaria(k)**: Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-004/026
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:30:30. **Bukatu**: 00:32:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak  
 Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera  
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

- **Laburpena:** Baserritarrek herrira saltzera. Ohitura zen baserritarrekin tratuan egitea. Astoarekin herrira.

### Transkripzioa

- Hola, gero baserritarren zera egoten zan hor, e, oin be egoten dia, baiña lehenago igual e... ferixia edo merkaue do...?
- Baiña hamen ez dakitt egoten zan, e?
- Ez...
- Etortzen ziran merkauekin plazara, plazan egoten ziran, hori bai. Orduan ez eguan holako fruterixarikan ta...
- Ezta...
- ... orduan, ba...
- Dana basarriko zera izaten zan?
- Dana basarriko gauzia. Bai berduria ta bai frutia: keixak, sagarrak, madarixak... danetik ekartzen zeben, baiña dana basarritarrena. Oin fruterixak ekartzen dabe...
- [Auskalo] nundik.
- Baiña lehen dana basarriko generua zan...
- Bai, egixa.
- Dana, dan dana.
- Ta, juaten ziñien hareri erostera ta?
- Bai, derrigor!
- Ta [zaten zan regateo ta]?
- Ene! Ene! Ene! Zenbat erregateo! Zenbat?! Zenbat?!
- Bai, zu, ene! Kostunbria, kostunbria edo uste...
- Bai, bajatu ein bihar dala...
- ... uste obligaziñua moduan, ez dakizu? "Hau zenbat?" eta "Hainbeste" ta e... Uste obligaziñua... Hartu... eskatu ta esto ta... Ke ba!
- Hori bai, hori bai, regateua asko.
- Regateua, baiña... Bai, egixa. Oin ez dao holakorikan, baiña lehen bai, lehen bai.
- Ta gero, autuak etorri aurretik eta akordatzen zarie igual astuekin eta zela ibiltzen zian?
- Hori bai... bai, astuekin...
- Astuak mordua orduan.
- Eske dana astua zan hamen basarritikan.
- Orduan, gaiñera, ez zeguan basarrixetarako auto-biderikan.
- Eso es...
- Dana e... gaiñera bide txarra...

### 3.9. Errota zahar baten aztarnak

- **Hizlaria(k):** Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-006/010
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:12:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Errota  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Berreraikuntzan, errota zahar baten aztarnak agertu omen ziren.

### Transkripzioa

- Ta han be zeuan lehen barrenia edo errotia edo ez dakit zer. Han trastiak-  
edo botatzen ibili zana haura... Akordatzen zara zelako erreme... zerak,  
errotako gauzak [erezen] han intxorpera etarata? Iñok ez ekixazela han. Ta  
hasi zanian hori eskonbruak-eta etaratzen, han agertu jakozen oin dala  
urtietako zerak, errotako hortaiko gauzak.  
- Trastiak...

### 3.10. Familia giroa baserrian

- **Hizlaria(k):** Aranberri Laskurain, Natividad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ariznabarreta, Gurutze - Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-010/001
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia  
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Gaztainak eta berakatz-salda jaten zuten; arrautzak eta esnea saldu egiten zituzten. Bederatzi anai-arreba. Baserria errentan, eta errenta ordaintzeko dirua behar. Bizitza nola aldatu den.

### Transkripzioa

- Gaztaiñak eta berakatz-saldia jan eta arrautzak eta esnia saldu, dirua  
bihar zan-ta, dirua bihar zan,... eta arrautzak eta esnia saldu, berakatz-  
saldia eta gaztaiñak jan, aurrera! Hala urten ein genduan, bizirik! Bizirik  
urten hala-be. Bai, zera, e... Bost anai-arreba edo... bederatzi anaia-arreba:  
batak zapatia falta, bestiak soiñekua falta, bestiak beste gauza bat falta,  
alkar erremedixau ezinda. "Hik emoidan hori eta nik emongo deunat hau"  
eta holaxe iñundik iñora, aurrera urten ezinda...

- Dana falta?

- Dana falta, dana falta... Eta lehengo zaharrak be ez zeuken txikitarik be,  
pentsiñorik eta ez zeuan, orduan dirurik ez zeuan! Basarri danak zorretan.  
Guk be bi basarri, baiña zorretan, e! Danak halaxe e? Zorretan orduan, ez  
zeuan dirurik eta...

- Errentan egongo zian orduan danak...

- Errentan! Errentan! Eta errentia pagau bihar eta badakizu zelako  
bizimodua hainbeste umekin? Hainbeste umekin? Gure zaharrak,  
koittauak, asko sufridu eben... Oin ondo bizi gara, e? Oin? Oin, e... erregia  
baiño hobeto bizi gara, erregiak gure aldian ardura asko dauka ta... Guk  
e...

- Egixa da hori, e!

- Hori egixa da, e? Guk ez daukau ezeren ardurarik be, ibiltzeko dirua  
daukau eta... lehengo zaharrak ez zeuken koittauak, ez zeuken... Gu...  
horixe erregia baiño hobeto bizi giñala! Bai,... ondo!

### 3.11. Lehenago elur gehiago egiten zuen

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Agirrebeña, Miren

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-011/012
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:18:04. **Bukatu**: 00:19:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Lehen orain baino elur eta hotz gehiago egiten zuen. Elurra zenean etxean egon behar izaten ziren irten gabe. Lehen biderik ere ez zegoen eta astoarekin ibiltzen ziren hara eta hona. Nola aldatu den bizimodua.

### Transkripzioa

- Orduan, e... edurra eitten zeban e... Gabon inguruan ta be?
- Bai, eitten zeban, [...]. Lehen, gaiñera, edurra gehixao eitten zeban. Ni akordatzen naiz, urte baten, ez dakit zenbat urte dian, febrero guztia ein zeban zu, edurra.
- Edurra?
- Edurra ta izotza. Egunaz eitten zeban edurra, ta gabian izotza. Hil guzti-guztia pasau zan, edurtian egon giñan orduan, basarrixan akordatzen naiz ni. Ta oin baiño... orduan nik uste dot edur gehixao eitten zebala.
- Bai, eingo zeban. Oin igual bi egun edo hola...
- Gaiñera, kaleraiñok hola ein dau edurrik?
- Ez, asko ez.
- Negurik ein be...
- Behin edo zeoze ein zaben baiña...
- Euririk ein be ez dau ein aurten, e? Euririk ein be ez dau ein...
- Eta lehenao neguan edurra eitten zabenian ta hor ze eitten zenduen gero? Edurrakin tapauta zeuanian, igual hillebete guztia...?
- Etxian hantxe egon bihar.
- Etxian barruan egon?
- Etxian hantxe egon bihar edurra eitten zabenian. Bueno, kanpotikan ganauendako jatekua-ta ekartzen zan, baiña kendu edurra ta akordatzen naiz ni zelan eruatzen genduan ganauendako jatekua Ta estu han, eskua be izoztuta, ure berotan sartu ta atara ein, ur epeletan ta... bueno! Oin basarritik kalera uran ta ardauan diferentzia dao, e!
- Bai, aittittak esaten dosta bi mundu diala...
- Uran ta ardauan... Basarrixak be asko zertuta dare sasoi batetikan, e? [...] kotxiak eta beren kamiñuak eta, hamen, bueno...! Gu ibiltzen giñan moduan, eurixa bazan jo-ta danak bustitta eta berua bazan dana zertuta... Makiña bat bidar ibilli giñan, orduan ez euan kamiñorik eta...
- Bai, pentzatzen dot.
- ... astuakin...

### 3.12. Garia eta artoa ereiten zituzten

- **Hizlaria(k)**: Gabilondo Agirrebeña, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-011/013
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:19:50. **Bukatu**: 00:20:38
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan

- **Gaia(k):**  
 Baserria » Baserriko lanak » Garia  
 Baserria » Baserriko lanak » Artoa  
 Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena:** Garia eta artoa ereiten zuten baserrian. Mugarte txikiak zituzten eta denak labratzen zituzten.

### Transkripzioa

- Zeuek garixa ta sartzen zenduen, hori be bai?  
 - Bai, sartzen genduan garixa ta garixa ta [...] eitten zan, e! Hor beheko trenbide onduan hasi ta etxe ondoraño. Bi soro zeren, ezta? ta txandan han, urte batian garixa ereitten zan ta bestian artua. Dana, dana esaten dotsut, e, ganaua ibiltzeko le... labratzeko lekurik ez igual, e? Ta haintxe, zu, bilddurrez urtengo ete zeben, mugatik behera urtengo ete zeben, bilddurrez, ganauak-eta be. Ta dana... Orduan, esaten dotsut, muga-arte txiki-txikixak eta danak labratzen zian, danak baiña, e! Oin, e... dana piñua ta holaxe oin. Bueno, oin be badarabigu, ezta? Ortua-ta badarabiguz, ezta? Baiña ostian labrau ez dou eitten ezer.

### 3.13. Goiko baserriak eta behekoak elkarri laguntzera joaten ziren

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Agirrebeña, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-011/015
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:21:48. **Bukatu:** 00:23:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
 Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
 Baserria » Baserriko lanak » Garia  
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Auzolanean lan egiten zuten. Garia lehenago heltzen zen behean eta heldutakoan goiko baserrietakoak behera etortzen ziren laguntzera. Gero, goian heldutakoan berdin. Aittantxaboleta ingurura eta Pol-pol ingurura joaten ziren garotara, han zituzten sailak eta. Egurretara ere hara joaten ziren.

### Transkripzioa

- Ta hor garixa ta zerok eta artua ta, hor akordatzen zara zu zela eitten zian, e... nik entzunda daukat, auzolanian edo eitten ziala zer batzuk eta?  
 - Bai, garixa heltzen zian, etortzen zian goikuak behera: Lezasokuak be etortzen zian, Edurdungokuak be bai ta Asaliakuak be bai, porke behian lehenago heltzen zan garixa. Eta gero, goixan heltzen zian, juaten giñan behekuak gora.  
 - Gora laguntzera?  
 - Bai. Ta lurra jasotzian ta be akordatzen naiz ni auzokuekin zela [...], zela trukutzen genduan ta gero garua ebagi bihar zian ta be bai. Garua ebagi bihar zian be, juaten giñan behekuak goraka. Horrekin akordatzen naiz.  
 - Ta garua zeuek nun ebaten zenduen, goixan?  
 - Aittantxaboletan daukau guk garo-sailla, ta bestia —han piñua dao sartuta, baiña—bestia Pol-pol onduan beste bat, beste sail bat.  
 - Lekutan dao!  
 - Pentseizu noraiño juaten giñan garotara... Ene! Udazkena izaten zan

guretako txar-txarra. Goizian ganauekin urten bihar seiretan, bi jornada ekarteko, goizeko seiretan, ta gero... Izeten zan udazkena txarren-txarrena hemen beheko etxietarako, txarrena, baiña, e!

- Klaro, han goiko biajiak ein bihar ta...

- Bai, bueno!

- Ta egurretara be hara juaten ziñien?

- Bai, egurretara be bai. Aspaldixan ez, ezta? Baiña lehen ekarten genduan, han, piñuan gaiñekaldian txaria dao [...], ta han txaratik ekarten genduan egurra.

### 3.14. Fruta-arbola ugari etxe inguruan

- **Hizlaria(k):** Oregi Oregi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-022/006
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:13:15. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Fruta-arbolak. Gaztainak; pikua; intxaurra. Pikua lau emanaldi izaten ditu.

#### Transkripzioa

- Beti euki dozuez orduan frutarbolak?

- Bueno! Hamen aittetarikan dator hau. Hamen aittan denporan be frutatan bostehun bat arbola egongo zian. Aittan denporan be, e? [Haura] sagarrekin [ta reinetak eta] klase ona, gaiñera, e? Ez da hau, nere inbentua ez da dana. Nik gaztaiñak eta beste inbento batzuk etara dittut, baiña... neuk partikular, baiña aittatetik datorrena da gehixena. Hamen, pentsaizu, hor bertan behian ze, ze... pikua dala... Arbola bat, piku arbola bat zeuan, urte baten ehun kilo kendu notsazen. Ehun kilo piku bateri. Zan... hau besteko zabalerakua izango zan. Ta ebai notsan erdiko kukuluori ta gero zabaldu ein zan guardasola moduan. Dana behetik hartzeko moduan, e? Hiru-lau bat zaku simor eruaten notsazen urtero. Ta batzia erreza, behetikan, e, dana hartzen. Gero, pikua be, pikua be lau bat emonaldi eukitzen dittu. Lau tanda edo emoten dittu pikua. Hori daka ona. Hamen pikua eta intxorra hor solo honetarako oso onak dia. Hamen ez da horretara dedikau jentia ta... baiña esango neuke, Plaentxiako terrenuetarako pikua ta intxaurra ez diala txarrenak, e? Ta pikua, gaiñera, lehen esan dotena, nola lau emonaldi emoten dittuan, lau tanda edo, ez da [betetzen] batera keixian-ta moduan. Ta hori daka ona, zeaittik eze egualdi txarrenak etortzen badia be, tartian onak jausten dia, ba? Ta lau tandatetik bi, behintzat, salbau eitten dia. Ta urte ona danian, danak salbatzen dia. Ta orduan, ehun kilo kendu notsazanian, danak salbau zian, ba? Orduan, bai, bostehunetik seirehun kilora, bostehun ta piku kilo etara nittuan orduan, e? Pikutan, e? Horrek be danak [eruaten] dittue, hamahiru arbola edo. Gero, okaranak, sagarrak, ta intxorrak be ez dakit zenbat arbola zian, hirurogeta hamar edo ez dakit... Danetikan. Hor [euan] dana arbolia, ta ondiok be... Ondiok be intxaurretan bakarrik, behintzat, kontatzen egon nitzuan ta beste ehun ta hogeta hamar edo badare, behintzat, intxaur-arbolak be. Ta sagarrak be, txiki ta haundi, beste ehun ta berrogeta hamar baiño gehixao.

Berrehun be igual hurrao egongo dia. Ta gaztaiñak, ba, gitxi [erosi zittuen]. Bi arbola dare bakarrik. Gaztaiñak [osorik] dare.

### 3.15. Gaztainondoen gaitza

- **Hizlaria(k):** Oregi Oregi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-022/007
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:17:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Gaztainondoen gaitza. Buztinarekin egindako erremedioa.

#### Transkripzioa

Oin gaztaiñari, ba, hori zerori be etorri jako. Lehendikan hori gaixuori badaka, --hau inportantia da, oin esan bihar dotena-- gaixua, hori, holako kapela hori bat plantatzen jako. Ta nik ez dakit nundikan, nik beti izan dotsat buztiñari fede haundixa. Basarriko... "ercilla" edo ze esaten dotse horri, buztiñari? Txokolotia moduan sendo-sendo einda, bestia. Ta harekin aprobak eittia pentsau nabek. Zeaittik horrek ihartu eitten dia. Kasorik eitten ez badotsazue, lehelengo urtian, jeneralian, ihartzen dia, ta bigarrenerako seguru. Ta esan neban: "Mekauen sos, aprobia ein bihar juat honetxekin". Ta garbittu. Atento egon, ta horixa han agertzen jakuenian, kapela horixori, bueltan, kutxilliakin azala dana kendu, bai? Raspau, ta sasoiz akordatzen bazara, ondiok ez da egoten dana sikatuta. Kendu ez azala, e? Raspau. Raspau, hola, harik eta barruko berdetxua billau artian. Ta gero, holako ontzi batian buztiñakin ein txokolotia moduko sendo-sendo-sendua ta guante zahar bat ipiñi ta harekin eskuakin dana sendatu ta gero papelakin lotu, edo papel periodikuakin lotu. Ta pare bat, hiru bat hillebetian euki ta gero soltau ta gero barriro ein. Ta barriro igual, ba, sei hillebetian edo nahi dozunian laga. Bi arbola hor dare, behintzat, ta lau urte dia. Ta ondiok, osatu ez da eitten total. Baiña hori kanzerra moduan da, ba? Igual-igual da. Hori geixo... oso geixo txarra da. Baiña retenidu bai. Lau urtian, behintzat, bizi da ta ez jakue gehittu. Asieske... Ta halako aliak emoten dittue. Osea, hilda egon bihar ziana, horrek bizirik dare behintzat.

### 3.16. Zuhaitzen gaitzak

- **Hizlaria(k):** Oregi Oregi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-022/008
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
Natura » Meteorologia

- **Laburpena:** Zuhaitzek izaten dituzten gaitzak sendatzeko erremedioa.

### Transkripzioa

- Ta gero Plazentziakua be esan notsuen. Plaentxian, estaziñoko zerian, bertan, arbola bat. Ointxe be hantxe egongo dok fijatzen bahaiz. Kendu [...] ipurdian. Akordau nitzuan, --eske arbolan afiziñua jakanak begiratu eitten jotsak arbolari-- ta begiratu najotsan, ta ondiokan, dana janda azal guztia, baiña hiru lekutan-edo, hiru lekutan-edo ondiokan ura pasatzen zeuan. Ta zela dok hori, aiuntamentuko... enpliauen jefiori...

- Baranda.

- Baranda. Hori dok. Esan notsan Barandari, han tokau nitzuan-ta: "Oye, tú, ¿ya te has dado cuenta de lo que pasa ahí, en el culo de ese árbol?", "No. ¿Qué pasa, pues?", "Ven conmigo. Todavía se pueden salvar, ¡eh!". "¿Tú crees?", "Sí. Y además yo te voy a traer el remedio. Mañana mismo además.", esan najotsan. Ein najuan txokolatori, holako ontzikada bat, hartu gero soka mordo bat eta periodiko osua ta "Tú mañana a esta hora allí, ¿eh?", esan najotsan, "Y si no estás, ya sabes lo que tienes que hacer. Con la buztiña esa tapas a tope y luego con el periódico ese... Te voy a traer todo preparao. Periódico y cuerda y todo.". Halaxen eruan be ein notsazen. Dana tapauta lotuta ipini zaben. "Y le vamos a dejar quieto en seis meses, así.". Gero, ba, sei hillebete pasau zittuan ta "Ven conmigo", esan najotsan. Baiña orduan ordurako be ez zuan etorri. Gaiñera, orduan pasau zuan, autopistan hamen kamiño txarra ta bestia, ta autopistako batek eruan jostan bere todoterrenuakin. Uezaba batek eruan ostan. Harek ikusi juan. Esan najotsan: "A ese ya le dije yo y no ha venido a la cita. ¡Bah! Pero es igual. Ya le diré. En el ayuntamiento ya le diré.". Ta zabaldu genduan ta jo-ta holako mamiña einda. Baiña enormeko mamiña, e! Lehelengo aldiz hori! Holako mamiña. Esan najotsan: "Hau salbau da". "Ihartu... ez zekan sei hillabeteko bizirik, ta salbau da hau.", [esan neban]. Jo, begiratu ta... "Zerekin ein dozu hori?", "Hori? Buztiñakin.". Juan nitzan aiuntamentura ta [harek diar ein zabela, ezin zala], baiña juango zala. Bueno, ba... Aguazillari esan najotsan, hori, Lubarriko haundixori edo: "Oye, dile a ése que allí tiene todo", eruan ein nittuan, ba, barriri buztiñak eta danak, "...que allí tiene todo el trasto. Ya sabe lo que tiene que hacer y que ponga en marcha como antes. Y que está en la vida, ¿eh? El árbol ese ya se ha salvao, ¡eh! Hay no hay vuelta. Eso ya se ha salvao.". Ta esan otsan telefonotik: "Oye, éste dice que el árbol ya se ha salvao", "¿Tú crees?", "Sí, sí, éste dice que sí". "Y tan seguro". Gero, ba, barriri be ipinitta bigarren aldiz ikusi genduan, ta gehixao. Ta oin, berriri ikusi barik dakat. Ez dakit zenbat denporan daon, denporalian dao, kendu ez badotse umiak-edo. Umiekin juaten naizenian gora begiratu bihar dotsat. Baiña seguru egon, praktikamente osatuta egongo da.

### 3.17. Zuhaitzen gaitzak

- **Hizlaria(k):** Oregi Oregi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-022/009
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:22:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa  
Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Zuhaitzen gaitzak. Sagarrondo batekin egin zituen lehenengo probak.

### Transkripzioa

- Lehelengo pruebia hori ein nabena izan zan sagar batekin. Hortxe behian, sagar gazte batekin. Hamabi bat urte edo zekazen. Sagar-gerrixa, ba, holakotxe, haundixa ez, ondiokan gaztia zan ta. Ta nik ez dot pentsatzen holan, beste batek igual pentsauko zaben txarto, nik ez dot pentsatzen nahitta eingo zabenik iñok hori. Kazarin batek edo, itxuria, tirua txorixari edo zozuari botako jotsan, ta zozua jo biharrin, jo-ta egur... gerrixari jo-ta erdixa. Fuera! Eruan zotsan. Ta geratu zan dana bringauta ta gerri guztia dana pelaje barikan. Bai. Haize-bolada haundi bat etorri ezker, ixa apurtzeko moduan. Erdixa-edo geratu jakon. Jarri nitzuan pentsatzen gabian, ta esan neban: "Baiña hori zerori... hori, aprobia ein bihar juat, ba, nik zeozekin". Ta buztiñakin akordau jatan. "Pruebia horretxekin ein bihar juat". Ein najuan, buztin pilla bat hartu, periodiko mordo bat... Juan nitzuan. Lehelengo zera hortik etorri zuan. Aizkoria kin horrek harrotutako zerok kendu najotsazen, aizkora zorrotzakin. Horrek bringa... dana bringauta jeuan, ba. Ta holako zulu a ein najotsan, bete najuan dana buztiñakin, lotu najuan periodikuakin ta zerekin ipiñi najuan ta urtebete baten laga notsan geldi-geldik. Joe! Ixa osatuta! Aiba la ordia! Hau salbau juat! Gero, atzera beteta laga notsan beste urte betian ta kitto. Jo-ta zihero osatu! Total osatu!

- Buztiña da sekretua, orduan?

- Buztiña. Ta hemen... Honek ez juek, honek injenieruak-eta ez juek... Nik esan be ez [juet] eitten nik, e? Horrek, ba, [eron] gauzak ibiltzen jittuek eta. Baiña neria hori dok, e! Ta, gaiñera, matematikua ona, e! "Sin ninguna duda". [Hor], osatuta, Plaentxiako estaziñoko arbolia, hilda egon bihar zana, osatuta... Han beheko urkixa ez, e! Han beheian Santa Anako urki bat... akordau nitzuan harena be! Baiña ez jekan bizirikan. Ya [hari] txiki-txiki bat zekan, ta esan neban: "Ez noia hankarik sartzera". Horrek be iguala: golpeka ta golpeka, ba, ya azal-punta txiki-txiki bat ekan bakarrik. Ya... Ondio orrixak baekazen, baiña esan najuan: "Ez najoiak hankarik sartzera, bestela ni izango nok, ba, txarra. Horrek ez jakak bizirik. Hau hilda jaok."

### 3.18. Errege-sagarrentzat inguru ona

- **Hizlaria(k):** Oregi Oregi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-022/011
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Fruta-arbolak. Sagarrondoentzat (errege-sagarrentzat) paraje ederra. Dena dela, fruta-arbolak ipintzen jakin arren, tratatzen ere jakin behar da.

### Transkripzioa

- Eta frutak, frutarbolak-eta, fruta asko emoteko zein da sekretua?  
- Bueno, fruta asko.. Nik esango [dostat] neria. Lehen, nik banekixan arbolak ipintzen ta txertatzen ta horrek, baiña ez nekixan tratatzen. Gu ezkondu giñana berrogeta bederatzi urte etorriko dia nobienbrian hogeta zortzixan ta "bodas de oro" daukau datorren urtian. Ta nik sartu nittuan reinetak, hor goiko sakonetan-ta. Eske reinetarako Zabaleko terrenua fenomenua da ona, zeaittik lur baltza dao, hori senduori, hamen. Hor ez, baiña hamen bai. Ta nola nekan ezaututa nun komeni zan reinetia ipintzia, ba, ezkondu ta reineta mordua sartu genduzen. Eztakit hogeta hamar, hogeta hamabost edo berrogei izango zien. Baiña gero, ipintzen jakin ta gero, tratatzen be jakin bihar izaten da. Ta nik nola ez nekixan, laga ein notsen gora juaten. Ta zortzi metrokuak-eta dare, gora. Baiña gero horrek, nola egurrak indarra hartzen daben, denpora asko faten jakue emoten. Harek ekin zian, hamazortzi-hogei urtekin ekin zian emoten. Ba, alebanakak eta bestia emoten zittuen, baiña gitxi. Oin bai. Oin harek, oin, igual batenbatek berrehun kilo be igual! Haundixak dittuk eta! Oin egurra be ez jakek, ba, ta oin emoten juek kantidadia emoten dabe! Ta gero, behetik hartzeko eskillara [ipiñi] ta bestiak eitten dou, ba, nola dauan paraje ona behian ta biguna, ahal dianak hartu. Lehen [gorengo] puntakuak be hartzen nittuan nik sasoi baten, e! Baiña oin ez [juet] bestieri be lagatzen juaten, peligosua dok eta. Ta behian batzen douz, jausi ahala. Nobienbrian horrek heldu ahala jausi eitten dia, ba, ta goizian juan bi plastikokin edo bi zerekin. Egunero-egunero, egun birik bat juan ta "tak!" eta holaxe, txorixak-eta pixkat [pikatzen] dittue, baiña harek izaten dittuk onenak, e? Atzera geratzen dianak onenak. Hori dudarik be ez! Onenak harek izaten dia. Ta horrek be esan dotsuet, hamazortzi-hogei urte inguru emoten ekitzeko. Oin dakez, ba, esan dotsutezen urtiak. Ezkondu ta hurrengo urtian [...] zian, ba, berrogeta zazpi bat urte-edo eukiko dittue. Ta horrek, ba, bizi luzia eukitzen dabe. Nekezao emoten ekitzen danak bizi luziaua eukitzen dau, nekatu gitxiao einda egoten da ta. Hori hola da, ta hori hola lagako dou.

### 3.19. Sagarrondoan inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Oregi Oregi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-022/012
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:26:20. **Bukatu:** 00:30:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
  - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
  - Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Fruta-arbolak. Sagarrondoan inguruko azalpenak. Urte gutxian fruituak ematen ekiteko egin beharrekoak.

### Transkripzioa

- Ba, hamen be barrixa, esango dotsut, oingo forman ein dotena. Hor behian-- akordauko ziñazien--, hor bueltan, reinetak dia horrek. Horrek ipini nittuan bost urterako emoten. Bost urterako, baiña ondo emoten, e! Reinetak.  
- Ta zelan?

- Zelan? Ba, esango dotsut: podauta, zainttuta. Gorakuak kendu ta guardasoldu pixkat. E? Ta gero oillo-simaurra botatzen notsen. Oillo-simorra, asko barik, lehenengo urtian ta bigarrenian ta hirugarrenian ez hobe, gogorra egoten da ta sustarra ondo hartu artian. Baiña sustarra dezente ondo hartutakuan, bueltan. Ez ipurdian, e? Bueltan, hiru bat metroko bueltan zaku bat zabaltzen badotsazu, frutia emoten ekitzeko ez dao horren modukorikan. Ta gero, lehen esan dotsutena, gorakua kendu. Oin, horrek badauke inkonbeniente bat horrek be --danak harrapatzia gaiztua izaten da--, zeaittik eze gazterik ekitzen bada arbolia emoten asko, nola arramak eukitzen dittuan ondiokaindar barikan, indar gitxikin, ba, pisuakin apurtu eitten dia. En kanbio, horrek bestiokin, berandu [ekitzen] dianak emoten, nola egoten dian gorputza einda, horrek ez dia apurtzen asko euki arren. Ta jua zan urtian be euki zebe, baiña aurten bildurgarri ta oin bi urte euki zebe bildurgarri. Ta hor --akordauko ziñazien--, makillak... Igoal, gero begiratzan badozue akordauko zarie. Ta aurten be ein biharko juat, zeaittik adarrak mendittik, mendira juanda edo, ahal dan lekuan, urkillak hiru metrokuak, laukuak jirau --edo bikuak-- ta adarrerri ipini ein bihar izaten jakuez behetik gora.

- Eusteko.

- Bestela, jo-ta apurtu, txikittu eitten dia. Ta emoten aguro ekin, baiña horrek be, lehen esan dotena, gero hil be, lehenao hilgo dia. Hori seguru. Horrek ez dittue hartuko bestien moduan berrogeta zortzi urte. Oin dakez horrek hamazortzi bat urte. Hamazazpi, hamazortzi, holako bat dakez.

- Eta hori, sagarrekin edo...?

- Sagarrakin, bai. Sagarrakin hori. Sagarrakin. Ta gero, ostiango gauzekin be, koño, okaranekin ta danekin, ba, gorakua kentzen badotsazu, ta behian errenditzen badozuz, asko lehenao ekitzen dia emoten. Ta gero batzen be, ba, errezaue batzeko be, gora ixo biharrik ez dakazu ta.

- Eta zelan eitten dozu? Erdiko, erdi-erdiko...?

- Jeneralian, erdixa gora juaten da. Erdixak hartzen dau indarra darian gora. Ta haura erdiko zera ebai ta aldamenetako adarrak. Eta gero barrua dana kendu ta gero kapelatu eitten da. Ta gero gorako... Oin pasatzen jata hor, oin be ein biharrian dare horrek, pixkat gorakua kendu biharrian, baiña oin ez dake kuidaorikan. Honek emoten ekinda dare ta horrek emon-emon eingo dabe. Baiña oin be horrerri beheko arbori, ba, nik sasoia baneka, han, dezente gora doiazeneri hori erdiko gorakuori ebai eingo neukixue. Ta aldameneko adarretatik --eta esaten dotsat hori alabian gizonari, Jose Antoniori, datorrenian. Baiña harek be kalia eitten dau biharra ta badakizu ze pasatzen dan.-- ta datorren urtian edo ia, esango dotsut nik zeintzu kentzen douzen. Baiña ez dotsa inporta kentzen ez badia be, nahikua baju geratuta dare, ba. Ta gero, hortik aparte, horrek [ondo] emoten dabe, ekinda dare emoten ta. Ez daka hori zerori. Ta gero, igual, gaiñera --igual, gaiñera, pasau leike, ta seguruasko bai--, bizixa luzetu eingo jakue pixkat arrama batzuk lagatzen badotsazue bere [osasiunian] juaten gora. Seguruao bai.

- Eta zelan ebaitzen dozu? Aizkoriakin?

- Ez, ez, ez. Zerretak dare.

- Zerriakin?

-Zerra txikixak dare polittak. Aizkoriakin... aizkoriakin ez da ondo ebaten! Zerreta ederra dakat nik, gaiñera, Frantziatik ekarritako... Zabalegiko Txomin edo, harek jirau ostazen danak. Frantziatik ekarri ostan. Zorrotza? Harekin hartzen dozu ta "ra! ra! ra! ra!" ebaten dozu ta gero horrekin... zela esango dotsut, horrek.. akordauko jata! Horrek zerok, ebatekuak! Ebatekuak! Horrek eta danak ekarri ostazen.

### 3.20. Fruta-arbolak txertatzearen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Oregi Oregi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-022/013
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:30:23. **Bukatu:** 00:34:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
  - Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
  - Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Fruta-arbolak noiz eta nola txertatzen diren.

#### Transkripzioa

- Gero txertaketarakuak be ekarri ostazen begittik txertatzeko piezak be bai. Danak hor dare harek. Begittik be ointxe, agostuan atzenetan, setienbrian lehenengo, hortxe txertatzen dia. Ebaten jakue hola, ta gero behera. Ta kentzen dotsazu begixa zerari ta han sartzen dozu barruan. Gero plastikuakin lotzen dozu. Euri asko eitten badau, peligrua egoten da usteltzeko, zeaittik sartu eitten jako pixkat. Baina normala izaten bada, sagarrak-eta ixa danak hartzen dau. Oin, gaztaiña-ta ez. Gaztaiña ya... gaztaiña gaiztuaua da. Gaztaiñiak peligro gehixao eukitzen dau. Ta holaxe gauza danak.

- Txertau, arbola guztiak txertau leikez gutxi gorabehera?

- Bueno, nik neuk madarixak, gaztaiñak ta sagarrak --nik neuk erabili dittutenak--, okaranak eta... Okarana hobia izaten da, ba, Gabon inguruan, ostian [...berandu samar] txertau. Erresultau hobia emoten dau. Sagarrak ez. Sagarra martixan. Madarixa ta horrek, ba, febrero... ta keixia ta bestia marti inguruan]. Sagarra, hortxe, San Jose aurrian, hor inguruan ixaten da. Horrek gitxi fallatzen dabe. Horrek berrogeittikan batek fallatzen [... ta ya] pena hartzen da [...esateko]. Sagarra erreza da.

- Eta txertau ze eitten da, beti sagarrak sagarran gaiñian, keixia keixian gaiñian, edo...?

- Bueno, batzuk badare esaten dabenak --nik ez dot pruebarik ein-- keixan sagarra etortzen dala ta sagarran keixia be bai ta... Holako gauzak esaten dittue, baiña neri zelán ez jatan okurridu sekula behixa astuakin ipintzerik, ba... Holako pruebarik ez dot ein! Oin, arbola baten ein nittun pruebak --sagarran, konparaziño-- lau klase ipini. Lau mento sartu: San Juan sagarra bat; igual Santiago sagarra beste bat; ta reinetia beste bat ta bestia beste bat. Hiru-lau klase. Horrek bai. Horrek probau ein dittut, baiña bertan, sagarran barruan, e? Ostian...

- Eta laurak urten?

- Bai, bai, bai. Hortxe nekazen nik behian. Hiru-lau klase-ta emoten desta. Eruan zittuen aurrian ta kitto, ezta? Baiña... Horrek pruebok bai. Holakuak ein dittut. Holako gauzak bai.

- Eta zenbat mento sartzen detsazuz normalian?

- Segun. Haundixa bada, lau sartzen jakoz. Ta txiki-txiki-txikixa bada, ba, bat. Ta normala bada, ba, bi sartzen jakoz ondo. Ta gero, gaztaiña forma askotara txertatzen dia ta. Gaztaiña be, ba, konparaziño, ebaten badozu pixkat... Gaztaiña pixkat sendua izanda hobeto izeten da, pixkat sendua bada. Ta gero horrek berak be, truko bat daka horrek be, ba, mentua gorde keizpian, euzkirik sartzen ez dan lekuan plastiko baten sartuta. Eta arbolia bera ostrotu arren, bentaja izaten da, ba, ura jasota eukitzen dau, ba, azala harrotuta eukitzen dau, ba. Ta egoten bazara zain mentuak arbolatik

hartzeko, nola bera be nahikua aurrera etortzen dan, ya harrotzen bajako puja, ya berandua izaten da, ez dau balio. Ta horretxeaittik, hori ondo eitteko bihar izaten da, ba, gorde, hola, plastiko baten ondo batu haizerik hartu ez deixen, keizpian gorde. Eta gero, ikusten dozunian gaztaiña aurreratatu dala dana, ba, orduaintxe txertau, zeaittik harrotuta egoten da ta. Zeaittik azala sikua bada, ez dau hartzen. Nekez hartzen dau, zeaittik ein bihar dozu operaziña, konparaziño, hau tolduau baldin bada, hau, ebaixak ein bihar dotsazuz, ba, hola. Gero --han dakaraz erremintak--, harekin puntia zabaldu bihar dozu pixkat. Ta sikua badao, ez da zabaltzen ondo. Ta [...] ez dau hartzen. Baiña orrittuta ta aurreratuta badao, ikutu orduko "tak!" zabaltzen da, ta fresko-fresko egoten da. Ta han hamarretikan bederatzi posibilitade hartzeko ta, bestetik, hamarretik bederatzi ez hartzeko. Entenditzen dozu? Ta horixe. Neuk ein dittutenak dia horrek, e! Ta ondo urten dostenak.

### 3.21. Feria eguna

- **Hizlaria(k)**: Oregi Oregi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-022/014
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:34:12. **Bukatu**: 00:35:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
  - Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Bergarako feria, Erramu Zapatuan. Feriara joan beharrean, gaztainondoak txertatzen geratu zen urte batean.

#### Transkripzioa

- Akordatzen naiz Pazku aurreko ferixakua, zerekua, Bergarako [Pazkuko] ferixia, Erramu Zapatu. Kauen sos! Orduan be, nahi hara juatia be ta udaberri txarra. Aurtengo moduan beti eurixa eitten zaben, beti eurixa. Ta hor behian patata sartzen [...], lau egun-edo ein zittuan onak. Ta gero, ba, zapatua etorri zuan ta Bergarara juateko gogua galanta ta gaztaiñak nekazen gordeta, paketiori, txertatzeko hor goixan. Ta, ba! Ni afizionaua arbolara be, ta esan najuan: "ez najoiak bape Bergarara ta txertau ein bihar [jittuadaz]". Hamabi-edo txertau nittuan gaztaiñak eta hamaikak-edo hartu, gehixenak hartu. Ta hor badare gaztaiñak kantidadia emoten! Erremu Zapatua [...] sakrifiziuri; hara jua biharrian, txertatzera. Ta hor dare etxaburuan gaztaiña-arbola edarrak. Zenbaittek ez jua eukiko igual, baiña nik ein najuan, e! Ta ez jaukat damurik, e!

- Merezí izan zeban?

- Onbre merezi zabela! Hor, traktorkada gaztaiña emoten dabe horrek urtero! Ta holaxen. Hor gaztaiña arbolak kantidadia dakaraz ipinitta. Gero han goixan...

### 3.22. Zuhaitzen gaitzak

- **Hizlaria(k)**: Oregi Oregi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz

- **Erref:** SOR-022/015
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:35:15. **Bukatu:** 00:36:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa  
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Fruta-arbolak asko zaintzen ditu. Zuhaitzen gaitzak.

### Transkripzioa

- Gero han goixan --danak eruatia geiztua izaten dok, ba--, han arbola-artian ta bestia, ta ihartu be ein jataz bat edo bi. Neuk esaten: "Ba! Kasorik be ez!" Ez dakizu? Baiña hamen etxe ingurukuak-eta, neuk manejatzen dittutenak, zain egoten naiz: "taka". Hori gaixuori dexente asko dao ondiok, e? Ta ikusten dotenian [zertzen], "taka" erremedixua ipintzen dotsat eta oin artian, behintzat, bizirik dakaraz, ein dotsetenak hori operaziñuori. Lehen esan dotsutena, han goixan, ba, batzuk ihartu dira. Ba! [Esaten neban]. Gero, gaiñera, geuk ez douz batzen, ta gero bestiak gitxiao batuko jittuek! Ta hamentxe etxe inguruan salbatzen bajittuau onenak, ba... Horrek batu eingo dittue berok be. Ta esaten dotsut, hori gaixu kontuori gitxittu ez da ein, e! Leku askotan atakutzen dau horrek. Oin, ba, askok ez dakala erremedixorik esaten dabe, baiña... Hau inportantia da bestiak [jakitzeko be]. Holako gauza onak neri esatia gustatzen [jata]. Nik daneri esaten [dotset], e, holako gauza benefiziokua dana. Ni hortik ez nok bizi izan sekula. Ni arbolak saltzera... Bai, saltzen najittuan zerian, Itziarko kooperatiban-ta, arbola batzuk, hola, dozena bat edo hoge-i-edo landarak. Baiña ni hortik ez naiz sekula bizi izan. Ta oin, ba, bat hortik bizi danian, ba, joe! Norberan patentia emon [...] hil artian jo-ta sekretuan eukitzeko, ta deskuidatzen bahaiz, [iñori esan barik hillian geratu...] ta grabiaua haura ondiokan. Ta gauza onak esan barik hiltzia grabia dok, e!

### 3.23. Gaitzak sendatzeko erremedioak

- **Hizlaria(k):** Oregi Oregi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-022/016
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:36:40. **Bukatu:** 00:39:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa  
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Gaitzak sendatzeko erremedioak sekretuan gordetzearen aurkakoa.

### Transkripzioa

- Ta gauza onak esan barik hiltzia grabia dok, e! Esan najotsan nik hori Mugarriko Paulari. Hik ezautuko [zuan]. Juan nitzuan... Ezautuko [zuan], hil zuan Paula, Boskoittiko Paula. Horrek botikia eitten jok horrek ona golpiendako ta.  
- Bai, bai, bai- Unguentuak-eta eitten dittuana.  
- Ta Plaentxian neri askok eskatzen josten, nik ez neban txikitarik be

kobratzen gehixao neretako. Hori [zabaldu...botilletan], horrek salduko najotsazen kantidadia. Ezta txikitarik be. Hartu ta emon ta [berak] kobratzen [zebana] kobrau ta kitto. Ta batek lau edo eskatu otsazen ta... Domeka goiz baten, ez jakixat zapatua zan, etxera juan nitzuan. Hor, basarrixa txikixa dake einda horrek, lehengua bota ein jotsen, ba, han behian. Han goixan jakek einda etxetxo bat. Ta juan nitzuan zeren billa. Ta, halaxe, barriketan, oingotxe moduan, hamarretakua edo zeoze ipini jostan, gaiñera. Ta esan notsan Paulari: "Hara, Paula, nik negozioko barri, neu be ez naiz negoziantia. Geiñera, andriak be esaten dosta ez dotela balio, biguneixa naizela, ta errezoia eukiko dau seguruasko. Baiña nik gauza bat esango dotsut: zuk hortikan diru mordua etarako dozu, ta normala ikusten dot, ba, daneri ez esatia. Baiña mesede bat eskatzen dotsut, bihotzetik geiñera, ez zaitte hil baten bati erakutsi barik, e?" "Semiak badaki..." "Bai, semiak badaki, semiak bai, baiña semia hiltzen danian beste bati ez badotsa esaten, iñok ez dau jakingo, e? Asieske... Behintzat, gitxienaz, lagaizu liburu baten eskribiduta zela ein bihar dan. Gitxienaz. Bestela, kezka piskat eruango dozu beste aldera, e!" Hori zerak ein juan, Eibarko Karralek ein ei zeban hori. Karralek. Ez dakit entzunda zaren zu... Horrek euki bihar zaben asunto inportanteren bat sekretua. Iñori esan barik hil zan haura tipuaura, e! Hori grabia dok, gero, e! Horrek gauza onok sekretuan eruatia... Joe, mutillak! Hori ez, ba! Oin, bera bizi dan artian eustia handik bizi bada be, ba, hori be, ba, normala dok puskat. Ez dakik? Heure [...] heuk ez badok [defenditzen], bestiak ez juek defenditzen, ta hori nik rekonozitzen juat. Baiña gitxienaz, behintzat, lagaik anotauta gauzak. Hori bai, e! Ta nik horretan sekreturik ez dakat bape. Total...! Nik sekula ez dot euki afiziño haundirik dirurako be! Ta bizi izateko beste... batzuetan hamalau ordu lana einda ta oin lau ordu einda, baiña beti konforme egon naiz dakatenakin ta beti bizi izaten jakin dot. Eta nik, [dakitena], holako gauza onak, esan eitten dittut eta kitto.

### 3.24. Frutarboletarako zaletasuna

- **Hizlaria(k):** Oregi Oregi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-022/017
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:39:10. **Bukatu:** 00:41:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Fruta-arboletarako zaletasuna noiztik duen.

#### Transkripzioa

- Eta gehixen bat arbolekin-eta ibili zara, ez?  
- Bai, bai, ni arbolekin gehixen, arbolekin. Ganauekin be bai, baiña ez naiz izan ganau-mutilla sekula be. Basarrixan egoteko, ba, euki ein bihar zenduan, danak bihar zenduzen bizi izateko ta. Baiña nik uste dot, gero etorri jatan neri arbolako hau, berrogeta hamar urtetik gero. Bai, hortik [bittarte] atzera etorri jatan hau afiziño haundixau. Seguruasko, etorri balejata hogeit urtekin, hogeta bostekin, mintegixak ipiniko nittuan, seguruasko, ta dedikauko nitzan landarak saltzen. Seguruasko. Ez dakit balioko naben, e! Errezao [...] igual andriak, zeaittik ni [frankua] naiz, ba, ta gero asko kobratzekua be ez, ta... igual ez neban emongo erresultau

onik. Ez neban eukiko halako zer haundirik. Horretarako lehelengo pixkat granujia izan bihar zara pixkat eta hori izaten be ez dou ikesi ta.... Egixa da hori! Eske negoziuan sartzen danak bestian konpasiñua hartzen badau, harek jai jakak. Harek bestiari pixkat nundik kenduko estudixau bihar jok, ta nik hortarakotxe ez balio. Hortarako gutxi balio nik, hortarako gutxi. Oin, nere bizimodu normala eitteko bai. Konparaziño, esnia hainbeste, sagarrak, ba, hainbeste, danak hainbeste, ta gauza fijuak edo, ba, [gutxiao ez bada be], horrek gauzok bai. Baiña negoziuan sartu ezkerero, diferentia izaten da. Mobidu ein bihar zara, plazetara fan ein bihar zara, gastuak be gehixao egoten dia. Gero, batenbatek pagau ez eittia be tokau leike. Ta horrek danak, arrisko danok be hartu bihar dittuzu, ta gero atzenian, gitxika-gitxika, zeuk ez dakizula --nik uste dot, gehixeneri pasatzen jakue--, bastante formal ekin, baiña bastante granujatuta amaittu atzenian. [Igalak ikusi dittuu] negoziantiak, e! Gehixenak, e! Bai. Lehelengo bastante formal ekin, baiña gero gitxika-gitxika, batek [...pagau], "Mekauen sos! [horrek be ez jostak], ba... [Hori semia dau], pagauko dau bestiak!". Gero bestiari kargau.

- Ikasi...

- Bai, bai, bai. Batxillerra ikasi negoziokua. Bai, negoziantia hola izaten da jeneralian. Ta dendetan ta [komertzio] edozein lekutan, e? Nik ezautu dittut besterakuak be bat edo bi ta urte gutxi durau dabe, e! Bestien konparaziñuan, dendekin-ta ekin dianak gehixenak frakasau ein dabe. Gero, gaiñera, igertzen badotse, gaiñera, ba, txarrao ondio. Igarri ezkerero... "Ba, pagauko dozu bixar", ta "pagauko dozu etzi" ta "pagauko dozu bestia" ta gero bape pagau ez. Ta gero norberak pagau ein bihar datozenak. Ta fallau dabe, neuk ezautzen dittutenak, batek edo bik fallau dabe oneixak izatiaaittik, e!

### 3.25. Idiak eroatera feriarra

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Gorrotxategi, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: SOR-024/006
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:12:40. **Bukatu**: 00:15:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
  - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Idi zalea izan da. Tratulariak ferietan: Elgoibarren, Bergaran, Arrasaten... Idiak oinez feria-tokitik.

#### Transkripzioa

- Zeu idixena zalia izen ziñan...

- Bai. Idixena zalia, ba! Idixak euki najittuan nik Kiruetan onak be idi paria.

- Ta horrek nundik ekarten zian, edo zela izeten zan hori?

- Horrek lehen tratantiak esaten jakuen --bueno, oin be tratantiak [...], oin ez dao holako zerikan--. Lehen hamen, Elgoibarren --oin be segitzen jok horrek hillan azkeneko zapatuetan--, perixia. Lehen be hillan azkeneko perixia. Hillan azkeneko zapatuetan Elgoibarren perixia eitten zuan. Hamen Bergaran, Mondrauen ta gero, berriz, Vitorixan-ta, berriz, hor perixa haundixak. Ta Mondrauen-ta be bai. Orduan idixak ekin aurretik etortzen

zittuan, ba, baikutzak... Bergaratik etorriko zittuan hiru bat tratante bai behintzat: Ttuntturra, bestia Antoniotxo-edo esaten otsena be bazeuan, ta hiru be bai Bergaratikan. Gero Mondragotikan-ta be bai. Orduan ganauak danak oiñez ekarri bihar izaten [jittuan]. Goixian hamaikak aldien izaten zittuan jeneralian hemen be, Elgoibarko perixakuan be, idixek. Pillo baikutzian hor hamabost-hogei bat pare idi, gero behixak be bai beste tarte batzuetan. Orduan kotxiak artian gitxi izen be automobillikan-ta, baiña idixak kotxiak errespetau bihar izaten [jittuan]. [Berak jo-ta idixok], bidesaillian idixok eta zerien, "eeee!" ein ta beste aldetikan berak. Idixak eskumatikan bialdu bihar izaten [jittuen]. Berak ezkerretikan hartzen zittuan ta akulu luze batzuekin "eeee!" ta [...] "eeee!". Ta bestiak atzian [datoz], ta holako batzuek ein ta idixok pixkat erretirutzen jittuen alde batera. Ta gero, sarritan, igual idin batek pixkat hola ezkerreko zerien-ta, baiña kotxiak hari ikutzen baotsan multia kotxiak.

- Kotxiak?

- Bai. Idixai aberixia eitten baotsan, idixak jaso bihar. Kotxiak errespetau bihar haura. Orduan kamiñuan ibiltzia ganauakin gaur baiño erretxua zuan. Gaur ez daok holakorikan, gaur kotxia libre ta idixak pagau biharko leuek segurua.

### 3.26. Ferian idiak erosi eta baserrira oinez

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Gorrotxategi, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: SOR-024/007
- **Iraupena**: 0:06:50. **Hasi**: 00:15:00. **Bukatu**: 00:21:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  - Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  - Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Idiak izateko zaletasuna nondik datorkion. Basoan txondorrek egiten zituzten eta idiak behar izaten ziren ikatza garraiatzeko. Feriara idi bila. Tratulariarekin harremana.

#### Transkripzioa

- Ta zeuk nundik zekazun afiziñua idixetarako?

- Nik, aurretikan Kiruetan beti behixak egoten zittuan. Ta [...] onak be bai behixak, behi gorri bi. Gero beste anaiak soldau ta zerian, ta neu egon nitzuan etxian, basarrixan, Kiruetan. Behixak geunkazen, ta behixa uztarrixan erabiltzen nebana, bata, pixkat kantsau edo zertu be ein zuan, ta gero txixan odola agertu jakuan behixorri. Ta iketzak geunkazen eindda Munetako haitzetatik beheratxua. Han txabola zahar bat. Badakik zerak nun daukan txabolia?

- Izarrekuak?

- Izarrekuak? Haura baiño beheratxua beste txabola bat. Han onduan Kiruetakuak baso sailla [geukan]. [Oin] piñu-zurixa [daok] han, baiña lehen basua zuan ha.

- Ta ze baso?

- Haritz ta paguak eta... Ta haren adarrekin-ta [...] ta hiru txendor-edo egozen han eindda. Ta idixok [ez zeren], ta gero, gaiñera, udazkena be bajetuan ta zerian ta... Aitta zanak-eta behixa, behi bat edo, bestela,

uztarrirako modoko behi bat edo, bestela, idi bat edo... Aitta zana ondoezik jebixan, ta han txendorrak najeukazen eindda, ordurako egosten ipinitta. Han laga lau txendor egosten --goixian beittu bat ein najotsen--. Ta etxera etorri nitzan, etorri Kiruetara handiken, ta arrautza prijidu bi jan, ta aintxixika trena hartzera, ordu bateko trena hartzera, hona estaziñora. Justu-justuan trena hartu najuan hor ta Mondragora. Juan nitzuan Mondragora. Behixa ekartzia ta "idixa bakarria ekarri" ta halakuak, ez dakik? Aurretikan, etxian, ba, eurak "idi bakarria ekarri" ta zerian, baiña ez najeukan idi bat bakarrik ekartzeko gogo haundirika be. Ta Altuna-edo, tratantia, Bergaran, han, plazan, ta orduan [hara aillegau giñanian] han jiharduen idixok-eta uztarrixan edo makilletan-ta lotzen jittuen idixek paria eitteko. Hau halako pare, ta beste paria ta ezker-eskumak-eta [alkarrekin ipintzen]. Hara juandakuen preparatzen jardutzen juen. Bajiharduen orduan be han preparatzen ta zerien. Ta idi bi, bata [gaztaiña-gorri] zera eitten ebana ta bestia beltz-beltza, halako adar zorrotz batzuk zittuana. Harek han goiko muga zaharrien-edo jebixazen artien, behera pasatzeke jeukezen. Hareri begira egon nitzuan pixkat, neu pentsatzen: "Mekauen, horretxek dittuk bixek polittek!". [...] neure artien, baiña... [Bera] pixkat hurreratzen [...] ta bestekaldera alde ein najuan bi aldiz be bai. Atzera hona beherao etorten nitzuan ta atzera [buelta ein...] ta hirugarrenian-edo berriz behixori begira banaok eta berriz be ekin nitzuan ta "Zu gazte!" Atzetik diar ein ostan. "Hona!". Geratu nitzuan etorri artien. "Zuri horrek idi horrek gustatzen jatzuz asko?" esan jostan. Ba, [gustau...]. "Idixak bihar dittuzu?" esan ostan, ta "Idixak edo... Idi bat edo". "Idi bat ez eixu, ba, eruan. Idi bat eruten badozu, etxian daukazun behi danak alperrik galduko dittuzu, idixak berana [eitten dau-ta] behixekin. Ta ez eixu eruan. Honetxek gustatzen jatzuz asko? Ba [hartizuz] horretxek idixok ta eruan etxera. Jaten ondo emon idixeri, berduria-ta ondo emon, ta uztarrixan be erabili. Ta idirika ez jo, kurioso erabili idixak". Holako esplikaziñuak emon ostazen harek. "Ta datorren perixakuan--artian hillebete hurrengo perixara Elgoibarrera, Egoibarkua, ta-- idixak gustatzen bajatzuz, idixak laga etxian ta zeu etorri. Ta idixak gustatzen ez bajatzuez, idixak hamaiketarako ekarri Elgoibarrera. Baiña jaten ondo emonda ekarri idixak".

- Eta gustau jatzuzen?

- Ordurako [be ya] gustatzen jatazen ta. Han hartu najittuan idixok eta banatok ixa Bergarara allegauan idixokin. Idixok [baztarrian aurrian bialduta najekazen] ta [...] Bergarara allegauan. Ta "dedios!", batak... Neu be itxuria aurrekaldera pasau nitzuan; idixa hola pixkat atzera geratu jatan itxuria. "Da!" buelta ein jostak ta buelta ein najuan ta hor doiak idixori atzera gora, Mondrau aldera. Mekauen dio! Beste idixa behien. Idixa behian geratu zana... Pixkat albuano arto-sorua jeuan han kamiñotikan bertan onduan arto-sorua. Juan nitzuan, bestian onduan ekin nitzuan ta dios! Ixa Bergarako kaliak atzera gora pasauta... Han esaten najutsen batzueri: "Eutsi horri! Eutsi horri!", baiña idixa bera be pixkat hola zezen modoko tipokua zuan, beltz bat. "Eutsi horri!" ta behixori... Neska gazte bat, ixa Altos Hornosera aillegatzen [doiela], goittik behera bizikletan. "Eutsi horri!" ekin nitzuan hari be, neskiורי, "Eutsi horri! Eutsi! Ez [dotsu] horrek ezer ingo ta, eutsi!". Jaitsi bizikletatikan ta... "Hartu bizikletiori aurrekaldian ta eutsi, ez dotsu ezer ingo ta!". Neskia jo-ta holaxen bizikletia ikaraz. Juan nitzuan ta hartu najuan idixori adarretikan, ta pezetia-edo emon najutsan neska gaztiורי. Euki be ez najuan asko gehixao ingo ta. Pozik juan zuan neskatxuori, laztana be emon jostan ta, bere bizikletiorrekin. Atzera abantau goittik behera ta neu pentsatzen: "Oin beste idixa nun egongo ete dok?". Atzera behera aillegau nitzanian, hona Zapateriko ondora aillegau nitzanian, beste idixa arto-soruan. Ordurako illunduta. Artuok... Neuk be hartu najuan, kolkora hartu najittuan artaburu

batzuek, sartu najittuan. Han alkarri bixak sokiakin katiu [najtsezen] buruetatikan, ta [... emon] ta... Hona artian ondo, kalera artian ta pixkat gora ekin zian artian ondo [honuzkuan] idixok. Baiña hemen aldapa zaharrien gora-ta ekin zianien, "ño!", ordurako pixkat kantsauta egongo zittuan ta. Baiña aillegau nitzuan gabian hamabi ta erdiak ingururako etxera, illundu ta gero. [Nere] ate-zaratia entzun [zebenian] segiduan jaiki zittuan ta zerian. Ta "Baiña, idixa bakarra [ekartzeko esanda] ta idi pariakin etorri haiz!" ta "Bai, idi pariakin etorri naiz. Paria ekarteko esan dosta, ta paria ekarri dot", ta zerian. Ta gure ama zana ta aitta zanori... "Laga eixozu, laga eixozu, badabil lehen be nahikua lan ta. Badabil nahikua lan", ta zerian. Idixori zeoze jaten emon, neuk be jan najuan beste arrautza gordin bi edo hartu najittuan ogi zati batekin ta atzera txendorraana juari hara mendira!

- Txendorreri begiratzera?

- Beitzera badaezpada be. Ondo jeuazen.

### 3.27. Ikazkintza

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Gorrotxategi, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: SOR-024/008
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:21:50. **Bukatu**: 00:24:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Txondorrak basoan. Zorriak lastotan. Non egin izan dituen txondorrak. Basomutilak ikazkintzan. Inguruko ikazkinak.

### Transkripzioa

- Hurrengo goixian jaiki nitzuan bost eta erdiak inguruan, ta txendorrok, beittu najutsen, ta pixkat sakatu ta zera ein. Ipini najittuan gertautu ta, ba! Etxera etorri nitzuan ta armozau. Gero etxian pixketian lanian, ta berriro eguardixan beste buelta bat ein najutsen. Ta, ba! Berriz atsaldian juan nitzuan seirak inguruan. Gero han txabola zaharrian egoten nitzuan. Han neukan lastua, gari-lastua, haura azpitan ipinita; [gero] manta zaharren bat edo. Udia zuan ta... ba! Han egoten nitzuan. Egun baten, hurrengo goixian, aurretik be zeoze akordautu [...] egun baten, holan, zera, ta koño, hemen, hola, hazkuria-edo sentitzen najuan ta zerian, baiña begira ibiltzen nitzuan ta ez najuan ezer zertzen. Orduan egunian txendorreri beittu notsenian pentsau najuan: "Pixkatian etzin ein bihar juat". Jarri nok hola ta auspez banaok --lastua azpitan ta--, hola banaok, ta zorrixak, hi! [... dantzia]. Mekauen dios!

- Laste jaikiko ziñan...

- Bai. Hor erantzi erropok ta danak astintzen jardun najuan! Erropok-eta baztarrai jo [erain] najittuan, ta lastuok etara najittuan hara danak kanpora ta su emon ta erre najittuan.

- Biharko! Han sartzia baiño hobe behintzat!

- Gero, handik aurrera, abar bat botatzen najuan azpitan —paguen goiko zotz mehiaura; mehiarek eta lehelengo azpitan bota—, gero geiñian bota arbolok, ostrua mordoska bat eta harexen geiñian. Ondo!

- Han hobeto?

- Baiña hari ez jakok eitten mamarrurik, [...] zorrikan ta. Ez. Gero

harrazkero be sarrittan ein dot nik. Etxepian gorauan be bai [...]; Pol-polen be bai ta Aittan-txaboletan be bai ta Gaintxurixoko etxe-ostian be bai ta...  
- Txendorrakin?  
- Txendorrak eitten, iketza egosten. Pol-polen hiru txandatan be bai. Itturrixan... Pol-poleko itturrittikan Hirukurutzetara bittartian. Orduan mutil kuadrillak ibiltzen zittuan hamen Naparrua aldian-ta be ikazgiñan ibiltzen zianak. Kuadrillak eta kuadrillak.  
- Kanpotik etorten zian hona be?  
- Asko bai kanpotikan. Hamen bertakorikan, orduan denporan... Aurretikan ta be ibiliko zittuan hemen be, baiña orduan, ni ibili nitzan denporan, besterikan... Ipiñarrietakuak ein jittuan bi txondor edo; bat erre ein jakuan.

### 3.28. Txondorra egiteko urratsak

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Gorrotxategi, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: SOR-024/009
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:24:50. **Bukatu**: 00:26:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Txondorrak nola egin behar diren. Ezagun bati erre egin zitzaion.

#### Transkripzioa

- Aurretik esan najotsan: "Hau... ez [eixok] honi txendorronek surik be sartu". ["Zeba?"] ta zerian, ta "Zeba?". "Hau atzera soltau ein bihar jok horrek txendorronek ta berriz kargau". Eske txendorra komeni izeten dok, lehelengo barruan-ta egur zakarrak be ipintzen jakuezik, baiña hau egur mehiau be kurioso-kurioso. Gero, azkenian, egur holako sendoerako egurrakin-edo dana bardin-bardin ein bueltan. Ta gero orbela botatzen dotsek arbustuori ta harekin. Lurra barrura juan ez dein [izeten dok] haura ostruaura. Ta gero geiñian lurrakin tapau. Ta harek haura bardinddu biharrian, goixan puntan laga juan holako pago-adar mutur haundi bat, gora euala ta zerian. "Horrekin ezin leikek, baiña!". Haura zohixa, lurrien etara zohixa ta zerien, ta harekin ipini ta "Bai, bai". "Ezin leikiela! Kendu ein bihar dala!", ta "ez" ta "bai" ekin [...]. "Heuk ein eik orduan nahi duana, ni ez natok berriro hona ta!". Alde ein najuan ta gero San Andresen zahar bat. Haura be ibilitta euala-edo, ta harek be jardun ei jotsan: "Baiña, hau, sua pixkat behera ekitten danian, hamendik suak eingo jok eta ez jok errendiduko hau! Hau ez dao [...]. Halaxe ein bihar zala ta ez dakit zer ein bihar zala ta beria. Ondo geratu zala, bestia zala, bazkaittara etorri zala etxera... Atzera juan zanian txendorra erdi [erre...], dana su hartuta ordurako. Ta behin txendorrak su hartu ezker, [...] dominatzerikan. Ez dakak [urriñera] juaterik hurrera. Han geratu jakon.  
- Orduan, inportantia ze zan, ondo bardintzia?  
- Txendorra? Bai, ondo bardinddu. Azkenerako haura bardin-bardin geratzen dok.

### 3.29. Txondorra egiteko urratsak

- **Hizlaria(k):** Elizburu Gorrotxategi, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** SOR-024/010
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:27:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Txondorra nola egiten den sakon azaltzen du.

#### Transkripzioa

- Orduan, inportantia ze zan, ondo bardintzia?  
- Txondorra? Bai, ondo bardinddu. Azkenerako haura bardin-bardin geratzen dok. Zuek ikusi dozue --ze esango dotsuet, ba-- bedarrakin einddakua, metia edo? Ha, kanpuan edo iñoiz, behian sendo-sendua ta gora mehiao-mehiao ta? Txondorra halaxe ipini bihar dok. Ta gero azkenian be halaxe urten bihar jok harek. Puntatikan lagatzen jakok txendorrari holako sendoerako egur bat. Ipintzen dok erdi-erdixan. Han, ba, plazuela haundixa izeten dok ta han plazuelian erdixan heuk ipintzen dok tente. Ta gero egurrekin, lehelengo senduenak; gero ta mehiauak, gero ta mehiauak han bueltan-bueltan kargatzen dotsazik. Honi ipintzia moduan. Ta honen bueltan, ba, eitten-eitten bahoia haura. Hamen erdixan, honen kontrara ipintzen dittuk bestiak. Honek hemen ipintzen dittuk bueltan-bueltan gero. [...] Gero bigarren pisua botatzen dotsek hemendikan berriz. Gora. Metro bat inguru luzian ebaitzen dok egurra gutxi gorabehera.

### 3.30. Ikatza egiteko egurra nola mozten zuten

- **Hizlaria(k):** Elizburu Gorrotxategi, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** SOR-024/011
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:27:45. **Bukatu:** 00:28:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena:** Egurra aizkorarekin mozten zuten. Egur handiak trontzarekin.

#### Transkripzioa

- Ta orduan egurra zela ebaten zenduen?  
- Aizkoriakin.  
- Aizkoriakin?  
- Dana. Orduan ez zeuan... [Bakarrik], egur haundin batzuk bazian, trontziakin. Trontzia, badakik, eztok? Bi lagunen artian. Harekin. Bestela, dana aizkoriakin. Ekin goixian ta gabera arte aizkoran. Gaur askok esaten juek hemen --hau, Olasagasti--: "Ene! Olasagasti!". Ta hor badok Ziriako, erdi zoro bat, radixotik jardutzen dabena. Bere Olasagastixokin jardutzen jok harek gehixenian "Haura, haura..." [jaso ezinda] jardutzen jok. Gaur

Olasagastik eitten daben lana guk orduan egunero eitten genduan. Ez, hola, ekiñaldi bat eta bakarrikan. Egunero. Horrek eitten daben baiño beltzao lana. Guk orduan Olasagastiri gaur horrek eitten dittuan markak laster tapauko gontsazen.

### 3.31. Ikazkintza

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Gorrotxategi, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: SOR-024/012
- **Iraupena**: 0:05:32. **Hasi**: 00:28:40. **Bukatu**: 00:34:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrek
- **Laburpena**: Txondorra egiteko lehenik zuhaitzak bota behar. Idiekin garraiatzen zuten egurra. Gurutzea txondorra bedeinkatzeko.

#### Transkripzioa

- Zuek ze eitten zenduen? Zu heltzen ziñan baso batera eta dana zeuk eitten zenduan? Lehelengo hartu arbolia ta...  
- Lehelengo bota arbolia. Gero harek adarrak apaintzen hittuan danak. Txikixak kentzen jakuazen ta harek tantai haundixak geratzen zittuan. Ta idixekin-edo batu.  
- Tantaiak esan dozu?  
- E?  
- Tantaiak?  
- Tantaixa esaten jakuan pago adarrari. Harek adar txikixak-eta kentzen jakozen, tantaixak, pago-tantaixak. Harek batzen hittuan hara buelta hara. Hau dok txendorrari... hau dok txendorra ein bihar douna, ta hona bueltara batzen zittuan harek osorikan idixekin. Gero txikittu metro bat inguru altuan. Gero han bueltan lagatzen hittuan, mehienak azpirengo, ta senduak bueltan. [Behetik gora], mehiak lehenengo azpitan, ta senduauak, senduauak, senduauak... pillia eitten heban han. Ta hurrengo zertu bihar dittuanian harek ya gertu heukazen. Ekintzen hetsan atzera ipintzen honen kontrara ipintzeko. Han berriro haura geiñetikentzen-kentzen, ta senduenak tokatzen [...] lehenengo azpitan danak, ta mehetzen, mehiuauak-mehiauak, azkenian harekin mehiekien hik [bolia] eitten heban, tapatzen heban orbelakin, ta gero lurrakin tapau. Ta hamen goittik behera [sartutakuan] egur haura, hola, beste bat harek [kurutzia esaten juen] hemen sartuta eruaten juan, [gabillian] moduan. Hau egurrau, hemen euan egur sendo haura, honekin ta ikara batzuk-eta erein zerian ta tira ein ta etaritzen heban gora, ta han beheko barreneraiñokan haura zuluaura geratzen zuan. Geiñekaldian sua ein, ta sua eitten zanian, lehelengo lana: kurutzia gaiñekaldian ipiñi. Eitten heban: basuan pago-adarra, pagua, hau baiño senduaua, holako sendoerako adar bat hartzen heban holako luzerakua. Haura jotzen heban ta jo-ta hemen behera pixkat bringatzen heban, ta gero honi sartu [...] beste egur bat hemen, ta kurutzia indda. Hau kurutziau geiñekaldian ipiñi. Txendorra hemen beuan, hemen geiñekaldian kurutzia egoten zuan.

- Hori zetako izaten zan?  
 - E?  
 - Zetako...?  
 - Kurutzia bedeinkatzeko.  
 - Bedeinkatzeko?  
 - Bai.  
 - Gero, txendorra hik hemen eindra ta, konparaziño, hor errekoa, hor albuan, ta txendorra hik hamen berdin ein, ta tapau be bardin samar ein, igual txamar, tapau dualakuan, ta segiduan izaten zuan haura aldiaura lurrakin gehitxuao kargau bihar. Han dauan urak sua hara eruaten jok.  
 - Tiratu eitten dau?  
 - Tiratu eitten jok. Gitxi, baiña beti. Jeneralian, beti haura aldiaura gehixao kargatzen ibili bihar suari eusteko. Bestela, sua bardin ez badoia, haura txendorra bardin-bardin ez badoia goittik behera gastatzen-gastatzen, "ya se jodió". Harek danian bardin jua bihar jok. Haura pixkat goixan [zertzen] lehenengo, brasia eitten danien, paliakin han zulutik behera botatzen dotsak, ta gero egur-kaskuak berriro ondorian ta zerian ta... Berriz be han keia edo zera ekitten danian, bota palakada bat edo bi berriz lehelengo brasia, berriz be egur-kasko batzuek eta zerian, ta haura belaxe betetzen dok goraiñok [...] zuluaura. Goraiñok betetzen danian tapatzen dok zohi haundi batekin... Zohixa badakik zer dan?  
 - Bai.  
 - Bai? Ba, harekin tapatzen dok ta han egoten dok haura keia darixola. [...] Gero, geiñian [...izeten dok], ba, zuk gaur goixian tapau hau, edo su emon ta sua zertu ta tapauta ipiñi [...], illuntzi aldera berriz haura zohixaura kentzen dotsak ta hartzen dok egur bat, eta zirikatu goittikan behera. Ta zelan barruan botatzen dan haura egurraura harek [...] erreta egoten dittuk. Harek ahal dan ta behera bajatu danak, han berriro be barrixak sartu ta berriro be tapauta ipiñi. Ta gero, poliki-poliki eitten dok puntan egurrak biguntzen. Ixo norbera geiñera --hari lehenenguan be, ba, holako zabalera bat edo geratzen jakok, [...]--, pixkat zertzen danian haren geiñera ixo, han geiñian hola sakatu, ta "krak-krak" ekitten dok, ya iketza eitten dauela muestria. Ta gero haura, sakatzen-sakatzen, egunian pare bat aldiz sakatu bihar izeten dok haura. Hartzen dok haga luze bat heu hemen haren geiñian bueltan ibiltzeko, ta harekin defendiduaz [...] geiñian.  
 - Badaezpada be...  
 - Bai. Hau, konparaziño, honenbestian bada, goixan geratuko dok, ba, hola, batua. Ya han batzen-batzen juaten dok, gastatzen-gastatzen juaten dok behera. Holakoxe zabalerako koska bat [eruatzen] jok; egosittakua hor, ta bestia artian be hemen koskia juaten dok beheraiñokan. Ixa beheko barrenera... barrenera allegatzen dan inguruan, [sua] allegatzen dan inguruan-- aurretikan egoten dok ya kerik eta barikan denporalian, egunetan--, gero ixa barrenera allegatzen danian, bera ekitten dok keia darixola behetikan txendorra. Ya senaillia sua beheraiño allegau dana.

### 3.32. Ikatza txondorretik nola atera

- **Hizlaria(k):** Elizburu Gorrotxategi, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** SOR-024/013
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:34:12. **Bukatu:** 00:35:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Ikatza nola ateratzen zuten.

### Transkripzioa

- Gero etaratzeko, haura... keiok pixkat gastatzen jakon edo zertzen jakon [...] eitten ebala behera. Ta, gero, egun batzuetan lagatzen dotsak, egun bat edo gehixao lagatzen badotsak hari, atzera indarra hartzen jok harek. Ta komeni izeten dok haura keia gastatzen jakon zerien, goittikan behera... Belakixa esaten jakuan oholezko zer batzuk eukitzen genduazen, atxurran formako batzuek. Ta harekin kendu lurra dana behera, ta zikiña edo zera badauka kendu ta atzera han "da!" tapau haura. Berriz beste zati bat, beste zati bat, buelta daniel garbittu. Gero, hurrengo egunian-edo ekitzen hetsan etarutzen. Etarutzen be iguala: hartu goittik behera sardiakin ta, puntan, ta holako zabalerako zati bat ta beheraiñokan. Etarutzen heban iketza, ta iketz hori atzian gero eskobakin-edo zabaldua ipintzen heban hoztu dein, berriro su hartu ez deixen. Bestela, iketza hona behera bajatu [ta] hamen lagatzen badok pixkat sendo-samar, atzera horraxxe etarutzen jok. Ta zabal-zabal eitten badok, ya hoztu eitten dok ikatza. Buelta daniel haura pasau, berriz hurrengo txandan be iguala: berriro [...] zati bat... Txendor hor... hirurogeta hamar bat zaku daukazen, hirurogeta hamar-hamabost zaku daukazen txendorra, ba, hiru bat ekiñaldittan-edo etarutzen da. Ta, bestela, prisaka [...], su hartu ta erre igual.

- Larrei kendu ezker...

- Larrei ez. Hik batera kentzen badok haura, ba, han pillia ta artian haura jo-ta berua daok eta harek hartzen deuk indarra edo pixkat sua [pizten ekitten] bajak, han ez daok aguantatzerikan.

### 3.33. Txondorraren arriskuak

- **Hizlaria(k):** Elizburu Gorrotxategi, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** SOR-024/014
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:35:55. **Bukatu:** 00:36:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Txondorrak botatzen zuen berotasuna; erretzeko arriskua.

### Transkripzioa

- Ta hori peligrasua izeten zan?

- E?

- Peligrasua?

- Bai, argi ez bahabil, heuk be su hartzeko arriskua. Han ekitzen bahitzan, eutsiko jotsat eta bestiak eta jo-ta erropa zaharrok hango berotasunakin-ta berotzen jazak eta heu... su hartzeko [dispuesto] erropak. Peligraso-peligrasua ez, norberak erreparo pixkat euki ezker, ez zuan eukitzen horrenbeste peligrasua.

- Eta ez zeuan, holan, modurik pixkat peligrasua hori kentzeko? Ba, ez dakit, txondorran gaiñian-edo ohol batzuk ipiñi edo ez? Barrenera sartzeko... Halakorik ez zeuan [hemen inguruan]?

- Ez, ez, ez.

- Entzun batenbat zertu zanik edo? Erre zanik edo hola...?
- Txendorrian? Ez, ez juat entzun.

### 3.34. Ikazkintza baserri guztietan

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Gorrotxategi, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: SOR-024/016
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:38:10. **Bukatu**: 00:38:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Ikatz asko saltzen zuten; nora. Baserri guztietan egiten zen ikatza.

#### Transkripzioa

- Ta gero saldu nora eitten zenduen, kalera?
- Plazentziara be bai, Bergarara be bai. Orduan ikatza asko kostatzen zuan. Hamen ez jeuan orduan basarririkan ikezgintziak beste diru emoten ebanik. Hamen lurra jaso bihar lehelengo artua ereingo bazan edo patatia sartuko bazan be bai. Badakik zenbat lan [...] alperriken, dana atxurran ta kristuetan ta? Hamen izaten zuan etxerako lain hartzen zala ta hauraxe ta hauraxe zalakuan. Harek ez jeukan dirurik.
- Iketzak bai...
- Iketzak bai, iketzak ondo emoten juan.

### 3.35. Ikatza egiten zenbat urterekin hasi zen

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Gorrotxategi, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: SOR-024/017
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:38:50. **Bukatu**: 00:40:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- **Laburpena**: Ikazkintzan zenbat urterekin hasi zen. Aitak Eibarko Arizmendi baserrian ikusi zuen gaztetan txondorra nola egiten zuten.

#### Transkripzioa

- Eta zu noiz... noiz jakin zenduan zuk ikazgintzan gitxi gorabehera?
- Nik? Nik ikazgiñan, ba... ekingo nintzuan ni treinta y ocho, holako bat, lehelengo etxian ein [...] aitta zanak eta bixok. Etxe onduan, Kiruetan. Ta, gero, egurra hara ekartia asko kostatzen zan tiratzia hara, ta han bertan, eguan lekuan, basuan, Bertan eitten genduazen horrek lau-unok ta han.
- Ta lehenau be aittak einda zekazen?
- Berak gaztetan zala ikusitta. Arrate balleko Arizmendin egon zuan kriaugure aitta zana. Egon ei zuan. Ba, haintxe ikusitta txendorrak zela eitten zian ta zela izeten zan iketza eittia. Ta, gero, Kiruetan bajeuazen ehun ta

hamahiru pago-edo, [horrek] arbola haundixok, ta adarrak be bai honenbeste sendokuak-eta batzuek baeukezen. Pago bati ebai [notsezen] —ba! honenbeste izengo zuan mehiena be— hamaika adar.  
- Pago bati?  
- Harek zenbat urtian eren mozteke...

### 3.36. Pago-buruak ikatza egiteko

- **Hizlaria(k):** Elizburu Gorrotxategi, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** SOR-024/018
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:40:12. **Bukatu:** 00:41:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Txondorra egiteko adarrak mozten zituzten. Pago-buruak.

#### Transkripzioa

- Normalian, ikatza eitteko ze eitten zan, adarrak moztu ala pagua osorik moztu?  
- Ez, ez, adarra, adarra moztu. Bai. Adarra berriro etaratzen jok arboliak. Hik goixan mozten badok, berriro adarra etaratzen jok han. Hik hondotik botatzen badok, bai, hondotik botatzen badok, ba, materialetarako. Haura gerrixaura, gerrixa esaten jakona aprobetxatzen dok; ta goiko adarrekin ta buruakin be bai iketza. Baiña pago-burua ta horrek pixkat peligrasuak. Bueno, lan zakarraua hori. Zelan egurrak... Iguar pago-buru [...] hau mahaixau baiño haundixauak ipintzen dittuk han ta. Baiña harek [ez] danak juntatzerikan; erdixan iguar geratzen jak han holakotxe huekua. Ta [...] pixkat biguntzen jakozenian, han kurioso ez [bada ipintzen], behera juaten dok [...]. Ta hurrengo, berriz, heu akordatzeke iguar aurretikan ondo ipini dualaukuan ta han [gogor-una baten...] ta hurrengo haura pixkat biguntzen... jo-ta "grauk" eta behera,. Zatixa behera ta arreglaik haura. Atzera bete egur zatixekin ta tapaik haura lurrakin. De dios! Han ikusten zuan inperua! Egun onak be bai asko ikazgiñan. Egurra preparauta... behin egurra preparau... egosten henbillenian, egunak. Bai. Hala be, adarrakin-ta hebillenian, goizian beittu bat ta eguardi inguruan ta berriro gaberako ipini ondo ta... Bai, goizian be... Ez, ba, laga ta ihes ein handikan, baiña... Ostian ondo.

### 3.37. Ikatza idiekin nahiz bizkarrean garraiatzen zuten

- **Hizlaria(k):** Arizaga Larreategi, Juan; Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-028/001
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Unamuno, Arianne
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

- **Laburpena:** Ikatz asko egiten zen orduan, idiak hartu eta leran nahiz bizkarrean eraman ohi zituzten ikatz zakuak; Eibarrera ere eramaten zituzten. Ikatza egiten zuten baserriak izendatzen dituzte.

### Transkripzioa

JL - Munduan dian kalamidade danak tokau jakuzen guri.

J - Kalamidadiak...

Egoitz - Orduan toki askotan eitten zan iketza?

J - Bai.

JL- Orduan bai. San Andresko Paulo be makiña bat eindakua dok.

J - Bai, asko harek.

JL - Harek asko. Harek asto gaiñian zaku iketza. [... eittiaren] Sarri eruaten juan.

J - Ta haura be demasa zuan gero. Zaman hartu ta kalera ekarri.

JL - Ni ez, ni ez nok akordatzen horrekin.

J - Ene... gu bai.

Egoitz - Zeiñek hori?

J - Iketza. Idixak, (z)erenak hartu ta leran ta zaman.

Egoitz - Kalera ekarteko?

J - Bai.

JL - Saldu.

J - Gero handikan, hemendik, Eibarrera be bialtzen genduan guk, e.

Egoitz - Hemen zenbat iketzgin egongo zian orduan? Iketza eitten ebenak.

J - Iketza eitten zeбенak? Bai, ..., mordua, banaka-banaka. Basua zekanak, [...] jittuen galantak.

Egoitz - Ixa basarri danetan eitten zan?

J - Danetan ez baina...

JL - Ez, leku askotan ez. Kortan, San Andresen, Uzkatena...

J - Uzkatena.

JL - Barrentxen ez.

J - Barrentxen ez nok konturatzen Barrenetxekin.

JL - Sikiera ez nok harekin akordatzen. Guenetxen be bai.

J - Guenetxen be bai.

JL - Jose Guentxe.

J - Haize haundi hari, txendorra piztuta nekan.

JL - Ta harek astintzen juan!

J - Dios...

### 3.38. Txondorra egiteko lanak

- **Hizlaria(k):** Arizaga Larreategi, Juan; Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-028/002
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:01:44. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Unamuno, Arianne
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Txondorra nola egiten den azaltzen du. Txondor ondoan borda egin eta gau eta egun txondorra zaintzen bertan egoten ziren.

### Transkripzioa

Egoitz - Ta txondorrana zela izeten zan?

J - Txendorrana? Je!  
JL - Je!  
J - Sekula ez dok ikusi?  
Egoitz - Ez.  
J - Telebisiñuan be ez?  
Egoitz - Telebisiñuan bai.  
J - Zatittu egurra, tolostu.  
JL - Tolostu, ta gero su emon ta erre.  
J - Gero zerakin, lurrakin tapau. Zotalakin.  
Egoitz - Zotala ze da?  
JL - Honek ez jakik ezer. Zohixa, zohixa!  
J - Zohixa.  
Egoitz - (ummm).  
JL - Honek ez jakik, lehengo ipuiñik ezebez. Jakitzia bai nahi, baiña id(e)iarik be ez.  
J - Zotala ze dan jakin ez?  
JL - Ez jakixan ze dan. Txokau itten jak ala? Ni bapez.  
Egoitz - Baina soixa ze dan badakit behintzat.  
JL - Zotala ze dan ez jakixek honek.  
Egoitz - Eta gero zela izeten zan, hortik aurrera?  
J - Handik aurrera, ba, egosi itten zuan. Zelako txendorra zan ba, hainbeste. Gau ta egun zaindu in bihar haura.  
Egoitz - Ta zenbat egun bihar izaten zeban horrek gutxi gorabehera?  
J - Segun zelako txondorra zan.  
JL - Hillebete bat.  
J - Batzuek hillebete, beste batzuek hamabost egun.  
JL - Batzuek aguro erre, beste batzuek siketu.  
Egoitz - Ta igual zan eurixa in o...  
J - Eulixa?  
Egoitz eta JL - Eurixakin.  
J - A, han geratze zuan haura! Edurrakin be.  
JL - Keia darixola. Keia darixola geratzen zuan haura! Kontu ein bihar jako gaiñera juaten, e?  
J - Uzkateko Pedro Marik edurte galanta pasau juan!  
JL - Bai, tokauko zuan.  
J - De dios. Han, Bidegurutzetako zelai guenian.  
JL - Ez jakat goguan.  
J - Nik bai. Horrek be hantxe jaukan kriau. Horrekin juan nitzuan.  
JL - Koiño, Marziano,e?  
J - Marziano bai.  
Egoitz - Ze, txondorrakin?  
J - Txendor gaiñian. Zohixakin ein txabolía ta hantxe.  
JL - Hantxe.  
Egoitz - Gau ta egun?  
JL - Biheko!  
J - Bihako!  
JL - Eurixa bada eurixa ta aterri bada aterri. Zohixan azpíxan. Teillatua zohixakin.  
J - Ta arpeixa zikina!  
JL - Bai, hautsa galanta ta!  
J - Ta nun garbitturik ez.  
Egoitz - Dutxa asko ez zenduen hartuko han.  
J - Han?  
JL - Dutxia? Orduan ez jauan dutxarik iñun.

### 3.39. 6 eta erdietan jaiki, enkarguak egin eta bederatzietarako eskolara

- **Hizlaria(k):** Arizaga Larreategi, Juan; Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-028/004
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:05:08. **Bukatu:** 00:05:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Unamuno, Arianne
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Juan sei urte eta erdirekin eta Jose zazpi-zortzirekin hasi ziren eskolara. Juan astoan esnea hartuta joaten zen, lehenbizi enkarguak egin eta bederatzietarako eskolara. Sei eta erdietan jaikitzen ziren derrigorrean, bestela gurasoek errieta egin ohi zieten.

#### Transkripzioa

Egoitz - Eskolara zenbat urtekin hasi zifñien zeuek?

J - Ni sei tterdikin.

Egoitz - Ta zu zenbatekin?

JL - Ni be ba, zazpi-zortzi urtekin, holako baten juango nitzuan.

J - Astua hartu aurrian ta, esniekin gaiñe(a).

Egoitz - Danok batera?

J - Danok batera. Errekauak ein ta beratziretan eskolara.

Egoitz - Ta jaiki ze ordutan eitten zifñien ba?

J - Jaiki, ba, sei tterdiak. Jaiki ez, jaiki erain! Jaiki.

JL - Jaiki. Oingo moduan? Jaiki.

### 3.40. Baserrian lan gogor, baina jan ere ondo

- **Hizlaria(k):** Urizar Murua, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** SOR-041/004
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:07:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** 10-12 bezero izaten zituzten. Kalera esnea saltzera etorritakoan baserrikoaren aldean bizimodu lasaia zela konturatzen zen. Baserrian seietan jaikitzen zen egunero eta kaleko buelta egin ondoren ere beti egoten zen lanen bat egiteko. Amak gosari ona jartzen zien; baratxuri-zopa egiten zuen egunero eta gero urdaiazpikoa gainean. Urtean hiru txerri hiltzen zituzten etxerako. Ardoa Bergaratik ekartzen zuten zahagian. Hiru morroi izaten zituzten etxean. Baserrian lan ugari egin behar izaten zen, baina jan ere ondo egiten zuten.

### Transkripzioa

- Esaten dozu, e... esnia-ta bezeruei zuzenian...  
- Bai, bai. Horrek eguneroko bezeruak, fiñak, e! Bai, bai.  
- Eta nunbaiten apuntatzen zenduen edo ya bazekizuen...?  
- Ez, ez, ez. Jakiñian! Fulana, ba... Margarita edo bestia edo bestia edo ta... Hamar edo hamabi igual egoten zian bezero-etxiak. Ta etxe-etxeraiño esnia. Ta nik esaten neban: “Ni ezkondu kalera?” edo... “baserrira?”. Etorri ta bedratziretan, artian, kamisoiaren batekin urtetzen zeбен. Hiru bidar-ta etorri ta ohian igual, ez dakizu? Neguan-ta. Ta han basarri puntatik etorri ta plazakua ein ta. Bi biaje ta etxera, zu, esniekin-ta. Ta esaten neban nik — orduantxe neuk hamabost urte, hamasei neukazen, baiña—, esaten neban: “Ni ez behintzat basarrira! Ni kalera! Aber lo eitten doten neuk be!”  
Goizeko seiretan jaiki bihar izaten giñuan horrek gauza guztiok eitteko!  
Astuari beran zestuak ipini eta lotu bera eta berdurak ipini, ta dana.  
Plazara etorri, tratua hartu, jua etxera... Ta etxera juandakuan be egoten zan, ganauendako-edo kargan batzuk, arbixa edo nabua ipinitta, artuakin-ta nahasi ta... Armozua ona gure amak! Hiru txarri ta hiltzen giñuzen hola zazpi bat arrua ingurukuak. Ta txarrixak hiltzen giñuzen. Etxian urdaiazpikua ta txorixua ta dana egoten zan ondo. Ta berakatz zopia eindda eukitzen zaban gure amak kazuelatxuan, gaiñian arrautzatxua ta gaiñian urdai... urdaiazpiko zatitxua jateko. Ta ardaua be Bergaratik. Esaten da alkoholizauta, baiña ardaua be, e... zera eruaten giñuan, zaragixa. Bakizu zer dan, ezta? Erderaz “pellejo” da, baiña...  
- Bai, esplikaidazu zelakua zan...  
- Zaragixa zan, ba, narruzko haundixa, ba, igual eukiko zittuan, nik ez dakit, larogei litro-edo igual, kaiñaberiakin. Eta burdi motz-motza, burdi motzian Bergatik ekartzen [joskunan], “Manso” edo zan Bergakua, ta ardau lodi-lodixa, beltza. Eta hori ardau hori, ba... Hiru kriau-ta eukitzen giñuzen etxian! Bat Elorrixokua, bestia oin, e... Gorrotxategi bertsolarixan aitta. Haura gurian kriau zeuan, hiru urte ein zittuan kriau gurian. Eta gurian lana ondo eitten zan, ezta? Lan asko. Baiña jaten be ondo, e! Gure etxian txarrixak eta oillaskuak eta ein bihar zana, edo bakaillaua edo... Gure ama be ez koziñan-ta ibillitta, baiña oso... labeko sua ta ogi bat-eta eitten zeban! Ogi bat-eta ederraua ta...

### 3.41. Zahagi ardoaren inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Urizar Murua, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: SOR-041/005
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:07:34. **Bukatu**: 00:08:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Zahagia nolako izaten zen. 80 litro ingurukoa izaten zen eta gurdari lotuta ekartzen zuten Bergaratik. Mahai gainean edukitzen zuten eta handik garrafoiak betetzen zituzten eta garrafoietatik botilak. Etxean denek edaten zuten ardo pixka bat, baita neskatilatan ere. Etxeetan ohitura izaten zen ardoa edatea, batez ere langintzetan.

### Transkripzioa

- Ia, zaragixa, orduan, esan dozu dala...?

- Zargaxa da... "pellejo" esaten jako erderaz. Oin ez dakit egon be ingo dan holakorik. Ardaua sartzen zeben, hor eoten zan, ezta?

- Larogei litro inguru kabitzen zian?

- Bai, larogei eukiko zittuan edo gehixao igual. Ta hori burdixan lotzen zan, mahaixonen moduko txikixa, holakotxe kuadrúa zan, ezta? Eta beran... sokekin ta lotuta eoten zan hau ondo ta kaiñabera bat eukitzen zeban, gero sartzen jakon muturra lotuta. Ta etxian, etxian be ipintzen zan, e... Guk, e... "obra barrixa" esaten gontsan, geunkan kutxia, garixak. Goixan bota, ta kutxak haundixak. Goittik garbittu ta bota, ta garixa. Orduan, badakizu, oin ez dao, baiña garixa urte guztian ta... Eta haretxen onduan mahaitxo bat euan ta gaiñian egoten zan. Eta etaratzen giñuan garrafoia, bete, lau edo bost egunerako-edo ta bost kuartilloko botillak zeozen, beltzak, haundixak, ta bi egunerako-edo hauraxe etara. Bost kuartillu, oseake, litro bi ta erdi edo ez dakit ze izango dian. Eta hauraxe etara ta meriendatan ta bazkaittan ta danian ardautxua. Geuk´e bai, e! [Behin] neska-koskortxuak giñanian be, harekin berakatz-zopiakin ta goizian be, bere zertxua, txikito modutxuan, bere ardautxuakin.

- Orduan ohitturia izaten zan basarrixetan edo...?

- Danian, ez gurian bakarrik, e! Etxe danetan, e!

- Ardaua eraten zan, e...

- Eraten zan langintzetan ta...

### 3.42. Garia auzolanean ebakitzen zuten

- **Hizlaria(k):** Urizar Murua, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** SOR-041/006
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:09:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**  
 Baserria » Baserriko lanak » Garia  
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Garia lehenago heltzen zen euren baserri inguruan beherago zegoelako. Itxaso, Aritzaga eta Iturrixa baserriak zeuden beheren. Garia heldutakoan goiko baserrietakoak behera etortzen ziren garia ebaten laguntzera eta gero alderantziz. Auzolanean ere lan gogor egiten zen, baina gero merienda onak egiten ziren.

#### Transkripzioa

- Garixak-eta gurian heltzen zian lehenengo, behian. Gure etxia bastante behian dao, ba. San Andres baillian, bastante behian. Itsaso, Iturrixa ta Aritzaga dao. Eta, bai, behian. Ta gure... behian, hamabost bat egun lehenao heltzen zan garixa ta etxe guztietan euan garixa. Baiña guk ezin izaten giñuan ebagi etxeko familixiak garixa ta goiko basarrixeri esaten gontsen etortzeko laguntzera. Ta beste zortzi edo hamar basarritatik bajatzen zian behera. Goizeko beatzietan-edo etorten zian eta bazkaldu eta meriendau ta dana gure etxian. Enteditzen dostazu? Harik eta garixak ebai arte, e! Ta gero guriak ebaten zienian, faten giñan berenak ebatera gora. Beren basarrixetara gero joan bihar izaten giñuan! Goizian urten ta ordubeteko bidian ixa mendi ondoko basarrixetara-ta! Ta gero ekixon han! Etxetik juan ta sorua be igual, barrenian, ta gora. Jaten ondo emoten zan orduan be, e! Bai. Meriendetan ta igual, azauak ipintzen zian hola illaran,

ta fuentiak, bakaillaua edo igual tomatiakin-edo ta gaztaia gaiñian-edo ta arduakin ta... ondo, e! Baiña lana be gogor, e!

- Bai, ez?

- Lana gogor, e!

### 3.43. Ganaduaren larruarekin abarkak egiten

- **Hizlaria(k)**: Aranberri Laskurain, Margarita; Laskurain Lizarralde, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: SOR-043/002
- **Iraupena**: 0:04:32. **Hasi**: 00:01:06. **Bukatu**: 00:05:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Abarkak etxeko ganaduaren larruarekin egiten zituen aita zenak. Txahalen narrua josi eta ganbaran jartzen zuten lehortzen gero abarkak egiteko. Pedrok sokak egiten bazekien eta abarkak nola egiten ziren azaltzen du. Kalera jaitsitakoan oinetakoak aldatzen zituzten.

#### Transkripzioa

- P: Egunaldi txarrakin ta zer harek, abarkak? Badakizu zelakuak dian? Oin dantzarixak-eta erabiltzen dittue holakuak...

- Bai, narruzko...

- P: Pixkat goitti-beheti horren modukuak. Harek izeten zien etxeko ganauan narruakin einddakuak, etxian eindda, e?

- Zeiñek eitten zittuan, aittak edo?

- M: Anaiak

- Anaiak?

- P: Ze? Ez. Anaia, haura lehenagokua da, abarka harek lehenagokua zian. Aitta zanak.

- M: Aitta zanak.

- P: Bai.

- Eta, zelan eitte zittuan, ba? Ganauan e...?

- P: Txahalan narrua ebai.

- M: Kurtidu.

- P: Ez, kurtidu eittekuak dia kalekuak. Harek nik esaten dotenak zian kurtitzeke, narrua. Txahala edo ganaua hil, hau eitteko ta haren narrua ganbaran josi, sikatu ta gero ebagi ein bihar holakotxe kuadruak ta abarkak josi bere zozkixakin. Honek e... gero takarra-takarra, edozeiñek ikusteko edo zerla dia honek?

- Bai, hori da, gero nik berriz e...

- P: Baiña gauzak hortarako pixkat... arrasto pixkat... Nik gizurrik ez dot esango, baiña arrasto pixkatekin nahi neukie.

- Lasai.

- P: Lasai, bai...

- Orduan abarkak etxian einddakuak...

- P: Bai, ta sokak be bai. Harek eukitzen zittuen sokak neuk be hori eitten nittuan, oiñ ez ba juandaneko berrogei urtian ez, baiña.

- Eta, esan dozu, abarkak josteko zer erabiltzen zan?

- M: Orratz, orratz haundin bat edo...

- P: Ez, ez, abarkak josteko ez. Eztena ta abarka-zirixa zian. Abarkak gurian nik hori jakin izan baneu... Egongo dia oiñ be baztarren baten, baiña...

- Eta lehen esan dozu zozkixa edo...  
 - P: E?  
 - Lehen esan dozu zozkixa edo...  
 - P: Zozkixa. Narruakin berakin eitten zan. Hau da narrua, e? Ta honi kentzen jakon holako... harixa baiña zabaltxuaua baiña holako zera. Ta hau abarka-zirixakin zulatu eitten zan. Honek ezin konprendidu zuk pe, asko entzungo dozu baiña, hau zelan izeten zan...  
 - Ez, ez, baiña abarkak ikusitta dakaraz eta halan esplikauta bai.  
 - P: Jositta muturretara. Zu be barrura etorri, e? Ez egon kanpuan.  
 - Orduan, e...  
 - P: Ta josi ta sokak be etxian einddakuak izeten zian, ardixan illiak.  
 - M: Beronek be eitten zittuan.  
 - P: Neuk be harek eiñ nittuan. Abarkak be bai ni josten ibillitta nao.  
 - Eta abarkak jostia... zenbat denpora eruaten zeban?  
 - P: Zenbat denpora? Orduan e... Oiñ jentia dana lana da ta...

### 3.44. Artilearekin abarka sokak egiten

- **Hizlaria(k)**: Aranberri Laskurain, Margarita; Laskurain Lizarralde, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: SOR-043/003
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:05:38. **Bukatu**: 00:08:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Abarka-sokak artilez egiten zituzten txabila deiturikoarekin haria batuta. Artilea garbitu eta onena apartatzen zen eta kardetan harrotzen zen haria. Emakumeek galtzerdiak egiten zituzten kaleko hariarekin.

#### Transkripzioa

- Esan dozu abarka-sokak zeuek... edo zeuk eitten zenduzela...  
 - P: Bai, bai, etxian, ardixan laniakin.  
 - Eta zelan eitten zian?  
 - P: Txabillia zan. Kaguen diez! Nik horrek jakin banittu... Badao gurian txabillia nunbaitt oin be.  
 - M: Hola gaintxutxo batekin, hola erdixan estu-unetxo batekin, hola buelta emon.  
 - P: Ta bihurra hartzen eban.  
 - M: Bihurra emon, bihurra emon sokiakin...  
 - P: Kaguen!  
 - M: Abarka-sokak ta baitta lania be, galtzak eitteko lania be bai eitten eban. Lania be...  
 - Txabillian bertan?  
 - P: E?  
 - Txabillia be eitten zan...?  
 - P: Bai, txabillia.  
 - M: Holaxe erain.  
 - P: Pixkat hola zertzeb zan ta zertuta ta tra-tra ta hau honaiñokua zertzen... eitten zanian gedittu ta txabillan batu harixa, ta gero barrixa, tra-tra-tra ta...  
 - Eta horretarako e...

- M: Trumoia da, e?

- ... ardixan uliak, imajinatzen dot e... ulia moztu, garbittu ein bihako zan, ezta?

- P: Bai, bai, bai, bai garbittu.

- M: Ta gero kardak izaten zian.

- P: Garbittu eitten zan ardixan illia lehenengo ta gero onena apartatzen jakon, harek be eukitze zittuan zepak gogorak-eta, eta harek onenak apartau ta kardak...

- M: Hola tablatxo batzuk arantzia azpitan ebela, kardak, beren heldulekuekin, ta harekin lania zertu, han zertzeko moduan ipini.

- Harrotu edo...

- M: Bai, bai, harrotuta geratzen zan zeindda...

- P: Kardak badare gurian nunbaitt badia. Zaharrak baiña... Kaguen nik hori atzo jakin izan baneu, kaguen...!

- M: Danak jirauta eukiko zittuan!

- p: Bai, txabillia be bada ta...

- Hurrengo baterako topauko dozuz ta erakutsiko destazuz. Orduan, esan dozu, lehen zepa edo...

- P: E?

- ... ardi illiak bazekazela batzuetan zepa onak edo...

- P: Bai, zepa gogorra karda lania eitteko gogorra ta haura apartau ta...

- M: Haura kendu, ta illia onena ipiñi... bai...

- Eta bihurra dana kendu bihar izate jakon, ala?

- P: Zetako?

- Harixa eitteko edo sokia eitteko, edo... lehen esan dozu bihurra eitten zala ta...?

- P: Bai, emonda ta... Ez, kendu ez, danakin eiñ, bihurra emon ahal bazan tamaiñuan. Hontan ebillenian.

- Orduan zeu ibiltzen ziñan e...

- P: Bai, bai, neuk be hori...

- ... harixa eitten ta... Ta gero galtzerdixak eta galtzetiñak eta... zeifiek eitten zittuan?

- P: Emakumiak eiñ bihar... Oingo moduan.

- M: Bai, lau-bost bat pare eitten dittut nik neguan galtzak.

- P: Baiña lana zera... kaleko laniakin.

- M: Oiñ kalekuakin, e? Baiña oinndiok etxequak gurian... Izarren aitzia dao gure jaixotetxetik aldamenian ta haren gizonak emon ostan lania, berak einddakua, ta oinndiok pare bi-edo badare gurian, etxian einddako harek, etxian einddako galtzak.

### 3.45. Familian aintzinatik Osuma baserrikoak

- **Hizlaria(k)**: Aranberri Laskurain, Margarita; Laskurain Lizarralde, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: SOR-043/009
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:21:03. **Bukatu**: 00:22:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Baserrian betidanik bizi izan dira familiako aurretikoak ere. Aitajauna (aitona) ere bertakoa zen. Ama Elgoibarko Agarrekoa zen.

### Transkripzioa

- Pixkat e... basarri honen historixia-edo ezautzen dozu? Familixia bertan bizi izan da beti, zeure famelixia, zeure aurrekuak, bizi izan dira beti hamen?
- M: Bai, hamentxe jaixotakuak zian.
- P: Aittajuna be ezautu neban nik eta...
- Eta bertan jaixotakua zan?
- P: Aittajunak hola izan bihar eban, bai.
- Eta basarrixan izena-edo nundik datorren badakizu?
- P: Osuma-gaiñ. Hori ez...
- Eta hemen auzo honetan...?
- M: Behekua da Osuma-azpi eta hau da Osuma-gaiñ. Bixok Osuma dia. Behekua be Osuma da: Osuma-azpi, Osuma-gaiñ.
- Eta, esaten dozue, aitta bertan jaixotakua zan ta ama nungua zan?
- M: Elgoibarkua.
- P: Elgoibarko Agarrekua.
- M: Agarrekua.
- P: Lizarralde.
- Lizarralde bigarrena? Eta hona etorri zan ezkontzera?
- P: Bai.
- M: Ta aitzia hor goiko etxera. Aizta bixak, bata hor goiko etxera, eta bestia hamen.

### 3.46. Etxejabe eta errenteroen arteko harremana

- **Hizlaria(k)**: Aranberri Laskurain, Margarita; Laskurain Lizarralde, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: SOR-043/010
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:22:10. **Bukatu**: 00:24:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Auzoan gehienak errenteroak ziren. Etxejabeari Santo Tomasetan ordaintzen zitzaion, normalean dirutan, zenbait tokitan gariarekin ordaintzen bazen ere. Osumako ugazaba azpeitiarra zen. Soraluzeko errentero batzuk izendatzen ditu. Urtero errenta berdintsua izaten zen.

### Transkripzioa

- Eta auzo honetan zeuek... auzo edo... bueno, Plazentzian errenteruak eta etxejabiak eta... ze zian gehixao?
- P: E?
- Hemen inguruan erren...?
- P: Hau berau be errenterua zan!
- A bai?
- Bai! Aiz... Aizpeitixan, beste auzo baten, besten izena eban Aizpeitixan, eban uezaba honek, Aizpeitixan. Hau gero, aitta zanak gure akorduan hartu eban.
- Eta zuk goguan dakazu etxejabiakin-edo ze tratu egoten zan? Urtian zeoze pagau bihar jakon?
- P: Bai, errentia, Santomasetan!
- M: Santomasetan!

- P: Santomasetan errentia! Ta oillaskuak, gaiñera, eruan bihar!  
 - M: Ala kapoia?  
 - P: Kapoia baeguan bai, baiña... oillaskua edo kapoia.  
 - Hori Santo Tomasetan?  
 - P: Bai, eta errentia pagau be orduan.  
 - Eta errentia ze pagatzen zan, dirutan ala...?  
 - P: Dirua, dirua!  
 - Garirik eta ez zan...?  
 - P: E?  
 - Garixa edo ez jakon emoten?  
 - P: Guk geuk ez, hemen ez dot uste, baiña hori bazan e? Garixakin-ta jentia pagatzia bazan.  
 - M: Lehen kanpaia jotia be, hillak-eta, kanpaia jotia be urtian batu eitten eben, "imillana" esaten jakon, hiru kiloko katxarrotxo bat zan, ta hauraxe bete izeten zan.  
 - P: Bueno, baiña haura bailleko sakristauari.  
 - M: Bailleko sakristauari.  
 - P: Oiñ zerakin dabil... uezabakin, uezabakin dabil.  
 - Ez, ez, baiña ondo dao, jakitzia. Orduan, ugazaba zuena Azpeittikua zan eta hamen inguruko beste basarrixen...?  
 - P: Ez, Plaentzian ez eban eukiko, ez.  
 - M: Oiñ, erreteruak mordua, hemen bertan: behian, han etxeti edo... kaleti segiduan be bi badare: Atxiolatza erreterua zan, hurrengo eguana be bai. Hamen erreteruak mordua!  
 - P: Horrek Vitorixan eben uezaba.  
 - M: Uezaba Vitorixan eukan horrek, bai!  
 - Eta tratua zela izaten zan, ugazabakin zuzenian edo hor tartian beste, besteren bat egoten zan?  
 - P: Ez, hemen ez, baiña tratua, ba, aurten datorren urterakua be ya jakiñian, diruan horrek gora-beherarik ez eban eukitzen. Ez...

### 3.47. Antzinako bizimodua; eskolara oinez

- **Hizlaria(k)**: Eguren Larreategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: SOR-047/011
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:11:05. **Bukatu**: 00:12:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Unamuno, Arianne
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
 Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Herriko eskolara egunero oinez. Herrira saltzera ere astoz jaisten ziren. "Lehengo bizimodua zan, e, motza, motza...". Antzinako bizimodua. Lehenago eskola gutxi; baina gurasoen garaian, oraindik gutxiago.

#### Transkripzioa

- Eta hor e, San Andres Ballian, bueno ba umetan eta eskolara e nora juaten ziñan e herrira bertara edo?  
 - Bai herrira danok, hemenguak be bai.  
 - - Ez zeuan auzo eskolarik edo...

- Ez oingo moduan, ez ez ,ez oingo moduan kotxian e, taka-taka taka-taka abarkak eta galtzak jantzitta. Etorri tta jua ta jua ta etorri tta. Ala! Gu be bai, astuakin kalera egunero-egunero-egunero juaten giñan, plazarakua, esniak, danak ipinita, astuakin. Danak astuakin, ez zeuan e pistarik eta, pistia eñ arte. Pistia ein zanian ba, baten batek kotxia ta goraakuak bazeukan ba pasaizian edo . Beti tta holan. Baiña lehen e, lehengo bizimodua zan motza, motza.

- Motza zegaittik esaten dozu?

- Ba motza esaten dot e, ez zeuala adelanto ta zerik. Ez zeuala oingo moduko adelanto ta zerik. Oin ba jentia be espabillau eskolia be gehixao, lehen eskolia be ba, gutxi, gure gurasuak eta eskolia, guk gutxitxo baiña harek gutxiao.

- Bai ,e?

- Nere aittak firmatzen ez zekixen.

- Ez.

- Harek be zazpi anai-arreba jaixo zian hor ta, bizi izeten nehikua lan!

### 3.48. Fruta saltzera kalera; astoaren inguruko anekdotak

- **Hizlaria(k)**: Larreategi Gallastegi, Jose Mari; Maiztegi Gallastegi, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: SOR-050/005
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 00:05:38. **Bukatu**: 00:09:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
  - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Jose Marik ere baserritik kanpo lan egiten zuen. Harriak txikitzen ibiltzen zen makinarekin. Jesusa goizetan marrubiak saltzera joaten zen Elgoibarrera. Kiloa bost duroan saltzen zuen. Bezeroak zain izaten zituen eta segituan saltzen zituen eramandakoak. Elgoibarrera, Eibarrera edo Soraluzera eramaten zuten fruta saltzeko. "Periko" izena zuen astoarekin joaten zen Jesusa kalera; kalera iritsitakoan arrantza egiten zuen eta denek jakiten zuten Jesusa heldu zela.

#### Transkripzioa

- Jose Mari: Basarrixan, e... Ni neu be kanpua ibili naiz biharrian, leku askotan! [Ni inoiz...] Ibilitta nao Plaentxiako herrixan, herrixan. Bi etxen partia [badot] nik harrixa jotzen, harrixa txikitzen. Kanteria, [...], makiñia, makiñiak.

- Jesusa: Harrixa txikitzeko makiñia hor dao ganbaran. Harrixa txikitzeko makiñia.

- Jo: Ta han jornala etara neban. Hemen, hemen atxurrakin baiño gehixua.

- Je: Bai, laguntasuntxua, badakizu. Etxekuaz kontrara, ba... zeoze!

- Jo: Honek be beti jardutzen eban hamen arreglatzen zan ta bueno... Nik, e...

- Je: Plazia ta ortua ta...

- Bai, beti zeoze, ez?

- Je: Badakizu nora juaten nitzan ni maillukixak saltzera? Elgoibarrera juaten nitzan. Hogeta bost pezeta, hogeta bost pezeta kilua.

- Jo: Ez! Bost duro? Ez!  
- Je: Bost duro, Jose Mari!  
- Jo: Bost pezeta!  
- Je: Ez! Bost duro! Bost durokin juaten nitzan. Astua... Honek kajak eindda eukezen, egurrezko kajak, astuari ipini, bi ta bi kajak. Orduan ez zeuan, ba, ez fruterixa, ez... holako ezebez.  
- Klaro.  
- Je: Eukitzen neban, kolia eukitzen neban Elgoibarren, e!...  
- Eta Elgoibarrera zegaittik?  
- Jo: Elgoibarrera, ezauna!  
- Je: Ezauna ta bentia.  
- Ezaunak eta...  
- Je: Bentia!  
- Je: Hortik zihar juaten nitzan.  
- Jo: Ta bidia Plazentziara beste horra be. Hurrao, hurrao [...] hori.  
- Je: Sei t´erdiak aldian urten hamen, sei t´erdiak aldian, ta atzera igual beratziretako bueltatzen nitzan ta “Jesus! —gure amak— Bizkor zatoz!”. Eske zain neukazen!  
- Jo: Enkarguak.  
- Je: Zain neukazen danak!  
- Osea, bezeruak zekazuzen eta ya...  
- Je: Bai, bai, bai. Juan ta pixau ta emon ta emon ta emon ta emon ta hustu ta etxera!  
- Eta saltzen zenduzen gauza guztiak beti Elgoibarrera?  
- Je: Ez.  
- Jo: Ez, ez, ez!  
- Je: Eibarrea be bai.  
- Jo: Plazentziara...  
- Je: Plazentziara be bai. Juaten giñan...  
- Eta hori ze izaten zan, ba zeren arabera eruatzen zenduzen, ba, ez dakit, maillukixak Elgoibarrera ta beste...?  
- Je: Bueno, ba...  
- Jo: Ez, ez, ez.  
- Je: Ez, ez.  
- Jo: Tokatzen zana, enkargua euana.  
- Je: Eibarrera be igual ta Plazentziara be igual.  
- Jo: Enkargua, enkargua.  
- Je: Jai goizian, jai goizian egoten zan hori, merkatu moduan. E? Merkatu moduan Elgoibarren, jai goizian.  
- [...]  
- Je: Bai, ba! Ta beste plazarik ez zan egoten, baiña hola frutia ta holako gauza, hemengo gauza barrixa... Orduan ez zeuan kanpokorik ezebe! Oin dana kanpokua dator, baiña!  
- Jo: Naranjak bai behintzat.  
- Je: Bueno, bai, baiña, ostian... hola... ortuko gauza, fruta zerik ez zeuan.  
- Jo: Sagarra be asko, bueno!  
- Je: Bueno! Nik ze astokada sagar erun doten! Plazentziara be, zenbat astokada sagar! Jo-ta holaxe zestua bete, ta gaiñian beste zesto bat lotu, ta bueno! Kriston sagar pillia! Geunkaun asto bat... Periko jakon izena, Periko.  
- Jo: A, bueno, haura gerokua zan. Aurretik...  
- Je: Bai, ba, baiña nik haxe dihardut esaten.  
- Jo: Sagarrekin gitxi, e!  
- Je: Bai!  
- Jo: Haura, sagar gitxi eruan eban harek.  
- Je: A, ez! Hamen hanka eindda, erdixak bidian bota ostazienian? Eske

zan... zan asto bat, salauaua zan! Gure aitta zanak, e... aitta, badakizu, han Iriartetikan hurrian, ta guria aillegatzen zanian kalera, arrantza eitten eban. Ta "Han! Jesusa etorri da! Etorri da Jesusa! Etorri da. Han, Perikok ein dau arrantza!"

- Eta ezautu eitten zebeñ?

- Ezaunazan, ezauna.

- Je: Ene! Ezautu? Baitta nere esne-bezeruak be bai! Maria Luisa Lacuestak-eta. Lacuestanekua, entzutia eukiko dozu Eibarren Lacuestanekua?

- Bai, baiña ez dakit zein dan.

- Je: "Ene! ¡Ya ha venido Perico! Ya está aquí Jesusa, ya viene." Erderaz eitten eban harek. Ta bueno...

- Altaboz ederra zekan orduan, ez? Abisua [emoten zebeñ]?

- Je: Famoso!

### 3.49. Postua izan zuen Eibarko plazan

- **Hizlaria(k)**: Larreategi Gallastegi, Jose Mari; Maiztegi Gallastegi, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: SOR-050/006
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:09:00. **Bukatu**: 00:10:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak  
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Eibarren plazan postua izan zuen jeneroa saltzeko. Gaur egun jende gutxi joaten dela plazara komentatzen dute.

#### Transkripzioa

- Jesusa: Ta hori? Baiña gero, aurretikan, Eibarrera, Azitaiñera. Bildotsa ta esnia Eibarrera ta plazara be bai, puestua euki neban nik plazan. Gaur Eibarren ez dao lekuri, edo... sobra dare danak. Baiña orduan sasoian, pagau ein bihar zan, euki bihar bazenduan lekua saltzeko generua.

- Jose Mari: Oin be hala izengo da.

- Je: Bai, baiña...

- Hala izango da baiña oin...

- Je: Bai, baiña oin sobre dao, baiña! Lekua sobre oin.

- Jo: A, a! Sobre oin bai, bai.

- Je: Oin dare bost Arrate bailletar bakarrik, eoten dianak, bost Arrate bailletar. Bestiak danak. Beste bizkaitarren bat edo bat edo beste etorten bada, besteik ez dao!

- Jo: Bizkaitarrak bai!

- Je: Gitxi! Bi edo hiru bakarrik. Badakit nik, e! Nik entzun eitten dittut! Ta, hoixe, Eibarren ya gastatzen doia. Baiña gure sasoian, gustua zan haura, e! Ja-ta puesto guztiak, dana berduria, letxugia, dana jenero bat bai ederraua! Eibartarrak zesto edarrekin etortzen zian konprak eittera!

- Orduan, hori, ez? Merkatu plazia...

- Je: Bai. Buf! Katgoria, e!

- ... bete-beteta egongo zan.

- Je: Katgoria, baiña!

- Jo: Bueno!

- Gaiñera urte... urte onak zian Eibarren be, ez?

- Je: Onak, onak...

- Jentia dirua zekan eta...  
 - Je: ... onak, onak.  
 - Jo: Holaxe eoten zan. Holaxe, holaxe!  
 - Je: Generua saldu! Bueno!  
 - Eta egoten zan regateorik eta halakorik?  
 - Jo: Ba! E...  
 - Je: Bueno! Banakak izeten zian...  
 - Jo: Izeten zian.  
 - Je: Izeten zian banakak, e! Izeten zian...  
 - Jo: Zahar banakak, bueno, segun, segun, segun, segun...  
 - Je: Izeten zian. Ta gaur egunian, ba, iñor juaten da plazara erostera?

### 3.50. Etxeko hiru emakume bakoitza herri banatara saltzera

- **Hizlaria(k)**: Larreategi Gallastegi, Jose Mari; Maiztegi Gallastegi, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: SOR-050/007
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:10:54. **Bukatu**: 00:11:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Jesusa, Jose Mariren arreba eta ama hirurak joaten ziren herri banatara saltzera. Euren baserría puntu onean dago Elgoibarrera, Soralezera edo Eibarrera joateko. Maltzagara jaistea izaten zen txarrena, aldapa handia dago eta.

#### Transkripzioa

- Jesusa: Oseake ibiltzen giñan, honen arreba zana, juaten zan Eibarrea lehenao esniekin. Ni hona ezkondu nitzanian, arreba zana artien soltera euan. Ta ama zana joaten zan Plazentziara, harek be baeukazen han bere... bere zerak...  
 - Bezeruak...  
 - Je: Bezerotxuak. Ta Plazentziara. Gero juaten giñan bata alde batera, bestia bestera ta bestia bestera. Osea, hiru herrittan ibiltzen giñan.  
 - Jesus! Ba ondo organizauta, e!  
 - Je: Bai, bai, bai. Puntua, hau ona da puntua izen be. Hau puntu ona da.  
 - Bai, ezta? Hiru tokixak, e...  
 - Je: Bai. Txarrena izeten zan hamendik Maltzagara jastia. Hola dao aldapia.  
 - Bidia.  
 - Je: Hola dao aldapia. Asto kuittaua egoten zan,... atzia dana ebaitta egoten zan goittik behera kargiakin juaten.

## 4. Familia eta harremanak

### 4.1. Igandetan, mezara

- **Hizlaria(k)**: Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-003/007
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:10:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak  
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Igande goizetan, igitaiaarekin belarra ebaten zuten.  
Arratsaldean, auzoko lagunekin.

### Transkripzioa

- Ta domeketan ze eitten zenduen?
- Domeketan? Igitaixakin bedarretan lehelengo, eguerdira arte. Ta gero atsaldian, ba, [ibilttera] laguneana. Laguneana, San Andresera edo.
- Auzokuak batzen zifien?
- Auzokuok alkarreana. Auzokuak. Gure denporia holaxen [izen dok].

## 4.2. Amandrea inude Bilbora

- **Hizlaria(k):** Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-003/021
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:41:30. **Bukatu:** 00:44:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Amandrea, inude joan zen Bilbora.

### Transkripzioa

- Holaxe, lehen be.
- Ta Bilbora-ta juaten zian kriada-ta hemendik-eta?
- Bai, gure ama... amama e, Bilbon e, inore, inore, umia haztera...
- Inude?
- Iñore, bai.
- Iñore?
- Inore, inore edo, iñode edo,... Bai ba, andria hil partuan eta umia jaixo ta andria hil ta gero e... umia hazi bihar baten batek eta... titixa emon bihar eta titirik ez [zeuan] eta halaxek umia hazi, Maria Karmen. Haura hamen egoten zuan, Mari Karmen. Pentsaik, ta ze diru-ta [...] orduan, e? Aitta, aitta han be sarri egoten zuan.
- Bilbon?
- Bai, gure aitta, erderaz ikasten be bai, Bilbon. Harek e, haren... harek, geratu zan gizonak, Maria Karmenen aittak... itxuria txaletak edo ez jakixat ze zekan. Han, e, han egoten zien bihargiñei gure aittak erueten ei jotsen kintzenia. Emoten ei jotsen eta... langilliei.
- Ta harek ze zian, senide?
- Senide ba, kitto! Ama hantxe hazittakua ta kitto, ezebez, senidia be ezebez.
- Baxili, hor badaok, ba? Hantxe kriau egon zuan urte mordo galantian.
- Haura be bai, e? Ta zer zan, etxe handixa ta?
- Etxia handixa, uf! Etxia... kale-etxia, e? Ta han etxian, e... zidarrezkua eguan ontzixa ta dana, zidarrezkua, koillara ta dan-dana, gauza guztiak zidarrezkuak. [...] Maria Karmen, "señoritia" esaten jotsen, "señoritia", joder! Tuliakin ibiltzen zuan haura. Tulia zer dan ez dok jakingo? Tuliakin,

tuliakin ibilten ei zuan haura, Bilbon, tuliakin. Tio Jose Mari ezkondu zanian hamentxe egon zuan haura.

#### 4.3. Maltzagako erromeria

- **Hizlaria(k)**: Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-004/006
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:07:25. **Bukatu**: 00:08:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea  
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak  
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Maltzagako erromeria. Aldasoro soinujolea. Dantza plazan. Neskatan-mutiletan.

#### Transkripzioa

- Abarketekin, baiña pozik.
- Bai, bai.
- Maltzara juaten ziñien erromerixara?
- Bai.
- Maltzara, bai, bai...
- Maltzako erromerixara, ezta?
- Bai.
- Ta gero hemen...
- Tabernatxo bat zeuan han, ta zeñek jotzen zeban? Aldazabal era? Aldasoro! Aldasoro tocaba el acordeón, ta hantxe...
- Bai, bai.
- Hantxe... Hauraxe zan gure...
- Oin jua bihar plazara gu juaten giñan moduan, erdi-erdixan!
- Gustora, gaiñera!
- Ta, gaiñera, zera... batzuek etorri ta "¿Bailamos?" edo "Dantzan eingo dogu?", ta "Eeezzz!", laga mutilleri zerian ta... Nere amak hartzen eban pena bat, bera ikusten ezta? "Baiña zegaittik [...] horri mutillori?" Ta gero beste batzuk etorri gustokuak eta harekin bai.
- Ta harekin...
- Bai, bai.
- Ba holaxe...
- Bai, enee!

#### 4.4. Soraluzera itzultzeko beldurrez

- **Hizlaria(k)**: Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-004/011
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:13:30. **Bukatu**: 00:14:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gerra garaian, Soralezera itzultzeko beldur handia. 14 urterekin lanean; irabazten zuena amari bidaltzen zion.

### Transkripzioa

- Haura zan bilddurra! Ni bai, e, Martina, ni etorri nitzonan...
- Klaro, "porque habiais andado mucho". Guk ez. Ni handikan etorri nitzan, ba... Baiña gustora neuan lekutik etorri ein bihar, fabriketan asko irabazten zala ta... Hoge pezeta emoten zosten han hillian. Hoge pezeta. Ta Eibar-Vitorian, —orduan Eibar-Vitoria zeuan autobusa—, txoferrari sobre batian ipiñi lau duro zidarrezkuak ta ama Gila-neko aurrian zain.
- Sobria hartzeko?
- Sobria hartzeko. Lau duro.
- Ekitzen zarz pentsatzen ta... baiña, zela? Zela? Zela kanbixau da...?
- Lau duro, zidarrezko duruak. Ta Eibar-Vitorian txoferrari emon ta ama Gilaneko aurrian zain. Txoferrari...
- Haura hartzeko.
- Bai.
- Orduan, umetan, gehixena gerra-denporan pasauko zenduen, ez? Bueno, umetan edo gaztetan...
- Bai. Pentseizu, hamalau urtekin. Ta ordurako kriada nenguan!

### 4.5. Ezkonbidaia

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/016
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:17:28. **Bukatu:** 00:18:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** Eztei-bidaia.

### Transkripzioa

- A, etxera?
- Bai, ezkondu ta etxera.
- A, bestian etxera?
- Aman etxera.
- A, aman etxera!
- Bai. Ezkondu giñan...
- Esatia nahi dot, baiña, biaje de nobiosik eta ez...
- A, bai, bai! Bai, Zaragozara juan giñan.
- Hau elegante!
- Naparra zan nere gizona.
- Ni Bilbotikan Donostiara, Donostiatikan Bilbora.
- Bueno, baiña gure... nere gizona naparra zan ta hamendik Pamplonara ta Pamplonatik Zaragozara ein genduan. Zortzi egun...
- Elegante!

- Bai, bai... ein genduan...  
- Oingo moduan, e, Martina? A las Bahamas, a Santo Domingo, ez-dakitzer...

#### 4.6. Errekan bainuak

- **Hizlaria(k)**: Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-004/020
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:25:15. **Bukatu**: 00:26:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak  
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena**: Errekan bainuak. Debara umetan.

#### Transkripzioa

- Ta errekan-ta be lehen —bueno oin, zikindu zanian behin ya gero jenderik ez zan ibiliko, baiña, lehenao— erreka inguruan beste zer bat egongo zan, ezta, oiñ ez daona?  
- Bai, bai!  
- Enee!  
- Errekan bai! Han Iturburun ta? Juaten giñan, han behian ta...  
- Afariketan be bai han...  
- Iturburun ez, han, zerian, Errekaldian...  
- A! Errakaldian?  
- Errakaldian han behian.  
- Ba, Gabolatzeko han zerian be bai, presapian...  
- Eta han Irukurutzetan be bai...  
- Baitta, baitta.  
- ... Irukurutzetan be bai... ta...  
- Baitta. Baiña orduan urak be garbixak.  
- Bai ba, ez oingo moduan.  
- Urak be garbixak orduan.  
- Bueno, ez jakiñau garbixak juaten zian, baiña juaten giñan behintzat eta...  
- Eta jentia baiñatzen-eta ibiltzen zan?  
- Bai, bai!  
- Baiña ez traje de baiñuakin, e? Bata zahar batekin!  
- Eta hor Loraldian? Hor? Hor asko, e? Mutillak be asko hor, e?  
- Baiña hor urak hotzak!  
- Bai, baiña... ni hor ez, e? Ni hor ez non egon behin be, e, baiña hor jentia juaten zan, e! Ako juaten zan, e? Oin, e... [urtian behin].  
- Debara-ta juaten bagiñan be, alkilau eitten zan han traje de baiñuak, e! Orduan ez zeukaun traje de baiñurikan ezta... Kasetak zeren ta alkilau eitten ziran...  
- Hantxe, sartu barruan ta...  
- Sartu kasetan ta alkilauta...  
- Bai, bai...  
- Ene!

#### 4.7. Taberna giroa

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/025
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:29:20. **Bukatu:** 00:30:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Taberna giroa. Taberna izenak. Emakumeak tabernetan.

#### Transkripzioa

- E... tabernak eta ze taberna zeren hola lehenago...?
- Asko, asko.
- ... oin itxita darenak? Oin diferentiak egongo dira, seguramente.
- Asko. Hamen tabernia... hamen txikiteua ibili da beti, beti: Trabakua, Sinpatikia,...
- Zian tabernak horrek?
- Tabernak, tabernak: Errotatxo, Gila, Angelenekua, Tinterokua, Meltxor...
- Hori zer zeguan, Santa Anan?
- Bai, Meltxor Santa Anan...
- Baiña asko egon dia hemen tabernak, e! Asko, asko! Hamen txikiteua ibili da...
- Bai, bai.
- Si, si, si, si, bai, bai, tabernak asko...
- Bai.
- Lehen andreri tabernan ez jakuen lagatzen?
- Ene, ene!
- Andrak pentsau bez! Gu behintzat...
- Oiñ dabizen moduan, de poteo? Las mujeres con copas de vino? Ke ba!
- [Lehen] etxian eitten [zeben] poteo, etxerik etxera...
- Bueno, eingo zebeu, e! Eingo eben lehen be...
- Baiña ez oingo moduan, e?
- Ez, ez, ez, ez.
- Ke ba! Oingo moduan ez...

#### 4.8. Janztetxeak

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/030
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:34:50. **Bukatu:** 00:35:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Unamuno, Arianne
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Janztetxeak. Casianaren etxean aldatzen zituzten zapatak... mezara edo kalera joateko.

### Transkripzioa

- Gero entzun dot, entzunda dakat e jaztetxia edo, zela zan, ze zan hori?
- Jaztetxia e, basarrikuak etortzen zian ta zaken e hor e zeria e.
- A, bai, igual mezetara edo ta bai ba, basarritikan e igual e lokatzia ta ezin etorri ba etxia zeuken kalian.
- Kasiana, Kasiania, Kasiananera be etortzen zittunan, hori badakizu?
- Etxia zeuken kalian ta han aldatu eitten zian.
- Han aldatu.
- Zapatak eta bueno eta aldatu eitten zian, mezetarako edo zeozetarako...
- Bai, egixa, edo kanpora jua biha diala edo ta hor jartzen zian ta gero berriz atzera juateko aldatu ta.
- erropia bertan laga e, kalian laga ta.
- Bai, nik Kasianana badakitt.
- Bai, eske orduan zelako bidiak,ba igual lokatzia ta eurixa ein bazeban, abarkekin etortzen zian.
- Banaka-banaka.
- Bai, aldatu ta...

### 4.9. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-004/032
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:36:20. **Bukatu**: 00:37:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak: sokasaltoan, zeleminetan, tortoloska, txirikiletan... Hauen inguruko azalpenak.

### Transkripzioa

- Eskolan ta zetan jolasten zenduen ba zuek, ze...?
- Bueno, soka-saltuan,...
- Bai, errekreuan? Soka-saltuan, zelemiñetan... Oiñ ez dao holakorikan, e!
- Oiñ e...
- Ze zan hori?
- Zelemiñetan? Honek dittun... honek dittun onak! Honek...
- Honek ez jakiñe ezebe!
- Ba, lurrian eitten ziran arraixa batzuk eta harri batekin, ba, hankekin...
- Bota eta gero...?
- ... bai ba, hankekin, eta arraixia topatzen, jotzen badozu, ba...
- Hori jolastu dogu guk be bai, e?
- Jolastu dozue hori?
- Honbre jolastu dogula!
- Ta horrek zelan daka izena?
- Zelemiñetan
- Zelemiñetan?
- Zelemiñetan.
- Lehen zelemiñetan, oiñ ez dakiu zuek ze...
- Ta tartaloska be bai, tartaloska be bai.
- Bota ta buelta...?

- Bai.  
 - Bota ta... Ta soka-saltuan...  
 - Oiñ ez da ikusten hori be, e?  
 - Ezta, ezta...  
 - Lehenengo ipiñi [bortan] ta gero buelta...  
 - Ta txirikilletan be bai, txirikilliakin.  
 - Ta hori zela da?  
 - Halakotxe bat punta bikin, egurra, e? Ta...  
 - Gero egurrakin jo ta "da!"?  
 - Gero "klaka!"  
 - A! Hori ikusitta daukat.  
 - Kamiño erdixan eitten genduan...  
 - Ta gero lau kantoi edo ipiñi eta... hala!  
 - Kamiño erdixan eitten genduan, e! Oiñ jua zaitte... Kamiño erdixan!  
 Orduan ez eguan kotxerikan, orduan ez zan automobillik... kamiño erdixan eitten genduan horrek jolasok...  
 - Bai, bai, egixa.  
 - Zelemiñetan be bai, kalian.  
 - Baitta. Bai, bai.  
 - Kamiñuan.

#### 4.10. Etxearen ingurukoak

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/042
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:46:20. **Bukatu:** 00:47:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
 Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Argia eta ura etxeetan betidanik ezagutu dute. Harrikatza; egurra.

#### Transkripzioa

- Lehenao argirik eta be...?  
 - Guk bai, hamen euki... nik ezagutu dot.  
 - Neuk be bai.  
 - Nik ez dot ezagutu argi barekorikan, e?  
 - Ez, ez...  
 - Larogei urte eittera noia baiña ez dot ezagutu argi barekorik. Ez, euki dou, argixa ta ura euki dou.  
 - Bai, egixa.  
 - Sua izango zan lehen egurrakin, ezta?  
 - A! Bai, hori bai, hori bai.  
 - E?  
 - Sua, sua.  
 - A! Bai, sua, sua.  
 - Orduan bai. Orduan ez eguan beste zeoze.  
 - Egurra ta harrikatza.  
 - Harrikatza be bai, e?

- Bai, harrikatza be bai. Harrikatza be asko.  
- Asko, bai, bai... Orduan ez eguan butanorik eta, pentsau be ez...  
- Ezta! Bueno! Bai. Holaxen ba...

#### 4.11. Gaztetan bizi izan zuten egoera gogorra

- **Hizlaria(k):** Aranberri Laskurain, Natividad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ariznabarreta, Gurutze - Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-010/004
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:03:55. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Bizimodu tristea: dirurik ez; eskolarik ez, etab. Nobioa aurkitu zutenean, zerua zabaldu zitzaien.

#### Transkripzioa

- Ta gure bizimodua tristia izan zan gero, e? Gure bizimodua izan zan, dirurik ez sekula jaixetan ta sekula txikitarik ez... Ez zeuken emoteko koittauak, zerak, aittak eta amak eta... Ez zeken!  
Eta gero holaxekan zertu genduan, nobixuak billau genduzen... eta graziak! Haretzek diru pixkat! horra ta hona juateko!, haretzek diru pixkat! bestela guk ezebez.  
Urtebete eskolan, 10 urtekin sartu eta 11kin kanpora eta ahal giñuan guztian... Izarreko Pedro, ni eta Jose Guenetxe eskola-igesi, urtebete haura beti eskola-igesi.  
"Sumar" be ez genduan ikesi, ezebez! Nola ikesiko genduan, ba?  
Ta Obeko Paula egunik eittekia ei zan eskolan.  
- Sekula izan barik?  
- Sekula juateke eskolara. Pentseizu zelako bizimodua zan, e? Bai. Eta lehen holaxek asko, e? Gu gaztiak giñanian, holaxek asko...!

#### 4.12. Aisialdia baserrietan: emakumeak karta-jokoan

- **Hizlaria(k):** Aranberri Laskurain, Natividad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ariznabarreta, Gurutze - Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-010/011
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:18:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak  
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena:** Inguruko baserrietako emakumeak jokoan egiten zuten, trukean. Gaztetako ibilerak; bihurrikeriak.

#### Transkripzioa

Lehen noizik behiñian andrak, gure ama-ta Izarreko-ta Etxebarriko-ta, jokuan eitten eben, ta, ba, umiak txiki-txikixak, gaztiak gu, lau-bost bat

urteko ume mordua ondorian, beren ondorian etxietara. Ta Juan gara Etxebarrira amakin, amakin Etxebarrira.

Trukian eitten eben androk pozixao ta gogorrao eitten eben... Trukian. Ta gu ama zaharrakin ta Jose "Guenetxek" ez dau, ba, Etxebarrin arratoi tranpa txiki bat harrapau?

Juan da etxera, ta ikusi dau aittak tranpa txikixori han: "Hau zeñek ekarri dau?" Ta ixillik... Jose okerra zan. Ixillik.

"Zeñek ekarri daben esan juat hau, e? Ekarri dabenak derrepente eruan deixala atzera, e?"

Ta Joxe "Guenetxek" eitten [estan eze]: "Hi, eruain" Ta: "Hik ekarri ta nik eruan? Heuk eruan bihar dok nahi badok! Heuk eruan bihar dok nahi badok, e?" Ta egon zan, egon zan... Lotsatu eitten zan juaten tranpiorrek! Ta egon zan ta egon zan ta solo barrenetik etxe azpira jaurti eban Jose horrek, Jose horrek e, tak!, [atai aldera] bota eban arratoi tranpiori. Etxebarrin harrapau eban arratoi tranpia ta tak! bota eban. Bihako! Aittak gogor hartu eban eta... Okerra zan, baiña...! Izarreko Pedro ta ni zertzuk eindakuak! Gu hirurok okerrenak!

#### 4.13. Eztei-bidaian Bilbora

- **Hizlaria(k)**: Gabilondo Agirrebeña, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-011/004
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:03:30. **Bukatu**: 00:05:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Bere senarra Azkoitiko Madarixazabal baserrian hazitakoa zen. Gurasoak gazterik hil eta bost urterekin baserri horretan hartu zuten. Senarrak fundizioan Sorluzen lan egiten zuen, eta bertan ezagutu zuten elkar. Gero, Unamuno baserrira ezkondu ziren. Eztei-bidaian Bilbora joan ziren hiru egun pasatzera.

#### Transkripzioa

- Zeuk gizona nungua zekazun?
- Azkoittikua nik.
- A, Azkoittikua?
- Azkoittiko Madarixazabalekua. Bueno Madarixazabalen hazittakua zan. Gurasuak gazterik hil jakozen, ta bost... kaletikan bost urtekin eruan ei zebezen hara. Ta, holaxe.
- Ta gero ze Juan ziñien, Unamunora, bizitzera?
- Bai, haura hamen zebillen lanian ta hamen ezautu giñan gu.
- A, hemengo taillerren baten edo?
- Fundiziñuan. Ta lanian hamen zela ebillen, ba, hamendik ezautu neban nik haura. Gero baserrira ezkondu nitzan, Unamunora... ta hantxe etxia erre artian.
- Ta han ze bizi zian, zuen gurasuak eta be bai?
- Bai, gurasuak bizi zian.
- Ta ganaurik eta holakorik eukitzen zenduen?
- Bai, ganauak bageunkazen, etxia erre arte ganauak euki genduzen. Gero kendu ein genduzen, ez dakizu? Etxia erre zanian kendu ein genduzen,

baiña, ganauak bageunkazen.

- Nunbaittera jua ziñien ezkondu ta gero "viaje de novios" edo...?

- Bilbora.

- Bilbora? Eguna pasatzera edo?

- Bai, ezkondu eguenian ta domekan etxera.

- Hiru egun edo?

- Hiru egun, orduan haundixa zan baiña... Bueno!

- Joe, bai, orduan hori eitten bazan, besterik ez zan egongo ta...

- Besterik ez zeuan orduan ta... Urriñen izaten zan Donostiara edo Bilbora.

Gu Bilbora jua giñan. Sei'tterdietetan ezkondu goizian Plaentzian ta...

- Goizeko sei'tterdietetan?

- Goizeko sei'tterdietetan. Ta gero, hartu trena ta... ez dakit, Eibarrera jua giñan. Eibarren bazkaldu genduan ta gero Bilbora.

#### 4.14. Lehenagoko ezkontzetan arrioa gurdian

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Agirrebeña, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-011/008
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:11:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** Baserrietan bi eguneko ezkontzak ere egiten zituzten. Lehenago arrioa gurdian eramaten zuten baserrietan ezkontzen zirenean, baina berak ez du halakorik ezagutu.

#### Transkripzioa

- Ta orduan ze izaten zan ohitturia, igual, e... nobixuan etxeuak erregalatzia bestieri, ba, nik ze dakit, holako... zer batzuk eta, ala...?

- Ni ez naiz akordatzen, baiña hori, e... basarrixetan-ta egun biko bodak-eta eitten zittuenian, erregalatzen zittuen, ez dakizu? Gauzak erregalatzen ei zittuen. Bai, zela eitten zebeñ bodia...

- Bai, boda luziak eitten zittuen tokixetan eta?

- Egun bikuak-eta akordatzen naiz zela izaten zian.

- Eta ez zara akordatzen lehenao...bueno, esaten zebeñ, hola, eitten zittuela, hola, ezkontzak eta, ta igual burdixan eruaten zittuela trastiak eta...

- A, bai, bai! Hori nik ez dot ezautu, ez dot ezgut, baiña entzunda bai, e! Entzunda bai, zela ganauekin eruaten zittuen trastiak, e...

- Bestian etxera?

- Bestian etxera, gelditzen zan etxera, ba, "arriua" esaten jakona, ezta?, zela eruaten zittuen.

- "Arriua" esaten jakon?

- "Arriua" esaten jakon, usadixo bat, ez dakizu, horixe esateko. Ta eruaten zittuen gauza mordua, basarrixan bihar zian trastiak eta eruaten zittuen ta gauza mordua eruaten ei zittuen. Nik neuk ez dot ezautu hori, e?

- Lehenaokua izango zan...

- Bai, lehenaokua, ba...

#### 4.15. Baserriz baserri ibiltzen zen jendea eskean

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Agirrebeña, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-011/022
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:32:02. **Bukatu:** 00:33:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Zorroztailleak ibiltzen ziren baserriz baserri, ontziak konpondu edo bestelakoak egiten. Eskean ere asko joaten ziren baserrietara.

#### Transkripzioa

- Hemen orduan ibiltzen zian zorroztailliak eta holakuak eta basarrixetan-ta?  
- Basarrixetan ez naiz akordatzen, baiña kalia bai, e? kalia zela ibiltzen zian akordatzen naiz. Kalia-ta ibiltzen zian horrek, zorroztaillie...  
Basarrixera ez naiz akordatzen hola juaten zianik.  
- Ta basarritan ibioltzen zian baten batzuk?  
- Basarrixetan ibiltzen zian lehen horrek, "paraguero" edo esaten juen, ba? Horretaikuak bai, ibiltzen zian, ontzixak arreglau, ta guardasolak konpondu ta, bai, horrek ezaututa daukaraz, zela etortzen zian basarrixetara.  
Horrekin akordatzen naiz  
- Eta, bestela, hola, eskian-eta etorten zian be bai?  
- Bai, eskian be ibiltzen zian, eskian be. Oin ez dira ikusten, ezta, horrek, baiña lehen basarrixetara asko eskian ta be.  
- Eta eskian zetorrenari igual bertan lotan be lagatzen jakon?  
- Gurian ez zebe lori ein, ezta? Baiña akordatzen naiz ni, gure auzuan, lo ein zebela esaten zebe.  
- Ez, entzunda nik, lagatzen zotsela lo eitten ta be...  
- Gerian ez naiz akordatzen,[ez dakit...].  
- [...].  
- Lehen, gaiñera, horretaikua, eskekua esaten jakon, ta asko ibiltzen zian, e! Askok. Zakun bat hartuta edo beste poltsan bat edo... eskian asko ibiltzen zian.

#### 4.16. Umetako denbora errekan

- **Hizlaria(k):** Alberdi Egaña, Moises; Aristi Artolazabal, Jaime
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-029/002
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:00:52. **Bukatu:** 00:02:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- **Laburpena:** Jaime Errekaldian jaiotakoa da. Hangoek bertan ikasten zuten igerian eta gero Olara joaten ziren igeri egitera. Ibaiaren erdian islatxo bat zegoen. Ume eta gazteek ibaian pasatzen zuten denbora guztia.

### Transkripzioa

- Jaime: Ba gure... Por ejemplo, ni erreka aldian jaixotakua naiz. Ta han, e... [...] asko zeren, "Mahaspia" esaten zotsaun. Ta...

- "Mahaspia"?

- J: Mahaspia esaten zotsaun, bai. Zera, Santa Ana kaleko aldia Mahaspia, bestekaldekoa Errekaldia. Ta han, ba, lehelengo... igerixan ikasteko lehelengo hantxe. Guk, behintzat, errekaldetarrak hantxe ikasi gendun. Ta gero, behin ya, ikasten genduanian pixkat ya igerixan, gero Olara igarira. Hori gazte-denporan. Beti ibaixan sartuta, bai, kangrejuak hartzen edo zeoze etaratzen, beti ibaixan sartuta. Gero, [...] zauan han isla... isla... islote haundi bat. "Suma" esaten zotsaun ta...

- Lurra erdixan...?

- J: Bai, erdixan. Hori... paseo Txurruka parian zaona dana... dana isla haundi bat zan. Dana-dana mendixa moduan, dana [subaz] beteta ta... Ba beti hantxe, ibaixan, beti ibaixan. Txabolak itten edo denporia pasatzen, hantxe. Ta gero hola pixkat ya nausitxua eindra ya ta etxian ya txanala ta ya hartu txanala aittari ta benga! erremuetan pixkat.

- Ta orduan, zeuen ume-denporan, umiak, orduan, haintxe ibiltzen zian egun guztian...?

- J: Bai, bai. Ya udan ya... Neguan ez, neguan klaro, ufalakin ta... baiña ufalakin be beti eskailluak hartzera ibai ondora. Bai, bai, hori be bai. Baiña, behin udara [alleau] ezkeru beti uretan, hantxe. Hantxe, beti ibaixan.

#### 4.17. Errekan arrantzan

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Egaña, Moises; Aristi Artolazabal, Jaime
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-029/003
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:02:33. **Bukatu**: 00:03:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Unamuno, Arianne
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak  
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Arrantzan ere egiten zuten ibaian. Batzuek haitzpetan eskuarekin harrapatzen zituzten arrainak. Aingiratan nola egiten zuen euren ezagun batek.

### Transkripzioa

- Baina behin uda allegau ezkeru, beti uretan hantxe, hantxe, beti ibaixan.

- Ta bestelako ze gauza gehixao eitten zian e ibaixan? Baiñua...

- Baiñua e.

- Arrantzia.

- Arrantzan, arrantzan bai, arrantzan asko gaiñera e, jolin. Kaiñiak ta, bueno bueno...haura izaten zuan e, bazuk e heizpetara juaten zittuazen, heizpetan, harzera eskuarekin, ta beste bazuek eitten juen e honek e zapateruan ta aitta ta horrek e jaken e kordel bezelakuakin harze eban e anzuelua ta txitxariaz sartu heizpetan.

- Zuluetan.

- Zuluetan sartu, ta euki piskat eta trak, eta aingiria. Aingiratan.

- Hola sartuta, norberak anzuelua sartuta?

- Bai bai bai. Berak norberak sartuta uretan ta hartu sartu e barilla

bezelako baten pitiakin ta anzueluakin ta kanaloiak ta sartu ta euki ta etara ta aingirak etaratzen.

#### 4.18. Tratuarekin plazara; txanpon-klaseak

- **Hizlaria(k):** Urizar Murua, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** SOR-041/002
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:01:02. **Bukatu:** 00:04:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera  
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-  
mugimenduak
- **Laburpena:** Ezkondu arte baserrian bizi izan zen. Bera jaisten zen plazara saltzera baserritik. Zer jenero saltzen zuen plazan. Orduko txanponak. 7.000 pezeta hartzen zituen egunean; orduan diru asko zen. Esne-litroak lau txakur haundi balio zituen, eta esnea 15 egunetik kobratzen zuen. Kalkuluak nola ateratzen zituen. Duro-zilarrak pisua zuenez, etxera joan aurretik Gilanera joaten zen txanponak aldatzera.

#### Transkripzioa

- Basarrixan jaixo eta noiz arte bizi izan zifan bertan?  
- Ni hogeta bost urtekin ezkondu nintzan ta hogeta bost urtera arte. Bai.  
- Orduan, e... bizimodua ta bertako...  
- Bueno! Eta gero beste sei hillebetian egon nintzan, porke ez zeuan ifior ezkondata, anaia euan ezkontzeko, baiña zela basarrixan ifior ez zan geratzen, sei hillabete ein nittun ezkondu kalera, honaxe, eta basarrixan harik eta haura ezkondu arte. Bai, bai. Han ez zeren ohittuta be kalera-ta etortzen be, ta tratura-ta, ta ni, badakizu, plazara tratura etortzen nitzan. Esan notsuen, generuakin kalera etortzen nitzan. Astua eta, esniak, goizian jatxi, bost edo sei behi jatxi goizian jaikitta, seirak inguruan, eta marmittak eta bete... Ez zeuan kamiñorik eta ezebe. Hartu astua, berduria-ta igual eukitzen giñuan askan freskotxuao eukitzeko, eta porrua edo lekia edo azak eta azalga ta arrautzak eta... Esan notsuen lehenao be, arrautzak dozenia ekarri bihar, ba, ta... A! Hamaika zeozen ta... nere penia, ba! Dozenia ez eruan bihar plazara! Esaten neban, ba, tratuan hartzen nittuan ba zazpi... milla pezeta. Orduko denporetan, hemen fabrikan ebizenak eta bost milla pezeta inguru egunian irabazten zebe. Dirua zidarra euan orduan, duro zidarra. Ta, e... pezetia ta gero txakur haundixa. Zentimuak haundixak zian, kobrezkuak zentimuak, oin, e... eurua, osea, zentimuak oin daozen moduan. Ta etortzen nintzan esniekin ta plazara, eta tratu. Arrautzok hartu eskuetan; astua igual antxitxika hasten zan ta arrautzak apurtu be igual. Pikuak eta keixak eta hola be eskuetan hartu mokorrian, holaxe, eta kalera ekarritta, plazan. Ta zazpi milla pezeta t'erdi, zortzi, egunian holaxe hartzen nittuan plazan. Diru asko zan ordurako!  
- Jolin...  
- Bai, bai, bai.  
- Basarrixan, gaiñera...  
- Bai. Ta esne-kinzenak, berriro, hamabost egunetik kobratzen giñuzen. Bai. Hamabost egunian ekartzen zan esnia. Lau txakur haundi balixo zeban

harek, zentimua litruak. Etxe-etxera ekarten zan esnia baserri... honaxe kalietan dana. Eta esne-kinzenak hamabost egunekuak. Ointxe be goguan daukat zenbat kobratzen nittuan. E... Bi litrokua zan hamaika pezeta eta bi zentimo; lau, txakur haundixan. Ia zelan etaratzen dan, etaratzen dozun hori. Eta gero, kuartillu, litro t'erdikua, hiru tamaiño, litrua eta kuartillu, litro t'erdikua zortzi eta sei zentimo eta litrokua bost pezeta eta sei, sei zentimo.

- Goguan dakazuz [...], e?

- Dana pezetak. Gero hartzen neban, kinzenia kobratzen zanian, hogeta hamar duro edo zidarretan dana, ta pixua mantalian ta basarrira ixo bihar ta pixuakin amantala be beheara jausten jatan. Ta juaten nitzan, hamen, Gilaneko tabernia dao, hamen, zubixa pasautako frentian. Hor hil zan Gila bera ta... Gilanekua zan hori. Eta faten nintzan ta: "Gila, emongo dostazuz papelak hogeta hamar duro?" Zidarretan lagatzen notsan eta hogeta hamar duro hartzen nittuan. Esne-kinzenetan hori! Hamabostian edo, e!

- Bai, bai.

- Papela eruateko etxera. Hogeta hamar duro zidarrok eruten nittuan gora.

#### 4.19. Pedro, 1912an jaioa Osuma baserrian

- **Hizlaria(k)**: Aranberri Laskurain, Margarita; Laskurain Lizarralde, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: SOR-043/001
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Pedro 1912an jaio zen Osuma baserrian. Kalera oinez joan ohi ziren eskolara maristetara etxean egindako abarkekin.

#### Transkripzioa

- Nun jaixotakua zaran, ze urtetan?

- El año dose, diesiseis de marso, hillan hamaseixan.

- Basarri honetan?

- Bai, bai, hemen jaixua.

- Hortxen bertan jaixotakua?

- Bai. Gero, eskolan badakizu, oingo moduan ez zan orduan, e? Oiñ eskolan dabillena... makillia bihar da asko. Hemendik kalera oiñez, e! Oiñez egunero-egunero. Maristetan eskolan ta abarkak, oiñetakua... Oiñ, siñistu eitten dittuzu esandakuak? Hortxe dao gero aldia, fedia euki edo ez... Oiñetakua etxian josittako abarkak, etxian eindako abarkak!

#### 4.20. Jolasak: korrika, kaniketan, arraka...

- **Hizlaria(k)**: Aranberri Laskurain, Margarita; Laskurain Lizarralde, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: SOR-043/006
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:14:16. **Bukatu**: 00:15:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan

- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Patioan pilotan, korrika, kaniketan eta arraka jolasten zuten, besteak beste. Arraka jokoaren azalpenak ematen ditu.

### Transkripzioa

- Eta orduan, umetan, ba, Maristetan-eta zetara jolasten zenduen zeuen artian, mutillak-eta?

- P: E?

- Zetara jolasten zenduen?

- P: Pelotan. Pelotan. Patixuan bertan euen frontoitoxo bat. Pelotan ta hantxe kanpuan antxintxiketan edo, zer asko zan, umiak e, zeozer, bueltaka hantxe.

- Kaniketan eta eitten zenduen edo?

- P: E?

- Kaniketan edo?

- M: Bai, kanikiakin be bai ta...

- P: Gauza askotan. Intxaur batzia zanian, e...

- M: Urrakin, arrak...

- P: Arraka edo hola botata edo haura joten edo...

- M: Intxaurrek eruan ta izaten zan, hola urriñ bota ta bestiak haura jotera ta beren sasoeko...

- Eta horrek ze izen zeukan, horrek, jolas horrek?

- P: Arraka.

- M: Arraka izeten zan. Arrak.

- Ta, intxaurrek hola jotzen ez bazan be, ta urrian geldittu edo eitten bazan, arra beten barruan...

- M: Bai, [hareaittik ipinitta] arrak.

- Orduan distantzia, ez? Arra baten barruan... Eta hor diferentziak egoten zian intxaur artian edo?

- P: E?

- Batenbati entzunda, intxaur batzuk egoten ziala gogorrauk edo...

- P: Bai, intxaurrek maskaria eukitzen dabe ta haura kentzen ta mutikuak-eta ibili bai ta, eskuan e...

- M: Moskana lagatzen dabe.

- P: ... moskana, tinta moduan lagatzen dabe ta halakorik be ez bihar eskolan... ta bueno!

### 4.21. Ezosi bailaratik San Andres auzora

- **Hizlaria(k):** Eguren Larreategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** SOR-047/002
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Ezosi bailaratik, San Andres auzoko Guenetxetxo baserrira joan zen 14 hilabete ingururekin. Ezkondu ondoren berriz Ezosi auzora itzuli zen; Arrieta (Arritxa) baserrira. 1928an jaiotakoa, urtarrilaren 20an.

### Transkripzioa

- Orduan, hor bertan jaixo ziñan, oseake, auzo honetan?
- Bai, ni hortxe jaixo nitzan. Ta gero hortik jua nitzan, hau Ezoz baillia da ta San Andres baillera, Guenetxetxo basarrira.
- Hori zer, umetan?
- E?
- Umetan?
- [Obretan]?
- Umia ziñala?
- Bai, hamalau hillebete edo esaten dabe neukazela. Gure aiztiak esaten dau ni han sukaldian oiñutsetan ta amamak "Horri umiorri oiñetakuak! Horri umiorri oiñetakuak!" esaten zotsela.
- Orduan, hemendik San Andres auzora...
- Hemendik hara San Andres baillera jua [nitzan]. Ta gero handikan ezkondu nitzan berriro hona.
- Oseake, buelta jatorrira?
- Bai, atzera hamen...
- Ze urtetan jaixotakua zara? Ze fetxatan?
- Veintiochuan.
- Veintiochuan.
- Veinte de enero, San Sebastian egunekua.
- Ene! Beira... Eta, bueno, Altamira basarriko gauza gitxi gogoratuko dozuz.
- Nik bai, nik harrazkeroko ikusi dittutenak hor.
- Baiña gero, bueno, San Andres auzoko basarri hartako kontuak bai, ezta?
- Bai, oin be... ointxe, bai.
- Basarrixa zelakua zan edo zelan gogoratzen dozu?
- Basarrixa, ba, zahar samarra zan erosi zanian. Zahar samarra zan, baiña han hazi giñan, behintzat. Eta gero erre ein zan basarrixi ta gero basarrixa ein eben. Ta oin basarri barrixa dauke einda.

#### 4.22. Aita, errusiar frantsesa

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: SOR-056/009
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:10:15. **Bukatu**: 00:11:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak  
(kokapena)
- **Laburpena**: 11 hilabete zituen aita hil zenean. Ez da berarekin akordutzen. Errusiarra zen, baina Frantzian hazitakoa. Gabi zen, baina Donostian "El franc&eacute;s" deitzen zioten. Liburu-denda zuen. Amak ere bazekien frantses apur bat; astean birritan joaten zen jana erostera mugaz bestaldera, aitari hango jana gustatzen zitzaiolako.

### Transkripzioa

- Esaten dotsut, nik neuzkan hamaika hillebete.
- Hil zanian aitta, bai.
- Nik ezautu be ez, ez dot /eztot/ ezautu. Eta beste aiztiak be /pe/ ez.
- Enkanbio zarrena akordutzen da.

- Rusua zan, ezta?  
 - Bai. Rusian jaiotakua. Bai&ntilde;a gero Frantzian hazittakua.  
 - Zela esaten zotsela esan dozu?  
 - Gabi.  
 - Bai&ntilde;a "El franc&eacute;s" edo?  
 - "El franc&eacute;s", bai. Donostian "El franc&eacute;s". La tienda del franc&eacute;s, la librer&iacute;a del franc&eacute;s. Danak etortzen zien hara: "Ai, aqu&iacute; es la librer&iacute;a del franc&eacute;s?". "S&iacute;, aqu&iacute; es". "Es que ah&iacute; hay unos se&ntilde;ores, hemos preguntao, y". Frantses, ezta, eitten zeban berba; amak e bastante, ez zekixen ondo bai&ntilde;a. Frantziara astian birrittan juten zan hango jana ekartzera. Aittai hango zera gustatzen jakon. Birrittan joaten zan, astian bi bider.

#### 4.23. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** SOR-056/015
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:17:35. **Bukatu:** 00:19:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak  
 Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena:** Jolasak. Ez zuten jostailurik erosten; betun kaxak gordetzen zituzten, zuloak egin eta pisua egiten zuten. Tortolosak. Intxaurrekin. Txirikilan jokatzea asko gustatzen zitzaien. "Pica-limas" asturiarrak kontuak jartzen zizkien errepidean, eta etzanda egoten ziren, kontuak egiten. Oso auto gutxi pasatzen zen.

#### Transkripzioa

-Ze jolas eitten ziñuan?  
 -Ene!, guk danera, guk danera. Hara!, guk ez giñuan erosten jugeteik eta. Keba!Ez dakizu /Eztakizu/ horrek, kaja horrek, betunen, zapatak garbitzeko. Beti: "eso cuando se termine para mí", dana. Da harekin itten giñuan zuluak eiñ, gero palo bat eta zer batzuek, pixua itten giñuan pixatzeko ta. Han berduria hartu han baztarrian-eta /-da/. Halakotxe gauzak eitten [giñuzen]. Eta gero horrek be /pe/ bai, "a tabas".  
 -Tortoloska?  
 -Tortolosak. Ya ixa ahaztuta neukan. Eta /da/ ez dakit /eztakit/... Zerakin ai, intxorrak hola zulua in-eta /-da/, ez dakizu /eztakizu/?, harekin be bai. Eta halakotxe gauzak.  
 -Txirikillan eta?  
 -Baitta. Baitta. Txirikillan jo palua ta.  
 -Jolas gogorra zan hori, e?  
 -Bai, bai. Bueno, asko. Hori gaiñera gustatzen jakun asko. Gero itten giñuzen kamiñuan, karreteran, Pentsaizu zenbat kotxe pasatzen zien. Han kontuak ipintzen zoskun horrek harek; kultura asko zeukan "Pikalimas"ek. Hori zan asturianua. Eta horrek kontuak ipini: "Al que saque le regalo -qué sé yo- una caja de pinturas" edo /o/ zeoze beti. Eta han kontuak itten etzanda kamiñuan. Halako baten kotxe bat, kotxe txiki bat. Besteik ez zeuan, besteik ez zeuan orduan, bat bakarrik.

#### 4.24. Dantza lotua libre Soraluzen

- **Hizlaria(k):** Igartua San Jose, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** SOR-080/030
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:41:52. **Bukatu:** 00:43:03
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Gazteak zirela, plazan egiten zuten dantza. Lehen banda zeukan Soraluzek eta ospetsu samarra zen. Dantza lotua egitea libre zen Soraluzen.

##### Transkripzioa

Zuek gaztiak ziñenian, dantzara ta neskatan eta...

-Bai, jo, e, hamen, plazan. Bandiak. Bandia. Plaentxiak gaur ez daka; orduan bandia zakan musikakua. Bastante famosua bandia gaiñera, juergistak zian gehixenak. Eta hamen eitten [zeben], hamen plaza zaharrian. Agarrauan.

-Neskak libre euken agarrauan eittia?

-Bai, bai. Abadiak bazebitzen harutz eta honutz, baiña ez. Hamen ez da egon, dantziagaittik ez da egon hainbeste. Gerria egon da dantziagaittik eta Azkoitti aldiari eta hor. Hamen ez, hamen laga eitten zebe. Bai, bai. Agarraua baiña hamen, danen aurrian.

-Gero neska lagunketan be joago ziñien.

A, hori bakoitzan abilidadia da. Bakoitzak, e.

#### 4.25. Mutilarekin ateratzeko, informea eskatu behar

- **Hizlaria(k):** Esnal Larreategi, Belen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** SOR-086/035
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:55:42. **Bukatu:** 00:57:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Bikotea ateratzeko informea eskatzen zen herrira: abadeak eskatzen zuen mutilari buruzko informea, jakiteko zer moduzkoa zen. Mutila elizara joaten bazen, informe ona jasotzen zuen; txarra bazuen, ordea, utzi egin behar izaten zuten.

##### Transkripzioa

-Pareja urtetzeko informiak eta lehen.

-Ze informe?

-Lehen bai. Nik ez neban eskatu baiña nere lagunak be. Bueno, abariak eskatzen eban. Pareja urtetzeko, bai edo ez mutillari esateko, eskatzen zan informiak herrira. Porke nere lagunari (sastrian alabia zan eta), aittak ez zotxan lagatzen kanpotarrekin, ta informiak eskatu ebanian eta informiak

onak bialdu, bueno. la pareja urten eban.

-Informia nork?

-Mutillan herrira, abariak. Abariak eskatzen eban hango herrira. Informiak, aber ze mutil edo. Ohitturak lehen. Ta oin barriz, e, honekin dabillekuan bestiakin.

-Orduan abadiak polizia lana eitten euen orduan?

-Itxuria. Guri behintzat beti esaten oskuen, mutillakin hasteko informiak eskatu bihar dala lelengo.

-Sekula entzun barik neukan. Osea ke parrokiatik parokixara, hau mutillau zer moduzkua dok?

-Bai. Berak eken. Eta elizara joaten bazan, oso mutil ona. Nahiz eta zeloso zikin bat eta eskuak mobitzen ebana, konforme. Hemen basia zan mezetara joatia.

-Eta informia txarra etortzen bazan, zer?

-Ba laga ein bihar mutillari. Ezin hasi.

-Hori gogorra izango zan.

-Gure denporan horixe zan. Nik kuadrillan ezagutu dot eta bai.

#### 4.26. Lokala gora, lokala behera

- **Hizlaria(k):** Quintanilla Lete, Maite
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze
- **Erref:** SOR-098/022
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:37:01. **Bukatu:** 00:38:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak Aisia
- **Laburpena:** Frontoian egoten ziren beraien arratsaldetan, baita okupatutako eraikin batean ere. Gaur egun aldiz, gazte gehienek lokala dute, eta handik ateratzea oso zaila dela dio Maitek.

#### Transkripzioa

- Lokalan konturik bizi izan dozue edo...?

- Gurian egon zan, ba "Benga, nahi dou lokala, ez dakit ze", baiña gu frontoian egoten giñan. Eta gero bai in genduan, ikastola azpiko... oin ya ez dau, oin hartzaindegixa dauan leku horretan zeren... ee... zela da? Eee.. ginasian-eta erabiltzen... Bueno aldagelak!

- Bai, aldagelak.

- Horrek okupau in genduzen. Gero bota in ginttuen eta holan, baiña bueno. Eta hor hola. Ba, bihar genduan leku bat berotan egoteko eta apurtu genduzan atiak eta han sartu giñan. Bai, hori in genduan. Baiña gaur egun da danak ya lokala eta... Eta gero, ba, hori, Gaztelekuan be bai pasatzen jakun, osea, ya zaila zala... sartzen badira lokaletan, gero berriro ataratzia... ez bada...

- [...] eremu bat igual galtzen da, ezta?

- Bai.

- Badauka, bueno, kuadrill... talde... zure taldetxo identidate hortan bai sendotzen zara, baiña gero...

- Karo.

- ... aislatzeko puntua be bada, ez? Igual kanpora begira edo...

- Bai, ta gero eurak be bai kritikatzten dabe hori, e, "Bai, askotan ez gara harremantzen ez dakit zer... Orduan, da be bai topatzia... jo, ba, igual in

bihar da lokalen arteko gauzak eta. Ez dakit, beste saltsa bat sortu bihar da hor, osea, pixkat harremanian ipintzeko eta... eta hori, harreman hori be euskeraz sortzeko ahal bada.

## 5. Aisia

### 5.1. Postura kontuak

- **Hizlaria(k):** Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-003/011
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:20:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena:** Postura desberdinak. Korrikalariak; aizkolariak.

#### Transkripzioa

- Halatxe, halatxe. Mendira fan ta... billau mendixan ardixak nunbaittekuak eta adarixak edo ta haretxei topeka erein ta...

- Korrika-ta be eitten zian apustuak?

- Ba, gitxi. Ez jauan hamen holako apezñoik.

- Zuk ezautu zenduan batenbat?

- Zer?

- Korrika apusturen bat?

- Ezautu ez; zeintzuk zien bai bajakixat. "Luzia" Azkoittiko bat. Haura jokolari ona zuan, jokua eitten jekixan harek; eitten jakin. Jokua jokatu baiño lehenao irabazitta. Harek Eibarren jokatu jua: hankiakin elizia ikutu ta zeñek lehenao bueltia ein, Joxe Marin tabernatik edo ez dakit zela zan. Ta bat aintxiketalarixa ona, gaiñera! Azkoittiko [...]. Puf! Aintxiketalarixok [saltoka], aiba dios! Bestia, Luzia, haundi bat zuan. Luzia, aizkolarixoixe! Bueno. [...] poliki-poliki. [...] bestia "ba!" ta anda dios! Ein jok [elizatik] bueltia edo —ein ei jua— "Ba! Irabazi juau!". Ta bestia buelta einda [...] noizbaitten! "Hik jokua hik irabazi [...]?" Hik ez dok jokua irabazi! Ja! Jokua neuk irabazi juat!", "Oin alleau haiz ta hori esaten atrebidu eitten haiz?", "Bai, atrebidu eitten [nok]. Hankiakin elizai ikutzia ez [juau] esan? Hik hankiakin ez dotsak ikutu, hik zapatilliakin ikutu dotsak". Ta harek erantzi abarketak, erantzi galtzia ta hankiakin "dak" ikutu ei [jotsan]. Jakin!

### 5.2. Taberna giroa; erromeriak

- **Hizlaria(k):** Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-003/025
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:51:10. **Bukatu:** 00:54:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Aisia » Taberna giroa  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak  
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

- **Laburpena:** Taberna giroa. Baserritarrak jai egunetan joaten ziren tabernara. Borrokak; mozkorrak. Irukurutzetan, erromerian, urtero borroka egoten zen.

### Transkripzioa

- Kalia lehen zenbat taberna zeren?
- Ez dakit nik! Tabernia hobeto egongo zuan bai lehen be!
- Baserrixetatik eta jentia ta juaten zan tabernetara-ta, ibiltzen zan bape?
- Ke ba! Jaixan edo, mezetara juanda, egun guztian igual, kalia, mozkortuta, zaharrak-eta...
- Mozkortzen zian lehenago be, e?
- Ez! Bai oin be, ta bai lehen be... Harek ez jok barkatzen, harek burrukan eraitten jok, [...] ai-ba dios! gero, gero jo-ta egurra burrukan danak gero, hala-koño!
- Entzuten zian burruken... eta?
- Burrukak eta... horixe! Burrukak eta... betetakuan, edozer gauza.
- Zelan zian hori, esaten zenduanak, e, eskuetan ipintzekuak eta, azaldu zian ba hemen?
- Hementxe, hementxe azpizan azaldu zuan, "galopiak" edo, ez dakit zela esaten zotsen. Hemen. Gero harek e... hemen sartzen zan haura, atzaparrekin, atzaparren zulu... bere forma ta guzti, esku-barruan sartzekua, dak! Sartu esku-barruan ta burdiña, holako luzera batekuak, jo-ta burrukarako, apropos-apropos eindakuak. Tio Javierrek [eingo] juan, uste juat, taillarrian [eingo] juan, haura, nunbaiten... Bai-ba, gauza kapritxosua zittuan-ta.
- Eta horretarako, entzuten zian, lehen, jendiak erabiltzen zittuala-ta?
- Harek e... derrigor erabili bihar! Harek ez zittuan geldi egonda beti, e! Hau e... Osuma-Gaiñekua... Ez! Bai! Igual... Osuma-Gaiñekua izengo dok... Irukurutzetara juanda... Irukurutzetan... Irukurutzetan urtero burrukia.
- Egoten zan?
- Burrukia, jo-ta... Neu be bai ikusitta naok, aittakin edo ez dakit zela juanda... Mekauen Dios! Emon malluka edo makilliakin ta jo-ta joten juek bat, Azkoittikua edo ez dakit nun... [...] joten juek buruan... jo-ta ota arte baten zihar goittik behera ta... de-dios! Gu etxera edo...
- Ta hori zer, erromerixia zeualako, edo?
- Bai ba, erromerixia, ta han juntatzen zittuan Azkoittikuak eta, Elgoibarkuak eta, Osintxukuak eta, Bergakuak eta, danak eta,... han kaskajo asko-ta, gero e... jipoia!
- Ta kalia e, lehen...?
- Gero...
- Bueno, segi, segi!
- Gero Guardia Zibillak e... uste juat hasi ziala juaten eta kitto orduantxe. Bai, ni akordatzen nok zelan egoten zian Guardia Zibillak, mutikotxuak juanda-ta...
- Ta jendia bildurtu eitten zan?
- Ez! Jentia bildurtu eitten zuan Guardia Zibillekin! Harek emon eitten eben gero, e? Heldu fusillari puntatik eta...

### 5.3. Serenoa

- **Hizlaria(k):** Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-003/027

- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:56:40. **Bukatu:** 00:59:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak  
Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena:** Serenoa. Tabernen ordutegia.

### Transkripzioa

- Ta gabian, tabernetan ta nahi zan ordurarte ta lagatzen zeben?  
 - Bai, zera! Ke ba! Gabian e, ba ordua jotakuan e... serenua, juan ta itxi ta hala! Ta [Kirueta] sereno egondako aguazilla —hor estaziñuan, hor bizi dana— harek esaten juan ederki... [Ba ei zittuan] Korostola, Calixto, beste bi edo be badittuk... hamabixetan ordua, Kalebarrenian zihar ta, Calixto ta aguazilla bera aguazillori, serenua, ta, "fi" ta, taberniori itxi ta fuera! Han bajoiak haura, Calixto, bera [allegau] orduko itxi ta kitto! argixak eta traste guztiak emendau ta, barruan jentia, baiña ezin ezer ein... Ta gero, bueltan, harek ederki esaten juan, e, bueltia ein ta bueltan juan orduko, zabalikan, tabernia zabalik, jentia, afaixa edo, zaratia edo kristua, "Nik ze ein bihar juat?", ezin ezer esan! Zabaldu, zabaltzeko ordua esaten ei juen, ixteko ordua, bueno, "Zabaldu ze orduan ein bihar juau?", "Ze orduan zabaldu bihar juau?", itxi hamabixetan ta zabaltzen badok hamabi ta larenetan, ba, hurrengo eguna, hurrengo eguna, haura! Baiña aiuntamentutik eitten jittuen horrek, "Bueno, hi, benga, jo-ta-dios!" Aiuntamentutik: "Hamabixetan itxi", "Ondo daok", "Zer orduan zabaldu bihar dok?" Danak ixilik geratu bihar... Ze orduan esan bihar dotsak, ba, hari zabaltzeko? Hamabixetan itxi... "Zabaldik hamabixak ezker" ta... Hurrengo eguna dok, ba, behin hamabixak jotakuan... "Ba nik hamabixak bost gitxiauan zabaldu juat" Bai ba! Danak ahua zabalik lagatzen ei jittuan harek tipuak. Hortarako argixa izan bihar dok pertsonia.  
 - Ta hortaiduak gitxi dare?  
 - Egongo dittuk gaur be.

### 5.4. Gaztetan zinemara; dantza egitera...

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/017
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:18:12. **Bukatu:** 00:21:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Zinema  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak  
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Gaztetan zinera sarri joaten ziren. Gayarre zinema. Bergarara ere joaten ziren dantza egitera. Trenez egiten zuten etxerako itzulera. Gaztetako kontuak. Pelikulak...

### Transkripzioa

- Ta ezkondu aurretik-eta, jai-egunetan ze eitten zenduen?  
 - Ba, zinera be juaten giñan. Orduan zinera be ni asko juaten nitzan.

- Zinia zeuan hamen Plaentxian?

- Gayarre,

- "Cine Gayarre". Bai.

- Romero. Luis Romerok eruatzen eban hori, zinia.

- Asko juaten zan orduan zinera.

- Badakizu Gayarre nun egon zan, ezta?

- Bai, han Gabolatzen edo [ez zeuan]?

- Bai. Horrek etxiok...

- Bai, hemen, sartzerakuan.

- Ba, asko, e! Juaten zan zinera.

- Ta noixian behin musikia be egoten zan.

- Baitta, baitta.

- Gero Bergarara be juaten giñan dantzara. Ta, ba...

- Bergaran be egoten zan erromerixan bat, hola, egoten zan?

- Erromerixia... dantzara, ezta? Bergarara dantzara.

- Musikia.

- Bai, horixe.

- Musikia jotzen eban Bergarako bandiak be musikia jotzen eban hantxe plazan. Ta gero, ba, trenian buelta. Trenian juan ta...

- Pazkuetan be juan Bergarara, baiña gero trenian etorri bihar.

- Onbre, onbre.

- Trena ze ibiltzen zan, hori bapozeko edo hori?

- Ez, ez, ostian. Baporrana ez.

- Zer?

- Trena.

- Elektrikua, bai. Bai. Baiña goizao etxera etorri bihar. Bueno, ezta... Eske ezin leike... Hainbeste... Enee...! Pasau? Nik pasau [nittunak] galantak, e! Denpora [gerran], e? Bueno...!

- Ta behin, akordatzeko naiz, zinerako ez geunkaun danondako, ez geunkaun dirurikan danok juateko. "Veinte céntimos era, ¿eh? La entrada". Ta ze ein genduan? Bateria emon dirua, harek zinia, pelikulia, ikusi ta gero Plaza Zaharrian jarri ta kontau.

- Ta konforme!

- Ba, horixe ein genduan behin. Plaza Zaharrian jarri ta haren zain egon ta harek, gero, kontau. Ta "pe a pa" kontau, gaiñera, e! Bueno...!

- Bai, bai, bai.

- Ze botatzen zittuen, zuri-beltzian botako zittuen, ezta?

- Bai. Orduan ez zeuan kolorezkorikan.

- Ez, ez, ez. Baiña juaten giñan ta ikusi be, gaiñera, ze interesekin! Enee...!

- Ta oin baiño pelikula polittauak, e! "Artistas también. Greta Garbo y Clark Gable y..." . Enee... Zelakuak! Bueno...!

- Bai, egixa.

- Oin dana tirua. Dana tirua ta... Orduan romantikuak zian. Polittak. "Rebeca era", haura harek ikusi eban pelikulia.

- A! "Rebeca".

- "Rebeca" kontau oskun. Haura be politta zan.

- Holaxen.

- Zeuk preguntau, e!

- Ze zeuan zine bat bakarrikan Plaentxian?

- Bai, bai. Horixe bakarrik. Gero hau elizakuau gero ein zan.

- Gero, gero!! Buenoo...! Hori, zerian... Noiz hori?

- Hori? Ointxe, ondiokan...

- Zenbat urte, ba?

- Bueno, bai. Baiña ez, ez zeban...

- Ez. Baiña han Gayarrian...

- Gutxi irauin zeban horrek?

- Bai.

### 5.5. Tanbolinteroak

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/029
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:33:50. **Bukatu:** 00:34:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Musika  
Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena:** Serenoak. Tanbolinteroak pregoia irakurtzen zuen.

#### Transkripzioa

- E, bueno, entzunda dakat, serenuak eta egoten zian lehen?  
- Bai, bai.  
- Bai, serenuak... Eta tanbortera be bai, e?  
- A, bai!  
- ... tarrapatatatan ta bandua!  
- Bandua!  
- Bandua jote eban!  
- A, bandua jote eban?  
- Bai, bandua: "Ha venido..." ez dakit...  
- Bai, "Ha venido un camión de naranjas no-sé-qué..."  
- Bai, kalerik kale...  
- Tanborra jote juaten zan, e?  
- Bai, tanborrakin, tanborrakin.  
- Egixa, bai...  
- Eta zer eitten zittuan, holako berrixak? Udaletzeko berrixak eta holakuak esan?  
- Bai, bai...  
- Ez, etortzen zianian bateronbaten...  
- Bai, baiña, también e... cosas de... Bando.  
- A, bai, bando, bando.  
- Bando. Alkatian zerak eta.  
- A, bai, alkatian zera ta hau ta hau ta... Hori be bai, egixa. "En nombre del Señor Alcalde, no-sé-qué..."  
- Bai, bai...

### 5.6. Herriko jaiak

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/038
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:41:40. **Bukatu:** 00:43:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan

• **Gaia(k):**

Aisia » Jai-giroa » Zezenak

Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

• **Laburpena:** Herriko jaiak. Santa Ana eguna nola ospatzen zuten.

Kontsejupean ardo zahagia ipintzen zuten. Santa Ana kalean zezena.

San Roke txiki egunean, sokamuturra. Andra Mariak. Suzko gurpilak.

### Transkripzioa

- Herriko jaiak eta oinguen aldian be diferentiak izango zian ba, ezta?

- Baiña polittak!

- Orduan ez zan urtetzen, oingo moduan ta...

- Santa Ana jaiak ez ziran eitten orduan, Santa Ana jaiak egoten zan Kontzejupian, hor e, Udaletxeko azpitan, egoten zan zaharagixa, zaharagixa ipintzen eben.

- Ze da hori?

- Zaharagixa, arduan zaharragixa.

- A, arduana, bai.

- Sí, ipintzen eben Kontzejupian, ta han daneri ardua emoten zotsen. Jolin! Taillarretik urten ta antxitxiketan gizon guztiak...

- Ardua eratera?

- Ta hauraxe, Santa Ana egunian. Santa Ana egunian...

- Ez, ez, hemen beti...

- Ta etaratzen eben zezena, Santa Ana kalia, hauraxe izaten zan Santa Ana... baiña biharra einda, e? Santa Ana egunekua. Ta gero San Roke Txiki egunian sokamuturra izaten zan, suelto ez zan ibiltzen, e, zera...

- Sokiakin

- Sokiakin. Baiña herri guztian e? Herri guztian. Aquello era peligroso e? Haura sokiakin trabau ta...

- Juaten zan lekura?

- E?

- Juaten zan tokira berari jarraitu?

- Bai. Ta, gaiñera, trabatzen baziñan sokiakin, e... Baiña orduan izaten zan sokamuturra. Ba, bai. Ta Andramarixak, ba, polittak!

- Bien, ondo, ondo.

- Polittak. Buenoo!

- Gu behintzat pozik! Enee!

- Ya lo creo, urte guztian ez genduan urtetzen gabian ta... Han, Plaza Zaharrian, allí solía poner la... Tiburtzi, la de Galo...

- Ipintzen zeban, tabernatxua edo?

- Ta bestia be bai, beste aldamenian be bai, Calixto, Calixto Bolumburu...

- Bueno, baiña ese luego, más tarde.

- Pero oyee...

- Eta eitten zeban mantekaua, horrek Tiburtzi horrek, eitten zeban mantekaua. Jolin! Todos los días del año esperando a Andra Mari, aittakin ta amakin, Plaza Zaharrera, mantekaua, con unos, esos...

- Barkillua edo...

- Barkilluekin.

- Juan hari oin, juan hari oin!

- Aquel mantecao, una copa de mantecao con [...]... Jolin... Haura zonan ona, haura zonan ona!

- Bai ba, urtian behin, Martina, urtian behin.

- Bai, urtian behin. Ta suzko erroberak be egoten zian, e!

- Baitta.

- Baitta, suzko erroberak be bai.

- Hori ze da, zezena moduan edo zela izaten zan hori suzko erroberena?
- Suzko erroberak dira, e...
- Iturri gaiñian, "fuegos artificiales" dira suzko erroberak.
- Bai, horixe, suzko erroberak. Bai...

## 5.7. Herriko jaiak

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/039
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:43:50. **Bukatu:** 00:44:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak  
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »  
Donostialdeko lantegiak  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Herriko jaiak asko aldatu dira. Lehen bertakoak bakarrik egoten ziren. Lehengo bizimodua.

### Transkripzioa

- "Fuegos artificiales" dira...
- Bai, horixe.
- ... suzko erroberak.
- Suzko erroberak?
- Bai.
- Txapliguak...
- Bai. Gaiñera zela izaten zan herriko jentia bakar-bakarrik... Oin geu gara extranjeruak hamen, e! Geu gara oin extranjeruak!
- Bai, oin kanpotik jente asko etortzen da...
- Kanpotik etorri dan jentia aintzen dau oin hamen. Baiña orduan zela danak giñan...
- Hamenguak, hemenguak.
- ... bertakuak. Danak bertakuak eta beste... beste zer bat zeuan. Oin, oin, "Mira aquella qué vestido lleva" ta " Mira aquel..." ta ez, diferentia da.
- Bai, lehen konformiau. Nik ez dakit beste... Ez zan oingo modokua. Ke ba!

## 5.8. Musika banda

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/040
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:44:25. **Bukatu:** 00:45:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Musika

- **Laburpena:** Soraluzeko Musika Banda. Bergararik ere Musika Banda etortzen zen.

### Transkripzioa

- Ta ze egoten zan bandia ta holako zerak?
- Bai! Bertan euan hemen bandia, e! "Banda San Inacio". Bai. Banda famosua, gaiñera!
- Ta Bergarako... Bergarako bandia etortzen zanian ta, e?
- Bai, bai.
- Aii...!
- Ta harek pasakallearek?
- Bai, pasakallearek...
- Gero, gabian, amaitzen zanian dana, pasakallia zerakin, bandiak. Ala! Danak antxixiketetan! Heldu holaxek eta danak pasakallian! "Más bien que que... no sé". Abarketekin, e! Abarketekin!
- Ez, zera! Oingo moduan?
- Oin baiño kaso gehixao eitten jakon, orduan, bandiari?
- Onbre! Onbre! Bai. Ondo pasatzen zan!
- Ederto.
- Andra Marixak gustora pasatzen [giñuan], ilusiñuakin. Ilusiñuakin. Oin urte guztian dia jaixak!
- Bai. Hemen beti dao oin, baiña lehen...
- Oin urte guztian dira jaixak. Eske...
- Aii...
- Jatekuekin be, bueno, igual.

## 5.9. Osintxuko errekan arrantzan

- **Hizlaria(k):** Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-006/027
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:34:45. **Bukatu:** 00:35:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Errekan arrantzan. "Uragorra" (ur-agorra), errekan ur gutxi zegoenean. Zer arrantzatzen zuten. Eibartik eta Plazentziatik Osintxura joateko ohitura handia.

### Transkripzioa

- Ointxe sasoiari harrapatzen zian ur-agorra zela egoten dan. Ur-agorra badakizu ze dan? Ba, ur gitxi dauan denporia.
- Ur gutxi daonian, agorra.
- Ur-agorra esaten jakon horri.
- Ur-agorra esaten jako?
- Ur agorra, gutxi zela egoten zan... Ba, askokin ezin leike ein, baiña hor Irukurutzetako rebueltan-ta zela ikusi eitten zian. Oin ez baiña... Barbuak eta loiñak eta... Bota haura ta...
- Loiña [...] eta zenbat [ibiltzen zian], [loiña... eta be] asko. Osintxun asko [itten] zan, [horrekin itten] zian. Kuadrillak igual Eibartik eta Plazentziatik be bai. Hamen baiño esparbelakin eitteko han leku gehixao.
- Ta Aste Santuan Osintxura, eguen santu egunian, eskallu... edo... —

eskalluak, osterarik— antxoak jatera Plaentziatik jentia kamiñua betian. Bijilixia, badakizu.

- Barixaku santutan...

- Barixaku santu... eguen santu izango zan juaten zianak. Baiña Plaentziatik jente asko, e! Oin kofradixetako moduan Osintxura juaten zan trenbidetik jentia ta kamiñotik umiak eta danak hartuta.

### 5.10. Osintxura erromeriara

- **Hizlaria(k)**: Gabilondo Agirrebeña, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-011/003
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:02:14. **Bukatu**: 00:03:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Osintxura igandero joaten ziren erromeriara eta baita inguruko beste batzuetara ere (San Marzial, Irukurutzeta). Soinua egoten zen eta lotuan edo soltean dantza egiten zuten.

### Transkripzioa

- Ta gero erromerixetan ta ibiltzen hasi ziñien edo?

- Bai, Osintxura gu, guretako Osintxu zan, e, erromerixa lekua, Osintxura juaten giñan erromerixara.

- Ta Maltza...?

- Ta gero, inguruetako zeretara be juaten giñan, ez dakizu? Bergarara San Marzialera ta Irukurutzetara ta, badakizu, mendiko erromerixetara.

- Bergarak gehixao tiratzen [...] zuek?

- Bai, Plazentziak baiño gehixao tiratzen giñuzen edo... Plaentxiakuak geu ta Bergarara. Osintxura jaiero juaten giñan, Osintxun, badakizu, erromerixia eitten zan ta jaiero juaten giñan.

- Erromerixako kontuekin-ta akordatzen zara zu?

- Bai!

- Ze izaten zan, zela izaten zan?

- Orduan izeten zan soiñua, bakizu? Sultua ta agarraua ta jotzen zittuen ta... gu gelditu be ez giñan eitten. Ekin lehenengotik ta bukatu arte ibiltzen giñan.

- Danera? Sultuan ta agarrauan be bai? Bixetara?

- Bai. Asko gustatzen jakun dantzia, badakizu.

- Oin diferente dao...

- Diferente ta edadiak be badakizu ze eitten daben... bueno!

- Klaro, bai, bai.

- Hor, Gregorin gizonak soiñua jotzen zeban...

- Bai, Alfonsok.

- Alfonsok.

### 5.11. Arrate egunean Arratera bazkaria hartuta

- **Hizlaria(k)**: Gabilondo Agirrebeña, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz

- **Erref:** SOR-011/010
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:16:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara  
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Andra Mariak izaten ziren herriko jai inportanteenak. Eurak, hala ere, joera handiagoa zuten Osintxura. Arratera ere joaten ziren bazkaria hartuta. Maltzagaraino trenean joaten ziren eta handik gora oinez.

### Transkripzioa

- Jaixetan-ta, hemen kaleko jaixetan-ta, etortzen ziñien zeuek, igual ez, ezta?
- Bai, etortzen giñan, bai, etortzen giñan.
- Orduan zeintzuk izaten zian hola jairik zerenak e, urtian?
- Orduan Andramaixak izaten zian, gero jarri zan hau Santiaguak eta ya gero ipiñi zittuen, baiña orduan Andramaixak. Baiña guk hona baiño jokera gehixao geunkan Osintxura, guri Osintxuko Kofradixak eta gustatzen jakuzen. Ez dotsu esan hori Gregorik?
- Kofradixena ta ez dosta esan, bestela erromerixena ta esan dosta, ibili da kontatzen...
- Alkarrekin ibiltzen giñan ta, bueno...! Bergako San Martzialera ta... erretratuak eta badittugu hor polittak orduan ataratakuak. Arratera ta... bueno!
- Arratera be juaten ziñien?
- Bai, juaten giñan Arratera, bazkaixa hartu ta Arratera.
- Bai, aittittak kontau... gaiñera jende asko egoten zala han...
- Arraten bai, bueno! horixe!
- Eta orduan ze juaten ziñien, trenian hemendik e...?
- Bai, juaten giñan, pentseizu, hamendikan Maaltzara trenian juaten giñan, eta gero Maaltzatic gora oiñez. Akordatzen naiz... bide-zulo bat eta bide batzuk bazeren txarrauak... akordatzen naiz bide-zulo batetik gora zela juaten giñan. Trenian juaten giñan hara, Maaltza aldera, ta gero handikan oiñez.

### 5.12. 'Txirrita' Eibarren bertsoan, 1936an

- **Hizlaria(k):** Elizburu Gorrotxategi, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** SOR-024/002
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:00:20. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena:** Jose Manuel Lujanbio&nbsp;Txirritak 1936an abestu zuen azkenengoz Eibarren. Kontakizun desberdinak gai honen inguruan.

### Transkripzioa

- Txirritak azkenengo Eibarren kantau juan "mil novecientas treinta y seis" edo, gerra-denporan azkenengo. Beran [lehengusu...] izen zuan.

- Txirritan lehengusua?

- Txirrita, lehengusua ta bixek. Eibarko jaixetan. Azkenengo Eibarren kantau ei juen. Kantau jittuan bertsuak. Gizona galanta Txirrita, ehun ta berrogeta hamar kilo izandakua, paretagiñan artistia. Hari ur emotekorik apenas zuan hemen paretagiñan. Harek hamazortzi bat urte zittuanetikan aurrera, gaztetan ekinda, paretagiñan, ta oso erosua. Harek Donostian estaziñotikan han beheko Amarako zerera, plaiara bittartian, han ezkerreko aldian pareta haundi bat daok. Ez dozue ezautzen zuek haura?

- Nik asko ez...

- Estaziñuan urten ta handikaldera, plaiara hoiala, baztarrengo kalia pareta haundi bat daok, kriston paretia. Haura eitten, hori mutil gaztia artian, Txirrita ta bestia zelan zuan? Artzai txikixa. [Berak paretagiñan...] Txirritak ta hori mutil gaztia berekin. Edo horrek beste bixak nausixauak eta hau mutil gaztia harekin han lanian. Han paretan ebizela ta goizian hor bederatzirak inguruan edo, medikua pasatzen [ei zuan] beti han plaia aldera. Beti zeoze esatekua eukitzen ei jua Txirrita horri, mutil gaztia ta. [Horri beti]. "Da!" jartzen [ei zuan] begira ta beti [horri]. Horrek baten esan ei jua: "Horretxek gizonorrek ya aspertuta nauka ba. Beti dauka neretako horrek zeoze esatekua. Egunen baten aittu behar du edarra". "Ez, ez, hori mediku jauna dok! Lagaixok horri bakien, medikua dok eta. Hori errespetau ein behar dik". Baiña beti jarduten ei jotsan ta egunero ta egunero ta azkenian berak alkarri esan ei jotsen: "Lehengo egunian horri jardun genduan horri bakian laga bihar [jakola], hori errespetau ein bihar dala-ta esaten. Merezi bajok zeoze esatia! Halako gogaigarrixa dok...! Beti mutil gaztiari amenazua emoten jharduk horrek". Haura entzun ebanian, bestiori, Txirritori, itxuria, pixkat mejorau zuan. Handik ondorengo egun baten bajoiak han zihar medikuori, ta medikuak: "Falta de cantero tapa albañil". Bestiak: "Falta de médico tapa enterrador".

- Lehelengua zela esan dozu? "Falta"...

- "Falta de cantero tapa albañil", igeltseruak harena arreglatzen dabela. Pareta gaizki einda badao be igeltseruak arreglau bihar. Bestiak: "Falta de médico tapa enterrador".

### 5.13. 'Txirrita' bertsolaria

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Gorrotxategi, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: SOR-024/003
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:03:55. **Bukatu**: 00:07:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena**: Jose Manuel Lujanbio&nbsp;Txirritaren bertsoak.

#### Transkripzioa

- Ta haren bertsuak badakizuz?

- [Hik esan nahiko dok] haren bertsuak. Hori solterua zuan, [ta batak eta bestiak] beti jardutzen ei jotsen ezkontzia edo bestia edo ez dakit zer ta ya zahartuta euala ta... Berak beran buruai kantau jotsen bertso bat. Zelan zuan?

Hamen mutil gazte bat ba omen zan

hogeita bi urtetarako ezkondu nahian  
oin hirurogei pasiak eta  
orandio dago gaian  
lehendabiziko horren pregoia  
aditutzen dan [garaian]  
suzko zezenak izango dira  
Plazentziako kalia.

Eta baita ere bi zezen gorri...

- Ez.

Eta baita ere bi zezen gorri-gorriak...

Eta baita ere bi zezen duan  
toreatzeko gorri-gorriak  
galanki asko kostako...

- Ez. Aldrebes nabik.

Eta baita ere zezenak duan toreatzeko  
bi zezenak gorri-gorriak  
galanki asko kostako zaizkigu baiña  
gizenak eta haundiak  
hoiek hiltzeko bi anaia  
indar haundiko gizonak  
Pedrusko eta Blasin dauzkagu  
etorritzeko esanak.

Txaltxiltxa eta lukainkarekin  
pillo ikaragarriak,  
beste berrogeta hamar kapoi pare ta ehun oilasko  
agintzen dizkigu zerriak  
beste hogeta hamabost neska narru gorri-gorriak  
mahai zerbitzeko jarriak  
hori ezkonduzian izango dira  
bankete ikaragarriak.

- Ta horrek zuk nun ikasitta dozuz, horrek bertsuok?
- Horrek bertsuok? Liburua daukat.
- A! Liburutikan.
- Nahi dok ekartia?
- Lagaixozu, zeuria entzutia nahixao dou.
- Eta nun kantau zittuan honek?
- Txirritak?
- Txirritak nun kantau zittuan honek? Badakizu?
- Plaentxian.
- Plaentxian bertan?

#### 5.14. Bertsolari ezagunak Soraluzen

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Gorrotxategi, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: SOR-024/004

- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:07:35. **Bukatu:** 00:10:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena:** Txirrita batera eta bestera ibiltzen zen bertsotan. Bertsolariak Soraluzen. Gaurko bertsolariak. Manuel Olaizola Uztapide bertsolaria.

### Transkripzioa

- Eta, orduan, esan dozu Eibarren egon zala Txirrita kantuan, ta Plaentxian be bai eta...
- Hori leku askotan orduan.
- Sarri etortzen zan hona ingurura?
- Bai. Hona ta leku askotara hori orduan, oin bersolarixak dabizen moduan ibiltzen zan hori bersuetan.
- Jaixetan lehenao bertsolarixak-eta izaten zian?
- Bai.
- Auzuetako jaixetan eta...
- Bai, bai. Hamen, gu mutikuak giñala ezautu genduazen hemen Ezozin-ta be bertsolarixak.
- Eta hona zeintzuk etorten zian?
- Hona gehixen-gehixen... Oin akordauko jatak... Kauen dio! Hau markia izango juau horraittio!
- Ta nundik edo zela? Harek orduan mikrofono barik kantauko eben, ba...
- Ordun bariken, ezer bariken. Ondio denpora asko ez dala, horren gaiñian, hau, Garmendia bersolarixa? Harek. Harek eguenetan, zortzi ta larenak aldian edo Arratetikan jardutzen jok berbetan. Ta harek esan juan "bersueta kontua ta, baiña lehen bersotan... Gaur badarela bersolarixak eta gaur badarela bersolarixak eta, baiña ez nao zihero de akuerdo" esan juan. Gaurko bersolarixak iztarririkan ez daukek, iztarrixa hortarako ipinitta ez daukek, ta hortarako iztarrixa ipiñi ein bihar hortarako. Iztarrixa pixkat gogortu ein bihar izaten da, norberak etara, ezta? Berbia haura [lorittu edo zertzera], inddarra ein ta eztarrixa preparau ein bihar izaten zala. Gaur dabizen bersolarixak altabozik barikan ipini ta nahi neuke ikustia. Edo gustauko [litzake] halako aberixa bat izenda baleo, ta halako zer baten pozik egongo nitzake, ia zelakuak kantatzen dittuen. Uztapide ta zittuan hemen [etortzen] izeten zianak. Solterua zuan Uztapide. Ezautuko huan hik igual... Ez?
- Ez, entzutia bai baiña...
- Uztapide, ez?
- Entzutia-ta bai.

### 5.15. Ezoziko jaiak

- **Hizlaria(k):** Elizburu Gorrotxategi, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** SOR-024/005
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:12:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Aisia » Kirola » Herri-kirolak

- **Laburpena:** Jaiak zelakoak izaten ziren. Ezoziko jaiak; hiru egunetan jendez beteta. Herri-kirolak: ahari-topekak; idi-probak...

### **Transkripzioa**

- Ta jente asko batzen zan orduan jaixetara? Zelakuak izaten zian orduan?

- Orduan? Aurten Ezoziko jaixetan --hiru egunetan egon dia, eztok? jaixak

Ezozin-- hiru egunetan baiño gehixao orduan Ezoziko egunian batuko zuan

jentia Ezozira. Ezozitikan, hor behetik, zerian, oin kamiñua daon lekuan,

hor bide zahar bat zuan, burdi-bide edo esaten jakona. Ta gero hamen

Armendittikan gora be dana gaztaiñadixak-eta hor gora. Horrek danak jo-ta

jentez tapauta egoten zittuan. Ezozin ordurako bazuan, taberna moduan

eukitzen eben hori, lehengo zaharraura, ta kaletikan beste lau bat taberna

kalekuak [juaten] zittuan egun hortarako Ezozira. Han [Espilla] aurrian be

bai ta [zerran] aurrian bi edo, plazan eskiña bixetan ta goiko zerian be bai,

elizpian be. Baiña jentia...! Orduan izaten zuan jentia! Gaur Ezozira juaten

dan jentia bapez harekin konparauta.

- Eta ze zian, jaixen artian haundiñak Ezozikuak?

- Ezozikuak? Ba, bezperan zeoze egoten bazan, ta gero bertan, Ezoziko

egunian, bakarrikan. Ez oingo moduan, egunetan ez zuan lehen izaten.

- Eta ze egoten zan egun hortan?

- E?

- Ze egoten zan?

- Bersolarixak eta aizkoran be igual batenbatzuek eta harrijasotzen be bai

ta... izaten zittuan. Adari toperen bat edo beste be igual ta...

- Adari topekia ta be bai, e?

- Adarixan-topekia ta egoten zittuan. Proban be bai idixekin.

- Idixekin be bai, e?

- Neu izenda nao Kiruetatikan idixekin. Oin galduta egongo dok haura, ta

hantxe plazian beheko barren-barrenian egon zuan harri zakar haundi bat.

Haretxekin, lurrari geñian.

- Ta ze, Plaentxiako beste batzuen kontra edo?

- E?

- Plaentxiako...

- Munetakua bestia. Harekin. Ta harek... Haura zuan aurretikan, tokau

jakuan, Pio edo, artistia. Ta hari tokau jakuan aurretikan ta harek bost ultze

edo ein jittuan. Nik harek ein nittuanian, ba, lagatzeko moduan zertu

nitzan. "Beste batzuek" eta "Beste batzuek" eta jentiak. Eta beste sei edo

ein najittuan. Gero merienda emon oskuen idixekin juan giñalako ta...

Demasa ein gendualakuan idixekin juan giñala ta.

### **5.16. Arbitro titulua atera eta Ipuruako inaugurazioko partidua arbitratu**

- **Hizlaria(k):** Berrueta Elizburu, Jose

- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa

- **Erref:** SOR-079/019

- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:20:37. **Bukatu:** 00:23:15

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Aisia » Kirola » Futbola

- **Laburpena:** 23 urterekin sartu zen arbitro. Donostian atera zuen arbitro izateko titulua. Ipurua futbol-zelaian jokatu zen lehenengo partidua berak arbitratu zuen 1947n: Eibar eta Elgoibarren artean izan zen norgehiagoka. Neskek jokatu zuten lehenengo partidua ere berak arbitratu zuen.

### Transkripzioa

-Zenbat urtekin sartu zifan arbitro?

-Hogeta hiru urtekin.

-Gerra ostian, ondiok gose denporan.

-Bai.

-Nundik etorri jatzun arbitro izateko ideia?

-Ez dakit ba neuk be. Zerian, han eskolan eraitten zosten arbitro moduan eta. Gero joan nitzan Donostiara ta esamiñau nitzan eta. Arbitro.

-Donostian arbitro-eskolara joan zifan?

-Ez. Karta bat eskribidu notsan presidentiari, Colegio de Árbitros-ekuari. Ta dihar in zosten eta esamiña, reglamentua ikasitta neukan eta aprobau zosten. Ta nere lehenengo partidua Eibarren izan zan, Campo de Ipurua inagurau zanian.

-Inagurau zanian?

-Bai. "Juez de línea" ni.

-Zeinen kontra jokatu eban Eibarrek orduan?

-Elgoibarren kontra. Ribalidate haundixa zan.

-Eta zer izan zan, amistosua?

-Ez, ez. Kanpenatokua.

-Orduan be baeuen "primera división" eta "segunda división" eta?

-Primera Regional. Tercera División eta horrek zeren orduan.

-Oseake juez de línea egon zifan zu...

- Inaguraziñuan. Eta beste anekdota bat daukat, zera, Ipuruan jokatu zebeñ andrak, neskak, ni arbitro nitzanian, eta neuk arbitrau neban lenengo partidua neskena. Ta neskak gizonak baiño txarrao zian kanpo foballian insultatzen alkar. "Tú eres una zorra" ta alkarri.

-Osea ke neskak euren artian okerrao...

-Gizonak baiño.

-Eta zu egon zifan arbitro?

-Arbitro.

-Eta hori ze urtetan izan zan?

-Ez dakit ba.

### 5.17. Aita maisu handia perretxikoak biltzen

- **Hizlaria(k):** Suinaga Arrazola, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** SOR-084/001
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:05
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- **Laburpena:** Perretxiko-zalea izan da Felix. Aitarengandik datorkio zaletasuna. Perretxikorik ez zegoen egunetan ere, aitak ekarri egiten zituen.

### Transkripzioa

-Zu perretxiko zalia, ortuzaina eta amorratua zara, ezta?

-Bai, bai, bai. Perretxikutan aitta zana zan ona.

-A bai?

-Gure aitta zanak lehen esan dotsut lana eitten [zuela] Ariasen. Ba orduan denpora haretan haren moduko perretxikularirik ez euan Plaentxian. Eta ibiltzia gustatzen jakon eta errez ibiltzen zan. Igarra zan eta, iao!, ibilli..., bueno!, hari jarraitzia zan... Bueno, kasua behintzat honek Ariasenian, Arias berak uezabak esaten ei otsan askotan, baten baiño gehixaotan: "Gaur urteizu nahi dozun orduan eta ekarridazuz neri perretxiku batzuek. Ta igual atsaldeko lauretan edo urten eta emon hor goiko buelta, Po-Pol aldetikan hor zera bueltak emon zerian, ekarri, ta haura pagau ta kinzenia, osea, jornala be pagau itten otsan. Bai, detallia zerak, uezabak. Ta gero ekarri harek asko eitten zeban. Hamen anekdotak harenak be badaoz. Bate ez euan egunetan, ezer ez euen egunetan be harek ekarri eitten [zuen]. Hamen jentia, Gilaneko Taberna, badakizu Gilaneko Tabernia zein dan, ezta? Han egoten zien batzuek apustua einda igual. Porke haura sartzen sanian, osea, bajatzen zanian goittikan ba Gilanian txikito bat jo barikan ez..., erakustia ta gustatzen jakon ba beran zeori. Ta "Aber, hi, Paldai, hamen apustua ein juau, aber, ez duala hainbeste ekarri ta baduala ekarri. Benga, etara dakazenak". Ta-ta-ta, etara ta betik. Bai esan zebanak irabazi. Gogorra, gogorra zan perretxikutan.

### 5.18. Maltzagako erromerietako giroa eta borrokak

- **Hizlaria(k)**: Oruesagasti Txurruka, Luzio; Oruesagasti Txurruka, Mateo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: SOR-085/033
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:50:17. **Bukatu**: 00:52:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Dantzara joaten ziren inguruko herrietara. Maltzagako erromerietara joaten zen Mateo eta giro ona egoten zen. Borrokak egoten ziren Elgoibar eta Eibarkoen artean. Baziren batzuk beti borrokan ibiltzen zirenak.

### Transkripzioa

- Baiña beti be erromeixetara ta joango ziñaten norabait dantza eittera.

- Dantzan bai, Bergara ta hamentxe. Oñatira ta. Hamentxe. Kuadrillia.

- Oñatira noiz joaten ziñien, Errosaixotan edo Corpus Egunion.

- Jaixetan-eta. Baakizu. Gu gaztetan hamen Bergara joaten giñan, Bergara hamen. Autobusa egoten zan gabian holako zer bat, "dijijentzia" edo esaten otsen eta.

- Zuek Osintxuko eta Maltzagako erromeixak ezautu zittuein?

- Honek bai, nik ez.

- Maltzara ni joaten nitzan.

- Ni basarritarretara ez nintzan joaten.

- Zer moduzko..., Maltzagan nik entzunda daukat...

- Maltzagan erromeixia earra egoten zan.

- "En aquellos tiempos"

- Basarritarrak danak.  
 - Elgoibartarrak, Eibartarrak eta Paentxiarrak.  
 - Danak.  
 - Zer moduz arreglaitten zien eibartarrak eta elgoibartarrak?  
 - Danekin ondo, danekin ondo.  
 - Burrukia be bai ugari, e.  
 - Enee! Burrukia, buenoo! Beti baten bat burrukan.  
 - Zuek plaentxiarrok erdixan egoten ziñen, edo begira edo?  
 - Beti egoten zien hor satelitiak, nik ezautzen nittuan hamengo tabernarixa, zela zuan hori, Errekaldekua. Haura artistia zuan burrukan.  
 - Errekaldekua?  
 - Ez dakik ala han goixan tabernia zekana? Salonguakin ezkondata?  
 - A bai. Zela zan haura, mekauden dies, ez nok akordatzen.  
 - Ha beti burrukan. Batzuk destakauta egoten zian [...]  
 - Baiña Maltzan! Bueno...  
 - Beti burrukan. Igual neskiakin bat dantzan eittiarren, burrukan. Bueno, horrek danian egoten zian, e. Bergan eta be bai. Bakizu, lehenao ez zeuan oingo moduan legerikan eta kristorikan. Eta zer? Ostixaka igual gero. Burrukan. Gaur [...] baiña. Orduan ez euan juezik eta kristua ta.  
 - Burrukia bukatu eta gero lagun, ezta?  
 - Guardia Zibiletara kejaz igual, belarrondoko bi emun harek eta " a callar!". (Barreak).  
 - Danekin ondo.  
 - Burrukia be bai ugeri, e.  
 - Ene!, burrukia... Bueno! Beti baten bat burrukan.

## 5.19. Parrandak Soraluzen

- **Hizlaria(k)**: Quintanilla Lete, Maite
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Oruesagasti, Ainitze
- **Erref**: SOR-098/021
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:36:04. **Bukatu**: 00:37:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Gaur egun Eibarrera juergan joateko joera aipatzen du Maitek. Parranda euskalduna erronka bat dela dio.

### Transkripzioa

- Gu hemen, gu hemen baiña bai ikusten dot gu baiño gaztiauak asko jotzen dutela Eibarrera edo beste inguru batzuetara.  
 - Eta bertako herriko girua, musika aldetik eta...?  
 - Segun lekua. Gero.. ba, karo, eske gero gazte guztiak nun sartzen dira? bolian, eta bolian oso zaila da euskal musikia entzutia. Osea, gehixau da reggetoia eta, hori, ba, entzuten dan hori. Orduan, karo, hor be gero Galtzagorrixetan-eta be bai ibili izan naiz eta hor bai zen beste erronka bat, ez? Ba, benga, goazen karnabalak holako jai egunetan behintzat hemen eustera jente hori. Ba bai gure artian harremantzeko, baiña be bai ba sortzeko juerga bat baiña euskeraz dana eta gure giruan dana. Eta hor, uff.. gero segun. Batzutan, gero hemen dagan beste fenomeno bat da, oin lokaletan sartzen dirala, eta hor oindiok zaillagua da hor sartzia. Eta hor, karo, hor entzuten dabe ya eurak aukeratzen dutena eta..

## 6. Herria, azpiegitura

### 6.1. Bidegintza

- **Hizlaria(k):** Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-003/024
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:49:45. **Bukatu:** 00:51:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Bidegintza ere auzolanean egiten zuten. Udaberri eta udazkenean konpondu behar izaten ziren bideak.

#### Transkripzioa

- Ta bidegintzan ta ibiltzen ziñien danok batera?
- Bai, bidegintzan be bai.
- [Bi] kalietako... bidiak konpondu, harrixak batu ta zulatutakuak konpondu ta...
- Ta hor izaten zian reUNIXuak eta?
- Bai bai, reUNIXuak e... bidegintzia ta... gero kuartillo bat ardaU emoten juen aiuntamentuan.
- A, hori aiuntamentuak eitten zeban?
- Bai, danak erdi mozkortuta gero. Hortik aurrerakorik... Bai ba, jaten ez juen ezer emoten ta! Lehenago [ogixa] ta... [...].
- Juan izan ziñan zu behin edo behin?
- Urtero! Behin edo behin? [Urtian haura etaratze alde], [...].
- Lehen bidiak-eta sarri kopondu bihar izaten zian?
- Udabarrixan eta udazkenian.

### 6.2. Erregetxea

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/044
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:47:20. **Bukatu:** 00:49:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Erregetxea. Goikaldean zegoen beraien eskola. Kartzela.

#### Transkripzioa

- Lehenao... aber... Erregetxia edo zeuan hor, ezta?
- Bai.
- Bai, bai.

- Haura ze...?

- Hortxe... hortxe zauen gure eskolia, erregetxian. Bai, bai.

- Goixan. Erregetxian goixan zeukaun eskolak. Eskolak.

- A! Han zan, e?

- Bai.

- Bai, bai, Erregetxian.

- Ta han ze zeuan patixo bat erdixan-ta?

- E?

- Patixua-edo zekazuen edo...?

- Patixua ez, behian zeuan... leku haundixa behian be. Han...

- Bai, han "caballería" [...]. Kaballerixia egon ei zan hor, eskolen behian, kaballerixia. Ta gero, ez dakit, ba, armendako...

- Almazena edo igual?

- Horrek badauka berorren historixia, e! Nik ez dakittetena. Baiña Erregetxian erregia be izan zala, erregia be izan zala. Ta hamen armak eitten ziran. Armak eitten ziran.

- Hortxe [egoten] da eskolia, hortxe.

- Bai. Armak eitten ziran hamen. Eta gero, ba, hor, gure eskolapian "que había tanto eso... la caballería que solían tener allí".

- Bai, "ya había allí como un patio".

- "Sí, pues, la caballería que solían guardar allí". Eta gero, ba, "aquella"... haura etxiaura, "sería donde... cuando venía el rey se aposentaba" edo...

- "Sí". Zeoze izango da, Erregetxia, ba, izango da zeoze!

- Ez zoskuen sekula... horren historixarikan eskolan be ez zoskuen emon, e! Ez zoskuen emon horren historixarik.

- Haura etxe haundixa zan, baiña...

- Haundixa!

- Bueno...!

- Haundixa! Erregetxia? Haundixa! Bai. Kañoiak-eta egoten ziran hor. Bai.

- Hantxe, gure eskolia... gure eskolia hauraxe.

- Bai. Ta han bazeuan beste lokaltxo bat be: kartzelia.

- A! Baitta! Bai.

- Hortxe Erregetxian zan lokal bat zeuan, haura kartzelia zala.

- Bai, ta bentana bat errejekin. Ez dakizu? Bateronbat hartu igual, bateronbat etorri igual eske edo ta hau [...], hantxe. Egun bat edo bi jua ta gero...

- Onbre, onbre.

### 6.3. Bizitzarekiko ikuspegia

- **Hizlaria(k):** Oregi Oregi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-022/018
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 00:41:45. **Bukatu:** 00:46:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena:** Baserrietan auzolana. Gari-ebatea. Bizitzarekiko duen ikuspegia.

## Transkripzioa

- Lehen basarritarren artian, negoziua baiño gehixao, trukian izango zan dana, ez? Edo auzolanian edo...?

- Lehen bai. Oin, auzolana, nik ez dot ezautu asko auzolana. Bueno, bai, ezautu naben pixkat gari-ebatieta eta. Gari-ebatiak eitten genduzen lau edo bost basarrik, ba, bata bestiari lagunduta. Nola izaten zan prisakua, ta guria be aiñubia, ta nola etortzen zan gerotxuao, bastante geruao, zeaittik eze euzki-begixan astebete aurrerao etortzen da igual garixa ta. Ta hor Iribera-ta batera ta bestera juaten giñan ta gero berak etortzen zian ta bata-bestiari lagunduaz, ba... Akordatzen naiz ni "dieciocho de julio" egun baten hamazortzi lagun ibili giñan gari-ebaten gurian. Ta danok lekaixoka ta. Eske hamen lana esaten dok, lanik gogorrena be [...] hartu ezkeru gauza ona dok! Pentseizu, gari ebaten berua galanta, ta danok lekeixoka ta juerga baten. Makiña bat nahikua diru [dauken] baztarren baten egongo zittuan ernegauta! "Hau dok berua" ta "ezin leikek aguentau" ta. Gu han. Ta gero merienda galanta ein [...] soruan] ta... Eske, nik beti esan juat, personia feliz ixateko gauza txikixetan dao felizidadia, e! Ojo, e! Kontu, hori! Gauza haundi-haundixetan nik ondio ez juat felizidaderik ikusi iñori be. Gauza txikixetan ta holakotxe gauzetan. Nola personia egoten dan, ze esango [...], ba? Bueno, horretarako izan bihar jok asko sakrifikaetakua ta bizimodu gogor samarra eindakua bihar jok, e! Ta harek jakitzen jok holako gauzak apreziatzen. Baiña hortik urtetzen dabenak, horrek, "Txikixak? Ba! Horrek ez jok balio bape!" ta haundira ta haundira juaten dianak, horrek, nik barrez gitxittan ikusten jittuat, e! horrek serixo ikusten jittuat nik askotan, e? Ez dok egoten hor hori umore... armonixako umoriori ez dok egoten, e!

- Eta ze diñozu, lehen basarri giruan-eta bai egoten zan?

- Bai, bai, bai. Bueno...!

- Gari-ebatiak eta...

- Gari-ebaten ta gari-joten ta demaseko juergak, mutil! Juntatzen genduzen gari-joten be igual hamabi lagun. Gero baiñau hor alberga zaharran --hor jeuan alberga zahar bat-- sartu han jo-ta hartu... Dutxarrik-eta ez jeuan orduan oingo moduan! Ur hotzetan sartu ta garbittu, edo ur berua zeozekin berotzen bazan, nahastauta edo bestia. Gero leka-patatak eta tomatiaquin ta bestiakin ta afari demasa jan. Jeneralian leka-patatia izaten zuan. Edarra! Etxeko lekak eta patatia nahi beste. Ta gero tomatiaquin ensaladak eta gauzak eta. Gozau? Ha zuan gozatzia haura! Egixa dok hori! Eske nik bi gauza ikusi ditturaz: haura gozamina ta gaurko hamengo oingo gozamina ez diala bardiñak. Ta gaur ehun bidar hobeto bizi dok jentia! Ta ez dao konforme! Eske ez jakik felizidadia nun dauan. Ez jok [gura].

- Gauza gehixao, baiña...

- Bai, bai, bai. Zihero kanbixau dittuk gauzak, e! Gu asko felizao izan gaittuk, ein douzen [ahal bihar] guztiekin ta pasau [dan]... Baiña guria bizimodu gogorra izan dok, baiña alegria izan dok bestaldetikan. Egixa da hori. Ferixara faten giñanian be barria ein ugari, [bata bestia...] ta... Hori bai, hor epoka baten, [meriendetara] juaten giñan ta beti meriendatzen genduan. Ta gaur ein ezin leikiana eitten genduan, gaiñera. Jaten genduan afari-merienda edarra ta angulak jaten genduzen. Angulak. Bai, orduan izaten zan merienda bostehun bat pezeta. Nabil esaten oin dala berrogei urteko ipuiñak, edo... Bai, gitxi gorabehera. Berrogei edo hogeta hamarretik gorakuak. Ta angulak. Aurretik ez [jakit], bi plato jango genduazen, bakarrakin basarritarra ez dok geratzen. Aurretik ez [jakit] ze izango zan, okelia edo bestia. Ta zera, bostehun pezeta. Baiña orduko bostehun pezeta dirua izango zuan, e? Gaurko hamar mila pezeta igual, e! Ojo! Bostehun pezeta erre esaten dok, baiña orduan dirua izango zuan, e!

Ta horrek eitten genduazen. Ta hurrengo baita baten baten, koño, bost ume be bagenkazen ta hurrengo zapata pare bat edo bi edo bestia. "Bueno, gaur ez noia bape ferixara, erosizue zapata pare bat". Horrek be bai, e! Eske familixako gizonak danak ein bihar jittuk. Segun ze epokatan gauzak tokatzen dian. Ez dok izaten bizimodua dana zera, baiña meriendak be mordua ta oso ondo eindakuak gaiñera. Mordua!

- Eta angulak jaten zenduezen, orduan?

- Angulak. Beti, ferixa guztietan. Holako raziño onak gaiñera, e! Badakizu, horrek lurrezko zeretan emoten zeбен. Aurretik ez dakit, ba, txuletia edo ze jaten genduan. Seguruao bai. Ta gero haura jaten genduan. [Dakit] bostehun bat pezeta izaten [zala], gero [seirehunera zeoze]... karua izaten zan. Ta haintxe. Ta ein eitten genduan. Horrek eitteko dirua eukitzen genduan. Ta gero, ba, lehen esan dotena, batonbaten, urtian baten edo bestetan tokatzen bazan estuasun txiki bat, ba, kendu eitten dok eta, ba, kitto. "No pasa nada". Hor ez daok.

#### 6.4. Bide konpontzen auzolanean

- **Hizlaria(k)**: Aranberri Laskurain, Margarita; Laskurain Lizarralde, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: SOR-043/008
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:18:30. **Bukatu**: 00:21:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena**: Orduko bideak harrizkoak ziren, beti aritzen ziren bideak konpontzen, baina eskuz konpontzea zaila zen. Baserritarrak elkartuta auzolanean aritzen ziren bide lanean urtean bitan. Lastoa idietan eta pentsua astoetan eramaten zuten.

#### Transkripzioa

- Eta esan dozu bidiak, e, oingo bidiak ez diala... ez?

- P: Bo!

- Orduan euki izan bazenduezen... Zelakuak zian lehengo bidiak?

- P: Zelakuak izango zian!

- M: Dana harrixa, ta... edurra!

- P: Ganaua, uzta... idixa uztarrixan juateko bidia be ez dana, harentzako pixkat aldamenetik edo izeten zan, baiña astuakin juateko atajua izetiarren...

- M: Hurrao izetiarren...

- P: ... txarrak igual, aldapia edo po... gauza asko!

- Eta noiz hasi zian bidiak pixkat txukuntzen edo konpontzen edo?

- P: Jardun, epoka hartan, beti konpontzen zian, ibiltzen zian —urtian ez dakit ze sasoe zan— konpontzen, baiña harek ez eguan hola eskuz konpontzerikan, zeoze, arregloutxo bat emon.

- Eta horretan ze jarduten zeбен, basarritarrak?

- P: Bai, bai, bai bai.

- M: Bai. Juntau basarritarrak, mordua.

- P: Eta aiuntamentuak erraziñua zertzen eban... ardua ta ogixa. Bai. Zenbat lagun, ez dakit ze izaten zan erraziñua, kuartillua edo bakoitz... ez dakit zer, ogixa ta erraziñua aiuntamentuana.

- Orduan, auzolanian eitten zan bidia...

- P: Bai, bai, hori bai. Urtian bi ekiñaldi izaten zian, bat udazkena eta bestia ez dakit noiz izaten zan, udabarrizan edo.

- Eta esaten dozu idixak be uztarrixakin juateko ez ziala bidiak, ez?

- P: E?

- Ose ke idixak be ezin izaten zian...?

- M: Bai, uztarrizan, beren bidia harek, beste bide batetik.

- Baiña ez bide guztia, ez?

- P: Ez, ez, ez, ez,

- M: Ta lastua kaletik idixekin jaso bihar izeten zan orduan ta astuetan pentsua, ganauentzat.

- P: Oiñ aiña ez bihar, egon be ez horrenbeste, ta emon be...

- M: Gitxitxuao.

- P: Erraziñua.

- M: Baiña astuekin, astua ta idixekin, kalia hartu lastua ta...

- P: Baiña hori lasto ekartiori be ez dakit noizkua izengo dan. Ni e... Gu gaztiak giñanian asko ez zan ekarriko. Gure aitta zanak lasto asko ez eban ekarriko. Ez dakit, baiña ez...

## 6.5. Trenarekin sustoa hartuta, ez zen gehiago joan Eibarrera saltzera

- **Hizlaria(k):** Larreategi Gallastegi, Jose Mari; Maiztegi Gallastegi, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** SOR-050/008
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:11:38. **Bukatu:** 00:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**  
 Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak  
 Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera  
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** Esnea saltzera joaten ziren Eibarrera. Maltzagako Estazio inguruari "herri txikia" deitzen diote, lehen etxe ugari omen zegoen bertan eta. Eliza ere bazegoen; eta, goizean joaten zirenean, meza entzuten zuten. San Rafael egunean, ardo goxoa eta gailetak ematen zizkieten. Astoarekin trenaren zubitik pasatu behar izaten zuten. Behin, trenarekin izugarrizko sustoa hartu zuen eta harrezkero ez zen gehiago joan kalera saltzera.

### Transkripzioa

- Jesusa: Juaten nitzan ni Eibarrera "más satisfecha que veinte". Estaziñuan partidu esniak, estaziñuan, hori, herri txikixan partidu esniak. Ta gero ba, Azitaiñera.

- Jose: Hor, zuek ez dozue ezautu baiña... Ezautu... Hor, e... hor herri... Herri erdi egon zan, e! Etxiak bota ein dittue hor danak oin.

- Eske esan dabenian "herri txikixa ez dakit ze", gero galdetu bihar netsuan bai. Ze zan, Estaziño kalia...?

- Jo: Estaziñua.

- Je: Etxe mordua zian hor, e! Zenbat bizi [...]?

- Jo: Ta ferrobixuak egongo zian. Egon, egon pixkaten. Hemendiko etxe haundixan hamabi, gero bestien...

- Je: [Rojonian] lau.

- Jo: Gero lau. Hamasei. Ta handikaldian, beste lau, hogei. Hogei pisu eren

ta famelixak haundixak batzuek, e! Bueno! Ta etxe polittak zian.

- Je: Gero elizia ta...

- Jo: Elixia be hortxe euan.

- Je: ... baserritxo bat. Mezetara juaten giñanian, ardaua emoten eben, ardau gozua gailletekin. [...] izeten zan.

- Jo: Noiz? Noiz?

- Je: San Rafael egunian bai behintzat!

- Jo: Bai, orduantxe-edo, e! bestela hor bertan euan asko bestiena asko gustatzen jakuenak...

- Je: [...] gero txokolatera, txokolatera be inbitatzen giñuezen bertako barrixokuak.

- Hori jaixetan.

- Je: "Bajatu, e, behera, txokolatia daukau gaur gabian ta!" San Rafael egunian.

- Jo: Bai, bertako esnia, eurei eruten gontsen. Gure esnia hor egon zan jefe batek, e...

- Je: Bai, donostiarra.

- Jo: Zela eban harek izena? Bastida zan apelidua... Luis! Bastida.

- Je: Luis Bastida.

- Jo: Majiñatxo bat urtian Donostian esnia hartu eban harek guria, hemengua. Harik eta laga gentsan arte, orduantxe. "Ni ez noia gehixao horra, ni ez noia!" esan eban honek, "Ni ez noia!" ta...

- Je: Eske pentsau neban ya hil bihar nitzala!

- Eta ze gertau jatzun, baiña?

- Je: Bueno, ba, banoia astuakin traillatik, ezta? Hola astua, [sokatik oratu] aurrian ta ni... Ni aurrian. Atzian juaten banaiz, han apurtuko nau!

- Jo: Atzian... bertan txikittuko eban!

- Je: Dana apurtuko nau! Ba, astua hartu kurioso-kurioso, ta badakizu, zubixa ez da leku...

- Jo: Tren zubixa! Han astuak edozein ez, e! Personak be bazian gero han pasau ezindda ta bildurtuta ibiltzen zianak! Personak be!

- Je: Bai. Ohittuta zeren gure astuak eta. Bat, gaiñera, geunkaun... "Juan handikaldera! Ala! Juan!", hartu hemendikaldien kantiñak, laga hemendikaldien, bera bajatzen zan bakarrik "taka-taka-taka" ta handikaldian egoten zan, lotu ta ezebe ein barikan. Ipurdixa emon zerari ta zain egoten zan, nere zain. Hantxe eoten zan. Erakutsitta, e, astua! Ta holaxe baninddoian ta gero esan ostan, ba, "Espera un poco. —zerak, guarda-agujiak— Espera un poco. Cuando paso yo, pasas tú ". "Resulta que en vez de pasar para hacia Elgoibar", etorri jatan neregana makiñia! "¡Mira!" Nik orduan...

- Je: Astuari hauxe ein etsan, buelta osua erein ta beoni ezebez. Aurrian zoialako. Atzian jun balitz, jo ta txikitzen dau bertan!

- Je: Zestuak apurtu. Ta hori baiño... astuai ez jakon ezer pasau, ta neri be ez.

- Jo: Bueno astua... Astua...

- Je: Sustua...!

- Jo: Zestua...

- Je: Iñok kentzekua ez, e!

- Jo: Marmitt bat apurtu, esniekin zoiana, ardi esniakin zoiana.

- Je: Bai, bai. Hillebete ein neban iñora barikan, ez hara, ez hona, ez beste aldera. Gaixotuta. Gabian be trena sentitzen neban, gabian be sentitzen neban trenan zaratia.

- Jo: Neuk ibili biher izan neban...

- Je: Ai! Esan... Juan... Jaso nindduen hara kantinara ta "Ene! Le vamos a avisar a Jose Mari ". Dana erdalduna zan orduan. "Jose Mariri abixau bihar dotsau". Halaxe hau bajatu zan behera. Hau billurtuta zihero. "Ez jata

ezebe pasau, baiña sustua hartu dot billurgarrixa”. Ta ze ein genduan gero orduan? Juan ein ziñan esniekin? Ez.

- Jo: Ni bai, nik eruan nittuan! Bai, ba! Billotsa be baeuan ta...

- Je: Bai, bai.

- Jo: Esniak eta dana. Neu jun nitzan.

- [...] ?

- Jo: Astuan, ta ez jakon ezer pasau!

- Je: Ezer pasau ez.

- Jo: Ta Azittaingo... Azittaingo... Azittaingo Pablondako billotsa zan.

- Je: Ni hortxe egon nitzan, hau etorri arte. Dana... Ni... Kurutzia ein neban, “Ni ez noia gehixao horra”.

- Jo: “Etxera jun zaitte ba” esan notzan.

- Je: “Ni ez noia gehixao horra”.

- Jo: “Etxera jun zaitte ba”.

- Je: Kurutzia ein neban, “Ez noia gehixao iñora”.

- Jo: Ixo eban etxera ta tira!

## 6.6. Negozioak Donostian

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: SOR-056/012
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:13:10. **Bukatu**: 00:14:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak  
Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Amandreak beroki luze bat egin zion, baina motz geratu zitzaion. Ama San Inazion ezkondu zen, Donostian, eta bizikletak alokatzeko denda jarri zuten, eta gero ostatua. Aita (bigarren aita) oso negoziantea zen. Ama Donostian bizi zen, eta bera Plazentzian.

### Transkripzioa

-Eta /da/ behiñ, bai ba, amandriak in zostan abrigo bat luzia, ezta, denbora askorako. Baiña azkenian neukan hola, ja-ja-ja. Eta besteik ez neukan, itxuria, eta /da/ gure ama ondiok lanan billa edo /ero/ ta. Lelengo ipiñi zeben ezkondu zienian, San Inazion ezkondu zien, eta ezkondu zienian ipini zeben "alquiler de bicicletas", zeozekin hasi bihar.

-Donostian?

-Bai, "alquiler de bicicletas". Gero motorrak, gero ipiñi zeban "casa de huéspedes", Casa Vitoria zan gure ama. Dana extrajerua. Ni juten nintzan da bli-bla-blon... Frantzesak puxkat bai aittai entzunda-ta, egunero entzuten.

-Baiña zu bizi ziñan Plazentzian eta ama Donostian bittartian?

-Bai, bai. Ama lanera joan zan, bai ba. Lana ta gero, badakizu, ezkondu edo /ero/, ez dakit /eztaki/ nik, ezkondu zien, baiña diruik ez eta, ez dakizu /eztakizu/? Baiña gure aitta negoziante seguro. Oso ona zan. Amak zenbat bidar esan dau: "Con aquel no faltaba dinero, sacaba hasta de debajo de las piedras sacaba dinero". Dana negozio, oso ona zan.

-Bigarren gizona, ezta?

-Bai, bai.

-Bestia ez ziñuan ezautu.

### 6.7. Umetan, giro erdaldunean

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: SOR-056/016
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:19:29. **Bukatu**: 00:20:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Erdaraz asko egiten zuen umetan. Bera hazitako etxean erdaraz egiten zen, gizona kanpoko zelako. Amak ere ez zekien euskaraz: Portugaleten jaiotakoa zen. Kanean ikasi zuten euskaraz, eta Frantzian ere bai, gerra sasoian. Besteek ez ulertzeko, ahizpak eta biak euskaraz egiten zuten.

### Transkripzioa

-Erderaz asko egitten zan zure txikittan ala zuk euskeraz eitten ziñuan gehixao?

-Keba! Nik erderaz. Eske ni hazittako etxian, bera riojanua zan, erderaz eitten zebe. Andria ez, harek zekixen, Tolosakua zan, eta /da/ ederki eitten zeban harek. Baiña beti erderaz. Eta /da/ gure amak be /pe/ ez zekixen.

-Amak be ez?

-Ez zekixen. Portugaleten jaiotakua zan. Han etxia eitteko edo /ero/ eztakit ze joan zien eta /da/. Hortxe jaio zan. Baiña ez zekixen ezebe. Da gu jun giñan gerrara, eta guk beti eitten giñuan berba euskeraz, beti. Baiña eske danak kastillanuk, bata burgalesa, bestia zan gizona Avilakua; bera bai euskalduna baiña. Gizona Avilakua ta harek be /pe/ dana erderaz.

\_Eta zuek ikasi ziñuen euskeraz kalian, ezta?

-Kalian. Eta /da/ Frantzian. Guk bestiak ez entzuteko, euskeraz; aitzia ta bixok euskeraz. Amak be /pe/ ez zeban entenditzen eta /da/. Gure sekretua, ja-ja.

## 6.8. Donostiatik Plazentziara, gero Bilbora

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** SOR-056/025
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:30:40. **Bukatu:** 00:35:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Donostian ez zuten denbora asko egin gerra hasi zenean. Ama beldurtu egin zen metrailarekin, eta Plazentziara joan ziren denak. Zerbait ahaztu zitzaien, arropa edo. Osintxuko osaba-izebengana joan ziren, bisitan, eta aitaita joan zitzaien bila. Oinez. Euren zain zeuden, trenean Bilbora joateko. Bagoia bete zuten. Trenean ibiltzen ziren orduan. Plazentzian ere ez zen giro. Familiako bat karlista zen, eta aitaita harekin geratu zen. Bilbora iristean esnea eman zieten. Etxe bila ibili ziren. Zubi bazterrean geratu ziren, maletak zaintzen. Emakume nafar batek nola lagundu zien.

### Transkripzioa

-Gerrara bueltauta, Donostian zenbat egun egin ziñuzen gerria urtenda gero?

-Asko ez. Eske gure ama zeuan hola atian, marmola zeuan hola, eta /da/ haura kendu eta bera egon zan tokixan zulo bat. Esto, zera etorri zan, metraillia. Eta esan zebe "del barco, del barco que había venido". Ez dakigu /Eztakigu/ nundik etorri zan. Eta gure ama sustauta: "Ene, vamos a Plaentxi". "A Plaentxi", danok Plaentxira. Eta /Da/ gero han gendezen, nik nere erropia ahaztu edo /ero/ ez dakit /eztakit/ ze. Aztu.

-Donostian ahaztu?

-Donostian ez, Plaentxin. Hara eruan eta gero han aztu. Eske gu jun giñan, amak esan oskun: "Porqué no vais a donde los tios de Osintxu?" Bisittara, ezta. A, joan ingo gara. Jun giñan. Lengusiña bat Eibarkua eta nere aitzia ta ni, hirurok. Jun giñan eta /da/. "Oñ egon, [...] dauzkat, egon egon

puxkatian, emun bihotsuet, ez jun". Eta guk: joan ein biou" ta. "Ez, ez, egon, itxoin, itxoin". Itxoitten. Aittaitta dator, prixaka. "Ai, ume, joan segittuan etxera, eske trena dator, trena ipintzen dabe hamarretan eta /da/ jun in biha zate danok eta; jun etxera". Koittaua oiñez etorri zan. Eta /da/ danok gertauta, eta /da/ gu ezebe barek. Bagoi osua gure familixakua.

-Bilborako?

-Bai.

-Eta Donostiatik Plazentziara be trenian etorriko zinaten.

-Trenian, bai ba. Orduan trenian. Bai, orduan ez euan autobusik eta oingo moduan. Orduan ez euan halakorik.

-Eta Plazentziara bueltau ziñatenian, Plazentzian ze giro edo ze. Nahastuta egongo zan ba, ezta?

-Bai, hoixe nahastuta, ondo nahastuta, gaiñera. Gure familixan bat karlistia zan. Haura geratu zan Plaentzin. danok Bilbora, danok jun giñan Bilbora.

Eta /da/ gure aittita ba geratu zan estaziñuan negarrez. Pena bat. eske harekin bizi zan, karlistiak bizi zan eta /da/. Ja-ja-ja-

-Orduan bixak bakarrik eta beste danak aurrera joan ziñaten.

-Bai, hamar zien, hamar anai-arreba.

-Jente asko joan zan Plaentxitik zuekin batera?

-Puff. Trena beteta luze-luzia, pon-pon-pon. Aillegau giñan eztakit noiz, eta en la afueras de Atxuri egon giñan, eta emun zoskuen hola baso, esnia baso batekin danoi, ala!, aiba. Eta hantxe egon giñan. Eta hurrengo egunian ba etxia billau bihar bizitzeko ta etxerik ez eta. Gu geratu giñan zubixan. Zubi haundiena. Zela da haura?

-Bai, Bilboko San Antongua edo aiuntamentukua edo Arenalekua edo?

-En el Arenal. Arenalekua. Hantxe gertu giñan gu hola baztar baten, maleta danak laga oskuen han eta /da/. "Cuidar esto, e, cuidar esto, enseguida venimos". Enseguida?, bai. Egon da egon da egon da egon, eta halako baten: "Tú qué haces aquí?". Etorri da bat eta gure goikua, gure goikua Donostiakua. Naparra zan haura be baiña andra bat! Gabardiñak eitten bizi zan haura, jostuna zan. Eta harek: "Nada, ya tengo yo casa. Ala!, venir, tenéis que venir a mi casa. Haura zan etxekua, gure etxian beti egoten da gure etxian da gure amakin-eta /da/ lagun haundixa. "La segunda madre", beti esan dou. Eske Barzelonan be juntau giñan, Bilbon be bai, danian. Eta /da/ eskerrak berai, asko lagundu zoskun.

## 6.9. Errotetan armak egiten

- **Hizlaria(k)**: Oruesagasti Txurruka, Luzio; Oruesagasti Txurruka, Mateo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: SOR-085/002
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:01:37. **Bukatu**: 00:03:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak  
Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- **Laburpena**: Luzio Barrena etxean jaio zen. Barrena lehenago errota izandako eraikuntza zen, eta armak egiten ziren bertan uraren indarraz baliatuta. Lehen errotetan kanoiak zulatzen ziren.

### Transkripzioa

-Eta zu, Luxio (nun jaio ziñan)?

-Ni Barrenan. Barrena etxia zan, basarrixa, moduko bat, lehenao errotia izendakua, armak itten zittuen hor, hor errekazuluan, taillerra dakagun lekuan, hantxe zeuan basarrixa.

-Aurretik errotia izandakua, e?

-Bai. Hor armak eitten zian. Barrena zan...

-Kaiñoiak eta barrenatzen.

-Gure albokua da Galtzairukua, han galtzairua itten zan, eta hor barrenak armatzen zittuen. Antziñan indarrak ez zeuanian urakin itten zittuen ba. Bai, hau Plazentzia famosua izan da.

-Sagarerrekoa dana, dana.

-Hori Sagarerreka hori...

-Orduan errotatan...

-Hor dana errotia zan. Behetik goraiñok.

-Kaiñoiak zulaketako?

-Bai. Kaiñoiak itten zittuen hor. Kaiñoiak zulatzeko hor zeren ba, ipintzen zeben turbinia, depositua etxiak atzian depositua, ta handikan, turbiniakin urakin eje bat, bakizu, urak joten dotxa, gero handikan trasmisiñua, ta trasmisiñotikan ba ipiñi bueltaka. Gauza bat bueltaka ipiñi. Horixe zan arma...

-Lehenengo taratulua, ezta, industrialia.

-Bai, hau dana industrialia. Hor behera be taillarrak mordua zeren, e. Guk geuk gaztetan ikusi genduzen. Hor zeren oindio han. Gerra denporan eta hor zeren, hor beheratxua, hamen kamiñuan ixa. Kamiñuan ixa hor zeuan taillarra hortakua demasa. Trasmisiño guztia. Trasmisiñua esaten jako horri, ez dakizu, trasmisiñuekin. Abandonauta zeren baiña.

-Errota bakotzak presatxua eukan edo?

-Bai, bai, presia zekan. Presia ta depositua atzian. Etxian atzian depositua.

-Saltua.

-Eta etxe zahar honek, komunak etaratzen zien danak deponitora. Sistema guztia Euskal Herrixan gehixenetan.

## 7. Lanbideak

### 7.1. Biografia laburra: eskolara noiz arte; gaztetatik umezain...

- **Hizlaria(k)**: Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-004/002
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:01:00. **Bukatu**: 00:03:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Lanbideak » Neskameak  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena**: Eskola kontuak. Eskola municipalak; mojak. Eskola amaitu eta umezain Bergarara. 14 urterekin Gasteizera umezain bost urtetan. Soroluzen gerra ostean lantegietan lan asko zegoela eta bertara itzuli zen.

### Transkripzioa

- Eskolan zeuek nun ibili ziñien? Edo nun...? Zela zan orduan?

- Bai. Munizipaletan.

- Bai.

- Herriko eskoletan.

- Munizipalak zian?

- Bai. Gero monjak be bazeren, e? Monjak. Baiña harek aberatsenak ziran.

- Orduan, ahal zanera jua bihar.

- Bai. Ta hamahiru urtekin eskolatik urten ta kriada. Ume zain edo kriada edo...

- Hemen, herrixan bertan?

- Ez. Lehenengo jua nitzan Bergarara ume zain. Eta han be ondo [nengon] ta atzera deittu osten etxetikan Vitorixara.

- Juateko.

- Juateko. Hamahiru-hamalau urtekin. Hartu maletatxo bat,— kartoizkua zan orduan, e— ta señaik portamonedan. Jua Vitorixara ta munizipalari: "¿La calle Dato dónde está, por favor?" Erakutsi ostan ta han bazekixen nindoiala eta...

- Badakit, Dato kalia badakit nun dagon.

- Onbre, prinzipala da ha kalia.

- Eta deittu [otsen] tinbriari ta "Aquí estoy porque he venido" ta ala! Sartu ta...

- Barrura.

- "Con trece años, ¿eh?"

- "Con catorce años".

- Eta zenbat denpora han?

- Ba, han... ba... gerria baiña urtebete lehenago jua nitzan, "en el treinta y cinco". Ta gero han nenguan oso ondo, e! Oso ondo. Lau urte in nittuan. Lau... bost urte in nittuan etxe haretan, baiña oso ondo, e!

- Bost urtian, e?

- Bost urte ein nittuan han! Ta gero, bai ba, hamen hasi ziran zerak, taillarrak. Neskak-eta jente guztia orduan, asko sartzen zan, andrak eta neskak eta danak. Eta gure amak eta aittak hamen asko irabazten zala ta... ala! Oin ez dao holakorikan. Oin, zu konforme bazare leku baten, nahiz ta amak eta aittak esan etortzeko, ez dia etortzen.

- Ez, diferente dao oin hori...

- Baiña gu etorri egin bihar. "Estaba yo contenta allí". Oso pozik nenguan ni han. Baiña "aquí que se ganaba más", taillerretan asko irabazten zala ta ala! Etorri ein bihar. Ta gero hamentxe. Hamentxe lagunekin [...] ta ezkondu ta gero sei ume ta... Gure bizimodua! Gure bizimodua holaxe.

## 7.2. Donostian liburu denda

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** SOR-056/023
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:28:22. **Bukatu:** 00:30:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Negozioak, dendak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)  
Aisia » Kultura » Irakurtzea
- **Laburpena:** Aitaren liburu denda, Grosen: Mirakruz, 28. Mundu osoko egunkariak zeuden. Beraiek ere egoten ziren dendan. Liburu handiak, estutxeetan. Ezkutatuta egoten ziren haiek, eta erakusteko bulegoan

sartzen ziren; garestiak izango ziren. Segituan ikasi zuen irakurtzen. Lezioa jakin gabe ez zen eskolara joaten.

### Transkripzioa

-Lehen esan dostazu librerixia zeunkela Donostian. Zelako librerixia zan?

-Librería de Gros. Em la calle Miracruz 28. Zela esango dotsut? "Muy buena. Periódicos de todo el mundo había. De todo el mundo había".

-Amak eruatzen zeban?

-Aittak. Aittak eruatzen zeban baiña ama egoten zan dendan, eta /da/ geu be bai, geu be askotan egon gara..; eta gu pozik. "Ala!, os quedáis las dos. Pero ahí no andar, e; ahí tampoco". Basta esan esan guk ikustera. Eta liburuak zeren, liburu haundi batzuek estutxe batzuetan, Ai!, harek zien liburuak!

-Edarrak?

-Ederrak!? Baiña egoten zien barruan han goixan ezkutauta. Harek eroatera zatoztenian ofiziñan sartzen zittuan harek. Itxuria oso karuak zien, baiña zien polittauak! Bat zeuan loraduna. Ai, zelako politta! Neri lorak beti gustatzen jataz.

-Zeuk irakurtzen ziñuan orduan?

-Bai, bai. Nik segittuan ikasi naban irakurtzen.

-Zer irakurtzen ziñuan?

-Eske asko gustatzen jatan. Nik gabian beti-beti-beti leziñua. Ni leziñua jakitzeke ez nintzan juten eskolara.

-Eta irakurri zer, nobelak ala harrapatzen ziñuana gaztetan?

-Ba gaztetan nobelak eta ez, orduan badakizu, la doctrina ta halakotxiak. El catecismo ta.

## 8. Politika

### 8.1. Gerra garaian Gasteizen

- **Hizlaria(k)**: Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-004/003
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:03:10. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra garaian Gasteizen. Familiako kontuak. Anaia preso egin zuten; ahizpa Bizkaia aldera ihesi; gurasoak Soroluzen gelditu ziren.

### Transkripzioa

- Bai, ba, ni e... gerra-denporan hor zihar juan giñan.

- Ni ez nintzan juan gerra-denporan hortik zihar zegaittik eze Vitorixan nenguan, kriada nenguan Vitorixan. Eta haura lehenengo egunetikan nazionalekin geratu zan ta...

- Ta han libre?

- Han libre... eta han kitto! eta gaiñera asko sufritzen neban, e? Zegaittikan e... Plazentzian gorrixekin, eta enee! gurasuak hamen. Gero reketiak sartu ziala, aurrera juan bihar etxeuak eta gero, ba... Aitta ta ama ez zian juan,

baina anai-arrebak, anaixa bai, anaia bai, juan zan, ta e... Elisabete, moruak bularrak-eta moztutzen zebela ta... aurrera, juan bihar, Bizkaixara... ta harek noiz etorri? Gure mutilla, gure Migel harrapau zeben prisionero ta... Eneee!

- Anaia?

- Anaia, bai.

- Ta gero, ba, haura be... aitzia be etorri zan. Haura kanpora ezkondu zan, ta gero, ba, hamentxe, gurasuekin...

- Poliki-poliki?

- Hamentxe...

## 8.2. Gerra garaian, Soraluzetik ihesi

- **Hizlaria(k)**: Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-004/004
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:04:30. **Bukatu**: 00:06:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Gerra Zibila irten zenean, 14 urte zituen. Lehenik, Bilbora ihesi; gero, Santanderrera eta Frantziara. Mairuek sarraski ugari egiten zituztela aditzen zuen, eta Soraluzera itzultzeko beldurra zeukaten.

### Transkripzioa

- Ba, ni horixe. Hamalau urtekin gerria zertu zan. Kanpora fan. Bilbotikan... Lehelengo Bilbon egon giñan. Bonbardeua bonbardeuan gaiñan. Nik hartzen neban... Zatopek, badakizu zein zan Zatopek? "Un corredor de esto"... "No hay quien me pillaba a mí". Eneee... Ta gero Bilbotikan Santanderrera. Santanderretikan Franziaara.

- Bai, nik gerria ez neban pasau.

- Franziaara. Lehenengo egon nitzan familixa batekin han. Berekin, hartu zosten ta. Gero handikan etorri nitzan tio [bat...], nere aman anai bat [zeuan] Hendaian ta hantxe egon nitzan. Gero han be, gero, harek kanpo de konzentraziñora juan bihar zala ta honaxe etorri giñan. Bildur bat hona etortzeko... Horixe. Honek esan dabena, hemen moruak eitten zabela ez dakit zer ta badakit zer ta bildur batekin ni hona Plazentziara...!

- Ta zeu bakarrik ibili ziñan?

- Bai, bai, neu. Bildurra nakan hainbeste bonbardeuari ta hainbeste... Laga ama ta aitzia ta ni zerera. Bai. Oin baiño balientiaua.

- Ta zenbat...? Denpora askuan ibili ziñan kanpuan-ta?

- Ba, noiz etorri nitzan ni hona?

- "Cuarenta y..."

- [...] "desde el treinta y seis"...

- Gero hona etorri hona... Enee... Ni hemen daneri [...] baiña daneri bildurrez, e? Gero biharrera ta gero hantxe. Baiña pasauta "las canutas".

- Ta, orduan, lau urte bastante [...]?

- Bai. Lehelengo Bilbon egon giñan bastante denporan.

- Bai, hemen gerratia gogorra izan zan. Gogorra. Nik ez neban pasau, e! Nik ez neban pasau.

- Nik bai. Nik pasau nittunak...! Gero Barzelonara. Barzelonara.

[Santanderretikan] Barzelonara. Han Granollers-en [gaozen], bonbardeo bat egon zan, baiña... Gernikako pare, e! Ta hori, tio, nik esaten dotena, haura Barzelonan zauan ta gu Granollersian. Ta etorri zan pentsatzen gu jua giñala Pekiñera. Ta ondiokan be bizirik.

### 8.3. Bonbardaketak Bilbon

- **Hizlaria(k)**: Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-004/013
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:15:00. **Bukatu**: 00:16:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerra garaia. Bonbardaketak Bilbon.

#### Transkripzioa

- Zuek ez dozue pasau ta zuek ezin zaraz... Ezin zaraz...  
- Ez, ez, ez. Keba! Ezta hurrik emon bez!  
- Sirenia joten zebanian Bilbon ta, nik laga, bai, danak etxeak eta tuneletara. Osea, han, "Siete calles" zela dauan zera? Han ipintzen [zeben] zakua ta hantxe sartu ta... Uste han...  
- Hantxe egon?  
- Aiii...! Bilddurra!!  
- Vitorixan be noixian behin joten eben sirenia. Ta...  
- Bilbon asko.  
- ... ta subterraneo batzuetara juaten giñan.  
- Ta, hor, Granollers-en egon giñanian, joten zebeu sirenia ta juaten giñan, etorri etxera, sartu etxian ta berriz. Ala berriz be! Haura zan bizimodua, e? Eneee...! Bilddurrez, bildurrez aidian! Ta gu zerera, hor zihar kanpora, ta beste batzuek...  
- Onbre, onbre!  
- Harrapatzera.  
- Onbre! Harrapando, harrapando. Hamen be ein zittuen demasak ein zittuen hamen be.  
- Bai. Han be [eitten zebeu, ba]. Zu hor zihar jua zertzera ta beste batzuk sartu ta ala!  
- Etxia lagatakuan?  
- Bai. Bai. Enee... Horretakuak asko egon zian.  
- Ni amakin ta aiztiakin. Aitta karzelan; [Zestaon] egon zan, bai. Bai. Ipiñi leike liburua, baiña... Bai. Asko, asko, asko.

### 8.4. Razionamendua

- **Hizlaria(k)**: Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-004/014
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:16:30. **Bukatu**: 00:17:05

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerra ostea. Errazionamendua.

### Transkripzioa

- Ta gero, han, gerra-ostia ta gero, etorri [ziñenian]-ta, ya orduan pixkat mehoratzen juango zan poliki-poliki, ezta?  
 - Bueno, orduan ez zeuan... Dana rasionamentua.  
 - Bai.  
 - Janakin-ta?  
 - Eneee... Postgerrira zan... Gosia.  
 - Ogixa, ezin jan ogirikan be.  
 - Ogixa, holakotxe bollotxuak, integralak edo zera... gogor-gogorrak.  
 - Baiña desiatzen jateko!  
 - Baiña...  
 - Ni be bai, e? Enee... haura jateko.  
 - Gose haundixa pasau zan.  
 - Asko, asko.  
 - Baiña, tira! Ein genduan aurrera zela edo hala. Baiña etxian egoteko pozik.  
 - Bai.

## 8.5. Gerra garaian, Gernikara ihesi

- **Hizlaria(k):** Aranberri Laskurain, Natividad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ariznabarreta, Gurutze - Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-010/002
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:01:45. **Bukatu:** 00:02:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Sasoi ederrenean zeudela, gerratea sortu zen. Beldurra demasa; Gernikara joan ziren ihesi. Bertan, 9 hilabete egin zituzten; baserrietan lan egiten zuten jatekoaren truke.

### Transkripzioa

Ta graziak zertu jakuzen... gerratia... gerrira etorri jakun sasoirik ederrera geunkanian, gerrira etorri jakun... "bata eitten jone, bestia eitten jone... hau eitten jone..." sustauta hanka ein genduan kanpora, Gernikara. Bederatzi hillebete ein genduzen!  
 Ez erroparik geunkan, ez dirurik geunkan, ezebez! Ezta ezebe!  
 Hantxe, baserrietara jua giñan Gernikan biharra eittera talua eta esnia jateko. Bai ba, zeozer ein bihar zan, ez geunkan ezer..

## 8.6. Gerra garaiko pasadizoak

- **Hizlaria(k):** Aranberri Laskurain, Natividad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ariznabarreta, Gurutze - Unamuno, Egoitz

- **Erref:** SOR-010/003
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:02:10. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Maltzagan kontrola. Anaiak 16 lagun ezkutatu zituen trenean. Gerra garaiko kontuak.

### Transkripzioa

Maaltzan (Maltzagan) kontrola eguan... anaiak eruan genduzen trenan asientuan azpitan gure hanken ostian sartu, eta Maaltzatik aurrera, Maaltzan gorde genduzen azpitan anaiak...  
Ta, halaxe... hamasei lagun juañ giñan, gerratian, sustauta...  
Domekarako batzen giñan San Andresera, San Andresera batzen giñan ta: "ene, demasak eitten ei jittune, hanka ein bihar jonau!"  
Astelehenian, lau terdietako trenian, Gernikara, 16 lagun:  
Kiruetakuak bi anai-arreba, Guentxekotxokuak, 4 eta Joxe Mari Etxebarriko, 5; Izarreko... edo gu, 5 anai-arreba Goenetxekuak eta gero Erreterixarrak eren, Erreterixatik hanka ein eta hona etorritta, harek be gerekin. Eta zertu genduan, hamasei lagun juañ giñan, zer janik ez, zer jantzirik ez, ahal zan moduan, mutillak eruan euskuezen zerera... frentera, ta danok ondo etorri; hamasei juañ eta hamasei ondo etorri, danok ondo etorri. Ta hona pasau giñan, hartu zittuen soldau Guentxekotxoko Klaudio difuntua, Marian anaia ta gure anaia, hil zana, Jose, frente hartu zittuen hona pasau giñanian, Guentxekotxoko hil eta guriari balia sartu eta balia ez zotsen etara balia, balia barrurako joxek... bai, holaxe.

## 8.7. Gernikako ibilerak gerra garaian

- **Hizlaria(k):** Aranberri Laskurain, Natividad
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ariznabarreta, Gurutze - Unamuno, Egoitze
- **Erref:** SOR-010/005
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:06:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gernikako ibilerak gerra garaian. Hasiera batean udaletxeko lokal batean egon ziren, 7 hilabete inguru. Baserrietara joaten ziren lanera. Frontera joandako mutillak. Bertako baserrietan ere miseria hutsean bizi ziren.

### Transkripzioa

-Ta Gernikara heldu ziñanian zer, han zer?  
- Gernikara allegau giñan ta lokaltxo bat aguantau genduan, geunkan lokaltxo bat, eta hantxe zertu giñan, hantxe lokalien egon giñan zazpi hillebetian. Baiña gu juaten giñan basarrietara, basarrixan ohittuta zelan genden... basarrietara biharrera juaten giñan eta hantxe basarrietan lo eitten genduan. Zazpi hillabete Gernikan. Etorri zan Gernikako bonbardeua...  
- Eta dirurik ez zotsuen emoten, ez?  
- Ez, jana, jaten, jaten... Zera, e... Gero anaiak pagau eitten eutsen zeozer,

frente hartu zittuen anaiak... Bitor, Joxe, eta gero Kiruetako bat be bai, Joxe Mari Guentxekotxo, horrek frente hartu zittuen.

- Eta harek zenbat denporan egon zian?

- Zazpi hillabetian, danok alkarrekin, danok alkarrekin, 16 lagun alkarrekin...

- Baiña frentian egon zianak.

- A! Frentian egongo zianak zian... Joxe Mari Guentxekotxo...

- Baiña zenbat denbora egon zian?

- Harek egongo zian sei bat... bost-sei hillebetian egon zian. Eta gero holaxekan zertu giñan ta etorri jakuzen anaiok pagatzen zotsen zeozer ta diru pixkatekin, ha zan poza! Batak soiñekua ein, bestiak beste gauza bat ein, danok zeozertxo erostera haretxen diruakin antxintxika Gernikara. Mendatan genden, Gernikatik hiru kilometro, baillara txiki baten. Danok harek ekarten ebenian dirua, danok aintxintxika zeoze erostera. Pixkat danok.

Eta hango basarrikuak be miserixia euken orduan...

Eta jaten emoten euskuenian talua eta esnia pozik gu, pozik...

Talua eta esnia asko jan genduan, e? Haura zeuken errezena erak be, ezta?

Ganauak etxian, ta... esnia ta artiriña ta, hauxe, talua ta esnia, ta... pozik.

## 8.8. Gernikako bonbardaketa

- **Hizlaria(k)**: Aranberri Laskurain, Natividad
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ariznabarreta, Gurutze - Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-010/006
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:06:55. **Bukatu**: 00:09:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gernikako bonbardaketa. Gaeuz ihes egin eta Bilborako bidea hartu zuten. Bilbon Soraluzeko ezagun bat aurkitu eta orduko ibilerak. "Gu gorrixak ikusittakuak gara, e?...."

### Transkripzioa

- Gero etorri jakun, e, Gernikako bonbardeua, bonbardeuan hanka ein genduan, e? Goizeko ordu bixetan urten genduan, geunkazen erropatxuak oheko zeretan... alameda-azaletan hartu, ta danok oiñez Bilbora hasi giñan. Baiña nola! Dana "tarr" "tarr" holaxe batallatzen abioiak gere gain-gaiñera etorritta!

Zulo guztietan sartzan, ezkutau ezinda, danok, ezkutau ezinda!

Goizeko ordu bixetan urten genduan Gernikan ta Bilbora. Gernikara urten genduan goizeko ordu bix... pentsaizu, goizeko ordu bixetan Gertikatik oiñez, e? Hartu bai geure erropak bizkarrian ta hala! Ezin, baiña! Ta gero han be lo-lekurik ez. Jardin baten egon giñan lehenengo egunian.

Gero hurrengo urten genduan han jardifietik goizian eguna zabaldu ebanian urten gendun Bilbon kalera ta, "Lila" esaten otsen sekretarixotxo bat hementxe Plazentziakua tokau kalian. Eta

"Ene, hemen zabizie? Zelan, ba?" "Gu ahal dan moduan etorritta gare atzo Gernikatik hona. Halako jardin zeretan egon giñan eta ointxe urten dogu handik honantz". "Bueno, e... batzueri neuk ipiñiko dotsuet biharra".

Heridutakua ekarten eben asko kalera, mendixan heridu... heridutakueri jaten emoten, esan euskun. Jaten emotera pozik gu: ni, Pepita

Guentxekotxo, Kakuakin ezkontuta dauana, Kiruetakua ta ni, hirurok, jana zerbitzera. Sobratzen zana etxian geunkenei eruaten gontsen pitxarretan lentejia edo zeoze han sobratzen zana bestieri eruaten gontsen, han lokaltxo bat billau eben egoteko, hara eruaten gontsen lentejia edo zeozer sobratzen zana hareri eruan... horixe eitten gontsen...

Baiña gu gu gorrixak ikusittakuak gara, e?

- Eta gosia bai?

- Bai ba! Harek etxeak be ez zeken, e, dirurik ezer eta bai, ba, geuk eruaten guntsezen [zueri begira]. Eta gero jua giñan, Bilbotik urten genduan, etorri jakuzan berriro be amatrallatzera...

## 8.9. Baserrian goserik ez gerra-denboran

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Agirrebeña, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-011/006
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:07:00. **Bukatu:** 00:08:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**
  - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939)
  - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Goserik ez zuten pasatu gerra-denboran. Gaeuz Osintxuko errotara joaten ziren. Baserrian ez zuten goserik pasatu bertan bazutelako zer jana, baina kalean bai. Gerra-osteko hasierako urteak ere txarrak izan ziren.

### Transkripzioa

- Ta orduan, e... goserik eta zuek pasau zenduen edo, zela izan zan?

- Ez genduan guk goserik pasau, e? Gosia... urtia egon zan baiña... Porke gu basarritikan juaten giñan, e... Osintxura gabian, zorruakin.

- Errotara ta?

- Errotara. Han iriña zertu ta... gero basarrira, ezta? Ta, ba, labe-sua eitten genduan ta guk ez genduan goserik pasau.

- Jateko behintzat euki zenduen...

- Bai, ta, badakizu, ganauak be bagenkazen ta esnia be bazeunkan ta goserik ez genduan zertu, baiña orduan kalia ta gose-urte haundixa egon zan, e!

- Bai, hori esaten doste...

- Orduan ogixa... nik ez neban pentsatzen ikusi be eingo zanik oin ikusten doun moduan. Gero bukatu zan gerria ta ondoria, haura zan gose-urtia haura!

- Gerria bukatu zan ta ondorengo urtian?

- Bai, gose-urtia baiña ikaragarrixa!

- Bai, e?

- Bai.

- Ta gerria eguan denporan be bai. Gerria egon zan denporan be, ba, gosia zeuan...

- Orduan gerria egon zanian hemen apurtu zian etxiak eta holakuak?

- Hemen ez, hemen ez zan apurtu, gerria egon zanian. Ostian bai, Durangon ta, ezta? Orduan apurtu zittuen, bueno! Durango ta Gernika ta horrek bai apurtu zittuen.

## 8.10. Eskolako urteak

- **Hizlaria(k):** Oregi Oregi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-022/022
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:58:25. **Bukatu:** 01:00:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939)  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** 10 urte zituela, gerra irten zen. Lau bat urte egin zituen eskolan. Plazentziako maristetan ikasitakoa.

### Transkripzioa

- Ta eskolako ipuiñekin sartzen bagara berriro, ba, hamar urtekin gerria etorri zan. Orduan ez zan juaten oingo moduan urte bikin eskolara ta jua nitzan, ba, bost urtetik, bostetik seira edo juango giñan eskolara gu. Ta gero hamarrek gerria etorri zan. Hamarrekin urten; lau urte eskolan. Baiña maristak orduan erakutsi eitten zebe. Maristak, Plaentxian maristetan ibili giñan ta eskerrak emotekua da, gaiñera --ni egoten naiz pentsatzen, e?--, zenbait lekutan zortzi urtian baiño lau urtian gehixao erakutsi. Formal, e! Gero, errespetua be bai. Tonto-useiñik ez, e? Errespetua be bai, e! Beren orduak eta gauzak. Ta erakutsi be bai. Ta gero, norbera zelakua dan be ikusi ein bihar da. Ni --neri ez jata gustatzen harrokerixarik kontatzerik, baiña-- eskolako kontuan ni argixa nitzan. Bigarren, hirugarren... Lehelengua, Teruel edo, hor, mediku baten semia. Hari ez zeuan kentzerik. Gero, Jose Luis, alkate izan zana ta bestia. Ta hortxe, lau bat ibiltzen giñan bigarren, hirugarren, laugarren, lutan ibiltzen giñan. Ta nik gauza inportante bat ikasi naben basarrirako: lau regla ondo ikesittakuak. Ta neri balio izan doste. Lau regla ondo ikesittakuak neri nere bizimodurako balio izan doste, zeaittik eze [...]. basarrixan egon da mobimiento pixkat. Ta arbolak eta bestia ta nik ez dot ofizinara jua biharrik euki iñori [...] esaten. Nik nere lau reglekin, sekula usau barikan makiñarik eta istorixarikan, neuk "a puño y letra" esaten dana, numeruekin ta bestia. Hamen basua bota zanian be, milla ta hirurehun kubiko edo bestia, jua ahala, kamioiak jua ahala, "da-da-da!", egunian egunekua [...] etarutzen najittuan. Atzenian kuadernua preparauta eruan najuan ta han ez jua iñok eze esan, e! Han juandako moduan pagau [zittuen]. Nik lau regla, bai, ondo ikesittakuak. Ta neretako balio izan dabe.

## 8.11. Euskal Herriko ofentsiba

- **Hizlaria(k):** Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-027/002
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:01:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena:** 1929. urtean Sorraluzen jaiotakoa. Gerra Zibila hasi zeneko kontuak. Euskal Herriko ofentsiba.

### Transkripzioa

- Gogorra izan zuan hamengua, hamengo...
- Zeu ze zara? Plaentxian jaiotakua izengo zara, Plaentxiakua...
- Plaentxian jaixotakua. Ni jaixo nitzuan... Ipinitta daukak ala ze?
- Bai, bai, baiña zu horreaitek trankil ibili, e!
- Ni jaixo nintzuan milla bederatzirehun ta hogeixan, urtarrillan hamaikan jaixo nintzuan. Oin jaukaraz, ba, larogeta hiru ointxe eindda larogeta hiru urte. Ta hamen, gerria hasi zanian, ba, bajetuazen Naparruatikan ta mendixetatikan honutz. Ta oso gogor, gaiñera, etorri zittuan, e!
- Aurrian harrapautako dana zertzen...?
- Harrapatzen ebena... Gaiñera, ordenak be gogorak hartuta, e! Ordenak be bai...
- Iñungo errukirik barik ibiltzeko...?
- Bai. Orduan Mola zuan, jeneral Mola, ta hamen Euskal Herriko zera, ofensibia, hasi zana, hamentxe hasi zuan. Eibarko Arrate ta hamendikan hasi ta zerak, Euskal Herriko zera, ofensibia. Ta ordenia emon juan harek, beran soldaueri, Molak: "¡No quiero prisiomeros, eh!".
- Danak akabatzeko?
- Bai, horixe esatia nahi juan.
- Iñor ez harrapatzeko...
- Horixe esatia nahi juan harek. Holakotxe gogorra izan zuan haura.

### 8.12. Etxetik Bizkaia aldera ihesi

- **Hizlaria(k):** Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-027/003
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:01:58. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Plazentzian, abertzale eta liberal gehienek guztia laga zuten eta Bizkaia aldera joan ziren. Berak 16 urte zituela, irailaren 20an, senide batzuen etxera ihes egin zuten.

### Transkripzioa

- Gogorra izan zuan haura. Ta hamen be, Plazentzian tokau zuan, ba, abertzaliak giñanok, danok --orduan PNV-a zuan orduan, ta gero liberalak be bai, liberalak edo zerak--, danak, gehixenak, familixarik gehixenak, laga dana, ahal eben koltxoiren bat-edo hartu ta trenak-eta ipini jittuen ta juan giñuazzen zerera, Bizkairutz.
- Zeuk zenbat urte zekazuzen...?
- Nik hamasei urte neukazzen, hamasei urte. Bai, hogeta hamaseixan zuan. Milla bederatzirehun ta hogeta hamaseixan urten juan gerriak ta nik urtarrillian zertuta. Ta hori hogeta hamaseixan... Zela dok "setienbre"? Irailla...
- Bai.
- Iraillan hogeixan urten genduan --akordatzen nok--, domekia uste juat zala. Eta Iñaki nere anaia ta ni; ba, gu nausixak giñuazzen, harek

hamazortzi urte ta nik hamasei. Ta urten genduan trenian, senide batzuen etxera juan giñuazen. Orduan pentsatzen genduan hamabost eguneko ipuiña izango zala. "Ba! Horrek segiduan etorriko dittuk abioiak", halakotxiak pentsatzen genduazen.

- Ta ordurako allegauta zeren?

- Ez, ba. Handik egun bira sartu zittuan.

### 8.13. Erreketeak Soraluzen

- **Hizlaria(k):** Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-027/004
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:06:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Familia kontuak. Aita, EAJ-ko alkateordea. Ama, haurdun. Irailaren 22an, erreketeak sartu ziren Plazentzian. Aita atxilotu eta lau urtean "Fuerte de San Cristobalگو" espetxean izan zuten.

#### Transkripzioa

- Horretarako, guk urten genduan, ta gure aittak be urtengo juan, zegaittik eze teniente-alkatia zuan PNV-kua, eta orduan garbittu eitten jittuen.

Bueno, eruan ta "di-da!" [...] kamiño baztarrera [...] ta fuera. Eta... Baiña tokau zuan ama haurdun jeuan, Benan gaztienakin haurdun jeuan orduan. Eta haura... Setienbrian sartu zittuan reketiak hona ta zerian, abenduan zortzixan jaixo zuan. Aitta be, ba, ama hola laga zortzigarren umia...

- ...eukitzeko...

- Dana lagata juan [baekan], ba, geratu zuan, ta segiduan. Hona sartu hogeta bixan, reketiak sartu zittuan. Ta hogeta seixan, bazkaltzera zoiala-edo -- ezkutuan, e! Ezkutuan etxian egon bihar--, "da!" sartu zittuan aguazillak bi reketekin armauta sukaldereiñokan ta "Venga, tiene que venir con nosotros". "Un momento, por favor -- amak esan jotsen--, iba a comer ahora", "Enseguida volverá". Eruan juen ta lau urtian egon zuan kanpuan. Espetxian egon zuan. Baiña espetxerik gogorrenetan, e! Hau, "Fuerte de San Cristóbal"-ko lurpian euan zerian. Bera bronkitikua zuan berez. Lurrian lo eitten, ez asistencia medika ta ezebe barikan egon zuan ixa hillian be. [Elisipaela] edo Ixipilla beltzakin be egon zuan.

- Gaixotasuna?

- Kristonak pasau jittuan gizajuak. Etorri zuan lau urtera. Gero, kanbixau zer asko. Lehenengo Donostiara. Ta, behintzat... Orduan esaten [...]: "¿Con éste qué...?", "Ya hay tiempo para eso, para liquidarle. Ya hay tiempo", behintzat, hamengo batek. Fabrikako direktoria zala-edo esaten juek. "Para eso ya hay tiempo". Berak be semia jaukan, ba, Bilbon preso. Eruan ein jotsen, ta deskuiduan haura garbittu izan balebe, ba... Harek "Ya hay tiempo, para eso ya hay tiempo" esan, ta, behintzat, bizirik urten juan. Nik ez jakixat, baiña orduan errezau be eitten juen gure amamak eta aittittak eta. Harek fedia be halakotxia, "y la fé mueve montañas" esaten dok, ezta? Ta haren errezuak edo zeozek lagundu jotsen, zegaittik eze bizirik geratzia zuan orduan... bueno!

- Eta hori ze zan, zeure... ze senide esan dostazu?

- Aitta! Nere aitta. Gure aitta. Ta gure anai gaztiena jeuan jaixotzeko.

Zaharrenak giñuazen lñaki, zaharrena, ta ni gero.

- Ta zortzi anai-arreba izan zarie zeuok?

- Zortzi gaittuk. Sei segiduan mutillak, zazpigarrena Katariñe emakumia zuan, dok, eta --danok bizi gaittuk, e, oinndiokan!-- eta gero Benan, gaztiena. Osea, zortzi danera.

#### 8.14. Gernikara ihesi

- **Hizlaria(k):** Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-027/005
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:09:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Plazentziatik ihesi. Tenez Gernikara. Gudarien Batailoiak. Egoera gero eta larriagoa. Baserrietatik lortzen zuten jatekoa.

#### Transkripzioa

- Bueno, ta holaxe urten genduan trenian. Juan giñuazen zerera, hona... Amorebietan, Zornotzan, geratu ta urten ein genduan guk, eta han pasau genduan gau guztia estaziñuan, estaziñoko barruan, ezta? Bazittuan, ba, hemen... beste familixa bat be hemengua bazuan. Etxabetarrak edo zittuan. Ta harek be umiekin, ume txiki-txikixekin. Ta haren koltxoian egon giñuazen etzanda lñaki ta ni, nere anaia ta ni gabian behintzat, haren koltxoi baten. Harek joiazen Mujikara edo, ta gu Gernikara senide batzuen... Aurretik berba eindra ta gure amaman-ta lehengusiña [batek] eta zittuan, ta han. Hartu giñuezen oso ondo harek. Oso ondo. Semiak bagiña moduan, oso ondo egon giñuazen. Azkenerutz... Gero pasau zuan, ba, han batalloiak be bajeuazen zerenak gudarixenak, "Batallón Saseta" ta... Gero, plazentziatar mordua --beste batalloi bat, hau... "Itxarkundia"--, "Itxarkundia"-n jeuazen plazentziatarak. Baiña mordua, e! Hirurogetak- edo zittuan. Baiña gu Gernikan. Ta hantxe pasau genduan. Hilla juan ta hilla etorri, ta... Baiña... Lehelenguan primeran, baiña gero, geruao ta gutxiao jatekoa be. Eskasidadia hasi zuan. Hasi zuan gutxitzen, gutxitzen ta gutxitzen. Ta eskerrak, basarri asko dao Gernika inguruan, ezta? Ta basarrietatikan jiraten genduan artiriña, arto-uruna, "uruna" esaten juek [erak], bizkeittarrak, arto-uruna. Ta morokilla ein ta morokilla jan ta esnia ta... Hauraxe izaten zuan "alimento principal" esaten dana, hauraxe izaten zuan. Ta holaxe gendela, beti esperantza onekin, e! "Ba, hurrengo kuartela..." esan... Bazittuan gure senidiak zianak komandante edo teniente-koronel be bat be bai bazuan, Lazkano, senidia guria eitten zana. Ta hareri, [ba, preguntau]: "Ze? Ze ikusi bihar dou?", ta harek beti esperantzia emoten. Ta bajakixen harek barruan, baueken harek berak, baiña jentia [animatziarren]. "Hurrengo kuartela Bergaran eukiko dou hurrengo kuartela".

- Esaten eban?

- "Oin hamen [daukagun] hurrengo kuartela. Laste, gaiñera!", ta "Enee!" [Danak...] gure tiak eta. Holaxe izan zuan. Oso ondo egon giñuazen gu han. Horixe, gosia gero, gosia etorri zuan. Gosia ta... Baiña esperantziakin laste akabauko zala gerria.

## 8.15. Gernikako bonbardaketa

- **Hizlaria(k):** Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-027/006
- **Iraupena:** 0:05:30. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:14:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gernikara ihesi. Gernikako bonbardaketa zuzen-zuzenean bizi izan zuen. Egun hartako bizipenak.

### Transkripzioa

- Ta zenbat denpora pasau zenduan han?

- Oin horixe esango dostat, ba. Juan giñuazen, iraillan hogeixan urten Gernikara. Bueno, hogeta batian allegau hara, zegaittik eze gaba pasau genduan estaziñuan. Ta gero estaziñuan, trena goizian, goizeko lehenengo trenian jua giñuazen Gernikara. Maleta... Egurrezko maleta batzuekin ta geure erropekin-ta jua ta han hartu giñuezen ondo. Bueno. Egon giñuazen han hurrengo hogeta hamazazpiko --hogeta hamaseixan zuan hori, jua giñana-- hogeta hamazazpiko zerian, apirillian uste juat izan zala bonbardeua, hogeta seixan edo, "veintiséis". Bai, hogeta seixan. Ta Gernikan zentro-zentruan nenguan ni lagunekin. Zerbezia-edo etorri zuan orduan. Zerbezia etorri zala ta "joño!" kaña bana hartu ta hantxe jarri mahaixan ta... "Café Norte" edo zuan, oso leku polita. Kanpua mahaixan jarritta, ta... abioia, inspekziñokua edo. Ta juten jua kanpaiak-eta juten jittuen ta... ohitu ein giñuazen! Ez jua botatzen bonbarikan be, ta gu ezta mobidu be ez. Baiña, horraittiokan, hurrengo beste bat etorri zuan ta "daunba!". Aiba dios! Lehelengo bonbia! Orduaintxe hasi giñuazen mobitzen. Gero, honek, zerak, junkerrak, [jua zittuan] abioi garauak kargau-kargau inda bonbaz. Etortzen zittuan "por oleadas" esaten dana. Mordua, e! "Caza"-k aurretikan ta hurrengo atzetikan "caza"-k berriro. Harek botatzen, hasi zittuan bonbak botatzen, ta gu pixkaka-pixkaka... Hemen plaza zaharrian egotia moduan genguazen, ezta? edo Gilaneko labadero gain inguruan izatia moduan. Ta hasi giñuazen pixkaka-pixkaka txaratik igotzia moduan. Han Lumo edo herri zera, txiki bat. Ta haintxe, lau-gaiñian. Ta parian zianian ta bonbaren bat "ffiii" somatzen genduanian geratu ta expulsatzen ebanian urten berriro ta lau-gaiñian, [aber], igo genduan San Marzialera igotzia moduan jua. Ta han, arbola baten azpitan, lagun bat zua gernikarra nerekin --oso lagun maittia najuan, gaiñera, ta... Hil zua haura be aspaldi--, etzanda jarri tripaz behera ta ikusi genduan bonbardeo guztia zeretikan herrixa ikusten dan moduan, e! San Marzialdikan. Nik ikusi najuan bonbardeua ixa lehelengo bonbetatikan, e! Ta horretarako, punto baten gelditu giñuazen mendira baiño lehenao. Ez [jakit], ba, nik, zerian geratzia moduan, Lersundiñeko parian-edo geratzia moduan San Marzialera jua barik. Halakotxe [...], ta hantxe [denporatxo bat], ta haintxe. Ta jentia etorri ihesi, ta etorri ta etorri ta etorri ta neuk esan najotsan lagunari: "Hi, hamendikan guaziak, bestela, hamen ikusiko juek eta bonbaren bat botatzen badabe hamen, hamen triskantzia ingo juek eta". Ta hurrengo zerak izaten zianian, juanaldixak-edo, aprobetxatzen genduan ta "ra!", jua giñuazen lau-gaiñian, lehen esan doun moduan, goraiñokan. Izan zua bonbardeo bat, hiru ordu t'ardi edo lau orduan edo jo-ta bota ta bota ta bota bonbak. Txikittu jua dana

txikittu juen! Ez zuan eze geratu han. Eskiñetako zerak, holako etxeren bat. Bakar batzuk edo geratuko zittuan, baiña hiru edo lau geratuko zittuan. Ta gero haren ostian, haren atzetik, bonbak botatzen zera. Dana aprobia zuan, Alemanen zer bat izan zuan haura, "un entrenamiento" moduan. Gero honek "napalm" edo horrek "zzzuuumm!" botatzen jittuen bonbak, "zzum, zzum, zzum, zzum", ta urdin-urdiña urtetzen jua zerak, keiak, eta gero "fffu!" batera-batera sua. Gero, gaiñera, hori ein juen. Hori bakarrik ez! Botatzen jittuen bonbak, ta jentia ezkutauta ta refugixo modukuetan ta etxe-azpiketetan ta egoten zianak eta juanaldixa eitten ebenian, bota bonbak eta zerak, keiak urtetzen jua --gu begira--, ta gero, kentzen zanian zera, ikusten genduan jentia ihesi, aintxitxika, ume ta andra ta danak. Eta "caza"-k, honek, abioi txikixak? Haura zuan, haura zuan entrenamentua ta haura zuan juergia harendako! "Ta-ta-ta-ta-ta" ikusi. Garbi-garbi ikusten genduazen botatzen. Zera, e? Ez juen begiratzen andrak ala umiak ala zerak zian. Ta gehixena halakotxia zuan, andrakumia ta ume ta zerak. Izan zuan haura... Nik hamentxe daukat haura dana, e! Ta bizi guztian euki juat! Bonbardeo bildurgarri haura! Haura... Personak zela euki leikien hori, hori instinto zerori. Ta gero, hamen Nurenberg edo hor euki ebenian gerra europea, gerra mundialeko juiziuian esan jua hango jefia izan zanak orduan... Zela zuan haura? Goebels edo... Bai Goebels. Edo Goering...? Bueno, kuestiñua dok, haren kargua eukanak, abiazituana-ta, esan jua: "Aquellos fue un entrenamiento de la Gestapo" edo [...]. Ta horixe. Ta klaro, ordura arte ederki ibili nitzuan ni, baiña gero haura bonbardeua [...] zanian, hain... Etxia baek eta ezebe bae geratu giñuazen, [eze] gure tianak ta danak, danak erre zittuan.

## 8.16. Bilboko ofentsiba

- **Hizlaria(k)**: Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-027/007
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:14:45. **Bukatu**: 00:17:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gudari egin zen bonbardaketaren ostean. Tiro bakarreko fusila. Bilboko ofentsiba. Jendea ihesi.

### Transkripzioa

- Ta klaro, ordura arte ederki ibili nitzuan ni, baiña gero haura bonbardeua [...] zanian, hain... Etxia baek eta ezebe bae geratu giñuazen, [eze] gure tianak eta danak, danak erre zittuan. Ta harek be Foruan-edo bajauken zer bat, zeren bat, etxeren bat, eta haura, hara edo. Baiña guk, Iñakik eta nik, ba, urten genduan, ta orduaintxe jua nitzuan ni gudari. Baiña ordurako baneukazen hamazazpi urte kunpliduta. Hamazazpi urte besterik... Gaur mutikotxua pentsatzen jatak neri hamazazpi urtekua, baiña neuk ez najuan pentsatzen ni mutikotxua nintzanikan! Joe! Ta hantxe, neu baiño fusil... neure alturia baiño fusil luziauakin. Gerra europeako zerak ziala esaten jua, frantsesak-edo, tiro batekua.

- Bat bota ta berriro kargau [arte]?

- Haura zuan metralletia haura! Tiro bateko fusilla. Igual dok! Bueno, behintzat halaxe, ba, soldaduskan. Ta gero, Bilbora sartu zianian-ta, urten

genduan handikan be. Akordatzen nok, oiñez juan nitzuan tio batekin. Urten --Portugaleten lo ein najuan orduan nik, ta-- urten goizian... Ba, bajetuazen zerak, moruak eta tropak eta baetozela-ta urten genduan. Illuntzirutz urten genduan. Bai. Ein genduan gau guztia zerian, kamiñuan. Kamiñua betian jentia, burdixekin basarrikuak eta ganauekin, ta umiak, eta hango kurriskia ta hango zera. Gabaz, illunetan, ezta? "Argirik ez piztu, argirik ez piztu" esaten ibiltzen zittuan, baiña noixian behin bateronbateg "tak!" edo linternia edo [...] juen, ta "Argi hori!" ta ez dakit zer ta... Kuestiñua, orduaintxe be bonbardeau eitten giñuezen, ta ez juen azertatzen kamiñua, baiña inguruan ta... Hasten dok, txistua moduan izaten dok, "fssii" bonbian zera, ezta? Kamiño baztarrian etzin kunetan, ta pasau artian. Ta bota "bloun, bloun, boun, boun" bota illaria bonbak eta joño! ya juan dok hau. Illunetan, e! Ta halaxe allegau giñuazen Castro Urdialeseraíño [...]. Oiñez, oiñez ein genduan.

- Ta orduan [...] gudarixen zerakin? Batalloian edo, hola, bestela?

- Artian ez. Ni ez artian. Iñaki bai. Iñaki orduan jeuan batallon zerian... "Batallón Sasetan" jeuan haura.

### 8.17. Frontea; batailoiak

- **Hizlaria(k)**: Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-027/008
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:17:00. **Bukatu**: 00:20:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Laredo aldera ihesi. Batailoiak. Anaia, Iñaki, gudari ordurako. Egoera oso gogorak bizi arren, pertsona egin egiten da; beldurrik ez. Frontean zeudela, jatekoa nola eramaten zuten.

#### Transkripzioa

- Illunetan, e! Ta halaxe allegau giñuazen Castro Urdialeseraíño [...]. Oiñez, oiñez ein genduan.

- Ta orduan [...] gudarixen zerakin? Batalloian edo, hola, bestela?

- Artian ez. Ni ez artian. Iñaki bai. Iñaki orduan jeuan batallon zerian... "Batallón Sasetan" jeuan haura. Baiña ni, gero, allegau nitzanian Laredo- edo, ba, nik jan be ein bihar najuan ta zera, ta orduaintxe honek batalloiak etorri zittuan. Batzuk hamar lagun bakarrik geratutakuak be bai batalloi osotikan. Prisionero einddakuak, Bilbon geldittutakuak, [...] garatutakuak eta abar. Ta gero han izan zuan batalloietako Sasetakuak eta beste batzuekin formau zuan "Batallón San Andrés". Ta...

- Ta, orduan, zu haraiño zela zindoiazan? Bakarrik zindoiazan edo...?

- Tio batekin.

- Tio batekin...

- Tio batekin bakarrikan. Iges. Igesi. Ta igual Frantziara iges ingo genduala-ta pentsatzen ta holako gauzak; "Barkurik billatzen b(ad)ou" ta holakotxiak pentsatzen. Bueno. [...], gero batalloira; ezin izan genduan hori ein, ta batalloira. Ta batalloian frentian be egon nitzuan. "Pico Betayo" edo esaten jakok, han zerian, Trucíos inguruan daok. Azkenengo zerak, Euskal Herrixan pusketak, hantxe. Hantxe egon giñuazen, ta zer bat egon zuan, atake bat be egon zuan. Ta haren erretiradia zaintzen gu, ta gero, beherutz

gindoiazela, deskubierta baten pasau bihar genduzen ta "pak-pak" banaka-banaka pasatzen. Hartuta jeuken haura ametralladorakin goittikan, ta jausi zittuan, bat edo bi jausi zittuan. [...] holaxe "dzi-dzi!" somatzen zituan balak eta ez dakik? Banaka. "Ala, benga, ointxe!", "ras!". Zona bat hartuta zerekin, ta holako estuasuntxo batzuk pasau genduzen.

- Ta horrek momentuetan ze... bildurra galanta?

- Bildurra ez jakixat nik. Bildurra...

- Hain bizkorrak pasauko zian gauzak...!

- Ni akordatzen nok holaxe gendela, orduan denporan, geratu-unia edo ein genduan. Bueno, gure... Pixkat... goixan jeuazen posiziñuak, ezta? Baiña gu pixkat beheratxuau genguazen. Han genguazen geure txabolak-eta eindda; zela edo hala eindda, abarrekin eta abar eindda. Holaxe genguazen, ta nere aurrian jeuan azkoittiar bat. Ta berbetan, "Holaxe pasau jata neri balia, fffiii!", ta bizkarrian haura. Holaxe jo juan, e! Holaxen eukan. Ta nere edade ingurukua zuan haura be, hamasei urte edo hamazazpi edo. Mutil bat, mutil bat ederraua! Baeukan... azkoittiarra-edo izan bihar juan. [...] holaxe. Ta hartu ta... gauza normala [balitz] moduan. Estuasunik eta holako bildurrik eta holan ikararitan-eta ez genduan eukitzen.

- Klaro, egunero ikusten zan gauzia ta...

- Eindda, eindda genguazen danera.

- Ta, orduan, orduaintxe hil zan haura?

- Bai, haura hil in zuan. Erretirau juen segiduan. Beherutz eruan juen ta... Mendi haundixa zuan, ba. Hamen Karakatera bi aldiz juatia moduan. Osea, Karakate ta beste hainbeste egotia moduan. Ordu bi t´erdi, hiru ordu inguruko bidia jeuan. Egun baten... gerran pasatzen dianak, ezta? Zain egoten giñuazen rantxuana. Ta muluekin edo mulo batekin ekartzen juen. Zela esaten jakuen horreri, muluekin ibiltzen zianeri? "Acemileros" edo esaten jakuen. "Hamen datok. Badatok hamen azemilerua, badatok, badatok janakin" ta hola, han zain-zain gero. Arroza edo zeoze izaten zuan, ta jateko desiatzen. Egun baten, ez zala etortzen ta ez zala etortzen, ta mulua jausi jakuan ta janok eta danok... Bai, ba, bidia be zera, txarra, ta mulua jausi ta, bueno, orduan egunian ez genduan jan be ein.

## 8.18. Batailoiak, gudariak

- **Hizlaria(k):** Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-027/009
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:20:45. **Bukatu:** 00:24:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  - Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- **Laburpena:** San Andres batailoia. Kuartela Laredon izan zuten; bertan egon ziren formatzen. II. Mundu Gerran Parisen sartu ziren lehenak gudariak izan ziren, komandante euskaldunaren gidaritzapean (Ordoki). Haren inguruko pasadizoak.

### Transkripzioa

- Ta nik gero... "Batallón San Andrés" zuan guria, ezta? "Batallón San Andrés". Ta kuartela euki genduan --holan, mendira juan aurretik--,

formatzen-ta egon giñan lekuan. Lehenengo Laredon formau giñuazen. Gero, handikan Monteano edo esaten jakuan, Santoñara bittartian euan zer bat, Kaputxino edo holakuen zera zuan.

- Konbentu moduko bat?

- Konbentu modukua. Baiña... "Batallón de Urruti" edo egon zuan anarkistena edo holakua; zatarra. Han be ein jittuen honek zerak be, zatarkerixak ein jittuen batzuk, e! Joe... Haura eliziaura jeuan kuartel eindda: [...], ohe zikiñak eta... Gu juan giñanian, lehenengo gauzia ein genduana... Kapillaua be [bagenguan], e! Gure kapillaua, gazte bat, arabarra. Ta nahi ebanak konfesau edo komulgau edo ein zera, atake baten aurretikan-ta, nahi ebanak, fedetsua bazan-ta... Ta gu fededunak giñuazen ta harekin... Bueno. Kuestiñua dok... Joe, eske nora juan jatak zera, harixa? - Ez da harritzekua... Nun esan dostazu? Konbentuan-ta zera komentatzen zebizen.

- Bai, bai. Han kuartelori euki genduan. Komandantia zuan famosua, e! Komandantia. Esango dostat gero ze ein eban harek. Prisionero jausi zanian... Bueno, komandantia Ordoki, famosua. Hori izan zuan, Ordoki hori izan zuan gero Parisera, Paris liberau zanian gerra mundialian, liberau zanian, lehenengo juan zan "el carro de conbate", lehenengua sartu zana, horixe izan zuan. Euskaldunekin. Gudarixekin formauta jeukan han be, Parisen be, grupua. Ta berak izan zittuan lehenengo sartu zianak Parisen. Hori,

gure komandante hori, Ordoki hori. Ta nik... Ordokikin akordatzen nok... Nik asistente moduan, gaztia zela nitzan, teniente baten asistenete moduan eitten najuan. Ta kapillaua ta hori, tenientia, ta Ordoki ta ni musian. Horrekin, Ordoki famosurrekin.

- Deskantsua zeuanian?

- Bai. Ta behin billau najuan --oin dala urte batzuk-- zahartuta ta nausittuta, eta ezautu najuan Ordoki. Ta "Gogoratzen zara nerekin?" ta ez, ba, [...] haura...

- Zenbat urte...

- "Ba, ni naiz Pico [Betaion] egon nitzan ni zurekin azkenengo prisionero hartu aurretikan, ein giñan aurretikan, zerian", ta "¡Ya recuerdo!".

- Akordatzen zan?

- Erderaz eitten juan, [...] ikasi juan euskeraz be gero, e! Baiña... "Ya me acuerdo de un cahval. ¡Eras tú! Ya me acuerdo yo".

- Ta bera nungua zan, ba?

- Bera irundarra edo. Irundarra. Baiña gero Franzian ezkondu zuan han ta... Hil zuan, e! Baiña balientia...! Badakik ze ein eban harek? Prisionero hartu juen ta haura fusilau eingo juen seguru-seguru-seguru naok, mordua garbittu jittuen ta. Ta haura zuan "un jefazo", baiña... holakotxiak barrabillak be, e! Dio! Eta badakik ze ein eban harek? Nik ez jakixat zela, baiña konsegidu juan erropia...

- Soldauana edo?

- Falangista. Falangista jantzi galoi ta guzti ta ate prinzipaletik urten juan. Ta atekuak be "dra!" saludua ta... Franziera pasau. Gaiñera, lurrez, e! Ez itsasoz, lurrez! Pentsaik zelako bragaua zan!

- Bai, bai, bai.

- Haura zuan gizona haura! Dio! Ordoki. Ez jatak ahaztuko sekula.

## 8.19. Santoñan atxilotua

- **Hizlaria(k)**: Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz

- **Erref:** SOR-027/010
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:28:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Santoñan harrapatu zituzten. Frontera joateko erabakia. Italiako soldaduak. Italiarrak joan zirenean, armada joan zitzaien zaintzera. Orduko bizipenak.

### Transkripzioa

- Ta horixe.

- Ta nun zan? Han zeuek prisionero hartu zinduezen?

- Bai, ba, gero zerian, Santoñan. Bederatzi milla edo. [...] ez jeuan handikan ihes eitterik iñora itsasoz ez bazan ta... Batzuk barkuetan ta zerian ta... Zerak jeu... han be bajeuazen Francon zereko... nabalak. Zela esango juat... kruzerruak eta gauzak eta. Ta segiduan harrapatzen zittuen ta barrura ta... Gaitza zuan. Batzuk ihes ein juen, e! Nere tio, juan nintzana, haura pasau zuan, Frantziara pasau zuan. Baiña neuk esan najotsan: "Ni, ni banoia, ni frontera noia". Ta holaxe geratu nitzuan.

- Ta zeuk frentera zela hartu zenduan erabakixa? Ez zendualako beste urtenbiderik?

- Bai, horixe izan zuan gehixen be. "Ni nora juan bihar nok ni oin?". Ta gero baitta... baitta... Beste... beste... Bestela ze ein bihar najuan, ba? Gaztia izanda... Hamazazpi urte neukazen, baiña nik ze ein bihar najuan? Eskian ezin neikian hasi. Ba, frentera. Hartu fusilla ta hantxe. [...]. Ein genduan, behintzat. Tiro batzuk bota be ein genduazen, ez jakixat iñor azertauko neban, baiña. Holaxe, ba. Horixe dok nere...

- Ta gero han prisionero nun egon ziñien zeuek?

- Gero han hartu giñuezen jefiak eta honek baeukezen beren listak eta gauzak eta, ta barrura, zerera, "al Penal de el Dueso". Garbittu jittuen mordo bat han. Ta beste bat...

- Hori nun zeuan?

- Gu zerera, gu Laredora lehenengo. Laredon hamabost bat egun edo ingo genduazen itxi... konejuak bagiña moduan alanbradurak ipini jittuen ta plaian. Haintxe. Lo be haintxe eitten genduan. Eskerrak uda partia zuan. Ta haintxe. Gero italianuak, italianuekin ondo, ondo zertu zittuan italianuak. Italianuak... eskerrak italianuak izan zianari. Berak ekarri joskuezen bi lagunendako...

- Kanpiñen modukuak?

- Kanp... Telazko zer batzuk. Behintzat zerian, aterpian, ezta? Iñakik eta nik, nere anaiak eta nik, han holaxe eitten genduan zer baten. Ta mordua holaxe ipinitta plaian. Plaia haundixa dok, e, Laredokua. Ez jakixat ikusitta daukaan.

- Ez.

- Izugarri luzia.

- Ta haura bete-bete einda zeuan?

- Bai, ba, hantxe. Ta hantxe. Ta gero, klaro, han be... jan bakarrik ez dok eitten, norberan premiñak be egoten dittuk eta haintxe, baztarren batera-edo fan ta... Bazittuan han txalet batzuk-eta ta jardin modukuak ta haraxe. Ta hangiak be des... zertuta; zatarra gauzia han bizi zanandako! Baiña... halaxe. Egon giñuazen hamabost bat egunian ta gero izan zuan txarrena kanbixua. Italianuekin oso ondo, e! Italianuekin... Tratatzen giñuezen persona moduan. Baiña etorri zuan gero Ejerzitua ta italianuak juan zittuan. Haura zuan aldia! Haura zuan aldia haura! Katiak eta urrezko zerak

eta anilluak eta...

- A! Danak harrapau?

- Kendu ta, ta... Haura sakeua haura! Haura zuan... haura zuan lotsagarrixa! Gero euki giñuezen... Gero formau ta eruan giñuezen grupo haundi bat... Bueno, gero jente asko jua zuan —hainbeste giñuazen, bederatzi millatikan, ba, erdixak edo ez jakixat zenbat— Castro Urdialesera be bai batzuk. Jaio, nere laguna, Jaio haura Castrora jua zuan haura. Ta gu... Beran anaiak be bai batzuk hara ta geratu be bai ta... Holaxe.

## 8.20. Santoñan atxilotu zituzten

- **Hizlaria(k)**: Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-027/011
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:28:30. **Bukatu**: 00:31:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Santoñan atxilotutakoak asko ziren eta banatu egin zituzten. Batzuk Castro-Urdialesera eraman zituzten; beste batzuk bertan geratu ziren. Han geratutakoak, Miranda de Ebrora eraman zituzten. Lan-banaketa. Barrakoiak. Cara al Sol.

### Transkripzioa

- Holaxe, geratu giñuazen gu ta kanpo-fubolera lehenengo. Kanpo-fubolian dana holaxe, zutik egon... etzin be... edo... jarri be ezindako moduan.

- Hainbeste jentekin?

- Hainbeste jente... Kanpo-fubola be bete-bete-bete eindda. Hasi zuan eurixa, zaparradia, ta, akordatzen nok, busti giñuazen, bueno, dana-dana-dana. Hamendik ura sartzen ta hamendik urtetzen, mela-mela-mela eindda. Gaztiak izan ta...

- Bai, aurrera.

- Gero, ba, urten genduan hurrengo egunian edo... bai, hurrengo egunian iluntzirutz. Danok aldian sikatu zittuan erropok. Ze ete dok gaztia izatia? Gaur izaten bada, bueno...! Pulmonixiak. Ta etorri... organizau juen trena ta eruan giñuezen Mirandara, Miranda de Ebro. Eta lehenengo Mirandara allegau giñanian “a la plaza de toros”.

- Eta zela eruan zinduezen, trenian?

- Trenian. Baiña ganauen trenian, e? Zutik. Honek ganauen zeretan? Ez jarlekurikan ta ezebe barikan. “¡Venga, adentro!”.

- Barrura...

- Pelikuletan ikusten dittuk oin judixuen zerak? Igual-igual-igual.

- Igual-igualea?

- Igual-igualekuak. Zenbat bidar akordatzen naizen ni. Sartu ta zerera, kanpo-fubol... lehelengo hor... plaza de toros zerian, han lo ein genduan. Ez dakik? Jarlekuak-edo ta hantxe etzan ta “a la intemperie” hantxe lo ein genduan. Intzakin busti-busti indda hurrengo goizian esnatu ta bueno. Gero handikan... fabrika bat, esplosiñua egonda euala ta tetxu bareko fabrika bat, [...] “fábrica de no sé cuántos, de [...]” edo ez dakit zer zan. Haraxe eruan giñuezen. Ta gero hantxe bertan hasi giñuazen txabolak-eta itten. Arotzak... “A ver, carpinteros”, ta, ba, danerakuak egoten zittuan, ba, ta gu, ba, lagutzen. Ta tablak eruan ta... behintzat, barrakoiak-eta in eta...

'Cara al Sol' hola kantau ereitten oskuen ta ikasi, ikasi in bihar. Atzetikan isil-isilik etorri ta isilik harrapatzen baniñuen ostikadia igual ta... Kulatiakin be jo najiñuen ni behin zeraaittikan: berakua-edo formau jatan ta urten najuan nunbaitten libratzera edo zerian ta soldau guardixan euan batek — ordenak hartuta [eren]— “daba!” jo kulatiakin ta jo-ta luze! En fin...

## 8.21. Batallón de Trabajadores

- **Hizlaria(k):** Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-027/012
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:31:05. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Atxilotutakoen izenak hartu eta informeak eskatzen zituzten bakoitzaren jaioterrira. Bera etxera bidali zuten; anaia "Batallón de Trabajadores"era.

### Transkripzioa

- Gero, Mirandatikan edadez... edadia. Hartu [oskuezen] filiaziñua ta gero herrixetara be eskatu zerak, informiak eskatu ta abar ta hain txarrak ez zittuen emongo nereaittikan.

- A! Ze eitten zeбен, izena batu ta nobere herrira eskatu...

- Izenak hartu ta gero nunguak, [nunguak] giñan ta hola.

- ...zein zan ta hori?

- Gero hamendik bialtzen juen “elemento peligroso” ta holakuak zittuan. “Nacionalista destacado” ta “no sé qué” ta... Nereaittik ez, ba, ni gaztia nitzuan ta itxuria ez juen halako zerik emon, halako txarrikan. Ta bialdu najiñuen ni etxera. Urten ein najuan hamendikan, esan dodan moduan, iraillan hogeixan ta hurrengo urteko iraillan hogeta seixan etorri nintzuan, allegau nintzuan etxera. Ta nere anaia egun batzuk, egun bi, lehenao edo, Iñakik hamazortzi urte zela eukazen haura a “batallón de trabajadores”. Hara bialtzen jittuen. Baiña edadia batzuk pasautakua eukenak be etxera. Ez dakit, ba, bajeuazen berrogeta hamarrekuak-eta be. Guretako aittitta pentsatzen genduan hori...

- Ta han zeuek preso egon [ziñenian] jentia hil be eitten zeбен orduan?

- Ez. Ez, ez, ez. Oin, tratua gogorra bai, e? Tratua gogorra bai, e? Joe, jo-ta atzetikan juan ta [jo-ta igual...].

- Edozer. Bai, amorrakin, behintzat.

- Bai, bai, bai, amorrua. Euskeraz entzutiarren be bai, jo-ta dale! Euskeraz entzutia ta zera zuan. Gogorra, gogorra. Ointxe be holakotxe zera daok, e? Girua, girua holakotxia ointxe be. Oin be ahal balebe ingo leukie, igual-iguala ingo leukie.

## 8.22. Gerrara joateko kintoak eskatu zituzten

- **Hizlaria(k):** Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-027/014

- **Iraupena:** 0:05:25. **Hasi:** 00:34:00. **Bukatu:** 00:39:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Lanean hasi eta 10 hilabetera, kinto berriak eskatu zituzten gerrara joateko (1920ean jaiotakoak). Lizarratik Asturiasera. Ez zuten frontera eraman. Sei urtean egon zen etxetik kanpo. Francoren tropek herri bat hartzen zutenean, batzuek ospatu egiten zuten.

### Transkripzioa

- Gero, ba, hasi nintzuan lanian ta segiduan, hamar hillabetera edo... Politto irabazten genduan, gaiñera, baiña ordu asko, e? Seiretatik seiretara lana, e? Goizeko seiretatik arratsaldeko seiretara errelebo bat. Jaio t ni [giñuan], makiña baten eitten genduan. Seiretatik seiretara nik eta gero seiretan sartu, arratsaldeko seiretan, ta goizeko seirak arte. Hori hamar hillabetian edo. Ta irabazi be dexente eitten zuan. Baiña ohittuta genguazen. Bueno, armozu fuertia edo zeoze eruaten genduan jateko ta hola. Ta gero, ba, gerria jeuan artian, hogeta hamazortzixan gerria segitzen juan ta "la quinta del cuarenta y uno" eskatu juen, hamazortzi urte neukazen ordurako. "La quinta del biberón esaten otsen". Ta ni ordurako, pentseik, frentian-ta ibilitta nenguan. Orduan asko negarrez ta, akordatzen nok ni Donostian. Bai, ba, umiak, umiak, hamazortzi urtekua umia dok, esateko moduan. Ta ni pixkat kalluak eindda ordurako. Ta holaxen juan giñuazen. Ta Estellara. Ta Estellatikan Asturiasera. Ta Asturiastikan [hantxe] gerra denporan, ezta? Frentera ez giñuezen eruan, behintzat. Neuk nere ofiziuia emon najuan tornero mekaniko ta Trubiara eruan ta han ipini soldau moduan, baiña lanian egon nitzuan ta, hi, pagau eitten joskuen, gaiñera, ta holaxe pasau zuan. Haura ederra izan zuan. Bueno, ederra edo...  
- Ta hori zela izen zan? Zeuek hemen lanian zenbizela diar ein zotsuen...?  
- Bai, bai, bai, gerrarako. Ta bertan herrikuak...  
- Ta hori zela izaten zan? Igual ze eitten zeben bandua etara edo holako zeozer?  
- Bai, bai, bai, etortzen zuan ordenia aiuntamentutikan [...] bandua [...] juan: "los nacidos en Soraluze ta tal y cual desde el año tal que nacieron tal...". Bueno, horixe zuan: "los nacidos en el año veinte del primer trimestre" juan giñuazen. Lehelenguak izan [bihar...], lehelengo zerak.  
- Ta igual betenbategen orduan be jentia hanka-ta eingo zeban edo...?  
- E...  
- Gehixenak barrura?  
- Orduan pribilejiauak jeuazen, fabrikan ta. Sasoi ederreko personak ta zelebratzen ebenak poblaziño bat hartu ebela igual. E? Zerak, Francon tropak eta. Zelebratzen txanpanakin ta, ala...! Demasak [eitten]. Baiña etxian, frentera juan barik. Frentera gu, gu bialdu. Ta, bueno, kuestiñua dok gero sei, sei urte. Horrek danok pasau, hasi lanian, bialdu zerera... Ta gero, bittartian, treinta y nuebian izan zuan, hogeta hemeretrixan izan zuan Gerra Mundiala, sortu zuan, Alemania ta zera. Gero Italia be bajean, Mussolini jeuan han ta bestia. Hitler ta zera ta... Kuestiñua dok, tropak eukitzia komeni zala edo ez jakixak zer hantxe gosiak eta kalamidade bat eindda beste sei urte ein genduazen soldau. Danera...  
- Ta nun ibili ziñan orduan?  
- E?  
- Nun ibili urte horretan?  
- Ba, soldau, lehenengo zerian, Estellan; gero Asturiasen; ta gero zerian, ofizinan hasi nintzuan, ipini najiñuen zerian, Estellan, atzera gerria

akabauta bueltau giñanian. Ta neuk hartu najuan ofizio bat. Eskatzen juen “doce números”. Ez [dok esaten] “doce personas”, ez juek ... numerua izaten dok soldaua, e, ejerzitan orduan, numerua. Muluak be izena eukiko juan, baiña personiak numerua. “Doce números para sanidad militar”, ta “Mekauen! —esan najotsan— juango nintzakek, ba, ni pozik!”. Gaiñera, cuarenta y unoko kintua. Bajeuazen zaharrauk, baiña guk, guk esaten genduan: “Ene! Gu pixkaterako bagauaz!”. Ta holaxen kapitanaana juan nitzuan ta: “Mi capitán, me gustaría apuntarme en este... en este lote, ¿podría ir yo a Burgos, a Burgos, a sanidad militar?”, “Pero, ¿Cómo va a ir usted? ¿Cómo va a dejar el puesto ese? Que... ¡Ni hablar, hombre!”. Lehelengo holako zera esan jostan ta, bueno, bueltau nitzuan ta... Horraittiok pixkat pentsatzen edo jarri zuan ta “De qué quinta eres tú?” ta “Yo del cuarenta y uno”, “Bueno, si encunetras un sustituto...”. Joe, hori bai bizkor! Zeaittik bilbotar batek eitten juan nere onduan lo ta mutil bat argixaua ta zeraua zuan! Hari be emon najotsan poz galanta —ni baiño zahartxuaua zuan, baiña— ta haura presentau najuan ta gero ni be apuntau nitzuan [horretan] ta holaxen juan nitzuan Burgosera. Ta Burgosen, ba... treinta y nuebian, mil novecinetos treinta y nueve. Bai. Burgosera. Akordatzen nok egun be: hogeta bederatzixan zuan juniuan, hogeta bederatzixan zuan. Hogeta bederatzixan... Ta... Berrogeta... Hogeta bederatzixan, hogeta bederatzixan. Baiña lizenziau mil... milla bederatzirehun ta berrogeta lauan lizenziau. Hamazortzixan juan. Oseake, sei urte...

### 8.23. Gerra garaian preso

- **Hizlaria(k)**: Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-027/015
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:39:25. **Bukatu**: 00:40:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Gazte sasoi guztia gerran edo preso pasa zuten. Preso egon zirenean, zein egoeratan bizi izan ziren. Garbitasun eza.

#### Transkripzioa

- Berrogeta lauan lizenziau. Hamazortzixan juan. Oseake, sei urte [han galdu zian]... gazte-denpora guztia. Sasoirik onena pasau genduan holaxe, “entre guerra y prisionero”. Hor... zorriz beteta, gero, hor zerian... Zorrixa ta... Ohittu ein giñuazen. Lurrian be ikusi eitten zittuan hor. Bai, ba, hainbeste lagun! Gu eruan giñuezenian Mirandara, Mirandara, kanpo koncentraziño horretara ez jeuan ez argirik, ez urik, ezebez. Komunak-eta be ein bihar izan zittuan. Erreka bat pasatzen zuan kanpo koncentraziño... haundixa zuan kanpua —hogeta bedratzi milla lagun inguru giñuazen ta— han erreka bat eta Ciscar-a edo ipini jotsen izena. Hola in zerekin eskillara [...] ta...

- Handik behera itteko?

- Zera... norberan...

- Bai...

- ... nezesidadiak eitteko zerera, uretara juaten zittuan. Ta beste batzuk han behian harutzao pixkat ibiltzen giñuazen, ba, erropak garbitzen be bai.

Ta zeoze, zeoze. Ez dakik? Baiña garbitzen eban, baiña zorrixa ta zikiña jeuan... bueno, bueno! Kalamidadia. Kalamidade bat. Horixe izan zuan gure gazte-denporako zera.

- Sei urte, e?

- Sei urte soldau eta gero Bizkeikua aparte. Bizkeixan eindakuak eta horrek aparte. Ba, hogeta hamaseixan urten ta berrogeta lauan... Danera zortzi urte.

#### 8.24. Gerrako momenturik gogorrenak

- **Hizlaria(k):** Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-027/017
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:42:10. **Bukatu:** 00:43:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerrako pasarterik gogorrenak: Gernikako bonbardaketa; anaiaren berririk gabe egotea...

#### Transkripzioa

- Karo, nere gudarostia ez zuan izan luzia ta zera, baiña probau najuan behintzat. Probau najuan ta...

- Ez zare gutxi probauta.

- Heriotzia be ikusi najuan hurrian... ta trajikuena Gernikako bonbardeo haura. Tokau in jatan dan-dan-dana ikustia. Negar batian, nere laguna ta bixok, bixok negar batian. Haura zuan... Gero urten ta...

- Haura bai izango zan gogorra, ezta?

- Haura zuan ona! Gero billau ezinda alkar! Iñaki banekixan, ez nekixan bizi zanik be! Dana sutan jeuan! A! ta gero gaiñera, lehen esan juat ba esan notsala e: "Hemen jente larregi daok eta hobe juau pixkat gorutz eittia". Beheruzkuan bertatikan pasau giñuazen; hain zuzen, bonba bat bertan jausitta jeuan. Eta han jeuan triskantzia! Hanka barek be gizon bat ikusi najuan. Honek zertuta... ta bizirik artian. Uluaka ta... hango odola ta hango txipristiña ta zera.... ikusgarririk.

- Bai, pentsatzen dot.

- Kuadruak. Geratzen jataz... zerian.

- Ta orduan han falixakuak-eta be hil jatzuezen?

- Gure familixakuak, senidiak bai hil zittuan. Hil zittuan. Ta eridu be bai. Eridu be bai. Bat debarrak zittuan, ta hantxe, Gernikako bonbardeuan... Ta morduak giñuazen, ba, e... baiña nahiko suerte euki genduan.

#### 8.25. Plazentziarrak Gerra Zibilean

- **Hizlaria(k):** Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-027/018
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:43:30. **Bukatu:** 00:45:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Soraluzeko ezagun asko hil ziren gerran. Batailoi desberdinetan egon ziren plazentziarrak: Amuategin, Itxarkundian...

### Transkripzioa

- Ta hamen Plaentxian e... zela izen zan da entzun da ta aukiko zela gitxi gorabehera...

- Zela?

- Plaentxian ze gertau... Plaentxian e... hildako asko ta egon zian orduan [...].

- Orduan mordua hil zittuan. E... "Batallón Amuategi"-xan jeuazen e... honek e... gorrixak esaten zana, ezta; sozialista ta halakuak, ezta? Geure ezagunak, bueno, baiña gazte-gaztiak hil zittuan. Ta e... PNV-kuak e beste zerak... honek Itxarkundian be mordua hil zittuan... berrogetatik... berrogeittik gora behintzat hilgo zittuan plazentziatarrak e! Hil zittuan inguruan. Jende asko hiltzen zuan, asko.

- Kanpoan zebizela?

- Bai. Kanpuan? Gerran. Gerran hil. Ez, bonbardeuan ez bestela. Frentian. Frentian hil. Lorenzo Epelde ta "Seulete" panaderua ta... Jesus! Zelako mutilak! Zelako mutillak baiña! "Usetxe" ta... "Usetxe" zuan ziklistia idolua zuan plazentziatarrona gaztiona... zera zuan bizikletan e... hamen Andramarixetan eitten zan karreran beti lelana ateratzen juan. Zuan mutil bat, dibujantia, artetsua... "Usetxe"... haura be jo-ta txipristinduta geratu ei zuan. Bonbiak arbola baten kontran edo... jo-ta... obusak berak jo hi! Jo-ta zeatuta geratu ei zuan. Asko, asko, asko hil zuan orduan. Asko hil zuan. Ta haura giro haura, giro haura... hona etorreria ta despreziu harek eta... Gogorra izan zuan... ta gero, ba, bizimoduak ba...

- Bai, aurea ein bihar.

- Aurea ein biha dok eta...

## 8.26. Gerraren gogortasuna

- **Hizlaria(k):** Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-027/021
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:47:00. **Bukatu:** 00:48:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Errekete baten inguruko pasadizoa. Zaurituta zegoen eta gudari batzuek ospitalera eraman zuten. Gerraren gogortasuna.

### Transkripzioa

- Urkiolan heridu juen, harrapau juen —aurrerakadak be eitten jittuen ta hurrengo zertu ta...— rekete bat heriduta, oso gaizki heriduta ei jeuan. Hartu juen kamillan ta bajatu juen beheraiñokan...

- Bizkarrian...

- ... gudarixak. Lau gudarik edo bi-hiruk edo bik, ez jakixat, bik be igual. Bajatu juen behera ta han be ez jeuan ondo organizauta zera edo, ta han

be, behintzat, Zornotzaraiñok-edo Durangotikan han be eruan juen ta Bilboko Basurtoko ospitaleraiñok eruan juen heridu bat. Hamengo...  
- Reketia izen arren...  
- Gure aldetikan ez zuan egon hori "No quiero prisioneros"-ikan. In zuan gerria gizatasunakin in zuan. "Por un ideal", ez "por, por..."...  
- Bai, bai.  
- Holaxe, ba.

## 8.27. Gosea; errazionamendua

- **Hizlaria(k):** Iñurrieta Goikoetxea, Nikanor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-027/025
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:52:55. **Bukatu:** 00:56:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera  
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Gosea. Amaren joan-etorriak jatekoaren bila. Errazionamendua.

### Transkripzioa

- Ta zelako [txikixak] danak eta gogorak pasau jittuen. Gero eza be egon zuan, e? Gero etorri zuan hona, han egon giñala gosia... egon zuan Bilbon be gose zera egon zuan, baiña gero hamengua txarraua izan zuan. Gero haura, haura... eza, eza, hauraxe zuan eza! Ez diru ta ez jan ta ez ezer! Tristia haura zuan!

- Ta zela zertu ziñien orduan?

- Orduan ez zuan... ahal zan moduan. Gure ama kuttua juaten zuan maletak hartuta Artica. Han amistadia eindra euan gure aitta kartzelan egon zanian Fuerte San Cristobal-en hari erropia moja bat, mojian bittartez-edo erropia garbitzen zotsala gure aittari ta bisittau eitten ebala ta abar. Ta juan haregana ta harek... kokoz betetako baba baltza edo, buruan be dana kokoz beteta etorri... Baba zaharrak, ezta? Ta maletan, ta haura be kendu be ein jotsen behin Guardia Zibillak eta...

- Haura be bai?

- Haura be kendu ta gero berriro juan Zumarragara ta Zumarragan mojak... Mojak be zera jeuken orduan, abadiak eta mojak eta, beren... beren pisua jeuken ta juan ta konsegidu in juan atzera rekuperatzia maletaori baba beltzakin ta. Gu estaziñora juan ta [kotxe] bidetik zihar bajatzen ta [ez...] ikusi ta... Baba beltza, baba beltza kokoz betetakua. Zeoze... Gose-denporia tristia izan zuan.

- Igual basarrixetatik eta, ezta? Pixkat...

- Bai, ba. Bai, bai, bai, basarrixetatikan. Basarrikuak ondo arreglau zittuan orduan, basarrikuak defendidu eitten zittuan etxian hartutako zerakin ta... Baiña hamen be konsegitzen genduan. Ba...

- Handik eta hemendik?

- Handik eta hemendik. Hortxe. Arabara-ta juan ta... Gure aittakin kartzelan egondako bat be bajeuan basuan ta... Xabier egon zuan han mutikua zala tripa-truke moduan edo han tripia betetzen. Ogixa etxian eitten ebela ta orduan zuan aiba dio!

- Bai, hori kristona izango zan, ogi zurixa edo...

- Bai, ogixa etxi... Ene! Ogixa zuan, ba, zerori, gure "alimento principal" hori zuan.

- Ta razionamentua edo hori noiz... zeuk ezautu zendun hemen?

- Ezautu genduan hemen. Bai, bai, bai. Razionamentua? Joe, razionamentua baita lizenziau ta gero be artian razionamentua egon zuan hamen! Bai. Razionamentua. Ta han be bai. Han be ehun gramo personako ta... arroza ta izaten zuan Bizkai... Gernikan-ta be.

- Egon ziñienian?

- Bonbardeuan, bonbardeuan aurretikan. Lehelenguetan, lehelengo bi edo hiru hillebete hemendik juañ gñanian, jo, okelia ta dana jeuan, baiña gutxitzen, gutxitzen, gutxitzen juañ zuan ta gero ez ardaurik eta... Horretxek hartu jittuan asko gaizki hamendik juandakuak. Refugiau juañ bai, refugiau ta hil ein zittuan guk ezautzen genduzen persona nausixak ohittuta erenak beren lana in ta gero beren kuartillotxua edo beren baso haundixa edo eraten ohittuta eren personak haura falta. Ez zittuan akordatzen ez ogixakin ta ezekin be. Ardaua, ardaua, haura, haura... [...] eraten eben haura, haura falta. Danak hil zittuan. Horrek...

- Persona zaharrak eta?

- Zaharrak hil. Gaizki, gaizki agertu zittuan. Azkoitti zaharra ta [...], geuk ezautzen genduzenak. Gaizkixen haretxek hartu jittuan honek, ardau faltiak, persona nausixak. Bai, ba, ohittuta, gorputza ipinita hauraxe, ezta? Ez dakizu?

- Bai, bai, bai.

- Kuartillua edo... hantxe ohittuta ta...

- Bai, hauraxe biziua.

- Hauraxe, bai, bizio baten moduan, zigarrua dan moduan, ba, horixe. Tabakua zuan beste bat. Tabakuan faltia ta egoten zanian ta... bueno, bueno, bueno zer, zer, zertzuk eitten jittuen, baiña, orduan? Ni ez nok izan sekula fumatzaille haundixa baiña... Bedarrak-eta hartu ta sekatzek euki ta bedarrakin ta usein batzuk eta...

- Harrapatzen zana erre?

- Erre, koño, erre! Ta tragau, gaiñera. Joe...! Hori be, hori be biziua dok, ba, hori be, tabakua. Ene...!

## 8.28. Gerra garaian soldaduak herrira heldu zirenekoa

- **Hizlaria(k)**: Arizaga Larreategi, Juan; Unamuno Gorrotxategi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-028/005
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:05:59. **Bukatu**: 00:09:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Unamuno, Arianne
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Juanek 9 urte zituen gerra hasi zenean eta ondo gogoan ditu Eibarko eta Gernikako bonbardaketak. Soldaduak herrira heldu zirenekoa kontatzen du; gauez heldu eta goizean Juanen etxera joan ziren gosaltzera. Soldaduak 7 hilabetez egon ziren inguruko mendietan.

### Transkripzioa

J - Gero gerria, zazpi hillebetian egon zuan hemen frentia.

Egoitz - Ezagutu zenduen haura?

J - Gerria? Beratzi urtekin lehelena. Ta gero haura amaittu ta gerra

mundiala.

Egoitz - Ta gerra denporakua ze akordatzen jatzu zeuri?

J - Asko neri. Eibarko bonbardeua eta Gernikakua eta. Gernikara abioiak pasatzen danak oindio begixen aurrian ikusten jittuat.

JL - Hirunan-hirunan.

J - Hirunan-hirunan. Lau terdiak hortara, goittik behetik.

[...]

Egoitz - Ta orduan ze, bildurra zertzen zan?

J - Bildurra? Hoixe! Ezkutau nunbaitten aguro!

Egoitz - Hemen be bai? Edozein tokittan?

J - Hemen ez, hemen ez, hemen Untzeta gain inguruan so(r)uan hor geratu zittuan zazpi bonba edo.

JL - Bonbak.

J - Kaiñonazuak edo balazuak ikutu dotsa abioiari ta fuera karga! Zoian tokira. Oindio hor egongo dittuk pare bat edo enterrauta.

Egoitz - Esplotau barik?

J - Bai. Lehen estakak sartzen jittuen haren parian. Gehixao ez nok akordatzen.

Egoitz - Ta gero soldauak edo etorri zianian akordatzen zara?

J - Puff... Bai ondo! Illara galanta markau zuan Ipiñarritan behera! Bakoitza linterna banakin.

JL - Haura zuan kuadrillia. Erreketiak...

Egoitz - Gabez?

J - Gabeko hamarrak inguruan.

JL - Erreketiak zittuan txarrak. Falangiak hobiak.

J - Ipiñarritan geratu zittuan mordo bat. Hurrengo goizian gurera armozutara. Lehenao asko euan ta! Ta pagau la puñetas!

Egoitz - Ta zenbat denporan egon zian?

J - Zazpi hillebete terdi.

Egoitz - Egon zian soldauak herrixan?

J - Herrixan? Mendixan, Karakaten ta.

Egoitz - Zazpi hillebete egon zian?

J - Legardan ta, Mendotzen ta, San Marzialen ta, hor, gero mendira, hor San Marzialgo [bide horrek] hor gaillurrian danian.

Egoitz - Ta zazpi hillebete egon zian, e?

J - Bai. Eguna dok, "veintiuno de" setiembreian sartu zittuan, ta urten ei juen hillan "veintiséis de abril", ala "veintisiete", etxakixat zer zuan.

Egoitz - Ta ze zeren, bando bat hor Karakaten ta bestia nun zeuan?

J - Illordon. Illordo mendixan.

Egoitz - A bai?

J - Bai.

Egoitz - Irure zerian?

J - Hementxe gaiñian danian. Hortik, Azkonabittatik Intxortara.

Egoitz - Ta hor ze izeten zan, alde batekuak bonbia batera ta bestiak bestera?

J - Ta tiroka.

JL - Alkarri!

J - Diania be bai. Akordatzen nok ni. Egun baten, diania.

JL - Aldasoko andria be garbittu juen.

J - E?

JL - Aldasoko andria be garbittu ebela.

J - Orduan bentanan.

JL - Bentanan.

J - Bentanan, Mendoztik. Bentania zabaldu enda argixa ta "dale".

## 8.29. Gerra garaian soldaduekin kotxean Azkoititik Soraluzera

- **Hizlaria(k):** Iraola Larrañaga, Pastora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Basauri, Jon
- **Erref:** SOR-034/002
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:00:35. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, Azkoitian zegoen bizitzen. Komandanziatik deitu zioten etxean hiru gaixo zituela eta etxera etortzeko esanez. Hiru neska etorri ziren soldaduekin kotxean. Soraluzen geratu zen, eta gaseosak egitea erabaki zuen.

### Transkripzioa

Ze pasau zan? Ba, gerria urten ebanian, ba, ni Azkoitixan nenguan ta deittu zosten familixan hiru... familixan hiru gaixo daukadazela ta komandanziatikan, aiuntamentura etortzeko Pastora. Eta don Hipolito Azkoitikua, don Hipolito uste dot zala, azkoitiarra, organistia, eguan Plazenzian. Eta klaro, etortzeko. Esan notsen eze —abisua aiuntamentutik eta, danak ezagunak zian, ba, danak ezautzen ninduen—, eta “Zu, hau ta hau abiso dao: hiru gaixo ta fateko zeu”. “Nun juango naiz, ba?”, “Mendiz bialduko zaittugu soldau birekin”. “¡Ah sí! [Hermosos]!” holaxe esan notsen, “Ederrak zeuek!” Mutil birekin... Eta gero, kalera urten eta abadia ikusi. Ta “Don Hipolito, nun etorri zara?”, ta “Ba, ni etorri naiz, ba, soldauak juaten diaz astian pagia eruatera Plazenziara, Zumarragatik bueltan, pagia eruatera, eta periodikua eruatera. Faten dia astelehelen goizeko bederatziretan. Juan zaitte”. Palazio beltz haundi eder bat dao han elizian aurrian, eta “Juan zaitte haraxe ta haretzek ainduko dotsue.”. Juan giñan eta “Bueno, buenos días” ta “Buenos días”. Esan notsen eze, ba, nola esan ostan abadiak berak etortzen zirala Plazenziara astelehen guztietan, ta nola dakaten ordenia etxera etortzeko gaixuak daoze ta. Eta aber berak ekarri neikien, nahiz ta hurrengo astelehenian. Ta ein nittuan artian be hamar bat egun-edo han etortzeke, eta baietz, ekarriko ninduela. Ta hortan, bueno, hurrengo astelehenian jua nitzan lehengusiñiakin. Gero atzera buelta eitten eben. Hori repartuori ein ta jua eitten zian segiduan. Eta beste lagun bat be oso guapia, sasoia, ta elizatik urten eban ta “Rosario, ven con nosotras” esan notsan. Ta “¿Dónde?”, “Placencia”, “¿Eh?”, “Ven, ven, ven”. Ta etorri zan ta hiru neskok etorri giñazen. Ba, auto abierto berde bat eukan, eta bi soldau aurrian ta hiru neskok etorri giñan atzian. Eta halaxe, bueno, ba, gure amak baeukan zeoze ta bazkaldu eben ta bueltau zian berekin harek. Ta gero pentsau neban eze: “Ene! Zeozetan hasi biharko dot hamen”, ta [...] ederra emoten eben Plaza Zaharrian, baiña ez nitzan jua. Esan neban: “Gaseosak egin bihar jittuat, gaizki edo ondo”. Azkoitixan be lehengusuak iguala dauka. Guk be zekagun “Cervecería el Leon, Juan y Teodoro Kutz, que ahora habían vendido”. Saldu, saldu ein zittuen.

## 8.30. Errepublikak ekarritako aldaketak eta gainbeheraren arrazoia

- **Hizlaria(k):** Ezenarro Alberdi, Jaio; Iñurrieta Goikoetxea, Iñaki

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Basauri, Jon
- **Erref**: SOR-035/004
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:05:30. **Bukatu**: 00:07:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Errepublika garaian aldatu ziren kontuak: eliza eta estatua banatu, akademia militarrek itxi, 44 lan-orduko astea... Aldaketak azkarregi egin ziren eta boterea zutenak kontra jartzean huts egin zuen errepublikak.

### Transkripzioa

- I: Gero gauza bat, neretako, geruao pentsatzen egoten nitzuan ni, orduko zerak, ezta? legien aldaketak eta... Egon zuan [dogmatismo] asko egon zuan. Baiña lehen esan dotena hor, bat, "Separación de la Iglesia y del Estado", ein bihar zan gauzia. Baiña horrekin Elizako jerarkixak kontra ipini jittuan. Gero beste bat ein juan, baeuan jeneraletan ta zerian, ejerzito espaiñolian, bueno! iñun baiño gehixao jeneralak eta be. Ta akademixak itxi in juan zertu arte, normalizau arte, edo zertu, ta militarrek ipini jittuan kontra. Ta halako gauzak, ba, mordua. Bizkorregi ein jittuan gauzak. Bizkorregi, ez dakik? Jentia preparau baiño lehenao "tra!" ta... Kontra ipini juan zera, hau... sozial asuntuan be, ba, ordura arte ahal zebanak ahal zeban beste ordu eitten juan. Ipini juan "la semana de cuarenta y ocho horas". Edo... "cuarenta y cuatro horas". "Cuarenta y ocho" aurretik euan, uste juat. "Cuarenta y cuatro horas", osea, zapatu arratsaldia jai. Este... "sábado inglés" esaten jakuan horri. Ta orduan, ba, zera, patronala edo kapitala, ba, kontra ta... Oseake, indarra euken guztiak kontra ipini jittuan. Ta gero beren artian be zer asko egon zuan, e! Ez jakixat nik, ez juen jakin gauzia ondo eruatzen neretako.

- J: Bai, baiña, gero ya oztopuak gero aldia guztietatik oztopuak, e! Laga be ez!

- I: Ez ba, ez ba!

- J: Laga ez.

- I: Ez otsen lagatzen, ez otsen lagatzen gauzak ondo eitten be. Hori be ez. Baiña jentia be ez jeuan zertuta...

- J: Ez, ez.

### 8.31. Batzokiko ekimenak; hitzaldiak

- **Hizlaria(k)**: Ezenarro Alberdi, Jaio; Iñurrieta Goikoetxea, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Basauri, Jon
- **Erref**: SOR-035/010
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:14:10. **Bukatu**: 00:15:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:  
Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak  
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak  
Aisia » Kultura » Hitzaldiak
- **Laburpena**: Larunbatetan beti zerbait egoten zen batzokian: antzerkia, kontzertua, dantzak... Garai batean hitzaldiak ere antolatu zituzten; hizlariak: Luis Lacuesta, Migel Gallastegi...

### Transkripzioa

- I: Hamen ederra euan saloia. Ta...
- J: Bai, eszenarixo ederrakin [ta...].
- I: E?
- J: Segi, segi.
- I: Zapatuetan kafia hartzera urtetzen [juan] jentiak afalostian ta zapatuetan hortxe zeoze egoten zuan beti hamen batzokixan, hor teatrua zala edo konziertua zala... Orfeoia be ederra euan, hamentxe eitten zittuan, gaiñera, zerak, ensaiuak.
- J: Bai.
- I: [Ta hor, zera], ezpata dantzarixak eta [gorularixak] eta... osea, oso mobimentu haundixa egoten zuan batzokixetan orduan. Ta... egon hari, ahaztu jatak ze esatera ninddoian ta! Zeoze esatera najinddoian ordukua... A! Epoka baten organizau juen, bueno, juntakuak esaten [eben]: "Fulanori esango jotsau berba eitteko gaur —osea— datorren zapatuan".
- J: Bai, bai.
- I: Esaten otsen: "Hi! Datorren zapatuan konferenzia bat emon bihar dok, heuk nahi duan asuntuan gaiñian". Ein juen orduan Luis Lacuestak, orduaintxe abogazia amaitzen-edo euan ta abogazian gaiñian.
- J: Migel Gallastegik.
- I: Migel Gallastegik be bai, [Ereñak] be ein juan ta beste batzuk! Gure aittari be tokau jakuan zer baten. Ta gure aittak ein juan, pentsaik! Bertan zapatuan akordau erein najotsan "Gaur, e —beori esaten najotsan nik aittari— beorrek ez dau ein bihar zerian?" ta "A, bai!" Ta ordun taillarrian ein jittuan holako bertso batzuk eta bertsuak irakurri ein jittuan harek. Holaxe izaten zuan hamengo zera.

### 8.32. Herritik ihesi nora alde egin zuten; lehenengo gaua

- **Hizlaria(k)**: Ezenarro Alberdi, Jaio; Iñurrieta Goikoetxea, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Basauri, Jon
- **Erref**: SOR-035/020
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:33:12. **Bukatu**: 00:36:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Gerra garaian, Iñurrieta; Gernikara joan zen. Jaio, lehenbizi, Bilbora joan zen; eta, gerora, Zallara. Jaioren aita Otxandion egon zen. Hantxe desagertu omen zen euren ezagun bat. Tenez alde egin zutenean, lehenengo eguna nola pasatu zuten.

### Transkripzioa

- Zuek nora juan ziñaten? Nora...?
- J: Gu?
- I: Ni Gernikara.
- J: Bai, ta ni zerera, lehenengo Bilbora ta Bilbotikan Zallara, Zalla. Edarra herrixa, nere bigarren herrixa haxe dok. Joe... Benetan gero, e! Neu be mutil gaztia nitzuan ta beste gure anaiak danak... beste lau anaiak frentian. Aitta be bai, aitta be frentian ibili zuan guria. Haura armero moduan-edo, baiña zerian, Otxandixon. Ta gero atakia hasi zanian, orduaintxe [...] etorreria. Hantxe hil zuan zera... entzunda eukiko dozu [izena], Abelin.

- I: Abelin. Bai.

- J: Hauraxe... "Abelin hantxe zan ba" ta "hantxe zan ba" ta "[Pagotxikin] atzo, ondio atzo geurekin egon zan berbetan ta" ta ez dakit zer [...] hantxe nunbaitten zerian, ta egunak pasau ta egunak pasau ta zerian ta haura agertu ez gehixao.

- I: Desaparezidu, bai. Haura ta Barrutia ta...

- J: Afusilau haura!

- I: Bai, harrapau ta afusilau eingo jittuen.

- J: Bai, bai. Haura zan [...]! Tristia!

- Ta Gernikara esan dozu zuk?

- I: Bai.

- Ta zela izan zan lehelengo... hemendik alde ein ta lehelengo egunak zelakuak izan ziran?

- J: Lehelengua txarra!

- Lehelengua txarra?

- J: Bai. Bilbon, guk Bilbon.

- I: Nik lehelengo gaba ein najuan zerian, Amorebietako estaziñuan.

- J: Bai, estaziñuan.

- I: Honek... Etxabe ta familixia han koltxoiekin-ta ta han [...] ein najuan lo. Nikanor be bai. Bi anai jua giñuazen.

- J: Ba, nik...

- I: Ta...

- J: Bueno, segi. Nik ein najuan...

- I: Gero, hurrengo egunian, zerera, Amorebietatik Gernikara. Senide batzuk [jeuazen] han ta haretxegana.

- J: Nik Bilbon, estaziño bertan segiduan jeuan, zera... "Escuelas de... Escuelas... — publikuak zittuan, e!— de Garcia Rivero". Hantxe, [galduta]. Zientuak, e! [...] beste kanpokuak beste batzuk be [zerian]. [...]. Lorik eta ezebe eitteke. Batzuek... umiendako-eta zerak jeuazen, holako bankuak-eta, [bi-hiru zerian] ta hantxe. Zela edo hala, zela edo hala. Gero, handikan urten ta zerera jua giñuazen, [Galoneko tabernara]. Hor [Tiburzi "Galo"-k]-eta zera euken aitzia, [alabia] eukan. Ta hantxe. Han bazkaldu ta afaldu ta [...] ta gero lo be bertan, berak ipinitako habitazio batian ta... Gero, aitta-ta [mobidu zittuan, tio... alkarrekin] ta [mobidu zittuan] ta Zallara zertu giñuezen, haraxe juateko. Hantxe gero, Zallan.

### 8.33. Gernikako bonbardaketako bizipenak; batailoiairen ibilerak

- **Hizlaria(k)**: Ezenarro Alberdi, Jaio; Iñurrieta Goikoetxea, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Basauri, Jon
- **Erref**: SOR-035/021
- **Iraupena**: 0:04:22. **Hasi**: 00:36:04. **Bukatu**: 00:40:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Iñaki fabrika batean lanean zebilen Gernikan bonbardaketak harrapatu zituenean. Bunker baten ezkutatuta egon ziren eta irtendakoan dena sutan ikusi zuten. Horren ostean "Saseta" batailoira joan zen. Laredoraino joan zen batailoia eta han "San Andres" batailoiarekin bat egin zuen. Azken frontea Betaio mendian izan zen. Handik Monteanora joan ziren eta segituan Santoñara. Hura "entrega" omen zen. Italiarrak etorri eta Laredoko hondartzara eraman zituzten denak. Zer baldintzatan egon ziren bertan.

## Transkripzioa

- I: Ni ointxe, hori, e... hamendik urten genduanian gaixorik nenguan, gangliuetako ez dakit ze enfermedade nekan. Ta gero ondo zertu nittuan, baiña denpora mordua, e... Gernikan, e... ezebe ein barik, jan ta eran ta lo. Gero sartu nittuan biharrian zerian, "Talleres de Guernica". Ta nik, e... hillebete edo eingo najuan; [orduán], bonbardeua. Gernikan hartu giñuazen bonbardeuak. Buf!

- Zu Gernikan zenden?

- I: Bai. Ta orduantxe, artian ondo amaittu barik eren zer baten, hemen, e... refugixo baten sartu giñuazen. Bonba bakoitzakin danok mobimentu bat eitten genduan barruan.

- J: Bai.

- I: Bueno, urten handikan ta, ene, ba! Zer dok hau? Sua! Dana sua! Ta, ba, familixakuen billa ta kalia ikusi najittuan tio Angel, tia Eusebi, Nikanor be berekin. Nikanorrek [...]. Bueno, kuestiñua dok, juntau giñuazen danok eta salbau gaittuk eta segiduan ni presentau nitzuan zerera, hona, e... batallon, zela zuan, e... Itxarkundia.

- J: Itxarkundia.

- I: Itxarkundia ez, Sasetara.

- J: Sasetara.

- I: [Apuntau] nitzuan ta, e... Orduantxe billau jostan lana zerak, Altos Hornosen, alkatiak, honek, Iriondok. [...] zea ta "ez, ez, e... hara jungo gaittuk, zerera", e... Sasetarako ta gero haretzekin. Ba, orduantxe ikasi najuan nik morsia-ta; gaiñera, hartzen... hartu be eitten najuan, oin ahaztuta ta... Baiña... Plentzian egun batzuk eta gero ba segiduan Bilbo hartu juen ta [haratxe]. Juan giñuazen Laredoraiño. Laredon, e... beste batailloi batekin bat ein, Batallón San Andresekin ta gu Compañía de Ametralladoras ta ixo genduan "a la... Pico Betayo". Ya azkenengo eduki genduan frentia ta...

- J: Bai. Hantxe izan, hantxe izan zuan...

- I: Handikan jatsi ta egun gutxira... Andra Marixak hantxe pasau najittuan, e... hogeta hamazazpikuak Andra Marixak [...]. Bueno, kuestiñua dok, ni zerera, hona, e... a Monteano. Monteanon egon giñuazen bi edo hiru egunian ta egun baten esan oskuen "Bueno, danok zerera, Santoñara". Santoñan juntau giñuazen milla mordua. Danok, e... gasolineran bat edo zeozen billa baiña ez jauan eze. Bueno, danok, gu han gendela, ya preparautakua zuan haura, e? Entrega zuan. Ta etorri zittuan italianuak ta [goiazen] danok zerera, Laredora, Laredoko plaiara. Emon oskuen lau lagunendako, zera, tienda kanpaiña txiki bat ta montau haura ta plaian beraneo demasa ein genduan zortzi egunian Laredoko plaian. Bueno, kuestiñua dok, e... jateko emoten oskuen egun guztirako zer bat, e... [txusko] bana ta halako pote bat, "carne congelada", lau lagunendako ta hauraxe zuan dana. Hemeretzi urtekin edarrak! Bueno, ta etorri zuan Rita [Artolazabal], Alejon arrebia ta gure ama, egun baten gu han gendela ta, ba, guregana etorri zittuan. Ta Ritak eruan juan zer bat, e... karta bat, zerana Eduardo Gallastegiña.

- J: [Manterola].

- I: [Hori sarri egoten zuan hemen].

- J: Bai, bai.

- I: Ta han jauken Uziñeneko tabernako... tabernia, osterara, nik... Uziñeneko taillarreko zer bat, representantia, Laredokua zuan. Ta resultatzen dok, zerak, tropak sartu zianian, bera ein zebela alkate Laredon. Ta haren bittartez ekartzen oskuen goizian esnia ekarten oskuen Alejori, Nikanorreri ta neri. Bai, [harek] pixkat [...].

### 8.34. Errepublikatzailea

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** SOR-056/007
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:08:03. **Bukatu:** 00:09:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak  
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Errepublika garaia. Zortzi urte zituen errepublika etorri zenean. Limak pikatzeko tailerra zegoen etxe azpian. Puntua egiten ari zen, ikasten, eta errepublikazale batek eskatu zion bandera egiteko. Balkoian jarri zuen.

#### Transkripzioa

-Republika denporia akordatzen jatzu Plazentzian?

-Bai, bai.

-Zela sortu zan-eta, lenengo egunak-eta? Igual txikixa izango zifan.

-Txikixa. Zortzi urte neuzkan. Pentsaizu, gure beekuak, han "Pikalimas" orduan, Pikalimas, tailler bat zeuan behian, eta /da/ limak pikatzen. Zuk ez zifuan ikusiko.

-Asko ez.

-Ez oiñ aspaldian. Orduan bai. Orduan aprobetxatzen zien. Eta /da/ oiñez eruaten zittuen Eibarrera ta Elgoibarrera. Zer esan biha neban?

-Republikia.

-A, eta harek esan ostan, ni puntua itten orduantxe, puntua ikasten. Nik nahi neban puntua, ikasten-eta /da/. "Ai, cómo se hace esto?". Harek gizon harek, republikanua zan bera, itxuria. Itxuria ez, zan. "Oye, me vas a hacer punto? Una bandera". "Una bandera, de punto? Yo no sé hacer punto. Poco sé yo". Eta ekarri zoztan lanak, eta zerak, agujak be /pe/ bai, eta in neban halakotxe tira bat. Eta /da/ palo haundi bat ipiñi zaban balkoian. Horretxekin akordatzen naiz, etxat ahaztuko sekula be.

### 8.35. Donostian zeudela hasi zen gerra

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** SOR-056/018
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:21:13. **Bukatu:** 00:24:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena:** Oporretan Donostiara joan, uztaileen 16an, eta orduantxe hasi zen gerra. Ama maingireak sartzen ari zen maleta batean, eta senarrak esaten zion ez hartzeko, segituan bueltatuko zirela. Tiroak entzutean, Atotxako jaiak zirela pentsatu zuten. Ez zieten denda irekitzen utzi. Anaiak bazekien zerbait. Beldurtuta zeuden denak, baina beraiek irten egin ziren kalera. Leihotatik tiroka. Polloera joan ziren.

Tolosako bonbardaketako lehenengo hildakoak, ama-alabak, eraman zituzten Polloera. Ihes egiten zuten beti.

### Transkripzioa

-Donostian udia pasatzen zenden gerriak urten zebanian?

-Bai, bai. Justamente ni jun nintzan el día 16 de julio. Bakaziñuak maistriakin. Eta /da/ gaur hartan hasi zan zaratia, tiruak, tiro batzuek. Eta hurrengo egunian pof...

-Aurretik zeoze somatzen ziñuen?

-Nik ez, keba!, keba! Ez, aittak be /pe/ ez, ez. Keba, keba! Pentsaizu, ala-ala!, ba, gure ama izarak-eta sartzen maleta baten. "... eso, si esto dura ocho días". Ez zeban pentsatzen harek, keba, keba, keba. Iñok be ez / iñopez/.

-Eta zela izan zan lelengo nobedadia?

-Gu ohian gendezen, neri sekual ez jat /etxat/ ahaztuko, eta /da/ tan-taun, baun-baun-baun! "Qué es eso? Tiros. Parecen tiros". Gure amak: "keba!, serán las fiestas de Atotxa". Atzekaldian Atotxara emoten dau. "Serán las fiestas de Atotxa". Atotxako jaixak. Atotxako jaixak? Gero nere aitzia zarrena jaiki da, persiania dendakua hasi da jasotzen," eee!", zarata batzuk "cerrar la puerta, que no se puede abrir!". "Ama-ama-ama!", sustau itten zan segittuan haura. "Ama-ama-ama!, que no me dejan abrir la puerta!". Danak orduan ama ta aitta ta danak joan zien. "Pero qué pasa?". Ezta pentsau be ez gaiñera. Nere anaiak itxuria bazekixen.

-Zeozer bai?

-Haura ez zan azaldu gabian. Hemezortzi urte zeuzkan. "Mala edad", eta / da/...

-Eta gero belaxe mobimentua ikusi ziñuen kalia eta...

-Kalian mobimentua? Eziñ urten. Eske tiruak. Gu bai. Eske han zertuta, asustauta zeren danok. Gu urten persianapeian sartu ta. Jun giñan zera, [...] ikustera, horrek ikustera, esan dot lehen, Polloera ta. Hantxe ibilli giñan. Baiña ezin zan ibilli, e. Eske tiroka, bentanatik tiroka, handik eta danetik, e.

-Eta zetan joan ziñaten Polloera, ze ikustera?

-"Los primeros muertos del bombardeo".

-A bai, e?

-De Tolosa. Bai.

-Tolosatik ekarri zittuen horra?

-Bai. Ikusteko. Eta Polloen mahi baten zeren bixak.

-Bi?

-Bai. Ama ta alabia. Baserri batekuak, Tolosakua. Nundik ez dakitt / eztakitt/, gehixao ez.

-Eta zuek ikusi ziñuzten han.

-Bai. Eneee, gure amak eta ez zekixen. Gero joan zien eta enterau zan: "Estas!, estas!" Iges eitten giñuan beti.

### 8.36. Tiroz hildako gaztea

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: SOR-056/020
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:24:48. **Bukatu**: 00:26:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena:** Tolosako bonbardaketa. Hurrengo egunetan, jendea beldurtuta zebilen hara eta hona, eta beraiek barrez. Milizianoak. Miracruz kalean bizi ziren. Hotel Santi zegoen han, eta milizianoek mutil gazte bat atera zuten. Tiroa eman zioten, pijaman.

### Transkripzioa

-Lelengo egunian izan zan ya Tolosako bonbardeokua?

-Bai.

-Eta gero hurrengo egunetan ze jira edo ze?

-Ba, ene!, jente dana sustauta, ene!, danak korrikan. Estaziñora, beste batzuek, e, han, e. Nik ez dakitt /eztakitt/. Gu pozik aitzia ta bixok: "Mira, mira cuanta gente va! Esos dónde van...". Gu barrez.

-Ze zebitzen, soldau jantzitta edo miliziano...

-Keba, milicianos, bai ba, milizianuak; keba, keba, soldau jantzitta ez. Egun baten ikusi giñuan han Mirakruzko kalia, Mirakruz kalia bizi giñan, eta /da/ Hotel Xanti zeuan, un hotel. Oiñ eztakitt, uste dot ez daola /eztaola/, Hotel Xanti. Eta bagatoz honutz eta /da/ [...] ta-ta!, eta miliziano batzuek mutil batekin, mutil gazte bat zan, eta /da/ dotoria, elegantia jantzitta, eta etara dabe eta pun-pun! dos tiros. Pijaman, con pijama de...

-Zeuek tirua emuten etziñuen ikusi.

-Bai. Hoixe. Hantxe geratu zan eta gu handik joan giñan.

-Sustauko ziñaten.

-Bai ba. Sustau. Guk be /pe/ igual hartu ta. "Vamos, vamos de aquí que esto es más que aventura".

### 8.37. Anaia, Loiolako kuartelean

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Galartza, Benita

- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin

- **Erref:** SOR-056/021

- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:26:22. **Bukatu:** 00:27:27

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena:** Loiolako kuartela hartu zuten milizianoek. Anaia han zegoen, lagun batzuekin. Asturiasera joan zen. Hantxe hil zen, 18 urterekin. Anarkistekin joan zen. Aitak jakin zuenean, hura handik ateratzera joan zen. Politikaz ez zuten ulertzen beraiek.

### Transkripzioa

-Donostian uste dot Loiolako kuartela asaltau zebela, ezta?

-Bai, bai.

-Horrekin akordau zinatzen edo?

-Bai. Eske gure anaia hantxe zeuan, hantxe zeuan.

-Asaltuan?

-Asaltuan, nik ez dakit /eztakit/ ze.

-Auskalo.

-Lagunekin, lagun batzuekin. Eta gu "dónde estará, y dónde estará y dónde estará?" "He estao ahí, en En Loiola. Ahora me voy a ir a Asturias".

Haura Asturiasera joan zan. Han geratu zan betiko.  
-Han hil zan, ala?  
-Hemezortzi urtekin hil zan.  
-Zer joan zan, anarkistekin edo milizianuekin?  
-Bai, anarkistekin joan zan. Eta aitta enterau zanian, aitta joan zan handik kentzera. Kendu zeban handik eta gero eztakit nun egon zan, ez dakigu / eztakigu/. Esaten zeban, baiña guk orduan politika-ta guk entendidu be...

### 8.38. Errepublikazaleen dantzaldiak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: SOR-056/022
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:27:27. **Bukatu**: 00:28:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak  
Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Errepublikazaleak ziren ingurukoak, liberalak, eta dantzaldira eramaten zuten bera ere, Plazentzian. El Liberal. Bandera jartzen zuten eta musika egoten zen.

#### Transkripzioa

-Ni akordatzen naiz, juten nintzan txikittan, bai ba, danak harek behekuak eta juten zien, danok zien zerak, liberalak orduan zien, republikanuak. Eta liberala zeuan zer bat eta bailia eitten zeban eta /da/. "Ala Benita, vamos", neri be eruan itten zostan. Bai ba, bestiak be gure zarrak zien eta /da/, harek urten be ez.  
-Donostian?  
-Ez, Plaentzian.  
-Zirkulua izango zan.  
-Ez, Zirkulua ez, "El Liberal". Han Gila-n onduan, han oiñ etxe berrixa dao, baiña balkoi haundi bat eta han musikia egoten zan. Bai. Banderia ipintzen zeben eta /da/. Ni pozik juten nintzan harekin. Musikia entzutera ta. Musikia be asko gustatzen jat. Neri dana gustatzen jat, ja-ja.

### 8.39. Bueltan, ilea moztu zioten bati

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: SOR-056/027
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:35:22. **Bukatu**: 00:37:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Politika » Politika eta Franco  
Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Plazentzian karlista asko zegoen. Haiek han geratu ziren. Beraiek Frantzian zeudela, batzuk bueltatu ziren, eta bati ilea moztu

zioten, plazan. Olioa ere edanarazi zioten. Hark esaten zuena, zuen pezeta bakarra eman ziola ilea moztu zionari. Propina bezala, lotsarazteko. Nork moztu zion ilea.

### Transkripzioa

-Karlita asko egon izan da Plazentzian, ezta?

-Bai.

-Harek geratu egingo zien?

-Bai, hombre. Eta harek gero bueltan gu geratu giñan Frantzian baiña beste jente bat etorri zan, gure tion baten arrebia; [...] zan haura, plazara eruan zeben haura eta beste batzuek illia mozttera. Illia moztu, aceite ricino emon eta gero dana moztu. Eta (barreak), esaten oskun harek: "Mira, no tenía mas que una peseta en el bolsillo. No tengo más. Pero se la he dado con un gusto al que me ha cortao el pelo". Direktoran semia zan. Direktorian semia. "Más malo que la quina, Luis". Gure laguna zan baiña gaiztua zan. Eta /da/ harek esan ei zotsan, e: "Yo cuando me cortan el pelo tengo la costumbre de dar propina, toma!" Eta bestia gorri-gorri jarri ei zan eta /da/. Danok pozik.

-Aceite Ricino emoten zotsan beherakua eraitteko?

-Bai ba, bai ba. Baiña berak be /pe/ ein zeban, jun baiño len etxian laga zeban botella bat, ez dakit /eztakit/ ze zan, zerena zan, erateko zeoze ona, markia, ezta, botella eder bat ez dakit /eztakit/ zer. Haura bota, eta ez dakit /eztakit/ ze bota zeban harek, zeoze txarra. "A ver si prueban y se muere alguno". (Barreak).

-Bera be gogorra orduan?

-Bai, bai, gogorra zan bera be.

## 8.40. Bilbora iritsi zirenean

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: SOR-056/029
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:37:33. **Bukatu**: 00:39:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Bilbon jende asko zebilen etxe bila, eta batzuk beste herri batzuetara bidali zituzten. Andre nafarrak, Natic, bere etxera eraman zituen. Bi butaka elkartu, eta hantxe egiten zuen lo. Aitak pisu bat topatu zuen; 375 eskailera igotzen zituzten, igogailua ez zebilelako. Urtebete inguru egin zuten han. Ekainaren 2an joan ziren.

### Transkripzioa

-Bilbon jentia alde guztietan ibilliko zan, ezta?

-Puf, danok etxe bila, etxe bila, etxe bila. Azkenian jente asko ba bialdu zeben, gure tia batzuek be /pe/, ez dakit /eztakitt/noraiño jun zien, beste herri batzuek. Eske ez zeuan tokirik, ez zeuan tokirik han. Eta /da/ gu ibilli giñan, bueno, eskerrak hari, harek eruan zoskun beran etxera. Neri tokau jatan bi zer, bi hola, bi butaka juntau hola ta hantxe lo eiñ, lo eittia. Nik itxuria eitten neban hola ta prrrr..., eta nere ipurdia bera. Eta /da/ gero berak Natic esan ostan, Nati zan bera, naparra haura; Eta /da/ eitten zostan jaso ta segittuan..., baiña ni enterau be ez, ni lo seko. Eta bueno,

gero gure aittak billau zeban pisu bat Casilla onduan, "en la calle Gordoniz", hemendikaldian, calle Autonomian onduan, eta /da/ "setimo piso, 375 escaleras. Ascensor no funciona". Eta /da/ bueno, hantxe bizi giñan behintzat.

-Zenbat denpora?

-Urtebete edo /ero/ eingo giñuan han.

-Gutxitxuaio izango zan, ze zuek joango ziñaten setienbrian edo lehentxuago ta.

-Agosto, uste dot agostuan jun giñala. Eta /da/ gero el 2 de junio uste dot jun giñala. Liburutan ez dau /eztau/ ipintzen hori, nik liburua etxian daukat. Erosi ein naban.

-2 de junio joan ziñatela handik.

-Orduan denpora asko ein ziñuen Bilbon.

-Bai.

-Bilbo ezautuko dozu zuk.

-Bai, Bilbo bai.

#### 8.41. Bonbardaketak eta hildakoak Bilbon

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: SOR-056/031
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:40:21. **Bukatu**: 00:43:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Bilbon zapatila lantegia zegoen, eta bonba erori zen. Ikustera joan ziren, jendea ezin atera... Jende asko geratu zen han. Bonbardaketak, egunero. Bera ez zen ezkutalekuetara joaten; ahizpa bai. Argia kentzen zuten, baina hegazkinak ikusten ziren. Sirena entzuten zenean, denak korrika. Hegazkin alemanak. Italiarrek oso behean egiten zuten hegan, ametrailatzen.

#### Transkripzioa

-Bilbon asentau ziñaten orduan, Gordoniz kalia, eta gero zer, eskolara ta?  
-Keba! Bai, eskolara. Eskolara? Bai. Eskolara las bombas, bonbazuak joaten zien danak hara.

-Bai? Zeuk ikusi dozu bonbak jausten Bilbon?

-Hara!, ikusi neban bakizu zer? Fabrika, zapatillen fabrikia, zela zan? Ze marka zan haura? Aiii! Bueno, han bonbia jausi zan eta han jente asko zeuan, eta ze pasau zan? Zer bat bakarrik, entrada bat bakarrik. Eta /da/ hantxe jausi bonbia. Jentia, jun giñan ikustera. Entzuten zan kanpotik: "Sacarnos de aquí!" Ez dakizu /eztakizu/ zelako penia emuten zeban. Eta /da/ eziñ etara-ta, azkenian ez dakit /eztakit/ ze in zeben. Gu jun giñan handik. Jente asko geratu zan. Zela zan haura?

-Eta sarri bonbardeuak?

-Puf!, egunero. Egunero.

-Egunez?

-Egunez eta gabaz eta danian. Bueno, egunero. Egunez be bai. Baiña gabaz be bai.

-Eta bazeunken ezkutatzeko lekurik edo? Refujixorik edo?

-Bai. Hor porrejenplo zaltaixan edo /ero/ halakotxe zuluak eta. "Ahí véte tu

si quieres", gu ez giñan juten. Nere aitzia zarrena bai. Puff. Haura korrika juten zan. Sustau itten zan segittuan. Txakurrekin, danekin sustatzen zan, eta /da/ abioiak, ene! Argixa kentzen zeben, eta gu, Resu ta bixok han zera abioiak ikusten. Eske refletoarekin ikusi eitten zien. "Ese es, mira, alemán, alemán. Ese es alemán, alemán".

-Ze joten zeben, abioiak zetozenian, alarmia edo sirenia edo?

-Bai, sirenia: duuuu!

-Danak aintxintxika joango ziñazien.

-Danok, danok korrika.

-Orduan reflektoriekin ikusi eitten zien abioiak?

-Bai, abioiak.

-Bastante baju zebitzen abioiak.

-Bai ba. Baju, hoixe baju.

-Ezautu ta dana eingo ziñuzen. Hau atzokua da edo, ez?

-Keba, ez. Hori ez baiña bueno. Gero bestian alemanak. Italianuak. Harek bai behian. Kasik kasi hola ikusten zien.

-Arpegixa ixa soldauei, ez?

-Bai. Ta-ta-ta-ta! metrailletakin. Eziñ harrapau, gu korrika. Eziñ harrapau.

-Zuek bixkorrauak balak baiño.

-Bai.

#### 8.42. Ahizparen ezkontza gerra sasoian

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** SOR-056/035
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:44:30. **Bukatu:** 00:47:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939)  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** Ahizpa zaharrena ezkondu egin zen gerra sasoian, 19 urterekin. Bankete ederra egin zuten: sardina-latak eta. Senarra arotza zen, eta frontera joan zen. Gorbeiatik hankak izoztuta bueltatu zen. Hegazkin bat nola bota zuten; korrika joan ziren denak pilotu alemanarengana, amorratuta, baita koinatua ere. Orduan osatu zen!

#### Transkripzioa

-Uste dot zure aitzia ezkondu ein zala sasoi hartan

-Zarra, zarrena. Bai.

-Zarrena. Ze edade zeukan?

-Diecinueve...

-Diecinuevekua zan? Artian gaztia orduan, ezta?

-Diecinueve.

-Hemeretzi urte?

-Bai, hemeretzi urte. Eta ze jan [giñuan], ai, bankete bat ederraua!

-Bai?

-Sardiña zarrak, sardiñak hor botetan eta Sidra el Gaitero. Hori ez dakit / eztakit/ nun billau zeban aittak, ez dakitt /eztakitt/ nun. Eta hori asko zan, jolin!

-Lujua orduan.

-Lujua. Sardiñak eta. Puf, vaya banquete!

-Gizonak ez zeukan soldau joan biharrik, frentera joan biharrik edo holakoik?  
 -Beranak? Bai. Zan "carpintero". Arotza, arotza; eske ahaztu eitten jataz. Arotza zan, eta eitten zeban; bueno, Bilbon ez dakitt ze eitten zeban. A, Bilbon frentera joan. Eta /da/ etorri zan hankak izoztuta del Gorbea. Bai. Eta /da/ alkolakin-eta /-da/ egunero emoten-eta; ezin zan ibilli.  
 -Etorri jakon bere onera hankia edo?  
 -Behiñ etorri zan han gendela, balkoian gendela, abioi bat. Baiña bajo-bajo-bajo. Han trena eta zer bat dao, tunel bat, eta /da/ hantxe parian jausi in zan abioia. Tirua bota ta. Jausi in zan eta bat, aleman bat, eta bera beera jausten eta tiruak botatzen. Harrapau zebe, joan antxintxiketan. Nere koiñatua orduantxe hasi zan antxintxiketan eta ezta geratu be. Ja-ja-ja. Dana pasau jakon.  
 -Pasau jakon amorrakin, ezta?  
 -Amarrakin dana pasau.  
 -Pilotu horregana antxintxiketan.  
 - Bai. Zela baiña! Gu barrez.  
 -Zuek ikusi ziñuen?  
 -Bai ba. Gu balkoian.  
 -Balkoian. Parian tokau orduan, ezta? Kasualidadia.  
 -Eta tunela zan gure aurrian, aurrekaldian. Eta han doia gure Eduardo antxintxiketan. Baiña zela baiña! Jo!, haren amorrakin. Harek zeukan amorrua!

### 8.43. Ahizparen ezkontza II

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: SOR-056/038
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:48:30. **Bukatu**: 00:49:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
 Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Ahizparen ezkontzan jatekorik ere ez zuten. El Gaitero sagardoarekin. Piku lapurretara egiten zuten, Bilbon, baita marrubiak ere.

#### Transkripzioa

-Orduan aitzian bodia, dantzaik eta musikaik eta euki ziñuen?  
 -Dantzan? Bai, gogua dantzan eitteko. Ez euan ezebe ia jateko eta. Ez euan. Bi sardiña edo eztakit ze jan giñuan bakarrik. Gero ba zeoze. A, lo que es esto ya tenemos, eta /da/ haretxekin. Sardaua, jesus maria!, El Gaitero, ez naiz sekula ahaztuko.  
 -Bi sardiña baiña haura gustora, ezta?  
 -Bai, gustora jan giñuan ba.  
 -Baiña piku lapurretara eta be joaten ziñatela edo?  
 -Aai...! Bilbon hori.  
 -Bilbon badao pikuik ala?  
 -Pikuak bakarrik? Bai maillukixak be, ja-ja.

#### 8.44. Gerrara boluntario, Durangoko bonbardaketa gertatu zenean

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Larrañaga, Justino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** SOR-077/017
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:24:08. **Bukatu:** 00:27:26
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Deustun lanean zebilela, nagusiekin arazoak izan zituen, eta gerrara boluntario joatea erabaki zuen. Eibarren egon zen borrokan. Eibarrera bidean zihoala trenez, Durangoko bonbardaketa izan zen.

#### Transkripzioa

-Ni heriduta etorri nitzan gerran. Sartu nitzan, boluntarixoa sartu nitzan, Eibarrera etorri nitzan. Ta Eibartikan, ia gerria hasitta zaon danian hamen. Sartu ziezen hortikan, kanposanto ondotikan, menditik sartu zien reketiak eta nik, pun, urten giñuan, aurreraoko egunian gabian urten giñuan guk hemendikan. Hara heldu giñan Bilbora ta, nik [ez nekixen gure artian] nun ziezen, eta beste bi lagun nerekin, eta haretako batek Bilbon zakazen tio..., bazakazen eta. "Oin ze in bihar juau ba hamen; hamen ze in bihar juau" esan eta. [...] joan ta han geratu giñan. Eta periodikuan anunziuan billau giñuan, zela azkenian aitta ta enterau zan, kura parrokuian etxian zaon eta; aittak guk kalia gabizela, kalia gabizela han Bilbon, sartu giñan taberna baten. Ta halako baten, dak!, aitta presentau jatan. Tokau. Aittak esan ostan [...], berakin joan nitzan. Ta han abariakin ta danakin, parrokuakin eta berakin berba eitten neban nik baiña. Ni igarritta naon, e, ni igarritta naon harena gutxi gorabehera ta.. Nik han jaten neban baiña azkenengo esan neban, ze ni hamen ez nok egongo lanik eitteke, ta halaxe sartu nitzen [...]. Joan nitzan boluntarixoa ta, ta Eibarren ta hamen, hamentxe Maltzan egon nitzan. Maltzan egon nitzan. Hor tabernia zela daon Maltzan tabernia. Orduan hor zertzen giñuan, zakuak bete ta, hortxe egon giñan gerrako zerian.

-Orduan Deuston lana egin eta gero boluntarixoa...

-Uezabakin hasarretu nintzan eta. Esan notsan eze...; ba lehen esan dittut ba jana ta zerana ta. Ez joskuen emoten zerik, eta ni banoia gerrara, esan notsan. Ni banoia hemendikan. Ta "Ez, hi ez haiz joango hamendikan", esaen ostan uezabak, "Ez haiz joango hamendikan". Ni banoia ba. Ta nik ihes in neban. Ta joan nitzan Eibarrera. Ta Eibarrera noiala trenian, Durango bonbardeatzen; Durango bonbardeatzen.

-Handik zentozela?

-Zera, Eibarrera noiala. Ta, "ene, oin ze in bihar juau", ta zera ta. Ta nik handik urten neban, handikan trenetik urten neban eta zelaira. Ta han makurtu nitzan eta hantxe [egon nitzuan]. Eta Durango bonbardeatzen ziharduen. Bonbardeatzen eta. Halako baten zertu zanian, urten dou ta sartu ga zeera barrura, sartu ga eta. Apurtu zittuen baztarra guztiak. Bonbak bota zittuen eta.

#### 8.45. Eibarren gerra garaian egon zenekoa

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Larrañaga, Justino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** SOR-077/019

- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:28:18. **Bukatu:** 00:29:55
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Eibarren zeudela, argiak itzalita eduki behar izaten zituzten gauez. Eibarren non egoten ziren azaltzen du. Gerrako gudari zela, bizimodua eta gerraren bilakaera nolakoa izan zen azaltzen du.

### Transkripzioa

-Gero ba han Eibarren egon giñan, ta argiak emendauta eukitzen giñuzen, argiak-eta emendauta gabian. Ta neri horra tokau jatan. Horra Maltzara tokau jatan eta hortxe egoten giñan guardixan, hor tabernia zeuan tokixan, hor. Hortikan [Iriguenerako] bidia, gorako bidetxurra ta. Hantxen egoten giñan geure zerakin, ametrailladorakin. Hantxen [...] bidian egoten giñazen. Ta beste aldetikan, hau zubixa zela, zubixa zela zaozen ba, zubixa ya haura zertuta zaon dinamitiakin beste alderaiñokua. Beste aldian bi etxe zaozen, beste aldian, ta trenbidia eta [...]. Ta guk han zakuak-eta ifinitta ta zeran; ta hantxe egon giñan. Ta bestia berriro, honek nazionalak honek, Munetako Aitzetan, Munetako Aitzetara, ta Munetako Aitzetatiken tiratu itten zeбен. Bati jo otsen gaiñera. Ta han egon giñan. Lana eitten giñun kanterako zeran ta zakua bete ta ipintzeko parapetuetarako ta danerako. Hantxe pasau giñuan denporia. Gero pasau zanian, Illordo ta, Illordon be bazaozen guriak Illordon be bazeon goixan mendixan eta. Ta ekin otsenian, gerran ekin otsenian, azkenian ba gero behera, Eibarrera jentia, Eibarrera ta. Guk, hoixe ein oskuen, Eibarrera zertu giñan, danok Eibarrera zertu giñan.

### 8.46. Gernikara bonbardaketa ostean iritsi

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Larrañaga, Justino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** SOR-077/020
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:29:55. **Bukatu:** 00:31:50
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gernikako bonbardaketa gertatu eta berehala iritsi ziren hara gudariak. Iritsi zireneko oroitzapenak gogoan ditu. Gernikan mendira joan ziren frontera. Han gertatutako borrokaren nondik norakoak azaltzen ditu.

### Transkripzioa

-Danok Eibarrera zertu giñan eta Eibarrera zertu giñanian batailloia ba, hamen be ezin leikek egon. Eibarrera sartzeko zeran eta. Handikan urten giñuan, handik urten giñuan eta horrek Eibarko mendi altuok, Eibarko mendialdetatik zihar joan giñan zeara [zela die horrek], behintzat gabian heldu giñan Gernikara. Bonbardeauta zeon, e, orduantxe gu goiazela bonbardeuan ziharden, bonbardeuan. Ta gabian oiñez heldu giñan, hortikan hara heldu giñan. Hara joan giñan, heldu giñan hara ta sua zaon oinndiokan. Sartu giñan barrura ta ikusten edo, ta baten atia zabaldu neban, hola puxkat erreta zeuan eta zabaldu neban eta hildakua zaon bertan, atia zabaldu eta hildakua zaon barruan. Hantxe zaon. Esan notsen bestiai ta harekin ze..., han zaozen ofizialak eta. Gero ze in zeбен ez dakit.

Haura dana erre zan.

-Orduan zuek Eibartik Gernikara oiñez joan ziñaten?

-Bai, danian joan giñan, danian, danian. Goizeko, ez daki ordu bata ordu bixak inguruan heldu giñan hara. Joanaldixa zaon, joanaldixa zaon.

-Ordurako akabauta?

-Bai, bai, haura akabauta. Heldu giñen hara ta ba han zertu giñen mendira. Eta egon giñan mendixan, zela izena dauka harek, mendixa harek...

#### 8.47. Gerra hasitakoan, etxe batetik bestera bonbatatik ihesi

- **Hizlaria(k)**: Oruesagasti Txurruka, Luzio; Oruesagasti Txurruka, Mateo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: SOR-085/017
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:23:11. **Bukatu**: 00:25:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerra hasi zenean, frontea etxetik oso gertu zegoen eta alde egi behar izan zuten kaleko etxe batera. Han bonbak erortzen zirenez, beste etxe batera mugitu ziren. Azkenean, Gernika bonbardatu zuten egunean, Elosura joan ziren izeba baten etxera. Gerra bukatutakoan itzuli ziren beren etxera. Elosun ez zen gerra nabaritzen. Umeak zirenez, ez ziren konturatzen gerra zer zen.

#### Transkripzioa

-Gerra hasi zanian nora joan ziñeten?

-Gu etorri giñan kalera. Handikan esan oskuen urten ein bihar genduala. Ta etorri giñan horra Iturburura. Hor beste familixa baten zerera hor. Hor jausi zien bonbak. Kaiñoi fabrikia zeuan ba! Kaiñoi fabrikia ta bunbat!, ta bun-ba, bun-ba, ta gero...

-Gero Errekaldera.

-Gero hortikan ba urriñao, ta Errekaldera. Hor beste kale batera.

-Ta gero han be hasi zianian bonbak... Aittak Andoaiñen eitten zeban fabrikan zerian.

-Gabaz eitten zeben lana harek. Gero esan oskuen Elusura.

-Elusura, Osintxutik gora. Beran arrebia (ez zan bizi baiña), beran arrebian etxera. Lehengusuekin eta hantxe. Gerria amaittu zanian atzera etorri giñan hona.

-Gerria bukatu zan arte Elusun egon ziñen?

-Bai. Gero handikan etorri giñan atzera lehengo lekura, Sagarrerrekara.

-Elusun ez euan ezer?

-Ezebez, ezebe ez euan, ez. Abioiak pasatzen zien hor..., bidian goiazela dana abioia, kristua ta...

-Gernika-ta erre zeben eguna. Egunian-egunian Elusura gu.

-A bai?

-Bertan egunian.

-Gu Osintxura, zera goiazela, dana abioia. Hara zoiazzen itxuria. Bonbardeora.

-Bai, hori dana erre zebenian.

-Ezin dot imajinau.

-Ez gu trankil. Gu oiñz joan giñan, oiñez. Mutikuak ze eingo giñuan ba?

-Hainbeste abioi ikusitta.  
-Bizimodua ta. Bizixa dakazen personiak be sustau...  
-Aitta-amak berriz, oso larrituta, ezta, egongo zien.  
-Egongo zien, por supuesto, pentsatzen dot. Gu amakin. Aitta biharrien ta gu amakin hara joan giñan.  
-Oiñez, tapla-tapla-tapla.  
-Gauza asko euki be ez eta, bakizu, trote, haraxe.  
-Nik makiña bat bider esaten dot. Gure historixia bideo baten ikusiko neukela nik. E?

#### 8.48. Gerrako oroitzapenak eta kantak

- **Hizlaria(k)**: Esnal Larreategi, Belen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: SOR-086/001
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra  
Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

- **Laburpena**: Lau urte zituenerako, errepublikanoen kanta bazekien. Gerra garaian, anaia eta ahizpa Belgikara joan ziren. Ahizpa Belgikara joan baino lehenago, Laredon tunelean bonba bota zuten, eta ahizpari metraila besoan sartu zitzaion. Gerrako hainbat oroitzapen ditu gogoan.

#### Transkripzioa

-Esan igual "Has visto a mi padre?" erderaz jota keia balkoian, eta ni kantuan: "Somos milicianos, vamos a vencer, a la lucha hermanos de poder vencer. Viva la República, viva nuestra fe, viva España libre, UHP (u, hatxe, pe)". Ta lau urtekin hori danori buruan sartzeko neri, zeinek erakutsi ostan?

-Entzun ingo zeen kalia zeuk.

-Entzun ingo neban. Nik ostian gerra-denporako gauzak...

-Republikanuan kantua be ikasi ein zeen?

-Pentsaizu. Eta gure amak esaten eban. Hona etorri giñanian ba esaten ei eben: "Honek gorrixak diala? Zela izango dittun gorrixak". Hamen San Jose ta danak kuadrak, dana relijiñua. "Ta honek gorrixak?" Geuk entzundako zerak, ezta, baiña nik etxian entzun dotena, gure aitta ta tio ta danak hor zihar joan zien. Esaten eben ba zerera, frentera. Ta gure etxian egon zan lehengusu bat, nik pentsatzen neban nere anaia zala. Ta gure amak, handik etorritta danak batu zittuan etxera.

-Zuk uste zeen lehengusua anaia zala?

-Nik bai, porke nere anaia Belgikan zaon gerra-denporan, anai bat eta bi arreba, aizta, joan zien Belgikara.

-Gaztiak, ezta?

-Bai ba. Gure amak ez zekixen nora zoiazenikan be. Harek hartu ta barkuan. Ta ni txikiña nitzalako. Baiña harek danak ba Belgikara. Nik esaten dotena, guk gerrako ipoiña gosia, besteik ezebez. Ta ni akordasen (sic) tunelien, nere aizta Belgikara barkuan joan baiño lehenao zela tunelien bonbia bota eben, ta nere aitzari metraillia sartu jakon. Ta nik lau urtekin

hori dakat goguan.

-Tunelian, trenan tunelian?

-Ez. Laredon. Sirenia joten eben eta joaten giñan danok refujixora.

-Zu zeu Laredon egonda zaoz?

-Ni akordatzen naiz. Eta beste detalle bat geratu jatana da, Tio Julian da nere aman koiñatua. Ba nere aittan arreba kalzonzilluekin "Julian, Julian!" ondorian, eta haura tunelera aintxintxika. Daukat gauza zelebren bazuk. Ta aittaitta zela hil zan; nik ez neban ezautu ez ez amama ta ez aittaitta, baiña zela ohetikan izara batekin kajan sartu ebela. Hori be dakat goguan.

-Zenbat urte zeukazun?

-Lau urte.

#### 8.49. Belgikako erraztasunak vs. Soraluzeko miseriak

- **Hizlaria(k)**: Esnal Larreategi, Belen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: SOR-086/018
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:25:11. **Bukatu**: 00:27:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
  - Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
  - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: 18 urte zituela, Belgikara joan zen anai-arrebei bisitan. Hara joandakoan, beste mundu bat iruditu zitzaion hura. Tailerreko soldatarekin ez zion aitaren botikak erosteko adina ematen. Apaizak tratu desberdina ematen zien familia batzuei eta besteei.

#### Transkripzioa

- Zeu hemezortzi urtekin Belgikara bisittan, e?

- Honbre! Ez neban ezautzen ez Donostia eta ez Bilbo. Eta ezautu neban han, bonberuak zian nere koiñatuak, gradudunak baiña bonberuak. Eta han zan jaixa, eta han jaixa itten zan jai bat... Ta behin hamazortzi urte, ni be luze jantzitta, eta, jolin, neretako ez euan beste mundurik. Hamengo mutil danak neretako gutxi zien. Baiña ondo etorri jatan.

- Zenbat denpora egin zeen Beljikan?

- Nik Beljikan ze ein neban, hillebete? Baiña neretako zan beste mundu bat. Bakizu, aitta geizki zeuan, ta gero aitta ta ama bixak gaixorik.

- Francorik be ez zan han egongo ta libertade gehixao ta.

- Bai. Ta gero neri hamen tokau jatana zan aitta ta ama gaixorik. Nik irabazten neban Atxoteginian hamazortzi -destajuan, e!-, hogeta bat, hogeta hiru pezeta. Ta aittak bihar eban, egun baten bai ta bestian ez, hirurehun pezetako pastillak. Ta nik hamen eskatu neban, nik ez nere koiñatiak, Madridera joan zan bizi izatera hamengo tailler batekin, ta eskatu eban enpadronaziñoko papelak, ta bide batez eskatu eban abariari be bai, porke hamen orduan laguntasuna zeken medikuak eta abariak eta bi enfermerak. Ta haura joan zan daneri eskatzera, ez dirua, aittantzako pastillak. Eta neri txikita bat ez zosten emon. Horregaitik oin esaten dot hamen datozenian eskian, "neri ez zosten asko emon". Ta guri han tokau zan, nere koiñatian anaia, haren gurasuak lehen zian hamen abare... Oseake abarientzako be, dirudunak. Harei sobria ta guri sekula be ez. Osea ke hamen be egon da. Bazuei dana eta bestioi ezebez.

## 9. Ekonomia eta industria

### 9.1. Lan-baldintzak

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/008
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:09:05. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »  
Debarreneneko lantegiak  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak  
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Lan-baldintzak. Ordutegia. Bizimodu aldaketa.

#### Transkripzioa

- Ta ze ibilli ziñien, lan diferentia-eta eitten, edo?
- Taillarretan?
- Ta zenbat bihar, gaiñera! Zortzi... ene, hamabixetatikan... edo Ordu bixetatikan hamarretara.... ta gero egon zan zer bat, biharra edo...
- Relebuan!
- Relebuan. Ta han gabeko hamarretatikan goizeko seiretara arte...
- Ta, gaiñera, esaten bazotsuen "Atsaldian etorri" pozik, gaiñera, atzera berriro be...
- Juateko?
- Pozik orduak sartzera!
- Ez eben emongo asko, baiña gu konforme. Konforme edo... holaxe zalakuan, ezta Martina? holaxe zalakuan.
- Baiña ez zeguan holan... gaurko... eneee!
- Ez, ez, diferentia da...
- Soiñeko bat eitteko... Bueno!
- Soiñeko bat eitteko jua igual ama ta Eibarrera edo ta.... Konforme! Ekarrizu oin honendako zeoze eta emoioxozue, emoioxozue, a ber...

### 9.2. Lan-kontuak emakume baten ikuspegitik

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/009
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »  
Debarreneneko lantegiak  
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)  
Ekonomia eta industria » Lantegiak

- **Laburpena:** Lan kontuak. Fábrica de cuchillos. Gerora bizikleta lantegian. Ezkondu eta gero emakumea etxean geratzen zen. Bizimodua asko aldatu da.

### Transkripzioa

- Ba, guk lehenengo eitten genduan, "Fábrica de cuchillos" zan. Lan txarra, e? Buenooo! Eitten genduan igual harrizan be bai, fundiziñuan be bai... Ta gero kutxilluetan pasau... juan... euki eben e... bajonazua, ta gero bizikletekin hasi ziran, bizikletiak. [Han be] soplelian be eindda nao, soplelian be bai, qué no!
- Nik tornilluak, tornilluak eta tornilluak, han Argaratenian tornilluak, Automatiketetan hantxe.
- Gero ba... ezkontzeko urten taillarretikan eta kitto.
- Bai...
- Ezkontutakuan...?
- Etxian!
- Etxian, bai. Oingo moduan ta ez, ezkontzen ziñan eta...
- Ke ba, ke ba...
- Beste forma baten.
- Enee!
- Zuek zenbat urtekin ezkondu ziñien ba?
- Ni hogeta hiru.
- Ni hogeta bost, hogeta bostekin.
- Gaztiak... Lehen gaztiao zertzen zan. Hogeta hirukin...
- Oin hogetirukin, puf!
- Hogeta bostekin be ez...
- Hogeta hamar oin be... ta gehixao be bai igual!
- Guk hogeta bi dazkau ta oindiok...!

### 9.3. Lan baldintzak

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/015
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:17:05. **Bukatu:** 00:17:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):** Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Lan kontuak. Larunbatean ere lana. Udako oporrak, zortzi egun.

### Transkripzioa

- Orduan ze eitten zenduen, hola, ze eukitzen zenduen libre, zapatuetan be lana?
- Bai, bai, zapatuetan be lana eitten zan...
- Bai, bai, hemen bostet´erdiak arte...
- Bai, bai, ta gero bakaziñuetan zortzi egun edo hamar egun edo bakarrik...
- Egoten zan ala?
- Zeoze bai!
- Ez dakit, ba!
- Bueno, ni ez non akordatzen. Bueno, ezkondu ta gero esaten jonat nik...

- A bai, ezkondu ta gero...
- Baiña ez asko, e?
- Baiña ez eguan bakaziñorikan orduan...
- Ez...

#### 9.4. Antzinako bizimodua

- **Hizlaria(k):** Aranzamendi Uriarte, Miren; Zubizarreta Ormaetxea, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-004/037
- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:41:25. **Bukatu:** 00:41:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oregi, Benan
- **Gaia(k):**  
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Antzinako bizimoduaren inguruko iritzia. "Zuek ez dakizue...; hobe gaiñera ez jakitzia".

#### Transkripzioa

- Pasau ein bihar...
- Zuek ez dakizue zer dan bizimodua...
- Honek ez jakiñe ezebe... honek ez jakiñe ezebe, ezebez!
- Ez dakizue. Ta hobe, gaiñera, ez jakitzia, e!
- Pasau ein bihar dira horrek...
- Hobe, gaiñera, ez jakitzia.
- Ez. Holaxen.
- Hobe.

#### 9.5. Amarengandik ikasi zuen gaseosak egiten

- **Hizlaria(k):** Iraola Larrañaga, Pastora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Basauri, Jon
- **Erref:** SOR-034/003
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:06:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ekonomia eta industria » Industria motak » Edari-ekoizleak  
Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- **Laburpena:** "El Leon" garagardo-lantegia zuten eta berak gaseosak egitea erabaki zuen, ezagun bati laguntza eskatuta. Amari askotan ikusia zion eta bazekien nola egiten zen. Gaseosa egitearen inguruko azalpen batzuk eta hasieran izan zituen arazoak. Lehengusuak ere garagardo-lantegia zuen Azkoitian.

#### Transkripzioa

Guk be zekagun "Cervecería el Leon, Juan y Teodoro Kutz", "que ahora habían vendido". Saldu, saldu ein zittuen. Honek etxe barri ederronek ein

dittue, ba, zuen tiok-eta? Han barrixo guztia zan [...] “Cervecería Juan y Teodoro Kutz”. Hona etxera etorri zian ondiokan, iñun ez zian ultzerik eitten kajak-eta josteko ta etxian egon zian ondio behin orduantxe epokan. Ta bueno, [Coronan] —orduan zeukagun [Coronan] taillarrian—, ta klaro, pentsau neban, ba, gaseosak ein bihar nittuala. Ta gure anaien laguna zera —[ oiñao hil da]— Txatua, Legaristi, ezautuko zendun, hamentxe taillarra-edo euken. Ta haura gaixorik geldittu zan. Abixau notsan. Beti gurera etortzen zian gabonetan ta danian ta, eta esan notsan: “Hi, lagundu ein bihar dostak. Asmau ein bihar juau hamen gaseosia eitten.”. Eitten bai. Amak eitten eban lapiko haundi baten hiru kiloko azukarrakin almibarra eitten zan. Ta gero, beste “Orange” botilla bat ederra, naturala, Barzelonatik etortzen zan. Eta haura be, banekixazen horrek. Eta katxarrito, medidia, botatzeko ta horrek danorrek banekixan. Beti begira egoten, ba, danak nekixazen, horrek gauza guztiorrek. Ein sekula be ez, ein mutillak edo aittak eitten zittuazen. Ta barrixa ekarritta euken tapoiduna. Ez neban extrañau nik, nik ez nekixan zertara, zela dan be ta ezebe. Han ikusi neban etorri nitzanian. Eta esan notsan: “Markos, etorri hari laguntzera neri”, ta “Bai”. Nahiz ta bonbiari, ba, ura, bonbiari erein bihar jakon, eta gero zan katxarro bat, ba, bueltia hartzen zanian, boladunak zian, bola kristalezkuak. Eta bueltia hartzen ebanian, bolia goman sartzen zan, ta “ya estaba cerrado”. Ederki. Eta holakotxe potia, han barruan sartu botillia. Ta eukan dana zuloz beteta aldia guztietatikan ura urtetzeko edo respiraziñua edo kristal pusketak be bai. Bueno, ipintzen neban ta ederki. Bueltaia emon ta, ba, zuk erdi betia. Ta nola ez zekiun, bai gasa, gasa haundixa botillia, han eguan, ba, hauraxe falta. [Bolka] bi erloju batendako, ta beste erloju bat eukan holaxen onduan, ba, bata “en seis había que... en seis y medio, y el otro en siete”. Sifoi. Baiña ez nekixan. Ta nere lehengusu Azkoittikuak be igual-igual “cervecería el Kutz, limonadas hasta hoy”. Ointxe erretirua hartuko eban semiak. Eta, ba, abisau notsen, honetxekin mutil honetxekin astelehenian. Klaro, betetzen hasten nitzan, bueltia emon, edarki! Etaratzen ta... “buo! Honek bolionek dauka! Honek bolionek dauka!”. Ta karretilla haundi baten ipinitta han juaten nitzan neu taberna guztietara. Orduan ez eguan tabernetan, komestiblia eguan danian.

## 9.6. Tabernaz taberna joaten zen limonada-kaxak banatzera

- **Hizlaria(k)**: Iraola Larrañaga, Pastora
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Basauri, Jon
- **Erref**: SOR-034/005
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:07:38. **Bukatu**: 00:09:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  - Ekonomia eta industria » Industria motak » Edari-ekoizleak
  - Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Hasieran, arazoak izan zituzten: gaseosa betetzen hasten ziren; baina, gora egitean, esplotatu egiten zien. Horregatik, botilak erdi beteta uzten zituzten. Kaxatan sartu eta tabernetara banatzen zituen. Duroa kobratzen zuen eta harekin lau lagun mantentzen zituen.

### Transkripzioa

- Eta bueno, ba, gaseosak eitten hasten giñan ta betetzen genduzen

bastante, baiña ixotzen zebanian, “punba!” ta errebentatzen zoskun han, bustitzen nintzan, bera be bai igual... Ta dana... Zuluetatik urtetzen eben, ur guztia limonadiana, zeaittik eze materixalakin preparatzen genduzen botilla guztiak, ezta, bere tamaiñora arte. Gero horixe zeguan bakarrikan. Ipiñi han, urari bestia, bonbia... ura martxan ipiñi, ta hartu ta ipiñi. Ta hartu ta bueltia hartzen zebanian, ya bete, itxitta eguan. Baiña gero, ze pasatzen zan? Ba, guk zela ez zekiun gatzana, ba, haura ixo ta ixo, seis y median egon bihar zana beti, ixo ta ixo hasten zanian, ba botillak ipiñi ta “punba!” Ta “tiros y tiros y tiros”! Eneee...! Erdi-betia. Ta erdi-betia esaten genduan eze, “Ene!” berak, Markosek esaten ostan: “Danak eraten jittune oin, oin danak. Erdixa be ondo daon, erdi-betia be. Igual-igual. Bueno, benga kajia, jaso deigun”. Han harri zatar bat eguan —ura pasatzen zan [Coronan] han behian— ta han pasatzen ta kaja astun-astun urez betetakuak. Eta nere amantal ta [guztirikan] ala! Gilanera. Durua. O! Grandia zan orduan durua. Ala, durua, benga! Hurrengo, erreka aldiian Tintorekua, Anjelenekua... Kantua be badao, ba? Zera, kantua...

- Bai, lehengunian hasi ziñan kantatzen.

- Hori. Hori kantuori. Ba, horrek taberna guztiorrek, e? Ba, danetara txandaka eruatzen neban nik kajak. Durua hartu, ta lau lagun mantentzeko. Hiru inutillak, hiru gaixuak. Eta neu eittekorikan etxe zahar haundi hartan. E? Bildurrez. Goittik beheraiño animarik be ez! Animarik be ez.

## 9.7. Zilarrezko duroak

- **Hizlaria(k):** Urizar Murua, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** SOR-041/003
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:04:12. **Bukatu:** 00:05:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**  
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** Lehen ez zen apreziatzen zilarra. Geroago etxerik etxe zilarra batzen ibili omen ziren batzuk. Euren amak ezkondu zirenean duro bana eman zien eta berak bere seme-alabei. Amadeo erregearen irudi zuten duro haiek.

### Transkripzioa

-Orduan ez zan apreziatzen zidarra ta! Eta gero berriro badakizu zidarra zela... batu zittuen danak hemen.... alemanak ziala, ez ziala ta. Danak, zidarra dana batu zebe etxerik etxe. Baiña gure amak laga zittuan berrogeita hamarren bat edo gehixao, e... [duro han], ta ezkondu giñanian danori emon zoskun. Neri emon zostazen hamar eta semieri be bai ta danori partidu zoskun. Ta nik uste, ezkondu dianian, neuk emon notsen. Ondio nausixak eukiko dittu gurian. Amadeo “ no sé ”... [zein da?] hemezortzi? Zelakua zan? “Mil novecientas dieciocho”kua edo erregia, Amadeo “ no sé cuántos ”. Erregian, e... zera be baneukan. Eta etorten jatan hemen joiero bat eta esan notsan: “Hemen ez dakit zidarrana zenbat aintzen dosten. Hiru bider gehixao ta zidarra pagatzeko” ta “Ez eizu saldu, Maria, horrek egunetik egunera balixo dabe gehixao-ta!” Gorde ein nittuan harik eta umiak ezkondu arte!

- Ondo.

- Ez daukat oin, e! Emon notsen. Batari ezkontzeko. Ezkontzeko be arrak eruaten zian lehen. Eta neu be pezeta bikuekin ezkondu nitzan, pezeta biko zidarrekin. Badakizu. Oin bape bae. Oin juezetik eta ez da diru hori usauko. Baiña esne kinzenok holaxe [erretzen] nittuan.

## 9.8. Kanoi lantegia

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Galartza, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** SOR-056/003
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:01:05. **Bukatu:** 00:02:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »  
Debarreneko lantegiak  
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena:** Soraluze nolakoa zen garai batean. Lantegietan grebak egoten ziren, eta Gaztelatik beste mordoak ekartzen zituzten, langileak. Kanoi lantegia zegoen. Desagertuta dago. Emakumeek ere egiten zuten lana han. Bera han ibili zen lanean, bulegoetan. Kostatu zitzairen lana aurkitzea, gerraostean herrira bueltatu zirenean.

## Transkripzioa

-Zelakua zan orduko Plazentzia?

-Plazentzia zan ba oso trankil; trankil-trankil. Jente asko juten zan lanera. Egoten zien fabrikan oin be egoten die, ez dakizu /eztakizu/, horrek, huelgak.

-A, bai, e?

-Bai, eta jota danok kanpora. Eta gero atzera Kastillatik edo /ero/ ez dakit /eztakit/ nundik ekartzen zebe beste mordo bat.

-Zer egon zan, krisisa edo ala?

-Bai, krisisa egoten zan. Han be askotan egon da gerra aurretik.

-Eta ze fabrika zan inportantia?

-"De cañones", kañoi fabrikia.

-Famosua, ezta?

-Bai, famosua; ointxe doia, pif!

-A, bai?

-Bai, zertu da, ya desaparezidu da. Oiñ etxiak eitteko edo /ero/ esaten dabe, ez dakitt /eztakitt/ ze ingo daben.

-Gizonak bakarrik eitten zebe kañoi-fabrikan ala andrak be bai?

-Ez, andrak be bai. Nik han ein neban lana, han ofiziñan. "La oficina de primas", bai.

-Baiña gero, bueltau ta gero, ezta?

-Bai, bueltau ta gero. Lelengo jun giñan danera, fabrika danak; bai ba, gu aldatu ein giñan, gu txikixak, gu beste... Etorri giñan ba diferentiak, eta ezautu be; ezautu ez. Jun giñan aitzia ta bixok fabrika batera: "No-no, no tengo trabajo, eztao lanik, ez, ez".

## 9.9. Iltze-fabrikako iltze motak

- **Hizlaria(k):** Oruesagasti Txurruka, Luzio; Oruesagasti Txurruka, Mateo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** SOR-085/027
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:39:05. **Bukatu:** 00:40:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak  
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »  
Debarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Iltze-fabrikaren tamaina desberdinetako iltzeak egiten ziren. Hainbat iltze mota aipatzen dituzte.

### Transkripzioa

-Ultze-fabrikaren ultziak neurri danetakuak eitten zien edo puntapaisak bakarrik edo? Zergatik izaten da puntapaisa?  
-"Puntas de París" zan esaeria.  
-Nork ekarri eban izen hori edo lelengo ultze hori edo zer? Ze diferentzia zeuan beste ultze batzuekin?  
-Puntak danak eitten zien horrek. Hor eitten zien baita "cabeza perdida" be bai, zapatendakuek be bai, txiki-txikixak be bai. Hor eitten genduzen ba hasta entengia, entengia, ciento diez, ciento diez, numeruak be danak dazkit horrenak.  
-Nik 120 be sartuta daukat egurrian.  
-Bai, 110, 110, entenga normala 120 gero bertan zerian luziaua sartzeko, baiña 110a zan normalena.  
-Osea ke buru bako ultze txikitatik...  
-Bai. "Cabeza pedida" esaten otsaun, cabeza perdida, buru barekua. Hori eitten zan... Nik makinak hortxe ein nittuan horrek eitteko be. Ein genduzen geuk hor makinak hori eitteko, ultziak eitteko.

## 10. Euskara

### 10.1. Errekan arrantzan egiteko teknikak

- **Hizlaria(k):** Argarate Arizaga, Gregori; Zangitu, Alfonso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Erref:** SOR-006/026
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:30:50. **Bukatu:** 00:34:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Euskara » Lexikoa  
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Arrantzan egiteko "eskirola" erabiltzen zuten. Ufala zegoenean, ezkailuak bazterrera joaten ziren. Arrantzan egiteko erabiltzen zituzten teknikak: Butroia; kordela; "abutza"; "esparbela". Lexikoa.

### Transkripzioa

- Eskirolakin ibili giñan lehengunian berbetan, ezta?

- Zerekin?

- Peskarako eskirola. Bueno, hau da kafe-txanua, badakizu. Zestua edo banastia esan dostazu badakizula zer dan, guk harrikotzaria esango dotsau, zuek ez dakit ze esango [...].

- Bai, harrikotzaria hau.

- Bueno, harrikotzaria. Hau izen deilla harrikotzarian goixa, e! Ta hau formiau halako mailliakin eitten jakon, hau formiau halakuakin eskallutarako.

- Holako saria eukitzen juan.

- Eta ufala danian, ezcalluak baztarrera urtetzen dabe.

- Horrek makilla luzia eukitzen juan.

- Gero hau izeten da holako luzia izeten da, e! Eta ufala danian ezcalluak baztarrera juaten dia ufaletikan ihes eitten. Ufala goittikan behera ta hau eskiola hola pasatzen zan hamen harrapatzeko. Hau berriro butroia.

- Butroia ez, abutsa.

- Honen form... Abutsa ta butroia.

- Bai.

- Ze da hori abutsa ta...?

- Loiñak, loiñak... Hau [...] masajiak emoteko daukatena hau, baiña formia halakotxia eukitzen zeban.

- Ez, baiña erdiko hori... Aber, ekarrizu hona. Honen modukua [izeten badok, hau dana] izetia, ezta? Ta gero hori barruan... Aber, ekarri beste hori.

- Zein hau?

- Ez, hori txanuori.

- A! Kafe-txanua.

- Eukitzen juan hemen hau holako bat, honen foman, eukitzen juan hemen arraiña sartu dein.

- A, bai.

- Hau [...] ipintzia moduan, ezta?

- Bai. Ta gero urten ezin?

- Ta sartzen [dittuk] barrura ta ez juek urtetzen.

- Bestekaldian muturra itxitta eukitzen eban ta.

- Egurrakin jositta [izeten] zuan, listoia jositta [izeten zuan]. Barbuak eta harrapatzeko botatzen zuan ta eukitzen zuan egun bat edo bixan ta etara [uretatik] ta atzera bota ta...

- Bai, bai, hori botelliakin be itten da, botellia...

- Eskalluekin be botillekin be itten da ezcalluekin be, baiña oin ez dakit horrek botellaorrek daren be, e!

- Bai, botillak egongo dia!

- Nun? Aber, nun?

- Zurixak, nahi izeten zittuen zurixak.

- Zurixak, baiña beste gauza bat: botilliakin...

- Erdixan, bai...

- Bai, oin daren botillak...

- Zulua horren formakua, horren forman...

- ... lisuak

- Honen forman euki deixela ipurdixa botilliak.

- Bai, bai, bai, bai.

- Baiña oin gitxi... oin ez dakit iñun be daon halakorikan, danak botellak dare lisuak nik ikusten dittutenak hamen.

- Bai, [...] lisuak.

- Ta halakuak bihar zian. Ta gero muturrian kentzen otsen kristala limiakin edo, ta sokiakin lotuta botatzen zian ta gero ezcalluak sartuta egoten zian goizian.

- Ta markia da hori be, sartu eitten zittuan ta urten ezin, e!

- Urten ezin...

- Asmau ezin!

- Asmau ezin...

- Ta guk zerak be bai...

- Ta zulua, zulua iguala do, ba, [...].

- Zulua badao...

- ... kordela esaten jakon, akordatzen zara? Zu be ibilita egongo zara kordelekin peskan...

- Hoixe!

- Kordela izeten zuan soka luze bat, antzuela mord... antzueluak mordua ipinitta txixariakin. Ta hari puntan, ba, beruna edo lotzen jakon soka luziari ta gero botatzen zan ibaira ta gero, ba, baztarrian dauan arbola zer bateri lotuta gelditzen zan haura. [...] aingirak-edo barruan, [...] edo.

- [Baiña harri bikin] ba bai kordelak botatzen zian [...] errekan. Ta butroiakin be bai. Butroiakin harrapauta nao aingirak harrapauta nao.

- Hori, butroia esan dozu? Hori esplikau dozu edo ze zan?

- Hori abutsa guk esan douna...

- Hau eskirola, honek hormakuak.

- ... butroia be estilo hoixe. Horrek... hori zeroi... horrek... Ez, hori zeroi.

- Hau... hori. Horren modukuakin inda...

- Hau, e, ez, baiña...

- ...[...], ezta?

- ... harixakin eindakua izeten zan, e! Maillia.

- [...] abutsandako modukua hori... [...], horretxen moduan.

- Honek ipuin asko aztarketia [...].

- Orduan, izenak zela dia? Butroia...

- Eskirola...

- ... eskirola...

- Abutsa.

- Abutsa.

- Ta bestia kordela.

- Ta esparbela. Beste bat [izeten] zuan, hola bota ta zabal-zabal geratzen zuan. Esparbela esaten jakuan hari.

- Hori ikusitta eukiko dittuzu, arrantzaliak, ez dakizu, zela botatzen daben peskarako? Ba hamen be itten zan [Irukurutzetako] errebueltan.

- Loiñak-eta harrapatzen zittuen.

- Loiñak eta...

- Loiñak eta barbuak be bai.

- Ointxe sasoiari harrapatzen zian ur-agorra zela egoten dan. Ur-agorra badakizu zer dan?

## 10.2. Hazkunde industrialia gerra osteko urteetan

- **Hizlaria(k)**: Aranberri Laskurain, Natividad
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ariznabarreta, Gurutze - Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-010/009
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:11:15. **Bukatu**: 00:14:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oregi, Benan
- **Gaia(k)**:  
 Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia  
 Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

- **Laburpena:** Gerra amaitu eta lana gehitzen hasi zen tailerretan. Amutxasteginera joan ziren erreleboan lan egitera bera eta beste lagun bat. Neskatan, mutiletan. Toponimia; baserrirako bideak. Gaztetako ibilerak.

### Transkripzioa

- Gero e, gerria amaittu zan, ta taillarretan bihar pixkat etorri zan, ta ni, lzarreko aitzia, Amutxastegiñera juañ giñan biharrera. Errelebuan, e? Errelebuan, e? Juañ giñan Amutxastegiñera biharrera errelebuan, ta hamar t´erdietan urten kaliañ ta hor bide zaharretan Goenexeraioñ oiñez, e? Ai! Jarraitzen euskuen mutillak ta... geiztu! Orduan oingo moduko libertadia ez zan, e! Hola laztanka ibiltzia ta bata ta bestia ta?

Zabaletako bide-zidorra atajua... Zabaletako soluetan gora, atajua, bide zaharri lagata, atajua... Atajuak eukan mailla bat ixa metro- erdi metro bat inguruko mailliakin, igotzeko hankia jaso bihar gora, ta hasten giñan, mutillei esaten [...]: "Zuek aurretik", ezetz, ezetz. "Igotzeko gora!" ta ezetz, hantxe laurok teman, teman. Azkenian orduak aurrera ta... geuk androk... Hasten giñan... Ai, Julikin akordatzen naiz... igotzen hasten zan da "krak!" gonia atzetik... Julik ostikara batzuk, ene! Hara, guk eitten genduzen eittekuak! Gero Etxebarrira ixa aillegauan Etxeberriko aldapa bat han, aldapa haundi bat behetik gora, han bide zaharrian gora ta... "Oindiok urriñoa juañ bihar dozue?" ta "Bai, oindiok gorau juañ bihar dou. Nahi badozue juañ zaittie atzera behera!" ta segi! Segi laurok demandan gora. Allegau giñan Goenexera ta... garixa euan orduantxe ebateko ta... gari-sorua ederra, e? Badakizu zer ein euskuen mutill zikin harek? Azkenian geizki tratau genduzen geuk be juateko nahi badabe ta ez genduala nahi ta... Buelbaka ibili gari-soruan.

- Ze, zeuen aurrian?

- Eeez, gu barrura sartu ta gero, gu barrura sartu eta gero soluan bueltaka gari artian mutillak ibili ta...

Hurrengo goizian, aitta hasarria: "Ene! Baiña zein ibilli don gure gari-soluan? Hau don biharra!" Eta gu ixillik Juli ta bixok!

Haretxek mutil zikin harek garixa dana apurtu ixa bueltaka ibillitta... Bai... Ene! Zenbat halako ibilli genduan! Zenbat!

### 10.3. Dantza-taldea ikastolan bertan

- **Hizlaria(k):** Quintanilla Lete, Maite
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze
- **Erref:** SOR-098/005
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:07:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Euskara » Euskararen egoera  
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Jende asko zegoen herriko dantza-taldean. Harremantzeko modu egokia eta euskalduna zela dio Maitek.

### Transkripzioa

- Nik ez dakit zenbat urtekin hasi nintzan dantza taldian, baiña ikastolan neuan, eta gaiñera... bai, txikitxua nintzan eta hor ikastolako ba lehengo gimnasixuan-eta gogoratzen dot. Eta genden jente pila bat, osea, ume pilla bat, gazte pilla bat... Eta igual bazan be bai beste jente batekin

harremantzeko gune bat edo, ba, beste adin bateko jentia, ba, igual kalia ez zenduana topo eitten. Euskeraz zan leku bat, ez dakit ondo pasatzeko leku bat... Nik hamabi urtera arte uste dot jarraitu nebala dantzan; gero, ba, bueno, futbola ez dakit zer, eta ya aukeratu in bihar zan. Baiña bai, ez dakit, pozik juaten nintzan leku bat. Eee.. Uste dot herrixan be bai jente askok jarraitzen zebala gune hori eta ez bakarrik guraso euskaldunak genkanak, beste inguru bateko jente batek be bai. Eta, bai, ez dakit, aisialdi bat euskeraz zana eta, bueno, azken fiñian be bai, ba, hemengo kultur transmisiño batekin edo hemengo dantzak ikasten edo...

#### 10.4. Soraluzeko euskara aldatu al da?

- **Hizlaria(k):** Quintanilla Lete, Maite
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze
- **Erref:** SOR-098/027
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:42:34. **Bukatu:** 00:44:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
  - Euskara » Euskararen egoera
  - Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Etxetik erdaldunak diren umeak dira nagusi herrian. Ume batzuk batuan entzun izan ditu Maitek, eta hau eskolaren eragina izan daitekeela dio. Beste gazte batzuek, ordea, euskalkia erabitzen ere badakite.

#### Transkripzioa

- Gero ya... ya pixkat konkretua, Soraluzeko euskeria eta, zuk ikusten dozu aldaketarik zure zaharrauek nola itten daben berba edo zuk nola itten dozun berba edo txikixauetan nola ikusten dozun... aldaketarik bai?

- Jo, nik igarri dotena da azken urtietan, ez igual askotan... Karo, gero begiratu bihar da be bai gurasuak: zenbat ume edo gaztek dauken gurasuak... bueno, bixak euskaldunak diranak da oso ehuneko txikixa; bat euskalduna bada, bueno, baiña gero ikusi biha da be bai etxian ze giro dauan, ez? Eta gero, askonak dira bat bez ez dala euskalduna, osea, hori...

- Bertakua izatia.

- Bai, bai, hori da.

- Esan nahi dot, euskaldunak gehi Plaentxiakua.

- Hori da.

- O Bergarakua edo, osea ez... aldaketa ya hortik etortzen da.

- Bai, hortik dator, baiña ez bakarrik kanpoko etorkiñak e, osea askotan be bai, ba, bueno, garai baten etorri zianak Españaiko beste leku batzuetatik.

Ta, karo, orduan, oso etxe gutxi dia nik uste dot euskeraz eitten dutenak euren artian, ta, karo, hor doia be bai hizkuntzan transmisiñua, hizkerana, euskalkixana ta gauza askona. Baiña gero bai harritzen dosta, hori, dauz ume batzuk derrepente igual batuan entzuten dittuzunak, eta igual hori lotu ahal da be bai, ba, guk ikastolan egonda, hemengo irakasliak... ez dakit hemengo irakasliak genkazen eta, orduan, hemengo euskalkixa be bai transmititzen zan hein baten. Eta gaur egun, ba, da, ba, bata donostiarra bestia ez dakit nungua... nik uste dot horrek eragiña daukala eta, orduan, ba, ume askok euskeraz eskolan ikasten dutela, ze kalia ba ya askok be ez. Baiña gero, kuriosua da, ze ni gaztiekin eta egon nintzan gazte guztiekin, nahiz eta bi gurasuak erdaldunak euki erdel... giro erdeldun baten ibili lagunartian, danak dakixe plaentxiarrez; ez igual ondo,

igual aditz guztiak ba nik pe ez, igual ez douz danak ondo erabiliko, baiña euskal... osea, ez dabe itten batuan. Batzuk bai, e, badare hola banaka batzuk, baiña gehixenak euskalkixan. Eta, orduan, nik esaten neban "Joe, ez dabe eitten eren artian euskalkixan, baiña gero, euskeraz... baiña gero euskeraz itten dutenian, badakixe euskalkixa". Orduan, hor nunbaiten zeoze jasotzen da, osea, ez dau dana galduta bez. Ez dakit, hori da pixkat positibuan ataratzen nebana.

### 10.5. Hitanoa: mutilen artean batez ere

- **Hizlaria(k):** Quintanilla Lete, Maite
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze
- **Erref:** SOR-098/028
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:44:58. **Bukatu:** 00:47:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
  - Euskara » Euskararen egoera
  - Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Etxean amak hiketa erabiltzen du senideekin, baina orokorrean galtzen ari den ezaugarria dela dio Maitek.

#### Transkripzioa

- ... Zure lagunartian eta, hiketan edo hika berba eitteko ohiturarik... bai... ez...?

- Keba.

- Jaso dozu... badakizu honek hala eitten daben eren artian edo badaukazu referentziarik eta..?

- Jo, nik hor daukat kriston penia, ze ni ez naiz gai; idazteko igual, ba, denpora pixkatekin eta pentsauta, baiña gero... puff... hola, harremanetan, ez. Gero nik bai, ba, lagunartian, batez be mutillen artian, badaukatzat batzuk, ba, ez dakit, ba, Eneko eta Gotzon euren artian edo Egoitzek batzuekin be bai... Gero, Arianne eta honek be entzun izan dittut hikan euren artian. Eta gero, ba, nik etxian nere ama, nere ama nere ana... beran ana... osea, nere tiokin eta hola edo bere lehengusuekin edo hola. Ta, jo, nik askotan esaten dotsat "Ein neri be bai, eske bestela ez dou ikasiko" ta, gainera, hori bai ikusten dot, adibidez, galtzen. Galtzen, galtzen. Ze eskolan, ni akordatzen naiz esaten zoskuela "Bueno, hau ez da inportantia" ta, jo, ez da inportantia... ba, ez dakit, hurbilleko tratu baterako eta... ez dakau, nik ez daukat registro hori, eta ni baiño gaztiauak gutxiau.Oseaa...

- Eta edadeko pertsoneri eta, ez dakit, kalian-edo somatzen dan hika berba itteko joerarik...

- Batzuk entzuten dira, e! igual ni be fijatzen naizelako hortan, baiña, hori, ba, ya ze? hirurogeitik gorako jentia? ta hortik azpira... Gero, ba, gazte batzuk, ba, igual ein dutenak ahalegiña... "benga", baiña ahalegin bat da, osea, ez da berez jaso dogun zeoze. Gero ein zan hemen oin dala urte batzuk hikan ikastaro... hitanuan ikastaro bat eta ez dakit zer, eta batzuk ibili ziran. Ta gero, ordutik, ba, hor topo in zebeu batzuk eitten dabe euren artian, baiña puff... pilla bat kostatzen da, e. Ta kriston penia da.

- [...]

- Bai, ze ez da iguala... ba, ez dakit, ba, Azpeittin igual zuk ezagutuko dozu beste... baiña hemen... bai. Ta nik kriston penia daukat horrekin, e.

- Bai, bai, egixa da, igual gurasueri entzun bai eta hortik jasotzen dozu, [...]

baiña gero norberak eitterako ez baldin badauka, ez baldin badau euki

aukerarik eitteko... ostras!

- Bai.

- [...] badaukat, baiña gero...

- Gero falta da, bai.

## 11. Diaspora

### 11.1. Soraluzetik Argentinara; hango hasierako egunak

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Muguruza, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Unamuno, Egoitz
- **Erref**: SOR-016/002
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:01:30. **Bukatu**: 00:03:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Unamuno, Arianne
- **Gaia(k)**:  
Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara joateko arrazoiak  
Diaspora » Lana diasporan » Abeltzainak eta nekazariak diasporan  
Diaspora » Euskal Etxeak
- **Laburpena**: Felix Argentinara iritsi zen 1951ko urtarrilaren 20an. Bakarrik joan zen, baina bertan bazituen bi osaba. Euskal Herrian lana bazegoen arren, gauza berriak ezagutzera joan zen. Bere osabek ganduarekin lan egiten zuten. "Zazpirak bat" Euskal Etxeko bazkide noiz egin zen ondo gogoratzen du. Gaur egun "presidente honorario" dela dio.

#### Transkripzioa

- Bueno, ni hona etorri nintzan, allegau, hona, Argentinan, "20 de Enero del 51, 20 de Enero del año 51". Bakar-bakarrik. Etxian Plazentzian urten nuan "primero a las cuatro de la tarde, el primero de Enero del año 51". Ze ze ze eguna, e? "Primero de Enero a las cuatro de la tarde salí". Nik e lana fabrikan eitten nabean, ondo nabillen baiña, e ba gaztiak, gaztiak eta bueno abenturak eta... ba urten nuan eta. Hamen etorri nitzan hona probatzera, eta aber zelakua dan, zelakua dan, e ze pasatzen dan hamen. Tio nauken ba, hamen tio bat, a bi tio nauken, baiña este... aber ze ze zela ebizen, ta horrek e lana eitten zaben kanpuan, hango ganauekin ta, ba haura zan nere ofiziua, hamendikan ta berrogeta berrogeta bost kilometrora, Aseban, Aseban izena, herri bat, ta bueno etorri nitzan hona, hillebete, febreruan edo marzuan, edo ene, ez naiz akordatzen, akordatzen naiz Zazpirak Baten, "Centro Vascon " sartu nitzan eguna. 18 de abril del año 51.

- Goguan dakazu,e?

- Sartu nitzan, sartu nitzan han lehenengo aldiz, sozio ein nabean, ta ondiok be soziua naiz. Ta oin presidente, presidente naiz, "presidente honorario, el primer presidente honorario de Zazpirak bat".

## 12. Natura

### 12.1. Baserriko bizimodua

- **Hizlaria(k)**: Oregi Oregi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz

- **Erref:** SOR-022/005
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:08:30. **Bukatu:** 00:13:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Natura » Meteorologia  
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Lan-plangintza. Uda garaian, belar-ondoa. Armozua. Gerezi klaseak.

### Transkripzioa

- Ta, gero, ostiango lanak, ba, ze esango dotsut, ba? Ostian hamengo basarrixa gehixen be eruan dot nik... Hor esango neuke pixkat buruakin jokatu dotela. Esango neuke, naon moduan egoteko. Zeaittik ez... Ni goizeko bostetan udako prisako zerian [zaonian] bedarrondua ta horrek historixok, goizeko bostetan jaikitzeke kostunbria. Bostak-bost ta erdiak. Hortxe, pixkat gehitxuao [...], baiña txorixekin batera, segia hartu bizkarrian ta banekazen hogeta hamar biaje edo nekazenak, edo berrogei, zarenak, banekixan goizian goizao jaiki ta amaittu artian nekatu barik eitten dozu biharra goizeko freskuran. Ze, zortziretan segia hartuta bedarra ebatera jua edo goizeko bost eta erdietan jua txorixekin batera, fresko-fresko alde haundixa dao, e? Onbre! Ta nik zortziretarako, ba, einda eukitzen naben nere tareia. Gero etxera etortzen nitzan ta lehelengo amak eta gero andriak, ba, nekan kostunbria, berakatz-zopa, berakatz-zopa hori sikuori, basarrikua, lehen eitten zana arrautza bat edo bikin, nahastau ta botilla erdi bat arda era geiñian. Ta geratzen nitzan "Pepe" moduan. Gero, ba, hartu...Armozau ta horrek eitten nittuanian, ba, bedarrak ebaittakuak zabaldu ein bihar zian, ba? Harek zabaltzera-ta juaten nitzan ta gero txaran, oin autopistian terrenuak kendu dittuen lekuan, keixa pillia zeuan. Arbola huandixak keixak. Baiña nik be ixo eitten naben, sasoi nekan ta. Ta keixa edarrak jan ta... osasuna, e? Osasuna da hori, e! Goizian goizao jaiki, armozau, gero bedarrak zertu ta gero keixa edarrak jan. Ta gero asko egoten zan hor ta, kaleko jentia etortzen zian keixak jatera. Bai, ta aittak esaten otsen: "Keixak jan, amaittu artian, baiña gero sagarrak eta beste frutak datozenian, harek errespetau, e? Harek ez." Ta hola errespetau be bai, e! Hamen kaletarrak, egunak egongo zian hogeï lagun-ta ibiltzen zianak keixa jaten, [ze] arbola pillia [bat] zeuan ta keixia ginda-keixak eta, baltzak eta gorrixak, onak, e! Keixa klasia fenomenua.

- Keixak orduan ze klase zeren?

- Ginda-keixak, gorrixak, baltzak... Oin be badakaraz. Hor, autopistatik behera aurtan be keixa pillia egon da. Ta horri be esan notsen, [hor dabiz] ta jua zan urtian be [guardak] eta danak [hor ta bestia]. Ta nik esan najeuan: "Honek, oin bakia eitteko edarrena daneri emotia dok, ba!" Ta esan notsen ta: "Bueno, vosotros también comer. Entre todos vamos a comer antes y..." Iez be pillia egon zuan ta aurtan be berdiña. Ta geuk be pillia jan dou. Ta nola horrek bertan dabizela, horrek hor ez ibiltzera txorixak jango zittuen danak. Baiña horrek hor... Eskabadoren zaratiakin ta kamioien zaratiakin keixak salbau ein dia. [...] be pillia jan dou ta [berok] be bai. Ta iez be bai ta aurtan be bai. Ta danak konforme. Ta hor hiru-lau keixaaittik, "Ez dozue hartuko, geuk bihar dittuu" ta... Badakik ze etortzen dan hortikan. Ta dana da libre ta danak gustora; [berak] be gustora ta geu be gustora. Ta kitto. Ta hurrengo urtian, ba, seguramentetikan, oin goittik ibili dia, baiña gero buelta haundixa ein biharko da, zeaittik eze hori behian geratzen da, kortau eitten doskue. Hor behian terreno zatixa geratzen jakue, [hektarea] bat pasau ta gero han beste bat, bi. Ta behetik doiaz

eittera kamiñua, behetik ein bihar doskue. Baiña lehen zuzen bertatik juaten giñan moduan, oin jua bihar dou han behetik bueltan, zeretik bueltan, ba, ein bihar dozuz bostehun metro, kilometro erdi gehixao igual. Baiña...

- Lauaua geratuko da igual...

- Bai, lauao be ingo dabe, baiña keixatara jua bihar bazara, hamendik horra jua biharrian, Iraolagoittitik jua bihar. Hori aldiori geratuko da, ta gero ikusi ein bihar han behetik, ba, bide ona eitten badabe behetik, ba, konpromisua be egongo da, jentia be ibiliko da pixkat eta bestia, baiña, ba! Baiña geratu, arbolak, edarrak geratu dia. Ta mordua, e! [Beste] hamar arbola edo... Ta gazte-gaztiak, e! Eukiko dittue hamalau bat urte edo, ia ointxe emoteko sasoiaren darenak. Oin be... Nik neuk oin ez dot ixotzen arbolara, gitxi. Alabian gizona, hor, Osintxukua etortzen da ta [harek bizikletan urtetzen dau] ta harek batzen dittu. Batu ingo nittuke, baiña nekia da. Peligro... ondiokan ez dakat nik hori zerori, baiña nola hankak euki bihar dozuzen postura txarrian ta bestia, geroko egunetan igarri eitten dotsazu. Nekatuta [agertzen] zara. Lanian baiño gehixao nekatzen zara. Ta horretxeaittik, ba, horrek gauzok laga ein dittut pixkat. [Ixo...] batzuk jateko-ta, baiña batzen-ta ordu pare bat arbolan neke haundixa da. Egun guztiko biharra baiño neke haundixaua da, zeaittikan postura txarrian egon bihar zara hankekin ta bestiakin ta... Ta hola.

## 12.2. Kanpaiak jotzen zituzten ekaitza zetorreanean

- **Hizlaria(k):** Eguren Larreategi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** SOR-047/007
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
  - Natura » Meteorologia
  - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak
  - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** San Andres auzoko ermitan kanpaia jotzen zen hodia zetorreanean. Kanpai klase desberdinak; esanahia. Su-kanpaia; albakoa... Beheko baserriko (Arteta) gizonak jotzen zuen kanpaia.

### Transkripzioa

- Orduan, hori, etxiak edo basarriren bat erretzen zanian kanpaiak jotzen zittuen han San Andresen?

- Bai, kanpaia jotzen zeben. Zeozer, zeozen [zera], hode haundixa edo egualdi txarra pentsatzen [zeben]... Esaten [doste] lehengo baten batek: "Zu —beno, Pil-pil-ak ipintzen eban— San Andresko kanpaiak ze esaten zeban. Haura azertatzen dabenandako afarixa zeuan". Esan notsan: "Ene!" "Han, han, han, han" esaten ebala San Andresko kanpaiak. Ta "Bai, hori esaten zeban". Baiña afarixa jan ta gero neri ekarri zosten Pil-pil-a ta kitto. Eta bai hori esaten zeban, bai, "Han, han". Eta entzunda nao ni Gilanian ez dakit nungo biantzia tabernan, esaten ebala eze: "Hi, hori kanpaiori, ze signifkatzen jok horrek? Horrek ze jakik? Gu beste jakik eta!". [Zelan da], Gilanian zeoze hartu, urten ebanerako jo-ta goixan hasi ta beheariñokuan baldakadia botatuko moduan eurixa ta kristona [ein zan]. "Enee! Ez najuan asko esango!". Baiña batzuk gehixao entenditzen dabe beste batzuk baiño,

ba, ta... Ez dakit, ba. Itxuria.

- Eta kanpaiak ze izaten zian, diferentiak? Ba, ez dakit, hode-kanpaia eta...

- Bai, hode-kanpaiari emoten zotsen kaleko...

- ... edo... su-kanpaia diferentiak zian?

- Bai. Su-kanpaia...

- Igarri eitten zenduen segiduan, sua edo hodia edo...

- Bai, "suan kanpaia da", zeaittikan kalekuari be bueltia osua "tin-taun, tin-taun" emoten zeban kalekuak be ta [hari erantzuten zotsan] bestiak be. Ta bestela: "Tan, tan, han, han, han, han" esaten eban. Bai. Baiña...

- Esaten dozu angelusa be jotzen zebala, ez? Kanpaiak. Angelusa edo...

- Angelusa be bai, goizian albakua be bai; danak joten zittuan harek.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Astoarekin herrira saltzera (SOR-001/003)

Astoarekin herrira saltzera. Prezioak. Kaleko atsoak beti demandan. Tripa handirik ez zuen inork.

### 2. Umetan fraka motzak (SOR-001/004)

Umetan fraka motzekin. Fraka luzeak jantzi zituenean, mutil izateari laga.

### 3. Umetako jolasak; okerkeriak (SOR-001/005)

Boletan egiten zuten. Umetako jolasak: harrapatzen. Umetako okerkeriak. Tronparekin; burdinazko erroberarekin jolasean.

### 4. Erlijioaren garrantzia (SOR-001/007)

Domeka arratsaldetan etxeko nagusiek zer egiten zuten. Astegunetan San Andresen ez zen mezarik egoten. Konfesatzera ere joaten ziren "bihako juan...!". Soraluzeko abadeak.

### 5. Goizean goiz mezara (SOR-001/008)

Goizean goiz mezara lasto-azaoarekin.

### 6. Lur-zuloak bide bazterretan (SOR-001/010)

Umetako okerkeriak. Lur-zuloak bide bazterretan.

### 7. Aizkolari ezagunak; posturak (SOR-001/013)

Aizkolari ezagunak Soraluzen. Postura gogorra egin zuten Eibarren, Eibarko Izkua baserriko Pedro eta Soraluzeko Izar baserriko Josek. Entrenamenduak Azkoitian. Keixeta aizkolaria, oso ona. Postura kontuak.

### 8. Postura kontuak (SOR-001/015)

Beste postura batzuk. Antxitxiketan; zeihenago ito elkar; e.a.

## **9. Baserriko lexikoa (SOR-001/017)**

Galtzua, gari-sustarrari esaten zaio.

## **10. Postura xebreak (SOR-001/018)**

Postura kontuak. Hankan jostorratza ezetz sartu. Hanka-gorri egiten zuen garotan.

## **11. Baserriko bizimodua umetan (SOR-001/019)**

Umetan hanka-gorri ibiltzen ziren.

## **12. Umetako bizimodua baserrian (SOR-002/002)**

Umetan baserrian egin behar izaten zituen lanak: behiak jetzi; esne-saltzen kalera; e.a. Ondoren eskolara joaten zen. Maristak. Eskola amaitutakoan, Atxolinera ardizain. Narruzko abarkak. Eskolan zer ikasi zuen.

## **13. Maristetan jasotako hezkuntza (SOR-002/003)**

Eskolan, maristetan ibilitakoa. Zer ikasi zuen; zigor gogorak jasotzen zituzten... Baserriko mutilek erdaraz jakin ez eta euskaraz egitearren izaten zituzten zigorrak. Eskola kontuak. Irakasleak. Diziplina handia.

## **14. Baserriko eta kaleko umeak (SOR-002/004)**

Baserriko vs. kaleko umeak. Baserriko umeak gixajoagoak beti. Baserriko bizimodua umetan. Familia giroa.

## **15. Familia giroa (SOR-002/005)**

Familia giroa. Amonaren inguruko kontuak. Ilea nola belzten zuen.

## **16. Hileta-elizkizunak: ohitura zaharrak (SOR-002/006)**

Hileta-elizkizunak. "Burdilazko andia". Bidegurutzeetan, hilkutxa lurtean utzi eta "Pater noster" a errezatzen zen. Etxean hildakoren bat zegoenean, ez zen lanik egiten (ganajatekoa prestatu ere ez). Auzokoen laguntza.

## **17. Baserriko bizimodua umetan (SOR-002/007)**

Baserriko bizimodua umetan. Umeek egin behar izaten zituzten lanak: itulan... Bizimodua asko aldatu da.

## **18. Umetako gorabeherak baserrian (SOR-002/008)**

Umetako kontuak. Ez oinetako, ez jantzi egokirik... Ganadu-zain...

## **19. Umeen bizimodua baserrian (SOR-002/009)**

Ume txikiak baserrian. Anega-erdikoan jartzen zituzten sarritan. Txiki-txikitan sorora gerturatu ere ez. Egiten ziren lanak: lurreta; laian...

## **20. Gerra garaia baserrian (SOR-002/010)**

Gerrako kontuak. Baserrian 22 abere eta 22 kristau egon zirenekoa ongi gogoratzen du.

## **21. Elikadura baserrian (SOR-002/011)**

Baserriko bizimodua. Zer jaten zuten: babak, urdaia eta porruak. Gaztainak.

## **22. Gabonak baserrian (SOR-002/012)**

Gabonetako kontuak. Dirurik ez etxean eta erregalorik ez zuten izaten. Bizimodua asko aldatu da. Zer jaten zuten. Gabonetan familia elkartzen zen.

## **23. Aurrerapenak baserrian: argindarra; irratia... (SOR-002/013)**

Argirik ez baserrian. Irratia noiz ekarri zuten. Errotako argia izaten zuten, baina ura zegoenean bakarrik.

## **24. Baserriko eta kaleko mutilen arteko harremana (SOR-002/014)**

Kaleko mutilak eta baserrikoak. Baserriko mutilek eguzkiari begiratuta ordua igartzen zutela eta, horren inguruko pasadizoa.

## **25. Herriaren bilakaera: dendak; lantegiak... (SOR-002/016)**

Umea zenean Plazentzian zeuden dendak. Kooperatiba. Sacia. Herria askoz ere txikiagoa; denda bakarren bat eta lantegi gutxi. Maristen eskola. Asko aldatu da dena.

## **26. Idiekin garraiatzen zuten materiala: ikatza... (SOR-002/017)**

Kaleko giroa; eguneroko bizimodua. Idiekin trenera ikatza eramatera... Kanoi fabrikatik materiala idiekin eramaten zuten tren-geltokira. Kamiorik ez gaur bezala.

## **27. Errekara arrantzan egitera (SOR-002/018)**

Errekan umetan. Domeka arratsaldetan arrantzan egitera joaten ziren errekkara. Guardia Zibila zaintzen ibiltzen zen. Eskuarekin zer harrapatzen zuten. Bizimodua asko aldatu da.

## **28. Umetako jolasak (SOR-002/019)**

Umetako lagunak, baserrikoak denak. Zertan jolasten zuten: harrapatzen; txori habiak topatzen... Neskak eta mutilak beti banatuta.

## **29. Baserriko lana beharrezkoa familiaren iraupena bermatzeko (SOR-002/020)**

Eskola amaitutakoan, etxean hasi zen lanean. Kanean lana bazegoen, baina garia eta artoa hartzea beharrezkoa zen familia aurrera ateratzeko.

## **30. Erromeriak; musika plazan... (SOR-002/021)**

Erromeriak. San Andresen soinua egoten zen. Ilundutakoan, etxera joan behar. Erromeria ezagunak: Hirukurutzeta; Elosu... Bidekua joaz joaten ziren. Inguruko herrietako neska-mutilak elkartzen ziren. Kaletarrak ez ziren mendi-erromeriatara joaten. Kanean ere musika egoten zen.

### **31. Erromeriak; neska-laguntzea (SOR-002/022)**

Erromeriatan dantza egin ahal izateko ordaindu egin behar izaten zen. Neska batzuk "kulape" ematen zuten. Neska-laguntzea.

### **32. Pazkoako txartela; konfesatu beharra (SOR-002/023)**

Konfesatzera joan eta abadeak galdetutakoa. Pazkoakoa egiteko konfesatzea derrigorrezkoa. Abadeari kontatutako ipuinak. Elizako jarlekuei, "setixak" esaten zizkieten.

### **33. Ezkontzak nolakoak izaten ziren (SOR-002/025)**

Ezkontzak nolakoak izaten ziren. Bazkaria etxetik kanpo. Goizean goiz ezkondu, gosaldu, tren hartu eta Donostiara eguna pasatzera. Dotea.

### **34. Garai bateko arrioak (SOR-002/027)**

Garai batean ezkontza-arria gurdian eramaten zen baserrira. Guenetxe baserrira, gurdian eraman zuten arria.

### **35. Umetako jolasak (SOR-004/022)**

Umetako jolasak. Afariketan.

### **36. Erreken kutsadura noiz areagotu zen (SOR-006/028)**

Erreka noiz hasi zen galtzen, zergatik. Osintxuko "Muskitxu" erreka. Toponimia.

### **37. Baserriko bizimodua: lixiba; etxeko giroa... (SOR-006/030)**

Sukaldean, beheko sua eta ekonomia. Zer egiten zen su bakoitzean. Lixiba nola egiten zuten.

### **38. Garbitasun gutxi gerra garaian (SOR-006/031)**

Umetan zorriak izaten zituzten. Gerra garaian garbitasun gutxi zegoen eta zorri, arkakusoak asko ugaritu ziren. Euliak nola harrapatzen zituzten.

### **39. Baserriko bizimodua: elikadura; garbitasuna... (SOR-006/032)**

Baserrian kobrezko galdarak. Etxeko janak nolakoak izaten ziren. Soro eta ortuan zer batzen zuten: garia, baba, artoa, gaztainak, patata; sagarrak... Garbitasunaren inguruan aldaketa handiak.

### **40. Erliijoaren garrantzia gizartean (SOR-006/033)**

Errezatzeko; mezara joateko ohitura.

### **41. Pazkoa garaiko ohitura (SOR-006/034)**

Pazkoakoa egiteko, txartel bat hartu behar izaten zen.

### **42. Aste Santuko sermoiak (SOR-006/035)**

Sermoiaren inguruko azalpenak. Elosun behin gertatutako kontu barregarria.

### **43. Sukaldean erabiltzen ziren tresnen izenak (SOR-006/036)**

Sukaldeko ontzien izenak: galdara, burduntzia, trebera, gelatza. Beraien akorduan, familiako guztiak plater bakar batetik jaten zuten.

### **44. Arto-malutazko koltxoiak (SOR-006/037)**

Arto-malutazko koltxoiak. Gerora, artilezkoak egiten hasi ziren. Burukoak, oilaskoen luma bigunekin egiten ziren.

### **45. Oinetakoak: bortzeriak (SOR-006/038)**

Oinetakoak. Bortzeriak nolakoak izaten ziren.

### **46. Jatorduak baserrian (SOR-006/039)**

Jatorduen inguruko azalpenak. Gosaria zelakoa. Hamarretakoa; 12:00etan bazkaria.

### **47. Kanpai klase desberdinak (SOR-006/040)**

Mojen komentuan jotzen zituzten kanpaiak. Meza-erdiko kanpaia. Herritar bat oso gaixorik zegoenean, txilinarekin joaten ziren elizakoak ematera. Tartean anekdota barregarria. Erljioaren garrantzia.

### **48. 10 urterekin baserrira morroi (SOR-006/042)**

Etxean senide asko eta 10 urterekin baserrira bidali zuten Alfontso.

### **49. Gabon gaueko afaria; menua (SOR-006/043)**

Gabon gaueko afaria nolakoa izaten zen. Olio-asa; konpota; intxaur-saltsa...

### **50. Osasun kontuak: erlakistena (SOR-006/045)**

Erlakistena. Zer den; kentzeko erabiltzen zen enplasto.

### **51. Baserrian argindarrik ez (SOR-006/048)**

Pagola baserrian argindarrik ez. Kandila erabiltzen zuten. Arkaitz baserrian beti ezagutu izan du Gregorik argindarra.

### **52. Jaiegunetan bazkari berezia (SOR-006/049)**

Jai egunetako bazkaria. Zopa, garbantzuak, aza eta okela.

### **53. Kofradia eguna (SOR-006/050)**

Kofradia egunean, gonbidatu joaten ziren Gregori eta etxeakoak Azkortara eta Laudatzera. Erroberoa.

### **54. Garbitasunaren inguruko aipamenak (SOR-006/051)**

Etxeko garbitasuna. Lixiba zenbatean behin. Bizarra astean behin kentzen zuten, barberoan.

### **55. Mutikoen arropak (SOR-006/052)**

Mutikoen arropak. Fraka motzak erabiltzen zituzten, baita neguan ere. "Peskarixak" izeneko frakak izaten ziren.

## **56. Bedeinkazioak; Garizuma garaiko ohiturak (SOR-008/002)**

Su bedeinkatua, ur bedeinkatua. "Illeskixa". Garizumako ohitura. Erramu egunean, gurutzeak bedeinkatzen ziren.

## **57. Aste Santuko prozesioak; ohitura zaharrak (SOR-008/003)**

Aste Santuko ohiturak. Santuak tapatu egiten ziren tela beltz batekin. Prozesioak. Santa Ana kaleko mojen komentua.

## **58. Hileta-elizkizunak eta usadio zaharrak (SOR-008/004)**

Prozesioen inguruko azalpenak. Hileta-elizkizunak; ohitura zaharrak. Baserrietatik hildakoa nola eramaten zuten elizara; "anderoak".

## **59. Sinesmenak; ohitura zaharrak (SOR-008/005)**

Sinesmenak. Trumoia, "hodia" zetorrenerako kurutzeak ipintzen ziren. Antzinako usadioak.

## **60. Sinesmenak (SOR-008/006)**

Sinesmen zaharrak. Animalien buruhezurak. Otsoak; azeriak. Erbiak.

## **61. Artilearen garrantzia: koltxoiak; jertseak... (SOR-008/007)**

Ardi beltzak. Jertseak egiteko artile beltza. Artilezko koltxoiak. Goruetan egiten zuen aitak. Esaera zaharra.

## **62. Artilearen inguruko lanak (SOR-008/008)**

Aitak goruetan egiten zuen. Artilea garbitu, kardatu; hariari "bigurra emon", etab. "Txabillia".

## **63. Txerri-hiltzea: auzokoei opariak (SOR-008/009)**

Txerria hiltzen zenean, auzokoen artean erregaloak egiten ziren.

## **64. Txakurrak baserrietan (SOR-008/010)**

Txakurrak baserrietan. Elektrikako zubia.

## **65. Lan-baldintzak: lanorduak... (SOR-008/011)**

Etxean egiten ziren jatorduak. Lan-baldintzak: lanorduak; oporrak.

## **66. Elikadura jaiegunetan (SOR-008/012)**

Egun berezietan zer jaten zen. Errezoak.

## **67. Kongregazioak (SOR-008/013)**

Kongregazioak: luistarrak, Hijas de Mar&iacut;a... Adorazioa.

## **68. Inguruko sagardotegiak (SOR-008/014)**

Sagardoa nola egiten zen. Sagardotegiak inguruan. Etxean sagardoa edaten zuten.

### **69. Baserriko bizimodua: jatorduak (SOR-008/015)**

Mahaian jartzeko orduan, bakoitzak bere tokia izaten zuen. Erditik jaten zuten. Mahaiak nolakoak izaten ziren.

### **70. Jantziak; oinetakoak (SOR-008/016)**

Jantziak nolakoak. Barruko arropak. Jai egunetan gorbatarekin. Oinetakoak. Abarkagileak.

### **71. Pilotarako zaletasuna (SOR-008/017)**

Pilotan elizpean egiten zuten. Kontsejupean ere pilotara jolasten zuten.

### **72. Aste Santu, Garizumako ohiturak (SOR-008/018)**

Umetako jolasak. Aste Santuan txirikiletan egiten zuten. Jolasa azaltzen dute. Garizuman dantza egitea debekatuta zegoen.

### **73. Umetako jolasak (SOR-008/019)**

Umetako jolasak. Diaboloa. Intxaurrekin egiten ziren jolasak.

### **74. Umetako jolasak (SOR-008/020)**

Umetako jolasak. "Balentokian".

### **75. Umetako jolasak (SOR-008/021)**

Umetako jolasak. Pote-poteka.

### **76. Umetako jolasak (SOR-008/022)**

Plaza Berrian egiten zen jolasa. "Txokolate jokua".

### **77. Umetako jolasak jai egunetan (SOR-008/023)**

Bizikletekin, "zinta karrera" egiten zuten. Andra Marietan egiten ziren jolasak.

### **78. Umetako jolasak (SOR-008/025)**

Umetako jolasak: kanikatan; sokasaltoan; afariketan.

### **79. Umetako jolasak (SOR-008/027)**

Umetako jolasak: itsu-itsuka. Zaku-karrera. "Kaskara-batzea".

### **80. Baserritik herrira azokara (SOR-008/028)**

Inguruko baserritarrak madariak saltzera joaten ziren Soralezera. Azoka noiz egiten zen. Baserriko tresna zaharrak.

### **81. Etxe-etxe ibiltzen ziren saltzaileak (SOR-008/029)**

Sukaldean erabiltzen ziren tresnak, egurrezkoak izaten ziren. "Paragueroak", "zorroztaileak".

### **82. Etxe-etxe ibiltzen ziren saltzaileak; eskekoak (SOR-008/030)**

Jende asko ibiltzen zen eskean. Jan eta lo non egiten zuten. "Komedianteak" ere egoten ziren Plaza Berrian. "Hungarianuak".

### **83. Ahari-jokoak inguruko auzoetan (SOR-008/033)**

Ahari-jokoak Ezosi eta Txurrukan. Futbol txapelketak; zezenketak... plaza zaharrean eta frontoian egiten ziren.

### **84. Kirolerako zaletasuna: "Antxitxika jokoak" (SOR-008/035)**

Antxitxika jokoak. Probak Errege-etxean. Gertakizunak.

### **85. Herriko pertsonaia xelebreak (SOR-008/036)**

Soraluzen beti izan da pertsonaia xelebreren bat. Ezagun batzuen inguruko kontuak, anekdotak.

### **86. Anaiak soldadutzan eta bera ikazkin (SOR-009/012)**

Anaiak soldadutzan zeuden bitartean, Sebastián ikazkin. Aita zena ere gaztea zela, ikazkin ibilitakoa zen.

### **87. Ikazkintza: txondorra nola egiten zuten (SOR-009/013)**

Txondorra nola egiten zuten. "Txendor-zulua". Egurra orbelarekin tapatzen zuten; ondoren lurrarekin.

### **88. Ikazkintzaren arriskuak (SOR-009/014)**

Ikazkintzaren arriskuak. "Zoixa". Azalpenak.

### **89. Pol-pol mendian ikazkin (SOR-009/015)**

Pol-pol mendian ikatza egiten. Basoko animaliak.

### **90. Ikazkintzaren inguruko azalpenak (SOR-009/016)**

Ikazkintzaren inguruko azalpenak. Ikatza goitik behera egosten da.

### **91. Ikazkintzaren inguruko azalpenak (SOR-009/017)**

Zenbat denbora behar izaten zuen egurrak egosteko. Ikatza eginda dagoenean, aldiko-aldiko atera behar izaten da.

### **92. Ikatzaren garrantzia: nora saltzen zuten (SOR-009/018)**

Ikatza nora saltzen zuten: Sacia-ra; beste lantegi txikiago batzuetara; e.a. Ikatza oso ongi ordainduta zegoen. Ikazkintza vs. baserriko lana. Inguruan ez zen ikatz askorik egiten: askok jakin ez; beste askorentzat gaizki ikusita.

### **93. Ikazkin ibilitako ezagunen inguruko kontuak (SOR-009/019)**

Ikazkintza. Ezagunen inguruko kontuak; anekdotak.

### **94. Inguruko erromeria ezagunak (SOR-009/021)**

Erromeria kontuak. Maltzagako erromeria. Maltzagatik Arratera igo eta handik Barinagara joaten zen neska-laguntzera. Inguruko erromeria ezagunak.

### **95. Erromeriak; soinujoleak (SOR-009/022)**

Erromeria kontuak. Aldasoroko bi anai, soinujoleak.

## **96. Inguruko erromeria ezagunak; Garizuma (SOR-009/023)**

Inguruko erromeria ezagunak: Osintxu; San Andres (Garizuman)

## **97. Gaztetako ibilerak ardi-batzen (SOR-010/014)**

Ardi-batzera bidaltzen zituzten basora gauean. Anaiak eta haren lagunak zintzarriak kentzen zizkieten ardiei. Toponimia. Gaztetako ibilerak.

## **98. Gaztetako okerkeriak: arrautza bila erreka ondoan (SOR-010/015)**

Gaztetako okerkeriak. Eskolatik ihes egiten zutenean, erreka joaten ziren. Errege-etxea nolakoa zen. Erreka ondoan arrautza bila ibiltzen ziren.

## **99. Herrira eskolara; janztetxea (SOR-010/016)**

Eskolara herrira joaten ziren eta bazkal orduan bertan geratzen ziren. Janztetxe batean arrautza egosi bana jaten zuten fota (ogi txiki batzuk) batekin. Janztetxea, senideren baten etxea izaten zen.

## **100. Txori-harrapatzen neguan (SOR-010/018)**

Baserri batetako alabak neguan tranpak jartzen zituen txoriak harrapatzeko.

## **101. Neskatan-mutiletan; ezkontzeko proposamenak (SOR-010/020)**

Neskatan-mutiletan. Nobioa nola aurkitu zuen. Kaletik helduta edo laztanka ibiltzea, bekatua zen. Ezkontzeko proposamenak.

## **102. Korrikalari amorratua; soro artean antxitxiketan (SOR-010/021)**

Mutila nola, noiz aurkitu zuen. Seme bat korrikalari amorratua. Maltzagatik Arratera 17 minututan heltzen zen. Soro artean ibiltzen zen baserriaz baserri, eta demaseko hanka-zuloak lagatzen zituen soroetan.

## **103. Gabonak baserrian (SOR-010/026)**

Gabonak baserrian. Ume txikia ganbelan.

## **104. Baserriatik kalera bizi izatera (SOR-010/027)**

Baserriatik kalera bizi izatera. Emakume talde handia biltzen zen jokoan egiteko.

## **105. Nola janzten ziren (SOR-010/032)**

Nola janzten ziren. Gona; soinekoak. Abarketak.

## **106. Goruetan nola egiten zuen amak (SOR-010/033)**

Amak goruetan egiten zuen. Artilea kardatu eta txabilarekin haria egiten zuten. Lihorik (linurik) ez du ezagutu.

## **107. Umetako kanta eta jolasak (SOR-010/035)**

"Pin-pon" esan eta kantu bat abesten zuten jolasean hasteko. Intxaurrekin "arrakak" egiten zituzten. Tortoloska.

### **108. Gabon giroa baserri inguruan (SOR-010/036)**

Gabonetan Olentzero etortzen zen. Santa Ageda eskean ere ibiltzen ziren. Soinujolea; erromeria.

### **109. Ogiaren inguruko ohiturak (SOR-011/024)**

Ogia nola egiten zuen. Artoa ere erretzen zuten: masa egin (artopila) eta erre egiten zuten. Astero egiten zuten labesua. Ogia lurrera jausitakoan musu eman eta aitaren egin behar izaten zen. Ogia buelta emanda egoteak edo kutxiloa gora begira egoteak zorte txarra ekartzen zuela uste zen.

### **110. San Juan inguruko ohitura eta sinesmenak (SOR-011/025)**

Etxean eta soroetan gurutzeak jartzen zituzten San Juanetan. Txorta bedeinkatu egiten zen Erramu egunean eta baserrietan banatzen ere ibiltzen ziren. Erramua eta elauntza jartzen zitzaaien gero gurutzeei. Zorte ona emateko jartzen ziren gurutzeak. Sua ere egiten zuten San Joan bezperan. Hurrengo goizean ihintza hartzera irteten ziren oinutsik, osasunarentzat ona zela eta.

### **111. Kukuaren inguruko ohitura eta esaerak (SOR-011/026)**

Kukua lehenengo aldiz entzuten duzunean, dirurik ez baduzu poltsikoan, urte guztian dirurik ez duzula izango esaten zen. Kukua "Erramu egunian erromako zubixan eta San Pedruetan mutu" esaten zen.

### **112. Suge eta muskerren inguruko sinesmen eta esaerak (SOR-011/027)**

Sugeek behiei esnea edaten zietela entzunda dauka. Esnea edateko behiaren hankan kiribiltzen zen sugea eta behia gustura egoten omen zen. Hodea dagoenean irteten omen dira sugeak. Muskerrak heldutakoan herrietako kanpaiak jo behar izaten zirela soltatzeko esaten zen.

### **113. Hegaztien inguruko sinesmenak (SOR-011/028)**

Antzarrak pasatzen zirenean denbora txarra etortzen zen eta beldurrez egoten ziren. Oilarrak gauez kukurruku joz gero zerbait txarraren iragarpena omen zen eta oiloak kukurruku joz gero oraindik txarragoa.

### **114. Konjurua: baserria bedeinkatu eta jatekoa jasotzen zuen abadeak (SOR-011/030)**

Egur moduko bati su ematen zitzaion elizpean, bedeinkatu eta banatu egiten zuten. Ez du gogoratzen izenik. Ur bedeinkatua ere leku guztietara banatzen zen. Konjurua; abadea eta monagiloa baserrietara joaten ziren baserria bedeinkatzera eta trukean arrautzak, gazta... jasotzen zituzten. Horretaz gain, oilasko pareia eramaten zitzaien.

### **115. Ekaitzen inguruko sinesmen eta gertaerak (SOR-011/031)**

Ekaitza zetorreanean, amak San Juanetan bedeinkatutako txorta ateratzen zuen eta ur bedeinkatua sartzen zuen. Udako ekaitzak beldurra ematen zuen baserrian. Behin, lanean ari zirela, ekaitza etorri eta dena utzita alde egin zuten.

### **116. Zenbait esaera edo sinesmen (SOR-011/032)**

Ezkerreko belarria gorritutakoan, norbait gaizki-esaka ari dela esaten da; eta, eskumakoa denean, ondo-esaka. Norbaitek zotina zuenean, gezurra esan zuela esaten zen.

### **117. Umea izan eta elizatik pasatu aurretik emakumea ezin etxetik irten (SOR-011/034)**

Lehen umeak etxean izaten zituzten. Bataiatu ere azkar egin behar izaten ziren eta umea hartuta elizara joaten ziren. Umea izan ondoren emakumea ezin zen kanpora irten elizatik pasatu arte eta atera behar izanez gero teila bat jarri behar izaten zuen buruan.

### **118. Umeak Arrateko barkutik zetozela esaten zen (SOR-011/036)**

Umeak Arrateko barkutik zetozela esaten zieten gurasoek.

### **119. Umeak etxean edukitzen ziren; umeen bizi-baldintzak (SOR-011/037)**

Umeak etxean izaten ziren eta medikua edo komadrona etortzen zen etxera. Umeari ze janari ematen zitzaion. Orduko umeen baldintzak ez ziren egokienak izaten.

### **120. Jaio orduko bataiatzen ziren umeak (SOR-011/038)**

Umeak jaio orduko bataiatu behar izaten ziren. Familiako en izenen arabera jartzen zitzaion umei izena. Bataio egunean bazkaria egiten zen etxean.

### **121. Baserrian jai-egunik ez (SOR-011/039)**

Lehen San Pedro eguna jai izaten zuten. Baserrian lana egoten zen eta eurek ez zuten jairik hartzen. Aste Santuan ganadurik ezin zela uztartu esaten zen. Igandetan goizeko sei eta erdietako mezetara jaisten ziren kalera. Igandetako ohiturak.

### **122. Eskolara joan aurretik ardiak jeztera mendira (SOR-011/042)**

Ardiak ere bazituzten baserrian eta gaztak egiten zituzten. Eskolara joan aurretik Aittantxaboletaraino joaten ziren ardiak jeztera.

### **123. Trenean gertatutako anekdota (SOR-011/044)**

Behin trenean gertatu zitzaion pasadizoa. Bost neska joaten ziren Osintxura erromeriara. Trena ordaintzeko dirurik ez eta interbentoreak ez ziela trenetik jaisten utziko esan zien. Garizuman Edurdungora joaten ziren.

### **124. Umetako jolasak: selemietan (SOR-012/005)**

Selemietan: hankekin losa gainean ibiltzea, losatik losara salto egitea, kontatzen.

### **125. Garai bateko panpinak (SOR-012/007)**

Maramia esaten zioten panpinari. Kartoizkoak ziren, eta trapu zaharrekin egindakoak ere bai.

### **126. Amamurgil jolasa (SOR-012/011)**

Amamurgil ere ibiltzen ziren. Pertsona bat erori egiten zen uretara. Taldeka jokatzan zen. Eroritakoaren izena esaten zen.

### **127. Amamurgil, mutilek gehiago (SOR-012/013)**

Amamurgil izatea ez zitzaion askotan tokatu, mutilei gehiago. Igerian ere bazekiten haiek.

### **128. Plazara irteten ausartu ez (SOR-012/024)**

Musikazalea da umetatik. Dantza ere egiten zuten, beste batzuri begira. Plazara irteten ez ziren ausartzen.

### **129. Pelikula mutuak (SOR-012/034)**

Akordatzen da pelikularik ez zegoen garaiarekin. Elizan hasi ziren ematen, pelikula mutuak.

### **130. Baserritarrak egurrarekin kalera (SOR-012/058)**

Egurrarekin jaisten ziren herrira baserritarrak. Ez zieten uzten gurdira igotzen, mina hartzeko beldurrez. Baina igo egiten ziren, eta gero salto. Idi birekin joaten ziren, "aida" esaten zieten.

### **131. Baserrien etorkizuna (SOR-022/020)**

Baserrien etorkizuna; ondorengo guztien artean banatu edo maiorazgoa bultzatu. Bizitzarekiko duen ikuspegia.

### **132. Baserriko gazte asko kanpora gaztelania ikastera (SOR-023/003)**

Euskara, erdara. Erdaraz, defenditzeko beste, bai. Baserriko mutil asko kanpora joaten ziren erdaraz ikastera.

### **133. Eskolara joan aurretik esnetara; baserriko bizimodu gogorra (SOR-023/004)**

Eskola kontuak. Maristak mutilentzat, mesedeetako mojak neskentzat. Esnetara jaisten zen lehenengo herrira, eta ondoren eskolara joaten zen. Neguan, elurra zegoenean nola moldatzen ziren. Baserrietako bizimodu gogorra; emakumeen bizimodua. Arto-zuriketa egiten zenean, arrosarioa errezatzeko ohitura. Valentin Berriotxoaren bertsoak.

### **134. Soraluzeko auzoak eta ermitak (SOR-023/007)**

Soraluzeko auzoak: Irure; San Marzial, Ezosi, San Andres eta San Inazio. Ermitak; auzoetako jaiak. Santa Ageda eta San Estebango ermitak. Santa Ageda ermita, "Zabale" baserrikoa da.

### **135. Neska-laguntzea; lehengo bizimodua (SOR-023/010)**

Neskatan-mutiletan. Izeba batek emandako aholkua. Bizitzarekiko ikuspegia. Lekaioka irteten ziren etxetik neska ikustera joan behar zirenean. Neska-laguntzea.

### **136. Maltzagako erromeria (SOR-023/011)**

Maltzagako erromeria inguruko handienetakoa zen. Eibar, Elgoibar, Soraluzekeo baserritar gehienak bertan elkartzen ziren. San Rafael ermita.

### **137. Maltzagako erromeria; neska-laguntzea (SOR-023/013)**

Maltzagako benta; erromeria. Bergarako jaiak. Neska-laguntzea. Probadero zaharra.

### **138. Ikazkin hainbat basotan (SOR-024/019)**

Beraiek eramaten zuten ikatza kalera. Elosun, Pol-polen ikazkintzan.

### **139. Basoan ikazkintzan (SOR-024/021)**

Basoan ikazkintzan; gauean deiadarka.

### **140. Harri-losak mendian (SOR-024/022)**

Antzinako kontakizuna. Harri-losak mendian.

### **141. Ikatza egiten zuten bitartean erabiltzen zuten (SOR-024/023)**

Ikazkintza; txabola nola egiten zuten. Txabola bera erabiltzen zuten 2-3 urtetan. Farola argia emateko.

### **142. Ate-saria zer den azaltzen du (SOR-024/027)**

Ate-saria zeri esaten zaion azaltzen du. Erromara.

### **143. Errekete eta falangistak (SOR-028/007)**

Jende askok egin zuen ihes gerra denboran herritik. Soldaduei jaten eta edaten ematen zieten eta pasadizo bat kontaktzen du. Errekete eta falangisten arteko ezberdintasunak aipatzen dituzte.

### **144. 1941 inguruan pasatako gosea (SOR-028/009)**

1941 inguruan, gosea pasa zuten. Patata konfiskatu egiten zieten eta beraiek dendan batata (patata tankerakoa) erosi behar izaten zuten. Bonba herrian bota zutenekoa kontaktzen du. Bando ezberdinetakoek elkarrenganako ezinikusi handia zuten.

### **145. Soraluzekeo baserritar gehienak "gorriak" (SOR-028/010)**

Soraluzekeo baserritar gehienak "gorriak" ziren. Nazionalistek, gorriek eta talde ezberdinek, bakoitzak igande bat izaten zuen festa egiteko.

### **146. Garia konfiskatzen zieten (SOR-028/011)**

Soldaduek garia kentzen zieten "gorrientzat" zela esanda, baina Jose Luisi eta Juani ez zitzairen ez gari ez dirurik heldu.

### **147. Gose-urte gogorak; errazionamenduko janaria (SOR-028/012)**

Gose-urte gogorak pasa zituzten. Baserritarrak, hala ere, moldatzen ziren jatekoarekin, baina kaletarrak gaizki ibili ziren. Errazionamenduan jasotzen

zuten ogia, azukrea eta "boniatoa" (batata); ganaduak ere nahi ez zuen jana izan ohi zen.

#### **148. Gerra aurretik euskaraz; gero, debeku bihurtu zen (SOR-028/013)**

Gerra aurreko eta ondorengo eskolako politika ezberdina izan zen: maristekin ikasi arren, gerra aurretik eta gerra ondoren zer ezberdintasun izan ziren aipatzen dute. Gerra aurretik euskaraz egin arren, gero debekatu egin zieten eta zigorra jasotzen zuten euskaraz eginez gero.

#### **149. Eskolara goiz eta arratsalde (SOR-028/015)**

Eskolan goiz eta arratsalde ibiltzen ziren; goiz iluntzen zuen eta artzain edo etxeko lanetara joan behar izaten zuten. Zaharragoak eta gazteagoak gela ezberdinetan egoten ziren eta kaletarrengandik baserritarrengana nabaritzen zen aldea.

#### **150. Umetako jolasak: pilota, "kakaberaka"... (SOR-028/017)**

Umetan pilotan, "kakaberaka" eta ezkutaketan jolasten zuten, besteak beste. Anekdotak bat kontatzen du.

#### **151. Gaitzizenak jartzeko ohitura (SOR-028/018)**

Gaitzizenak jartzeko ohitura handia zuten eta maisu guztiei jartzen zizkieten; batzuk aipatzen dituzte.

#### **152. 5 urterako kalera esnea saltzera (SOR-028/023)**

Juan 5 urterekin hasi zen izeba eta arrebarekin astoa hartuta kalera esnea saltzera laguntzen. Orduko eta gaurko bideen konparaketa egiten dute.

#### **153. Janzkera: tunika, praka motzak eta abarkak (SOR-028/024)**

Tunika, praka motzak eta gomazko abarkak janzten zituzten. Arbitan oinutsik aritzen ziren elurretan ere.

#### **154. Elurra egin arren, lanean (SOR-028/025)**

Elurra kentzeko "belakixa" erabiltzen zuten: zer den azaltzen dute. Elur asko egiten zuen eta kalera idietan jaisten ziren asko. Bizitzari buruzko ikuspegia azaltzen dute. Elurra eginagatik lanik ez zuten falta izaten. Anekdotak bat kontatzen du Juanek.

#### **155. Txanalarekin arrantzan (SOR-029/004)**

Jaime txanalarekin ibiltzen zen aingiratan edo barbotan. Erremintak ibaian botata izaten zituzten errute sasoian izan ezik, garai horretan arrantza debekatuta egoten zen eta. Iluntzean botatzen zuten kordela eta hurrengo egunean jaso. Herrian beste batek ere bazuen txanala eta kanoi-fabrikako presan ibiltzen zen.

#### **156. Txanala garbitzeko lanak (SOR-029/005)**

Txanala txaluparen antzekoa zen. Ze neurri zituen. Urtean zehar ahal bezala garbitzen zuen txanala, baina urtean behin kanpora atera eta goitik behera garbitu behar zen. Kirrua sartzen zion juntetan pintatu aurretik. Bi puntara

ezberdinekin markatzen zen uretan sartzen zen zatia eta kanpokoak. Hamabost bat eguneko lana izaten zen: lixatu, pintatu, gero brea ematen zitzaion, berriz lixatu eta berriz pintatu.

### **157. Txanala ur-ertzean lotzeko modua (SOR-029/006)**

Txanala Errekaldeko poste bati lotuta edukitzen zuten. Harri handi bat erabiltzen zuten ankla bezala eta gero beste soka batetik etxera lotzen zuten txalupak bazterra ez jotzeko.

### **158. Txanala uholdeak eraman zuenekoak (SOR-029/007)**

Uholdeak ziren baten txanala bueltak eman eta eman ikusi zuten. Nola lortu zuten txanala bazterrera eramatea. Txalupa konpondu eta berriz pintatu behar izan zuten. Ordutik aurrera uholdeak zetozele pentsatzen zutenean txanala lekuz mugitzen zuten.

### **159. Arrain klase asko Soraluzeko errekan (SOR-029/008)**

Arrain asko egon da Soraluzeko errekan: loinak, aingirak, barboak... Jaimeren aitak angulak ere hartu omen zituen [Barberoko] presan. Elgoibarren hildako aingirak agertu direla aipatzen dute. Aingirak gogorrak omen dira. Uda sasoiari, tailerrak gelditzean aingira asko sartzen omen zen Deba aldetik. Aingiren inguruko kontuak.

### **160. Arrantzarako teknika: "abusa" (SOR-029/009)**

Arrantzarako teknika: "abusa". Gaztaina adarrekin arku modukoak egiten zituzten. Gero haiek lotu eta alanbre sarearekin biltzen zituzten. Atzekaldean bi sarrera izaten zituen bata luzea eta beste motzagoa. Ogia jartzen zen barruan arrainak sartzeko. Loinak sartzen ziren normalean eta haien ondoren aingirak haiek jatera.

### **161. Arrantzarako teknikak: "esparbelarekin", "txingarekin", "kordelarekin". (SOR-029/010)**

Arrantzarako teknikak: "esparbelarekin" (sare modukoarekin). "Txingarekin" sare bat jartzen zen alderik alde eta urak (presaren arabera) gora edo behera egitean harrapatzen ziren arrainak. "Kordelarekin": kordelean amuak jartzen ziren zintzilik, harri bat lotu puntan eta hura fijo uzten zen. Beste puntan beste harri bat lotu eta urrun botatzen zen. Kordela botata utzi eta hurrengo goizean jasotzen zen.

### **162. Gilaneko zubian egiten zuten arrantzan kainarekin (SOR-029/011)**

Herria bera ez zen hain ona arrantzarako, hobeak ziren inguruko gunak eta errekek. "Butrinua", abusaren antzeko arrantzarako sistema zen. Gazte asko kainarekin ibiltzen ziren arrantzan. Gilaneko zubitik bertatik egiten zuten arrantzan. Eibartarrak Maltzagara etortzen ziren loinatara edo Olara bainua hartzera Gizon batek 3-4 txanal jarri zituen eta orduko kobratzen zuten.

### **163. Arrainak oparitu egiten ziren (SOR-029/012)**

Soziedadeetan eta taberna batzuetan arrain-janak egiten ziren. Normalean arrainik ez zen saltzen, oparitu egiten ziren.

#### **164. Botilekin ere egiten zuten arrantzan (SOR-029/013)**

Ur handia zenean eskirolarekin egiten zuten ezkailutan. Ezkailuak bazterrera joaten ziren ur handiarekin eta uretara sartuta eskirolarekin harrapatzen zituzten. Ur handirik ez zegoenean botilarekin ere ibiltzen ziren. Ezkailutan nola egiten zen botilarekin.

#### **165. Barboek zarata handia ateratzen zuten desoba garaian (SOR-029/014)**

Barboek udan erruten zuten ur gutxi zegoenean eta izugarrizko zarata ateratzen zuten.

#### **166. Errekako arrain guztiak jaten ziren (SOR-029/015)**

Errekan harrapatutako arrain guztiak jaten ziren. Errekako arrainak osoak direla diote. Herrian egon zen mediku bati asko gustatu omen zitzaion barboa.

#### **167. Harrapatutako aingira handiena (SOR-029/016)**

Jaimeren aitak harrapatu zuen aingirarik handienaren inguruko kontuak. Abusarekin harrapatu zuen eta beldurrez ez zen txanalera igotzen ere ausartu. Ur-ertzeraz joatean zaku bat eskatu zuen aingira sartzeko.

#### **168. Loina-janak (SOR-029/017)**

Arrain asko zegoen lehen. Kanpotik ere etortzen ziren batzuetan arraina jatera, baina aurrez abisatuta. Igerian ikasteko kortxo bat lotzen zuten gerriaren bueltan. Igerian zekitenak "txoporaino" joaten ziren eta txopo gainetik uretara saltoka ere ibiltzen ziren.

#### **169. Guardak eta Guardia Zibilek arrantza bijilatzen zuten (SOR-029/018)**

Guarda egoten zen eta Guardia Zibilak ere egoten ziren zaintzen. Behin Guardia Zibilek Jaimeren aita kuarterelara eraman zuten guardaren baimenik ez zuelakoan. Debekatuta zegoen harrarekin arrantzan egitea. Hala ere, guarda eta Guardia Zibilak ez ziren oso zorrotzak izaten.

#### **170. Etxeko leihotik arrantzan (SOR-029/019)**

Batzuk arto-irinarekin egindako masa erabiltzen zuten zebo moduan kainarekin arrantzatzeke. Arrantzan asko egindako herritarrak. Jaimek etxeko leihotik ere bota izan du kaina arrantzatzeke.

#### **171. "Barboen kapitaina" (SOR-029/020)**

Barboen artean bat handiagoa egoten zen hori-horia besteen aurretik joaten zena. Eurek "barboen kapitaina" deitzen zioten. Behin lehengusua eta biak etxetik arrantzan ari zirela barbo kapitain bat harrapatu zuten. Haragia ere desberdina omen zuen eta oso goxoa jateko.

#### **172. Bainuak errekan; jaietan kukaña eta ahate-harrapatzea (SOR-029/021)**

Bainuak ere hartzen ziren errekan orduan. Emakume bakarra ibiltzen zen gizonezkoen artean. Olan igerian ez zekitenak ertzean geratzen ziren eta igerian zekitenak "txoporaino" joaten ziren. Igerian ondo zekiten herritarrak. Jaietan kukaña eta ahate-harrapatzeak ere egiten ziren.

### **173. Olako eta Maltzagako bainuak (SOR-029/022)**

Olara joaten zen jendea bainatzera normalean, baina eibartar asko Maltzagara etortzen ziren. Bai Maltzagan eta bai Olan ito ere egin izan da jendea. Jende asko egoten zen. Igerian ikasteko kortxo bat lotzen zuten gerriaren bueltan. Igerian zekitenak "txoporaino" joaten ziren eta txopo gainetik uretara saltoka ere ibiltzen ziren. Lesarrineko zubitik ere saltatzen zuten presara.

### **174. Errepideetan lasai jolasten zuten (SOR-029/023)**

Olan taberna eta bolatokia zeuden. Jendea pasiran joan eta lasai egoten zen bertan. Lehen ez zegoen ia kotxerik eta lasai ibiltzen ziren bideetan goitiberekin edo futbolekin.

### **175. Errekarekin lotutako bizimodua (SOR-029/025)**

Lehen errekarekin lotura handia zuten eta bizipen asko bizi izaten ziren bertan. Errekarekin lotutako jolas eta entretenimendu asko izaten zituzten. Gaur egun, guztiz ezberdina da egoera.

### **176. Antzerkiak Gabolatzen (SOR-029/026)**

Gabolatzen mutil kuadrilla batek txabola handi bat egin zuen eta antzerkiak egiten zituzten bertan. Sarrera kobratu egiten zuten, baina, hala ere, joaten zen jendea ikustera. Antzerkia zegoenean pregoia jotzen zuten kaleetan.

### **177. Dutzarik ez zegoenez errekan garbitzen ziren (SOR-029/027)**

Astean zehar jendeak berandura arte lan egiten zuen eta asteburutan joaten ziren bainuak hartzera. Dutzarik ez zegoen eta asteko zikinak errekan garbitzen zituzten.

### **178. Kutsaduraren eraginez galdu ziren arrainak (SOR-029/028)**

Tailerretako azidoak erreka kutsatzen hasi zirenean galdu ziren erreka arrainak. Azkenengo aingira noiz harrapatu zuen Jaimek. Gaur egun erreka garbia egongo balitz jendeak arrantzan egin bai, baina ez litzatekeela bainatuko uste dute. Lehengo eta oraingo bizimoduaren arteko aldea.

### **179. Errekatik kanpoko entretenimenduak (SOR-029/029)**

Umetan denbora gehiena errekan pasatzen zuten, kalean ez zegoelako ezer. Ez zuten gaurko umeek duten aukerarik; treneko bileteekin edo aroekin jolasten zuten.

### **180. Tabernaz taberna joaten zen limonada kajak banatzera (SOR-034/006)**

Berak banatzen zituen kajak tabernetara (Anjelenera, Beltxiorrenera...). Sarritan kajak jasotzeko indarrik ez eta laguntza eskatzen zuen. Askok saltzen zen limonada. Errealeko pagarekin pastela jan eta limonada edan. Eskatera handia izaten zuen.

### **181. Limonada naturala egiten zen azukre eta "Orange"-arekin (SOR-034/008)**

Sakarina erabiltzea debekatuta zegoen eta behin sustoa pasatu zuen inspektorearekin. Azukrearekin eta "Orange" limoiarekin egiten zen limonada. Kanpotik ekartzen zuten "Orange"-a eta gerra aurretik 50 pezeta balio zituen. Lehengo limonada natural-naturala eta askoz goxoagoa zen.

### **182. 1935ean futbol partidua jokatzera Debara (SOR-034/009)**

1935ean Azkoititik Debara joan ziren futboleko jokatzera. Bandera ederra eginez gero doan joango zirela esan zien. Jostunak ziren etxean eta terziopelozko telarekin bandera egin zuten, gero "Anaitasuna" insignia bordatu zioten. Handik urte batzuetara umeekin Debara joan ziren baten Debako taberna baten ikusi zuten bandera.

### **183. Futboleko jokatzera joan eta gero dantza egiten zuten (SOR-034/010)**

Galdu egin zuten Debaren kontrako partidua, baina gero musika egoten zen eta ez zitzairen ardura. Bidean ere musikarekin eta kantuan joaten ziren. Beasainera joan ziren baten harrika bota zituzten partidua irabazi zutelako. Nola pasatzen zuten gazte-denbora.

### **184. Soraluzeko denda eta tabernak (SOR-034/018)**

Gila taberna, janari-denda eta estankoa zen. Lehen "Anjelesenekua" deitzen zitzaion. Kantu bat dago Soraluzeko dendak aipatzen dituen. Zati batzuk abesten ditu, erdaraz.

### **185. Txarlestona lehenengo aldiz plazan (SOR-034/022)**

Bekatua zen txarlestona dantza egitea. Bere auzoko neska batek dantza egin zuen lehenengo aldiz pianojole batekin herriko plazan eta kritika asko izan zituzten. Okindegia zuten lekuan dantzalekua jartzen zuten, pianoarentzat eszenario eta guzti.

### **186. Gerra garaian, pianoa sutarako (SOR-034/023)**

Okindegia zuten lekuan, dantzalekua jartzen zuten, pianoarentzat eszenario eta guzti. Gerra garaian, sua egiteko, pianoa puskatu behar izan zuen. Herritik alde egindakoek utzitako porruak batzen zituzten ezagun batek eta berak, jateko.

### **187. Frontoia zine moduan; fonografoa (SOR-034/025)**

Fraide batek fonografoa ekarri zuen eta eurak harrিতuta egoten ziren hango musika entzuten; "Baserritarrak gera gu" abestia. Frontoiak ez zuen harrera onik izan eta zine moduan erabiltzen zuten.

### **188. Erljioa euskaraz edo gaztelaniaz ikasteko aukera (SOR-035/003)**

Ikasgai guztiak gaztelaniaz izaten zituzten. Erljioa bakoitzak aukeratzen zuen euskaraz edo gaztelaniaz ikasi. Eurak euskaraz ikasi zuten, baina oso euskara eskasa zen. Gerora hobetu zituzten euskarazko irakasgaiak.

### **189. Sozialista batzuek ikurrina erre zuten Eibarko batzokian (SOR-035/005)**

Eibarren denak sozialistak ziren. Sozialista batzuek batzokian ikurrina erre eta mutiko bat jo egin zuten. Handik urte batzuetara, gerra denboran, berriz elkartu ziren ustekabeen.

### **190. Errepublikaren albistea Soraluzera (SOR-035/007)**

Luis Larrea soraluzetarrak Eibarren taberna zuen eta berak ekarri zuen errerepublikaren albistea herrira. Eibar izan zen errepublika aldarrikatzen lehenengo eta "Ciudad ejemplar" titulua eman zion Espainiako gobernuak.

### **191. Antzerkiak egiten zituzten batzokian (SOR-035/009)**

Antzerkiak egiten ziren batzokian, liberaletan eta karlistetan. Behin diru-batze bat zela-eta denek parte hartu zuten antzerkian. Emakume batek egindako komentario baten inguruko anekdota. Jaio ere ibiltzen zen. Beste herrietako batzokietara ere joaten ziren antzeztera.

### **192. Antzerkia egitera joanda gertatutako anekdota (SOR-035/011)**

Zumarragara antzerkia egitera joanda Karlos Linazasorekin gertatutako anekdota. Elorriora joan zireneko kontuak; neska morena bati begira egoten ziren denak.

### **193. Gerra hasiera nola bizi izan zuten (SOR-035/013)**

Gerra hasiera nola gogoratzen duten; hegazkinak etortzen hasi ziren. Lehenbizi, Afrika inguruan mugimenduak zeudela jakin zuten, eta gero gerra hasiera etorri zen. Gerra zetorrela antzemandakoan, neurriak hartu zituzten: kotxeak blindatu, kuartelak babestu...

### **194. Orduko egunkari eta aldizkariak: 'Euzkadi', 'El Día'... (SOR-035/015)**

Abertzaletasuna etxetik datorkie. Iñakiaren aititik La Constancia integristen aldizkaria irakurtzen zuen, baina geroago aita Euzkadi aldizkaria hartzen hasi zen. Jaioaren etxean ere Euzkadi egoten zen, eta baita El Día egunkaria ere. La Voz de Guipuzcoa eta La Constancia aldizkariaren inguruko pasadizoa.

### **195. Gerra garaian herritik ihesi (SOR-035/016)**

Gerra garaian, Bilbora egin zuten alde. Tren berezi bat jarri zen eta jende asko joan zen Soraluzetik. Itzultzean, askok etxea guztiz hondatuta aurkitu zuten. Eurak kanpoan zeudela beste batzuek euren gauzak hartzen zituzten, ez zutelako uste gehiago itzuliko zirenik.

### **196. Batzokia ekintzaz beteta: dantzak, orfeoia, irakurketak, lehiaketak... (SOR-035/018)**

Umetatik batzokira joaten ziren eta euskal dantzak ikasten zituzten bertan. Beti zegoen ekintzaren bat antolatuta. Irakasgaiak ere ematen zituzten euskaraz Santa Ana kalean zegoen batzokian. Iñakik irakurketa lehiaketa bat irabazi eta 7 pezeta eman zizkioten sari gisa. Jaio berak emandako hitzaldi baten esandako hitzak gogoratzen ditu.

### **197. Dantza-irakaslea fusilatu egin zuten (SOR-035/019)**

Domingo zuen izena batzokian dantzak irakasten aritzen zenak. Miliziano batzuei bidea erakusten zebilela, erreketeeek harrapatu eta fusilatu egin zuten Maltzagan. Jendea erraz hiltzen zuten orduan.

### **198. Preso hartuta egindako ibilerak (SOR-035/022)**

Laredoko hondartzatik Mirandako kontzentrazio-esparrura eraman zituzten. Handik Burgosera joan ziren trenez. Geroago, San Pedro Cardeña herrira joan behar zuten, eta zaldiz inguratuta oinez eraman zituzten haraino. Hurrengo egunean, berriz, San Juan de Mozarrifara. Han, langileen batailoiak osatu eta hainbat herritara bidaltzen zituzten: trintxerak egitera, bideak egitera... Afalaurrean, tartetxo bat izaten zuten eta bodegatara joaten ziren ardoa edatera.

### **199. Gerra denboran Zalla inguruan bizitakoa (SOR-035/023)**

Jaio Zallan egon zen eta herrian oso ondo hartu zituzten. Ogia ere nahikoa izaten zuten. Trintxerak egiten ibili zen bertan. Bilbo bonbardatu zutenean, arreba ere bertara joan zen. Izeba, ama eta anai-arreba mordoa egon ziren etxe batean. Handik egun batzuetara, Zalla ere bonbardatu zuten. Nazionalak sartu zirenean, mendiz Turtziozera joan zen, eta handik Castro Urdialesera. Asko biltzen ziren han, eta anaia batzuekin elkartu zen bertan. Arreba eta gurasoak Soraluzera itzuli ziren.

### **200. Nerbioi ibaia nola igaro zuten (SOR-035/024)**

Iñakik-eta Nerbioi ibaia lantxetan pasatu zuten.

### **201. Teruelen zero azpitik 15 graduan (SOR-035/025)**

Langileen Batailoian, Mendaroko batekin jardun zuen lanean Iñakik. Handik frontera eraman zituzten berriz. Tenientearengana joan ziren protestatzera, baina ez zuten ezer lortu. Teruelera eraman zituzten martxoaren 13an. Tenienteak, bonbak nola erabili azaldu ostean, bina bonba eman zizkien. 25 gradu zituzten zero azpitik eta zopa ere izoztu egiten zitzairen.

### **202. Frontean hil zen Gabilondo antzuolarra (SOR-035/026)**

Trintxeratik irten eta aurrera egin zutenean, bere aldameneko Gabilondo antzuolarra tiroz jo zuten. Behin baino gehiagotan zauritu zuten Antzuolako gizon hori. Bihotz ondotik ere sartu, zioten tiroa baina sendatu egin zen. Azkenean frontean hil zen.

### **203. Brigada internazionallean, herrialde guztietako jendea (SOR-035/027)**

Jaio nazionaletatik frontera eraman zuten eta berriz preso hartu zuten. Gaztelu batean egon zen 5-6 hilabetean, ezer egiteke. Boluntario joatea eskatu zuten eta Manresara eraman zituzten. Kinta zaharrak ziren bertan zeudenak. Brigada internazionalerara eraman zituzten handik; herrialde guztietako jendea zegoen bertan; eta jende gogorra, gainera.

#### **204. Txekoslovakiarrak zirela sinestarazi zioten bati (SOR-035/028)**

Bartzelonako Martoril herrira joan zen batailoiarekin Jaio. Dantzaldi bat antolatu zuten bertan. Euskaraz hitz egiten zuten bi lagunek euren artean, eta bati adarra jo zioten, Txekoslovakiakoak zirela esanez.

#### **205. Gerrako frontean egindako ibilerak (SOR-035/029)**

I&ntilde;aki Teruel inguruan zegoela, Guadalajarara joateko agindua etorri zitzaien, moroek frontera joan nahi ez zutela, eta haiek zapuztera. Hurrengo egunean, Huescara trenez. Bidean zihoazela, trena tunel batean geratuta egon zen eta ia haren baporearekin ito egin omen zen. Huescako frontean zortzi egun egin ostean, oinez joan ziren Barbastroraino.

#### **206. Gerra hasi zeneko eguna; Arrasaten kontrola (SOR-037/002)**

Afrikan gerra hasi zela jakin zuten eta Penintsulara sartu zirela. Batzokitik Gorbeara irteera egiteko asmoa zuten. Arrasaten geratu egin zituzten autobusak. Etxera bueltatzeko agindu zieten.

#### **207. Gerra hasi zeneko eguna, Elgetara (SOR-037/003)**

Meza Arrasaten entzun zuten, elizan. Handik Elgetara joan ziren, eguna aprobeatzeko. Txoferra, beldurtuta, etxera joan zen autobusarekin eta soralezetarrak oinez abiatu ziren herrirantz. Altoa jo zieten bidean, baina pasatzen utzi zieten.

#### **208. Gerra hasi zenean, batzokian aginduak (SOR-037/004)**

Etxeratu eta batzokira joan ziren. Bere aita Burubatzarrekoa zen eta aginduak ematen hasi zen batzokian. Zaintza egitea agindu zieten eta berari Aurrezki Kutxan egitea tokatu zitzaion.

#### **209. Zaindariei armak eman zizkieten (SOR-037/006)**

Zaindariei armak eta munizioak eman zizkieten, baina ez zituzten nahi. Azkenerako armak hartu zituzten, baina muniziorik ez; eta hala egin zuten zaintza.

#### **210. Terzerola izeneko arma (SOR-037/008)**

Terzerola izeneko armaren azalpenak ematen ditu, elkarrizketatzaileak hala eskatuta.

#### **211. Zaindariai muniziorik gabe (SOR-037/009)**

Zaindarien muniziorik gabe egin zituzten zaintzak.

#### **212. Miliziano hartuta, aginduak bete behar (SOR-037/010)**

Zaintzak txandaka egiten zituzten. Tailerrera joateari uztera behartu zituzten, miliziano hartuta zeudela eta. Aginduak bete behar izaten zituzten. Eskopeta guztiak batu eta sua emateko agindua jaso zuten.

#### **213. Durangoko bonbardaketa (SOR-037/012)**

Mendiz Durangora joan eta bertako baserri batean egon ziren apopilo. Durangoko bonbardaketa ikusi zuten.

#### **214. Bonbardaketaren ostean, Bilbora familiaren bila (SOR-037/013)**

Durangotik Bilbora joan zen, familiaren bila. Hiru egunez bila jardun zuen.

#### **215. Egurrezko komuna zuten baserrian (SOR-041/007)**

Baserrian ez zuten dutxarik-eta, baina bazuten komuna. Egurrezko etxetxo moduko bat zen etxearen atzekaldean, baratzea zegoen aldera eta ganaduaren aurretik pasatu behar zen hara joateko. Ganaduen simaurra azei botatzen zieten eta oso aza onak izaten zituzten.

#### **216. Sukaldearen deskripzioa; beheko sua, gelatza eta trebera (SOR-041/008)**

Sukaldean beheko sua eta ekonomika zituzten. Beheko suaren aurrean gelatza egoten zen, goitik behera zetorren gantxo bat. Beheko sutan egiten zituzten talo eta morokilak eta bestelako jatekoa ekonomikan. Trebera ere egoten zen beheko sutan taloak egiteko. Treberak nolakoak izaten diren.

#### **217. Ehunezko arropekin betetako kutxa zuten (SOR-041/009)**

Lixiba egiten zuten. Kutxa bat beteta omen zuten etxean ehunezko arropekin. Ezkondu zenean amak eman zizkion ehunezko zenbait izara. Gorua ere bazuten etxean.

#### **218. Lixiba: arropak albergan xaboitu eta tinan egosi (SOR-041/010)**

Lixiba nola egiten zuten. Lehenbizi xaboitu albergan: kalean erositako xaboi-barrak zatitu, harekin harri gainean xaboitu eta albergan astintzen zituzten arropak. Gero tina handi batean sartu eta erramua, elauntza, sutako hautsa eta sobratutako xaboi zatiak botatzen zitzaizkien. Sutako hautsa trapu baten gainean jarri eta ur-irakina gaineratik botaz egosi egiten zen arropa. Arropak eskegizterakoan onenak jartzen zituzten jendea pasatzen zen leketan eta adabakiak zituztenak ezkutuan.

#### **219. Arenaketa: etxeko zoruak hare eta espartzuarekin igurtzi (SOR-041/011)**

Pinu-ohola zuten lurrian eta "arenau" egin behar izaten zuten. Lixiba egin ostean tinan pasatutako xaboi-ura gorde eta harekin, harearekin eta espartzuarekin garbitzen zituzten etxeko zoru guztiak. Harea dendan erosten zuten, itsasoko harearen antzeko hare latzagoa zen.

#### **220. Lixiba egiteko xaboia (SOR-041/012)**

Lixiba egiteko xaboia dendan erosten zuten. Barretan etortzen zen eta gero zatiak egiten zituzten. Beraiek ez dute xaboirik etxean egin izan, baina beste baserri batzuetan bai. Seboa eta olioarekin egiten zen xaboia.

#### **221. Ehunezko arropak (SOR-041/013)**

Ehunezko arropaz betetako kutxa bat zuten etxean. Alkandorak gogor-gogorak izaten ziren eta uretan sartu arren ez ziren biguntzen.

## **222. Lehenengo labadaro ikusi zueneko kontakizuna (SOR-041/014)**

Kalean inork ez zuen labadorarik bera ezkondu zenean. Sasoi batean etxerik etxe ibiltzen zen koltxoiak jotzen eta orduan ikusi zuen lehenengo aldiz labadora. Harrituta geratu zen.

## **223. Ehunezko arropak (SOR-041/015)**

Ehunezko arropak. Gogoan du linoa baserrian egin arren gero Bergarako fabrika batera eramaten zirela rolloak (obilloak?) han arropak edo ehuna egiteko. Bere koinatak erroatarako zakuak egin zituen ehunezko arropekin, tela latza eta gogorrak ziren eta. Berak kutxan aurkitu zuen alkandora bat dotore egina zegoen.

## **224. Aitak bi seme-alaba zituen amarekin ezkondu zenerako (SOR-041/016)**

Ama o<sup>o</sup>arra zen, neskame etorritakoa. Aita, berriz, berak 14 urte zituela hil zen. Amak 20 urte eta aitak 36 zituzten ezkondu zirenean eta aitak bi seme-alaba zituen lehendik 14 eta 16 urtekoak. Eurak 5 anai-arreba ziren, beraz, 7 guztira.

## **225. Amaren bizimodua; abarketak ez puskatzearren eskolara oinutsik (SOR-041/017)**

Ama o<sup>o</sup>arra zen, estazio ondoko etxe batekoa. 9 anai-arreba ziren eta aitaren soldatarekin gutxi zenez ama (Mariaren amona) lanera joaten zen gariak lotzera. Ordainean gazura ematen zioten eta seme-alabek jaten zuten bueltan jarrita. Eskolara joaten zirenean amak esaten zien euria eginez gero abarketak kentzeko, berriak erosteko dirurik ez zuten eta. Euria egiten zuenean abarketak lepotik jarri eta oinutsik ibiltzen ziren. Jatekoagatik demandan ibiltzen ziren. Aita karakter gogorrekoa omen zen.

## **226. O<sup>o</sup>ko aitona malatura joaten zen arrantzara (SOR-041/018)**

Amaren aitak fabrika lan egiten zuen eta handik irtendakoan arrantzara joaten zen fabrika ondoko "malatu"-ra. Mariaren ama gazterik etorri zen Sorluzera. Ume-zain etorri arren denetarik egiten zuen. Malatua: ura joateko kanal estua. Amorraiak egoten ziren kanalean.

## **227. Ahizpa biriketatik gaixorik egon zen (SOR-041/021)**

Tuberkulosia zuten gehienak hil egiten ziren lehen. Bere ahizpa biriketatik gaixo egon zen eta bi urte egin zituen geldirik. Egunero txuleta eta sei arrautza jaten zituen. Mariak astoan jaisten zuen kalera ahizpa Artadi medikuarengana. Neumotorak ematen zizkion medikuak; haizea sartzen zen biriketara birikak lehertzeko.

## **228. Baserriko bizimodu gogorra (SOR-041/022)**

Goizean kalera joaten zen tratuarekin eta handik itzulitakoan idiak hartu eta garotara mendira. Menditik itzulitakoan garia hustu eta bere lekuan jarri behar izaten zen. Udazkenean artoa egoten zen eta artoaren burua zuritu behar izaten zen.

### **229. Erregetxean zegoen berdura-plaza (SOR-041/023)**

Plazako harremana jendearekin. Herrian bazeuden prezioak regateatzen zituztenak eta baita disimuloan esandakoa baino ale gehiago hartzen zituztenak ere. Baina horiek denek ezagutzen zituzten. Erregetxean egiten zen tratua. Goian balkoiak zituen eta behean plaza. Astotokia ere bazuen astoak lotzeko. Herriko gutxi egoten ziren plazan eta Bergararik etortzen ziren. Bergarako Boluberri, Zubikoa eta Mekoleta baserrietakoak zaldi-karroarekin etortzen ziren.

### **230. Patata esandako tasatik gora saltzearren udaletik abisua (SOR-041/024)**

Patatarekin gertatutakoa. Patata gorri ederra zuten etxean maiatzerako heltzen zena. Errazionamendua zegoen garaian patatak bi pezetako tasa zuen, baina berak 2,50ean saldu zuen, estimazio handia zuen eta. Udaletik abisua eman zioten ez deskuidatzeko berriz tasatik gora kobratzen, hori Francoren aurka egitea zela eta. Bi emakume goizean patatarik gabe geratu zirela eta baserrira joan zitzaizkien bila.

### **231. Errazionamenduko jateko eskasa; oliorik ez (SOR-041/025)**

Gerra-denboran eta rasionamendu denboran jendeak gosea pasa zuen kalean. Emakume bati arto-irina eta ogirina saldu zizkioten eta hurrengo egunean esker modura anis botila eta txokolatea eman zizkion Mariari. Errazionamenduan ematen ziren ogia eta boniatoa (patata) nolakoak ziren. Oliorik ez zegoen eta seboarekin moldatzen ziren. Azukre beltza egoten zen; inguruko emakume batek Frantziatik ekartzen zuen azukre zuria eta hari erosten zioten. Baserrian izaten zuten jatekoa, hala ere.

### **232. Beste etxeetako lixibari begiratu egiten zitzaion (SOR-041/026)**

Arropak zintzilikatzerakoan jendea pasatzen zen aldetik arroparik onenak jartzen zituzten eta adabakidunak ezkutuan. Lehenago begiratu egiten zen beste etxeetako lixiba kolore onekoa zen edo nolakoa zen. San Andresen frontoi ondoan etxe bat zegoen. Bertan kaleko batzuk bizi ziren goiko aldean. Behin arropak esegitzerakon adabakidun izarak bistan eskegi zituen. Jendea etortzen zen frontoira pilotan jokatzera eta beheko etxejabeak arropak ikusirik haiek bistatik kentzeko eskatu zion goiko bizilagunari, jendeak bereak zirela pentsa ez zezan.

### **233. Laneko arropak adabakiz josita; lexikoa (SOR-041/027)**

Adabakiak. Tailerreko arropari ere adabakiak egiten zitzaizkien. Aurrea apurtutakoan beste fraka zahar batzuen atzearekin aurre berria egiten zitzaion. Makinan josten zituen arropak. Orduan normala izaten zen arropak etxean konpontzea. Adabakia eta txaplata gauza bera da. "Burkua": almohadaren funda. Alde bata itxia izaten zuten eta bestea irekia, zintekin lotzen zena. Eskegitzeko amak esaten zien alde itxia goian zela eskegitzeko. Ohean ere adabakidun aldea azpira jartzen zuten.

### **234. "Arpilera" eta "zaku-kiskua": esanahia eta erabilera (SOR-041/028)**

"Arpilleria" eta "zaku-kiskua" berben azalpenak. Lixiba egiterakoan tinaren gainean jartzen ziren eta haien gainean erramua, elautza eta sutako hautsa

jartzen zen. Ur-irakina gaintetik bota eta arropa garbi eta usain ederrarekin geratzen zen.

### **235. Etxearen egitura; logelak (SOR-041/029)**

Sukaldean ontziak edukitzeko armairua zuten. Eskaileretan gora igota bi oheko gela zegoen eta beste gela bat hutsik edukitzen zuten norbait zetorrenerako argizaria emanda. Erleak zituzten etxean. Kaletik etortzen zen gizon bat erleak ateratzera. Ontzikada ezti ateratzen zuten eta argizaria gela horretako lurrari brilloa ateratzeko erabiltzen zuten. 8 ohe zituzten guztira etxean.

### **236. Korta zaharra zuten; egitura, lexikoa (SOR-041/030)**

Ganadua ere bazuten etxean. Sukaldetik harrizko korridorea zuten kanpora eta ganadua aparte zegoen. Haiek ere atarira zuten irteera. Komunera joateko ganaduen aurretik pasatu behar izaten zuten. Korta simaurrez beteta egoten zen. Behiak jezteko batzuetan garbitu egin behar izaten zituzten aurretik. Ganadu-askak egurrezkoak ziren. Askaburua belarra edukitzen zen lekua zen; askaurrea. Txerrikotia.

### **237. Neskame eta morroiak; soldata, eginbeharrak eta tratua (SOR-041/031)**

Bi-hiru txerri hiltzen zituzten urtean. Lan asko egin behar izaten zuten baina goserik ez zuten izaten. Bi-hiru morroi-neskame izan zituzten etxean. 300 pezeta kobratzen zituzten urtean eta arropa ere egiten zitzairen. Nongo neskame/morroiak izan zituzten. Morroiekin batera laixetan ere ibiltzen zen bera. Ganadu-zain lanak. Neskame eta morroiek denetarik egin behar izaten zuten, batez ere soroko lana eta ganaduari azpiak ateratzea. Urteak egin zituzten neskame/morroiek euren etxean.

### **238. Arto-malutazko koltxoiak (SOR-041/032)**

Koltxoiak lanazkoak izaten ziren. Berak ez zituen ezagutu, baina amak kontatuta daki lehenago artoaren malutarekin egindako koltxoiak bazirela. Ama neskame egon zen lekuan halakoak zituzten eta koltxoi haiek berdindu ezinik ibiltzen zen.

### **239. Gari-jotzea sabaian egiten zen (SOR-041/033)**

Sabaia ganaduaren gainean zegoen, eta belar-ondoa eta garoa edukitzen zuten bertan. Garia makinan jotzen zuten. Emakumeak normalean garia lotzen ibiltzen ziren, baina bera ebakitzen ere ibiltzen zen. Hasieran eskuz jotzen zen garia; gero, ganadurekin erabiltzeko makina bat ere egon zen, baina azkenean makina aurreratuagoa iritsi zen.

### **240. 1933an etxea erre zitzairen (SOR-043/011)**

Baserri inguruan baso asko eta lan ugari zuten. Beheko sua izaten zuten, ekonomika gerokoa zen. Etxea erre egin zitzairen 1933an, "Cupo de excedente" deiturikoarekin soldadutzatik libre geratu zen urte berean. Etxea erretzean batzuk ama zenaren ahizparen etxean eta besteak beheragokoan geratu behar izan zuten konpondu bitartean.

### **241. Su-kanpaiaren abixua zerbait erretzean (SOR-043/012)**

Zerbait erretzen zenean su-kanpaia jotzen zen auzoko jendea elkartu eta laguntzeko. Erretako etxe batzuen inguruan hitz egiten du, eurena tartean.

## **242. Erreketeak Irukurutzetatik Karakatera (SOR-043/014)**

36 hilabete egin zituen frontean. Irukurutzetatik Karakatera sartu ziren errekketeak eta Donostiara bidali zuten frontera. Erreketeak militar jantzita sartu ziren. Tiroketarik ez zen izan.

## **243. Soldadutzan "ingeniero zarpador" postua (SOR-043/015)**

Donostian 2 hilabete egin zituen instrukzioak egiten. Kuartela konpotzen aritu ziren eta ingeniari "zarpadore" postua tokatu zitzaion. Burgos eta Santanderrera joan zen handik.

## **244. Gerran hirutan zauritu zuten (SOR-043/016)**

Huescan eta Teruelen zauritu egin zuten bala sartuta, baina ez zen ezer larririk izan. Bala esplosiboak erabiltzen zituzten. Jatekoarekin oroitzapen txarrak ditu Teruelen.

## **245. Gerratean, 10 hilabete Gernikan (SOR-043/019)**

Pedroren andrearen familian, gerrate garaian, 9 senideetatik 5ek 10 hilabete Gernikan egin zituzten; gurasoak eta txikienak etxean geratu ziren. Politika zela eta, "gorriek" jarri zieten etxea Gernikan. Anaiak baserrietan miliziano zeuden, eta hari esker lortzen zuten dirua.

## **246. Gernikako bonbardaketatik ihesi; anaiak elkarren aurka (SOR-043/020)**

Gernikako bonbardaketa ezagutu zuen eta haren inguruko kontuak kontatzen ditu. Ihesi joan behar izan zuten eta han ere zortea izan zuten, jesuita batzuen etxean hartu baitzituzten. Baina, hara ere, iritsi zen gerra eta anaiak talde ezberdinetan elkarren aurka aritu behar izan zuten.

## **247. Goienetxe baserrian jaioa; gerra-denborako bizipenak (SOR-043/023)**

Margarita Goienetxe baserrian jaio zen. Gerra-denborako berri ondo daki, 23 urte inguru zituen berak orduan. Rekketeen inguruko aipamena egiten du.

## **248. Nesken eskolara kalera; Bernarda irakaslea (SOR-043/025)**

Eskolara kalera joan zen eraikin zahar batera. Gogorra zen, neskak bakarrik joaten ziren eta irakaslea erdalduna zuten, Bernarda. Anekdotak bat kontatzen du garbitasuna zela eta.

## **249. Eskolako zigorrak (SOR-043/026)**

Bizi izateko adina ikasten zuten, irakurtzen, adibidez. Zigorra belauniko jartzea izan ohi zen eta derrigorra izan arren, erdaraz ez zuten egiten.

## **250. Umetako jolasak (SOR-043/027)**

Umetan intxaur eta kanikekin jolasten zuten. Hainbat joko azaltzen ditu.

## **251. Dotrina derrigorrezko ikasgaia (SOR-043/029)**

Dotrina maistrak ematen zien eta egunak izaten ziren hura ikasteko, derrigorra zen. Jaunartze txikia eta handia izaten ziren zazpi eta hamar

urterekin. Apaizak zaintzen zuen ondo ikasten zuten. Zelebrazio handirik ez zuten egiten.

### **252. Ura bai, baina argirik ez etxean (SOR-043/030)**

Ura beti izan zuten etxean, baina argirik ez; kandelak eta petrolioak erabiltzen zituzten. Argia lehenbizikoz oso ume zirela ezagutu zuten. Argia kaletik igotzen zuten.

### **253. Gerra-garaian gurasoek baserritik alde egin zuten (SOR-045/001)**

Miren 1934an jaiotakoa da eta Maria Jesus 1940an. Irure auzoko Eitza baserrian jaio ziren. Gurasoei entzundako gerra garaiko kontuak kontatzen dituzte. Gerra garaian, baserritik atera, ardiak eta ganadua beste baserri batzuetara eraman, eta eurak Antonio Lasartenera eraman zituzten.

### **254. Irure auzoan jaiotakoak (SOR-045/002)**

Irure auzoko Eitza baserrian jaio ziren. Irure auzoa noraino heltzen den.

### **255. Eitza baserria erosteko dirua (SOR-045/003)**

Euren aurrekoak Bergarako Ibarrola baserritik etorritakoak omen ziren. Aitita Ibarrola baserrikoa zen eta amama Osteitakoa. Ezkondu zirenean Osteitara joan ziren hasieran eta gero Eitza baserrira errentero. Gerora baserria erostea pentsatu zuten, baina dirurik ez eta prestamoa behar izan zuten. Gizon batzuk ibiltzen ziren gisa horretako prestamoak egiten eta euren familiak ere horrela lortu zuen baserria erosteko dirua.

### **256. "Baile de sambito" gaixotasuna; sintomak eta erremedioak (SOR-045/007)**

Mojak ohartu ziren gaixorik zegoela, "baile de sambito" zuela, eta gero medikutan hasi ziren. Ze sintoma izaten zituen. Hainbat medikurekin ibili zen eta baita Azpeitiko sasimediku batekin ere. Donostiako Bidarte medikuarengana joateko ezagun bat eramaten zuten "itzultzaile" gisa. Mediku bakoitzak ematen zizkion erremedioak. Inorekin ez eztabaidatzea komeni zitzaiola eta gurasoek Ibarrola baserrira bidali zuten.

### **257. Dotrina ikastea eskola baino garrantzitsuagoa (SOR-045/008)**

Eskola ere utzi egin behar izan zuen Mirenek bere gaixotasunagatik. Eskola baino garrantzitsuagoa zela-eta, dotrina ikastera joaten zen. Geroago Maria Teresa Amarekin ibili zen klase partikularretan.

### **258. Baseri inguruan bi bide: elizbidea eta herribidea (SOR-045/010)**

Baserritik bi bide izaten zituzten: herribidea eta elizbidea. Inguruko baseritarrei jatekoa eta edatekoa ematen zitzaien herribidea egitearren.

### **259. "Trukumon" Azpeitiko sasimedikua (SOR-045/012)**

"Trukumon" Azpeitiko sasimedikua baserririk baserri ibiltzen zen. "Estraperlo" gisara ekartzen zuten, beste medikuen ezjakinean. Kontsulta ere bazuen eta Miren haraxe joaten zen. Trenik ez zegoen Azpetira eta autobusetan moldatu behar izaten ziren. Belar-ura ematen zuen hartzeko normalean. Jendeak fede handia zion.

### **260. "Trukumon" sasimedikuaren erremedioak (SOR-045/014)**

"Trukumon" sasimedikuak enplastoak ere agintzen zituen. Erlakistenak kentzeko xaboia, zahia eta ardoarekin egindako enplastoak. Gauza askotarako artabizarren ura agintzen zuen. Bestelako erremedioak. Euren gurasoek fede handia zioten.

### **261. Parterak etxerik etxe erditzeetan laguntzen (SOR-045/015)**

Umeak baserrian edukitzen ziren. Inguruetan Soraluzeko Lasa praktikantea ibiltzen zen erditzeetan laguntzen etxez etxe. Euren aurrekoak nola konpontzen ziren ez dakite, baina euren ezagun bat ibiltzen omen zen partera moduan laguntzen.

### **262. Bildots-garaian aititak mendian lo egiten zuen (SOR-045/017)**

Ardiak ere bazituzten baserrian. Inguruetan pinuak landatu zirenean goardak ardiak kentzera behartu zituen, ardiek pinu-puntak jaten zituztela eta. Bildots-garaian euren aititak mendian zuen txabola batean lo egiten zuen lastoaren gainean.

### **263. "Erreberoa" eta "horitza" osasunerako onak (SOR-045/018)**

"Erreberoa", esne jetzi berria edaten zuten, osasunerako ona zela eta. Kaletik jendea etortzen zen behien "erreberoa" edatera. "Horitza" ere ematen zieten gurasoek edateko odola garbitzeko ona zela eta. Lehenago behiek esne gutxiago ematen zuten.

### **264. Torloju fabrikan lanean ezkondu arte (SOR-045/020)**

Tailerrean ere ibili zen lanean Miren, Sacia Soraluzeko torloju fabrikan. Hango nagusiak euren bezeroak ziren eta hala sartu zen fabrikan 15 urte ingururekin. Ezkondu arte egon zen bertan lanean. Ze lan egiten zuen.

### **265. Torloju lantegian egindako lehen grebaren inguruko bizipenak (SOR-045/022)**

Emakume askok lan egiten zuen Sacia torloju lantegian. Fabrikan egin zuten lehenengo grebaren inguruko bizipenak. Nortzuk ziren enkargatuak, nortzuk geratu ziren eta nortzuk alde egin zuten. Tailerraren inguruko kontuak. Osintxutik jende asko etortzen zen Soraluzera lanera eta denak bizikletetan etortzen ziren.

## **266. Asteburutan Osintxuko "Eusebio" tabernan laguntzen (SOR-045/024)**

Baserriko emakumeak hara edo hona bidaltzen zituzten josten ikastera edo kozinan ikastera eta hala joan zen Miren Osintxuko "Eusebio" osabaren tabernara. Osintxun algodonera garrantzitsua zegoen orduan eta uholdeak egon ziren sasoiari katalan asko etorri omen zen apopilo. Sukaldean ikaste aldera, asteburutan joaten zen osaba-izebei tabernan laguntzera.

## **267. Osintxura loinatara; Eibarko alfistek zuten fama (SOR-045/025)**

Eibar ingurutik kuadrillak joaten zen Osintxura loinatara. Loinak tabernariei eman eta haiek momentuan prestatzen zizkieten. Eibarko alfistak etortzen ziren eta oso irekiak omen ziren. Gainera, Mirenek propina onak uzten zituztela du gogoan. Eibarko alfistek inguruetan zuten fama. Ezkontzak ere ematen zituzten jatetxean; mugimendu handia izaten zuten. Tabernan ezagutu zuen Mirenek senarra.

## **268. Bi hilabeterako Zestoara lanera (SOR-045/027)**

Maria Jesus 15 urte zituela Zestoara joan zen bi hilabeterako lanera. Taxisean joan zen. Logelak egiten lan egiten zuen. Orduko bizipenak.

## **269. Jendea balneariora osasuna hobetzera (SOR-045/029)**

"Trukumon" sasimedikuak izara bustiekin bainuak hartzeko gomendatu zion Mireni. Inguruko balnearioetara ere jende asko etortzen zen osasuna hobetzera. Arrasaten gaur egun sanatorioa dagoen lekuan ere balnearioa zegoen lehenago.

## **270. Balnearioko hoteleko lanak eta baldintzak (SOR-045/031)**

Balneariora jende asko etortzen zen beste probintzia batzuetatik. 100 pertsona edukitzen zituzten hotelean. Nagusiek jenio bizia zutela eta Maria Jesusi laguntzen zion neskak alde egin zuen eta berak bakarrik egin behar izaten zituen lanak. Langile ugari zeuden eta bertan egiten zuten bizimodua. Baina goseak edukitzen zituzten.

## **271. Guenetxo baserria erre zenekoa (SOR-047/003)**

Familiako giroa. Guenetxo baserria nola erre zen azaltzen du.

## **272. Gurasoen jatorria (SOR-047/013)**

Gurasoak eskolara oso gutxi joandakoak. Aita baina oso buru onekoa. Aita, Altamira baserrikoa; ama, Mendotz-koa.

## **273. Eskola kontuak; kongregazioak (SOR-047/014)**

Herriko eskolan ibilitakoa; zer ikasten zuten. Arrosarioa errezatzen zuten egunero. Zigorrak. Gerora klase partikularretara ere joan zen, maistrarengana. Orduan gehiago ikasi zuen. Mutilentzako maristak egon ziren. Kongregazioak: Hijas de Mar*í*a eta luistarrak. Abadeek eta erlijioak orain baino garrantzi gehiago gizartean.

#### **274. Erlijioaren eragina gizartean; aldaketak (SOR-047/015)**

Egungo kontuak; gauzak nola aldatu diren. Dotrinan, infernuri ez dagoela irakasten dutela orain... Bere garaian infernua, purgatorioa... Erlijioaren indarra; bekatuak...

#### **275. Umetako bizimodua; eskolara nahi baino gutxiago (SOR-047/016)**

Eskolan zer ikasten zuten. Sarritan ardizain ibili behar zen eta eskolara joan ezinda gelditzen zen. Bordatzen ere ikasten zuten eskolan. Familia askotan garrantzitsuagoa izaten zen mutilari eskola ematea neskari baino.

#### **276. Eibarrera lanera (SOR-047/017)**

Aitaren arreba batek "Eperra" taberna zuen Eibarren. Eskola amaitutakoan bertara joaten zen hilabete batzuetan izebari laguntzera.

#### **277. Jaunartzeak, ezteiak (SOR-047/019)**

Garai batean jaunartzeak baserrian ospatzen ziren. "Eztegua". Ezkontzak ere baserrietan ospatzen ziren. Soinujolea.

#### **278. Garai bateko ezkontzak nolakoak izaten ziren (SOR-047/022)**

Ezteiak nolakoak izaten ziren. 10 eguneko bidaia: Donostia, Zaragoza, Iruñea... Lan handia bazkaria etxean egitea. Gauzak asko aldatu dira.

#### **279. Medikua baserrietara oinez (SOR-047/025)**

Medikuak oinez ibiltzen ziren baserriaz baserri. Medikua; praktikantea. Sasimedikuak.

#### **280. Emakumearen bizimodua baserrian (SOR-047/028)**

Emakumeak baserrietan; haurdunaldietan nola ibiltzen ziren. Baserrietako lanak: gari-jotzeak; garotan, lurreta... "Asto lan asko..!".

#### **281. Ume jaioberria; ohiturak (SOR-047/029)**

Umea izan eta ondorengo egunetan bete beharreko ohitura zaharra. Elizan sartzea umearekin. Amaberriari zer ematen zitzaion jateko...

#### **282. Jaioberriak baserrietan (SOR-047/031)**

Ume jaioberriak baserrian. Oholarekin egindako kotxetxoak. Baserrietako gizonak ez ziren gehiegi arduratzen ume txikiez.

#### **283. Etxeginak; aurrerakuntzak baserrian (SOR-047/033)**

Etxeginak. Baserrietako bizimodua; aurrerakuntzak. Komun zaharrak nolakoak izaten ziren...

#### **284. Lixiba; garbitasuna (SOR-047/034)**

Arropa garbitzeak nola egiten ziren, non... Lixiba nola egiten zuten.

#### **285. Ehunezko arropak; garbitasuna (SOR-047/035)**

Ehunezko arropak. Lixiba egiteko txinbo xaboa erabiltzen zuten.

### **286. Baserriko bizimodua (SOR-047/037)**

Sukaldeko lurra nolakoa zen; nola garbitzen zen. Ur-korrontea baserrian. Beheko sua. Gelatza, burdin-galdara. Hasiera batean denak ontzi beretik jaten zuten. Ardoa, sagardoa, pattarra...

### **287. Taloa, morokila (SOR-047/039)**

Burdin-galdara zertarako erabiltzen zen. Taloa eta esnea; morokila, aia...

### **288. Elikadura kontuak (SOR-047/040)**

Elikadura baserrian; zer jaten zuten. Ortuan zer landatzen zuten. Bakailaoak estimazio handia izaten zuen baserrietan. Txitxarroa, sardina, antxoak... Garizumako bijilia.

### **289. Gabonetan zer jaten zen (SOR-047/041)**

Gabonetan zer jaten zuten. Intxaur-saltsa, konpota... Turroia. Auzo batetik bestera ere joaten ziren soinujolearekin.

### **290. Elikadura kontuak (SOR-047/042)**

Jatekoen inguruan ohiturak nola aldatu diren. Lehenago, gari-ebaten, letxuga azukrearekin jaten zuten.

### **291. Elikadura kontuak (SOR-047/044)**

Jatekoen inguruko azalpenak.

### **292. 1928an Obe baserria erre zen (SOR-048/001)**

Bernardo 1917an jaio zen uztailaren 22an Obe baserrian. 1928an baserria erre egin zen eta berria egin zuten. "Lasto pila baten antzera" erre omen zen dena eta beraiek leihotik salto egin behar izan zuten. Animaliak bertan erre ziren. Hilabetetako haurra leihotik behera bota eta mahatsean kateatuta salbatu zen.

### **293. Baserria erre eta berria egin bitarteko kontuak (SOR-048/002)**

Etxea erre eta berria egin bitartean Bernardo Eibarko Altzuarren baserrian egon zen senide batzurekin; gurasoak, berriz, San Andresen, gaur egun elkarte dagoen lekuan. Baserri berria eraikitzeke inguruan ateratzen zuten harria. Etxea nola egin zuten. Urrea azaldu omen zen etxea erretakoan eta Bernardoren amak don Benigno apaizari saldu omen zion urrea.

### **294. Gripe-garaian jende asko hil zenez hil-kanpaiak jotzea debekatu zuten (SOR-048/005)**

Etxea erre zenean amak bazekien gutxi gorabehera non zegoen urrea eta ontzi batean gorde zuen. Aita 1918an gripeak jota gaixotu zen eta lau urteren ostean hil egin zen. Inguruetan jende gehiago ere hil omen zen gripe-garaian. Asko hil zirenez kanpaiak jotzea debekatu egin zuten, etengabeko zarata egongo zelako bestela.

### **295. Baserria erre osteko laguntzak (SOR-048/006)**

"Caja de ahorros"-ean mikelete nafar bat egoten zen. Etxea erre zitzaientean Foru Aldunditik mikeleteari galdetu zioten ea ze diru-laguntza edo behar zen,

eta hark ez zutela premiarik esan omen zuen. Ez zeukaten ezer eta "etxe-erre batzen" ibili ziren. Ama senarra hiltzean berriz ezkondu zen, eta hura ibili zen "etxe-erre batzen". Etxeek herri mailako seguro antzekoa izaten zuten. Auzoko mutilek etxe berria egiteko egurrak ekarri zituzten pistetatik gora ermitaraino.

### **296. Etxearen inguruko lexikoa: "medellin"-a eta "kapirixuak" (SOR-048/007)**

Etxea erre zenean "medellin"-ik ere ez zuela esaten du Bernardok. "Medellin"-a zeri deitzen dioten. "Kapirixuak" zer diren. "Kapirixuak" egiteko egurrak bizkarrean ekarri zituzten auzoko mutilek pistetatik gora.

### **297. "Obe" izenaren jatorria (SOR-048/008)**

Aita eta aitita ere Obe baserrian jaiotakoak ziren. "Obe" izenaren jatorria; "Oberena" omen zen lehenago. Duela gutxi norbaitek esan omen zien Obe eta Iturbe zaharra zirela Soraluzeko baserri zaharrenetakoak.

### **298. Garai bateko txanponak (SOR-048/010)**

Garai bateko txanponak. Pezeta diru asko zen lehenago. Zentimo batekoak eta bikoak ikusi izan ditu Bernardok baina bere garaian jada ez ziren erabiltzen. Nolakoak ziren txanponak.

### **299. Gaztainadia zuten "Urasandi"-n (SOR-048/012)**

Garai batetik basoak asko aldatu dira. Lehen pagadiak eta hariztiak egoten ziren, baina gerora bota eta pinua sartu zen. Gaztainadiak pareko mendian izaten ziren ugari. Beraiek ere bazuten gaztainadia han eta familia osoak hilabete egiten zuen gaztainak biltzen. Udazkena izaten da gaztaina-sasoia; garai gogorra izaten zen bestela ere lan ugari egoten zen eta. Gaztainadiari "Urasandi" deitzen zioten. Entzunda dauka Bernardok garai batean bi zatitan banatzen zela Soraluze: Urasondo, erreka bestaldekoa, eta Soraluze.

### **300. Errekaz bestaldeko "Urasandi" zonan gaztainak batzen; gero imilaunka saldu (SOR-048/014)**

Errekaz beste aldekoari "Urasandi" deitzen zioten. Inguru hartan zuten gaztainadia gurasoek eta hilabete inguruan familia osoa ibiltzen ziren gaztainak biltzen. Goizean goizetik bazkariarekin joaten ziren eta astoekin ekartzen zituzten gaztainak. "Sardaixak" erabiltzen zituzten gaztainak botatzeko eta jasotzeko, berriz, "mordazia", egurrezko kako antzekoa. Aletuta zegoen gaztaina plazara eramaten zuen amak saltzera. gaztaina kiloka beharrean "imillaun"ka saltzen zen. "Imillauna" koadro txiki bat izaten zen eta 3 kilo gaztaina hartzen zituen.

### **301. Imilaun gaztaina 2 pezetatan (SOR-048/016)**

Gaztaina "imillaun"-ka saltzen zen. "Imillaunak" 3 kilo gaztaina hartzen zituen eta bi pezetatan saltzen zen. Etxean ere jaten zituzten gaztainak: freskoak ziren artean egosita eta gero erreta. Bera mutikoa zela neguko parterik haundiena gaztainak zuritzen pasatzen zuten.

### **302. Atxolin ingurura garotara (SOR-048/017)**

Atxolin ingurura joaten ziren garotara, baita Elgoibar partera ere. Garoa inportantea izaten zen simaurra egiteko. Lera edo narrarekin joaten ziren garotara. Udazkenean egoten zen lan gehien.

### **303. Leraren deskripzioa; hari jartzen zitzaizkion "ezarkixak" (SOR-048/019)**

Lera zer den azaltzen dute. Lera nolakoa izaten zen. Neguan "ezarkixak" jartzen zitzaizkion gogortzeko, bestela urtero lera berria beharko zen eta. Ezarkiak egur gogorrekoak izan behar ziren eta eskien antzeko forma izan behar zuten. Halakoen bila ibiltzen ziren txaran. Egurra sasoian moztu behar izaten zen. Gero mantentzeko zer egiten zitzaion.

### **304. Lursail guztiak landu egiten ziren (SOR-048/021)**

Lehen zelai gutxi zegoen sail guztiak landu egiten ziren eta. Lursail handi samarrak zituztenek garia erein eta gero lurra deskantsuan uzten zuten pare bat urtean. "Lubarrixa" esaten zitzaion horri. Simaurra behar izaten zen lur guztiak ongarrizatzeko eta batzuetan denentzat ez zegoenean zuzenean botatzen ziren sorora kortako azpiak. Garia, artoa, patata, arbia, erremolatxa... ereiten ziren.

### **305. Domeketan 6tako meza ostean plaza eroslez beteta (SOR-048/022)**

Ortuko jeneroa kalera saltzera eramaten zuten esnearekin joaten zirenean. Letxuga, aza, leka... eramaten ziren eta baita gereziak ere. Larunbatetan bildu eta igandetan plazara eramaten zituzten saltzeko. Goizeko 06:30ean egoten zen lehenengo meza ("albakua") eta hura entzun ostean plaza emakumez bete egiten zen. Marisol gaztea zela hiru anai-arreba joaten ziren jeneroa saltzera kalera goizean goiz eta gero 9tarako eskolara. Bernardoren emazteak semea soldadutzara joan zenean utzi zion plazara joateari.

### **306. Umetan amari esne-partitzen laguntzen; "Piston" aguazila (SOR-048/024)**

Bernardo ere batzuetan joaten zen amarekin plazara. Uda partean lana egoten zen etxean, baina negu partean eskolara joan aurretik amari laguntzen zion esne-partitzen. "Piston" aguazilaren inguruko kontuak; kalean zebiltzan umeak zaintzen ibiltzen zen.

### **307. Baserritarren artean pikeak plazan posturik onena hartzeko (SOR-048/025)**

Marisol kaletik hurbileko baserrikoa da eta plazara asko joaten zen. Goizeko meza (albakoa) entzun ostean plazara joaten zen hango giroa ikustera. Plazara saltzera lehenengo joaten zenak posturik onena aukeratzen zuen eta baserritarren artean pikeak egoten ziren. Bernardoren emaztea omen zen argiena, 10ak inguruan joan eta kalean jartzen zen saltzen, jendea pasatzen zen lekuan.

### **308. Erregetxean zegoen astotokia (SOR-048/026)**

Astoan jaisten zuten jeneroa kalera eta Erregetxean astotokia zegoen haiek lotzeko. Bakoitzak ahal zuen moduan lotzen zuen astoa eta zenbaitek besteen astoak soltatzten zituzten eurena lotzeko.

### **309. Lehen frutak kanpora exportatzen ziren; gaur egun alderantziz (SOR-048/027)**

Plazan mugimendu handia egoten zen, lehen ez zegoen bestelako frutategirik eta. Kanporako ere hemendik eramaten ziren frutak. Gaur egun dena asko

aldatu da eta zaila da kanpotik datozen produktuei kontra egitea. Lehen sasoian sasoiko fruta egoten zen. Gabonetarako ez zen sagarrik ikusten, etxerako gordetako ale bakanak bakarrik.

### **310. Erregetxearen inguruko azalpenak (SOR-048/028)**

Erregetxean zegoen plaza eta baita astotokia, eskolak, gartzela... Jendea ere bizi zen bertan. Nortzuk bizi izan ziren. Erregetxea harrizko eraikina zen eta eguzki-erlojua ere bazuen. Etxe handia zen oso. Beraiek beti ezagutu dute jendea bertan bizitzen, baina aurretikoen inguruko konturik ez dakite. Lehenago erregea bizi ei zen han eta soldaduak egoten omen ziren Soraluzen.

### **311. Gilaneko zubitik elizako aldarea parean (SOR-048/029)**

Bernardok entzunda dauka Gilaneko zubitik elizako aldarea pare-parean dagoela. Gaur egun udaletxea dago tarteko, baina agian udaletxea geroagokoa izango dela diote. Honen inguruko eztabaida.

### **312. Gerra garaian, zanga egin zuten bidean aurkariak ez pasatzeko (SOR-048/030)**

Gerra denboran, Eibar "zona gorria" zen eta Soraluzen zeuden nazionalak. Soldaduek bost-sei hilabete egin zituzten herrian. Irailaren 22an sartu eta martxo inguruan egin zuten alde. Ezozitik behera etorri ziren eta Igaraten, herriaren sarreran, zanga bat egin zuten bidean, aurkariak ez pasatzeko. Berak 19 urte zituen eta bera ere ibili zen lan horretan.

### **313. Baserriko bizimodua; Erromerian ezagutu zuten elkar (SOR-050/003)**

Lehen domeketan bakarrik irteten ziren, baserrian lan handia egoten zelako. "Pagatzaxixa" (pagatxa hazia) bero zegoenean batu behar eta lan gogorra izaten zen. Lehendik elkar ezagutzen zuten arren, Ezoziko erromerian hasi ziren elkarrekin eta 7 urte egin zituzten nobiotan.

### **314. Bezero ugari zituzten Eibarren (SOR-050/009)**

Eurak kanpora joaten zirenez lanera, baserrian emakume bat zuten etxeko lanetan laguntzeko. Jesusak saltzera irteteari utzi zionean emakume horrek hartu zuen banaketa lana eta gero euren alabak. Eibarren bezero ugari zituzten eta pena handia eman zion hango salmenta uzteak. Jendea zain izaten zuten eta egun batetik bestera ere enkarguak egiten zizkieten.

### **315. Eibarrera joateko trenaren zubitik pasa behar Maltzagan (SOR-050/010)**

Euren baserrietik Eibarrera joateko ez zegoen beste biderik. Maltzagara jaitsi eta trenaren zubitik pasatu behar izaten zuten. Hiru baserrik zuten partea zubi horretan beste batzuk ere handik pasatzen ziren arren. Karaktera igotzeko bide ofiziala euren etxe ondokoa omen zen. Gaur egun autopista egin dutenean oinezkoen pasabide ere kendu egin omen dute.

### **316. Maltzaga gune garrantzitsua trenentzat (SOR-050/011)**

Maltzaga gune garrantzitsua zen trenentzat Gasteiz, Donostia eta Bilboko trenak bertan gurutzatzen ziren eta. Goizeko 08:30ak aldean hiru tren etortzen ziren eta 10 minutu inguruko geldialdia egiten zuten. Jendeak Maltzagako kantinara joateko aprobetxatzen zuen.

### **317. Trenak geldialdia egindakoan jendea Maltzagako kantinara (SOR-050/013)**

Trenak geldialdia egiten zuen denboran jendea Maltzagako kantinara joaten zen, eta jende ugari ibiltzen zen bertan. Trenak batzuetan gainezka ibiltzen ziren orduan jende guztia trenez mugitzen zelako hara eta hona. Eibar garrantzitsua zen eta inguru guztietatik etortzen zen jendea bertara lanera. Bizikletan ere ibiltzen ziren batzuk.

### **318. Gurasoek Bilbon ezagutu zuten elkar (SOR-050/014)**

Joxe Mariren ama elgoibartarra zen eta aita bertakoa. Ama neskame egon zen Bilbon; aitak ofizioa ikasi eta arotz-lanetan jardun zuen 12 urtez Bilbon eta bertan ezagutu zuten elkar.

### **319. Baserria erre eta 18 urtez egon zen berreraiki gabe (SOR-050/015)**

Gerra denboran, baserria erre zuten. Aita burugogor jarri zen eta apurtu zutenek konpondu behar zutelako baserria zioen, berak ez zuela konponduko. Atzealdean zuten txabola batean jarri ziren bizitzen eta 18 urtez egon zen baserria berriz eraiki gabe, Joxe Marik hormigoiarekin egin zuen arte.

### **320. Baserria erre zuteneko bizipenak (SOR-050/016)**

Gerra-denboran baserria erre zuten barruan milizianoak zeudelakoan. Orduko bizipenak. Frontea etxe-inguruan bertan zuten. Anaia ozta-ozta salbatu zen erre gabe. Ardiak ere kanpoan zituzten eta ez ziren erre, baina 13 ganaduburu erre zitzaizkien baserriarekin batera.

### **321. Argiñao baserria bi aldiz erreta (SOR-050/017)**

Arrate bailaran, Narru, Zestero eta Argiñao baserriak erre zituzten. Argiñao baserria gerra aurretik erre egin zen, eta Karakate azpiko gurutzetik nola ikusi zuten kontatzen du. Gerra garaian berriz erre zuten. Bi fronteren erdian zeuden.

### **322. Bi fronteren erdian zeuden (SOR-050/018)**

Bi fronteren erdian zeuden Arrate bailarakoak; baita eurak ere. Fronteak non zeuden. Behin ardiak biltzera joan zen eta lainoarekin ez zen ezer ikusten. Lainoa jaso zuenean, tiroka hasi ziren eta bere aldameneko ardia jo zuten tiroz. Zulo baten sartuta egon zen; eta, tiroak isiltzean, korrika ihes egin zuen etxera.

### **323. Aita etxearen zorrak ordaintzeko lanera (SOR-050/019)**

Bere aitak 7.000 pezetan erosi zuen baserria. Inguruetan ez zegoen beste aukerarik eta egoera txarrean egon arren erosi egin zuen. Gero goitik behera konpondu behar izan zuten eta zorrak egin zituen. Zorrak ordaintzeko ofizioa ikasi eta lanera joan behar izan zen. Aita soldaduskatik libratu egin zen.

### **324. Aitak erosi zuen Iturbeberri baserria (SOR-050/023)**

Azkoitiko Enparan baserria eta Iturbeberri omen ziren etxe-jabe handiren batenak. Joxe Mariren aita bi baserri horiek ikusten egon zen bat erosteko asmoa zuenean, baina bestea garestiagoa zen eta Iturbeberri erosi zuen. Gero etxea behetik gora berria egin behar izan zuten "matxoiak" (sostenguak) jarrita, baserria oso hondatuta zegoen eta.

### **325. Gereako hilerria egiten jardun zuen (SOR-050/024)**

Baserrietan ibiltzen ziren batera eta bestera etxeginak. Joxe Mari ere etxe batean baino gehiagotan ibili izan da lanean. Harria jotzen ere lan egiten zuen. Gerean hilerria egiteko lanetan ere ibili zen. Neketsuak izan ziren hango lanak, hare asko behar zuten eta. Azkenean kamioikada harri eraman zieten kamioia Oiz aldetik sartuta. Inguruetan harrapatzen zuten guztia erabiltzen zuten: harriak, teila-zatiak, botilak...

### **326. Harri-jotzea, lan zikina (SOR-050/025)**

Joxe Mari Soraluzen ere ibili zen bi etxetarako harriak jotzen makinarekin. 40 urte inguruan ekarri zuten harriak jotzeko makina, euren baserria egiteko. Non ibili izan den lanean. Porlana idi parearekin ekartzen zuten ahal zen lekutik. Harria jotzea ez zen lan neketsua baina hauts handia harrotzen zen. Kalean emakume bat kejaz izaten zuten arropak hautseztatzen zitzaizkiolako.

### **327. Sagardoa eta txakolina etxean egiten zituzten (SOR-050/026)**

Sagardoa etxean egiten zuten eta txakolina ere egin izan dute inoiz. Batzuetan azukrea sartzen zioten sagardoari. Beheko baserrira ezkondu ziren anaia soldaduskatik libratzearren eta bertan egiten zuten sagardoa, dolarea zegoen eta. Txakolina lehenengo aldiz egin zuteneko kontuak; 700 litro inguru egin zituzten. Gas handiarekin irten zen txakolin hura. Sagardoarekin gertatutako anekdota.

### **328. Sehaska Etxetik Osintxu auzora (SOR-061/001)**

Inazio Ernabide Goiaga, Zizurkilgo Sehaska Etxean jaso zuten eta Bergarako Osintxu auzora eraman. Ezenarro Alvarez abizenak izan zituen ezkondu zen arte, guraso ordekoena, hain zuzen ere. Ezkontzako agiriak egiteko, jatorrizko abizenak berreskuratu egin behar izan zituen.

### **329. Etxekoek etxekoen berri (SOR-061/002)**

Soraluzera ezkondu zen arte, Bergarako Osintxu auzoan bizi izan zen. Abizenak aldatu zituenean, bere anai-arrebek jakin zuten Inazio ez zela etxean jaiotakoa. Osintxun eskolatu zen, zazpi urterekin, Kontxa Ega eta Paka izeneko maistreakin. 14 urterekin hasi zen lanean Eibarren, Txantioanena pistola lantegian, Pistolas Staren, 1931. urtean.

### **330. Francoren anaiaren balentria (SOR-061/003)**

Eskolak erdaraz jaso zituela, baina euskara ere apur bat erabili zutela dio. Francoren anaia izan omen zen Ameriketara aireplanoz joaten lehenetarikoa. Balentria hori ospatzeko, eskolan jai eman zietela gogoratzen du Inaziok.

### **331. Jolasak; Osintxuko eskola (SOR-061/004)**

Balentokian eta lapur-zibilka jolasten zuten mendian lasterka. Adin ezberdinetako neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten, Osintxuko eskola bakarra betetzen zutela. Eskolan ez zegoen ez komun ez eta argirik ere. Eskola partikularrak Paka maistraren senarrak ematen zizkien. Eskolan ez omen zuen ikasi biderketak dezimalekin egiten.

### **332. Eliz-mutil eta delineatzaile (SOR-061/005)**

Eskola gutxi ikasita irteten zuten eskolatik. Dotrina izan zen gehien ikasi zutena. Lanean hasi eta gero ikasi zuen dezimalekin kontuak egiten. Marrazten ere lanean ikasi zuen. Delineatzaile titulua postaz eginiko ikasketen bidez atera zuen. Eliz-mutil zegoenean egindako gaiztakeriak azaltzen ditu. Eskolara sartzeko bidea elizpetik zuten.

### **333. Hari eta pistola lantegiak (SOR-061/006)**

Ama Bakaikutik Osintxuko "Fábrica de Hilaturas"era lanera etorritakoa zen. Aitak uda partean egunean 17 ordu egiten zuen lan, 7,50 pezetaren truke. Eskolak bukatu eta Eibarrera joan zen lanera. Krisia zela eta, 45 langile kaleratu zituzten Txantoiarena pistola lantegitik, Inazio barne.

### **334. "Algodonera"n gerra hasi zenean (SOR-061/007)**

Eibarko Txantoiarenetik kaleratu ondoren, Bergaran hasi zen peoi-lanetan, aitarena baino jornal hobeagoarekin. Geroago, Bergarako "Algodonera" lantegian hasi zen lanean, kotoi eta oihalgintzan. Gerra hasi zenean, Bergaran guardiak egiten pasahitza (kontraseña) eskatzen zuten.

### **335. Gerrako fronte batzuk (SOR-061/009)**

Osintxuko talde bat "Batallón Azaña"n sartu zen eta Donostiako "Frontón Moderno"ko kuartel nagusira joan ziren. Irundik Laredoraino joan ziren, atzera egiten beti. Loilara heldu zirenean, Inazio "Batallón Loyola"ra pasatu zen. Gernikako bonbardaketa Mañariko mendietatik ikusi zuen. Mañariko frontean gertatutakoak azaltzen ditu.

### **336. Gerrako borroka gogorak (SOR-061/010)**

Bilbo galdu eta gero, lurreko gainean gertuko borroka gogorak izan zituzten. Gudariak borondate gogorra zutela, baina aginte ona falta zela dio Inaziok.

### **337. Heriotzatik ozta-ozta libratu zen bakarra (SOR-061/011)**

Nazionalen trenbideetako sei langile eraman zituzten hiltzera Osintxun. Gaua aprobetxatuz, eurretako batek, Anbrosiok, ihes egin zuen; bizirik ateratzea lortu zuen bakarra izan zen. Gudariak Basalgo auzoan zeuden, eta Anbro시오 babestuta zegoen baserritik jaso zuten, nazionalen erasoan. Inaziok ez zuen gerra guztian bala-zauririk izan.

### **338. Legutioko bataila (SOR-061/012)**

Legutioko frontean, Gasteiz hartu guran. Legutioko batailan alferreko baja asko izan zutela dio Inaziok. Elurra ari zuen, eta ia oinak izoztu zitzaizkion. Lagun bi galdu zituen bertan.

### **339. Basalgon gertatutakoa (SOR-061/013)**

Bergarako Basalgo auzoan gertatutako kontu bitxiak azaltzen ditu. Legution erretretan bildotsa bizkarrean hartuta joan zen Inazio.

### **340. Legution gogorak jasan zituzten (SOR-061/014)**

Nazionalak Asentzio hartu zutenean, Inazio eta bere kideak izan ziren azkenak bertatik alde egiten, nolabait ihesi. Legutioko borrokako kontu gogorak. Handik aurrera beti beldurrez.

### **341. Laredon preso (SOR-061/015)**

Italiarrek preso hartu zituzten Laredon, Ingalaterrara eramango zituzten itsasontziaren zain zeudela. Handik Castro Urdialesko kontzentrazio-esparrura eraman zituzten. Hilabete oso gogorra eman zuten bertan; eta gero, Iratxera eraman zituzten.

### **342. "Trabajadores"etan (SOR-061/016)**

San Pedro de Cardeñatik eta Lermatik pasatu ziren. Lerman eraturiko "50. Langileen Batailoia"n sartu zuten Inazio, italiarren atzetik trintxerak egiten joateko. Teniente mexikar baten agindupean, lan gogorak egin zituzten. Norbaitek batailoitik gorrien bandora alde egiten bazuen, bere lagun bat fusilatzen zuten nazionalak, zigor eredugarri bezala.

### **343. Kalte-ordaina gaur kobratu (SOR-061/017)**

1940. urteko urtarrilean lizentziatu zuten "Trabajadores"etatik. Kobratu berri du Inaziok "Trabajadores"etan egindako lanengatik kalte-ordaina.

### **344. Gerratik itzulera (SOR-061/019)**

Osintxu auzoan ez, baina Soraluzen jasan zituzten bonbardaketak. Ama gerra denboran umeekin bakarrik geratu zen etxean. Inazio etxera itzuli zenean lanean hasi zen Soraluzen. Armagintza ikasi eta bere lantegia sortu zuen.

### **345. Erromerian borrokan (SOR-061/020)**

Gerraurretik Osintxu auzoan jaiero egoten zen erromeria. Erromerietan jende arteko borrokak ohikoak ei ziren. Inaziok borrokalari ospea omen zuen. Soinujoleek edo jazzband-ak alaitzen zituzten erromeriok.

### **346. Dantzak eta neska laguntzeak (SOR-061/021)**

Mutilek txakur handi bat ordaintzen zuten dantza piezako. Neska laguntzera zihoazen kanpoko mutilak harrika erasotzen omen zituzten osintxuarrek.

### **347. Errepide zaharrak (SOR-061/022)**

Inguruetakoa erromerietara bizikletaz edo oinez joaten ziren. Inaziok asfaltorik gabeko errepideak ezagutu zituen. Orduko errepideak nola egiten ziren azaltzen du.

### **348. 12 urte zituela, gerra hasi zen (SOR-063/002)**

Lau urtetik sei urtera bitartean hartzaindegian ibili zen, Pacifica Mendikute anderearen zaintzapean. Gero maristen eskolara joan zen, gerra sortu zen arte. Bere lagun batzuk 10-11 urterekin lanean hasi ziren.

### **349. 14 urterekin bankura lanera (SOR-063/003)**

14 urterekin "Banco Guipuzcoano"an hasi zen lanean. "Ex combatientes" eta "ex cautivos"entzat omen ziren orduan bankuetako lanpostuak. Posta jaso, mandatuak egin eta antzeko lanak ziren Manuelen betebeharrak.

### **350. Soraluzen diru asko mugitzen zen (SOR-063/005)**

Errepublikako pezeta zen legezko dirua, baina Eusko Jaurlaritza eratu zenean, bere diruarekin ordaintzen zituen funtzionario eta soldaduen soldatak. Soraluzen jarduera industrialak diru asko mugitzen zuen. Sapa (Sociedad Anónima de Placencia de las Armas), Sacia, Alberdi, Madina, Amutxastegi... tailer asko zeuden. Hilean hamar ogerleko irabazten zuen Manuelek.

### **351. Madina tailerretik Sapa lantegira (SOR-063/006)**

Bankutik Madina tailerrera joan zen lanera. Torloju-tailerra zen, baina armentzako espoletak egiten ziharduen orduan. Bankuko bulego-lana utzita, biltegiko eskorgarekin ibiltzera pasatu zen Manuel. Handik laster, Sapa lantegira joan zen.

### **352. Kanoi lantegitik "Talleres Amuchástegui"ra (SOR-063/007)**

Kanoi lantegiaren izena Sapa zen. Han ikasi eta landu zuen Manuelek bere mekaniko lanbidea, ingeniariaren laguntzaile izateraino. 28 urtez jardun zuen lanean kanoi lantegian. Gero "Talleres Amuchástegui"ko tailerburu izan zen, autoentzako ordezeko piezak egiten. 8 urtez jardun zuen bertan.

### **353. Bizkaitik Eibarko "Star" pistola lantegira (SOR-063/008)**

Bizkaiko Mungiara joan zen lanera, trokelgintza tailer batera. Urtebete han jardun eta gero, Eibarko "Star" pistola lantegian hasi zen lanean. "Txantoiianekua" izenarekin ere ezagutzen zen lantegi hori.

### **354. "Star"etik hartu zuen erretiroa (SOR-063/010)**

"Star" lantegian armadarentzako pistolak eta metrailetak egiten zituzten. Polizia eta Guardia Zibilen armamentua berriztatzeko lehiaketa irabazi, eta lanez lepo omen zegoen "Star". Bertan hartu zuen Manuelek erretiroa.

### **355. Kalitate maila nola igo zuten kanoi lantegian (SOR-063/011)**

Sapa-n lanean ziharduela, Suediako Bofors armagintza etxeko patente bat lortu zuten. Horren ondorioz, kalitate arauak ezagutu zituzten eta bertako ekoizpenaren kalitateak jauzi handia eman zuen. Arabia Saudirako kanoiak egin zituzten.

### **356. Soraluzen ekoiztutako OTANerako kanoiak (SOR-063/012)**

OTANerako armak ekoiztu zituzten Sapa-n. Itxura denez, European Bofors markako kanoirik onenak Soraluzen egiten ziren. OTANeko inspektoreen istorio bat azaltzen du Manuelek.

### **357. Lantegiko zuzendaria "komandantea" zen; sail-arduraduna, berriz, "sarjentua" (SOR-063/013)**

Gerra denboran, jende asko etorri zen kanpotik Soraluzera. Bertako langileak, militarizatuta zeudenez, ez ziren gerrara soldadu joaten. Gainera, jornala berdin-berdin jasotzen zuten. Lantegietako karguek militar izenak zituzten. Zuzendariari "komandantea" esaten zioten, eta bere izarrak soinean zeramatzan; talde-buruak "kabuak" ziren...

### **358. Mutikoak gerrara behartuta eraman zituzten (SOR-063/014)**

1941eko soldadu kintari La Quinta del Biberen deitu zioten, 17 urteko mutilak gerrara eraman zituztelako. Hori izan zen Soraluzetik joan zen lehenengo kinta, ordura artekoak lantegietan militarizatuta egon baitziren. 1940ko kintako gazte batzuk ere eraman ei zituzten.

### **359. Zugazti anaiak Soraluzen desterratuta (SOR-063/015)**

Zugazti anaiak, apaiz euskaltzaleak biak, Donostiatik Soraluzera desterratu zituzten. Manuelen etxean egon ziren apopilo.

### **360. Dotrina, euskaraz ikasten zuten gauza bakarra (SOR-063/016)**

Gerra aurretik, herriko Guardia Zibileko kabu baten seme euskalduna lagun izan zuen Manuelek. Haurtzaindegian euskaraz mintzatzen ziren, baina maristetan erdaraz ikasten zuten, dotrina salbu, ikasle talde baten gurasoek halaxe eskatu zutelako.

### **361. Beisbol jokoa Soraluzen (SOR-063/017)**

Jolas nagusia euskal pilota zen. Maristak Frantziatik bidali zituztenean, batzuk Soraluzera etorri ziren. Amerikarren "baseball" (beisbola) jokoa ekarri zuten eurekin. Manuelek ikasi zuen joko hori, eta "jolasak" egitea esaten zioten beisbolean jokatzeari.

### **362. "Joko garbi", zestako joko zaharra (SOR-063/018)**

Txistera zestekin jokatzeko "joko garbi" izeneko joko zaharra azaltzen du. Soldaduskara joan zenerako, Soraluzeko "Club Deportivo"ko kidea zen Manuel. 1946an jokatu zen "joko garbi"ko partida bat Soraluzen.

### **363. Soraluzeko biztanle eta lanpostuak 60ko hamarkadan (SOR-063/020)**

Hogei bat tailer ezkutatu omen dira Soraluzetik. 60ko hamarkadan zinegotzia izan zen Manuel. 4.500 biztanle inguru zituen herriak, eta ia 2.600 lanpostu zeuden bertan. Kanoi lantegia, eskopeta eta torlojugintza ziren jarduera nagusiak.

### **364. Herriaren aldaketak (SOR-063/021)**

Azken eskopetagileak jubilatuta ziren, eta gaur ez da inolako armarik ekoizten Soraluzen. Herriaren fisonomia trenbide zaharraren inguruan aldatu da gehien. Etxe berriak ere asko eraiki dira. Ezkondu zen arte ez zuen dutxa etxean eduki. Etxe berrira igotzeko 144 eskailera maila igo behar izaten zituen. Lehen galdategi bat zegoen lekuan bizi da orain.

### **365. Zezen korrida Soraluzen duela 500 urte (SOR-063/022)**

Manuelen amaginarreba Irure baserrian jaio zen. Ezagutzen den lehen zezen korrida Irure baserrian izan omen zen. Gai honen gaineko azalpen batzuk ematen ditu.

### **366. Gerraostean janaririk ez; kanoi lantegiko ekonomatoa (SOR-063/023)**

Gerraostean baserrietara joaten ziren arto eta gari eske. Gero errotan irinagatik trukatzan zuten. Kanoi lantegiak ekonomatoa jarri zuen bertako langileentzako. Errazionamenduko ogia oso txarra zen jateko.

### **367. Hildako txerri bat ekarri zuten estraperloan Arabatik (SOR-063/025)**

Ekonomatotik aparte, bizpahiru denda zeuden herrian. Errazionamenduko txartelarekin joaten ziren erostera. Ehiztari soraluzetar batzuek txerria ekarri zuten estraperloan Arabatik. Hil, garbitu eta gero txaketa eta prakak jantzi zizkioten autoaren atzeko aulkian jartzeko, belarriak txapel batekin estalita. Patata eta garia ere ahal zuten moduan ekartzen zuten estraperloan.

### **368. Sinforiano aitajauna asmatzailea (SOR-063/026)**

Manuelen aitajaun Sinforiano Aldaik eskopeta kanoiak zulatzeko makina asmatu zuen. Ordurako aurrerapen handia izan zen. Sinforiano gazterik hil zen, eta Felipe Agirregomezkortak jarraitu zuen tailerrarekin.

### **369. Goserik ez gerraostean (SOR-065/001)**

Arantxaren familiak ez zuen goserik pasatu gerraostean. Baserrian bazegoen zer jan, eta aitak, Logroñon desterratuta egon zenean, gauza asko bidaltzen zuen bertatik. Bera umea zeneko estraperlo kontuak esaten ditu (1938-39 urtetakoak).

### **370. Bergarara telak erostera (SOR-065/002)**

Dendetan telarik salgai ez zen egon hainbat urtetan. Bere ama brodatzaile ona omen zen. Etxeko izarak zeharo hondatuta zeudela, Bergaran bilatu zuten tela saltzen zuen dendatxo bat. Amarekin joanda erosi zuten izara berriak egiteko beste.

### **371. Amona aristokrata (SOR-065/004)**

Aita Beasaingoa eta ama Agirrebolua (Agarrebulu) errotakoa zen. Aitonak kalean tailerra jarri zuen eta Arantxa jaio eta oraindik bizi den etxea eraiki. Aita Beasaindik etorri zen praktikante lana egitera, eta amarekin ezkondu zen. Amona aristokraziakoa omen zen, ez baserritarra.

### **372. Eibarren errepublika aldarrikatu zuten (SOR-065/006)**

Herriko eskolan hasi zen ikasten. Eibar izan zen Errepublika aldarrikatu zuen aurreneko herria. Bertan ezarri zuten inguruko lehenengo institutu-eskola ere. "Ciudad Ejemplar" aldarrikatu zuten. Arantxak hamar urte bete zituenean, Eibarko institutuan sartzeko azterketak egin zituen, eta sartu zen.

### **373. Gerra pasatu eta berriro eskolara (SOR-065/007)**

Gerra hasi zenean bukatu zen eskola. Aita kartzelaratu eta gero desterratu egin zuten. Fronteak Soraluzetik alde zuenean, Errege Etxean berriro eskola jarri zuten martxan. Erreketean kuartela izan zen gerran, eta eskola guztia zorritz beteta utzi zuten. Ikasleak etxera bidali zituzten, harik eta eskolok garbitu arte. 14 urtera arte ibili zen eskolan.

### **374. Kontabilitateko ikasketak (SOR-065/008)**

Eskola bukatu eta gero itzuli zen aita desterrutik. Aitak kontabilitatea ikastera bidali zuen herriko eliza ondoan zegoen akademia batera. Han ikasi eta gero, Arantxak lanean hasi nahi zuen.

### **375. Berdintasunean hezitakoa (SOR-065/009)**

Gurasoek lau seme eta alaba bakarra berdintasunean hasi zituzten. Horregatik jarraitu zuen ikasten Arantxak. Garai hartan neskak etxeko lanetarako prestatzea zen ohitura. Bulego batean hasi zen lanean, eta arratsaldean Eibarko akademia batean ikasten zuen. Lanean eta ikasten jarraitzen zuen.

### **376. Beti lanean eta ikasten (SOR-065/010)**

Bere tailerreko administrazio lan guztia berak eramaten zuen. Geroago "Comercio" noizbehinka ematen zituen ikastaroetan parte hartzen zuen, lana bukatu ondoren. "Alberdi, Guridi, Esnal, Regular Colectiva" zen Arantxak lan egiten zuen tailerra. Eraikuntzarako sarriak egiten zituzten.

### **377. Arantxaren lan ibilerak (SOR-065/011)**

Alberdi, Guridi,... tailerra itxi egin zuten, eta gero "Tornillería Jaúregui"n hasi zen lanean. Bertan hamabi bat urte lan egin ondoren, jubilatuta egin zen.

### **378. Soraluzeko eskola eta maistra (SOR-065/012)**

Lau urterekin, eskolaurrean hasi zen; eta, seirekin, erdiko eskolara pasa zen. Zortzitik hamarrera eskola handian ikasi zuen. Azken honetako "Señorita Guillermina" maistra gudariarekin Bilbora joan zen. Hortik Frantziara bidali zuten, ume-talde baten ardurarekin. Soraluzera itzuli eta lana kendu ziotela jakin zuen.

### **379. Gerran aita etxean atxilotu zuten (SOR-065/013)**

Gerra-denboran aita etxean geratu zen. Nazionalak sartu zirenean, don Julio Perez Salas komandanteak bere aita nola atxilotu zuen gogoratzen du Arantxak. Atxilotu eta lana kendu zioten. Irailaren 22an tropak sartu eta handik gutxira izan zen atxiloketa.

### **380. Aita Soraluzetik eraman egin zuen Guardia Zibilak (SOR-065/014)**

Aita Soraluzen eduki zuten preso, harik eta Urriaren 12an beste bi soraluzetarrekin batera herritik eraman zituzten arte; hainbat egunetan ez zuten jakin nora eraman zituzten. Euren senitarteko bat Bergarara joan zen hiru gizonon berri bila.

### **381. Kartzelatik desterrura (SOR-065/015)**

Bergarako kartzelara eraman zutela jakin zuten. Arantxa eta ama joaten ziren aita bisitatzerara. Bergaratik Iruñeera eta gero Ondarretara eraman zuten aita. Gerra bukatzeaz zela itzuli zen etxera, baina hilabete gutxitara desterratu egin zuten Sorluzetik.

### **382. Desterrutik itzuli eta praktikante jarraitu (SOR-065/016)**

Lau euskal probintzietatik kanpo irteteko agindua bete behar zuen. Logroñora joatea erabaki zuen, eta Donostiako mediku lagunen artean harako gomendioak jaso zituen. Urte bitan han egon eta gero, 1941.ean itzuli zen betiko etxera. Aguazil, postari, Udaleko idazkari eta beste langile publiko askori lana kendu zieten gerran, Arantxaren aitarena tartean zelarik. Aita izan zen lan-postua berreskuratu zuen bakarra.

### **383. Xabin "Kaxagiña", Ziriakaren semea (SOR-065/017)**

Aitak artatu zituen bi kasu kontatzen ditu. Xabin "Kaxagiña" gudaria frontean hil zuten, eta bere anaia Luki Andaluziara preso eraman.

### **384. Aita medikuntzan ilustratua zen (SOR-065/018)**

Luki eta Xabinen ama alarguna zen, eta herriko alkateak pentsioa ukatu zion. Aita eta Bergarako botikariaren arteko harremanari esker lortzen zituzten botika batzuk. Aitak medikuntza-aldizkari asko irakurtzen zituen, eta azken botika eta tratamenduak ezagutzen zituen.

### **385. Gerrako bi bandoetako lekukotasuna (SOR-065/019)**

Alkateak alargun-pentsioa ukatu zion arren, geroago alkatea gaixotu zenean, Ziriakak lagundu egin zion. Gai honi buruzko bien arteko elkarriketa bat kontatzen du Arantxak.

### **386. Profanazioa Gernikan (SOR-065/020)**

Ziriakaren seme Xabinen hilobia urtero bisitatzen du Arantxak Gernika-Lumon. Hilobi hori bi bider profanatu omen dute. Lehenengo profanazioa zelan izan zen, eta gorputzak nork gorde zituen azaltzen du.

### **387. Gorpuzkiak berriro lekuz aldatu zituzten (SOR-065/021)**

Franco hil eta gero, inori ezer esan gabe, gorpuzkiak mugitu egin zituzten berriro. Bigarren honetan gertatukoak kontatzen ditu.

### **388. Eskolaurretik maristetaraino (SOR-067/003)**

Lautik sei urte arte eskolaurrean ibili zen Modesta zaintzaile sorluzetarrarekin. Urtebete eskola nazionaletan ikasi eta gero, maristen eskolara joan zen 14 urte bete zituen arte. Maristetan hasi zenean ikasi zituen lehen erdal berbak. Ikasle kopuruari aurre egin ezinda, 16 urtetik 14 urtera jaitsi zuten eskola bukatzeko adina maristek.

### **389. Eguneroko otoitzak maristetan (SOR-067/004)**

Victor Andrés muxikarra eta Antonio Agustin burgostarra izan zituen irakasle maristak. Izen horrek erlijio-izenak omen ziren, ez benetako izenak.

Eskolan gaztelaniaz egiten zuten arren, eskolatik kanpo muxikar maisua euskaraz mintzatzen zen eurekin. Goizean, Ave Mar&iacute;a eta bazkalostean arrosario osoa erreztatzen zuten eskola hasi aurretik.

### **390. Eskolako jolas-orduak (SOR-067/005)**

Eskolako patio txikian jolasten zuten pilotan eta futboleant. Jolas-ordua bukatzen zenean, denak formatuta itzultzen ziren eskolara. "Jueguan" ere jolasten zuten.

### **391. Gozo eta kandelagile (SOR-067/006)**

1934. urtean krisi gogorra omen zegoen, eta eskolak bukatu eta Zumarragako senide batengana joan zen, gozogintzan ikastera. Txokolate, pastel eta baita kandelak ere egiten zituzten bertan. Argizaioletan biltzen zuten kandela, elizan jartzeko. Gerra hasi aurretikoen itzuli zen etxera Zumarragatik.

### **392. Aita espetxeratu zuten gerra hasieran (SOR-067/007)**

Udalerako errolda jasotzen jardun zuen etxerik etxe beste hiru lagunekin. Gerra hasi zenean ama haurdun zegoen; eta aita, garaian EAjko zinegotzia, etxean geratu zen. Tropak Soraluzen sartu zirenean, irailaren 22an, aita atxilotu zuten. Lau urte eman zituen espetxean; Soraluze, Tolosa, Donostia, Iru&ntilde;ea, Isla de San Sim&ocute;n eta Upomendi itsasontziko kartzelak ezagutu zituen.

### **393. Trubian egin zuen soldadutza (SOR-067/008)**

Iru&ntilde;eko Fuerte de San Cristobal espetxetiko ihesaldian ez zuen parte hartu, adinagatik. Upomendi itsasontzitik Zamorako Astorgako kartzelara eramane zuten. Nikanor Asturiasen soldadu zegoen, eta aita bisitatzera joan zen Astorgara. Asturiasko Trubiako arma-lantegian egin zuen lan Nikanorrek, tornularia zela esan zuelako. Honela, frontera joatetik libratu zen.

### **394. Aitari bisita Astorgako kartzelan (SOR-067/009)**

Aitari Astorgako kartzelan egin zion bisita kontatzen du. Erdaraz berba egin behar, eta ezin zuen asmatu aitari erdaraz hitz egiten. Elkar besarkatzeko aukera izan zuten. 41 urte zituen aita. La Quinta del Biber&ocute;nekoekin batera joan zen Nikanor soldadutzara, 18 urte bete berri zituela. Kinta horretako baserritarrek bereziki sufritu omen zuten.

### **395. Asturiastik Burgosera entxufez (SOR-067/010)**

Trubiako lantegian soldata ordaintzen zieten soldaduei. Noizbehinka aitari dirua bidaltzen zion Astorgara. 13 pezeta eta erdi irabazten zituen egunean. Gerra bukatu zenean, kuartelera bidali zuten. Han bulegari lanetan jardun zuen. Handik Burgosko militarren osasuneko anbulantzia-sailera joan zen. Guardia gutxi eginda pasatu zuen soldadutza.

### **396. Hiru hilabeteko baimenak (SOR-067/011)**

Soldadutzako zatirik arinena Asturiaskoa iruditu zitzaion, dirua irabazten zuelako. Zortzi anai-arreba ziren, bera bigarrena. Sei urtez egon zen soldadutzan. Bizpahiru aldiz, hiru hilabeteko baimenarekin etorri zen etxera.

### **397. Kanoigintzaren artisautza (SOR-067/012)**

Soldadutzatik itzuli zenean, etxeko eskopeta-kanoi tailerrean hasi zen lanean. "Agirregomezcorta y Cía." lehenengo eta "Industrias Iñurrieta" gero izan ziren tailerraren izenak. Anaia biak kanoigintzaren prozesua azaltzen dute. Eskulan asko hartzen zuen kanoigintzak.

### **398. Eskopeta-kanoigintza (SOR-067/013)**

Eurak kanoi solteak lantzen zituzten, eta halaxe saldu. Gero Eibarren, lotzaileak, kanoiok binan soldatzen zituzten. Tailer bakoitzak bere espezialitateko pieza lantzen zuen, gero beste batzuk eskopetaren muntaia egin zezaten. Garai batean egon ziren Soraluzen beste eskopeta-kanoigile batzuk, (Arana edo errotako Galarraga, besteak beste), baina azkenerako Iñurrietarrak bakarrik geratu ziren.

### **399. Eskopetagile eta saltzaileak (SOR-067/014)**

Eskopetaren baskula zer den azaltzen du Julenek. Arizaga alde batetik, eta Migel Larrañaga bestetik ziren eskopeta osoa egin eta saltzen zuten tailerrak Soraluzen. Zortzi bat lagunek egiten zuten lan Iñurrietarren tailerrean. Sozioak alde egin eta 1944ean Iñurrietarrak bakarrik geratu ziren tailerrean. Ezkondu eta gero Nikanorrek torlojugintza tailerra izan zuen.

### **400. Emaztearen familiarekin lanean (SOR-067/015)**

Lana errazteko Alemaniatik ekarri zituzten makinak. Nikanor ezkondu zenean, aitagarrebarren lantegian hasi zen lanean. Koinatua eta biak torlojugintzan hasi ziren elkarrekin. Koinatuak Zamudion jarri zuen tailer bat, eta Nikanor geratu zen Soraluzekoarekin.

### **401. Leturiondotarren tailerra erosi zuen (SOR-067/016)**

Alemaniarra joan eta bi estanpatzaile makina erosi zituen. Ekoizten zuen guztia saltzen zuen, eta oso ondo joan zitzaion Nikanorri. Juanita Leturiondo zen Nikanorren emaztea, eta Juan Leturiondo haren familiako tailerraren izena. Tailerra erosi eta bere izena jarri zion Nikanorrek. 1983. urtean jubilatu zenean, tailerra itxi zuen.

### **402. Japoniarren kompetentzia (SOR-067/017)**

Japoniarrak torloju hobe eta merkeagoa itsasontzietan ekartzen hasi zirenean, hemengo torlojugintzak beherakada nabarmena jasan zuen. Hori izan zen tailerra ixtearen arrazoi nagusia. Berearekin batera Sacia, Argarate, Arizaga eta beste torlojugintza tailer batzuk ere itxi egin behar izan zuten. Denak porrot egin omen zuten.

### **403. Aitaren kartzela-pelegrinazioaren bukaera (SOR-067/018)**

Aita Astorgako kartzelatik Gasteizkora ekarri, eta handik Bilboko eskolapioetan zegoenera eraman zuten. Hemendik Babcock & Wilcox lantegira behartuta joaten zen lanera. Gero Larrinagako kartzelan egon zen eta handik bidali zuten etxera.

### **404. Errepublikan Nikanor dantzari (SOR-067/019)**

Errepublika etorri zenean, Nikanor haur dantzari talde bateko kide zen. Aurrekua dantzatzen ikasi zuen, eta Oñatira ere joan zen, garai hartan batere

arrunta ez zen haur-aurrekua dantzatzera. Oñatin jendeak dirua bota zieten, zilarrezko pezetak barne; 1931. urtean izan zen hori.

#### **405. Bergarako Euskal Jaietan dantzari (SOR-067/020)**

Errepublika garaian, Bergaran ospatu zen Euskal Jai garrantzitsu batean, San Martingo plazan oholtza gainean egin zuten dantza. Bilbotar ospetsu batek eskatuta haur-aurrekua errepikatu zuten. Dantzan, oholtzatik txapela bota zion Nikanorrek publikoari, eta bere amaren eskuetan geratu zen txapel hori. 14 urtera arte jardun zuen dantzari.

#### **406. Igandeetan inguruko herrietara (SOR-067/021)**

Errepublikak beste alaitasun eta elkartasun bat ekarri omen zuen Soraluzera. Erromerietara batez ere Eibarrera joaten ziren. Bergarara eta Elgoibarrera ere joaten ziren. Eibar erraustua geratu zen gerran, eta harik eta Ipuruako futbol-zelaia eraiki zuten arte, jendea ez zen bertan geratzen. Tartean, igandeetan Elgoibarren eibartar eta soraluzetar gehiago elkartzen ziren elgoibartarrak baino, trenez joanda.

#### **407. Herrialdeko trenak (SOR-067/022)**

Soraluzetarrak elgoibartarrei esaten omen zieten eurek Elgoibarrera joaten zirela, Eibarko neskak hara joaten zirelako. Zumarragan egon zenean trenez egiten zituen joan-etorriak, Antzuolatik bueltan. Mekolaldetik, Zumarragara "Ferrocarril Vascongado"rekin, edo Lizarraraino "Ferrocarril Vasco Navarro"rekin joateko trenbideak zeuden.

#### **408. Soraluzetik Zumarragara trenez (SOR-067/023)**

Ordubeteko bidaia zen Soraluzetik Zumarragara. Lau geltokietan geratzen zen iritsi aurretik. Antzuolako erripan langileak area botatzen zuten errailetan trenak labaindu ez zezan.

#### **409. Eskopeta-kanoiak egiten (SOR-068/001)**

Makina automatikoak ekarri zituen arte, eskopeta-kanoiak zein artisau eran egiten ziren azaltzen du. Banan-banan eta eskuz zulatzen ziren, alde batetik lehenengo eta bestetik gero; erdiko koska nola konpontzen zuten, zuzentzailearen lana zein zen... Soraluzeko Astiazaranek asmatu zuen alde batetik besteraino zulatzeko makina, baina ez zen oso ona; gero makina alemana ekarri zuten, eta hark hobeto egiten zuen lana. Fresatzeko makina kopiazailearen lanak azaltzen ditu.

#### **410. Eskopeta osoa egiten (SOR-068/002)**

Kanoi solteak hartu, eta lotzaileak labean soldatzen zituzten binaka. Kaxaginak kulatak egiten zituzten. Kanoia eta kulata lotzeko pieza, baskula, beste batek egingo zuen. Tailer bakoitza bere piezan espezializatuta zegoen, gero armaginak elkartuko zituenak. Baina baziren lantegi batzuk eskopetaren pieza guztiak egiten zituztenak, gero elkartu eta eskopeta bukatua ateratzen zutenak. Pistoï, gatillo, etab. armaginaren kontua izaten zen.

#### **411. Txurruken baserrian jaioa (SOR-069/002)**

Solairu biko etxea zen Txurrukena, behekoan ukuilua zuelarik. Esne-behi pare bat zituzten. Aitonak lantegian egiten zuen lan, eta amona arduratzen zen ortuaz. 1918 urteko gripeak familiako bi ahizpa eraman zituen. Heracliaren aita Txurrukenera ezkondu zen; eta, umeak izan zituztenean, kalera joan ziren bizitzera.

#### **412. Ortuak zeuden lekuetan, orain etxeak (SOR-069/003)**

Hiru anaia izan zituen Heracliak; bi baserrian eta beste bi kalean jaio ziren. Amonak fruta-arbola asko landatu zituen. Erromatik ekarritako mahats ondoak ere omen zituen. Amonaren ortu eta fruta-arbolen lekuan, gaur etxeak eta tailerrak eraiki dituzte.

#### **413. Amona trabuko zaharreakin (SOR-069/004)**

Amona alargun zegoela, ortutik barazkiak gauzez lapurtzen zizkiotela konturatu zen. Trabuko zahar batekin uxatu zuen gau batean lapurra. Oso gogorra omen zen amona.

#### **414. Soraluzeko eskolak (SOR-069/006)**

Erregetxe zaharrean zegoen eskolan ikasi zuen. Gerra denboran, soldaduak egon ziren Erregetxean. Nebarik gazteena jaio eta gutxira, berak hamabi urte zituela, eskola utzi zuen, neba zaintzeko. Erregetxeko eskolatik aparte, maristek eta mertzedaria mojek ere bazituzten berenak; baina horietan ordaindu egin behar zen. Ama jostuna zen.

#### **415. Gerraostean lantegira lanera (SOR-069/007)**

Aitak kanoi-lantegian egin zuen lan. Seme bik ere berarekin egin zuten lan. Heracliak gerraostean tailer pare batean egin zuen lan, hiru errelebotan egin ere. Amutxasteginean lehenengo eta Madinarenean gero.

#### **416. Amutxastegi eta Madina (SOR-069/008)**

Amutxastegik armentzako piezak, estopinak eta ingudeak egiten zituen, besteak beste; Madinak, berriz, torlojuak eta azkoinak. Amutxastegin urtebetete inguru egin zuen lan; eta gero, Madinarenean, jubilatuta arte. Somara lan egiten zuen. Lanaren ordainketa egunetik egunera aldatzen zieten eta protesta ugari egin behar izaten zuten, sarritan arrazoirik gabe aldatzen zitelako lanaren balioa.

#### **417. Gerra denboran ihesi (SOR-069/010)**

Gerra denboran, Bilbora egin zuten ihes. Gerora, Laredon ikusi zituzten sartzen italiar tropak. Handik Castro Urdialesera joan ziren, eta geroago Bilbora itzuli ziren. Gerra denborako kontuak oroitzetik ez zaio gustatzen Heracliari.

#### **418. Etxera berandu etortzeagatik, zigorra (SOR-069/011)**

Umetako gaiztakeria eta jolasak kontatzen ditu. Herriko plazan komediak egiten zituzten jolasean. Eibarko erromeriara oinez joaten ziren dantza egitera, etxera itzultzeko ordua ondo zainduz. Soraluzen dantzak uda partean bakarrik egoten ziren.

#### **419. Trenean ordaindu gabe ibiltzen ziren (SOR-069/012)**

Dirurik ez zutenez, txartel-zulatzailereengandik ezkutatuta ibiltzen ziren trenez. Maltzagako geltokira joaten ziren igandeetan, Bilbo, Donostia eta Zumarragako trenen aldaketak ikustera. Oñatira joateko ohiturarik ez zuten, baina Eibarrera asko joaten ziren.

#### **420. Umetako gaiztakeriak (SOR-069/013)**

Ahal zutenetan, barkilloak ere ordaindu gabe jaten zituzten. Oso gaiztoak omen ziren kuadrillan. Fabrika Zaharra esaten zioten atezain zaharrari; hari eta beste andre bati egindako gaiztakeriak.

#### **421. Jolasa eta mendira joatea zituen oso gustuko (SOR-069/014)**

Aste Santuan txirikilletan jolasten ziren. Tortoliska eta zelemiñetan ere jolasten ziren. Txikitatik aitarekin mendira joaten ziren; inguruko mendi guztiak ezagutu zituzten.

#### **422. Azkarabeitiako amabixia izan zen (SOR-069/015)**

1952 urtean Azkarabeitiako iturria eraberritu zuten. Gorpuzti-egunean ospatu zuten eraberritze hori, eta jaiaren amabixia Heraclia izan zen. Linazasoro zumarragar mendizale ospetsua egon zen mendi-ipuina kontatzen. Ojanguren, Eibarko argazkilaria, ere etorri zen. Iturri berriaren lehenengo ur-basoa amabixiak edan zuen, nahiz eta abadeak ia-ia pribilegioa kendu. Bera umetan aitarekin mendira joaten zenean, mendi tontorretako postontzietan egoten zen txartela jaso, eta norberarena nola sartzen zen azaltzen du.

#### **423. Eskolan ibiltzeko espartinak (SOR-069/016)**

Eskolak erdaraz jaso zituen. Ikasleen artean euskaraz mintzatzeagatik ez zituzten zigortzen. Eskolan ibiltzeko espartinak, ikasgelako mahaietan poltsa batean zintzilikatuta edukitzen zituzten. Larunbatero eguerdietan maistrarekin batera, eskolatik irteten ziren erreka ondoan espartinen hautsak astintzera.

#### **424. Mutilek fruta ekarri eta neskak dantza egiten zuten (SOR-069/017)**

Bernarda Eiguren zen maistra nafar baten izena. Maria Teresa Bandaormaetxea, Soraluzeako maistra bat ere egon zen eskola hartan. Etxeetako atarietako ateak irekita egoten ziren orduan, eta argirik ikusten ez zirenetan sartzen ziren Heraclia eta kuadrilla gaiztakerietan. Fruta sasoiari, mutilek sagarrak eta madariak lapurtzen zituzten. Erregetxean neskek dantza egiten zuten, eta gero denek elkarrekin jaten zuten mutilek ekarritako fruta.

#### **425. Jaietan zezenen aurrean ibiltzen zen (SOR-069/018)**

Gaur egun anbulatorioa dagoen lekuan herriko hiltegia zegoen orduan. Jaietarako ekartzen zuten zezena ere bertan gordetzen zuten. Heracliari gustatzen zaion zezenetan ibiltzea. Bi edo hiru neska besterik ez ziren zezenen aurrean ibiltzen ausartzen.

#### **426. Filmak kontatzen zizkien laguna (SOR-069/019)**

Kuadrillako bati zinemara joatea asko gustatzen zitzaion, baina dirurik ez zuen izaten. Kuadrillako lagunaren artean ordaintzen zioten sarrera, eta hurrengo egunean hiltegi ondoko harategi zaharrean elkartzen ziren denak, filma konta

ziezaien. Bi edo hiru txakur handi kostatzen zuen orduan zinemarako sarrera batek. Lagun zinemazale hark oso ondo kontaktzen omen zituen filmok.

#### **427. Aguazila beti euren atzetik (SOR-069/020)**

Behin batean, aguazilak zabua kendu zien, plazako zuhaitz batean lotuta zutena. Zabu hori berreskuratzeko hartu zituzten lanak kontaktzen ditu. Mutilei dantzarik ez emateko egiten zituztenak.

#### **428. Aita 'pilotari jantzian' (SOR-069/021)**

Bergarako jaietatik berandu etxeratu, eta lagun bati gertatu zitzaiona kontaktzen du. Aitak 'pilotari jantzian' irten omen zion atera.

#### **429. Lantegia Bergarara joan zenekoa (SOR-069/022)**

Madina lantegiak Bergaran lantegi berria ireki zuenean, enpresak jarritako kamioi batean, barruan aulkiak jarrita, joaten ziren Soraluzetik lanera. Geroago hasi ziren La Bergaresa garraio enpresaren autobusetan joaten.

#### **430. Aitaordearekin Donostiara umetan (SOR-070/001)**

Resuk aita galdu zuen umetan eta ama errusiar/frantses batekin ezkondu zen bigarrenez. Orduan Donostiara joan ziren bizitzera. "Librería de Gros" kudeatzen zuten bertan. Atzerriko egunkariak saltzen zituzten. Aitaordeari "El francés" esaten zioten, baina bere izena Gabriel Serafinoff Appel zen.

#### **431. Gerragatik Bilbora ihesi (SOR-070/002)**

Gerra aurretik, Donostiara joan ziren. Liburu-dendan lagundu eta etxez etxeko banaketak egiten zituen Resuk. Txofreko zezen-plaza ezagutu zuen. Gerra hasi zenean, ihes egin zuten, Soraluzera lehenengo eta Bilbora gero. Bilboko Gordonizen bizi izan ziren.

#### **432. Aita eta anaia gerran hilda (SOR-070/003)**

Bilbotik Durangora joan eta bertako bonbardaketa jasan behar izan zuen. Ohean zegoela, bere logela suntsitu zuten bonbek, baina bera onik irten zen. Bere aita "Brigadas Internacionales"etan zegoela hil zuten, Valentziako herri batean. Anaia, berriz, 18 urte zituela, Asturiasko frontean hil zuten Posadas de Llanesen.

#### **433. Aita eta anaiaren gorpua betiko galduta (SOR-070/004)**

Semea hil zutenean, aita Gijonen zegoen. Saiatu zen arren, ezin izan zuen semearen gorpua berreskuratu. Soraluzen "rojas, comunistas" deitzen zieten. Aitaren gorpua ere ezin izan zuten jaso.

#### **434. Durangoko bonbardaketa; Frantziara ihesi (SOR-070/006)**

Durangoko bonbardaketak zortzi egun iraun zuen. Hegazkinek, bonbak bota eta gero, herria metrailatzen zuten egunero. Filmetan ere ez omen du ikusi han ikusi zituen gauza izugarriak. Durangotik Bilbora itzuli zen, amarengana. Santurtzin itsasontzia hartu eta Frantziara joan ziren. Gerra-ontzi ingelesek babestu zituzten espainolengandik.

#### **435. Frantziatik Castelló de la Planara (SOR-070/007)**

La Rochelle portutik Clermond Ferrandera joan ziren trenez. Zazpi hilabetez han egon ostean, Castelló de la Planara joan ziren. Bertan "Palacio del Obispo"n ematen zieten jaten mojek.

#### **436. Lehengusua fusilatu egin zuten (SOR-070/008)**

Castellótik Bartzelonara joan ziren. Lehengusu bat fusilatu zioten anarkistekin zegoela. Gerra bukatu zenean, Frantzian zeuden berriro. II. Mundu Gerra hasi zen orduan.

#### **437. Bartzelonatik Bretainiara, eta handik etxera (SOR-070/009)**

Bartzelonatik Frantziako Bretainiara eraman zituzten. Frantsesak ondo portatu ziren Resurekin. II. Mundu Gerra hasita zegoela, Bretainiatik Espainiara etortzera behartu zituzten. Irunen txertoa jarri zieten.

#### **438. Donostian oztopo handiak, aita komunista zelako (SOR-070/010)**

Etixerik ez bazuten joateko, kartzelara joango zirela esan zieten Donostiako Gobernu Zibilean. Hernaniko senide batzuen etxera joan ziren. Aita hilda zegoen ordurako; baina, komunista izan zelako, Resuren familiaren atzetik ibili ziren militarrek.

#### **439. "LaTiendita" denda jarri zuen amak Soraluzen (SOR-070/011)**

Azkenean Soraluzera itzuli ziren eta amak denda txiki bat jarri zuen, liburuak eta gozokiak saltzeko. Erreketek nafarrak etorri eta etxea hustu zieten. Amaren dendari "La Tiendita" esaten zioten.

#### **440. Soraluzen lanean (SOR-070/012)**

Alberdiren "Fábrica de cuchillos" lantegian jardun zuten ahizpak eta biek. Gero kanoi lantegira pasatu ziren. Bertan egin zuen lan Resuk, ezkondu zen arte. Gerran dena galdutako bilbotar batekin ezkondu zen. Alaba bi izan zituzten.

#### **441. Jolasak eta bekatuak (SOR-070/014)**

Txirikiletan, paitxiana eta antzeko jolasetan aritzen ziren. Neskek eta mutilek aparte ikasten zuten. Mutilekin jolastea eta zinera joatea bekatuak omen ziren orduan. Zinema, irakurtzea eta bidaiatzea asko gustatzen zaio Resuri.

#### **442. Ezkongaietako kontuak (SOR-070/016)**

20 urterekin hasi zen senargaiarekin, eta lau urteko soldaduska tartean, 27rekin ezkondu. Herritik irteteko dirurik ez zuten izaten. Plazako dantzaldietara eta zinera joaten ziren. Herriko "Banda de San Ignacio"k eta txistulariek alaitzen zituzten dantzak.

#### **443. Lan egun luzeak "Fábrica de Cuchillos"en (SOR-070/017)**

Laneguna 12 ordukoa izaten zen "Fábrica de Cuchillos"en; ordu horietatik lau estrak. Ordu estrako pezeta bat ordaintzen zioten, egunean 8-10 pezeta irabazten zuela. Ahizpa gazteak gutxiago irabazten zuen. Kanoi lantegian gehiago irabazten zuen, lan ordu gutxiago eginda.

#### **444. Kanoi lantegiko bulegoan lanean (SOR-070/018)**

Kanoi lantegiko bulegoan makina batekin planoak kopiazen jardun zuen. Langile askok egiten zuten lan bertan. Duela urte gutxi eraman zuten lantegi hori Andoainera.

#### **445. Zaborrak erre kara botatzea debekatuta (SOR-070/019)**

Etxean argindarra, ura eta komunak beti ezagutu ditu, atzerrian ibili ziren leku guztietan ez bezala. Etxeko zaborra erre kara botatzea debekatuta zegoen arren, gauez zipriztin hotsak entzuten omen ziren errekan. Udaleko langilea zen Zabaletak batzen zuen herriko zaborra, orgatxo batekin. Udaleko lan asko egiten zituen Zabaletak, baina ez zen bera udaltzaina. Orduko udaltzaina 'Pist&ocute;n' ezizenez ezagutzen zuten. Resu Soraluzen bizi izan da ezkondu zenetik.

#### **446. Aitona baserritik lanera kalera (SOR-071/002)**

Aitona baserritarra zuen, baina kalera bizitzera etorri behar izan zuen. Gerrarako arma tailerra ipini zuen, eta etxea eraiki.

#### **447. Aita sendagilearen laguntzailea zen (SOR-071/004)**

Bere aita medikuaren laguntzailea zen eta beti ikasten jarduten zuen. Ama arduratzen zen etxeko lanez.

#### **448. Gizon eta emakumeek ardura desberdinak (SOR-071/005)**

Gizonezkoek ez zuten etxeko lanetan laguntzen. Garai hartan hasi ziren herriko gizon batzuk umeak kalera paseatzera ateratzen.

#### **449. Bulego-lanetarako ikasketak egin zituen (SOR-071/006)**

Aitak ikas zezan nahi zuen. Gerrak bere ikasketak moztu zituen. Batxilergoan berriz sartzerik ez zuenez, bulego-lanetarako ikasketak egin zituen. 17 urterekin hasi zen lanean.

#### **450. Umetan tratu ona jaso zuen etxean (SOR-071/008)**

Bere aitak umeak bigun hartu eta nagusiak zaindu egin behar zirela esaten zuela dio. Tratu ona jaso zuen etxean.

#### **451. Eskola sasoiak, onak (SOR-071/009)**

Eskolan tratu ona jaso zuen, ez zituzten zigortzen. Irakasle onak izan zituen.

#### **452. Eskolan euskaraz irakurtzen zuten tarteka (SOR-071/010)**

Erderaz ikasi behar izan zuen, baina euskaraz irakurtzen zuten batzuetan.

#### **453. Zuka, hika, eta erdaraz etxean (SOR-071/012)**

Euskarazko liburua irakurtzen zuten. Etxean euskaraz egiten zuten, hika ere bai, baina aitak erdaraz egiten zien.

#### **454. Etxea ondo hornitua zeukaten (SOR-071/013)**

Bere etxea deskribatzen du. Txapa (ekonomika) eta ura beti izan ditu. Bainera ere bai.

#### **455. Jatorduetako ohiturak (SOR-071/014)**

Bakoitzak bere lekua zuen mahaian. Txapak ur beroa izateko depositu bat zuen. Ospakizun berezietan jangelan bazkaltzen zuten.

#### **456. Ospakizun bereziak: urtebetetzeak eta Gabonak (SOR-071/015)**

Bakoitzaren urtebetetzea ospatzen zuten. Gabonak bereziki gogoratzen ditu.

#### **457. Gerra aurreko eta ondorengo etxebizitza ereduak (SOR-071/017)**

Herriko etxe gehienak hiru pisukoak izaten ziren. Tabernari eta dendariak etxeen jabeak izaten ziren eta alokatu egiten zituzten. Frankismoan, ordea, maizterren inguruko legea aldatu egin zen eta errentak izoztu egin zirenez, inork ez zuen etxerik alokatu nahi eta horrek ekarri zuen etxeak erosi beharra.

#### **458. Emakumeak lantegietan (SOR-071/019)**

17 urterekin lanean hasi zen bulegari. 7 orduko laneguna zuen. Gerra aurretik tailerretan emakume gutxik egiten zuen lan. Osintxura (Bergara) oinez joaten ziren emakumeak ehun fabrikara lanera, geltokia ipini zieten arte.

#### **459. Cristobal Colon soraluzetarra omen zen (SOR-071/020)**

Herrira etortzen zen kargudun gizon baten arabera, litekeena da Cristobal Colon soraluzetarra izan izana. Arrazoiak azaltzen ditu. Gizon hura galiziarra zela uste du, eta euskaraz ikasi zuen.

#### **460. Emakumeen soldata, gizonena baino baxuagoa (SOR-071/021)**

200 pezeta hilean kobratzen zituen eta gizonek gehixeago. Emakumeek gizonek baino gutxiago kobratzen zuten, 150 pezeta inguru. Bulegariak lan baldintza hobek izaten zituzten. Soldata amari ematen zioten.

#### **461. Irratia, bizikleta, motorra zituzten (SOR-071/022)**

Herriko lehenengo irratia bere etxean izan zuten. Bizikleta ere besteek baino lehenago izan zuen. Aitak motorra erosi zuen. Gauza garrantzitsuak aitak erabakitzen zituen. Amak egunerokoan agintzen zuen.

#### **462. Gurasoek paga handiagoa semeei (SOR-071/023)**

Mutilek paga gehiago jasotzen zuten. Garai hartan mutilek neskak gonbidatzen zituztelako zela dio. Berak hala ere protesta egiten zuen. Goiz eta arratsalde lan egiten zuten. Ez du gogoan noiz aldatu zen hori.

### **463. Maiatzaren 1a ospatzea ilegala zen (SOR-071/025)**

Sindikatuak ez baleude bezela zen. Maiatzaren 1a ilegalki ospatzen hasi ziren Eibarren, manifestazioa eginda. Guardia Zibilak atzetik izan zituzten. Gero "San Jose Obrero" izenez hasi zen jai izaten egun hori. 1934ko grebari buruzko kontuak kontaktzen ditu.

### **464. Soraluzeko lantegi baten sorrera (SOR-071/026)**

Herriko lantegi baten sorrera kontaktzen du. Jose Servent izeneko gizon batek ipini zuen dirua lantegia sortzeko.

### **465. Gerra aurreko eta frankismoko alkateak (SOR-071/027)**

Gerra aurrean azkenengo alkatea EAJkoa izan zen. Frankismo garaiko alkateak izendatzen ditu.

### **466. Herriko gaitzizenak (SOR-071/028)**

Baserriko edo lantegiko izenez izendatzen zen jendea. Bere aitona labea ipini zuenez "Francisco Labe" esaten zioten.

### **467. Etxean oso kristauak ziren (SOR-071/029)**

Etxean erlijiosoak ziren. Etxeko denak mezara joaten ziren. Arrosariorik ez zuten errezatzen etxean.

### **468. Eskolak eta gerra (SOR-072/002)**

Maltzagako eskolan hasi zen; eta, gerra aurretxoan, Soraluzeko maristetara joan zen. Gerra denboran, trenbideko tunelean babesten ziren bonbardaketak zeudenean.

### **469. Baserria frontearen erdian (SOR-072/003)**

Iturbezahar baserrian bizi zela, ohean zegoela, leihotik bala bat sartu zen. Baserria frontearen erdian egon zen. Militarrek etxetik bidali zituzten, eta Elgoibarko San Roke bailarako Agerre baserrira joan ziren ganadu eta guzti. Guda gogorra egon omen zen Soraluzen.

### **470. Eibartik txikitoak hartzera Soraluzera (SOR-072/004)**

Maltzagako eskolak erdaraz ziren, eta ez zuten dotrina irakasten. Eibartar asko txikitoak hartzera Soraluzera etortzen ziren. Baita soraluzetarrek Eibarrera joan ere. Eibartarrek "zapoportxiñekin"(zapaburuak) engainatzen zituzten tabernariak, ardoa doan lortzeko. Plaentxiarrek (soraluzetarrek) dirua nola gastatzen zuten azaltzen du.

### **471. Maltzaga auzoan eskola eta tren geltokia (SOR-072/005)**

Eibartarrekin batera, soraluzetar batzuek ere ikasten zuten Maltzagako eskolan. Eibartik trenez etortzen zen maistra. Bazkaltzera etxera joaten ziren. Tren geltokian mikelete bat bizi zen.

### **472. Errota, zerratokia eta dolarea etxean (SOR-072/006)**

Gerra denboran, baserritar asko bidali zituzten euren etxeetatik. Eibar eta Elgoibarren artean banandu ziren gehienak, ganadu eta guzti. Baserrietara

itzuli zirenean, etxeetako gauza asko lapurtuta zituztela ikusi zuten. Asensioen baserria errota ere bazen. Dolarea eta zerratokia ere bazuten etxean. Sagardoa 500 litroko bukoietan gordetzen zuten.

#### **473. Nekazaritzan botika gutxiago (SOR-072/007)**

Garai haietan fruta-arbolak eta barazkiak sanoagoak ziren. Ez zuten behar izaten gaur beste botika. Patatak ere ez zuen zomorrerik orduan. Ganaduen artean idi pareak zuten, etxeko lanetarako. Ehun anega gari hartzen zuten urtean.

#### **474. Gerraostean etxeko errota lanean (SOR-072/008)**

Gerraostean etxeko erroten ehotzen zuten irina. Guardia Zibilekin ondo konpontzen omen ziren. Etxerako argindarra sortzeko turbina ere bazuten etxean.

#### **475. Gerran hildako auzoko batzuk (SOR-072/009)**

Auzoko bi lagun hil egin ziren gerran, eta euren anaia ere zauritu egin zen. Hilerrian jarri omen zuten hildakoen zerrenda luzea.

#### **476. Gari-jotzeko makinak (SOR-072/010)**

Gari-jotzea makinaz egiten ezagutu du beti. Gasolinadun motorra zuen matxaka bat baserriz baserri ibiltzen zen. Garia ereiteari utzi zitzaionean, garia jotzeko makinak txatarrera bota zituzten.

#### **477. Artoa aletzen (SOR-072/012)**

Artoa aletzeko, artaburuak zakuetan sartu eta mazoarekin jotzen zituzten. Gero galbahetu eta errotara eramaten zen. Babarrunak aletzeko idaurrarekin ere aletzen zuten artoa.

#### **478. Harrian ehotako irina gozoagoa (SOR-072/013)**

Harrian ehotako arto-irina gaurko irinak baino gozoagoa eta gustu hobegokoa zela dio Asensioek. Ganaduaz aparte, ardi batzuk ere bazituzten baserrian.

#### **479. Soldadutza Pirinioetan (SOR-072/014)**

Soldadutza denbora Pirinioetan eman zuen, makiak zaintzen. Hotz handia pasatu omen zuen, mendiko txaboletan. Kanoi eta metrailadoreentzako hobiak eraikitzen ibili zen Asensio. Frantziatik sartuko ote ziren beldurra zegoen mugan.

#### **480. Laian lan asko egindakoa (SOR-072/015)**

Baserriko esnea Soraluzen banatzen zuten. Laian lan asko egindakoa dela dio; soro maldatsuetan lurra beheko aldetik gora jasotzen ere bai. Laiak goldeak baino hobeto lantzen omen zuen lurra. Lurra jasotzen idi pare biko sistema asmatu zuten.

#### **481. Mendian lanean; argindarra Maltzagatik (SOR-072/016)**

Lehengo eskulanak, orain makinek egiten dituzte. Trontzaz egurra botatzen jardundakoa da; baita pinuak sartzen ere. Maltzagatik argindarra ekarri zuten, 700 metroko linea botata. Etxeko zerrategian sutarako egurra prestatzen zuten saltzeko.

#### **482. Bizi guztia baserrian (SOR-072/018)**

Asensiok bizi guztia eman du baserrian. Zeleta baserrira ezkondu zen, bertako alaba bakarrarekin. Ganaduak bai, baina ardirik ez zuten Zeletan. Asensiok berak sartutako pinuak bentaja egin zutenean bota zituen. Berrero pinua sartu bertan, eta laster botatzeko gertu egongo direla dio.

#### **483. Basolanak eta abereak (SOR-072/019)**

Pinua sartzea erraza zen; gero basoa garbia mantentzea zen lan handia. Ganadu asko ez zebilen garai hartan mendian. Ardi batzuk bazebiltzan, baina protestagatik haietatik asko kendu egin ziren. Honen ondorioz, basoak zikintzen joan ziren. Otso edo basurderik ez zuen ezagutu Asensiok mutikotan, baina gogoan du aitak basurdeaz kontatutako istorioa.

#### **484. Auzolanean egiten ziren lanak (SOR-072/021)**

Garai batean, auzolanean lan asko egiten omen ziren; garoa ebaki, artoa zuritu, lurrak jaso eta laia lanak egin, besteak beste. Bidea garbitzen aritzen zirenean, Udalak ogia eta kuartilu bat ardo ematen zion langile bakoitzari. Zazpi hildako utzi zituen uholdea gogoratzen du. Berak ikusitako urak egindako kalteak azaltzen ditu.

#### **485. Errekak garbiak zeudenean (SOR-072/022)**

Gogoan du aingirak eta loinak ikusten zirela uretan errekak garbiak zeudenean. Soraluzeko "kukaña" gogoratzen du. Oraindik ere badira zakar poltsak leihotik errekarra botatzen dituztenak.

#### **486. Maltzagako erromeria (SOR-072/023)**

Maltzagako erromeria non egiten zen azaltzen du. Azkoititik etortzen omen ziren hango erromeriara. Taberna ere bazegoen bertan. Gerraostetxoko haizete handi bat gogoratzen du, trena itsasora bota zuena.

#### **487. Azkoitiraino neska-laguntzen (SOR-072/024)**

Guardia Zibilek ere egiten zuten dantza Maltzagako erromerian. Irukurutzeta mendiko borrokak, Eibar, Elgoibar eta Soraluzeko gazteen artean, gogorak izaten omen ziren. Azkoitiraino joaten ziren neska-laguntzen Soraluzetik.

#### **488. Soraluzen kanpoko langile asko (SOR-072/025)**

Osintxutik, Bergaratik eta Eibartik jende asko etortzen zen lanera Soraluzera, euretatik asko bizikletaz. Azkoitiarrak, astea Soraluzen lanean eman, eta larunbat goizean lan egin eta gero etxera joaten ziren, oinez, mendiz mendi. Herriko parrokoak egindako batzuk kontatzen ditu.

#### **489. Maristen eskolan (SOR-074/002)**

Zortzi urterekin maristetan hasi zen eskolan. Eskolan euskaraz mintzatzeagatik gogor zigortzen zituzten. "Primo de Rivera"ren garaia zen. Errepublika etorri zenean, zigorrok antzera jarraitu zuten.

#### **490. 13 urterekin lanera (SOR-074/003)**

Eskolan asko jolasten zuten pilotan eta futbolekin. Eskola utzi eta 13 urterekin Lete tailerrean hasi zen lanean, armentzako eta torlojugintzarako piezak eta erremintak egiten.

#### **491. Bizkaira gerratik ihesi (SOR-074/004)**

Armagintzako tailer asko zeuden Soraluzen. Benetako pistolak erabiltzen zituzten mutikotan jolaserako. Gerra aurreko urtean, kanoi-lantegira pasatu zen, tornulari-lanetara. Gerra hasi zenean, Bizkaiko Berangora egin zuen ihes familiarekin.

#### **492. Intxortan trintxerak egiten (SOR-074/005)**

Berangotik Elgetako Intxortara joaten ziren trintxerak egitera. Nazionalak Intxortan sartu zirenean, oinez joan ziren Durangora, hegazkin bonbaketarrietatik ihesi. Berangotik Santanderrera bidali zituzten.

#### **493. Berangotik Santanderrera (SOR-074/006)**

Gerra aurretik anaia bat eta arreba bat gaixorik hil ziren. Beste bi anaiak eta gurasoak Berangotik Santanderrera bidali zituzten. Santanderko Limpas eta Torrelavegako bonbardaketak gogoan ditu Hilariok. Aita Torrelavegatik Reinosako lantegi batera joaten zen lanera. Bertan preso hartu zuten.

#### **494. Hegazkin alemaniarrek zibilak hiltzen (SOR-074/007)**

Hilario eta bere senide batzuk Asturiasko Candasen harrapatu zituzten; eta ama, berriz, arrebarekin, Torrelavegan. Candasen alemaniarren hegazkinak ikusi zituen ihesi zihoan jendea hiltzen, tartean umeak zirela.

#### **495. Avilestik etxera bueltan (SOR-074/008)**

Candastik Avilesko kartzelara eraman zituzten. Euskaldun asko egon ziren bertan preso. Lau bat hilabetez egon ziren Avilesen. Han zeudela, preso asko fusilatu zituzten. Handik libratu zituztenean, Soraluzera itzuli ziren. Bertako eskoletan sartu zituzten preso. Lanik ezin aurkitu, eta Eibarko senide baten GAC lantegira joan zen lanera Hilario.

#### **496. Aita preso, salaketa faltsu batengatik (SOR-074/009)**

Aita EAJkoa zen. Soraluzetar batek jarritako salaketa faltsu batengatik aita Bergarako kartzelan egon zen urtebetez. Soraluzeko sindikalista bat fusilatu egin zuten.

#### **497. Eibarrera lanera (SOR-074/010)**

Hilario Soraluzen preso egon zen pare bat hilabetez. Zein eskolatan egon zen preso azaltzen du. Gerra bukatu baino lehen joan zen Eibarrera lanera. GAC lantegian bizikletak eta armagintzarako piezak egiten zituzten. Orduan, lantegi guztiak aritu ziren armagintzarako lanean.

#### **498. Soldaduskan armadarentzat lanean (SOR-074/011)**

1941eko La Quinta del Biber&osacut;nekoa izan zen Hilario. Eibar eta inguruko herrietako gazte asko, soldaduskan, armadak Deustun zuen "Automobilismo" saileko tailerretan egon zen. Soldaduska bukatu eta gero, II. Mundu Gerra zela eta, berriro mobilizatu zituzten 1941eko kintakoak.

#### **499. Guardia Zibilen irain eta belarrondokoak (SOR-074/013)**

Hilariori ez zitzaion egokitu gerrako frontean egotea. Soldaduska behin betiko bukatu eta gero, Soraluzen geratu zen, osabaren Madina tailerrean. Aita kartzelatik irten zenean, Sacia lantegian hasi zen lanean. Avilestik etorri eta gero, astean behin Guardia Zibilaren aurrean aurkeztu behar izaten zuten. Irainak eta belarrondokoak jasotzen zituzten kuartelean.

#### **500. Tailer berria jarri zuten Soraluzen (SOR-074/014)**

Gerraostean, hiru lagun artean, "Tornillería Iterga" (Iturbe, Ernabide y Galarraga) tailerra jarri zuten Soraluzen, torlojugintzan jarduteko. Espainiako etorkin asko etorri zen orduan Euskal Herrira lanera. Hogei urtez jardun zuen tailerrean lanean.

#### **501. Lanerako material kupoarekin zigortuta (SOR-074/015)**

Gerraostean Hilarioren tailerrak ez zuen kupoko letoirik erosteko eskubiderik, eta gehiago ordaindu behar izaten zuten torlojuak egiteko materiala lortzeko. Makinak erosi eta kopiatu egiten zituzten tailerrean lanerako. GAC eta BH bizikleta lantegia Hilarioren tailerraren bezeroak ziren. Sarasketa lantegia ere bezeroen artean zegoen. Ekoizpen gehiena Eibarren saltzen zuten.

#### **502. Txakur handi bat izaten zen igandeko paga (SOR-074/017)**

Gerra aurretik, berak eta aitak lanean ziharduten bitartean, amak etxean josten egiten zuen. Ura bazuten etxean, eta irrati txiki bat ere bai. Amak Hilario abadea izatea nahi zuen. Mutikotan, igandeko paga txakur handi bat izaten zen (pezeta baten 10 zentimo). Gerra bukatu eta urte batzuetara txikitoa txakur handi batean zegoen.

#### **503. Ogia ardotan bustita (SOR-074/018)**

Garai hartan gizonak tabernan ardoa berotu eta bertan bustitako ogia jaten zuten neguan. 13 urterekin lanean hasi zenean, tailerreko langile nagusiei begira ikasi zuen lanean. Larruzko uhalekin mugitzen ziren makinekin egiten zuten lan.

#### **504. Kanoiak Andoainen muntatzen ziren (SOR-074/019)**

Tailerreko sutegiko langileak sutegian erretako barraskiloak jaten zituen. Kanoi lantegian ikasi zuen tornuan lanean. Kanoientzako piezak Soraluzen egiten ziren, baina kanoiak muntatu Andoainen. Kanoientzako piezak banan-banan egiten omen ziren.

#### **505. Eibarko GACn lanean (SOR-074/020)**

Kanoien zuloa nola egiten zuten azaltzen du. Eibarko GACn egon zenean, bizikletak eta armagintzarako lanak egiten ziren. Eibarren taberna batean apopilo egon zen. Trenez egiten zituen joan-etorriak.

### **506. 18 urtera arte ez taberna eta ez erromeria (SOR-074/021)**

18 urtera arte ez zen tabernetan sartu. Aisialdi denbora pilotan eta futbolean pasatzen zuen. Azkoitira sarritan joaten zen aitarekin, mendiz. 18 urte bete eta gero, Bergarako, Osintxuko eta Maltzagako erromerietara joaten hasi ziren.

### **507. Piston aguazila (SOR-074/022)**

Lagunak kalera irteten zirenean, iluntzeko 20:30etan Piston aguazilak txilibitua jo eta etxera bidaltzen zituen. Bergaran dantza ostean neskak etxera lagundu, autobusez Osintxuraino joan eta handik Soraluzerainoko bidea oinez egiten zuten.

### **508. Gidabaimena 18 urterekin (SOR-074/023)**

Loiolan ezkondu zen, senide asko zuelako bertan. 18 urterekin Eibarren atera zuen motoa eta autoa gidatzeko baimena. Seat 600a izan zen bere lehenengo autoa.

### **509. Perretxikotarako zaletasuna (SOR-074/025)**

Gaztetan etxean amak jartzen zituen jatorduak gogoratzen ditu. Intxaur asko batzen zuten orduan. Aitak perretxiko zaletasuna pasatu zion Hilariori.

### **510. Perretxikoak kalean (SOR-074/026)**

Haizea zebilenean, onddoak erortzen ziren ertzeko basotik kalera. Perretxiko asko batutakoa da Hilario lurralde ezberdinetan.

### **511. Gaztainak eta beste fruta batzuk (SOR-074/027)**

Gaztainondoak nonahi zeuden garai batean. Kalera erortzen ziren gaztainok. Etxean jateko batzen zituzten. Sagarrak eta udareak plazan erosten zituzten. Ama jostun ona omen zen; etxetik kanporako ere josten zuen.

### **512. Soraluzeko industriaren gainbehera (SOR-074/030)**

Kanoi lantegia Andoainera joan zen. Beste tailer batzuk Gasteizera edota Eibarrera ere joan ziren. Soraluzen terreno gutxi zegoen lantegiak eraikitzeko, eta armagintza asko gutxitu zen. Etxeetako sotoetan egon ziren tailer asko.

### **513. Zarautzen 14 urtera arte bizitakoa (SOR-077/003)**

Justino 14 urte zituela itzuli zen Zarautzik Soraluzera gurasoengana bizitzera; izan ere, aitona hil zenean, amona Zarauzko miseriakordiarra joan zen. Zarauzko parrokiari eliz mutil izan zen. Berekin batera ibili zen jendea aipatzen du.

### **514. Bonbilla-fabrikari lanean hasi zenekoa (SOR-077/005)**

Tailerrean soldata jasotzen zuen makinak zaintzen ibiltzeagatik. Geroago, lanean ikasten jarri zuten makina batean. Fabrika hartan bonbillen barruko filamentuak egiten zituzten. Lan ugari egiten zituen Justinok.

### **515. Zarauzko eskolan gaztelaniaz ikasia (SOR-077/007)**

Zarauzko herriko eskolan ibili zen. Eskolan gaztelaniaz ikasten zuten. Egunero etxean arrosarioa errezatzen zuten, baina euskaraz.

### **516. Zarautzen aitona-amonekin bizitzen (SOR-077/008)**

Amaren familia Zarauzkoa zen, baserrikoa; baina bera aitona-amonekin bizi zen Zarautzen kaleko etxean. Aitona hil eta amona ezinduta gelditu zenean, Soralezera itzuli zen Justino.

### **517. Umetako jolasak eta apustuak Zarautzen (SOR-077/010)**

Zarautzen zegoela, hondartzara joan ohi zen. Pilotan eta futbolean ibiltzen ziren; Berdura Plazan ere jolasean aritzen ziren. Behin korrika-apustua egin zuen Zarautzen eta irabazi egin zuen.

### **518. Zarautzen aberatsei golfean laguntzen (SOR-077/013)**

Narrosko markesaren poltsa eramaten zuen Justinok, hark golfean jokatzeko ematen zuten bitartean. Aberatsak golfean aritzen ziren eta haiei laguntzeagatik dirua ematen zieten herriko mutilei. Zarautzen errekaduak egiten aritzen zen Justino.

### **519. Soralezera lantegian izandako gorabeherak (SOR-077/014)**

14 urterekin Zarautzik Soralezera itzuli zen. Amutxastegin hasi zen orduan lanean. Hortik beste tailer batera joan zen lanera. Behin soldata-igoera eskatzeko izandako gorabeherak kontatzen ditu; aldi harengatik begitan hartu zuten nagusiek.

### **520. Gerra hasitakoan, Bilbora ihesi (SOR-077/016)**

Gerra hasi zenean, ihes egin zuen familiarekin Soralezetik Bilbora. Deustun aritu ziren lanean anaia eta bera. Langileei jaten ematen zieten jatetxe batean. Azkenean, boluntario joan zen gerrara.

### **521. Gernikako frontean bizitakoak (SOR-077/021)**

Gernikan frontea mendian zegoen eta han gertatutako borrokaren nondik norakoak azaltzen ditu. Lagun bat hil zuten borrokan eta Justino zauritu.

### **522. Bilbora zaurituta eraman, eta han berriro frontera (SOR-077/022)**

Gernikatik Bilbora eraman zituzten, zaurituta baitzeuden Justino eta bere kide batzuk. Bizirik atera zen handik. Bilboko borrokan ere ibili zen eta han bizitakoak kontatzen ditu.

### **523. Basurtoko ospitale inguruko operazio militarra (SOR-077/023)**

Bilbon borrokan zegoeneko operazio militar bat kontatzen du. Handik Santanderrera joan ziren.

### **524. Santanderrera joan eta han inguratuta gelditu (SOR-077/024)**

Santanderrera bidean menditik joan ziren, eta azkenean iritsi ziren. Santanderren blokeatuta gelditu ziren, eta batzuk ihes egiten saiatu ziren itsasoan, nahiz eta Francoren itsasontziak han egon.

### **525. Preso Santanderko futbol-zelaian (SOR-077/025)**

Santanderren inguratu egin zituzten Italiako soldaduek eta preso hartu zituzten. Futbol-zelaira eraman zituzten, eta hiru egun eduki zituzten jan gabe.

### **526. Santanderren presondegitik ihes egin zutenekoa (SOR-077/026)**

Santanderren preso zeudela, Justinok ihes egin zuen eta geroago beste batek ere bai; elkarrekin Santander herrira joan ziren. Dirua bazuten, baina ez zuen baliorik. Janaria erostea lortu zuten, eta kontuz ibiltzeko esan zien saltzaileak.

### **527. Santanderren lagun bat nazionalen bandotik babesa ematen (SOR-077/027)**

Santanderren zeudela, iheslari ziren, eta Justinoren adiskideak lagun bat agurtu zuen etsaien desfile batean. Desfilea bukatutakoan, lagun hura inguratu egin zitzairen eta ihes eginak zirela azaldu zioten. Lagun hark lagundu eta babestu egin zituen.

### **528. Nazionalek lagundu eta gerrara beraiekin joateko eskaini (SOR-077/028)**

Laguntza eman zieten nazionalek Santandertik beste toki batera joan behar izan zuten, eta beraiekin joateko eskaini zioten; Justino ez zen joan, bere laguna bai. Handik Justino kartzelara joan zen bere kabuz. Kartzela hartan kamerekin grabatu egin zituzten.

### **529. Santandertik Santoñako kartzelako baldintza kaxkarretara (SOR-077/029)**

Santanderko kartzelatik, Santoñako kartzelara eraman zituzten, Bilbora zihoazela esan zieten arren. Han edaten zuten urarengatik gaixotu egin ziren presoak.

### **530. Kartzelan Soraluzeko emakume bat ikusi zuenekoa (SOR-077/030)**

Beti egoten ziren ezagun bat noiz ikusiko zain, haren bidez kartzela hartan zeudela jakinarazteko etxekoei: egun batean, Soraluzeko emakume bat ikusi zuen Justinok eta hark dirua eman zion ezkutuan. Denbora dezente eman zuten Santoñako kartzelan. Ez zieten tratu ona ematen kartzelako zaindariak.

### **531. Fusilatu egingo zituzten beldurra zuten, baina libre utzi zituzten (SOR-077/031)**

Kartzelan batzuk fusilatu egin zituzten. Justino eta beste lagun batzuk ere deitu zituzten, eta fusilatu egingo zituztela pentsatzen bazuten ere, aske utzi zituzten.

### **532. Kartzelatik irten eta etxerako bidea (SOR-077/032)**

Kartzelatik irten zirenean, dirua zuen bakarra Justino zen, eta diru harekin ez zen denentzako janaria erosteko adina iristen. Ogia eta mahatsa erosi zituzten. Tren-geltokira joan ziren handik, eta Maltzagarako bidea hartu zuen. Etxera itzuli zenean, hiltzat zutela jakin zuen.

### **533. Eskolari buruzko zertzeladak (SOR-079/002)**

Eskola nazionalen eta maristetan ibili zen 5-14 urte bitartean. Eskolak gaztelaniaz izaten ziren, baina euskaraz egiteagatik ez zituzten zigortzen. Neskek eta mutilek bereizita ikasten zuten eskolan.

### **534. Zinea eta Eibarrako joan-etorria pezeta batekin (SOR-079/004)**

Igandetan Gaiarre zinera joaten zen: "Titanes del aire" ikustera, adibidez. Lehen pezeta batekin Eibarra joan-etorria egin eta zinera joateko adina izaten zuen. Eibarra trenez joaten ziren.

### **535. 14 urterekin lanean; eta, gerra hasitakoan, Durangora ihesi (SOR-079/006)**

14 urterekin, eskola bukatu eta lanean hasi zen Soraluzeko Inozentzio Marinaren lantegian, torlojuak egiten. Gerora, espoletak egiten zituzten. Gerra garaian, erreketek Soraluzera sartu ziren eta Durangora egin zuen alde.

### **536. Durangoko bonbardaketan egondakoa (SOR-079/008)**

Durangoko bonbardaketa izan zenean, han zegoen Jose. Nazionalen hegazkinak botatako bonbak 17 miliziano hil zituen; horren ondoren, CNTkoek 22 lagun fusilatu zituzten. Bonbardaketa gogorra izan zen; eta, bukatu artean, babeslekuan gordeta egon ziren. Eliza bonbardatu egin zuten, eta barruan zeuden hiru ahizpa karlista hil zituzten.

### **537. Etxeratze-agindua bederatzietan (SOR-079/010)**

Durangon, amonaren etxean egon ziren. Hara trenez joan ziren. Soraluzera itzuli zirenean, etxeratze-agindua zegoen gaueko bederatzietan. Behin zinera joan zirenean gertatutakoa kontatzen du.

### **538. Aitak jasotako zigorrak gorria izateagatik (SOR-079/014)**

Aita tornularia zen eta Soraluzeko kartzelan egon zen gorria izateagatik. Lanean bigarren kategoriara jaitsi zuten arrazoi horrengatik.

### **539. Gorrien alde egondakoek jasotako zigorrak (SOR-079/016)**

Gerra garaian gorrien alde egondako emakumeak zigortu egin zituzten: ilea moztu eta beherakoa eragiteko olioia edanarazten zieten. Joseren amari ez zioten horrelakorik egin. Soraluzetik alde egindako familien etxeetan arpilatzeak (sakeoak) egon ziren, baina beren etxean ez, arreba zaharrena bertan geratu baitzen.

### **540. Jatekoa lortzeko, estraperlotik erosi behar (SOR-079/017)**

Umetan bazuten komuna eta argindarra etxean. Jatekoa estraperloan erosten zuten gerra ostean, errazionamenduarekin ematen zieten ez baitzen nahikoa.

### **541. Arbitratutako lehen partiduak (SOR-079/022)**

Arbitro izateko titulua atera ostean, horretan lanean hasi zen berehala. Horrez gain, kanoi-fabrikan ere egiten zuen lan. Gerora, Eibarra joan zen lanera.

#### **542. Arbitroaren lana: ez beti xamurra (SOR-079/025)**

Bizi guztian izan da arbitro. Marrazain gisa hasi zen, eta gerora arbitro izan zen. Lan hura gogorra zen: behin guardia zibilek eskoltatu egin behar izan zuten partidu baten ostean. Ondarroan arbitratu zuen batean, jokalaria batek ostikada bat jo zion.

#### **543. 47 urtera arte arbitro (SOR-079/026)**

Zelairik okerrenea Eibarkoa zen, zoru txarra zeukan eta; Oñatikoa, ordea, ona zen. Futboleko arbitro izan da bakarrik, eta 47 urtera arte ibili zen lan horretan.

#### **544. Arbitro izateko gogoia umetatik (SOR-079/030)**

Arbitro zela, Gipuzkoan guztian egiten zuen lan Donostialdean ezik. Urtean partidu asko arbitratzen zituen. Eskolan zegoela, partiduetan bera izaten zen arbitro.

#### **545. Albiste bat idazteagatik izandako komeriak (SOR-079/034)**

El Diario Vasco egunkariko korrespontsala izan zen, eta kronikak beti gaztelaniaz idazten zituen. Berak idatzitako albiste batengatik bota nahi izan zuten batzuek, baina azkenean lana mantendu zuen.

#### **546. Soralezeko estropadak (SOR-079/036)**

Soraluzeko estropadak gogoan ditu. Trainerillak izaten ziren eta San Luis egunean ospatzen zen estropada. Trainerillak zubi azpitik igarotzean, arraunak gora igo behar izaten zituzten, alboetan ez baitziren kabitzen.

#### **547. Erromerietako "kulapiak" eta neska-laguntzak (SOR-079/042)**

Erromerietara joaten ziren: plazan izaten zen musika, mutilek neskei dantza egiteko eskatzen zieten, eta kulapia (kalabaza) ematen zuten batzuetan neskek. Neska-laguntzak izaten ziren orduan ere.

#### **548. 1954ko uholdeak izan zirenean egondako kalteak (SOR-079/045)**

1954ko uholdeak izan zirenean, tailer asko zegoen Soraluzean, eta kalte handiak egon ziren. Lehen etxe bakoitzean tailer bat zegoen.

#### **549. Trena errailetik irten zenekoa (SOR-079/047)**

Trena errailetik irten zenekoa kontatzen du. Josek berehala eman zuen egunkarian albistearen berri. Trena azkarregi zihoalako irten zen errailetik, baina ez zen hildakorik egon.

#### **550. Soralezeko kronika beltza (SOR-079/049)**

Behin, Soralezeko 12 urteko neska gazte bat hil zuten mendian. 3 egun pasa arte ez zuten aurkitu neska gaztea.

### **551. Umetako janaria: zer eta nondik lortu (SOR-079/051)**

Gaztetako otorduak nolakoak izaten ziren azaltzen du: babak, arrautzak, okela, arraina... Arrain-saltzaileak kanpotik etortzen ziren gurdiarekin. Soraluzen bi harategi zeuden lehen.

### **552. Ikasketak Soraluzen hasi eta Eibarren bukatu (SOR-080/002)**

Eskolan maristetan ibili zen. 7 urterekin hasi zen ikasten. 10-13 urte bitartean, bi delineatzailek marrazketa lineala erakusten zuten eskolatik kanpo eta Joxe Marik haiekin ikasi zuen. 13 urte zituela, armagintza-eskolara joan zen ikastera eta 3 urte eman zituen han.

### **553. Marrazketa linealeko irakasleak (SOR-080/005)**

Marrazketa lineala Oregi eta Artolazabalek erakutsi zioten. Biak ziren fabrikako delineatzaileak.

### **554. Errege etxea: denetarako etxea (SOR-080/009)**

Errege Etxea oso handia zen: barruan zeuden berdura plaza, eskola nazionalak, udaletxeko bulego batzuk, zalditegia, torloju-denda, hiru etxebizitza, postetxea... 60ko hamarkadan bota zuten etxe hura.

### **555. Berdura plazako merkataritza eta arrain-saltzaileak (SOR-080/011)**

Berdura plaza Errege Etxearen barruan zegoen. Baserritarrak egunero etortzen ziren hara. Lehen arraina gurdietan saltzen zuten, ez lokaletan. Ondarroatik etortzen ziren arraina saltzera.

### **556. Gerran bonbak Soraluzen (SOR-080/013)**

Kartzela Errege Etxearen barruan zegoen: gerra garaian, herritar ugari egon ziren preso bertan. Gerrako oroitzapen gutxi ditu: behin hegazkinak bonba bota zuen herrira eta erreketea hil zuen. Kanoi-fabrika bonbardatzen saiatu ziren tropak, baina ez zuten lortu. Gerra garaian, Joxe Mariren familia osoa joaten zen Untzetara babestera.

### **557. Burdindegiko produktuak aldatzen (SOR-080/015)**

Burdindegia ren martxa aurretik zetorren, eta amak hartu zuen hango ardura. Hasiera batean, baserriko eta sukaldeko tresnak saltzen zituzten; gerora, amak aldatu egin zuen negozioa, eta tailerretako erremintak saltzen hasi ziren.

### **558. Torloju-dendetarako denetariko materiala (SOR-080/016)**

Torloju-dendetara saltzen zituzten tresnak. Era askotako hariak eduki behar izaten zituzten.

### **559. Torloju-dendak hornitzen (SOR-080/017)**

Torloju-dendak hornitzeko, inguruan zeuden tailerrak aipatzen ditu. Revolverren eta automatikoen arteko diferentzia.

### **560. Soraluzen jende fina (SOR-080/019)**

Burdindegian baserriko tresnak saltzen zirenean, ordainketak nola izaten ziren azaltzen du: batzuetan momentuan, bestetan zorretan utzita beste batean ordaintzeko. Soraluzen oso jende fina egon izan da.

### **561. Dendan etxetresna elektrikoak saltzen hasi zirenekoa (SOR-080/020)**

Fagorren etxetresna elektrikoak saldu izan ditu dendan. Petrolioizko estufak atera zituen lehenengo Fagorrek; geroago, sukaldeko etxetresna elektrikoak etorri ziren. Petrolioizko estufa haiek tailerretan eta etxeetan erabiltzen ziren. Hozkailuak hasieran dirudunek bakarrik eros zitzaizketen.

### **562. Lehenengo garbigailuak eta haien funtzionamendua (SOR-080/021)**

Garbigailuak hasiera batean nolakoak izaten ziren eta zer instalazio behar izaten zuten azaltzen du.

### **563. Garbigailuen zentrifugazioa lehen (SOR-080/022)**

Garbigailuen zentrifugazioa lehen nola egiten zen azaltzen du. Garbigailuek 100 kiloko pisua zuten.

### **564. Herrian tuberkulosia eta medikua non? (SOR-080/024)**

Gosetea zegoenez, tuberkulosia asko zabaldu zen herrian. Gaixoak etxean zaintzen zituzten. Herriko medikua Artadi izan zen, baina gerra garaian borrokara eraman zuten.

### **565. Herrian mediku onak izan zituzten (SOR-080/026)**

Medikua etxerik etxe ibiltzen zen. Bi mediku on egon ziren herrian, beti laguntzeko prest. Gerra garaian tuberkulosia egon zen, baina botikarik ez; jende asko hil zen horrela.

### **566. Gosetearen urte gogorrak (SOR-080/027)**

1941-1951 bitartean urte txarrak izan ziren gosearengatik. Armagintza- eskolan zerbait jaten ematen zieten, baina etxera iristerako gose handia izaten zuten.

### **567. Barkileroa herrira zetorreanean (SOR-080/032)**

Umetan barkileroa etortzen zen herrira. Barkiloak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

### **568. Zinera dohainik iragarkiak dendako erakusleihoan jartzeagatik (SOR-080/033)**

Zinera joaten zen gaztetan: sarrera ez zuen ordaindu behar izaten, zineko iragarkiak beren dendan jartzen baitzituzten.

### **569. Zineko giro alaia eta erronboak (SOR-080/035)**

NODOa umetatik ezagutu izan du. Zineko makinista pelikula jartzera zihoala, ume guztiak txaloka jartzen ziren poz-pozik. Pelikula sailkatzeko erronboak erabiltzen ziren. "Debekatutako" pelikula bat ikusteagatik zigortu egin zuten Joxe Mari.

### **570. Elgoibartik Donostiara eta handik Soraluzera (SOR-082/002)**

Elgoibarren jaio eta eskolatu zen, mojekin hasi eta gerra etorri zen arte. Gerraostean aita Donostiara joan zen lanera, eta familia berarekin eraman zuen. Urbieta kaleko eskolan ibili zen orduan Isidora. Donostiatik Soraluzera etorri ziren. Aita Sacia lantegian hasi zen lanean. Soraluzeko Mesedetako mojekin ere ikasi zuen Isidorak.

### **571. Hamasei urterekin lanera (SOR-082/003)**

Hamasei urte zituela, aita hil zitzaion eta bera lanean hasi zen Sacia lantegian. Soraluzeko osaba bat "Batallón de Trabajadores"-en zigortuta zegoen.

### **572. Eskola garaiko maisuak, jolasak eta hizkuntza (SOR-082/004)**

Amak ez zekien erdaraz. Elgoibarko eskola erdaraz zen. "Don Celestino" Onaindiak (gerran fusilatu egin zutenak) dotrina irakatsi zion. Eskola denborako jolasak azaltzen ditu.

### **573. Gerratik ihesi (SOR-082/005)**

Elgoibarren erreketekak nola sartu ziren gogoratzen du. Handik Azkoitiko Madariaga auzora leihorik gabeko autobusean joan ziren, zoruan etzanda. Azkoititik aita Donostiara joan zen, eta laster familia ere bertara joan zen.

### **574. Euskara debekatuta (SOR-082/006)**

Donostian eskola nazionalean ikasi zuen. Euskaraz mintzatzea debekatu egin zioten. Euskaraz egiteagatik, amak Donostian jasandako irainak azaltzen ditu. Donostian jendea edozein etxetatik atera eta fusilatzen omen zuten.

### **575. Errazionamendu garaiko elikadura (SOR-082/007)**

Soraluzen "salbokonduktoa" atera behar zen herritik irteteko. Donostian "cédula" esaten zioten agiri horri. Errazionamendu garaian jaten zituzten zikinkeriak gogoratzen ditu. Soraluzen zeudela, mendiz bidaltzen zizkieten baserriko jakiak Azkoitiko Madariaga auzoko amaren jaiotetxetik.

### **576. Soraluzen errazionamenduko estutasunen garaiak (SOR-082/008)**

Donostiatik irten eta gero ezagutu zituen errazionamenduko estutasunak. Soraluzeko senideak Errege Etxean bizi izan ziren, harik eta hura kanoikadaz hondatu zuten arte. Gero Errekalde kalera joan ziren. Gripe batek eraman zuen aitaren bizia.

### **577. Gaztetan lanera. Errege Etxea (SOR-082/009)**

Aita hil zenean, Isidora hasi zen lanean Sacia torlojugintza lantegian. Sacia non zegoen azaltzen du. Errege Etxea botatzeak pena handia eman zion.

### **578. Gorriak gerraostean (SOR-082/012)**

Gerran gorrien bandoan ibilitakoak gerraostean oso baztertuak izan ziren Soraluzen.

### **579. Lantegi ezberdinetan lanean (SOR-082/013)**

Aita hil zenean, Isidora eta ahizpa gaztea Sacia lantegian hasi ziren lanean. Bertako arduradun negargarri bategatik Kanoi lantegira joan zen Isidora, tornu biragarri batekin bonbentzako espoletak egitera. Bai Sacia-n eta bai Kanoi lantegian, destajuan egiten zuen lan.

### **580. Inguruko jaiak eta erromeriak (SOR-082/014)**

Sacia-n egiten zuen lan Isidoraren senarra izango zenak ere. Zinera eta plazako dantzara joaten ziren. Inguruko herriko jaietara ere joaten ziren. Eibarren ez zegoen futbol zelairik. Elgoibarren, ordea, bai, eta bertara joaten ziren eibartarrak. Ez omen ziren ondo konpontzen bertakoekin. Soraluzetarrak Elgoibarrera asko joaten ziren.

### **581. Osintxuko erromeria (SOR-082/015)**

Osintxuko erromeriara ere joaten ziren Soraluzetik. Osintxuko jaietan Soraluzen ere jai izaten zen.

### **582. Emakume tornulariak; ezkontza (SOR-082/017)**

Kanoi lantegian emakume tornulari asko zeuden. Ezkondu zen egunean, ezkondu eta berehala joan ziren eztei bidaiara. Bidaiatik bueltan ospatu zuten ezkon-bazkaria.

### **583. Abadea preso (SOR-082/019)**

"Don Celestino" Onaindia, Elgoibarko abadea, atxilotu eta Donostiara nola eraman zuten azaltzen du. Ondarretako kartzelara jatekoak nork eramaten zizkion eta noiz desagertu zen ere azaltzen du.

### **584. Gerra denboran Donostian (SOR-082/021)**

Gerra denboran, Donostian bizi zenean, "Buen Pastor"era joaten zen frantsesa ikastera. Militarren intendentzia bera bizi zen kalean zegoen. Donostiako ospitaleko egitura besterik ez zen ageri orduan. Karmeliten elizara ere joaten ziren, zinea ikusi eta txokolatea hartzera.

### **585. Salbokonduktorik ezin lortu (SOR-082/023)**

Gerraostean senarrak Brinkolara joateko behar zuen "salbokonduktoa" ezin izan zuen lortu, eta gauez trenbidetik oinez joan zen.

### **586. Gerraostean herrian baztertuta (SOR-082/024)**

Gerraostean bere senarrak jasan behar izan zuen egoera latza azaltzen du. Bilbon babestuta egon zenean, mutikoa zela, soldaduei zigarroak eraman eta trukean etxerako jatekoa lortzen zuen.

### **587. 4 klasetako perretxikoak biltzen (SOR-084/002)**

4 klasetako perretxikoak bildu izan dituzte aitak eta berak, jakin-jakinekoak bakarrik. Aita batetik bestera ibiltzen zen ziza bila joateko.

### **588. Ehizan desengainua hartu, eta ziza bila familiarekin (SOR-084/003)**

Ehizara joatea gustuko zuen Felixek, baina desengainua eraman zuen eta utzi egin zuen. Orduan, mendirik mendi hasi zen ibiltzen familiarekin ziza bila.

### **589. Zizak oparitu ala saldu? (SOR-084/004)**

Zizak etxerako biltzen zituzten, baina baita oparitzeko ere. Behin saltzeko aholkatu zioten eta ordutik hala egiten du.

### **590. Perretxiko txikiak zaindu behar (SOR-084/006)**

Zizak biltzerakoan, neurria zaindu behar da, ez pisua. Txikiak hartuz gero, ez dira gehiago hazten.

### **591. Sagastiak kimatzen nola ikasi zuen (SOR-084/008)**

Behin egur batzuk zeuzkan eta haiek erretzeko asmoa zeukan; lankide batek ortura eramatea eskaini zion, egur ona omen zen eta. Ortuko gizon hark, eskerrak emateko, sagarrak kimatzen erakutsi zion.

### **592. Ondo inauteko jakin beharrekoak (SOR-084/011)**

Sagarrak inauteko, jakintsuek ez diote begiratzen ilargiari. Ilargia garrantzitsua da, baina, baratzeke zenbait gaitan: tipulatan, adibidez. Inausketa motei buruz hitz egiten du. Denborarekin, zuhaitzen portaerari buruzko usteak aldatu egin dira.

### **593. Abereak edukitzeak dakarren lana eta mesedea (SOR-084/014)**

Gaur egun, baratzea gustatzen zaio, baina abereak edukitzea ez, lan handia eskatzen dutelako. Lehen, ordea, gerra garaian, abereei esker atera ziren aurrera, arrautzak baitziren elikaduraren oinarria.

### **594. Anaia Afrikara soldadutzan gaixotu (SOR-084/015)**

Anaia Afrikara joan zen kanoi-fabrikari lanean zebilen garaian. Han zegoela, larri gaixotu zen, gurasoek aurrezki guztiak hura sendatzeko gastatu zituzten, eta lau urteren ostean hil egin zen.

### **595. Lanean hasi zirenekoa (SOR-085/006)**

Luzio eta Mateo garai berean hasi ziren lanean. Luzio morroi ibilia zen eta 12 urterekin lanean hasi zen. Mateok doitzaille-lanbidea ikasi zuen lehenengo "Construcciones Sacian". Iltze-fabrikari Luzioren eginkizunak zein ziren azaltzen du; 24 urtera arte ibili zen han lanean.

### **596. Luziok makina bat egin zuen 18 urte zituenerako (SOR-085/007)**

Mateo Sacian aritu zen lanean soldadutza pasa arte. Luziok beti izan du jakin-mina, eta 18 urte zituenerako, makina bat egin zuen berak bakarrik. 18 urterako bere tailerra jarri nahi zuen, baina aitak ez zion uzten.

### **597. Luzioren lehenengo makina (SOR-085/009)**

Azkoinak (tuerkak) automatikoki egiteko makina sortu zuen Luziok. Makina hura oparitu egin zuen.

### **598. Tailerraren hasiera (SOR-085/011)**

Aita hil zenean, iluntzeetan makina berriak egiten hasi zen Luzio eta beste tailerretako lagunek hartarako tresnak uzten zizkioten. Etxepean jarri zen lanean. Argindarrarekin murrizketak izaten zituzten herrian. Ordu asko sartzen zituen lanean, eta makinari esker diru dezente irabazten zuen.

### **599. Anaia bakoitzak zaletasun bat (SOR-085/013)**

Tailerraren hasiera Barrena baserrian izan zen. Luziok makinekin egiten zuen lan, Mateok baserrian.

### **600. Kaleko gizona eta baserriko gizona (SOR-085/014)**

Garia ebakitzeko, igitaia erabiltzen zuten, baina garia jotzeko, makina. Mateok baserrian egin izan du lan beti; Luziok, ordea, kalean, eta kaleko bizimodua eraman izan du horregatik.

### **601. Tailerrean hasi eta 1958an krisia etorri (SOR-085/019)**

Aita hil zenean, Luziok makina egin eta harekin lanean hasi zen. Gerora, makina gehiago egin zituen. 1958an krisia etorri zen. Irabazirik ez zuen ateratzen, eta ordurako 6 langile zituen.

### **602. 1958ko krisitik ateratzeko, ideia berrien bila Bartzelonara (SOR-085/020)**

1958an krisia etorri zen eta 6 langile zituen; denak etxera joan ziren, eta bi anaiak gelditu ziren. Bartzelonako erakustazokara joan zen orduan Luzio, eta hango makinak ikusita ideiak hartu zituen makina berriak egiteko. Makina berri bat sortu zuen orduan, eta hari esker aurrera atera zen tailerra.

### **603. Tailerreko aurrerapenak (SOR-085/021)**

Hasieran barratik egiten zituzten torlojuak banan bana. Gerora, torlojuak egiteko makina komertziala erosi zuen. Makina berri bat diseinatu zuen eta Unamunorekin tratua egin zuen hark saltzeko egin zitzaizkion.

### **604. Luziok makinak diseinatu (SOR-085/023)**

Makina Luziok diseinatu zuen, eta Unamunok egin egin zuen saltzeko; gerora, makina aleman batengatik ordezkatu zuen. Luzio torlojuak egitera dedikatu zen orduan.

### **605. Beraiek armagintzan inoiz aritu ez (SOR-085/026)**

Beraiek ez dira inoiz aritu izan armagintzan. Pistolen burdinazko kulatak non egiten ziren azaltzen dute.

### **606. Iltzeen merkatua denborarekin aldatzen (SOR-085/029)**

Iltzeak egiten zituzten hasieran. Gerora, uralita hasi zen erabiltzen, eta hartarako iltzeak egiten hasi ziren.

### **607. Torlojuak nola egin pausoz pauso (SOR-085/030)**

Torlojuak nola egiten diren eta makinek nola funtzionatzen duten azaltzen dute.

### **608. Osintxuko erromeria eta Soraluzeko musika-banda (SOR-085/034)**

Osintxuko erromeria ona izaten zen. Soraluzeko plazan igandero jotzen zuen plazan bandak. Luziok bandan jotzen zuenean, astean bitan entseatzen zuten.

### **609. Jurramendira joan zirenean pasatako gosea (SOR-085/035)**

Behin, karlistek Jurramendira gonbidatu zuten banda; baina harako bazkaria autobusean ahaztu zuten. Egun hartan, bero handia egiten zuen, denak gose eta egarri ziren; handik Lizarrara joan ziren; eta, han bazkaria zeukatelakoan, iritsi eta bazkaltzeko lekurik ez zegoela konturatu ziren. Azkenean, jan zuten zerbait.

### **610. Gerraostean gosea etxean; janaria soberan soldadutzan (SOR-085/036)**

Gerraostean gose handia pasa zuten. Errazionamenduan jasotzen zuten ogia. Mateo soldadutzara joan zenean, bere kartila entregatzera behartu zuten, etxekoek erabil ez zezaten. Soldadutzan janaria soberan zegoen, eta Mateo 14 kilo gizendu zen.

### **611. Etxeko artoa ehotzeko egin beharrekoak (SOR-085/037)**

Etxean estutasunak pasatzen zituzten janaria lortzeko. Soroan artoa egiten zuten, eta hura ehotzeko gauez ezkutuan joaten ziren errotara. Estraperloa ere gauez egiten zen.

### **612. Tailerrean lanean, baina ezkutuan (SOR-086/002)**

11 urte zituenerako, lanean hasi zen tailerrean, baina aspertu egiten zen lan hartan; ezkutatu egiten ziren inspektorea zetorrean.

### **613. Mojen sistemarekin haserretu eta herriko eskolara joan (SOR-086/005)**

Eskolan mojetan ibili zen. Mojek zigor asko jartzen zizkieten eta ikasleek ez zuten gustuko hori. 9 urte ingurarekin herriko eskolan hasi ziren ikasten, eta han andere; oso ona izan zuten. Herriko eskolara joateko erabakia gurasoei galdetu gabe hartu zuten umee; gurasoak haserretu egin ziren jakin zutenean.

### **614. Umetako bihurrikeriak gose garaian (SOR-086/006)**

Azkoitiko mutilak lanbidea ikastera etortzen ziren Soraluzera, eta gauetan haiekin jolasten ziren: batzuetan sokasaltoan, besteetan mojetako madariak lapurtzen edota presara igerian egiten. Gose garaia zen orduan.

### **615. Bizimodua zeharo desberdina Soraluzen edo Belgikan hazita (SOR-086/007)**

Gurasoek tailerrean egiten zuten lan. Belen Osintxura joaten zen esne bila anaiarekin. Gaztetan garai gogorrek tokatu zitzaizkien, eta ahizpak Belen Belgikara eraman nahi izan zuen zer lan-baldintza zituen ikusita. 18 urterekin Belgikara joan zen Belen anai-arrebak ikustera; txundituta gelditu zen hango egoerarekin.

### **616. 11 urterekin neskame hasi (SOR-086/008)**

11 urte zituela, eskola bukatu eta Bergarako baserri batera joan zen neskame. Han zegoela, zaldiz joan behar izaten zuen medikuaren bila.

### **617. Tailerrean mandatari izaten aspertu, eta makinatara pasa (SOR-086/013)**

Tailerrean bulegoko mandataria izan zen hasieran; baina aspertu egiten zenez, makinako lanetara pasa zuten. Zer makina erabiltzen zituen aipatzen du. Hainbat tailerretan aritu izan da lanean.

### **618. Belgikan egondako anai-arreben zoria (SOR-086/016)**

Anai-arrebak Belgikan ondo bizi ziren. Belgikan neskameek familiarekin batera jaten zuten otorduetan. Belgikan ezagutu zuen jendea ona zen. Belgikan egondako anaia txikia zenez, itzuli eta Bergarako emakume batekin ezkondu zen. Belgikan egondako beste ahizpa baino bizimodu gogorragoa tokatu zitzaion.

### **619. Aisialdian, erromerietara eta mendira (SOR-086/022)**

Erromeriara hainbat lekutara joaten ziren. Igandero herriko plazan ere musika egoten zen. Neska-mutilak mendira joaten ziren lagun soinu-jotzailearekin. Janaria neskek eramaten zuten; mutilek, kafea. Baina mutilek tranpa egiten zieten kafearekin. Behin oilasko-saltzailearekin izandako anekdota kontatzen du.

### **620. Elizara negar egitera (SOR-086/023)**

Gaztetan dena bekatu zen. Egunero mezara joaten zen, elizan behintzat negar egin zezakeelako.

### **621. Elizarekin eta abadeekin desengainatuta (SOR-086/025)**

Lehen mutil-lagunarekin pasean joatean, arrosarioa errezatzeko eskatzen zuten apaizek. Dantza lotua debekatuta zegoen. Desengainatuta dago apaizekin. Lekuz kanpoko galderak eta debekuak egiten zituzten. Aitaren aholkua izan zen norbere barruan sentitzen denari kasu egiteko, eta ez ikusten denari. Batzuk oso erlijiosoak izan arren, berekoiak dira.

### **622. Eztei-bidaiara amarekin (SOR-086/027)**

Ezkondu aurretik eta ezkonduetakoan Belgikara joan zen. Eztei-bidaia zen, eta ama beraiekin eraman zuten. Ezkonduetakoan, amaren etxean egon ziren bizitzen.

### **623. Zinema eta gune politikoak gazteentzat (SOR-087/003)**

Domeketan zinera joaten ziren, besterik ez zegoen nagusientzat eta. Tabernetan gizonak sartzen ziren baina mutil gazteak ez. Zentro politikoak ere bazeuden. Errepublikanoena, karlistena eta EAJrena. Batzokia akzio pribatuekin ipini zuten, gerran etxea ez kentzeko. Baina ez zuen balio izan. Karlistek batzokia hartu zuten.

### **624. Zinemak 3 txakur haundi balio zituen (SOR-087/004)**

Zinera joaten ziren. Umeentzat eta nagusientzat pelikulak ematen zituzten. 3 txakur haundi balio izaten zuen sarrerak. Txakur txikiekin gozoren bat erosten zuten. Lagun baten ama zinezalea zen eta bera eta alaba eramaten zituen.

### **625. Umetan jolasak asmatzen zituzten; harrakan, zeleminetan, txirikiletan... (SOR-087/005)**

Umeek asmatzen zituzten jolasak. "Harrakan eta kastorrian", kaniketan bezala baina intxaurrekin; udaberrian txirikiletan, makila luzeekin txikiak jota zeinek urrutiago bota; zeleminetan, klarionarekin lurrean margotuta hanka-kojoka eta sokasaltoan. Aitak pala bat egin zion eta horrekin jolasten zuen.

### **626. Andramarixak herriko jaiak izaten ziren (SOR-087/006)**

Gerra garaian eta ostean, ospakizunik ez zen egiten. Gizonak kartzeletan zeuden asko eta emakumeak umeak zaintzen. Gerra aurretik bai. Andramarixak jai handiak izaten ziren.

### **627. Musika banda eta txistulari taldea zeuden herrian (SOR-087/007)**

Herrian musika banda zegoen, karlistena, San Ignacio izenekoa. Udalak txistulari taldea zeukan, Basauritarrak. Domeketan bandak jotzen zuen Plaza Barrixan.

### **628. Domeketan mendira joaten zen meza ostean (SOR-087/008)**

Domeketan, meza motza entzun goizean eta bazkalostean lagunekin mendira joaten zen.

### **629. Mutilek neskak gonbidatzen zituzten gozotegian (SOR-087/009)**

Mutilekin dantzan ligatzen zen. Neska bi dantzara irteten ziren eta mutilak eskean joaten zitzaizkien. Mutilek neskak gonbidatzen zituzten gozotegian. Udan Debara joaten ziren eta han anaien lagunekin ibiltzen ziren.

### **630. Neskek etxean abesten zuten, mutilek elizako abesbatzan (SOR-087/010)**

Asko abesten zuten. Neskek etxeko lanak egiterakoan kantatzen zuten. Bere aitak mutilei solfeoa erakusten zien. Gizonen abesbatza zegoen elizan. Neskak ezin ziren sartu. Mutil gazteak tiple moduan hasten ziren, organojolearekin, eta gero abesbatzara pasatzen ziren.

### **631. Batzokiaren inaugurazioko mezetara karlistak ez ziren azaldu (SOR-087/011)**

1932an batzokia inauguratu zuten. Donostiatik zuzendari ezagun bat etorri zen mezetan elizako abesbatza zuzentzera. Karlistak ez ziren joan.

### **632. Hogetaka urtekin ezkontzen ziren (SOR-087/012)**

Aita 27 urterekin eta ama 23 urte ingururekin ezkondu ziren. Bere anaiak ere adin inguru horretan ezkondu ziren. Jaiotzak ez ziren kontrolatzen.

### **633. Auzoetako erromeriak (SOR-087/013)**

Auzoetako erromeriak. San Andreskoa lehenengo erromeria izaten zen. Andramarixen ostean Ezozikoa egiten zen, garrantzitsuena. Gero Irurekoa eta San Martzialgoa.

### **634. Inude joaten ziren herriko andrak (SOR-087/015)**

Denak ziren pobreak, baina mailak zeuden. Andrak inude joaten ziren hirietara, aberatsen umeei bularra ematera eta makalduta etortzen ziren. Bere aitak hitzaldiak ematen zituen errepublikazaleen zentroan, andrak ez bidaltzeko esanaz.

### **635. Abertzaleak izan dira beti familian (SOR-087/019)**

Betidanik abertzaleak izan dira familian. Bere aitak Acci&oacute;n Vasca nahiago zuen, EAJtik banandutakoa, baina herrian ez zen sortu. Gernikara joan zen aitarekin Sasetaren gorpua ekarri zutenean. Egunkari bi irakurtzen zituzten etxean, La Luz egunkari sozialista eta EAJk ateratzen zuena. Gerra hasitakoan, erre egin behar izan zituzten.

### **636. Emakumeak politikan: hauteskundeetan botoa eman ez zutenen bila (SOR-087/020)**

Aita mitinetara joaten zen, ama ez. EAJn emakumeen batzarra zegoen herrian. Jende behartsuarentzat zestoak prestatzen zituzten gabonetan. Hauteskundeetan zerrendekin ibiltzen ziren kalean eta botoa eman ez zutenen bila joaten ziren etxeetara.

### **637. Gerra hasi zenean, 'Frente Popular'ra sortu zen (SOR-087/021)**

Gerra hasi zenean, 10 urte zituen. Frente Popularra momentuan sortu zuten. EAJk boterea hartu zuen eta errepublikanoak batu zitzaizkien. Karlista batzuk atxilotu egin zituzten. Milizianoak norbere eskopetekin ibili ziren hasieran.

### **638. Erreketeak herrira sartu zirenekoa (SOR-087/022)**

Erreketeak herrian sartu zirenekoa gogoratzen du. Aurreko egunetan ez zebilen inor kaleetan. Errepresioa hasi zen orduan. Atxilotutako batzuk Guardia Zibilen kuartelean eduki zituzten eta besteak Tolosara eraman zituzten. Ama eta biak atxilotuei janaria eramatera joaten ziren.

### **639. Aita Tolosara eraman zuten atxilotuta (SOR-087/023)**

Aita herritik atera zuten, atxilotu eta hilabetera. Iluntze hartan, plazan karlisten musika-banda jotzen ari zen eta emakume karlistak erreketeeekin dantzan. Margaritak deitzen zieten emakumeei. Pelaio geroago ume karlistei deitzen zieten. Aita fusilatu zutela uste zuten.

### **640. Hasieran ez zuten herritarrik fusilatu (SOR-087/024)**

Komandatzia non zegoen kontatzen du. Orduan ez zuten herritarrik fusilatu.

### **641. Herritar asko hil ziren gerran (SOR-087/025)**

Frontean hildakoak izendatzen ditu. Erreketeek gazteak derrigortzen zituzten haien frontera joatera eta boluntario izendatzera.

#### **642. Gerra hasitakoan, jende asko joan zen herritik (SOR-087/026)**

lhes egin zuten gehienak Bizkaira joan ziren. Karlistek etxe hutsetatik altzariak eta bestelakoak lapurtu zituzten. Itzulitakoan, ez zuten etxerik izaten.

#### **643. Emakumeei ilea moztu eta kalean ibiltzen zituzten (SOR-087/027)**

Erreketeak familia abertzaleen etxeetara joaten ziren, emakumeak hartu, ilea moztu, errizino-olioa eman eta kalean ibiltzen zituzten. Gizonezkoak atxilotu egiten zituzten, eta batzuk fusilatu.

#### **644. Erreketeak armekin sartu ziren herrira (SOR-087/028)**

Erreketeak sartu zirenean, fusilak bizkarrean zituzten eta "Viva Cristo Rey!" oihukatzen zuten. Ondo prestatuta zeuden. Bergaran kanoiak zituzten.

#### **645. Aurrezkiei eskerrak irauñ zuten aita atxilotuta zegoenean (SOR-087/029)**

Aita kartzelan urte bi egon zen. Gordeta zituzten aurrezkiei eskerrak biziraun zuten. Oso jende gutxi zegoen herrian, eta bakoitzak berearekin aurrera egiten nahikoa zuen.

#### **646. Erreketeak irailaren 22an sartu ziren (SOR-088/001)**

Erreketeak sartu ziren herrira. Erreketeak "txapel gorriak" ziren eta falangistak urdinez joaten ziren. Irailaren 22ko iluntzean sartu ziren herrira.

#### **647. 400-500 erreketek sartu ziren (SOR-088/002)**

Erreketeak fusilekin sartu ziren. "Tercio Montejurra"ko 4 konpainia sartu ziren, 400-500 erreketek. Orduan herrian oso jende gutxi zegoen.

#### **648. Errege Etxean ipini zuten kuartela (SOR-088/003)**

Kuartela Errege Etxean ipini zuten. Astebete ingurura, aita preso sartu zuten. Beste preso batzuen izenak aipatzen ditu.

#### **649. Herriko kuarteletik kartzeletara eraman zituzten (SOR-088/004)**

Urriaren 12an, kartzeletara eraman zituzten preso batzuk. Ama eta bera kuartelean zeuden orduan, afaria eramatera joanda. Zazpi egunez aita non zegoen ez zekitela egon ziren, eta fusilatu egin zutela uste zuten. Aita Bergarako kartzelan zegoen eta handik Donostiara eraman zuten. Gero desterratu egin zuten eta Logroñoan eman zituen urte bi.

#### **650. Aitaren medikuntza tresnak eramaten zituzten etxetik (SOR-088/005)**

Aita medikuaren laguntzailea zen eta tarteka haren tresnen bila etortzen ziren erreketek. Medikuek berak esanda zekiten erreketek zer zeukan aitak etxean.

**651. Falangistak umeekin ondo konpontzen ziren (SOR-088/006)**

Falangistak etorri ziren. Umeen oso lagunak ziren. Ez zuten erreketekin tratatu handirik. Fronteak non zeuden aipatzen du.

**652. Bonbekin errequete bat hil zuten (SOR-088/007)**

Bonbardaketak izan ziren herrian, baina hegazkinekin ez. Morteroak (bonbak) jaurtitzen zituzten. Beren etxea jo zuen batek eta familia askok hutsik zeuden etxeak okupatu zituzten. Bonbekin errequete bat hil zuten "nahi gabe".

**653. Emakume baserritar bat tiroz hil zuten (SOR-088/008)**

Emakume baserritar bat hil zuten, fusilarekin tiroa jota.

**654. Karlistek batzokia hartu zuten (SOR-088/009)**

Umeak kalean ibiltzen ziren. Baserritarrak saltzera jaisten ziren kalera. Batzokian karlistak sartu ziren.

**655. Umeei jatekoa ematen zieten erreketek (SOR-088/010)**

Gerra denboran ez zegoen eskolarik eta umeak kalean ibiltzen ziren. Erreketek jatekoa ematen zieten. Karlistek ez zieten abertzaleei aurpegira begiratzen.

**656. Bonbak hasten zirenean, babeslekura joaten ziren (SOR-088/012)**

Bonbak botatzen hasten zirenean, babeslekuan sartzen ziren. Hegazkinak zetozeela ikusitakoan, kanpaiak jotzen zituzten, baina hegazkinek ez zioten herriari eraso egin.

**657. Baserritarrei janaria kentzen zieten Alemaniara bidaltzeko (SOR-088/013)**

Umeak zirenez, ez zuten beldurrik izan. Alemania gerran hasi zenean, janaria bidali behar izan zuen Espainiak. Baserritarrei janaria kentzen zieten eta udaletxepean batu.

**658. Aita deserriratuta zegoela, faszistek lana eskaini zioten (SOR-088/014)**

Aita Logroñon deserriratuta zegoela, faszisten lantegi batean lana eskaini zioten. Lurrindegia zuen batek bulegoa ipini zion lanerako

**659. Gerra ostean bueltan zetozen familiek hildakoen berri ematen zuten (SOR-088/015)**

Ihes egindakoak bueltan etortzen hasi ziren, frontea bukatu eta berehala. Haiek eman zuten hildakoen berri. Karlistek iraindu egiten zituzten trenean bueltan zetozen iheslariak.

### **660. Emakume abertzaleak milizianoentzako arropak egiten (SOR-088/016)**

Emakume abertzaleek milizianoentzat arropak egiten jarduten zuten, eta etxeetara artilea banatzen zuten jertseak eta galtzerdiak egiteko. Emakumeei ez zieten frontean ibiltzen utzi.

### **661. Gerra ostean, familia batzuei herrian sarrera debekatu zieten (SOR-088/017)**

Bueltan etorri ziren familiak hutsetik hasi behar izan ziren, etxeak hutsik zituztelako eta lanik ez. Familia batzuei ez zieten herrian sartzen utzi, zigor modura, eta lantegiren bat zutenei kendu egin zieten.

### **662. Fusilatuak libre zeudela esaten zuten (SOR-088/018)**

Fusilatu egin zituzten herritar batzuk. Libre utzi zituztela esaten zuten ofizialki, hiletarik ez antolatzeke eta bere ondasunik ez jaso ahal izateko. Karlistek armak zituzten gordeta komentuan.

### **663. Espainiako bandera ez ipintzearren, mehatxatuta (SOR-088/020)**

Bere ama mehatxatu egin zuten Espainiako bandera ez ipintzearren. Orduan, soldaduen kamioian Bergarara joan eta erosi zuten balkoian ipintzeko.

### **664. Karlisten eta abertzaleen arteko liskarra hauteskundeetan (SOR-089/002)**

Errepublika garaian, umea zen. Zubi Nagusian liskarra izan zen hauteskundeetan karlisten eta abertzaleen artean. Bere aita mikeleteen kaboa zen; liskarra gelditzera joan eta tiroa bota zuen airera.

### **665. Gernikako bonbardaketa ikusi zuen (SOR-089/003)**

Gerra hasi zenean, Bizkaira joan ziren. Gernikako bonbardaketa gertatu zenean, Mungia Atxuri auzotik ikusi zuten sutan. Hurrengo egunean, batailoiak pasatzen ikusi zituen etxe aurretik.

### **666. Jateko gutxi zegoen gerra sasoian (SOR-089/004)**

Artoa eta esnea jaten zituzten. Mungiatik Gallartara joan ziren eta handik Belgikara joan zen. Janari falta handia zegoen orduan. Gallartan komentu batean egon zen.

### **667. Belgikara joan zen anai-arrebekin (SOR-089/005)**

Aitak izena eman zuen Bilbon umeak Ingalaterrara bidaltzeko, baina kupoa beteta zegoela eta, Belgikara bidali zituzten. Habana itsasontzian eraman zituzten. Ume bakoitzak eta familiak zenbaki bera zeukaten. Familia ona tokatu zitzaion.

### **668. Bizkaira alde egin zuten (SOR-089/006)**

Gerra hasi zenean, aita frontean zegoen Donostian. Amak koltxoiak hartu eta Amorebietaraino joan ziren trenez. Muxikan autobusa hartu eta Mungia joan ziren.

### **669. Aita mikeletea zen (SOR-089/008)**

Mikeletea zen aita. Frontera Aldundiaren agindupean joan zen, baita herritik ihes egin ere. Hil aurrera arte ez zuen jakin bere aita zeinek salatu zuen. Mikelete postua galdu zuen salaketagatik.

### **670. Aita euskalzalea zen (SOR-089/009)**

Umetan euskal gaiztoa egiten zuen eta aitak zuzendu. Eskolan ez zioten euskal izenik ere esaten uzten. Aita euskaltzalea zen, ama nazionalista.

### **671. Lehengusua fusilatu zuten (SOR-089/012)**

Gatzagako lehengusua fusilatu zuten Donostia inguruan. Haren anaia bat preso hartu zuten. Amak botak erosi zizkion, kartzelan hezetasunagatik ezin zuelako abarkekin ibili.

### **672. Belgikan egon zen familia baten etxean (SOR-089/013)**

Belgikan familia onean egon zen. Bere anaiak kale berean bizi izan ziren beste familia batekin. Domeketan elkarrekin ibiltzen ziren anai-arrebak.

### **673. Karlistak engainatuta zeuden (SOR-089/015)**

Giro garratza topatu zuen Belgikatik etorrita. Ordurako egoera politikoaz konturatuta zegoen, baina ezin zuten berbarik egin. Karlistak engainatuta zeuden. Gernika "gorriek" bonbardatu zutela esaten zuten urte asko geroago.

### **674. Abertzaleak iraindu eta mehatxatu egiten zituzten (SOR-089/016)**

Abertzaleei mehatxuak eta irainak egiten zizkieten. Emakumeei ilea moztu eta kalean erabiltzearena entzunda dauka.

### **675. Giroa erdaldundu egin zen erabat gerra ostean (SOR-089/017)**

Euskara asko galdu zen, giroa erdaldundu egin zen. Gazteak ez ziren konturatzen. Mentalitate gutxi egon zen.

### **676. Herrira itzultzean, etxeetan lapurretak eta irainak (SOR-089/018)**

Aita frontean eta kartzelan egon zen. Familia herrira bueltatu zenean, etxe askotan lapurretan egin zituztela konturatu ziren. Karlistak tente ibiltzen ziren. Berak ez zeukan gorrotorik.

### **677. Gaztetan dantzara eta mendira joaten ziren (SOR-089/019)**

Lan asko egiten zen eta diru gutxi irabazi. Musika bandak domeka arratsaldeetan jotzen zuen plazan. Mendira sarri joaten ziren. Bergarara ere joaten ziren trenez 20 urte ingururekin.

### **678. Eskolan politikoki bideratu nahi izaten zituzten (SOR-089/022)**

Eskola publikoan ibili zen. Irakasle ona tokatu zitzaion baina giroa politikoki oso itxia zen. Cara al Sol eta kantatu behar izaten zituzten. Konturatzen ziren hori ez zegoela ondo. Erdaraz derrigortzen zituzten.

### **679. Esne bila joanda, isuna (SOR-089/023)**

Gerra inguruan, Gallasteitorre baserrira joaten ziren esnetara. Behin anaiari isuna ipini zioten estraperloan zebilelakoan edo.

### **680. 13 urterekin lan-eske joan zen (SOR-089/024)**

Gerra garaian 13 urterekin lan-eske joan zen lagun batekin, etxean ezer esan gabe, miseria zegoelako. Hiru hilabete inguru egin zituen orduan. Inguruko herrietatik lanera etortzen ziren.

### **681. Bederatzi pezeta irabazten zituen eguneko (SOR-089/025)**

Laneko maisua gizonezkoa zen baina lanean emakume asko zeuden. 9 pezeta jasotzen zituen eguneko. Jostun jardun zuen gero.

### **682. Estraperloko gantza erosten zuten, olioia garestia zen (SOR-089/026)**

Eguneroko gauzen prezioak esaten ditu. Olio botilaren prezioa hilabete guztiko soldata beste zen. Gantza erosten zuten gehienek, estraperlokoa.

### **683. Dantzariak zeuden batzokian (SOR-089/027)**

Gerra aurrean dantza taldea zegoen batzokian.

### **684. Dantza taldea zegoen batzokian (SOR-090/001)**

Gerra aurrean dantza talde ona zegoen eta beste herri batzuetara ere joaten ziren. Gerra ondoren ez zegoen horrelako talderik, baina noizean behin irteten ziren aurretik ikasitakoak. Euskal giroa zigortua zegoen. Andramarixetan ezpata-dantza egiten zen.

### **685. Emakumeen esku zegoen etxeko ardura, baita diruarena ere (SOR-090/002)**

Etxeko lanak emakumeek egiten zituzten. Erosketak ere emakumeek egiten zituzten, baita diru kontuak eraman ere.

### **686. Irratitik iristen ziren berriak (SOR-090/003)**

"La voz de España" zen berriak ematen zituen bakarra. Irratia zutenek ere zabaltzen zituzten berriak. Ezin zen lasai berba egin.

### **687. Txitxarroa merkea zen orduan (SOR-090/004)**

Egunerokoan baratzeko barazkiak jaten zituzten asko. Gabonetan txitxarroa jaten zuten baina ez zeukan estimazio handirik. Sukaldean txapa zeukaten. Egunean egunekoa erosten zen. Ur beroa txapako depositotik erabiltzen zuten.

### **688. Arropak etxean garbitzen zituzten (SOR-090/005)**

Etxean harraskan garbitzen zituzten arropak baina labaderoak zeuden ibai ondoan eta jendea bertara joaten zen. Tuberkulosiarekin asko hiltzen ziren.

**689. Anai-arrebak herri desberdinetan jaiotakoak dira (SOR-090/007)**

Aita mikeletea zenez, destinoaren arabera mugitzen zen familia. Horregatik, anai-arreba denak leku desberdinetan jaiotakoak dira. Herrian etxez aldatu zuten behin baino gehiagotan.

**690. Itxarkundia batailoian soraluzetar asko ibili zen (SOR-091/004)**

Herritar asko Itxarkundia batailoian ibili ziren. Illordo baserrian egon ziren. Ezkailuak harrapatzera jaisten ziren errekarara. Erreketeek errepidea eta trenbidea moztu zituzten.

**691. Fronte bietako herritarrak bozgorailuekin egiten zuten elkarrekin berba (SOR-091/005)**

Bonbardatzera etorritako hegazkinek nazionalak bonbardatu zituzten, gudariak zirelakoan. Herrikoak zeuden bi fronteetan eta altabozekin berba egiten zuten haien artean. Gudariak morteroekin kanoi-fabrikara jaurtitzen zituzten bonbak. Hildakoak ere izan ziren. Familia asko baserrietan babestu ziren.

**692. Gerra hasi aurretik sumatu zuten bazetorrela (SOR-091/006)**

Calvo-Sotelo hil zutenean sumatu zuten gerra hasiko zela. Irratiak prezintatuta egoten ziren eta tranpa egin behar izaten zuten.

**693. Marista bat hil zuten Maltzagan milizianoek (SOR-091/007)**

Marista bat hil zuten Maltzagan gerra herrira sartu aurretik. Santa Ana kalean kartzela egon zen, milizianoena. Erreketeak herrira sartutakoan, denak atera zituzten.

**694. Zortzi urterekin kartzelan sartu zuten (SOR-091/008)**

Zortzi urterekin kartzelan egon zen: nagusiagoek batzokian sartu zuten gauez, eta tabakoa eta alkohol botilak atera zituen. Aguazilak harrapatu eta kartzelara eraman zituen.

**695. Bederatzi erreketek bere etxean egin zuten lo (SOR-091/009)**

Irailaren 22an, herrira sartu eta hurrengo egunean, erreketek Karakate hartu zuten. Hildako asko izan ziren orduan. Herrian zelan sartu ziren kontatzen du. Bederatzi erreketek bere etxean lo egin zuten gau hartan.

**696. Erreketeak ere onak ziren (SOR-091/010)**

Aita alde biei laguntzen ibili zen. Alde egin zutenen etxeetan ere lo egiten zuten erreketek. Engainatuta zeuden erreketek, ez zekiten zer egiten zuten; jende ona zen.

### **697. Hilabete batzuetan eskolarik ez, eta kalean ibiltzen ziren (SOR-091/011)**

Zazpi hilabete inguruan eskolarik gabe egon ziren, eta kalean ibiltzen ziren umeak. Treneko bagoiak Maltzaga aldera bidali zituzten.

### **698. Inguruko bonbardaketak ikusi zituen (SOR-091/012)**

Nazionalak uste zuten Eibarren dinamita zegoela, eta Elgeta aldetik sartu ziren. Intxortako eta Kalamuako bonbardaketak ikusi zituen, 150 bat hegazkin inguru.

### **699. Bala galduak izaten ziren herrian (SOR-091/013)**

Bala galduak izaten ziren kalean. Botikariari ohean zegoela sartu zitzaion bat, baina ez zion jo. Bere aita bazkalostean harekin ibiltzen zen paseoan.

### **700. Hegazkinak zetozenean, kanpaia jotzen zuten (SOR-091/014)**

Kanpandorreen egoten ziren ume batzuk hegazkinak zetozenean kanpaia jo eta babeslekuetara joateko deia egiteko. Gaiztakeria egiteko nahita jotzen zuten kanpaia.

### **701. Soraluzen nazionalak milizianoak eta nazionalak fusilatu zituzten (SOR-091/015)**

Fusilatu zituzten herritarren kontuak esaten ditu. Erreketeek herriko beste erreketek batzuk tirokatu zituzten, milizianoen erasoan aurrean, beren postuetatik ihes egitearren.

### **702. Milizianoek nazionalak fusilatu zituzten (SOR-091/016)**

Herrian bertan, bala galduak bai, baina borrokarik ez zen egoten. Milizianoek fusilatutakoak aipatzen ditu.

### **703. Miliziano soraluzetar baten anekdota (SOR-091/017)**

Milizianoen inguruko anekdota bat kontatzen du: soraluzetar miliziano bat mendian jausi eta zauritu egin zen. Eibarrera jaitsi zen asto gainean, eta han txaloka eta "gora euskadi"ka hartu zuten, heroi baten moduan.

### **704. Zezenketa antolatu zuten herrian; ikuskizun barregarria izan zen (SOR-091/018)**

Zezenketa bat antolatu zuten herrian gazte batzuek, Ramon bera tarteko. Julian Arana puntista famatua zen eta Mexikon ikasia zen toreatzen. Beste toreatzailea beldurtia zen oso. Inguruko herrietatik ere ikustera etorri zen jende asko. Ikuskizun oso barregarria izan zen.

### **705. Prentsak zezenketaren berri eman zuen (SOR-091/019)**

Zezenketa antolatu zuten herrian eta toreatzaileetako bat oso beldurtia zen. Orduko La Voz de España egunkarian elkarrizketa egin zioten eta karikatura bat ere azaldu zen. Eibartarrak erakarri zituen horrek zezenketara.

### **706. Lagunartean zirika ibiltzen ziren (SOR-091/020)**

Lagunak arrantzara joaten ziren. Ramon bizikletan ipini zuten Maltzagara joan etorrian Guardia Zibilak zetozenean abisua emateko. Ramon bueltaka aspertu eta bazetozela oihuka hasi zen. Lagunek airean alde egin zuten.

### **707. Gerran hildako herritarren berri ematen du (SOR-091/021)**

Gerran hildako herritarrak aipatzen ditu, gudariak eta nazionalak. Itxarkundia batailoiaaren argazkia dauka eta izendatu egiten ditu.

### **708. Emakumeei ilea moztu eta kalean ibili, askotan, inbidiagatik (SOR-091/022)**

Errepublikaren aldeko emakume bat salatu eta ilea moztu zioten. Inbidiagatik izaten zen askotan, ez politika kontuengatik.

### **709. Itxarkundia batailoiko kideak (SOR-091/023)**

Itxarkundia batailoiko kideak izendatzen ditu argazkiari begira. Tartean bere familiak Bilbo aldean izandako ibilerak kontatzen ditu. Herritar fusilatu baten nortasun agiria topatu zuen bonbardatutako etxe batean, Derion.

### **710. II. Mundu Gerran izan ziren soraluzetarrak (SOR-091/024)**

Bera gazteegia zen frontera joateko. 16 urtekoak eramaten zituzten. II. Mundu Gerran izan ziren herritar batzuk, "Divisi&oacute;n Azul" izenekoan.

### **711. Zortzi anai-arreba ziren (SOR-091/025)**

Zortzi anai-arreba izan ziren. Gerra sasoian mutikoa zen eta kalean ibiltzen zen beti jolasean.

### **712. Herritar batzuk deserriratu egin zituzten (SOR-091/026)**

Herritar batzuk erbesteratu egin zituzten. Altzako abade bi Soraluzera ekarri zituzten, zigortuta. Bere koinatu abade bat behin baino gehiagotan deserriratu zuten.

### **713. Aita-amak egun osoa lanean ematen zuten (SOR-092/002)**

Aita-amak goizean goizetik lanean jarduten zuten gauerdira arte. Aitak lantegian jarduten zuen. Amak arraina saltzen zuen, abarketak josten zituen eta etxeke

### **714. Anaia argia zen eskolan (SOR-092/003)**

Anaia argia zen eskolan. Aurrean ibiltzen zirenak familia dirudunekoak ziren, baina haiek ez.

### **715. Eskolan oso gutxi ibili zen (SOR-092/004)**

Lehenengo mojetan ibili zen eta gero eskola nazionaletan. Eskolara oso gutxi joan zen. Maistra batek bakarrik jotzen zituen. Beste batek euskaraz erakutsi nahi zien, baina gero laga egin zuen.

### **716. Etxean euskaraz egiten zuten beti (SOR-092/006)**

Etxean euskaraz egiten zuten beti, erdaraz ez zekiten eta.

### **717. Gabonetan etxerik etxe dirua batzen ibiltzen ziren (SOR-092/008)**

Gabonetan etxerik etxe joaten ziren umeak kantuan diru eske eta jasotako hori beretzat izaten zen. "Gabon gabonete" abesten zuten. Ez zuten ezer berezirik jaten jai egunetan.

### **718. Aita errepublikazalea zen, baina ez oso politikoa (SOR-092/009)**

Ez zen politikaz berba egiten etxean. Aita errepublikazalea zen eta neguan domeketan "Liberal" izeneko tabernara joaten zen lagunekin. Udan familia osoa ibai ondora joaten zen igandeetan egun pasa. Liberal taberna eta inguruan zeuden dendak-eta zelakoak ziren kontatzen du. Carolen emazteak sukaldean jarduten zuen.

### **719. Gerragatik herritik alde egitea erabaki zuten (SOR-092/011)**

Gerra hasi baino hilabete lehenago, ebakuntza egin zioten Donostian eta neska baten etxean geratu zen. Gerran, neska horren aita hil zuten eta ama kartzelara eraman, eta orduan Susanaren etxera joan zen. Bere osaba bat frontean zegoen Illordon (Soraluze) eta bere amari lasai alde egiteko esaten zion, egun biko gauza izango zela eta.

### **720. Soraluzetik jende askok egin zuen alde gerra hasitakoan (SOR-092/012)**

Treanean amak eta umeek Santurtzira ihes egin zuten arropak hartuta, izebaren etxera (aita bilbotarra zen eta). Handik Sestaora joan ziren. Gizonei ez zieten joaten uzten. Trenak bete-bete eginda joaten ziren. Jende askok alde egin zuen herritik.

### **721. Gerratik ihesi, Sestaon ondo bizi izan ziren (SOR-092/013)**

Ama seme-alabekin Santurtzira joan zen izebaren etxera; eta, gerora, aita ere bertaratu zen. Han ondo bizi izan zirela gogoratzen du, aitak lan egiten zuen eta. Treneko tunela zen beraien aterpea.

### **722. Gerratik ihesi ibili arren, ondo jaten zuten (SOR-092/015)**

Izeba eta ama asko mugitzen ziren jatekoa ekartzeko, eta ez zitzairen ezer falta izan.

### **723. Gerra zetorrela eta, Bilbotik umeak atera zituzten (SOR-092/016)**

Gerra Bilbo aldera iristen ari zenean, hiritik umeak ateratzen hasi ziren. Bere senarraren arrebak Errusiara joan ziren.

#### **724. Umeak Errusiara eraman zituzten (SOR-092/018)**

Bere senarraren arrebak Errusiara bidali zituzten eta bizimodu gogorra izan zuten han, Errusiako gerran bereziki.

#### **725. Ahizparekin batera Frantziara joan zen itsasontziz (SOR-092/019)**

Gerratik ihesi, ahizpa eta biak itsasontzian Santurtzitik Frantziara joan ziren. Geroago, beste anaia bat Belgikara joan zen. 13 urte zituen orduan, eta 15ekin etorri zen bueltan. Gurasoak anaia nagusiarekin geratu ziren Bilbon, bonbapean.

#### **726. Aita preso eta behartutako lanetan ibili zen (SOR-092/020)**

Aita Santanderren preso sartu zuten. Handik Sestaoko kartzelara bidali zuten. Han hiru urtez behartutako lanetan ibili zen. Dirudunak kartzeletara joaten ziren, zeintzuk zeuden preso ikustera; soraluzetar batek ikusi zuen bere aita presondegian eta mehatxatu egin zuen. Seme zaharrena bisitan joaten zitzaion nazionalen arrokekin.

#### **727. Anaia zaharrenak nazionalen aldean ibili behar izan zuen gerran (SOR-092/021)**

Anaia zaharrenak nazionalekin gerrara joan behar izan zuen 17 urterekin, bere adineko beste batekin batera. Aitarekin batera harrapatu zuten; baina libre utzi, gaztea zelako. Izebak hartu zuen etxean, familiako etxea hutsik eta dena kakaztuta topatu zuen eta.

#### **728. Frantziatik bueltatu zenerako, aita bigarrenez preso zegoen (SOR-092/022)**

Aita kartzelatik irten berri zegoela bueltatu zen anaia Belgikatik. Halako gaizki irten zen aita, bizkarrean hartuta jaso behar izan zuen etxera. Bera beranduago etorri zen, eta ordurako aita kartzelan zegoen bigarrenez, salaketa bategatik.

#### **729. Bere koinata gerratik ihesi joan zen Errusiara, eta bertan hil zen (SOR-092/024)**

Bere koinata gerratik ihesi joan zen Errusiara ume zela eta bertan hil zen.

#### **730. Fusilatu egin zuten bere izebaren lehenengo senarra (SOR-092/025)**

Bere izebaren lehenengo senarra izan zena, Carol, sozialisten buru zen. Hura fusilatu egin zuten.

#### **731. Aita presoan zaindari ipini zuten (SOR-092/028)**

Frankistak herrian sartu aurretik, sozialistek lau gazte preso hartu zituzten, eskoletan. Bere aita haiek zaintzera bidali zuten eta haiekin berbetan jarduten zuten.

### **732. Miliziano soraluzetarrek ez zuten herria bonbardatu nahi izan (SOR-092/032)**

Milizianoak Illordon (Soraluze) zeuden, eta erreketek herrira zelan sartzen ziren ikusten zuten. Eibartarrek bonbak botatzeko agindu nahi zuten, baina soraluzetarrek ezezkoa eman zieten.

### **733. Errepublika proklamatu zutenean, herriko plazan harrika jardun zuten (SOR-093/002)**

Errepublika proklamatu zenean, 6 urte zituen. Mutikoez harrika egin zioten Plaza Zaharreko plakari, "Alfonso XIII" izena zuen eta. Itxaropen handia piztu zuen aldaketak.

### **734. Maristetan ibili zen eskolan (SOR-093/003)**

Maristetan ibili zen 6 urterekin hasita. Gogorak ziren, baina asko ikasten zuten han. Gerra hasi zenean, eskolatik tunelera sartzen ziren, babesera. Erreketeak herrira sartutakoan, eskola itxi egin zen.

### **735. 11 urterekin hasi zen lanean (SOR-093/004)**

Aita preso sartu zuten beste batzuekin batera. Etxean beharra zegoela eta, 11 urterekin lanean hasi zen hiru urtean. Ofizioa ikasten jardun zuen, soldadutzara joan arte.

### **736. Asmatutako jolasetan ibiltzen ziren umeak (SOR-093/005)**

Irratian, nobela entzuten zuten. Mezara joan eta gero, haiek asmatutako jolasetan jarduten zuten olgetan.

### **737. Ume izan arren, gerrak nagusitu egin zituen (SOR-093/006)**

Gerra irten zenean, nagusitu egin ziren umeak. Laneko soldata jasotakoan, 12 urterekin, nagusiari kexu joan zitzaion, etxeakoak horrekin ezingo zituela mantendu esanez.

### **738. Abertzaleek gerran parte hartu edo ez eztabaidatu zuten. (SOR-093/007)**

Marokon altxamendua zegoela eta Bilbon tropak sartu zirela gogoratzen du. Anaia seminarista joana zen eta oporretan etxera zetorrela eta, arduratuta egon ziren. Abertzaleen artean gerran parte hartu edo ez eztabaidan jardun zuten.

### **739. Gerra hasitakoan, herrian geratzea erabaki zuten (SOR-093/009)**

Gerra hasi zenean, batzordeak sartu ziren alkatearen lekuan. Jendea alde egiten hasi zen. Ama haurdun zegoen eta aitak geratzea erabaki zuen. Bizkaia hartu zutenean, herritarrak itzultzen hasi ziren, tartean bere lagun asko.

#### **740. Aita salatu egin zuten (SOR-093/011)**

Erreketeak sartu zirenean, kantuak eta oihuak entzun zituzten etxetik. Aita salatu egin zuten, zauritutako nazionaleri barre egin ziela esanda. Gezurra zen, ordea, etxean baitzegoen, beldurragatik. Garai zailak zirela eta, ezinikusi asko sortzen zen.

#### **741. Anaia gazteegia zelako, frontetik etxera bidali zuten (SOR-093/012)**

Lagun bat frontera joan zen. Anaiak izena eman zuen gudari joateko, baina gazteegia zelako bueltan bidali zuten, beste batekin batera. Lana eman zieten herriko lantegi batean, Sacian. Ezinikusi asko sortzen ziren orduan.

#### **742. Gerra sasoiaren ere jolasean jarduten zuten (SOR-093/013)**

Gerra sasoiaren ere jolasean jarduten zuten.

#### **743. Gerra ostean, hamazazpi lagun bizi ziren etxean (SOR-093/014)**

Gerratik itzultzen hasi zirenean, hamazazpi lagun egon ziren etxean bizitzen. Asko laguntzen zioten elkarri. Anaia bi frontean ibili ziren gudari: bata, Gernikan sartu eta gero; eta, bestea, Bilbon sartu eta gero.

#### **744. Jateko gutxi eduki arren, dena gozoa iruditzen zitzaien (SOR-093/015)**

Jateko afana izaten zuten, gutxi zeukaten eta. Noizean behin, Bergarara joaten ziren bildotsa jatera. Garagarra erreta hartzen zuten, kafearen ordean. Morokila eta batata gustura jaten zituzten. 1946 ingurura arte, jateko gutxi zeukaten.

#### **745. Razionamentuan mailak ipini zituzten (SOR-093/016)**

Razionamentua hiru mailatakoa zen, irabazien arabera. Bigarren mailakoa ipini zieten beraiei. Ogi eskuetan apurtzen zitzaien.

#### **746. Emakumei ilea mozten zieten (SOR-093/017)**

Gorrotoak izan ziren, baina barkatu egin izan dituzte. Gauza gogorak esaten zituzten. Gogoan du emakumei ilea moztu zietenekoa. Gizonak izaten ziren hori egiten zutenak, eta mozkortuta zeudela mozten zieten ilea.

#### **747. Carlos VII.aren koadroa lapurtu zieten (SOR-093/018)**

Etxeetan lapurretan egiten zuten. Aitita karlista zen eta Carlos VIIren koadroa zeukan. Seme-alabak abertzaleak zirenez, koadroa buelta emanda zegoen. Hura ere lapurtu zieten eta beraien elkartean ipini.

#### **748. Gerra aurrean, antzerkiak izaten ziren elkarte politikoetan (SOR-093/019)**

Gerra aurrean "solidarioak" batzokian antolatzen ziren. Alderditik apartekoa zen. Batzokian eta karlisten elkartean antzerkiak egiten ziren. Liberalean ere dantzaldiak eta egiten ziren.

#### **749. Defentsarako batzordea sortu zuten gerra hasitakoan (SOR-093/020)**

Defentsarako batzordea sortu zuten gerra hasi zenean, alkatea kenduta. Alondegian egiten zituzten saioak, kontzejupean. Alondegira zahagiak ekartzen zituzten eta tabernariak han erosten zuten ardoa. Jabetzak kentzeko etxeetara joaten ziren.

#### **750. Dotrina euskaraz ikasi zuen (SOR-093/022)**

Eskola garaian dotrina euskaraz jasotzen zuen. Baserritar askok erderaz egiten zuten.

#### **751. Gerra aurretik, ume guztiek euskaraz egiten zuten (SOR-093/023)**

Gerra aurretik, ume guztiek euskaraz egiten zuten, baita guraso erdaldunak zituztenek ere. Neskek erdaraz egiten zuten, eta mutilek neskekin ere bai. Konfiantza hartutakoan neskekin, euskaraz. Beraien seme-alabek ere asko egiten zuten erdaraz.

#### **752. Lehenengo soldata gogor helduta eraman zuen etxera (SOR-093/024)**

Gerra aurretik hasi ziren herriko lantegiak indartzen. Soldata ez zen hain txarra. Lehenengo soldata gogor helduta eraman zuen etxera. Hiru errelebotan ibiltzen zen, igandetan ere lanean. Goizeko ordu bietan kafesnea zopekin hartzen zuten.

#### **753. Emakumeak gerra garaian hasi ziren lanean lantegietan (SOR-093/025)**

Emakumeek oihalgintzan egiten zuten lan. Gerra garaian hasi ziren lanean. Diru beharra zegoen etxean.

#### **754. Gerra garaian elizan ez zen barkaziorik esaten (SOR-093/026)**

Elizako kontuetan gerra garaian ez zen barkaziorik eta halakorik egoten. Abade bat deserriratu ere egin zuten.

#### **755. Elizara ez joateko, nortasun handia behar zen (SOR-093/027)**

Egunerokotasunean, elizak indar handia zeukan. Mezara ez joateko nortasun handia behar zen.

#### **756. Pelaioak eta Margaritak (SOR-093/028)**

Pelaioak eta Margaritak. Erreketeeak umeak instruitu egiten zituzten, soldadu izateko etorkizunean. Bere lagunak Bizkaitik etorri aurretik utzi zion joateari, ama bera ere lotsatu egiten zen eta.

#### **757. Jaietan ardoa dohainik ematen zuten (SOR-094/001)**

Gerra bukatu zen urtean, enpresa guztiek langileen bazkaria egiteko agindua jaso zuten. 14 urte zituen eta irrikitan zegoen bazkarirako. Mozkortu egin ziren denak. Berrito ez zuten bazkaririk egin. Jaietan ardoa dohainik ematen zuten.

### **758. Dantzazaleak ziren gaztetan (SOR-094/002)**

Dantzarako amorratuak ziren gaztetxotan.

### **759. Urtero komediantek etortzen ziren (SOR-094/003)**

Oporrik ez zuten izaten. Aratusteak gerra aurrean egiten ziren, koko jantzita, baina ez zen ezer handirik izaten. Lehenagokoek kontaktzen zuten ospatzen zela. Komediantek etortzen ziren urtero plazara.

### **760. Ardoa edanda animatzen ziren dantzara (SOR-094/004)**

Herriko neskekin lotsatu egiten ziren. Ardo txikitoa hartu eta animatzen ziren azkenengo orduan dantzaren bat egitera.

### **761. Erreketeak Soraluzen sartu orduko, alde egin zuen Bilbora (SOR-095/001)**

Salbadorrenekua tailarrean jardun zuen lanean gerra hasi arte. Gurasoek alde egin zuten Bilbo aldera eta bera aitonarekin geratu zen. Erreketeak herrira sartu orduko, lagun birekin alde egin zuen Bilborantz. Derion topatu zituen gurasoak.

### **762. Gerra garaian, Deustun ibili ziren soraluzetar asko lanean (SOR-095/002)**

Gerratik ihes eginda Derion zegoela, Deustun hasi zen lanean, soraluzetar batzuen enpresan (Kruzelegitarrenean), gerrarako gailuak egiten. Soraluzetar asko ibili ziren han lanean.

### **763. Zinera joateko alkateari baimena eskatzen zioten (SOR-095/004)**

Bederatzietarako etxean egon behar izaten zuten. Zinera joateko domeketan, alkateari baimena eskatzen zioten.

### **764. Uztailaren 18a urtero ospatzen zuten karlistek (SOR-095/006)**

Erreketeek urtero ospatzen zuten uztailaren 18a, sartu zireneko ibilbide bera eginez.

### **765. Deustuko lantegia utzi eta frontera joan zen (SOR-095/007)**

Deustuko lantegian, alde bietako soraluzetarrek egiten zuten lan. Taberna banatan egoten ziren. Lantegiko arduradunarekin haserretu eta boluntario joatea erabaki zuen. Trenean zihoala, Durangon bonbardaketagatik trenetik irten eta oinez joan zen Eibarreraino. Amuategi batailoiko soraluzetar batekin topo egin zuen Eibarren.

### **766. Maltzagan egon zen gudarien batailoian (SOR-095/008)**

Maltzagan egon zen gudarien batailoian. Bideak ixten zituzten. Illordon zeuden gudariak morteroak bota zituzten herrira: herritar bat hil zuten eta beste bat zauritu. Trenbideko gurdiekin ibiltzen ziren hara eta hona, eta Munetako Haitzetatik eta Arratetik nazionalek tirokatu egiten zituzten.

**767. Zornotza inguruan frontean zauritu zuten Justino (SOR-095/009)**

Gernikako eta Durangoko bonbardaketak ikusi zituzten. Suak eta hildakoak ikusi zituzten. Justino zauritu egin zuten Zornotza aldean zebilela. Soralezetar askorekin zebilen. Zaurituak Bilbora eraman zituzten.

**768. Aitak lanpostua galdu zuen gerratik bueltan (SOR-095/010)**

Herrira bueltatutakoan, erreketeeek emakume batzuei ilea moztu zieten. Aitak lanpostua galdu zuen, eta lehen baino gutxiago ordaintzen zioten.

**769. Frontean harrapatu zuten Santanderren (SOR-096/001)**

Basurtotik Santanderrera joan zen Amuategi batailoiarekin. Errepideak itxita zeudenez, mendirik mendi fronteetan borrokan jardun behar izan zuten. Santanderrera heldutakoan, nazionalak hartuta zegoen. Kideetako batek janaria topatu zuen. Italiarrek harrapatu eta zelaira atera zituzten ilaran. Fusilatu egingo zituztela uste zuten. Handik futbol-zelaira eraman zituzten; jan gabe eduki zituzten hiru egunez.

**770. Kartzelatik ihes egin zuen (SOR-096/002)**

Kartzelatik ihes egitea lortu zuen. Handik irtendakoan, herritar bi ikusi zituen. Batailoiko beste kide batek ere ihes egin zuen.

**771. Kartzelara bueltatu zen bere kabuz (SOR-096/003)**

Ihes eginda zeudela, nazionalen artean lagun bat topatu zuten, eta harekin lo egin eta jan zuten. Berarekin zegoen kidea haiekin frontera joan zen. Bera, berriz, kartzelara bueltatu zen, lagun artera.

**772. Italiarrek filmatu egin zituzten ogia jaten (SOR-096/004)**

Kartzelatik atera zituztenean, bi auto pasatu ziren ogia botatzen eta hegazkinetatik italiarrek filmatu egin zituzten. Barku batean sartu eta Santoñara eraman zituzten.

**773. Gosea pasatu zuten herrira bueltatutakoan (SOR-096/005)**

Herrira bueltatutakoan, lanean hasi zen. Lehenengo egunetan ez, baina gero gosea pasatu zuten. Errazionamenduan xehatu egiten zen ogia ematen zieten.

**774. Herrira etorritakoan, kuartelera eraman zuten (SOR-096/008)**

Herrira bueltatu zenean, kuartelera eraman zuten. Beteta zegoen.

**775. Kuartelean astean hiru aldiz aurkeztu behar (SOR-096/010)**

Frontetik bueltatutakoan, herriko kuartelera eraman zuten. Kuarteletik alde egiteko baimena eman zioten, baina astean hiru aldiz aurkeztu behar zuen.

**776. Nazionalekin gerrara joan behar izan zuen (SOR-096/012)**

Frontetik herrira etorri eta berriz gerrara deitu zituzten. Lizarrara joan behar izan zuen.

**777. Herriko parrokoak gerrako gertakizun guztien berri zuen (SOR-096/017)**

Herriko parrokoak gerraren inguruan herritarrei gertatzen zitzaaien denaren berri zeukan.

**778. Pirinioetan nazionalentzat guardiak egiten (SOR-096/018)**

Pirinioetan, elurretan jardun zuen guardiak egiten nazionalentzat. Berak zeukan diruak ez zuen han balio.

**779. Gorrien diruak balioa galdu zuen (SOR-096/020)**

"Gorrien dirua" baliorik gabe geratu zen. Hala ere, kartzelan zeudela kendu egin zieten diru hori. Kartzelan izandako egoera txarra kontatzen du.

**780. Euskaraz egiteagatik, gaizki esaka (SOR-096/022)**

Euskaraz berba egiteagatik gaizki esaten zieten. Gerora, denak batera ibiltzen ziren, gerrako alde batekoak zein besteak.

**781. Eskolan erderaz egin behar (SOR-096/023)**

Eskolan Zarautzen ibili zen Justino. Erdaraz egin behar izaten zuen. Jose berriz, maristetan ibili zen.

**782. Karlistek irailaren 22a ospatzen zuten urtero (SOR-096/025)**

Irailaren 22a urtero ospatzen zuten herrian karlistek, erreketek herria hartu zuten eguna.

**783. Batzokia karlistek hartu zuten (SOR-096/026)**

Batzokia karlistek hartu zuten, baina denetarik sartzen zen bertara.

**784. Herritik irtetzeko baimena behar (SOR-096/028)**

Gerra garaian, herritik kanpora joateko baimena eskatu behar izaten zen.

**785. Auzoan elkartzen ziren gehienbat (SOR-098/002)**

Bera estazio gaineko etxean bizi zen, eta bertako umeak elkartzen zirela kontatzen du, adin ezberdineko umeak. Euskeraz egiten zuten euren artean.

**786. Soraluzeko ikastolaren desagertzea (SOR-098/003)**

Ikastolako oso oroitzapen onak ditu, baina eskolarekin elkartu zituztenean giro erdaldunagoan murgildu ziren. Hala ere, D ereduak eta B ereduak bananduta mantendu ziren.

### **787. Futbolean Bergaran (SOR-098/006)**

Ludotekara sarritan joaten ziren. Musika eskolan eta igeriketan ere ibili da Maite.

### **788. Ludotekaren garrantzia (SOR-098/008)**

Ahal zuen guztietan joaten zen Maite ludotekara. Egun puntaletan kalera irteten ziren ekintzak burutzera. Euskaraz gogoratzen du bere haurtzaroa, ludoteka barne.

### **789. Hizkuntza hautuak herrikideekin (SOR-098/009)**

Pertsona jakin batzuekin gaztelaniaz egiten zuela dio, baina orokorrean euskara dela naturalen sentitzen duen hizkuntza.

### **790. Kale-inkestak egiten ibilia (SOR-098/011)**

Euskara batzordean biltzen ziren jolasorduan. Euskararekiko kontzientzia piztu zitziaon unea izan zen hau. Beranduago, kale inkestak egiten hasi zen Pil-Pilean taldearekin harremanetan.

### **791. Euskal Herrian Euskaraz taldeko kide (SOR-098/012)**

Euskal Herrian Euskaraz taldean gazteenak zirela gogoratzen du. Soraluzeko anbulategirako mediku euskaldunak lortzea izan zen orduko borroka nagusietako bat. Antzerki bat ere aurkeztu zuten herrian, euskararen inguruko kontzientzia pizteko.

### **792. Ikasketa ibilbidea: Heziketa Berezia eta Antropologia (SOR-098/013)**

Elgoibarren egin zuen Batxillergo zientifikoa. Ikasle mugimenduan murgildu zen bertan. Ondoren Heziketa Berezia ikasi zuen Donostian, eta bukatutakoan, Saharan egin zituen praktikak. Bueltan, Antropologia ikasketak hasi zituen Pil-Pilean euskara elkartean lanean hasteko.

### **793. Pil-Pilean euskara taldeko langile (SOR-098/014)**

Pil-Pilean Euskara Elkarteko koordinazioan, haur eta gazte sailean, euskalgintzan eta kultura sailean ibili zen. Kukumixo aisialdi taldearen sorreran ere ibili zen Maite. Hasiera batean gazteekin hasi ziren, udaleku ibiltariak sortuz. Ondoren, umeekin ere hasi ziren.

### **794. Kukumixo Aisialdi Taldea (SOR-098/015)**

Kukumixo Aisialdi Taldea. Zazpi urteren buruan asko zabaldu da taldearen fama. Begiraleen artean ere aniztasun handia dago adinari dagokionez.

### **795. "Euskararen eremuan erronka hazi egin da" (SOR-098/016)**

Gaur egun modu naturalean euskaraz egitea zailagoa da, are gehiago hori transmititzea.

### **796. Hizkuntzaren antropologia: Maitek egindako proiektua (SOR-098/018)**

Umeen gaztelaniarekiko joerak kezka piztu eta hizkuntzaren antropologia aztertzeari ekin zion. Gazte perfilak sailkatu zituzten hizkuntzaren faktorearen arabera.

### **797. Gazteen euskararekiko pertzepzioa (SOR-098/019)**

Maitek gazteen hizkuntza hautuak aztertu zituen, eta kontzientzia falta nabarmena topatu zuen.

### **798. "Lokalak aislatzen gaitu" (SOR-098/024)**

Lokalaren prestigioaz dihardu Maitek.

### **799. Adin nahasketa eman al da Soraluzen? (SOR-098/026)**

Kukumixo Aisialdi Taldeak gune intergenerazional bat ematen die gazteei. Ostegunetako pintxo-poteak ere antzeko indarra izan du.

### **800. Gaztetxearen presentzia herrian (SOR-098/030)**

Gaztetxeak azken urteetan indarra galdu duela dio Maitek. Egunerokotasunean jendea mantentzea kostatzen dela dio, oso gune euskalduna dela, eta jaietan jende mugimendu handia duena.

### **801. Herriko arnaguneak (SOR-098/032)**

Euskara modu naturalean bizi duten eremuak izendatzen ditu Maitek: Kukumixok sortzen dituen guneak, Pil-Pilean, Musika Eskolaren ingurua eta dantza taldea, bertso eskola, gaztetxea...

### **802. Soraluzetarrak: xelebreak eta parte-hartzaileak (SOR-098/034)**

Xelebreak, umoretsuak direla dio Maitek Soraluzeko herritarrak. Naturaltasuna galtzen ari direla ere aipatzen du.

### **803. Herriko egoera irauli nahian (SOR-098/035)**

Euskararen egoerari buruz ari da Maite pasarte honetan. Hamar urtetan euskararen erabilera asko jaitsi dela kontatzen du.

### **804. Herritik ateratzeko beharra sentitu zuen (SOR-098/036)**

Iparraldera joan zen Maite lanera, Sehaskan eta hezitzaile moduan.

### **805. Hizkuntzaren arazoa Iparraldean (SOR-098/037)**

Beste kontzientzia bat sumatzen du Maitek hizkuntzaren gaia lantzean. Eremu euskaldun bakarra Sehaska izatean umeei zailtasunak dituztela dio.

### **806. Masifikazioa etsai (SOR-098/038)**

Gazte mordoa dago eskoletan, eta erronka eskola berriak sortzea dela dio Maitek.

### **807. Ibai ertzeko txabolak eta zirkua (SOR-099/004)**

Uda garaian eguna ibaian pasatzen zuten. Txaboletako batean "circo IBI" zeukaten eta pezeta kobratzen zieten beraiek egindako ikuskizunak ikustera etorritakoei.

### **808. Anaiarekin arrantzan (SOR-099/005)**

Fran anaiarekin arrantzan egiten zuten. Gaez kordelak botatzen zituen eta goizean goiz aingirak batzen zituen. Bainuontzian sartzen zituen bizirik. Arrain gorriak ere harrapatu zituen garai batean. Loinak, ezkailuak, sargoak... denetik zegoen orduan.

### **809. Harpasoak eta "Amamurgil" kantua (SOR-099/006)**

Hiru harpaso zeuden: bata laukia modukoa zen, bigarrena luzexka eta hirugarrena borobila. Han jausten zenari kantatu egiten zioten: "Amamurgil, zeinendako? Terendako!". Erortzen zenaren izena esaten zen.

### **810. San Juan suetako leiha (SOR-099/008)**

San Juan suetan leiha izaten zuten auzoen artean. Beraien ustez su handiena egiten zuten. Behin San Juan bezperaren bezperako gauean, norbaitek sua eman zion prestatuta zegoen egur eta paper pilari. Gerora jakin zuen nortzuk izan ziren.

### **811. Sua pizteko egur luzea Iribetik (SOR-099/010)**

San Juan sua egiteko, erdiko egur luzea ekarri behar izaten zuten. Iribera joaten ziren bila. Behin Iribeko Blasek harrapatu zituen eta beldurrez alde egin zuten. Gaez berriro joan ziren bila.

### **812. Egurrezko baltsak eta antxoa latekin ontzitxoak (SOR-099/011)**

Uhartean zoriontsu zirela kontatzen du. Egurrezko baltsak egiten zituzten. Antxoa latekin ontzitxoak egiten zituzten, ugaraxoak sartu eta lasterketak antolatzen zituzten. Baltsak nola egiten zituzten kontatzen du.

### **813. Inkeka jolasean (SOR-099/012)**

Zerrategiaren azpikaldean harea egoten zen eta han "Inke"-ka jolasten zuten. Jolasari buruzko azalpenak ematen ditu.

### **814. Txurrukenen igerian (SOR-099/015)**

Ez dute jaietako kukainarik ezagutu. Txurrukeneko elektrikan bainatu eta igerian ikastera joaten ziren. Mutilak presa gaineratik saltoka aritzen ziren. Bainujantziarekin eta flotagailuarekin ibiltzen ziren.

### **815. Gerratik ihesi Bilbora (SOR-100/001)**

Izen-abizenak. Jaioteguna. Eibarren jaiotakoa da. Gerra hasi zenean, Bilbora joan zen familiarekin eta zazpi urtera arte han bizi izan zen. Ortuellan ere egon ziren eta babeslekua tunel bat izaten zen. Bilbon auxilio social ematen zioten. Plazentziara hamabi urte ingururekin etorri zen Orbeaneko etxera. Hamazazpi urte inguru izan arte bizi izan zen bertan.

### **816. Ia ito zenekoa (SOR-100/002)**

Bizimodua ibaian egiten zuten gaztetxotan. Goizetan Deba ibaian eta arratsaldean Sagar Errekan ibiltzen ziren. Anekdota bat kontatzen du. Behin kainoi fabrikako presan, Igaraten, salto egin zuen baina igerian ondo jakin ez eta lagunek atera zuten.

### **817. Etxetik arrantzan (SOR-100/004)**

Arrantzan ibiltzen ziren: botilekin ezkailetan eta Iraolaetxebarri inguruan loinak harrapatzen. Errabalen bizi zen eta lehenengo pisutik kainabera jaurtita, barboak arrantzatzen zituen. Ez zituzten barboak jaten, berriz ere uretara botatzen zituzten.

### **818. Zubipeko munstroaren kondaira (SOR-100/005)**

Leandro "Txiket" arrantzan aritzen zen eta ezaguna zen herrian. Zubi Nagusiaren azpian munstro bat zegoela esaten zuen. Pita beti apurtu egiten ziola esaten omen zuen eta altzairuzko soka bati amua jarrita ibiltzen zen munstro hura arrantzatu nahian. Ez zuen lortu.

### **819. Iturburuko zirkoa (SOR-100/008)**

Iturburun zirkoa egon zen, "Circo Estrella". Sortzailea Antonio Larrañaga "Pototo" zen, Goia bilbotarra laguntzaile zuena. Gazte guztiak lanean erabiltzen zituen. Kainoi fabrikako zuzendari eta langileak ere joan ziren behin zirkua ikustera. Ufalak dena eraman zuen.

### **820. Uholdeek ekarritako hegaztiak, jan (SOR-100/011)**

Baltegietan, Orbeaneko etxean bizi zen Jose Antonio. Ondoko etxeak bazuen kunbo bat eta han igerian eta arrantzan aritzen ziren. Ufalak ekartzen zituen hegaztiak ere jan egiten zituzten, gose garaia baitzen.

### **821. Lagunekin arrantzan (SOR-101/001)**

Umetan eskolatik irten eta berehala ibaira etortzen ziren. Barboak, loinak, aingirak... arrantzatzen zituzten. Aste Santuan Tinterokua tabernan afaria egiten zuten lagunek arrantzatutakoarekin.

### **822. Estrella zirkoa ibaian (SOR-101/003)**

1947 edo 1948an ibaiko irlan zirkoa egitea pentsatu zuten lagun batzuen artean. Oraingoa baina handiagoa zen irla. Pinuekin egitura bat egin, estali eta han sortu zen "Estrella" zirkoa. Egunkarrietan eta herriko paskinetan agertu zen. Don Luis Calongek oharra bidali zien ikustera joan nahi zuela esanez, eta agertu zen.

### **823. Ibaiko obrekin desagertu ziren harpasuak (SOR-101/004)**

Harpasuak Gabolatsetik Baltegietara joateko harri handiak ziren. Ibaiko obrak egin zirenean, harpasuak eta irlako zati bat desagertu ziren.

### **824. Barbuak ibaian (SOR-101/006)**

Barboa izaten zen arrainik handiena. Kainoi fabrikaren langileak sar zitezten sirenak jotzen zuenean, barbo gorrixka handia aurrean eta barbo talde handia atzean pasatzen ikusten zituen.

### **825. Eskailuak arrantzatzen (SOR-101/007)**

Eskailuak zela arrantzatzen zituzten kontatzen du. Ur handia doanean hartzen dira.

### **826. Loinak, karramarroak eta aingirak ibaian (SOR-101/008)**

Loinak kainaberarekin arrantzatzen zituzten. Noizean behin karramarroak eta aingirak harrapatzen zituzten. Arrain asko zegoela eta ibai aberatsa zela uste du.

### **827. Ibaiaren inguruan bizitzeari zela laga zitzaion (SOR-101/009)**

Gazte zirela, ibaia zikintzen ezagutu zuten. Gipuzkoako ibairik kaltetuena izan zen Deba ibaia, oso azido astunak botatzen zituztelako. Urte batetik bestera arrain guztiak desagertu zirela gogoan dauka. Lehen jendea ibaiaren inguruan bizi bazen, pasatu zen ibaia zabortegei baten moduan hartzera. Ibaira begiratzeari utzi zion jendeak.

### **828. Herriko labaderoak (SOR-101/014)**

Labaderoak non zeuden kontatzen du: Errekaldean, Zubi Nagusiaren azpian, Iturburun eta Gabolatsen. Txabola modukoak zirela dio, erdian aska handi bat eta inguruan 8 harri handirekin. Hango lanak bukatutakoan, andra guztiak platanondoaren azpian karta-jokoan eta ipuin-kontari aritzen ziren.

### **829. Txalupak eta arrantzarako leku onak (SOR-101/017)**

Txalupak herriaren goiko aldean ibiltzen ziren. Aristirena zen ezagunena. Arrantzan Zubi Nagusitik ere egiten zen. Gizonik trebeenak egoten ziren han. Arriogain ere oso leku ona zen, Leandro egoten zen han. Egunero ibaian egoten ziren Atxito eta lagunak. Botila bereziak erabiltzen zituzten arrantzarako.

### **830. Txatarra dendariari saltzen (SOR-101/018)**

Kainoi fabrikako txatarra batzen ibiltzen ziren eta "La Tiendita"n saltzen zuten. Goxokiak, ipuinak, pilotak... erosten zituzten gero.

### **831. Aingirak etxeko harraskan (SOR-101/020)**

Etxeko harraskan ikusiak ditu aingirak umeekin, aitik ekarrita. Karramarro bila Sagar Errekako irteerara joan behar izaten zuten.

### **832. Ibaia, herriko altxorra (SOR-101/021)**

Ibaian asko gozatzen zuten. Orduan ibai ertza zumez beteta egoten zen eta hankan sartu zitzaion behin. Herriko altxorrik handiena ibaia da Atxitoren ustez.

### **833. Olako presa: koska, ur-ustela eta makalak (SOR-101/024)**

"Circo Estrella" antolatu zutenean, neskek ez zuten parte hartu. Ibaian bainatu ere ez ziren egiten neskak. Olako koskara joaten ziren eta ur-emariaren arabera jakiten zuten salto egin ala ez. Han ur-ustela esaten zioten putzu bati. Inor ez zen hara inguratzen. Batzuk makaletara igo eta handik murgiltzen ziren uretan.

### **834. Uretara botatzen zituzten igerian ikasteko (SOR-102/002)**

Ibaia zen umeentzat bizimodua. Txikitatik putzuan ibiltzen ziren igerian ikasi arte. Nagusiagoek kanalera botatzen zituzten eta irteeran batu. Oinez baino lehenago uretan ibiltzen zekitela dio Jabierrek. Igerian ikasteko bota egiten zituzten uretara.

### **835. Olako putzuak (SOR-102/003)**

Olan baziren bi putzu: batean, ikasi eta gero ere igerian aritzen ziren; bestean, Irukurutzetan, inor ez zen sartzen. Zaharrei entzuna zien zergatik ez ziren sartzen: hiru seminarista zaldiz zihoazela eta berotuta putzuan sartu zirela igerian egitera, eta hirurak ito zirela.

### **836. Guardia zibilek arrainak kentzen zizkieten (SOR-102/005)**

Txurrukenen arrantzan egiten zuten; arrain asko zegoen orduan. Loinak eskuz zein kainaberarekin arrantzatzen zituzten; kainabera egiteko urritz makila erabiltzen zuten eta aparejua lotzen zioten. Guardia zibilek kendu egiten zizkieten arrainak eta haiek ikustean ezkutatu egiten ziren. Zaindaria ere egoten zen.

### **837. Arraina zahar etxera (SOR-102/006)**

Anekdota bat: kuadrilla bat bazen oso gogorra arrantzan, baina lizentziarik gabekoak ziren. Afaria egin nahi zutenean, arrantzan egiten zuten. Kuadrillan sartu nahi zuen bat ez zuten aingira janera gonbidatu eta orduan, guardia zibilei deitu zien. Errekisatutako arrainak ongintzazko erakunde batera eraman behar zirenez, zahar etxera eraman zuten janaria gazteek.

### **838. Txaluparekin marrubiak harrapatzera (SOR-102/007)**

Jabierren senideek txalupa zeukaten eta umeak txalupa hartan ortuko marrubiak harrapatzera joaten ziren. Ortuaren jabeak hirugarren egunerako konturatu omen ziren.

### **839. Maristen hondartza (SOR-102/008)**

Egotza azpian hondartzatxoa zuten maristek. Zelai eder bat zegoen han eta sotana kenduta, bainatu egiten ziren.

### **840. Itsas aingira arrantzatu ezinik (SOR-102/010)**

Jaietan Arriogain parean kukaina jartzen zuten. Leandro "Txiket" egunero joaten zen arrantzara (bertara) eta alanbrea jartzen zion kainaberari itsas aingira bat arrantzatu nahian. Ibaia lehortu zutenean, koltxoi bat zela geratu zen agerian.

#### **841. Ibaia kutsatu zutenekoa (SOR-102/011)**

Hamasei urte zituzten ibaia erreta, zikinduta etorri zenean. Tifusa zegoela esaten zieten. Bainatzera ez baina arrantzara joaten jarraitu zuten, ibaia guztiz kutsatu zuten arte. Arrain guztiak hilik tripaz gora agertu ziren goiz batean eta aingirak zelaian gora ihesi. 1968-1969 urte inguruetan gertatu zen. Usain txarra zegoen gainera.

#### **842. Txurrukeneko jaiak (SOR-102/014)**

Denak batera ibiltzen ziren ibaian, gazteak eta umeak. Txurrukeneko jaiak Pope Elorriok antolatzen zituen eta Jabier eta Jose Luis laguntzen aritzen ziren. Bandak jotzen zuen eta kafea ematen zieten. Ahateak harrapatzea egiten zuten eta gauzez musika izaten zen. Gorka Knorr ere etorri zen behin.

#### **843. Aizkoban eta Irukurutzetan igerian (SOR-102/016)**

Txurrukenen aizkobak izeneko lekuan ibiltzen ziren eta nagusitutakoan Irukurutzera joaten ziren.

#### **844. Bainujantzirik gabe uretara (SOR-102/017)**

Umeak ibaira joatea normala zen denentzat. Bainujantzirik gabe bainatzen ziren. Bainatzeko bi ordu itxaron behar zela esaten zieten etxekoek.

#### **845. Elektrikan arropa garbitzen (SOR-102/018)**

Ibaian arropak garbitzen zirela ezagutu dute. Errekaldean labaderoa zegoen baina Txurrukenen elektrikan garbitzen zituzten. Andrek barreinoa buruan hartuta eramaten zituzten arropak.

#### **846. Deba, ibairik kutsatuena (SOR-102/019)**

Ibaia kutsatzen hasi zirenean, laga egin zion jendeak ibaira joateari. Gerora, ibai kutsatuena izan arren, garbitzeko zerrendan azkena jarri omen zuen Jaurlaritzak. Urola errekan araztegia jarri zutenean, arrantzara joaten ziren. Abuztuan arrain gehiago agertzen ziren ibaian baina aste gutxiren buruan desagertzen ziren.

#### **847. Kanaleko urak ia eraman zuenekoa (SOR-102/020)**

Sologoeneko zentrolean ibiltzen ziren. Kanala garbitzeko husten zutenean, tunelaren barruan ibiltzen ziren eta meriendatzera zihoazela, berriz kanalean sartzea erabaki zuen Jose Luisek. Orduan ura etorri zen eta ozta-ozta irten zen handik. Abarketak eraman zizkion urak.

#### **848. Txaluparekin presatik behera joan zirenekoa (SOR-102/021)**

Etxeko txaluparekin arraunean ibiltzen ziren. Presaraino joaten ziren. Behin presan behera joan ziren txalupa eta guzti. Atera zituzten txalupa eta arraunak ur-usteletik eta anaiak eta biek jaso zuten gora. Aitari norbaitek kontatu egin zion eta kontu eske etorri zitzaizenean, gezurra zela esan zion Jabierrek. Gero aitak txalupa saldu egin zuen.

#### **849. Ibaian gorputza garbitzen (SOR-102/022)**

Jendea xaboiarekin garbitzera joaten zen ibaira. Jabier ere joaten omen zen.

### **850. Irlan jolasean (SOR-103/001)**

Izen-abizenak. Urtearen erdia ibaian ematen zuten. San Juanetako sua pizteko egurra baserritarrei harrapatutzen zioten. Irlan txabolak egiten zituzten eta txokolatea ere prestatzen zuten bertan.

### **851. Irlan harrapatuta geratu zirenekoa (SOR-103/002)**

Anekdotak bat kontatzen du. Lau lagun irlan zeudela, ama batek deitu zien handik irtetzeko esanez, baina nahi izan zuteneko ibaia goregi zihoan. Jendea batu zen, suhiltzaileak... Zela atera zituzten kontatzen du.

### **852. Egurrezko baltsekin (SOR-103/004)**

Ibaian arrantzan aritzen ziren beti. Baltsekin ibiltzen zirenean, Gabolatseko zubipean kontuz pasatzen ziren. Egurrekin edota gurguren kamerak erabiltzen zituzten. Baltsa handi bat egin zutenekoa.

### **853. "Ibi" zirkoa egin zutenekoa (SOR-103/006)**

"Ibi" zirkoa hiru urtetan egin zuten irlako txabolan. Behin bi saio egin behar izan zituztela gogoan dute. Musika, antzerkia eta denetarik egiten zuten, aurrez ensaiatuta. Hamar-hamaika lagun aritzen ziren zirkoa prestatzen.

### **854. Irlan, aroztegi azpian edo ibaiaren bestaldean (SOR-103/007)**

Gabolatseko umeak irlan ibiltzen ziren gehien bat. Ibaia gurutzatzen zuten tarteka; aroztegi azpian harea egoten zen eta han aritzen ziren jolasean.

### **855. Eskailuak zela harrapatzen ziren (SOR-103/010)**

Ezkailuak harrapatzen zituzten. Gabolatseko zubitik sarea bota ogi pusketekin eta ezkailu pila bat harrapatzen zituzten. Txanpain botila ere erabiltzen zuten.

### **856. Igelak puzten (SOR-103/011)**

Igelak hartu, ipurditik zerbait sartu, putz egin eta puztu egiten zituzten. Ur gainean lagatzen zituzten eta ezin izaten zuten igelek urpera sartu.

### **857. Igarateko etxea eta bizilagunak (SOR-104/001)**

Igarateko etxean bizi izan zen; Olabarrenatik Maltzaga aldera, Sagar Errekako muturrean dago. Ibaian ez zen inor ibiltzen inguru hartan, gerra bukatu eta berehala. Hogeita lau urtez bizi izan zen han. Olabarrenan nortzuk bizi ziren kontatzen du.

### **858. Aita arrantzalea zen (SOR-104/002)**

Mutikotan ibaian ibiltzen zen. Aita arrantzalea zen eta tresna asko zituen. Kainaberarekin eta botilekin ibiltzen zen hasieran. Presapean aingirak, barboak, loinak, ezkailuak, sargoak, karramarroak... egoten ziren.

### **859. Presak eta indar-etxeak (SOR-104/003)**

Udan arrainek, amurruak bereziki, Sagar Errekako muturrera jotzen zuten, ur garbia etortzen zelako handik. Bi indar-etxe zeuden Igarate aldean: Olabarrenakoa bata, Manolorena bestea. Argindarra ematen zioten Orbeari. Udan lehortu egiten zen ibaia. Presak ere bi zeuden: Olabarrenakoa eta Iribekoa.

### **860. Angulak zela harrapatzen zituen (SOR-104/004)**

Angulak zela harrapatzen zituzten kontaktzen du. Poteak erosi egin behar izaten ziren. Poteekin harrapatzen zituen. Sagar Errekako inda-etxeeko deposituan askatzen zituen angulak.

### **861. Aita kainoi fabrikako zuzendariaren gidaria (SOR-104/005)**

Etxean arrain oso gutxi jaten zuten. Igarateko etxean kainoi fabrikako zuzendaria eta injeniarria bizi ziren. Beheko solairuan zaindari bi egoten ziren, bakoitzak hamabi orduko txandak egiten zituelarik. Zuzendariak bizimodua Bilbon egiten zuen. Federikoren aitak ia egunero ekarri eta eramaten zuen Bilbotik Sorluzera eta alderantziz. Federikoren familia garajearen gaineko etxean bizi zen. Beste etxe bat berri zutenean, Luis Calongerentzako izan zen.

### **862. Arrain haztegia barrikan (SOR-104/006)**

Federikoren aitak egurrezko barrika bat lortu zuen eta hari ur-korrontea jarri zion, etxearen barrutik. Hara batzen zuen harrapatutako arraina. Aingirak bihurriak izaten ziren eta ihes egiten zuen. Barboak eta loinak hantxe izaten zituen. Aingira-kaxak egin zituen Federikoren aitak. Zelakoak ziren kontaktzen du.

### **863. Aitak txanela egin zuen (SOR-104/007)**

Ibaian ibiltzeko txanela egin zuen Federikoren aitak. Txalupa harekin ibiltzen zen arrantzan Federikoren aita. Esprabela botatzen zuen. Neguan arraina ur handietara joaten zen eta hantxe botatzen zuen sarea.

### **864. Aitak arraina banatu egiten zuen (SOR-104/008)**

Umetan autorik ez zen ibiltzen. Eibartar nagusi batzuk herriraino oinez etortzen zirela gogoan du, eta beraien etxe inguruan berriketan jardun ostean, arrainak ikustera sartzen ziren Federikoren etxera. Aitarekin elkar zirikatzen aritzen ziren. Aitak Andres izena zuen eta aititak Artemio.

### **865. Usartzara izebari arraina eramatera (SOR-104/009)**

Usartzatik (Eibar) Urko aldera merendero bat zegoen eta han zeukaten izebari ere urtean pare bat aldiz arraina eramaten zioten. Igaratetik Usartzaraino oinez joaten ziren. Aingirak bizirik heltzen ziren hara.

### **866. Otearekin izkirak harrapatzen (SOR-104/011)**

Federikok gogoan du aitak bere denbora librean zela egin zuen txanela. Faustok ere txalupa izaten zuen. Aitak otea ekartzen zuen menditik, hari pisua jarri, txanelari lotu eta uretara botatzen zuen. Harekin izkirak harrapatzen zituen.

### **867. Kainaberarekin arrantzatzea (SOR-104/012)**

Etxe aurrean kainaberarekin arrantzan egiten zuten. Horman behera jeitsi eta igotzeko limak sartzen zituzten eta haiek erabiltzen zituzten eskailera moduan. Aitita lima-pikatzailea izan zen. Hormaren kontrara, txanelaren parean, jarlekua jarri zuen aitak. Kainaberari izkirak jartzen zizkioten. Martxotik ekainera bitartean aritzen ziren kainaberarekin. Sagar Errekatik jatekoa etortzen zitzairen arrainei. Errepidetik ibaira arrantzan egiteko moldaketak egin zituen aitak.

### **868. Uholdeak eraman zuen txanela (SOR-104/013)**

Uholde handi batek eraman zuen txanela, kataia apurtu baitzuen. Aita ez zegoen etxean orduan. Izan ere, aita etxean bazen, txanela lekuz aldatzen zuen eta intxaurrondoak landatu zituen gero txanela bertara lotzeko.

### **869. Abutzarekin arrantzan (SOR-104/014)**

Iribeko presa gainean aparatu bat eginda zeukan aitak, abutza izenekoa. Metalezko barrika baten neurriko aparatua zen, aitak egina. Urritz makilak erditik moztu eta haiekin egitura osatzen zuen. Uretan beratzen izaten utzi eta hondoratzen zenean, hormari lotu eta ibai bazterrean lagatzen zuen. Gehienetan barboak sartzen ziren hara, baita loina eta karramarro handiak ere. Aitarekin haiek ateratzera joatea jaia izaten zen Federikorentzat.

### **870. Kordelarekin arrantzan (SOR-104/015)**

Kordela nolakoa zen eta nola erabiltzen zen kontatzen du. Gauzez lotzen zen eta goizez begiratzera joaten ziren ia ezer zegoen.

### **871. Aingiratarako butroiak (SOR-104/017)**

Aingiratarako butroiak mailarekin egiten ziren eta burdinazko uztaiarekin. Zelakoa izaten zen eta zela erabiltzen zen kontatzen du. Loinatarako butroiak neguan erabiltzen omen ziren. Ogi-irinarekin pasta bat egin eta butroiaren ahoan jartzen zuen, arrainak jan zezan.

### **872. Adreiluekin karramarroak harrapatzen (SOR-104/018)**

1963an ezkondu egin zen eta Txurrukenera joan zen bizitzera. Hara bizitzera joandakoan laga zion arrantzatzeari. Sagar Erreka pixkat kutsatzen hasita zegoen. Sagar Errekan zeuden arrainak kontatu egiten zituen. Sagar Errekako putzuetan adreiluak jartzen zituen karramarroak harrapatzeko.

### **873. Mingorra elkarateak Sagar Erreka birpopulatu zuen (SOR-104/019)**

Mingorra arrantza eta ehiza elkaratea zegoen herrian. Amuarrain kumeak botatzen zituzten Sagar Errekara, Aranzadikoekin batera.

### **874. Igarate etxearen jatorria (SOR-104/020)**

Igarateko etxeak bi aho zituen. Eibarrera ura eramateko lanak zela egin zituzten badaki. Igarate edo Igarateak errota dagoen lekua esan nahi du. Ola izan zitekeela ere esan diote. Etxearen ahoetako batean turbina txiki bat zegoen eta 1900ean lantegi zaharrari argindarra emateko jarri omen zuten.

### **875. Kukaina Arriogainen eta zubitik arrantzan (SOR-104/021)**

Arriogainen kukaina ipintzen zuen Udalak. Luzea eta zaila jartzen zuten. Igerilekua zen. Zubitik arrantzan aritzen ziren batzuk, barbotan. Arrainari arto-irina zeraman masa edo ogia gustatzen zitzaion. Arrainari lehenengo jaten ematen zitzaion eta ondoren amuan gauza bera jartzen zitzaion.

### **876. Orain ez da ibaia (SOR-104/023)**

Ibaia orain ez dela ibaia dio. Ezagutu zuenaren antzik ez du. Gauzak ondo ez direla egin uste du.

### **877. Arrantzarako garaiak (SOR-105/004)**

Egunero ez zuten arrantzatzen. Uda umeak egiteko garaia izaten zen eta urria inguruan hasten ziren arrantzan. Bere aitak bazituen bi kaxa alanbrearekin jarriak eta han gordetzen zituen harrapatutako arrainak. Jaime txanelarekin bila joan eta eskatzen zionari arraina ematen zion.

### **878. Ibaitek izarak jasotzen (SOR-105/006)**

Etxeetatik jausten ziren izara, alfonbra eta antzekoak ibaitik txanelarekin jasotzen aritzen ziren.

### **879. Umeak paseatzen txanelarekin (SOR-105/009)**

Presaraino joaten zen txanelarekin eta buelta. Umeak ere erabiltzen zituzten txanelean. Ibaian estropadak egin zireneko argazki batean, txanela jendez beteta ikusten da.

### **880. Arrainak zela ikusi (SOR-105/014)**

Arrainak eguzkia dagoenean ikusten dira ondo. Zubitik urpera begiratzuz gero, eta harriren batzuk garbiak ikusi, arrainak dabiltzan seinale.

### **881. Arropa handia garbitzen zen labaderoan (SOR-106/005)**

Labaderoa oso polita zen: grabaketa egindako lekuan plazatxo bat zegoen eta platanondoa erdian, Gabolatsen. Lorearen amama hara joaten zen. Labaderoan batez ere arropa handia eramaten zuten, izarak eta horrelakoak. Barrinoietan bezperatik beratzen edukitzen zituzten arropak etxean eta gero labaderoan xaboiarekin garbitu eta aklaratu. Arropa txikia etxean garbitzen zen. Umeek zapiak eta horrelakoak garbitzen zituzten labaderoan.

### **882. Andrak karta-jokoan (SOR-106/006)**

Zapatu eta domeketan karta-jokoan aritzen ziren andrak platanondoaren azpian. Lorearen etxe aurrean ere aritzen ziren.

### **883. Malmeroneko kanala (SOR-106/007)**

Beti ibaian ibiltzen ziren. Malmeroneko kanalean ere ibiltzen ziren jolasean. Igerian ez zuten ikasi. Normalean mutilek igerian ikasten zuten Olako osinean. Malmeroneko kanaleko urak argia ematen zien Gabolatseko etxeei.

#### **884. Umetako jolasak (SOR-106/008)**

Labaderoak pareta handia zuen eta errekatxoan ez ziren ibiltzen. Sokasaltoan, pote-poteka eta horrelako jolasetan aritzen ziren. Udan beti uretan ibiltzen ziren, egun guztian.

#### **885. Arropak bustitakoan pisutsuak (SOR-106/009)**

Labaderora Olabarrenatik ere etortzen zen andre bat, gehienetan alabarekin eta batzuetan senarrarekin ere bai. Bakoitza bere inguruko labaderora joaten zen. Arropak pisu handia hartzen zuen bustitakoan eta garraiatzeko astuna zen. Ezoziren amak etxean garbitzen zituen arropak eskuz. Oso umetan ibiltzen ziren labaderoan.

#### **886. "Barkillerua" gaitzizenaren jatorria (SOR-106/012)**

Lorearen etxekoei "Barkilleruak" esaten zieten. Jatorria kontatzen du.

#### **887. Ibaiko harpasuak, irla eta zirkoa (SOR-106/014)**

Ibaian arrisku handirik ez zegoenez, umeak bakarrik ibiltzen ziren jolasean. Harpasuetatik ibiltzen ziren batera eta bestera. Irlan ere ibiltzen ziren. Herriko mutilek "Circo Estrella" egin zutenekoa. Kainoi fabrikako zuzendaria ere joan zen ikustera.

#### **888. Indar-etxeko hiru makinak (SOR-107/001)**

Izen-abizenak. Indar-etxean bizi izan da. Urari begira bizi ziren; uholdeetan beldurrez egoten ziren eta ura asko jeisten zenean, argindarrik gabe. Hiru makina zeuden: bik ibaitik hartzen zuten ura eta besteak, Osumatik eta Agirrebeiztegitik zetorrena.

#### **889. Uholdeen ostean ezkailuak (SOR-107/002)**

Etxekoek bakoitzak beren tresnak zituzten ibairako. Uholdeen ostean ezkailuak hartzen zituzten, aitak hamarretakoan jateko.

#### **890. Sologoengo indar-etxea (SOR-107/003)**

Sologoengo indar-etxeak kainoi fabrikara ematen zuen indarra. Tarteka tximistak sartzen ziren makinara eta sutea eragiten zuten. Aitak mantenu-lanak egiten zituen, beste batzuekin txandaka. Gau guztia makinetan pasatzen zuen, zaintzan. Salazar, Etxaniz, Agustin Elizburu... izan ziren hango langileak. Gau eta egun zaintzen zen indar-etxea. Mari Karmen goiko pisuan bizi zen etxekoekin.

#### **891. Makinak eta ingurua (SOR-107/004)**

Makina artetik satzen ziren etxera. Bazen aska bat han eta arrantzatutako arrain eta karramarroak edukitzen zituzten. Makinen inguruan baranda zegoen eta han jartzen zuten arropa lehortzen gauez, haize epela botatzen baitzuten makinek. Makinak geratu zituztenean, hogeita bost urte inguru zituen. Hiru familia bizi izan ziren bertan.

#### **892. Egurrezko zubia Sologoen parean (SOR-107/005)**

Ibaira jeisteko bidea egina zuten. Zubia zegoen beste aldera; egurrezkoa zen eta balantzaka pasatu behar izaten zen. 1953ko uholdeek eraman zuten.

### **893. Kanalean zehar Osintxuraino (SOR-107/006)**

Egun guztia ibaian pasatzen zuten: arrantzan, jolasean, harrien azpian ezkutatutako arrainak hartzen... Kanala husten zutenean garbitzeko, tunelaren azpitik Osintxuraino joaten ziren.

### **894. Irukurutzeta ingurua (SOR-107/007)**

Txikienak Irukurutzetara joaten ziren bainua hartzera eta ume nagusienak Olara. Ijitoak etortzen ziren Irukurutzetara eta zumea batzen zuten zestoak egiteko. Istripuak sahiesteagatik eta errepidea hobetzeagatik, Irukurutzetako eremuari zatia kendu zioten.

### **895. Argindar kableekin arrantzan (SOR-107/008)**

Ibaian arropa zaharrekin ibiltzen ziren. Ibairako oinetakoak eta kalerakoak izaten zituzten. Entzuna du angula handi xamarrek Irukurutzeta alderaino heltzen zirela, ura oso garbia zelako. Argindarrezko kablea uretan sartu, arrainak hil eta batu egiten zituzten batzuek.

### **896. Ibaia leku segurua zen umeentzat (SOR-107/009)**

Mari Karmen anaiekin asko ibiltzen zen baina mutilak gehiago ibiltzen ziren ibaian. Anaiak izandako susto bat kontatzen du. Ama ez zen arduratzen umeak ibaian zebiltzalako, erabat arrunta zen. Leku segurua zen denentzat.

### **897. Ibaiaren hondamendia (SOR-107/010)**

Ibaia kutsatu zenekoa. Goragotik etorri zen; ibaiko bazter guztiak arrainez bete ziren. Izugarrizko hondamendia izan zen.

### **898. Txurrukeneko jaiak Arantzazu egunean (SOR-107/012)**

Txurrukeneko jaiak. Arantzazu egunean ospatzen ziren. Txoznak ipintzen zituzten garajeetan; zezena ere izan zen behin, Sologoeneko soroan. Musika izaten zen ibaiaren ondo-ondoan. Mari Karmenek hamasei-hamazazpi urte izango zituen.

### **899. Salazar eta Mujika, ibaian nagusi (SOR-107/014)**

Salazar eta Jose Antonio Mujikak urpean demasak egiten zituzten. Salazar beti ibaian ibiltzen zen: arpoiak eta bestelako tresna asko zituen. Berak irakatsi zion igerian egiten. Jose Antonio Mujika Erleiko indar-etxean bizi zen.

### **900. Bost indar-etxe herrian (SOR-107/017)**

Bi makina zeuden ibaiko urarekin, turbina handiekin. Sologoen, Erlei, Sagar Erreka, Malmero eta Ansola ziren herriko indar-etxeak.

### **901. Sagar Erreka familientzako aisialdi-gune (SOR-108/005)**

Santandertarrek ardandegia zeukaten eta lagun-artean bolatokia egin zuten. Jende asko ibiltzen zen han. Domeka goizetan familiak joaten ziren ogitartekoak hartuta eguna pasatzera.

### **902. Etorrinen etxeak eta labaderoak (SOR-108/006)**

Etxeak egiten hasi ziren Espainiako hainbat lurraldetatik etorritakoak. Etxeak beraiek egin zituzten. Burgos, Galizia eta Extremadurako jendea etorri zen

Sagar-Errekara eta han egiten zuten bizimodua. Bi labadero egin zituzten. Emakume bakoitzak bazuen bere lekua errekan, arropak akklaratzeko. Bere ama Errotaberriko kanalera joaten zen.

### **903. Sagar Errekan arropa garbitzen (SOR-108/008)**

Bakoitza bere oholarekin joaten zen ibaira arropak garbitzera. Sasien gainean lagatzen zituzten eguzkitan lehortzen. Anila botatzen zioten arropa bustiari. Garbitzeko lekua non dagoen kontatzen du. GOL dagoen lekuan zelai handia zegoen, errotarako kanala pasatzen zen eta soroa izan zen garai batean. Sagar Erreka izena nondik etor daitekeen aipatzen dute. Sagarrondoak non zeuden kontatzen du.

### **904. Errekan batez ere mutilak (SOR-108/010)**

Gaztetan eta umetan ez zen neskarik ibiltzen errekan. Mutilak mutilekin eta neskak neskekin ibiltzen ziren.

### **905. Sagar Errekan arrantzan: eskuz, sardexkarekin eta kainaberarekin (SOR-108/011)**

Eskuz eta sardexkarekin arrantzatzen zuten. Peiok makila, haria eta okertutako orratzarekin harrapatu zituen lehen ezkailuak. Sardexkarekin sargoak arrantzatzen zituzten eta eskuz amuarrainak. Aingirak ere hartzen zituzten.

### **906. Sugea poltsikoan kaletarrak izutzeko (SOR-108/012)**

Txistuk kontatzen du sugea sartzen zuela poltsikoan, kaletarrak iseka eginez zetozenean, hura erakutsi eta bakean laga zezaten.

### **907. Bizimodu aldaketarekin Sagar Errekara inor ez (SOR-108/013)**

Putzura joaten ziren auzokoak eta kaletarrak. Familietan ohiturak aldatu zirenean, aldatu egin zen Sagar Errekako giroa. Bolatokia eta mahai batzuk zeuden. Putzua oso gertu zegoen.

### **908. Ur jauzia eta Zubitxoko presa (SOR-108/014)**

Ur jauzia oso jende gutxik ezagutzen du baina leku interesgarria da. Gorago presa bat zegoen. Zubitxo izeneko zubi bat zegoen, Soraluze eta Bergarako mugan, eta Gallastegitorrerako bidea zegoen bertan. Etxola bat zegoen eta jendea bizi zen han. Lehen presatxo bat zegoen goraxeago eta handik eibartarrek hartzen zuten ura. Peioren aita presaren mantenuaz arduratzen zen.

### **909. Hirurak Bat indar-etxea (SOR-108/015)**

Hirurak Bat izeneko indar-etxea zegoen Sagar Errekan. Sologoeneko jabeena zen. Bi alternadore handi zeuden. Peioren etxeko arropa makina artean lehortzen zuten, haize beroa botatzen zutelako. Indar-etxera Ibarrolako presatik etortzen zen ura kanalean zehar. Uraren bidea zein zen kontatzen du. Ur hori Eibarrera eramaten zen. Argindarra kainoi fabrikarako izaten zen. Herrirako argindarra Malmeroneko indar-etxetik lortzen zen.

### **910. Trebetasun desberdinetarako igerilekuak (SOR-108/017)**

Igarateko etxearen azpitik Sagar Erreka pasatzen zen ibairaino. Putzu txikia eta putzu handia zeuden, igerian ikasteko. Non zeuden kontatzen du. Igerian pixkat ikasitakoan, indar-etxera joaten ziren, ibaira; igerian ondo ikasitakoan, Olara.

### **911. San Martzialgo depositua eta Sagar Errekako presak (SOR-108/018)**

San Martzialgo deposituak bertan jarraitzen du. Indar-etxeko makinak martxan jartzeko, emari handia izan behar zuen. Mendiaren forma dauka. Ibarrolako presak ere bertan jarraitzen du eta egoera onean dagoela dio Txistuk. Sagar Erreka presa Zubitxo inguruan dagoena da, Eibarrera ura daramana. Beste lau presa aipatzen dituzte.

### **912. Ur jauzia ia desagerrarazi zutenekoa (SOR-108/020)**

Ur jauziaren azpikaldea Jose Mari eta Jabi Larrañagari esker omen dago egoera onean. Saihesbidea egin zutenean, kamioiak lurra eta harriak garraiatzen hasi ziren inguru hartara eta Jose Marik eta Jabik geldiarazi egin zituzten, Aldundiari edo basozainari jakinarazita. Lautada bat dago mahaiak jartzeko modukoa.

### **913. Zaborra ibaira edo errausketa-labera (SOR-108/021)**

Hondarkintegia non egon zen aipatzen du Jose Marik. Aurretik errausketa-labea egon zen. Zaborra errekarra botatzen zen. Gogoan du Batzoki ondoan plataforma moduko bat zegoela eta handik zabor-biltzaileak zaborra ibaira botatzen zuela. Geroago, orain industrialdeko zubia dagoen lekuan zegoen presara zaborra botatzen hasi ziren. Ondoren egin zen zaborra erretzeko errausketa-labea.

### **914. Kukupeko ur sendagarria (SOR-108/023)**

Kukupe iturria ez zen orain dagoena. Ur sendagarria zen garai batean. "Sociedad Deportiva" k egin zuen gaur dagoen iturria. Hango ur bera da Jose Mariren etxera doana.

### **915. Eibartarrak presa garbitzen (SOR-108/025)**

Eibartarrek presa egin zutenean, tarteka garbitzera joaten ziren. Sare bat zabaltzen zuten konporta irekitzean eta amuarrain, karramarro eta bestelakoak batzen zituzten. Errekara askatu beharrean, Eibarrera eramaten zituzten jateko.

### **916. Presa lurrez bete zenekoa (SOR-108/026)**

Uholde batzuetan presa ia goraino bete zen lurrez eta hondeagailuekin atera zuten. Txistu eta bere anaiek arrainak eta karramarroak hartu eta baldeetan errekarren goiko aldera eramaten zituzten. Beste inor ez omen zen arduratu. Eibarrerako presa egin ostean, Sagar Erreka ia urik gabe geratu zen. Alde handia izan zen.

### **917. Sagar Errekan kalean argirik ez (SOR-108/030)**

Herrirako argindarra Malmero indar-etxeak ematen zuen eta Sologoeneko indar-etxeak kainoi fabrikarako. Sagar Errekako etxeetan argia zeukaten baina

kalean ez. Udalak Sagar Errekako kalerako argia ordaintzen omen zuen baina instalazioa auzotarrek ordaindu zutela dio Jose Marik.

### **918. Ibaiko jolastokiak eta igerilekuak (SOR-109/003)**

Adin guztietako umeak ibiltzen ziren, mutilak gehien bat. Gabolatsen irla zegoen eta han ibiltzen ziren. Beste auzo eta kaleetakoak tarteka joaten ziren baina ia baimena eskatu behar izaten zieten Gabolatsekoiei. Plaza Zaharreko presatik Errekalderainoko ingurua deskribatzen du. Ibaian ur gutxi etortzen zen tarte horretan. Igerian ondo egiten zuena Olara joaten zen. Bost metro inguruko presa zegoen. Juan Luisek egiten zuen salto eta beste batzuk aipatzen ditu.

### **919. Ibaia xaboiak garbitzera (SOR-109/004)**

Herria lantegiz beteta zegoen eta larunbatetan Olara joaten zen jende asko xaboiak gorputza garbitzera.

### **920. San Juan sua Santa Ana kalean (SOR-109/006)**

Herriaren erdialdean Santa Ana kalean egiten zen San Juan sua. Sagar Errekaraino joaten ziren egur eta enborren bila. Etxeko traste zaharrak ere eramaten ziren.

### **921. San Juan suetako pikeak (SOR-109/008)**

Santa Ana kaleko San Juan sua non egiten zen kontatzen du Juan Luisek. Bazegoen auzoen artean pikea. Baserrietan bakoitzak bere sua egiten zuen eta kaletarrek auzoka egiten zituzten. Gabolatsen, Santa Ana kalean eta Txurrukenen egiten zen.

### **922. Errabalen presarainoko tunela (SOR-109/009)**

Ibaian ematen zuten arratsaldea, etxetik afaltzera joateko deitzen zioten arte. Errabal kalean tunela zegoen eta presaraino iristen zen bidea. Etxekoek ez zuten jakiten non zeuden.

### **923. Leandro Txiket arrantzalea (SOR-109/011)**

Arriogainen Leandro Txiket egoten zen, pertsona ezaguna herrian. Zubi ondotik arrain handi bat aterako zuela esaten omen zuen. Arrain handiak ateratzen zituen.

### **924. Ibaia hondatu zenekoa (SOR-109/012)**

Hamazazpi urte inguru zituzten ibaia hondatu zenean. Handik aurrera inor ez zen ibaian ibiltzen.

### **925. Errabaletik Olarainoko tartea (SOR-109/014)**

Errabal aldetik Ola aldera joaten ziren arrantzara. Alde batean Mahaspea eta beste aldean Maala zegoen. Sakontasun gutxi eta haitz handiak zeudenez, eskuz arrainak harrapatzen ibiltzen ziren. Tarteka arrainen bat hartzen zuten baina ez zuten askotan jaten. Juan Luisen aita arrantzalea zen.

### **926. Ibaiko estropadak (SOR-109/016)**

Kukainak egiten zirela uste dute baina ez daukate gogoan. Hirurogeigarren hamarkadan estropadak egin ziren eta bailarakoen barreak entzun behar izan zituzten. "Juventud Gonzaga"koek antolatu zituzten. Xehetasunak kontatzen dituzte.

### **927. Okelako zomorroak arrantzarako (SOR-109/017)**

Arrantzarako ez zegoen araurik, bakoitzak bere lekua defendatzea besterik. Okelako zomorroa debekatua egon izan da arrantzarako. Juan Luisek eta lagunek beti erabiltzen zituzten. Aitak nola sortzen zituen kontatzen du. Errekan ere leku egokiak egoten ziren horretarako.

### **928. Euliak arrantzarako (SOR-109/018)**

Arrantzarako euliak erabiltzen zituzten. Harrapatu, hegoak kendu eta ezkailuak eta loinak arrantzatzeke erabiltzen zituzten. Arrain-motak izendatzen ditu Juan Luisek. Lexikoa.

### **929. Malmeroko indar-etxea (SOR-109/019)**

Malmeroko indar-etxea, presa eta kanala deskribatzen ditu Santosek.

### **930. Butroiak eta esparbelak (SOR-109/021)**

Txalupekin ibiltzen zirenean, Amutxastegineko etxepean butroiak botatzen zituzten arrantzarako. Tresna deskribatzen du. Uholdeen ostean esparbelekin izkirak non harrapatzen zituzten kontatzen du Juan Luisek.

### **931. Urakapinak batzen (SOR-109/022)**

Uholdeen ostean, gurasoek ibaira bidaltzen zituzten urak ekarritako egurrak batzera.

### **932. Uholdeak ikuskizun (SOR-109/023)**

Udaberritik udazkenera ibiltzen ziren ibaian. Negua hotzagoa eta euritsuagoa zela uste du Juan Luisek. Uholdeak ikustea ikuskizun handia izaten zen. Urak enbor handiak ekartzen zituen.

### **933. Ola paradisua zenekoa (SOR-109/024)**

Ola paradisua zen gazte garaian. Koska txikia eta koska handia zeuden. Tapakua berbak ura norbera baino gorago dagoela esan nahi du. Lexikoa. Inguruak deskribatzen dute. Makalen gainetik salto egiten zuten. Txukurrenara igerian joatea azken proba izaten zen.

### **934. Salazar eta Mujika, arrantzan eskuz (SOR-109/027)**

Salazar eta Mujika Irukurutzetan ibiltzen ziren eskuz arrantzatzen. Oso onak omen ziren. Zela arrantzatzen zuten kontatzen du Juan Luisek.

### **935. Uretan ibiltzeko baltsak (SOR-109/028)**

Baltsak egiten zituzten uretan ibiltzeko. Etxeen azpikaldean lekua egoten zen eta hantxe lagatzen zituzten baltsak. Haiekin ibiltzen ziren.

### **936. Barbotarako eta aingiratarako amuak (SOR-109/030)**

Barbotarako eta aingiratarako ze amu erabiltzen zuten kontatzen du Juan Luisek. Etxeko hondarrak erabiltzen zituzten barbotarako. Aingiratarako arrain zatiak erabiltzen zituzten. Industrialdeko zubia dagoen lekuan zabortegia zegoen eta aingiratarako leku ona izaten zen.

### **937. Barbo kapitaina (SOR-109/031)**

Barbo kapitaina: barbo banaka batzuk zuriak izaten ziren eta taldea gidatzen zuten.

### **938. Etxetik arrantzan (SOR-109/033)**

Juan Luisek bere aitak etxetik arrantzatzeko egokitutakoak kontatzen ditu. Hilario Iturbek etxetik egiten zuela arrantzan gogoratzen dute.

### **939. Kainaberarekin, eskuz eta esprabelarekin (SOR-110/004)**

Kainaberak beraiek egiten zituzten eta haiekin loinak arrantzatzen zituzten. Eskuz ere egiten zuten arrantzan. Baziren txalupa baten jabeak eta gauez butroiak bota eta aingirak harrapatzen zituzten. Aingira mikatza zen jateko. Ezkailurik ez zuen probatu. Esprabelarekin harrapatzen zituzten ezkailuak, neguan uholdeak izaten zirenean.

### **940. Zapuei putz (SOR-110/008)**

Zapuei lastotxoa sartu eta putz egiten zioten, eta noiz lehertuko zain egoten ziren. Hautzaroko oroitzapen oso polita duela dio Txarok.

### **941. Medikutara jolastu eta konfesatzera (SOR-110/010)**

Medikutara jolasten zuten eta gero konfesatzera joan behar izaten zuten. Euria bazen, atariren batean, eta aterri bazen, Irukurutzetako harri handira joaten ziren. Pilotan ere etxepean jokatzen zuten.

### **942. Harri handia eta uholdeak (SOR-110/013)**

Harri handia urak estaltzen bazuen, etxeraino sartzen zen ura.

### **943. Txurrukeneko jaiak (SOR-110/014)**

Txurrukeneko jaiak antolatzen Pope hasi zen. Dantzaldia izaten zen. Globo berezi batzuk botatzen zituzten. Txokolate-jana eta ahate-harrapatzea antolatzen zituzten. Zaku lasterketak ere egiten ziren.

### **944. Agirrebeiztegiko depositua eta zentralerako telefonoa (SOR-111/001)**

Oitturritik eta Osumatik etortzen zen ura. Telefonoa zeukaten zentralarekin komunikatzeko; bestela ez zuen funtzionatzen. Zentralean Salazar, Antonio eta Manuelek egiten zuten lan.

#### **945. Ufaletan (uholdeetan) depositua garbitzeko ardura (SOR-111/003)**

Ufala (uholdea) zegoenean, depositua zikinez betetzen zen eta Agirrebeiztegikoek garbitzen zuten. Gainontzean, zentralekoak izaten ziren garbiketa arduradunak. Agirrebeiztegikoaz gain, Oitturri eta Osumakoa ere garbitzen zituzten.

#### **946. Ubidea gaizki konpondu zutenekoa (SOR-111/004)**

Depositua bitartez funtzionatzeari laga ziotela urte asko omen dira, hoguei inguru. Aurretik ubidea konpondu zuten, baina Joxeparen ustez, ez behar zen bezala, errez apurtzen baitzen. Oitturrikoa urik gabe gelditu zenean, etxerako urik gabe geratu ziren.

#### **947. Laster enpresako konpasak (SOR-114/002)**

Inaziok eskuartean dituen konpasek zertarako balio duten azaltzen du. Egunean berrogeita hamar konpas egitetik hamar mila egitera pasa ziren batzuk. Beste konpas batzuk, ordea, askoz gutxiago ekoizten ziren, zailtasuna zela eta.

#### **948. Altzairu herdoilezina erabiltzen zuten (SOR-114/003)**

Konpas mota ezberdinak egiteko herdoilezina zen altzairua erabiltzen zuten. Mila pezetatan saltzen ziren konpasetako batzuk.

#### **949. Konpas bat nola egin (SOR-114/004)**

Inaziok eskuartean duen konpasa nola egiten zuten azaltzen du pasarte honetan. Orokorrean oso makina txikiak erabiltzen zituzten harria leuntzeko.

#### **950. Konpasen punta eskuz (SOR-114/005)**

Eskuz egiten zituzten konpasaren puntak, bi puntak berdinak izan zitezten. Torlojuak, ordea, aparte egiten zituzten, konpas bakoitzarentzat batzuk.

#### **951. Azkenerako makinak leuntzen zituen (SOR-114/006)**

Makinak jarri zituztenean, produkzioa asko haunditu zen, baina konpasen kalitatea jaitsi zela dio Inaziok.

#### **952. Konpas garestiagoak eta merkeagoak (SOR-114/007)**

Konpas batzuk garestiagoak izaten ziren. Haietako bat egin orduko konpas merkeetako 30 egingo zirela dio.

#### **953. Harriarekin leuntzen (SOR-114/008)**

Tiralineasak nola egiten zituzten azaltzen du Inaziok. Altzairua harriz leuntzen zuten. Malgukiak, ordea, aparte egiten ziren.

#### **954. Konpasak estutxetan saltzen ziren (SOR-114/010)**

Ikastoletarako etab. ere egiten zituzten konpasak, hauek estutxetan sartu eta saldu egiten zituzten. Letoia erabiltzen zuten material gisa konpas hauen kasuan.

### **955. Latoizko armazoiak (SOR-114/012)**

Konpasen armazoiak egiten zituzten latoizkoak. Garestiagoak izaten ziren hauek.

### **956. Leundu ondoren muntatu (SOR-114/014)**

Lehenengo leundu egiten zituzten piezak, eta ondoren muntaiari ekiten zioten.

### **957. Emakumeei gutxiago ordaintzen zitzaien (SOR-114/015)**

Bakoitzak bere lana zuen lantegian, eta piezako ordaintzen zieten, horregatik ahalik eta pieza gehien egiten saiatzen ziren. Emakumeei gutxiago ordaintzen zitzaien piezako gizonari baino.

### **958. Piezako kobratzen zuten (SOR-114/016)**

Ezin komunera joan ibiltzen ziren lanileak, ahalik eta pieza gehien egiten baitzituzten diru gehiago irabazteko.

### **959. 24 urterekin Lasterren (SOR-114/017)**

Hamabost bat urtez aritu zen Laster lantegian lanean, ondoren bere kabuz ere aritu baitzen. Hasiera batean 50 bat langi ziren lantegian, ondoren kopurua handitu egin zen. Tailerrez aldatu ziren ondoren, eta 300-400 bat ziren.

### **960. Lasterren 4 nagusi zeuden (SOR-114/019)**

Inaziok Lasterren hasi zenean enpresako nagusi zirenez dihardu. Hasi zenean, gehiengo emakumeak ziren, 150 bat, pieza txikiak egiteko emakumeak aproposagoak zirela eta. Gizonetzkoak, aldiz, dozena bat inguru ziren.

### **961. Piezaren araberako prezioak (SOR-114/020)**

Bakoitzak bere piezak egiten zituen. Ongi ez bazeuden, ordea, hauek itzuli eta berriro egin behar izaten zituzten.

### **962. Soldata bi zatitan (SOR-114/021)**

Soldata zatikatuta ematen zieten, bata asteen zehar eta gainontzekoa hilabete amaieran. Zenbat pieza egin zituzten jakiteko, pisatu egiten zituzten.

### **963. Nikelatzaileak (SOR-114/022)**

Batetik pizak egin, eta bestetik nikelatu egiten ziren asko. Nikelatzaile bakarra egoten zen lantegian.

### **964. Gizonezkoek atzamarra harrapatu (SOR-114/023)**

Lan handia eskuz egiten zutenez, gizonezko asko izaten ziren atzamarra mozten zutenak, nahiz eta kantitatean gizonak askoz ere gutxiago ziren emakumeak baino.

### **965. Istripua lantegian (SOR-114/024)**

21 urteko gazte bat hil egin zen behin, istripuz. Makina eramaten ari zirela harrapatu egin baitzuten.

### **966. Eskoletarako eskoizten zuten (SOR-114/026)**

Eskoletarako eskoizten zituzten konpasak.

### **967. Lasterren aurretik eta ondoren (SOR-114/028)**

Inazio Lasterren sartu aurretik eta ondoren bere ibili zen lanean. Aurretik, tailer batean egiten zuen lan. Ondoren, bere kontura aritu zen.

### **968. Coliseo inguruan tailer ugari (SOR-114/029)**

Piezak akabatzen aritu zen bere lagun batekin batera Coliseo inguruan zegoen tailer batean, piezak leuntzen eta akabatzen.

### **969. Tailerrean komunik ez (SOR-114/030)**

Lasterren hasi baino lehen lan egiten aritu zen tailerrak ez zuen komunik, atzealdean zegoen oilotokia erabiltzen zuten.

### **970. Altamiran ere lanean (SOR-114/031)**

Tailerrean sartu aurretik Altamiran ere aritu zen tailerrerako piezak egiten.

### **971. Star lantegian urtebete (SOR-114/032)**

Laster lanik gabe gelditu eta Starrera joan zen Inazio lanera. Bertako tailerrene giten zuen lan, eta besteak beste, pistolen piezak leundu eta akabatu egiten zituen. Eskopetei ematen zitzaien "paboa" (tratamendu kimikoa) ere aipatzen du.

### **972. Laster eta Starren arteko aldea (SOR-114/033)**

Starren, pistolez gain, errifleak ere egiten ziren. Inazioren iritziz, hobeto irabazten zen Lasterren Starren baino.

### **973. Starreko lan baldintzak (SOR-114/034)**

Inaziok, Lasterreko eta Starreko lan baldintzak konparatzen ditu. Anekdota modura ere kontatzen du Starren norbaiten urtebetzea zenean "jota mozkortuta" amaitzen zutela denek. Jangela ona omen zegoen Starren.

### **974. Iturburu ikastolara lanera (SOR-114/038)**

Egunkarian atera zen Iturburu ikastolan lan egiteko iragarkia. Atezain moduan hasi zen bertan lanean, eta oroitzen du hasieran ez zegoela aterik ere, amaitu gabe zegoela eraikinaren aurrea.

### **975. Iturburu ikastolan bizitzea (SOR-114/039)**

Iturburu ikastolako atezaina zenez, familia osoa bertara mugitu zen bizitzera, eskolan bertan etxea eginda. Hasiera batean ikastolan 500 bat ikasle gogoratzen ditu.

### **976. Iturburu ikastolako jangela (SOR-114/041)**

Hasiera batean goizez bakarrik zuten ikastola umeek, ondoren, arratsalde ere joan behar zuten, jangela zabaldu zuten.

### **977. Ikastolako ur-deposituaren ardura (SOR-114/042)**

Ikastolako garbitasuna. Umeek gauzak lurrean botata uzten zituzten. Inazio arduratzen zen ikastolako ur-deposituaz. Arrajolan zegoen depositutik ikastola baino gorago zegoen beste depositu batera jasotzen zen ura. Euri asko egiten zuenean, ura zikina irteten zen, kafesnearen kolorekoa, menditik zetorren ura zelako. Gaur egun herriko ura dute ikastetxean.

### **978. Dordoka baserrian agertu zenekoa (SOR-114/044)**

Egun batean dordoka aurkitu zuten baserriko sagastietan, belarra jaten. Bazen herriko bat dordokak izaten zituena, eta harena zela pentsatu zuten.

### **979. Gaztetatik San Romaneko erromeriara (SOR-117/002)**

Umetatik San Salbador ermitarekin lotura izan dute. Hamabost urterekin hasi ziren erromeriara joaten. Salbador eguna astean zehar tokatzen bazen, hurrengo igandean ospatzen zen. Eibarko Karmelitek ematen zuten meza. Bailara ezberdinetatik etortzen zen jendea. Ardoa eta janaria saltzen zen, bertsolariak eta soinu-joleak zeuden, dantza lehiaketak, bola-jokoak, sari-banaketak...

### **980. San Salbadorreko txabola eta elkarte gastronomikoa (SOR-117/003)**

Ezkondu eta gero, gizonak ermita inguruko lursail bat erosi eta bertan txabola eraiki zuten. Ordutik sarri joan dira seme-alabekin. Ermitaren inguruan dauden baserriak aipatzen ditu. Ermitaren atzealdean, Eibarko elkarte gastronomiko zaharrenetariko bat dago.

### **981. San Salbadorreko erromerian herri ezberdinetako jendea (SOR-117/004)**

Soraluzetik joaten ziren San Salbadorrera oinez. Elgetatik ere bai, batez ere Azurtzako auzotik. Dantza egin eta gaueko hamarretan etxera bueltatzen ziren. Oso giro ona egoten zan. Eibarko jende asko ere igotzen zen ermitara.

### **982. San Salbador ermitaren apainketa (SOR-117/006)**

Ermitaren barrualdea nolakoa den eta santuaren egunean aldea nola apaintzen zuten kontatzen du. Eibarko Karmengo elizakoak ziren meza ematearen ardura zutenak. Ermitaren jabeak, Areta baserrikoak dira.

### **983. San Salbador ermitako ospakizunak I (SOR-117/008)**

San Salbador santuaren koadro bat dago aldarean. Lehen, ur-bedeinkatua beti egoten zen. Abuztuaren 6an da jai eguna eta erromeria hurrengo igandean egiten zen. Gaur egun, ez da egiten. Erromeria egunean, jende pila bat batzen zen. Elkarte gastronomikoak taberna jartzen zuen baina urte batean, Maria Jesusek eta familiak ipini zuten. Zinegotziak ere igotzen ziren eta herri-bazkaria egoten zen.

### **984. San Salbador ermitako kanpaiak; hil-kanpaiak (SOR-117/009)**

Kanpaia jotzen zen ermitan, mezetara sartu aurretik. Auzokoren bat hiltzen bazen, hil-kanpaiak jotzen ziren baina bertan ez zen elizkizunik egiten.

### **985. San Salvador ermitako ospakizunak II (SOR-117/011)**

San Salvador ermita berriztatuta dago. Taberna Areta baserrikoek ipintzen zuten eta ardoa zahagietan ekartzen zuten idiekin. San Salvador egunean eta hurrengo igandean, meza eta erromeria eta programazio zabala egoten zen: suziriak, bola-jokoa, soinu-jotzailea, dantzak, bazkariak&hellip; Dantza-motak aipatzen ditu: trikitixa, "agarraua", korroan&hellip;

### **986. San Salvador eguneko taberna (SOR-117/013)**

San Salvador egunean goxoki-saltzailea egoten zen. Tabernan, ardoa, kas-a, limoi-ura, kafea eta ura saltzen ziren. Ura eta limoi-uraren arteko ezberdintasunak kontatzen ditu.

### **987. San Salvador ermitako elizkizunak (SOR-117/015)**

San Salvador jaietan tabernako mostradorera andra eta gizonak inguratzen ziren. Zelaian egoten ziren jarrita, zuhaitzen itzaletan. Behin ezkontza bat ospatu zen. Kanpaiak jaietan bakarrik jotzen ziren.

### **988. San Salvador egunean, meza zelaian entzuten (SOR-117/016)**

Jai egunetako elizkizunetan andreak eta gizonak nahastuta egoten ziren. Ermita txikia denez, jendea zelaian ere egoten zen meza entzuten. Ez ziren dotore jazten, perkalez egindako soineko eta alpargatekin. Perkala zer den azaltzen du.

### **989. San Salvador ermita, Areta baserrikoa (SOR-117/019)**

Urtean zehar elizkizun partikular batzuk egoten ziren, hildako auzokoen omenez. Areta baserrikoek prestatzen zuten ermita. Ezagutu dituen abadeen izenak aipatzen ditu. Barrualdea beti kandlekin apainduta egoten zen. Mezan "komulgatzeko", abadea aterpera ateratzen zen.

### **990. San Salvadorrera igandero (SOR-117/020)**

Ia igandero San Salvadorreko txabolara igotzen ziren, semeekin, anai-arrebekin, lehengusuekin, lagunekin... Inguruko baserrikoak ere inguratzen ziren. Bolo-jokoan jolasten zuten denek batera.

### **991. San Salvadorren errogatibarik ez (SOR-117/021)**

Maria Jesusek ez du San Salvadorren errogatibarik ezagutu. San Pedro Akondia ermitan, bai ordea. Kanpaia jotzen zen, ekaitza zetorrela abisatzeko.

### **992. San Salvadorreko ur-bedeinkatua (SOR-117/023)**

San Salvadorreko ermitara ur-bedeinkatua urtean bi aldiz eramaten zuten Eibarko Karmeldarrek. Etxeetara ere eramaten zuten, trumoiak ekiditeko eta osasun arazoentzat. 2017az geroztik ez da mezarik egon.

### **993. San Salvadorren ermitan maiatzeko-lorarik ez (SOR-117/025)**

Ez zen maiatzeko-lorarik eskaintzen San Salvador ermitan. Oso elizkizun puntualak eta urteroko erromeria bakarrik.

#### **994. San Salvador ermitako ezkia (SOR-117/027)**

Ermita parean ezkia dago eta horrekin ezki-ura egiten zuten. Loreak nola lehortu eta gorde azaltzen du. Perretxiko asko ere batu izan dituzte zonaldean.

#### **995. San Salvadorreko erromerian neska-laguntzea (SOR-117/029)**

San Salvadorreko erromerian bikoteak sortzen ziren eta mutilek "neska-laguntzera" egiten zuten. Baserrian bizi ziren gazteek erromerietan ezagutzen zuten jende berria.

#### **996. Debarreneko herri-historiaren ikerlaria (SOR-118/002)**

Historialaria da Jabi eta, nahiz eta ofizioz udal administraria izan, Debarreneko herri-historia ikertzea du afizioa. "Eibar: Orígenes y evolución" liburua idatzi zuen 2000. urtean eta orain Elgoibar eta Soraluzeko erdi aroko ikerketarekin ari da.

#### **997. Ermiten sorrera eta bilakaera (SOR-118/004)**

Ermita hitzaren jatorria. Gipuzkoan eta Bizkaian hainbeste ermita egotearen arrazoiak. Lurraldea antolatzeke era bat ziren ermitak. Euskal Herriko ermitak Calahorrako Apezpikutzaren barnean egon ziren eta oso zaharrak dira, goi erdi-arokoak gehienak.

#### **998. Debarreneko herriak, "Markinako lurren" barruan (SOR-118/005)**

Deba arroa (Mutriku izan ezik) "Markinako lurren" barnean sartuta zegoen. Bilakaera nolakoa izan zen kontatzen du Jabik.

#### **999. Ermitak oso zaharrak dira; datatzeko erak (SOR-118/006)**

Lehenengo lur-eremu zatiketak Elizak egin zituen, ermiten bitartez VII.mende ingurutik aurrera. Ermiten elementu zaharretan (leihoak, pareten neurriak, atek...) ikus daitezke, nahiz eta ermitak berriitu.

#### **1.000. Kana luzera-neurria, eraikin zaharren datazioetan (SOR-118/007)**

Ermitaren atea zenbat eta txikiagoa izan, ermita zaharragoa da. Kana neurria nola erabiltzen zen azaltzen du Jabik. Neurri hori erabiltzen duten eraikinak oso zaharrak dira.

#### **1.001. Erdi Aroko dokumentazioaren gabezia (SOR-118/008)**

Oso zaila da XIV. mendera arteko dokumentazioa aurkitzea, ofizialak (Erregeak emandakoak) ez badira. Eibarko lehenengo dokumentua 1409koa da eta hiri-gutuna galduta dago.

#### **1.002. Eibarren sorreraren data ez da zehatza (SOR-118/010)**

Herri edo hiri baten sorreraren dataren prozesua azaltzen du. Eibarren sorrera nolakoa zen azaltzen du.

### **1.003. Eliza monasteriala zer zen (SOR-118/011)**

Eliza monasteriala, erlijiosoa ez zen pertsona batek egindako monasterioa zen, lurralde horiek kontrolatzeko eta hamarrenak eta uztaren lehenengo emaitzak jasotzeko.

### **1.004. Bere liburuaren inguruko zuzenketa bat (SOR-118/012)**

Ermiten kontaketa egitea zaila da. Aginagako auzoa Eibarko mugen barruan egotea eta auzoko elizak sakramentuak emateko gaitasuna izatea oso arraroa da. Jabik Eibarko bere liburuaren inguruko zuzenketa bat egiten du.

### **1.005. Eibarko ermitak eta Aginagako elizatea (SOR-118/013)**

Bizkaian, lurraldea elizate bitartez antolatzen zen. Aginagako auzoak, nahiz eta Gipuzkoa izan, elizate funtzioa zeukan. Eibarko ermiten izenpekoak aipatzen eta arrazoitzen ditu (San Pedro Akondia, San Martin, Santa Maria...). San Pedro eta San Martinen izenpekoak Mariarenak baino zaharragoak dira.

### **1.006. Eibarko San Martin ermitaren garrantzia (SOR-118/014)**

Eibarko San Martin ermita oso garrantzitsua izan zen, hiru serora zituelako. Serorak eta abadeak, auzotarrak izaten ziren. Honen inguruan gertatutako pasadizo bat kontatzen du.

### **1.007. Serorak edo "freirak" (SOR-118/015)**

Seroren funtzioak: loreak lortu eta ipini, aldareko oihalak garbi eta txukun izan, ermitak eta elizak prest izan, eskulanak egin... Inguruko baserritarrak beti egoten ziren prest serorei laguntzeko. Ordainketak truke bidez. Istiluak egon ziren Kontzeju eta patroien artean, ermiten jabegoa zela eta. Serora nagusiak egoten ziren parroketan.

### **1.008. Eibarko Santa Ines ermita (SOR-118/017)**

Santa Ines ermita Isasitarrena zen, baina, nahiz eta partikularra izan, gurtzarako zabalik eduki behar zuten. Beste kasu batzuetan ermita jauregi barruan egoten da.

### **1.009. Eibarko ermita zaharrenak: San Martin, San Pedro Akondia eta San Roman (SOR-118/018)**

Eibarko Gorosta bailarako Maalako ermita. Maria Magdalenaren izenpekoa herrigunetik gertu egoten zen. Esteban de Ibarrek eraiki zuen San Esteban ermita. Aginagako San Roman de Zelaarte toponimoarekin lotuta dago, ez baserriarekin. Ama Birjinaren izendapena. XV. mendetik aurrera eman zen ermita eta elizetan.

### **1.010. Eibarko San Juan ermita, gaur egungo Untzaga plazan (SOR-118/019)**

Untzagako plazan zegoen San Juan ermita. Ermitaren inguruko aipamenak egiten ditu. Erregeen diruzainei buruz hitz egiten du. Marabedi txanpona, egungo euro bat inguru.

### **1.011. "Lehenkinak" eta hamarrenak (SOR-118/021)**

"Lehenkinak" edo primiziak zer ziren eta enkantean nola jartzen ziren azaltzen du. Hamarrena edo "jainkotiar hamarrena", ordea, Jaungoikoak esandako agindu bat zela uste zuen jendeak eta beti ordaintzen zen, infernurako joateko beldurragatik.

### **1.012. Hamarrenak zein produktuekin ordaintzen ziren (SOR-118/022)**

Erdi Aroan hamarrenak zer motatako produktuekin ordaintzen ziren azaltzen du Jabik: garia, orduko artoa, oloa, zikirioa, sagarrak, bildotsa.... Garia urrea bezalakoa zen.

### **1.013. Erdi Aroan, gariak urrea balio zuen (SOR-118/023)**

Erdi Aroan gehien estimatzen zen produktua zereala zen. Hamarrenen parte handi bat zerealek osatzen zuten. Enkantean zereal bakoitzak ezberdin balio zuen, urteko batezbesteko produkzioaren arabera. Geroago garagarra ere sartu zen hamarrenetan. Ez zuen gariak bezainbeste balio, baina oso erraz produzitzen zen.

### **1.014. Zikirioarekin lotuta toponimia Debabarrenean (SOR-118/024)**

Zikirioa gaur egun produzitzen ez den arren, Deba arroan toponimo askotan agertzen da: Zikiriotza, Zikiriondo, Zikirioaga...

### **1.015. Ermitak, errege-bideetan kokatuta (SOR-118/025)**

Eibarko ermitak San Andres parrokia baino zaharragoak dira. Kasu gehienetan horrela da, lurraldean jauntxo handi bat bazegoen izan ezik. Ermitak beti daude bide nagusi edo errege-bideen ertzean edo oso gertu. Erdi Aroan zubiak eraikitzea ez zen erraza.

### **1.016. Erdi Aroko abadeen formakuntza (SOR-118/027)**

Erdi Aroko abadeak familia onekoak eta aurretik hautatuak izaten ziren, ahaide nagusiak utzitako testamentuan. Eibarren, Unzuetatarak, Isasitarak, Urkizutarrak... XV. mende amaieratik aurrera batzuek Logroñon edo Salamancan ikasten zuten. Formazioa eta kultura zeukaten bakarrenetarikoak ziren, eskribauekin batera. XV. mende hasierako Mutrikuko afera bat kontatzen du: eskribauak idatzita utzi zuen nola ez zegoen idazten zekien abaderik. Harrituta geratu zen Jabi.

### **1.017. XIII. mendera arte, lurperatzeak ermitetan (SOR-118/028)**

Ermitetan ezin ziren lurperatzeak egin, baina oso zaharrak direnetan aurkitu izan dira lurperatzeak, hauek Letraneko Kontzilioan (XIII. mende hasiera) debekatu baitziren. Lurperatzeak, hiletak, bederatziurrenek... diru eta eskaintza asko mugitzen zituzten eta Elizak horien kontrola izan nahi zuen.

### **1.018. Elgoibarko burdinolak eta inguruko baserrietako egurra (SOR-118/029)**

Zenbat eta eskaintza gehiago egin Elizari, zerua gertuago zegoela pentsatzen zen. Elgoibarren burdinola asko egon dira eta jende asko mugitzen zen horien inguruan, egurrez hornituz batez ere. "Ezkurbeste" txerria zer esan kontatzen du.

### **1.019. Gotzainaren bisitariak XVI. mendetik aurrera (SOR-118/031)**

Gotzainaren bisitariaren figura zein zen azaltzen du Jabik. Hamarrenak ordaintzen ziren eta eraikin erlijiosoen egoera nolakoa zen kontrolatzen zuen. Txostenak idazten zituen.

### **1.020. Auzoa, baserria eta ermitaren arteko lotura (SOR-118/032)**

Ermitak Euskal Herriaren ondarearen elementu oso garrantzitsua izan dira, batez ere baserritarrentzat. Ermiten inguruan jende asko mugitzen zen eta jai handiak egiten ziren.

### **1.021. Ermitetan bataiorik ez (SOR-118/034)**

Ermitetan ezin ziren bataioak ospatu. Elizak bakarrik zeukan "ponte eskubidea", hau da bataiatzeko harria izateko eskubidea. Garai batean, ordea, ermita bakoitzak gaitz edo arazo zehatz bat konpontzen zuela sinesten ze eta, horregatik, haurrak bertara eramaten zituzten (hitz egiten edo oinez hasteko, osasun ona izateko...).

### **1.022. Kofradiak eta auzoa; auzolana (SOR-118/036)**

Kofradiak zer ziren azaltzen du Jabik. Kofradiako kideek elkarri laguntzen zioten (bideak garbitzen, uztak jasotzen...). Kofradia bakoitzak santu baten izendapena izaten zuen, beti ermitari lotuta egoten zirelako. Kofradia hitzaren etimologia "anaiekin" esanahiarekin lotuta dago. Garai batean auzolan asko zegoen.

### **1.023. Eibarko Otaola-Kiñarraga bailara: Urkidiko San Lorentzo ermita (SOR-118/038)**

Eibarko Otaola-Kiñarraga bailarari buruz hitz egiten du Jabik. Hamarrenak kobratzeko orduan, eguzki alderantz dauden bailaretako baserriek garia eta zerealak ematen zituzten, eta kontrako bailarakoek animaliak. Bailara handia da, baina ez ditu hainbeste baserri eta Urkidiko San Lorentzo ermitan ez zen hainbeste jende biltzen. Elgoibarko San Lorentzorekin konparatzen du Jabik.

### **1.024. Eibarko "Otol" baserriaren garrantzia (SOR-118/040)**

Otaola edo "Otol" baserria, Ermuko (lurrez Zaldibar) Sallabenteko ermitari lotuta zegoen. Baserri edo etxe bakoitzarentzat bere ermita edo eliza zen bere hildakoak lurperatuta zeuden lekua. "Otol" baserria gaur egun Unibertsitatea dagoen lekuan zegoen. Oso baserri indartsua izan zen, harrobia zuelako. Eibarko, Soralezeko, Elgoibarko... elizak harrobi horretatik ateratako harriez eginda daude.

### **1.025. Isasitarrak eta Santa Ines ermita (SOR-118/044)**

Eibarko Isasi familiaren gorabeherak eta indarra kontatzen du Jabik. Diru asko zeukaten Isasitarrek, Ameriketara egin zuten merkataritzatik lortua. Santa Ines ermita desagertuta badago ere, toponimia mantentzen da. Ermita partikularra zen eta jabeek ordaintzen zuten dena. Koroarekin lotura haundia zeukaten.

### **1.026. Ermitak legenarra zutenak isolatzeko erabili ziren (SOR-118/048)**

XIV. mendean sartu zen legenarra Euskal Herriko leku batzuetan, baina XVI. mendean oso gogor jo zuen. Gaixotzen zen jendea ermitetan isolatzen zuten.

### **1.027. Izurriteak eta lazaretoak (SOR-118/049)**

Izurriteak beti egon direnez, herri guztietan daude lazaretoak. Hauen historia kontatzen du. Eibarren Lazareto baserrian zegoen kokatuta eta San Martin ermitari lotuta zegoen.

### **1.028. Untzuetatarrak eta Azitaingo eliza (SOR-118/050)**

Ama Birjinaren gurtzari buruz hitz egiten du. Untzuetatarrek betidanik eliza bereganatzea nahi izan zuten, bigarren mailako ahaideak zirelako. Ez zuten inoiz lortu. Errota zeukaten Untzuetatarrek. Gaur egungo jauregia XVIII. mendekoa da, aurrekoa erre egin baitzen.

### **1.029. Irureko San Esteban euzoan lehenengo zezenketak (SOR-118/053)**

XVI. mendeko auzi batean Soroluzeko Irure auzoko San Esteban ermita inguruetan historiako lehenengo zezenketa bertan ospatu zela aipatzen da. Jabik istorioa azaltzen du.

### **1.030. Soroluzeko hiru neska Elgoibarko Pilar ikastetxera (SOR-119/002)**

Donostian Magisteritza ikasketak amaitu zituztenean, leku askotatik deika aritu zitzaizkien, lanerako. 1974an Soroluzeko hiru neska Elgoibarko Pilar ikastetxera joan ziren. Ordurako beste bi herritar zebiltzan han. San Viatorreko fraideen ikastetxea zen Pilar. Bigarren mailan hasi zen bera irakasle gisa, mutilekin. Baina sasoi horretan hasi ziren neskak ere Pilar ikastetxera joaten.

### **1.031. Euskara Elgoibarko Pilar ikastetxean (SOR-119/003)**

Magisteritza ikasketak gaztelaniaz egin zituen eta Elgoibarko Pilar ikastetxean hasi zenean gaztelaniaz ematen zituen eskolak. Fraide gehienak kanpokoak ziren eta ume gehienek ere ez zekiten euskaraz. Euskara irakasgai gisa irakasten zuten. Udaran Donostiara joan ziren Oñatibiaren ikastaro bat jasotzera, euskaraz irakasteko prestatzeko. Pixkanaka euskara indartzen joan zen gero eta euskara jakinda irtetzen ziren umeak, nahiz eta ez zuten izaten euskaraz egiteko ohiturarik.

### **1.032. Pilar ikastetxea: izaera, ospea, itxiera (SOR-119/008)**

Umeei idazten irakasteko materiala beraiek sortzen zuten. Ez zuten harreman handirik Elgoibarko gainontzeko ikastetxeekin. Pilar ikastetxeok "erdaldunak" ziren. San Viatorreko fraideak joan egin ziren 2004an. Beraiek sei urte gehiago egin zituzten, baina 2010ean itxi egin zen ikastetxea, ume

faltagatik. Garai batean eskola erlijiosoa zelako joaten zen jendea hara, baina gerora jendearen ikuspegia aldatu egin zen.

### **1.033. Pilar ikastetxea: eskolaz kanpoko ekintzak, ospea (SOR-119/010)**

Korrika egunean parte hartzen zuten Pilar ikastetxekoek. Egiten zituzten ekintzetako asko erlijioarekin lotuta zeuden, ikastetxearen izaerarengatik. Pilar ikastetxeak fama ona izan zuen eta ume asko pasatu zen bertatik. Ikasturte bukaeran ospakizuna egiten zen eskolako gurasoekin. Gurasoek parte hartzen zuten eskolaz kanpokoetan.

### **1.034. Elgoibarko Pilar ikastetxeko fraideak (SOR-119/015)**

Pilar ikastetxeko fraideak ez ziren euskaldundu, ez zuten beharrik sentitu. Hasieran asko zeuden, baina gutxitzen joan ziren. Bertan bizi ziren. Bakoitza bere erara ibiltzen zen, besteei jaramon handirik egin gabe. Batzuek herritarrekin ere izaten zuten harremana. Ikastetxeko bileretan haiek izaten ziren erabakitzen zutenak.

### **1.035. Pilar ikastetxean maila bakoitzeko bi gela (SOR-119/016)**

1974an Pilar ikastetxean sartu zirenean maila bakoitzeko gela bat zegoen, baina berehala maila bakoitzeko bi gela izatera pasa ziren. 40 umeko gelak ere izan zituzten sasoi batean. Umeak gehitzeko arrazoiak: jaiotza-tasaren gorakada eta neskek ere onartzea (mojen eskola ixtean).

### **1.036. Eskola-orduak amaitutakoan, klase partikularrak (SOR-119/018)**

Pilar ikastetxean zebiltzanek hilero kuota bat ordaintzen zuten. Uniformerik ez zuten erabiltzen. Arratsaldeetan 5ak arte izaten ziren eskolak eta, klaseen ostean, eskola partikularrak ematen zituzten. Eskola horiek aparte kobratzen zituzten eta diru hori beraientzat izaten zen. Eskolak amaitu eta klase partikularrak hasi bitartean fraideen jangelara joaten ziren meriendatzera.

### **1.037. Pilar ikastetxea salbatzeko neurria (SOR-119/019)**

Pilar ikastetxea gainbehera hasi zenean, astean arratsalde batzuetan eskolan geratu behar izaten ziren, umeei aparteko eskolak emateko. Dohainik izaten ziren eskola horiek, nahi zuen edonorentzat. 2010ean itxi zen ikastetxea.

### **1.038. Bergarako UNEDera, euskaraz alfabetatzera (SOR-119/021)**

Magisteritza ikasketak gaztelaniaz egin zituenez, gerora euskaraz alfabetatzen ibili zen Bergaran, UNEDen. Ikastetxeko lana amaitu eta gero joaten zen. Ume txikia zuen orduan eta nola moldatzen zen kontatzen du. Batzuek liberatuta egoten ziren, titulua atera bitartean.

### **1.039. Pilar ikastetxeko hasierako soldata (SOR-119/022)**

Pilar ikastetxean zuzenean kontratatzen zituzten irakasleak. Gogoan du hasierako urteetan Soraluzetik joaten ziren hiru irakasleak zein pozik itzultzen ziren soldata jasotzen zutenean. 1800 pezeta izango zirela uste du. Orduan ez zen soldata ona, klase partikularrekin ia gehiago irabazten zuten. Berehala hasi zen soldata hobetzen.



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com